

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Soziologia eta Gizarte Langintza Saila

Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendu gisa (1958-1968)

Egilea: Onintza Odriozola Irizar

Zuzendaria: Julen Zabalo Bilbao

2016

Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendu gisa (1958-1968)

Eskerrak

Julen Zabalo Bilbaori, doktore tesi honen zuzendariari, ikerketa honen bidea aurkitzen eta argitzen laguntzeagatik. Nora ezean ibili naizenean, gidari-lana hain ondo egiteagatik.

Ikerketarako elkarrizketatu zaituztedan lagunoi, zuen ezagutza eta esperientzia nirekin partekatzeagatik eta nire bidea aberasteagatik.

Xangari eta Aiurri, amari eta aitari HAINBESTE laguntzeagatik.

Eta baita ere, modu bateko edo besteko laguntza eman didazuen guztioi, hemen ez zaudetenok barne.

Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendu gisa (1958-1968)

Ikerketa lan honek Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzak euskarazko tesia egiteko ematen duen diru-laguntza jaso du, 2011ko urtarriletik 2011ko urrira arte.

Aurkibidea

Sarrera: ikerketa hau zertarako, zergatik eta nola	11
I. Nazio diskurtsoa eta nazio mugimendua nazioen (berr)eraikuntzan	15
1. Nazionalismoaren ikerketaren bilakaerari gainbegiratua.....	15
1.1. XVIII. eta XIX. mendeak: nazionalismoaren ideia agertu zenekoa.....	15
1.2. 1914-1945: nazionalismoa ikergai akademiko bihurtu zenekoa	17
1.3. 1945-1970: nazionalismoaren gaineko eztabaida zabaldu zenekoa	17
1.4. 1970etik gaur egunera: eztabaida "klasikoa" gainditzeko saiakerak.....	19
2. Nazionalismoaren <i>eskolak</i>	21
2.1. Paradigma primordialista.....	22
2.2. Paradigma perenialista	24
2.3. Paradigma modernista	26
2.4. Paradigma etnosinbolikoa	32
2.5. Feminismoaren ekarpena.....	36
3. Nazionalismoaren helburua: nazio autonomia, identitatea eta batasuna (berr)eraikitzea	37
3.1. Nazio eraikuntza, berreraikuntza edo berrinterpretazioa.....	38
3.2. Nazioen (berr)eraikuntzak, prozesu generizatuak.....	47
4. Nazio (berr)eraikuntzarako faktoreak eta agenteak: nazio diskurtsoa eta nazio mugimendua.....	51
4.1. Nazio (berr)eraikuntzarako faktoreak: nazionalismoaren ideologia eta diskurtsoa	52
4.2. Nazio (berr)eraikuntzarako agenteak: elite intelektuala eta nazio mugimendua...	64
II. Abertzaletasun etnikoaren nazio diskurtsoa eta nazio mugimendua	73
1. XIX. mendearen amaierako testuingurua: abertzaletasuna sorrarazi zuten faktoreak..	73
2. Abertzaletasun etnikoaren nazio diskurtsoa	78
2.1. Sabino Aranaren ideologiaren oinarriak	78
2.2. Sabino Aranaren ondorengoen diskurtso abertzalea (1903-1936)	90
3. EAJren inguruko mugimendua	94
4. 1936ko gerra ondoko testuingurua.....	104

4.1. Ekinen eta ETAREN sorreran eragin zuten faktoreak.....	104
4.2. Ekinen (1952) eta ETAREN sorrera (1958).....	107
4.3. ETAREN bilakaera: biltzarrak eta joerak.....	109
III. ETAREN nazio diskurtsoa: euskal nazioaren berpizkundetik euskal nazio iraultzailera	113
1. Metodologiaren azalpena	114
1.1. Ikuspegi epistemologikoa eta metodologikoa: ikerlariaren ubera.....	114
1.2. Ikergaiaren mugatze-lana: mehatxuak eta aukerak.....	118
1.3. Metodo kualitatiboa	121
1.4. Informazioa jasotzeko eta analizatzeko prozedura	125
2. Ekinen eta ETAREN trantsizioko diskurtsoa (1952-1962)	129
2.1. Sustrai historikoen bila: abertzaletasuna birsortzeko ahalegina	130
2.2. Europar Federazioaren ikuskera	132
2.3. Nazio erresistentziaren erantzukizuna.....	134
2.4. Segurtasun arauak.....	136
2.5. Abertzaletasuna, nazio nortasuna eta euskara	138
2.6. Ekintza-metodoak	145
2.7. Nazio mugimenduekiko interesa	147
2.8. Euskal Herriarentzako eredu politiko, ekonomiko eta soziala	149
2.9. Akonfesionaltasuna.....	154
3. ETAREN I. Biltzarra (1962): inflexio puntua	156
4. ETAREN nazio diskurtsoaren errotze-aldia (1962-1968)	161
4.1. Akonfesionaltasuna eta eliza-hierarkiari kritika	161
4.2. Sustrai historikoen bila: abertzaletasuna birsortzeko oinarria.....	166
4.3. Nazio askapena: hizkuntzan eta kulturaren oinarritutako naziotasuna. Independentzia eta autodeterminazioa	171
4.4. Askapen soziala: kristau-pertsonalismoetik iraultza sozialistara	186
4.5. Estrategia politikoa: euskal iraultza	197
4.6. Abertzaleen Batasuna eta masa abertzaletasuna sustatzeko diskurtsoa	209
4.7. ETAREN genero diskurtsoa: kultur igortzailearen roletik subjektu militanterara	216
4.8. Immigrazioari buruzko ETAREN diskurtsoa: integrazioaren bila	225
4.9. ETAREN tesi antikolonialista	233
4.10. Ipar Euskal Herriari buruzko ETAREN diskurtsoa	238

4.11. Elite intelektualari buruzko ETAREN diskurtsoa.....	242
5. ETAREN V. Biltzarra (1966-1967): heldutasun politikoa	248
IV. ETA mugimendua: euskal nazioaren berpizkundetik euskal nazio iraultzailera	255
1. ETA mugimenduko kideen jatorri soziala eta kontzientzia politikoa.....	256
1.1. ETA mugimenduko kideen jatorri soziala.....	256
1.2. ETA sortzeko eta ETA mugimenduan sartzeko motibazioa	266
2. ETA mugimenduaren eta euskara/euskal kultura sustatzeko mugimenduaren arteko harremana	279
3. ETA mugimenduaren eta langile mugimenduaren arteko harremana.....	301
4. ETAREN fronte militarren inguruko sarea.....	321
5. Masa abertzaletasunaren susperraldia eta Fronte Abertzalea.....	344
6. ETA mugimenduko emakumezkoen militantzia.....	353
7. ETA mugimenduaren eta Ipar Euskal Herriko abertzaleen arteko harremana	374
8. ETA mugimenduaren inguruko apaizen sarea.....	395
9. ETA mugimenduaren ekarpena militanteen ahotan	404
V. Ondorioak: ETA mugimendu bihurtua	413
VI. Bibliografia.....	431
VII. Eranskinak.....	447
1. eranskina: Ekinek eta ETAK 1952 eta 1968 urteen artean argitaratu zituzten koadernoen zerrenda.....	447
2. eranskina: ETAREN nazio diskurtsoa aztertzeke kategoriak.....	449
3. eranskina: ETA mugimendua aztertzeke kategoriak	450
4. eranskina: Elkarrizketatuen identifikazio-zenbakia eta profila.....	451

Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendu gisa (1958-1968)

Sarrera: ikerketa hau zertarako, zergatik eta nola

ETAk herri mugimendu gisa jardun zuen edo ez aztertu nahi genuke. Horixe da ikerketa honen xede nagusia. Ikerketa honetan darabilgun hipotesiaren arabera, ETAk nazio mugimendu gisa jardun zuen 50eko eta 60ko hamarkadetan. Askapen nazionala eta askapen soziala estrategia iraultzailean uztartuta abertzaletasunaren ordura arteko nazio ikuskera berri zuela esan genezake. Hartara, estrategia integrala eraiki ahal izateko jendarteko ahalik eta esparru gehien erakartzen ahalegindu zen bere nazio proiektura. Eta diskurtso eta estrategia hari zerion bulkadaren testuinguruan nazio askapenaren eta askapen sozialaren aldeko ekimen ugari jarri zen abian Euskal Herrian, nola maila soziopolitikoan hala maila kulturean. Ekimen-sare hura ETArekin batera edo ETAREN inguruan artikulatu zen nolabait: *ETA mugimendua* osatu zuen gure iritziz.

Hori frogatu ahal izateko ETAREN inguruan garatu zen praxia eta harreman-sarea (guk *ETA mugimendua* deitu dioguna) ikertzea da gure asmoa. Sare hark Euskal Herriko hainbat erakunde eta mugimendurekin izan zituen loturak nolakoak izan ziren ulertzea ere ezinbestekoa iruditu zaigu. Eta, noski, ETA mugimenduak ekarri zituen berritasunak identifikatu eta hobeto ulertzeko argigarria iruditu zaigu, halaber, aurreko mugimendu abertzalearekin konparatzea. Mugimenduaren zer nolakoak analizatzeko garrantzi handia eman diogu aurretik ETAk ondu zuen *diskurtsoa* aztertzeari; izan ere mugimendu sozial orotan diskurtso ideologikoak zehazten du neurri handi batean mugimenduaren norabidea, berak ezaugarritzen baititu mugimenduan gorpuzten diren oinarritzko printzipioak, ideiak eta helburuak.

Ikergaia kronologikoki mugatzerakoan Ekinen sorrera urtean (1952) jarri dugu hasierako mugarrria eta amaierakoa, berriz, 1968an: zehazki, Ekinen urteak (1952-1958) eta ETAREN lehen hamar urteak (1958-1968) aztertu ditugu. Ekinen eta ETAREN artean lotura organikoa, ideologikoa eta estrategikoa izan zelako erabaki dugu ETA Ekinen jarraipen gisa aztertzea.

ETAri buruz egin diren ikerketetan gai batzuk beste batzuk baino gehiago sakondu dira: hala, ETAREN ideologiari eta strategiari buruzko historia politikoa gailendu zaio ETAREN historia sozial eta kulturalari. Gure ustez, ordea, garrantzitsua da oso eremu sozial eta kultural hori ere ikertzea; hanka motz geratuko ginateke, bestela, abertzaletasuna, oro har, eta ETA, bereziki, ideologia edo mugimendu *politiko* soil gisa interpretatuko bagenitu. Horregatik erabaki dugu hain zuzen ETAREN sorrerari eta bilakaerari argazki osoago bat atera ahal izateko ETA mugimendu soziopolitiko eta kultural gisa hautematea eta bere esparru politikoan, ideologikoan, sozialean eta kulturalean arreta ipintzea.

Ikerketa eremutik kanpo ere, iruditzen zaigu, bere borroka armatura (eta neurri txikiagoan ideologiara) mugatu ohi dela ETA. Baina, betiere gure ikuspegitik, ETAri buruz jendarteratzen den diskurtso horrek izebergaren zati ikusgarriena besterik ez du aintzat hartzen. Ikerketa honetan izozmendiaren urpeko alderdia erakusten saiatu nahi genuke: hots, ETAK bere jarduera armatutik haratago izan zuen eragin eta oihartzun soziopolitiko eta kulturala. Horrek eraman gaitu ikerketa honen abiapuntura: gure ustez, ETAREN eragin zabalago hori aztertzea ezinbesteko mugarrria da Euskal Herriaren bilakaera ulertu ahal izateko.

Ikuspegi kualitatibotik egin dugu ikerketa eta, begirada horren talaiatik, lan teorikoa eta enpirikoa uztartu ditugu. ETAREN nazio diskurtsoa eta nazio mugimendua modu koherente batean azaldu ahal izateko, noski, beharrezkoa izan zaigu lehendabizi oinarri teoriko bat garatzea. Ikertzaile eta saiogile esanguratsuen ekarpenak erabili ditugu ikerketaren erreferentzia teorikoa osatzeko. Horrez gain, Ekinek eta ETAK ekoitzi zuten dokumentu idatzien azterketa zorrotza eta sistematikoa egin dugu. Diskurtsoa aztertzeari garrantzi handia eman badiogu ere, ETA mugimenduaren praxia eta bere barne eta kanpo harremanak ikertzeko ez da nahikoa izan ETAREN dokumentu idatziak aztertzea; horregatik erabili dugu, hain zuzen, elkarrizketa sakonaren teknika. Elkarrizketetatik jaso dugun informazioa izan da, horrenbestez, ikerketa honen ekarpen nagusia.

ETA mugimendu soziopolitiko eta kultural gisa aztertu ahal izateko, analitikoki eta metodikoki erabaki dugu ETA *erakundea* eta ETA *mugimendua* bereiztea. Bien artean bereizketa erreal zurrunik egitea zaila den arren, erakundearen zer-nolakoa talde organiko mugatu edo itxi gisa ulertzen dugu, eta mugimendua berriz, erakunde-egitura gaituzten duen antolaketa eta harreman-sare gisa. Horrenbestez, bereizketa hori kontuan hartuz, ikerlanean ETAz edo ETA *erakundeaz* hitz egiten dugunean ETArekin talde egitura organikoa hartuko dugu subjektu gisa. Aldiz, ETA *mugimendua* kontzeptua darabilgunean erakunde-egituratik haratago doan subjektu zabalago bati egingo diogu erreferentzia. Azken adiera horretan ETA erakundea bera sartuko litzateke, batetik, eta erakundeko militante *ofizialak* izan gabe haren inguruan antolatu ziren aktoreak eta ekimenak, bestetik.

Lau kapitulutan banatu dugu tesia. Lehendabiziko kapitulua nazionalismoaren teoriei eta kontzeptuei eskaini diegu. Hasteko, nazionalismoaren ikerketaren bilakaerari egin diogu gainbegiratu. Nazionalismoa interpretatzeko ikertzaileen artean sortu diren paradigmei ere eskaini diegu arreta. Prozedura hori hautatu ondoren, paradigma modernista, etnosinbolista eta feministaren ekarpen batzuekin bat eginda nazio (berr)eraikuntzaren auzia izan dugu hizpide. Eta, azkenik, nazio (berr)eraikuntzarako faktoreak (ideologia, diskurtsoa eta sinbologia) eta agenteak (elitea eta mugimendua) analizatu ditugu.

Bigarren kapitulua abertzaletasunaren historiari eskaini diogu. Lehenik eta behin, EAJren abertzaletasun etnikoa sorrarazi zuten faktoreetan erreparatu dugu. Ondoren, Sabino Aranak formulatu zuen nazio diskurtsoa eta diskurtso horrek 1936ko gerrara arte izan zuen bilakaera aztertu ditugu. ETA mugimendua bere aurreko mugimendu abertzalearekin konparatu ahal izateko, EAJren inguruan antolatu zen nazio mugimendua analizatu dugu jarraian. Eta, bukatzeko, hurrengo bi kapituluei sarrera egiteko, ETArekin abertzaletasun iraultzailea sorrarazi zuten faktore edo kategoriak azaldu ditugu.

Hurrengo bi kapituluak, berriz, ETAREN ekarpenari eskaini dizkiogu. Hirugarren kapituluaren ikerketa honetarako erabili dugun metodologia azaldu dugu lehendabizi. Ondoren, ETAREN aurretik Ekin taldeak eta gero ETAK berak ekoiztutako dokumentu idatzien azterketa burutu dugu. Dokumentu horietan eta zenbait teorialariren ekarpenetan oinarrituta, Ekinen eta lehen urteetako ETAREN trantsizioko diskurtsoa aletu dugu hasteko. Jarraian, ETAREN I. Biltzarrari eskaini diogu arreta, ETAREN diskurtsoaren bilakaeran inflexio puntua izan baitzen hura. Segidan, ETAREN errozte- eta hedatze- garaiko diskurtsoaren ezaugarriak aztertu ditugu. Eta kapitulua ixteko V. Biltzarrari eskaini diogu atal bat, hortxe lortu baitzuen ETAREN diskurtsoak heldutasun politikoa.

Laugarren kapituluaren ikerketa honetarako berriaz egin ditugun elkarrizketetan lortu dugun informazio esanguratsuen aurkeztu dugu. ETA mugimenduaren barne logika ulertu ahal izateko ikerketa-kategoria batzuk identifikatu ditugu eta orobat kategoria horiek kontuan hartuz elkarrizketetan bildutako informazioa analizatu dugu. Bukatzeko, azken atal batean, ikerketa prozesutik atera ditugun ondorio nagusiak azaldu eta xehatu ditugu.

I. Nazio diskurtsoa eta nazio mugimendua nazioen (berr)eraikuntzan

1. Nazionalismoaren ikerketaren bilakaerari gainbegiratua

Gizarte zientzialariei garaian garaiko gertaera sozialetatik sortzen omen zaizkie galderak. Gauza bertsua esan genezake nazionalismoaren kasuan ere: nazionalismoaren ikerketa aldian aldiko testuinguruak baldintzatu du, neurri handi batean. Atal honetan nazionalismoaren ikerketak izan duen bilakaera hartuko dugu ahotan eta bidenabar bilakaera horretan mugarri izan zaizkion gertaera historikoekin lotuko dugu.

1.1. XVIII. eta XIX. mendeak: nazionalismoaren ideia agertu zenekoa

XVIII. mendearen amaieran agertu zen lehen aldiz *nazionalismo* kontzeptua esanahi politiko eta sozial garbiarekin. Baina egun egozten zaizkion esanahiak¹ XIX. mendearen amaieraz geroztikoak dira, eta, hain zuzen, orduan agertu ziren lehendabiziko ikerketak ere.

Nazionalismoaren ikerketaren mugarri esanguratsuak aipatzen hasita, AEBen *Independentzia Gerrak* (1775-1783) eta *Frantziako Iraultzak* (1789-1799) nazionalismo oldea ekarri zuten atzetik. Bateratze-prozesuen ondorioz, hainbat estatu jaio zen Europan XIX. mendean: Italia (1861) eta Alemania (1871), beste batzuen artean. *Nazionalismoen aroa* izena hartu dute gertaera horiek guztiek. Ordutik 1914 urtera arteko lanak aztertuz gero, lan sistematiko gutxi argitaratu zela ohartuko gara. Ez zen alegia auzi horren inguruko teorizazio handirik egin. Idatzi zen apurra historialariek idatzi zuten, eta nazionalismoaren gaineko azterketa etikoa eta filosofikoa egin zuten gehienbat. Stuart Mill, Renan, Acton eta beste hainbat

¹ Aurrerago zehaztuko ditugu.

autorek nazionalismoaren gaineko doktrinaren merituetan eta gabezietan jarri zuten arreta. Edonola ere, nazionalismoarena ez zen oraindik autonomia osoko ikergaia, nazio estatuen historiaren barruan aztertzen baitzuten, nazio estatuen sortze-prozesuekin lotuta alegia (Smith, 1976, 355-356 or.; 2000, 305-306 or.).

1914 urtearen aurretik eskola marxista ere nabarmendu zen auzi honetan². Marx-ek eta Engels-ek nazioaren teoria marxistarik garatu ez bazuten ere, ondorengo batzuek arreta handiz jarraitu zituzten Europaren ekialdeko nazio estatuen sorrera-prozesuak (Polonia, Bulgaria, Serbia eta abarrena). Hala, Lenin, Renner, Otto Bauer³ eta Stalin-ek gaiaren gaineko idatziak eta hausnarketak egin zituzten. Abiapuntu ezberdinetik abiatu baziren ere, eta ondorio ezberdinak atera zituzten arren, bat zetozen auzi batean bederen: hau da, marxismo ortodoxoak nazioekiko eta nazionalismoarekiko izan zuen gaitzespen jarrera⁴ aldatu egin behar zutela. Gaitasun sozial handia aitortu zioten nazionalismoari eta, horretaz gainera, nazioen eraikuntza edo berreraikuntza prozesuetan langile klasea partaide izan behar zela defendatu zuten. Aipatzekoa da, bestalde, ordura arteko azterketak Europatik eta Europaz egin zirela⁵ (Smith, 1976, 355 or.; Poulantzas, 1979, 109-113 or.; Mees, 1992, 13-14 or.).

² Smith-ek dio pentsalari marxisten hausnarketak izan zirela luzaroan nazionalismoa soziologiatik azaltzeko saiorik argienak (1976, 355 or.).

³ Austromarxistek (Renner eta Otto Bauer-ek bereziki) egiazko balioa aitortu zioten nazionalismoari: estatu kapitalistak bere baitan nazio bat baino gehiago izan zitzakeela defendatu zuten (Austria-Hungariako Inperioa nazio anitzekoa zenez gero). Eta garrantzi handia aitortu zioten nazio kulturaren errealitateari eta hizkuntzen berezitasunari (Poulantzas, 1979). Nazio estatuei eta nazionalismoari buruzko lehenbiziko ikerketa marxistatzat hartu izan da Otto Bauer-en *Die Nationalitätenfrage und die Sozialdemokratie* (1907) saiakera (Bottomore, 1983, Özkirimlik aipatua, 1999, 31 or.).

⁴ Nazionalismoa "kontzientzia faltsua" zen marxismo ortodoxoarentzat: alegia, langile klasearen kontra jarduteko burgesiak asmatutako ideologia (Poulantzas, 1979).

⁵ Beste esparru askotan bezala nazionalismoaren ikerketan ere Europara begira egindako ikerketa nagusitu zen nabarmen. Ikuspegi eurozentriko hura hausteko saiakeren artean, ikus, besteak beste, Anderson (1993) eta Connor (1998).

1.2. 1914-1945: nazionalismoa ikergai akademiko bihurtu zenekoa

Lehen Gerra Handiaren testuinguruan, nazio estatu gehiago sortu zen Europan: Austriaren eta Hungariaren Herri Errepublikak eta Txekoslovakia, besteak beste. Orduan hasi ziren bada teoriarik nazionalismoa ikergai esplizitu gisa hartzen, eta jarrera *neutralagoa* hartu zuten gaiarekiko. Seton-Watson, Kohn, eta Hayes historialariak nabarmendu ziren batik bat. Historiaren esparrutik soziologiaren esparrura pasatu ziren pixkanaka eta *doktrina* gisa definitu zuten nazionalismoa. Edonola ere, autore horiek ikuspegi eurozentrikoari eta estilo narratibo eta kronologikoari eutsi zioten artean. Psikologiaren eremutik ere ausartu zen ikertzaile bat baino gehiago talde sentimendua aztertzen (Smith, 1976, 355 or.).

Behin Lehen Gerra Handia bukatu zenean nazionalismo eskuindarrak nagusitu ziren Europan: hala nola Italian, Alemanian, Espainian, Hungarian eta Errumanian. Horregatik edo, *nazionalismoaren faxistizazioaren garaia* deitu izan diote autore batzuek (Fusi, 2003, 83 or.). Faxismoaren indartzeak suspertu egin zuen oro har gaiarekiko ikerketa. Kontua da doktrina autoritarioekin eta kontserbadoreekin lotu zutela gehienbat garaiko ikerlanek nazionalismoa (Smith, 1976, 355 or.; Özkirimli, 1999, 47 or.).

1.3. 1945-1970: nazionalismoaren gaineko eztabaida zabaldu zenekoa

1.3.1. Afrikako eta Asiako kolonien askapenerako prozesuak

Bi gerra handien artean goia jo ondoren, nabarmen gutxitu ziren Europako aldarrikapen nazionalistak Bigarren Mundu Gerraren ondoren⁶. Izan ere, Europako nazionalismoen sukarra kolonizatutako herrietara hedatu zen eta 60ko hamarkadaren erdialdean iritsi ziren mailarik gorenera deskolonizazio prozesuak⁷.

⁶ Esanguratsua da Carr-ek 1945ean argitaratu zuen liburuaren izenburua: *Nationalism and After*.

⁷ Hamabi urteren buruan (1956-1968) 49 estatu berri sortu ziren (Jauregi, 1981, 196-197 or.).

Afrikako eta Asiako estatu berriek independentzia lortu ahala⁸, ikerketaren hirugarren garaia etorri zen, ikerketaren garairik oparoena hain zuzen. Politologo estatubatuarrek Afrikako eta Asiako sistema politikoak ikertzen hasi ziren: Apter, Coleman, Geertz eta Emerson, besteak beste. Europara begira soilik egindako ordura arteko ikerketa zabaldu egin zuten horrela. Ideologiak nazioen eraikuntzan (*nation-building*-ean) betetzen duen funtzioan jarri zuten arreta bereziki. *Nation-building*-aren formulazioak, bere aldetik, ekonomialariak eta hizkuntzalariak erakarri zituen nazionalismoaren ikerketa eremura: adibidez, Afrikako eta Asiako nazioen ekonomia-hazkundera eta hizkuntzaren modernizazioa ikertzeari ekin zioten batzuek (Smith, 1976, 355-356 or.; Özkirimli, 1999, 48-49 or.).

Horrez gain, Vietnameko, Kubako eta Txinako "komunismo nazionalak" neomarxisten argumentu soziologikoak hauspotu eta garatu zituzten. Masa komunikabideak lurralde horietan hedatu izanak "komunikazioaren gaineko teorialarien" artean nazio sinboloekiko interesa piztu zuen, halaber. Horrekin batera, ikuspegi historiko tradizionalari eutsi zioten espezialisten uzta emankorra ere azpimarratzekoa da: hala, historia modernoa nazio estatuaren oinarrien gainean ikertzen segitu zuten. Batzuek historia ekonomikoan eta sozialean jarri zuten arreta, eta beste batzuek historia konbentzionala egiten jarraitu zuten, politikan eta diplomazian oinarritutako historia. Nazio kolonizatuen ikerketa, berriz, antropologoen esku geratu zen, eta kolonizazioaren aurkako mugimenduetako pentsalariek ere ekarpen garrantzitsuak egin zituzten. Tesi antinperialistekin eta marxistekin bat egin zuten gehienek⁹ (Smith, 1976, 356 or.; Breuilly, 2008, 28 or.).

1.3.2. Europako nazio askapenerako mugimenduak

Afrikako eta Asiako nazio askapenatarako mugimenduen jardunak eragin handia izan zuten Europako nazionalismoen susperraldian. Berehala iritsi zen uhin hura

⁸ Nazionalismoaren hirugarren uhina deitu izan dena.

⁹ Fanon-en obra nabarmendu zen, *Les damnés de la terre* (1961) batez ere. Nazio kolonizatuen egoera iraultzeko nazionalismo iraultzailearen eta borroka armatuaren alde egiten zuten bertan.

Europara eta mugimendu nazionalistak sortu edo berpiztu zituen¹⁰. Laugarren aro honi *uhin etnonazionalista* deitu izan zaio. Europaren Mendebaldeko estatuetan hartu zuen indarra eta gehienetan mugimendu ezkertiarrek bultzatu zuten: esaterako, Ipar Irlandan, Eskozian, Britainian, Quebecen eta Euskal Herrian¹¹. Nazionalismo berria estatuaren egituretan baino areago, jendarte mugimendu indartsuetan sortu zela azpimarratu behar genuke. Nazionalismo berriek, bistan da, ikerketa eremua irauli egin zuten: hartara, estatu nazionalismoak monopolioa galdu zuen eta nazionalismoa estaturik gabeko nazioen doktrina ere *bihurtu* zen (Breuilly, 1990; Nuñez Seixas, 1998).

Nolanahi ere, 1960ko hamarkadan nazionalismoak ez zuen interes handiegirik pizten Europako ikerketa eremuetan. Historiagileek interes handiagoa erakutsi zuten historia soziala¹² egiteko. Dena dela, Gellner-en ekarpena salbuetsi beharko genuke basamortu intelektual horretan. Gainera, egile hau nazionalismoaren ordura arteko ikusmoldetik urrundu egin zen eta nazionalismoa modernismoaren funtzio gisa aztertu zuen. Bestalde, nazioen arteko ezberdintasunak azaltzeko ez zen arrazaren, genearen edo ingurunearen faktoreetan oinarritu; haien antolaketan eta kulturean zurkaiztu zuen bere analisia (Breuilly, 2008, 28 or.).

1.4. 1970etik gaur egunera: eztabaida "klasikoa" gainditzeko saiakerak

1970eko hamarkadaren hasieran, Mendebaldeko nazio estatuaren ikerketa eta diskurtsoa nagusitu zitzaion nazio anitzeko estatuez mintzo zen joerari. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, nazionalismoa zaharkituta geratu zela eta modernitatean arriskutsua zela argudiatu zuen hark. Testuinguru ideologiko hartan ikertzaile askok etorkizuneko Europako identitateak nazioz eta estatuz gaindikoak izango zirela aurreikusi zuen. Estatu komunistetako nazionalismoei buruzko ikerlariak, beren

¹⁰ Fanon-en (1961) lanak eragin handia izan zuen mugimendu haietan (Jauregi, 1981).

¹¹ Orduan sortu zen ETA mugimendua.

¹² Gizarte zientzialari askorentzat oso larria zen nazioa klasearen gainetik jartzea, edo nazionalismoari sozialismoari baino garrantzi handiagoa ematea (Breuilly, 2008, 28 or.).

aldetik, ondorioztatu zuten masek proletario internazionalismoarekin bat egin zutenez, nazionalismoaren fenomeno azalekoa zela estatu haietan eta zaharkitua geratu zela (Connor, 1998).

Afrikako eta Asiako estatuei buruzko ikerketek ere ez zuten, oro har, etnia heterogeneotasuna aintzat hartu. Onenean ere fenomeno iragankortzat jo zuten etnien eta nazioen biziraupena. Deskolonizazioaren ondotik sortu ziren estatuen ikerketan indarra hartu zuen *national building* formulazioak. Ikerketa teoriko gutxi topatuko dugu nazioen eraikuntzaren paradigmatik at. Salbuespenak salbuespen¹³, nazioen historiaren ereduari jarraitzen zioten ikertzaileek eta politologiaren eremuan egiten zuten ia dena (Breuilly, 2008, 33 or.).

70eko mundu mailako ekonomia-krisia eta ezegonkortasun politikoa zirela eta, aldatu egin zen klima intelektuala: hala handitu egin zen estaturik gabeko nazionalismoarekiko interesa. Neo-marxistek faktore ekonomikoaren rola azpimarratu zuten eta horrek eragin handia izan zuen ikerketaren eremuan. Irlandar nazionalismoa berpiztu egin zen Ulsterren 1969tik aurrera eta, ildo berean, eskoziar nazionalismoak hainbat arrakasta politiko lortu zituen. Testuinguru hartan idatzi zituzten Hechter eta Nairn-ek¹⁴ Britainia Handiaren hausturari buruzko lanak. Kataluniarren eta euskaldunen aldarrikapenak ere pil-pilean ziren 80ko hamarkadan. Quebectarrek ere erronka handia bota zioten Kanadaren lurralde-batasunari, eta Belgikako, Galeseko eta beste hainbat tokitako mugimenduak ere indartu egin ziren (Özkirimli, 1999, 55 or.; Breuilly, 2008, 33-34 or.).

Orduan ezarri zituzten Armstrong eta Smith-ek¹⁵ etnosinbolismoaren oinarriak. Orobat, ikuspegi modernistaren klasiko bihurtu den *Nations and Nationalism* obra 1983an argitaratu zuen Gellner-ek. Urte berekoak dira ikuspegi konstrukzionistatik

¹³ Ikus Smith (1976) eta Connor (1978). Nazioen eraikuntzaren eskolaren teoria kritikatu zuen Connorrek bertan.

¹⁴ Ikus Hechter-en *Internal Colonialism: The Celtic Fringe in British National Development, 1536-1966* (1975) eta Nairn-en *The Break-up of Britain* (1977).

¹⁵ Ikus Armstrong-en *Nations before Nationalism* (1982) eta Smith-en *The Ethnic Origins of Nations* (1986).

idatzitako Anderson-en, eta Hobsbawm eta Ranger-en¹⁶ obrak ere. Ikerketa horiekin nazionalismoaren eztabaida mailarik gorenera heldu zen (Özkirimli, 1999, 55 or.). 80ko hamarkadaren amaieran eta 90ekoaren hasieran Sobietar Batasunaren eta Jugoslaviaren gainbeherak eta ezegonkortasun politiko eta ekonomikoak aldatu egin zuten, beste behin, klima intelektuala: izan ere, ikaragarri handitu zen nazionalismoarekiko interesa eta, aurreko joera hautsita, liburu ugari argitaratu ziren auzi horri buruz. Halaxe segitu du geroztik auzi horren gaineko interesak. Diziplina askotatik hurbildu dira ikerlariak nazionalismoaren azterketara eta horrek, noski, berrikuntza ugari ekarri dizkio (Breuilly, 2008, 58 or.).

Eta nazionalismoaren uhinak ez dira bukatu. Montenegrok 2006an independentzia eskuratu izanak eta Kosovok 2008an egin zuen independentzia-deklarazioak mahai gainean jarri ditu berriro estatu soberania lortu nahi duten nazioen aldarrikapenak. Eskoziar, flandestar, kataluniar, galiziar, galestar eta euskaldunek ere sezesiorako eskubidea eskatu eta hura gauzatzeko ahalegindu dira, maila ezberdinetan bada ere. Nazio estatu berriak eraikitzeke estaturik gabeko nazioen aldarrikapenekin, badirudi, nazionalismo uhin berri batean sartu garela (Nuñez Seixas, 2008, 180 or.). Ikerketaren eremuak errealitate berri horiei ere erantzuten saiatu beharko du.

2. Nazionalismoaren eskolak

Smith-ek dio hiru antinomia gailendu direla nazioen eta nazionalismoaren ikerketan: nazioa "esentzia" versus nazioa "sorkari soziala"; nazioaren antzinatasuna versus nazioaren modernotasuna; eta nazionalismoaren kultura oinarria versus nazionalismoaren oinarri politikoa¹⁷. Auzi horiei eman dizkieten erantzunetatik

¹⁶ Ikus Anderson-en *Imagined Communities: Reflections on the Origins and Spread of Nationalism* (1983) eta Hobsbawm eta Ranger-en *The Invention of Tradition* (1983).

¹⁷ Hor kokatu behar genuke nazioaren ikuskera alemaniarraren eta frantziarraren dikotomia. XIX. mendearen bigarren erdian Treitschke eta Renan-ek izan zuten eztabaidaren oihartzunak mugarri garbi samarra jarri zuen XX. mendearen hasieran, "objektibisten" eta "subjektibisten" artean. Objektibistek alemaniar eredu jarraituz, kulturak, bereziki hizkuntzak, nazioen osaketan izan duen egitekoa nabarmentzen zuten. Subjektibistek, berriz, frantziar ereduari segituta, herri-borondatearen eta ekintza politikoaren zeregina nabarmentzen zuten nazioen eraketan. Aurrenekoek nazioa eta nazio identitatearen ernamuina X. mendean identifika litezkeela

teoriak sortu dituzte ikertzaileek. Nazionalismoaren teoria horiek hartuko ditugu mintzagai atal honetan, eta lau paradigma edo eskolatan sailkatuko ditugu (Smith, 2000, 2004): primordialista, perenialista, modernista eta etnosinbolikoa.

2.1. Paradigma primordialista

Nazioaren eta nazionalismoaren paradigmetan zaharrena hauxe dugu. Ilustrazioko idazleen filosofia "naturalistan" du jatorria: orduan sortu zen, hain zuzen, nazioen gaineko ikuspegi naturalista. Primordialistatzat jotzen den Geertz antropologo estatubatuarrak *primordial attachment* kontzeptua erabili zuen; euskaraz *jatorrizko lotura* gisa itzul genezake. Lotura horiek existentziak berak "ematen digunetik" eratortzen dira Geertz-entzat: senidetasun hurrenkeratik eta familia-loturetatik, batez ere. Atxikimenduaren iturritzat, erlijio-komunitate jakin batean jaiotzea ere aipatzen du, baita hizkuntza (edo dialekto) jakin bat hitz egitea ere, eta, azkenik, ohitura jakin batzuk izatea. Odol-loturek, hizkuntzak, ohiturek eta abarrek izugarri, zenbaitetan erabat, baldintzatzen dute gizakiaren jarrera Geertz-en ustez. Barnetik ez ezik (norbere identitatearen eraginez) kanpotik ere (jendarte-arauek eraginda) sorrarazten dute naziokide izateko ideologia eta sentimendua.

Geertz-ek etnizitatearekin lotu zituen jatorrizko loturak baina, egia esan, primordialisten artean joera ezberdinak egon dira. Autore batzuek jatorrizko lotura horien izaera "naturala" dela arrazoitu dute, naturatik jasotakoak direla (ikuspegi naturalista); beste batzuek, berriz, jatorri soziobiologikoarekin lotu dituzte, jendartearen eta biologiaren eremuarekin (ikuspegi soziobiologikoa); eta Geertz-entzat bezala hainbat autorentzat *jatorrizkotasun* hori kulturak eta etniak emandakoa da (ikuspegi kulturalista). Hiru joerak aipatuko ditugu labur-labur.

ondorioztatu zuten bitartean, bigarrenek XVIII. mendean, modernitatean, ezarri zuten nazioen eta nazio identitateen hasiera (Smith, 2000, 302-303 or.). Dikotomia horren kritikarako ikus Azurmendi (2014).

Rousseau-ren espiritu naturalistak¹⁸ berehala bereganatu zuen lekua nazioaren definizioan. Naturalisten ustez, nazio identitatea naturala da eta nazioen mugak naturalak dira, halaber: naturan leku jakin bat dute, eta izaera, helburu eta patu jakin batzuk (Özkirimli, 1999, 66-70 or.). Ilustrazioko filosofia arrazionalaren eraginez, ordura arte *jainkoak* errege-erreginei esleitu zien subiranotasuna nazioaren borondatean oinarritu zuen Frantziar Biltzarrak. Alemaniar ilustratuek eta erromantikoek, beren aldetik, norbanakoz osatutako gizateriaren ordeztu, herriek egituratutako gizateriaz hitz egin zuten: Herder-ek, adibidez, kulturaren oinarritu zuen herriaren espiritua¹⁹ (2004, 70 or.).

Beste autore batzuek soziobiologiaren eremuan izan diren aurkikuntzak etnien azterketan aplikatu dituzte. Van den Berghe izan da ildo berri horren adierazlerik garrantzitsua. Labur-zurrean esateko: etnia eta nazio loturen jatorria gizakiaren ugalketarako genetika-senean kokatu dute soziobiologoek, eta gizakiak senideetatik haratago genetika-ondarea handitzeko erabiltzen dituen estrategietan. Kultura taldea, hortaz, familia handi batekin parekatzen dute soziobiologoek, ahaidetasun-sare zabal batekin. Eta kultura sinboloak (hizkuntza, erlijioa, eta abar) biologia-kidetasunaren seinale dira taldearentzat. Van den Berghe-rentzat bat datoz etniaren sorrerako mitoak eta etniaren jatorri biologikoa²⁰ (Van den Berghe, 1995; Ozkirimli, 1999, 74 or.; Smith, 2004a, 70 or.).

Primordialismo kulturalak aurreko interpretazioak baino eragin handiagoa izan du nazioen ikerketan. Atal honen hasieran aipatu dugun bezala, primordialismo kulturala aldeztu duten autoreek (Shils eta Geertz nabarmendu ziren) kulturaren eragina nabarmentzen dute nazioen eta talde etnikoen sorreran: hartara, nazioak

¹⁸ Hirietako ustelkeria desagertzeko naturaren arauetara itzultzea proposatu zuen Rousseauk *Kontratu Sozialean*: hiriak sortu aurreko naturaren "errugabetasun" egoera berreskuratzea. Jendartea borondate orokorrean oinarritutako kontratu sozial baten baitan antolatzea proposatu zuen halaber.

¹⁹ Ikus Azurmendi, 2007.

²⁰ Connorren ustez, etnia baten sorrerarekin lotutako mitoek eta arbasoen benetako ahaidetasun-lerroek nekez egiten dute bat; nazioek, berez, etnia lerro eta jatorri bat baino gehiago izaten dute abiapuntuan (1998).

eta talde etnikoak gizakiok "kultura sinesmenei" diegun atxikimenduaren gainean sortu dira haien ustez. Gizarte industrialaren lotura zibil eta sekularrekin batera, lotura primordialek iraun egiten dutela frogatzen ahalegindu ziren bi autoreoko. Egun esentzialismoarekin eta naturalismoarekin lotzen du autore askok primordialismoa (ikus Brass, 1991). Smith-ek, berriz, dio ez dela zuzena Shils eta Geertz-en primordialismoa nazionalismo organikoarekin eta esentzialistarekin lotzea. Izan ere, lotura primordialak gizakien pertzepzioetan eta sinesmenetan oinarritzen dituzte: hau da, jatorrizko loturak "kultura suposizio" indartsuak bihurtzen dira gizakiek hala ikusten dituztelako, ez berez horrela direlako²¹ (2004: 71-72).

2.2. Paradigma perenialista

Smith-ek bereizi egiten ditu perenialismoa eta primordialismoa. Perenialismoa historialari batzuei dagokien paradigma da bere ustez, zehazkiago esateko zenbait *medievalistari*²² dagokiona. Smith-ek paradigma honen barnean sartzen dituen historialariek nazioak antzina-antzinakoak direla iradokitzen dute baina ez dute, nahitaez, nazioak *jatorrizko lotura* edo harreman "natural" batzuen ondorio direnik argudiatzen. Perenialisten ustez nazioak aspaldikoak dira: alegia, entitate *historikotzat* hartzen dituzte, beren berezko ezaugarriak gehiegi aldatu gabe mendez mende garatuz joan diren entitatetzat (Özkirimli, 1999, 68 or.; Smith, 2004a, 61 or. eta hurr.).

Ikuspegi perenialistak nazioen *continuumari* ematen dio garrantzia: hala, etenaldiak eta hausturak izan badirela onartzen badute ere, historia luze eta jarraitua izan dute oro har. Nazio batzuk Errenazimenduaz geroztikoak izan litezke, beste batzuk Erdi

²¹ Tilley-k dio Geertz-ek ez zuela idatzi lotura primordialak sakratuak zirenik. Baizik eta taldekideek aitortzen dietela odolari edo bestelako jatorrizko loturei "zentzu sakratu" hori; horrek batzen dituela bere imajinarioan. Kulturalisten ikuspegia norbanakoak sortzen duen "esanahi-sarean" oinarritzen da Tilley-ren arabera, eta ez *de facto* betierekoa den izaera sakratu batean (Özkirimlik aipatua 1999, 73 or.).

²² Erdi Aroaren bilakaera soziopolitiko eta kulturalera joan behar dugu nazioen eta nazionalismoaren sorrera ulertzeko, perenialisten iritziz; eta ez modernitateak ekarritako aldaketetara.

Arokoak, eta hainbatetan Antzinarora jo dute jatorri bila. Edonola ere, perenialistek nabarmendu nahi duten ideia behinena honakoa da: kultura taldeen identitatea eritmo motelean aldatzen dela, eta modernitatearen ekonomia-, politika-, kultura eta teknologia berrikuntzek ez dutela nazioaren oinarritzko estruktura, "esentzia", aldarazi²³ (Özkirimli, 1999, 68-69 or.).

Nazioen *continuum*arekin batera, *errepikapenaren ideia* ere agertzen da perenialista batzuen obran: hartara, autore horien arabera, nazioak eta etniak historiako garai orotan agertu dira behin eta berriro. Etnia eta nazio identitateak etengabe sortu eta birsortu dira historiaren *longue durée* denbora lerroan. Nazio zehatzak historikoak dira, bakoitzak historia konkretu bat bizi izan du. Baina *nazioa*, oro har, elkarte-kategoria gisa betierekoa da: izan ere, historiaren garai guztietan agertu da behin eta berriro, eta munduko bazter guztietan (Smith, 2004a, 69, 178 or.).

Perenialismoaren ordezkari gisa, Llobera eta Hastings aipa ditzakegu (Özkirimli, 1999, 69-70 or.). Llobera-k dio Erdi Aroan sortu zirela nazioak; nazionalismoa fenomeno moderno dela esatea, erredukzionismo ikaragarria egitea da bere ustez. "Gehiegi garatu gabeko nazio identitatea" izanda ere, ohartarazten du Llobera-k, Erdi Aroan bazen dagoeneko halako nazio zentzu bat. Kultura eta lurralde-estruktura aurremodernoek, epe luzera, Europako nazio modernoek zimentarriak jarri zituztela arrazoitzen du, funtsean (1996).

Nazio kontzientziaren eta nazionalismoaren zantzu batzuk identifikatzen ditu Hastings-ek XIV. mendeko Ingalaterran: hala nola ingelesez idatzitako idazkera berpiztu zenean, eta Frantziaren kontra egindako *Ehun Urteko Gerrak* eragindako presioen testuinguruan. Gero garatu eta sendotu, XVI. eta XVII. mendeetan sendotu zen nazionalismo ingelesa. Bi elementu identifikatu zituen Hastings-ek (2000, 15-16,

²³ Smith-en ustez, alderantziz gertatu da: nazioek eta nazionalismoek sorrarazi dute modernitatea (2000).

42 or.) naziotasunaren sorreran: batetik, herri-hizkuntzan idatzitako obra hedatu samar bat izatea²⁴ eta, bestetik, erlijioaren eragina²⁵.

2.3. Paradigma modernista

80ko hamarkadatik aurrera gero eta kritika gehiago jaso duen arren, modernisten paradigma da gaur-gaurkoz nazioen eta nazionalismoaren ikerlerro nagusia. Gorago aipatu dugun bezala, 60ko hamarkadan deskolonizazio-prozesuek goia jo ondoren, nazio fenomenoaren ikerketa asko handitu zen denbora gutxian: izan ere, deskolonizazio prozesuen ondorioz, *nation-building*-aren eredia nagusitu zen gizarte zientzietan (Deutsch, 1963; Özkirimli, 1999; Smith, 2000). Testuinguru hartan agertu ziren ikuspegi modernistaren lehen lanak: Kedourie-ren *Nationalism* (1960) eta Gellner-en *Thought and Change* (1964). Kedourie-k gogor kritikatu zuen nazionalismoa eta bere ekarpena mugarri bihurtu zen eztabaida teorikoaren plazan (Özkirimli, 1999, 52 or.).

Modernisten iritziz, nazioa eta nazionalismoa fenomeno modernoak dira: hala, Frantziako Iraultzaren ondotik agertu ziren XVIII. eta XIX. mendeetan, nazio estatuaren sorrerari lotuta. Kapitalismoa, industrializazioa, urbanizazioa eta sekularizazioaren gisako prozesuekin lotzen dute haien sorrera; diotenez, prozesu horien aurretik gertaezinak ziren nazioa eta nazionalismoa. Primordialisten eta perenialisten iritziaren kontra, modernisten ustez nazioak nazionalismoak sortu eta asmatu dituen entitate modernoak dira (Smith, 1995, 29 or.; 2004, 63-67 or.; Özkirimli, 1999, 85 or.).

²⁴ Bide horretan, Hastings-en ustez, mendebaleko herri kristauen nazio sentimendua sortzeko eta garatzeko faktore erabakigarria gertatu zen Biblia Vulgata deitutakoa herri-hizkuntzetara itzuli izana, eta herritarrei egunero ez bazen aldizka irakurri izana (2000, 42 or.).

²⁵ Erlijioak etnizitatean eta nazioen eraikuntzan funtzio ezberdina bete duela onartzen duen arren, Hastings-ek dio nazioen eraikuntzaren historia zabalean funtsezko elementua izan dela. Bere ustez, Bibliak eman zion eremu kristauari jatorrizko nazio eredia: "Además la Biblia ofrecía a través del ejemplo de Israel un modelo de lo que suponía ser una nación: una unidad de pueblo, lengua, religión, territorio y gobierno" (2000, 18 or.). Hastings-ek aitortzen du "ametszeko eredu ikaragarri monolitikoa" izan zitekeela Israelena, era guztietako fantasiak sor zitzakeena; baina hor zegoen mahai gainean, edozein nazioentzat eredu, nazio irudikapenerako ispilu (2000, 11-18 or.).

Ikus ditzagun orain beraien arteko ñabardura batzuk. Oinarrizko ideia horretan bat egiten badute ere, modernisten artean ikuspegi ugari dago: izan ere, ez dira ados jartzen nazioen eta nazionalismoaren sorreran zein faktorek eragin duen gehien. Tesi gehienetan faktore baten baino gehiagoren arteko elkarreragina nabarmentzen dute gainera. Smith-ek bost azpikategoriatan sailkatzen ditu modernisten ikuspegiak (2000; 2004, 65-67 or.).

3.3.1. Faktore ideologikoa: Ilustrazioa eta Kant nazioen sorreraren oinarrian

Kedourie da ikuspegi honen ordezkaria. Deskolonizazio-mugimenduak pil-pilean ziren urteetan argitaratu zuen *Nationalism* (1960) lan ezaguna, eta bertan bere aurreko ikertzaileen primordialismoa zorrotz kritikatu eta nazionalismoa fenomeno moderno zela baieztatu zuen: XIX. mendeko Europan sortutako doktrina gisa definitu zuen. Doktrinaren zimenduetan filosofia ilustratuaren oinarriak, Alemaniako autore erromantikoen ekarpena, eta Kanten "giza borondatearen autonomiaren" ideia identifikatu zituen Kedourie-k. Bere arabera, sistema absolutista iraultzeko asmatu zuten nazionalismoa Alemaniako intelektualek. Erdi Aroan erlijioak eskuratutako indarraren pareko ahalmena aitortu zion Kedourie-k nazionalismoari eta baietsi zuen botere horri esker inperioak zatikatzeko eta aurretik naziorik ez zegoen lekuan nazioak sortzeko ahalmena izan zuela (Kedourie, 1988).

3.3.2. Faktore soziokulturala: lan-indar alfabetatua nazioen motor

Gellner da ikuspegi honen ordezkaria. Kedourie-ren ideia garrantzitsu batzuekin bat egin zuen *Thought and Change* (1964) liburuan nazionalismoari eskaini zion kapituluari: funtsean, nazionalismoa fenomeno moderno dela berretsi zuen Gellner-ek. Industria aurreko jendartetik industria-jendarterako trantsizioan sortu zen, bere ustez; industrializazioak eragindako aldaketa sozial estrukturalaren ondorioz (1964, 7. kapitulu; Smith-ek aipatua, 2004, 66 or.).

Dena dela, Kedourie-ren baieztapen batzuk ukatu egin zituen Gellner-ek: eliteak boterea lortzeko sortutako doktrina gisa definitu beharrean, herriaren garapenerako ideologia-tresnatzat jo zuen nazionalismoa. Mugimendu nazionalistak elite intelektualak gidatzen zituela onartu bazion ere, Gellner-en ustez eliteak ezinbestekoa zuen langile klasearen babesa. Nazionalismoa ez zuen, beraz, elitearen asmakizun gisa definitu (1964, 7. kapitulua; Smith-ek aipatua, 2004, 82-83 or.).

Horiek horrela, Gellner-en ustez, "goi kultura" baten adierazpidea besterik ez da nazioa. Lan-indar mugikor eta alfabetatua sortu ahala, nazioek industrializazioa sustatu ahal izan zuten eta industrializazioak, aldi berean, nazionalismoa. Lan-indar alfabetatua sortzeko derrigorrezko hezkuntza-sistema publiko estandarizatu bat garatu zuen estatuak, ordura arte alfabetatzeko aukerarik izan ez zuten klaseak alfabetatu egin ziren horrela. Horri esker gero eta kultura homogeenagoa ezarri zuen estatuak bere lurretan. Orduan sortu zen nazionalismoa: hots, jendarteak alfabetatze-prozesu hedatu bati esker kulturara sarbidea izan zuenean. Eta, zentzu horretan, nazionalismoa estatua bera legitimatzeko tresna eraginkorra bihurtu da Gellner-en hitzetan (1964, 7. kapitulua; Smith-ek aipatua 2004, 66 or; Breuilly-k aipatua 2008, 38 or.).

3.3.3. Faktore sozioekonomikoa: klase gatazka nazioen sorreran

Neomarxisten arabera, industria-kapitalismoarekin sortu ziren nazioak eta nazionalismoa. Zehatzago esateko: estatu kapitalistetako ezberdintasunek sorrarazi zituzten haiek (Smith, 2004a, 65 or.). Ikuspegi horren erakuslerik argiena Nairn eskoziarraren *The Break-up of Britain* (1977) liburua izan liteke (Özkirimli, 1999, 87 or.). Bere arabera, estatu kapitalistetako periferiako eta erdiguneko herriek XVIII. mendearen amaieraz geroztik izan duten garapen ezberdina ("uneven development") aztertu behar da nazionalismoa ulertzeko. Dominazioari aurre egiteko, periferiako eliteak agintea hartu eta *garapena* beren erara egin behar zutela jabetu ziren, "estatu liderren" esku-hartze zuzenik gabe. Horretarako ezinbesteko

baldintza zuten kanpo dominazioaren aurrean identitate propioaren kontzientzia hartuko zuen komunitate bat osatzea. Komunitate kontziente hori mobilizatzeko "herriaren hizkuntzan" hitz egin behar izan zion eliteak masari. Orduan sortu ziren periferiako nazionalismoak eta inperioen esku-hartzearen kontra egin zuten. Historiaren dialektikan, ordea, dio Nairn-ek, periferiako erreakzioek nazio estatuak kutsatu zituzten eta, horrela, erdiguneko herriak ere nazionalista bihurtu ziren (1979; Özkirimli, 1999, 87-89 or.).

Neomarxisten ekarpenean bada beste autore esanguratsurik: Hechter (1975), adibidez. Eredu berri bat proposatu zuen horrek: "internal colonial model". Hechter-en ustez, kolonietako periferiaren eta erdigunearen artean harremana handitu ahala, beren arteko ezberdintasunak ere handitu egiten dira. Zenbat eta harreman handiagoa, hainbat eta dominazio eta esplotazio handiagoa. Periferiaren ekonomia erdigunearen mende dago, haren osagarri bihurtzen da eta, ondorioz, oso industria espezializatua sortzen da periferian, azken honek erdigunearen beharren arabera jarduten duelako. Jendarteko rolik boteretsuenak ere erdiguneko kideek betetzen dituzte, eta periferiako kideek ukatua dute rol horietarako sarbidea. Estratifikazio-sistema horri "cultural division of labour" deitzen dio Hechter-ek. Lanaren kultura banaketak norbanakoa bere taldearekin identifikatzera bultzatzen du eta etnia identifikazioaren elementu bereizgarriak indartzen ditu. Elementu bereizgarri horiek talde elkartasuna handitzen dute era berean, eta definizio komun jakin batzuen inguruan batu egiten ditu taldekideak (Özkirimli-k aipatua, 1999, 96-101 or.).

3.3.4. Faktore politikoa: nazionalismoa botereaz jabetzeko asmakuntza

Modernismoaren barneko aldaera honek eremu politikoan gertatu diren aldaketak aztertzen ditu nazionalismoaren sorrera azaltzeko. 80ko hamarkadan agertu ziren teoria postmarxista hauek: Weber-en ikuspegira hurbilduta, politikaren garrantzia azpimarratzen hasi ziren. Giddens-ek lurraldetasuna eskuratu duen estatu moderno zentralizatuan eta profesionalizatuan kokatu zuen nazionalismoaren sorrera eta

Mann-ek, bere aldetik, aditzera eman zuen nazioa azaltzeko saiakera orok politikoa behar duela izan nagusiki (Smith-ek aipatua, 2004, 93 or.).

Edonola ere, faktore politikoa lehenesten duen proposamenik zorrotzena Breuilly-rena litzateke. *Nationalism and the State* (1982) lanean nazionalismoa *politika-forma* gisa aurkeztu zuen Breuilly-k (1990). Bere aburuz, klase interesa, ekonomia, kultura, psikologia eta gisako elementu batzuk erabil litezke nazionalismo jakin batzuk ulertzeko baina *nazionalismoa*, oro har, bere osotasunean ulertzeko elementu horiek ez dute balio. Bere ustez, ikerketa horiek guztiek albo batera uzten dute beretzat funtsezkoena den elementua: politikarena. Eta politika, funtsean, boterea da. Eta boterea estatuaren kontrola (1990, 1 or.). Breuilly-k estatu boterea eskuratzearekin eta erabiltzearekin erlazionatu zuen nazionalismoa bete-betean²⁶: jendarte-eliteek nazio estatuko boterea lortzeko darabilten mekanismo politiko gisa definitu zuen nazionalismoa (1990, 385 or.).

3.3.5. Konstruksionismoa: nazioak eraikuntza-prozesuen emaitza

Izenak berak adierazten duen bezala, modernista hauen arabera nazioak eta nazionalismoak beste ezeren aurretik *konstruktoak* dira. Hobsbawm historialari marxistak dio nazioak eta nazionalismoa "jendarte-ingeniaritzaren" emaitza direla: hau da, eliteak bere interesen mesedetan eraiki zituela nazioak "asmatutako tradizioez" baliatuta. Hobsbawm-ek (1995) argudiatu zuen nazionalismoa eliteek asmatu zutela, lehendabizi, eta nazionalismoak nazioak eraiki zituela gero.

"Asmatutako tradizioei" esker, hots, etengabe errepikatutako praktika batzuei esker, portaera-balio eta arau batzuk irakasten ahalegintzen da elitea Hobsbawm eta Ranger-en (2002) arabera. Nazioa eta nazioarekin lotutako fenomenoak

²⁶ Autore batzuek estatu eraikuntza eta nazio eraikuntza berdintzea kritikatu diete modernista politikoei. Horien artean Smith-ek mugarri argia ezartzen du bi kontzeptu horien artean. Smith-ek dio estatu erakundeak ezartzeak eta finkatzeak ez duela bermatzen herritarrak erakunde horiekin eta erakunde horiek sustatzen duten nazio mitoarekin edo nazio identitatearekin identifikatzea. Maiz kontrakoa gertatzen da, elite agintariak bultzatutako mitoa arrotz sentitzen duten taldeak urruntzen ahalegintzen dira elitearen asimilazio-proiektutik (1995, 38 or.).

modernoak badira ere, esaten dute elite-agintariak "iraganaren forma" ematen dietela: alegia, iraganetik jasotako herentzia gisa aurkezten dituzte, eta historia talde kohesiorako erabiltzen dute. Dena dela, iraganetik letorkeen segida hori gezurrezkoa da Hobsbawm eta Ranger-en arabera. Asmatutako tradizioak egoera berriei emandako erantzunak besterik ez dira, bere ustez. Asmakuntza-prozesu horietan bi mota bereizi zituen: egoera berrietara *egokitutako* tradizioak eta erakundeak²⁷, batetik, eta helburu berrietarako *nahita* asmatutako tradizioak²⁸, bestetik.

Eraikuntzaren ildo berean, Anderson-ek "komunitate politiko irudikatu" gisa definitu zituen nazioak *Imagined Communities* (1983) lan ezagunean. Bere ustez, inprentari lotutako kapitalismoak ahalbidetu zuen nazioak irudikatzea, eta komunitate imajinatu haiek bete zuten nolabait erlijioen eta monarkien gainbeherak eragindako botere-hutsunea. Autore horren arabera, munduaren hizkuntza-aniztasunean kapitalismoak eta inprentaren teknologiak bat egin zutenean, komunitateak imajinatzeko, "komunitate irudikatuak" sortzeko aukera gertatu zen. Bere ustez, naziokideak, fisikoki elkar ezagutzen ez duten arren, gai dira gainerako naziokideekiko lotura edo atxikimendua sentitzeko: irudikapenari esker, batasun-sentipena sortzen da "irudizko komunitateetan". Kapitalismoari eta inprentari esker fisikoki ezagutzen ez zena irudikatzeko gaitasuna sortu zen eta, horrela, taldearen buru-irudikapenari esker erne eta hazi ziren nazioak (1993).

Modernisten ustez, beraz, nazionalismoak sortu zituen nazioak. Baina nazioak arrakasta izateko "aurre baldintza" batzuk behar dituela aitortu zuen Gellner-ek (Breuilly-k aipatua, 2008). Ikuspegi modernistaren eta ikuspegi perenialista-

²⁷ Lehendabizikoak jendarte orotan aurki genitzake: adibide gisa eliza katolikoaren *egokitzapena* aipatzen du, historiako une jakin batzuetan ideologia- eta politika-erronka berrien aurrean testuingurura egokitu behar izan duenean (Hobsbawm eta Ranger, 2002).

²⁸ Bigarren prozesua aldaketa soziala azkarreko egoeretan gertatzen da, jendarte-ordena eta jendarte-batasuna maila goreneko *behar* bihurtzen den egoeretan. Tradizio asmatu horiek "nazio komunitatea" sortzeko gai dira Hobsbawm eta Ranger-en iritziz: industrializazio-prozesu azkar batek, esate baterako, jendarte-zatiketa sortzen duenean, tradizio asmatuak gai dira, "nazio komunitatearen" izenean, jendarte-batasunari eusteko (2002).

primordialistaren arteko dikotomia gainditu nahian, autore etnosinbolikoak erdibideko proposamen bat egiten saiatu dira.

2.4. Paradigma etnosinbolikoa

80ko hamarkadan modernisten ekarpenaren hainbat alderdi kritikatzeko hasi ziren ikertzaile batzuk. Nazioen aurreko mito eta sinbolo etnikoek leku askotan iraun egiten zutelako jabetu ziren eta modernistei kritikatu zieten auzi hori sistematikoki alde batera utzi izana. Nazio modernoaren sorreran etnia loturek eta sentimenduek zer eginkizun izan zuten ikertzeari ekin zioten horrela (Smith, 1988). Gizataldeen memorian, sentimenduetan, mitoetan, sinboloetan, balioetan eta beste zenbait "elementu subjektibotan" jarri zuten arreta: horiek horrela, etnien eta nazioen "barne munduak" ulertzen ahalegindu ziren (Smith, 2004a, 76 or.).

Armstrong²⁹, Smith eta Hutchinson-en ekarpena aipatuko dugu (Özkirimli, 1999, 168 or.). Honako puntu hauek partekatzen dituzte talde honetako egileek: lehenik eta behin, modernistek eliteei aitortzen dieten erabateko protagonismoa baztertu, eta elitearen eta eliteak ordezkatu nahi duen herriaren arteko harremanean jartzen dute arreta. Bi norabideko harremana dela nabarmentzen dute: goitik beherakoa eta behetik gorakoa. Herri mobilizazioari esker, herriak buruzagi politikoengan, intelektualengan eta, oro har, burgesiarengan eragiten baitu beren ustez. Nazio askotako kultura berpizkunderetan herri-mugimenduak eta elite intelektualak elkarlanean bete duten papera aipatzen dute horren erakusgarri (Smith, 2004a, 77 or.).

Horrez gain, epe luzeko denboran jartzen dute arreta: alegia, jendarte- eta kultura arauak eta portaerak *longue durée* denbora larroan nola iraun duten aztertu behar dela uste dute etnosinbolikoek. Iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko erlazio konplexuak ezagutzeko hainbat belaunaldi, zenbaitetan hainbat mende,

²⁹ Autore batzuek ikuspegi etnosinbolistan kokatzen dute Armstrong baina berak ez zuen inoiz *etnosinbolismo* kontzeptua erabili (Özkirimli, 1999, 168 or.).

aztertu behar direla uste dute. Historiaren joanean etendura eta haustura ugari gertatu dela onartuta ere, nazioen aurreko talde identitateek nazioen sorreran eta osaketan nola eragin ahal izan duten jakin nahi dute (Smith, 2004a, 77 or.).

Nazioen eta nazionalismoaren sorrera etnia komunitateen joan-etorri historikoan kokatzen dute, halaber. Etnietatik nazioetarako lerroa ez da lerro jarraitu eta garbia, oso konplexua da izatez baina, esanak esan, uste dute nazionalismoa eta nazioa ezin direla modernitatearekin soilik lotu. Identitate eta helburu kolektibo zabalago batzuekin, "familia etnokultural" konplexuagoekin lotzen dituzte³⁰. "Taldea lotura" eta "talde grina" ere aintzat hartu behar direla uste dute etnosinbolistek. Atxikimendu eta suhartasun kolektibo horiek etnizitatea eta nazionalismoa ulertzeko gakotzat jo dituzte (Smith, 2004a, 77-78 or.).

Smith-en ustez, egungo nazio edo etnia gatazka askoren gogortasuna eta edukia ulertzeko ezinbesteko baldintza da memoria, balio, sinbolo eta mitoen rola garrantzia ulertzea³¹. Kanpo faktore politiko eta ekonomikoen azterketa gutxietsi gabe, sinboloen, oroimenen eta mitoen, edo bestela esanda, barne faktore kulturaletan sakondu nahi du (2004, 78 or.). Nazionalismoa ideologia, mugimendu eta sinbolismo gisa modernoa dela onartzen badu ere, eta nazio gehienak modernitatean sortu direla aitortu arren, ez du baztertzen nazioak nazionalismoaren aurretik existitu izana (1988, 1997, 2004).

Mekanismo bateratzaile batzuek eraginda sortu ziren, bere ustez, "nukleo etnikoak". Lau mekanismo identifikatzen ditu Smith-ek: erlijioa etengabe berrizatzea eta egokitzea, inguruko kulturetatik mailegu selektiboa egitea, etnikideek ahalik eta gehien parte hartzea etniaren egituretan, eta *etnia hautatuaren* mito erlijiosoek izan duten eragina (1997, 22-29 or.). Nukleo haiek batasun eta autokontzientzia dezenteko etniak ziren, bere ustez, eta Erdi Aroaren

³⁰ Gorago aipatu dugun Smith-en nazioaren definizioa ikuspegi honen baitan kokatu behar genuke.

³¹ Smith-en ustez, paradigma modernistak ez bezala etnosinbolikoak azaltzen du nazioek zergatik duten oraindik hainbesteko eragina jendearengan, zergatik den gai nazionalismoa herri-babes zabal hori sortzeko (1997).

hasierako estatuen eta erreinuen muina osatu zuten. Oinarri kultural bateratzaileari esker, hortaz, erreinu haietako kideen imajinarioan gero eta indartsuagoa egin zen talde izaera. Kultura komunitate subjektibo haiek izan ziren, funtsean, gero estatu handi eta boteretsuen muina, Smith-en arabera. Nukleo haien gainean eraiki zituzten estatuak beren aparatu administratibo, judizial, fiskal eta militarrek, eta inguruko lurraldeak eta etnia nagusiaren kulturakoak ez ziren biztanleak anexionatu zituzten (1997, 35 or.).

Etnien eta nazioen iraunkortasunaren gakoa beren "etno-historia" subjektiboan datza Smith-en arabera. Horrek ematen die forma eta giharra taldearen identitateari eta helburuei. Hortaz, taldeak nola eta zergatik mobilizatu diren aztertu behar dela uste du Smith-ek. Zehatzago esateko: nola mobilizatu duten beren burua kultura kolektiboak eta politika tradizioak eraginda, hots, beren memoriak, mitoek eta sinboloek hauspoturik (2009).

Smith-en ekarpenetik hurbil Armstrong-ek *longue durée* delako denbora lerroan, hots, "extended temporal perspective" izeneko denbora dimentsioan aztertu zuen nazioen agerpena. Etnia kontzientziaren arrastoa antzinako zibilizazioetan aurki dezakegu Armstrong-en ustez eta arrazoitzen du nazionalismoa etnia kontzientziaren ziklo luze baten azken etapa besterik ez dela. Kontzientzia horren ezaugarri nagusia iraunkortasuna da. Armstrong-ek ohartarazten du etnia loturen iraupena ulertzeko ezinbesteko baldintza dela denbora luzeko perspektiba hartzea (1982, 3-4 or.).

Epe luzeko bilakaera horretan etnien mito- eta sinbolo-guneak aztertu behar dira Armstrong-en ustez: "Myth-symbol Complexes" deitu zituen berak. Gune haiek epe luzera izan duten eraginaren ondorioz sortu dira, hain zuzen, nazio identitate modernoak. Etnizitatearen iraunkortasunean zein faktorek eragiten duten ulertu ahal izateko gune haien bilakaera aztertzea ezinbesteko eskakizuna da Armstrong-entzat (1982, 282-283 or.).

Garrantzi handia eman zion, halaber, *muga* kontzeptuari. Bere hitzetan gizatalde batek ez du bere burua taldearen berezko ezaugarrien arabera definitzen, *besteekiko* konparaziotik abiatzen da *bereizketa*. Bere aburuz zentzuzkoagoa da talde bat bestearekiko bereizten duen muga horren zer-nolakoak aztertzea, taldearen "ezaugarri objektiboetan" tematzea baino. Etnien artean sortzen den inkomunikazioa da etnia identifikazioak ulertzeko giltzarria. Komunikatzeko ezintasun horrek sortzen baitu, besteak beste, *bereizketaren* prozesua. Izan ere, esperientzia horrek berak sorrarazten du etniako kide izatearen kontzientzia (1982, 5-7 or.).

Hutchinson ere *longue dureé* edo *epe luzeko denbora* kontzeptua erabiltzearen aldekoa da: hartara, nazioen sorrera etnizitatearen fenomeno luzearen testuinguruan aztertu behar dela hobesten du. Nazionalismo motetan kulturala eta politikoa bereizi zituen Hutchinson-ek, eta kultura formen nondik norakoa ulertzen ahalegindu zen. Irlandaren historiako kultura eta nazio susperraldiak aztertu zituen eta oroitzapenek eta sinboloek nazioen izaeran eta historian funtsezko funtzioa betetzen dutela ondorioztatu zuen (Özkirimli-k aipatua, 1999, 168 or.; Smith-ek aipatua, 2004, 79 or..)

80ko hamarkadaz geroztik ikuspegi gehiago sortu dira nazioen eta nazionalismoaren ikerketan baina, hala ere, Smith-en iritziz ez dute gaur-gaurkoz paradigma bakar bat osatzen: ikuspegi postmodernoak, etnizitatea versus herritartasuna bereizten duten ikerketa-lerroak, kultur aniztasunaren arloko ikerketak eta abar. Guri dagokigunez, Ikerketa honetarako feminismoaren ekarpena nabarmentzea interesatzen zaigu (Smith, 2000, 348-367 or.; Breuilly, 2008, 58-61 or.).

2.5. Feminismoaren ekarpena

Yuval-Davis-ek (2004, 14-15 or.) ohartarazten du nazioei eta nazionalismoei buruzko teoria hegemoniko gehienek³² ez dituztela genero harremanak kontuan izan. Nazioen sorreraz eta erreprodukzioaz hausnartu dutenean, ez diote emakumeen funtzioari arretarik jarri. Horren zergatia ikertu duten feministek bi dikotomia aipatzen dituzte: pribatua/publikoa eta naturala/zibilizatua hurrenez hurren. Alde batetik, nazionalismoen eta nazioen eztabaida eremu politiko eta publikoari dagokionez, eta emakumeak eremu horretatik baztertuta egon direnez historikoki, nazionalismoaren diskurtsoak zokoratu egin ditu *de facto*. Eta bestetik, emakumeak "naturarekin" identifikatzeak esparru politiko-publiko "zibilizatutik" baztertzea ahalbidetu du, baita sozialki emakumeak gizonak baino gutxiago baloratzea ere³³.

Nazionalismoaren teorialariek ahaztu egin dute, dio Yuval-Davis-ek, nazio eraikuntzak bere izate modu berean dituela maskulinitatearen eta feminitatearen nozioak; ondorioz, genero harremanak garrantzirik gabekoak iruditu zaizkie eta emakumeen diskurtsoak existituko ez balira bezala jokatu dute. Estatu burokrazia eta intelektualak jarri dituzte nazionalismoaren erreprodukzioaren lehen lerroan. Yuval-Davis-ek emakumeen erreprodukzio-funtzioa aldarrikatzen du eta bere ikerketatik ondorioztatzen du hiru funtzio bete dituztela emakumeek nazioen erreprodukzioan: hala nola, funtzio biologikoa, kulturala eta sinbolikoa (2004, 14-15 or.). Aurrerago sakonduko dugu funtzio horietan.

³² Gellner, Hobsbawm, Kedourie eta Smith aipatzen ditu. Greenfeld (ikertzaile emakumea) ere multzo horretan sartzen du. Salbuespen gisa Mosse (1985), Balibar (1990), eta Chatterjee (1990) aipatzen ditu (Yuval-Davis, 2004, 14-15 or.).

³³ Nolanahi ere, Yuval-Davisek kritikatu egiten ditu argudio feminista horien alderdi batzuk. Dikotomia horiek orokortuta, Yuval-Davisek uste du kolektiboan edo nazioen artean dauden aldeak homogeneizatu egiten direla. Gainera, salatzen du orokortasun horiek mendebaldeko balioak (kultura edo arrazoia natura baino gehiago baloratzea) onartzen dituztela *de facto*. Funtsean, Yuval-Davisen ustez emakumeen zapalketaren arrazoiak unibertsalitateak tranpa du: ez baitu azaltzen jendarte talde ezberdinetan, denboran zehar, genero harremanak zein modutan eraiki eta birsortzen diren (2004, 20 or.).

3. Nazionalismoaren helburua: nazio autonomia, identitatea eta batasuna (berr)eraikitzea

Smith-en eta Castells-en zenbait ekarpen erraz doitzen dira atal honetan aztergai ditugun nazioei eta nazionalismoei buruzko gure ikuspegiarekin, eta hurrengo atalean ahotan hartuko ditugun bi kontzeptuentzat (nazio diskurtsoa eta nazio mugimendua) sarrera baliagarria izan daitezke. Haatik, zenbait teoriariren hausnarketak ere baliatuko ditugu.

Gure lanaren helburuetarako interesgarria iruditzen zaigu Smith-ek proposatzen duen nazionalismoaren definizioa. Nazionalismoa nazioaren *ideologia* gisa, nazioaren *diskurtso* eta *sinbolismo* gisa, eta nazioaren izenean sortutako *mugimendu* soziopolitiko moduan definitzen du. Ideologiak zehazten du diskurtsoaren, sinboloen, eta mugimenduaren zer-nolakoa; ideologiak biltzen baititu nazionalismo jakin baten oinarritzko printzipioak, ideiak eta helburuak. Eta helburu horien arabera jarduten dute, oro har, diskurtsoak, sinbolismoak, eta mugimenduak (Smith, 2000, 329 or.; 2004a, 19-24 or.).

Edonola ere, gogoan izan dezagun nazionalismoak forma oso ezberdinak har ditzakeela: nazionalismoak sortu ditu nazio estatuak (gehien gehienak estatu plurinazionalak), egitura instituzionala aldarrikatzen duten mugimendu nazionalistak, identitate berriak, nazionalismoak mugitu ditu mugak eta sortu ditu gerrak, eta nazionalismoak (edo inperialismo nazionalistak) okupatu, asimilatu eta desegin ditu, halaber, identitate kolektiboak. Ezberdintasunak ezberdintasun, Smith-en definizioa oso baliagarria da gure ikerketan. Hari horri jarraiki Smith-ek dio nazionalismoak nazioa jartzen duela bere kezken erdian eta horregatik ahalegintzen dela nazioaren ongizatea³⁴ bultzatzen, hots, nazio *estatusa* lortzen. Eta goren

³⁴ Hemen ere ohar bat egitea komeni da. *Nazioaren ongizatea* esateak ez ditu nazioaren barruko botere harremanak eta klase sozial ezberdinen interesak kontuan hartzen. Uler dezakegu, orokorki, nazionalismoak nazio jakin baten garapena bilatzen duela baina kontuan izan behar dugu naziokideen klase interesak antagonikoak izan ohi direla. Eta elite nazionalistek, instituzionalizatutako nazionalismoetakoek bereziki, klase interesak babesteko eta botere guneetan mantentzeko erabakiak hartzen dituztela.

mailako helburu hori lortzeko hiru azpi-helburu hauek bilatzen ditu bere aburuz: nazioaren *autonomia*, nazioaren *batasuna* eta nazio *identitatea* sustatzea (2004, 37 or. eta hurr.).

3.1. Nazio eraikuntza, berreraikuntza edo berrinterpretazioa

50eko hamarkadan agertu zen *nation-building* kontzeptua: Deutsch-ek (1966) modernitateak ekarritako "komunikazio sozial" gisa aurkeztu zuen nazionalismoa, eta nazioaren eraikuntzan oinarritu zuen bere teoriaren funtsa. Ordura arteko tesi primordialistak zioenaren kontra, Deutsch-ek ukatu egin zuen nazioak antzinatek existitzen zirenik; aitzitik, nazioa "eraikitako kategoria" gisa definitu zuen. Nazioen eraikuntza kulturaren eta hizkuntzaren asimilazio prozesuek bermatu zuten, bere ustez. Migrazioen ondorioz, nekazariak eta artisauak herri eta hiri handiagoetara mugitu zirenean elite nazionalistak, dio Deutsch-ek, estandarizatutako hizkuntza asimilazioa bultzatu zuen. Mass-medien bidez mezu homogeenok zabalduz, masa mugikor askotariko hura "hezitako publiko" bihurtu zuen eliteak.

Gorago aipatu ditugu Hobsbawm eta Ranger-en, edo Anderson-en 80ko hamarkadako tesi konstrukzionistak ere: gogoan dugunez, nazioak sozialki eraikitako entitate gisa definitu zituzten. Elite baten "tradizioaren asmakuntzan" ardaztu zuten Hobsbawm-ek eta Ranger-ek beren teoria (2002) eta "irudikatutako komunitate" gisa definitu zituen nazioak Anderson-ek³⁵ (1993). Nazioen jatorriari buruzko galdera dago teoria horien atzean, beraz: zein neurritan dira nazioak intelektual nazionalistek edo halako intelligentsia moduko batek *eraikitako* entitateak, eta zein neurritan aurretiko sentimendu etnikoetatik eta material kulturaletatik eratorritakoak?

³⁵ Ema eta Sandoval-ek diote "konstrukzionismo omnipotentearen" jarrerak eraikuntza historiko materialak ukatzeko joera izaten duela. Eta konstruktibismoak har dezakeen jarrera atzerakoiaz ohartarazten dute: "desde el silencio ontológico constructorista se ha podido reproducir una mirada totalitaria sobre el ser de las cosas, la metafísica de la pura dispersión, de la imposibilidad de ser de ninguna manera. Y es que la postura antiesencialista radical puede terminar operando y retroalimentando la misma lógica totalitaria y metafísica sobre la que reacciona" (Bigliak aipatua, 2012).

Berez, nazioak eta nazionalismoak eraikuntza prozesu sozial baten emaitza dira: "both of which [*state-making*-az eta *nation-building*-az ari da Smith] are ideological metaphors about large-scale abstractions and constructs" (1986, 243 or.). Izatez, mundu sozialari buruzko ezagutza oro da eraikuntza lanaren produktua. Beraz, baldintza historikoen emaitza ere badira (Bourdieu, 2000a, 121 or.). Printzipio horiek nazionalismoaren ikertzaile gehienek onartzen dituzte. Gakoa, nonbait egotekotan, honetan datza: ea zenbateraino eragin zuten nazioen aurreko egiturek (etniek) nazioen genesian, eta zein neurritan parte hartu zuten eliteek eta herri mugimenduek nazio horren hezurramitzean eta garapenean.

Smith-ek modernistei ez die ukatzen boterearen diskurtsoak eta sinboloak masa erakartzeko eta mugiarazteko gai izan direla historian baina, hala ere, horretarako ezinbesteko baldintza da, bere ustez, masa hunkitzea. Hots, diskurtso eta sinbolo horiek "emozio-oihartzun" gisa jardutea: izan ere, "oroitarazteko gaitasuna" behar dute izan masan zirrara eragiteko³⁶. Aldi berean, interakzio etengabea, herriak eta herri-kulturak nazioa sustatzeko prozesuan parte hartzen dute. Horregatik da egokiagoa Smith-entzat modernistek erabiltzen duten nazioen "eraikitze-prozesuen" ordez lotura eta sentimendu etnikoen "berreraikitze-prozesuez" hitz egitea. Eta eliteak propio "asmatutako" entitateez ordez, "berrinterpretatutako" entitateez mintzatzea. Ñabardurak ñabardura, komunitate baten borondatean eta komunitate horrek ustez antzinatek partekatzen dituen emozioetan oinarritzen baitu Smith-ek nazionalismoa. Egiatzko ala ustezko izan, horrek ez du axola. Nazionalistek masari dei egiteko erabiltzen dituzten mito, sinbolo eta oroitzapen etniko eta popularrak dira garrantzitsuak Smith-en iritziz. Eta hori aintzat hartu gabe, ezin uler daiteke nazioen eta nazionalismoaren "herri-oinarria" (2004, 102-103 or.).

Egia da, nazionalismo batzuetan (deskolonizazio prozesuetan bereziki) eliteak itzal luzea izan duela nazionalismoa eta nazio identitatea sustatzeko zereginetan. Beste batzuetan, ordea, *behetik gorako* fenomenoak izan dira nagusiki: hartara, masa

³⁶ Oroitarazi aditzarekin naziokideei *aurrekoa* gogoraraztea adierazi nahi du: iragana "irudikatzea" eta "iradokitzea" (2004, 102 or.).

mugimendua indartsua izan den nazionalismoetan kulturaren herri-adierazpenek eremu publikoan eragin dute eta herri-kulturak taxutu du kultura politikoa eta elitearen diskurtsoa (Smith, 2004a, 51-52 or.). Smith-ek dio nazionalismo etnikoetan indar handiagoa izan duela identitate etnikoak (herri-kulturak) eliteen ideologia politikoek baino (Smith, 2009).

3.1.1. Nazioen oinarri etnikoa³⁷

Smith-ek nazioen eta estatuen lau sorrera- eta eratze- prozesu bereizten ditu³⁸ (1986, 241-242 or.): *Mendebaldeko ereduak* aipatzen digu aurrena³⁹. Mendebaldean nazioak eta estatuak egoera eta aldi bertsuan agertu ziren bere ustez. Estatu dinastikoak eta lurralde-estatuak etnia nukleo jakin batzuen gainean eraiki ziren. Eta inguruko beste etnia, talde eta komunitate batzuk bata bestearen ondoren anexionatu zituen estatuak aliantza, ezkontza, administrazio edo bortxa bidez. Smith-en iritziz, nazio estatu askok Erdi Aroan hasi zuen bere nazio eta estatu *eraikuntza*: lekuan lekuko etniarik indartsuenak, *dominant ethnies* delakoek, inguruko etnia ahulagoen zatiren bat edo etniak oso-osorik anexionatu edo erakarri zituzten. Etnia boteredunek beren naziotasunaren arabera sortutako estatu egiturak integratu zituzten gainerakoak (1997, 35 or.).

1800. urtea baino lehenagoko estatu eta nazioez ari da Smith. Bere arabera XIX. mendearen aurretik estatuak eta nazioak bateratsu sortu ziren Europako eta Japoniako leku jakin batzuetan. Lehen prozesu haietan estatu egiturak eta nazioak jatorrizko etnia indartsuenen gainean "eraiki" ziren (1986, 242-243 or.).

³⁷ Marxismoak aurreratu zuen nazioa ezin zela mugatu Frantziako Iraultzaz geroztik Mendebaldean agertu den nazio eredu eta nazio estatu kapitalistara: "hay «algo» que se designa bajo el término de nación, es decir, una unidad particular de reproducción del conjunto de las relaciones sociales, mucho antes del capitalismo" (Poulantzas, 1979, 109 or.).

³⁸ Smith-en proposamena ez da estatu eta nazio formakuntzen ibilbide historikoen taxonomia zehatza. Esate baterako, Smith-ek berak gogorarazten digu Hego Ameriketako nazio estatuen multzoa, oro har, alde batera uzten duela bere sailkapenak. Hego Ameriketako estatu kolonial erdi-moderno bat inposatu zaio populuari, zeina kulturalki batu egin den, hainbat gradutan, eta zeinak bere kultura eta bere arauak partekatzen dituen. Era berean, kategoriek ez dute elkar baztertzen. Alderantziz, maiz eredu bateko eta besteko elementuak nahastu egin dira historian (1986, 242 or.).

³⁹ *Mendebaldeko ereduaren* paradigma garbia dira Frantziaren eta Espainiaren sortze-prozesuak. Smith-ek dio etnizitateak hornitu zuela estatu egitura (1986, 247-248 or.).

Bigarren ereduari *eredu etnikoa* esaten dio Smith-ek: hartara, eredu horretan bere buruaren kontzientzia handiagoa edo txikiagoa duen etnia bat izango genuke jatorrian, estatu modernoa eta nazionalismoa agertu baino lehen. Orduan, etnia horiek eskubide osoko nazio bihurtzen ahaleginduko dira nazionalismoaren testuinguruan: lurraldea, ekonomia propioa, lege-multzo bat eta beren hizkuntzan oinarritutako hezkuntza-sistema bat izaten ahaleginduko dira. Bide horretan, lehen kultura etnia besterik ez zena, nazio politiko bihurtuz joango da eta autonomia osoa eta estatu kategoriaren babes-egitura bilatuko ditu (1986, 241-242 or.).

1800. urtearen ondoren, berriz, 1914 arte edo, estatuak sortu ziren lehendabizi eta gero nazioak; jatorrizko etnia baten gainean eraiki zen estatu egitura eta, ondoren, estatuak nazioa sortu zuen. Smith-en esanera autodeterminazioaren garai klasikoa izan zen hura, "etnien auto-eraldaketarena"; Europa Ekialdean gertatu zen prozesu hura (1986, 241-242 or.).

Hirugarrenik, *immigrazioaren eredu*a aipatzen du Smith-ek: etnia baten parte batek, gatazka eta bortxa tarteko izan ala ez, estatu propioa lortu, eta beste kultura batzuetatik hurbildutako etorkin oldeak bereganatzen eta asimilatzen dituenean gertatzen da. Hemen ere, beraz, *dominant ethnien* batekin batera beste kultura talde batzuk izango genituzke estatu berean baina, eredu honetan, etnia nagusiari gehitutakoak etorkinak izango lirateke. AEB, Argentina eta Australia aipatzen ditu Smith-ek adibide gisa (1986, 241-242 or.).

1914. eta 1945. urte arteko aldia etorkinen nazio asimilazioaren mailarik gorena izan zen Smith-en hitzetan: XIX. mendearen amaiera arte kolono-komunitate txikietan oinarritu ziren estatuak etorkin-oldeak asimilatu zituzten garaia, alegia (1986, 242-243 or.).

Azkenik, *kolonietako eredu*a aipatzen digu Smith-ek. Hemen estatu modernoa inposatzen zaio "goitik behera" etnia multzo bati: jatorrizko etnia komunitateen mugak errespetatu beharrean, bada, kolonizatzaileek inposatutako mugen barneko

etniak estatu independente batean elkartzen saiatzen da estatu nazionalismoa. Mugek zedarrituriko estatu berriaren izenean, etnia komunitate horiekin nazio bakar eta batu bat osatzen ahalegintzen da elite nazionalista⁴⁰ (1986, 241-242 or.).

1945etik aurrera estatu kolonizatzaileek inposatutako muga eta lurralde artifizialen aldeko elite-nazionalismoak bultzatu zituzten kolonizatutako lurretan. Horrek, aldi berean, etnia nazionalismo gatazkatsuak piztu zituen. Identitateek eragindako gatazkak handitu egin ziren han eta hemen: periferiako etnia minorizatuen arteko lehia zela eta, edo periferiako etnien eta metropoliko komunitate nagusiaren eta bere estatu elitearen arteko gatazka zela eta. Dakigunez, kolonietako identitate gatazka haiek izan zuten oihartzunik Europan ere: hala, estaturik gabeko hainbat naziotan nazionalismo etnikoak piztu ziren. *Nazio estatua* eta *nazio etnikoa* kontzeptuak aurrez aurre jarri zituen testuinguru hark. Smith-en *ereduak* denbora hari jarraikian kokatu ditugun arren, kategoria batek ez du bestea baztertzen: maiz une historiko batean edo bestean eredu bateko eta besteko elementuak nahasi egin dira, Smith-en arabera. Edonola ere, sailkapenak balio digu estatuen eta nazioen eratze-bideak bat baino gehiago izan direla ikusteko, eta garai eta leku bakoitzean zein eredu nagusitu den ondorioztatzeko (1986, 242-243 or.).

Smith-ek estatuen eta nazioen eraketetan gertatu diren "prozesuen segida" azpimarratzen du. Modernisten "eraikuntzaren" ideia-ondoan, Smith-ek aldeztu du estatuen eta nazioen eratze-prozesuetan jatorrizko etniak elementu funtsezko ez ezik, *abiapuntu* izan zirela. Sailkapeneko lehen hiru ereduetan jatorrizko etnietatik abiatzen da prozesua eta, laugarrenean, kontrako norabidean gertatzen da. Smith-en iritziz, *state-making* eta *nation-building*-erako zailtasun handienak etnia loturen eta sentimenduen izaerak eta indarrak sortu ditu. Eta, beraz, etnia oinarririk ez izateak estatuak eta nazioak desegin ditzake, modernistek eliteen jardueri eta kalkulu geopolitikoari aitortzen dieten indarrak bezainbat (1986, 243 or.).
Modernisten azalpeni ikusten dien desoreka doitu nahi du Smith-ek:

⁴⁰ Hego Amerikako nazio estatu gehienak sailkapenetik kanpo geratzen dira. Smith-en iritziz, Hego Amerikan estatu kolonial erdi modernoa inposatu zuten agintariek (1986, 242 or.).

While many processes and activities go into the "making" of states and the "building" of nations (...) -economic development, communications, urbanization, linguistic standardization, administration- there are equally important questions of meaning, identification and loyalty which "make sense" of, and "give purpose" to, otherwise unpatterned processes (1986, 243-244 or.).

Smith-en iritziz, ideologia nazionalistaren ardatz nagusiak, hurrenez hurren, nazioaren identitatea, batasuna eta autonomia dira. Hiru ardatz horiek jomugan izateak ematen die zentzua eta helburua, bere ustez, *state-making* eta *nation-building*-ei. Baina, Smith-en hitzetan, zentzu eta helburu horiek aurretiko zentzu eta helburu batzuen jarraipena besterik ez dira: alegia, modernitatearen aurreko botere- eta kultura komunitateen zentzuak eta helburuak janzen eta eraldatzen ditu prozesu modernoak zentzuz eta helburuz⁴¹ (1986, 244 or.).

Nazioen eta nazionalismoen genesian eta erreprodukzioan faktore politiko, geopolitiko eta ekonomikoek bezainbateko garrantzia dute faktore soziokulturalek eta sinbolikoek⁴² (Smith, 2004a, 88-98 or.). Smith-ek ontzat ematen du *etnia* (kultura komunitatea) eta *nazioa* (komunitate politikoa) kontzeptuak⁴³ *continuum* baten parte direla. *Continuum* horretan talde identitateek zergatik eta nola iraun duten ulertzeko, Armstrong-ek bezala Smith-ek ere epe luzeko denbora kontzeptuan oinarritutako metodoa erabiltzea proposatzen du. Eta, bidenabar, talde identitateen iraunkortasuna ulertzeko sinboloek, oroitzapenek, mitoek eta balioek *longue durée* denbora lerroan osatzen duten belaunaldi arteko ondarea

⁴¹ Lehengaia ezinbestekoa da Eley eta Suny-ren hitzetan: "Los nacionalismos con mayor éxito presuponen cierta comunidad de territorio, lengua o cultura anterior, que proporciona la materia prima para el proyecto intelectual de la nacionalidad" (Castells-ek aipatua, 2002, 51 or.). Lehengai edo aurrebaldintza etniko kulturalak aipatzen ditu Nuñez Seixasek ere mugimendu nazionalisten sorrera azaltzeko; baita talde sozial batzuek (talde etniko kulturek) beren biziraupena mehatxatua sentitzea ere (1998).

⁴² Nazioen eta nazionalismoen azterketan bi alderdi horiek uztartu egin behar direla iruditzen zaigu. Izan ere, "nazio kulturala eta nazio politikoa txanponaren bi aurpegiak dira, ez bi txanpon" (Azurmendi, 2010).

⁴³ Dikotomia hori hausten ahalegintzen dira Gat eta Jakobson (2014). Etnien izaera kulturala politikoa dela defendatzen dute.

(kultura) aintzat hartzea proposatzen du. Eta ondare horrek, Armstrong-en mugaren ideian oinarrituta, taldekideak elkartuta mantentzeko eta kanpokoekiko bereizteko betetzen duen funtzioa aztertzea (Smith, 2000, 328-329 or.).

Iraganak eta *etorkizunak* dialektikan dihardute, beraz; iragan komun bat partekatzeak komunitateari ematen dion "batasun zentzua" tarteko dela. Smith-ek dio horixe dela estatu eta nazio eraketaren funtsezko aurrebaldintza: alegia, *iragan komunaren zentzua*. Modernistek defendatzen duten tesia maila batean ontzat emanda ere, hots, modernitateak ekarritako baldintza sozialez eta teknologikoez baliatu direla agintari politikoak estatuak eta nazioak "eraikitzeko"; Smith-en iritziz, ordea, hori egiteko baldintza etnikoak ere aldeko behar zituzten izan. Baldintza etnikoak zenbat eta aproposagoak izan, orduan eta arrakasta handiagoa izango du estatuen eta nazioen eraketa-prozesuak. Aurrebaldintza etniko egokirik ez izateak oztopo handiak eragiten ditu estatu eta nazio osaketan bere ustez. Edonola ere: "Ethnic unity does not, of course, guarantee the survival of strong states. (...) But it does allow, perhaps encourage, their formation" (1986, 244-245 or.).

Castells-en ustez ere etnizitatea, erlijioa, hizkuntza eta lurraldea *per se* ez dira nahikoak nazioak eraikitzeko eta nazionalismoa hauspotzeko. Bai ordea lehengai horiek gizatalde bati ematen dioten "partekatutako esperientzia". Japonian (ikuspegi etnikotik munduko nazio estatu homogeneoenetakoa denean) eta AEBetan (heterogeneoenetakoa batean) nazio identitate indartsua adierazten dute naziokide gehienek. Biek ala biek naziokide gehienek partekatzen duten historia eta proiektu publiko bana dute: hartara, historiako kontakizunak etnia, lurralde eta genero esperientzia sozial askotarikoen gainean eraiki dituzten arren, arrazoi asko tarteko, "esperientzia komunaren zentzua" hegemonikoa da bi adibideetan. Beste nazio eta nazionalismo askok (Eskozia, Quebec, Kurdistan, Palestina, Katalunia eta Euskal Herria, beste batzuen artean) estatu egiturarik eraiki ezin izan badute ere, Castells-ek dioen bezala, kultura eta lurralde-identitate sendoa, nazio identitate indartsua, erakutsi dute mendez mende (2002, 52 or.).

3.1.2. Nazioen (berr)eraikuntza-prozesuak modernitatean

Kapitalismoak eta berak sorrarazi zituen fenomenoek koordinatu sozial, politiko, kultural eta teknologiko berrietan jarri zituzten nazioak eta nazio estatuak modernitate-aroan⁴⁴. Prozesu berriak agertu ziren ordura arteko estatuen eta nazioen eraikuntzetan. Poulantzas-ek dio kapitalismoak espazio eta denbora matrize oso bestelakoak ekarri zituela aurrekoekin alderatuta. Eta matrize horiek aldatzeak errealitatea bera aldatu zuela neurri handi batean: espazio eta denbora matrize modernoek *lurraldetasunaren* eta *tradizio historikoaren* zentzua aldatu zuten bere ustez. Aldatu egin zen estatuak lurraldearekin eta tradizio historikoarekin zuen harremana eta, horren ondorioz, nazioa eta nazio estatua *nazio* eta *nazio estatu moderno* bihurtu ziren (1979, 115 or.).

Poulantzas-ek dio, orobat, kapitalismoak Antzinaroari eta Erdi Aroari zegokion *espazio* mota aldatu zuela⁴⁵. Kapitalismoak langilea lan- eta ekoizpen-bideetatik bereizi izanak espazio matrize oso bestelakoa ekarri zuen bere esanetan: espazio zatikatua, etena, seriala, sailez osatua, zelularra eta ezin itzulizkoa. Hots, fabriketako lan-katean islatzen dena. Hortxe sortu da Poulantzas-en hitzetan *espazio modernoa* eta espazio modernoan sortu zen *mugaren* zentzu modernoa. Kapitalismoak lekuz alda daitezkeen mugak sortu ditu, eta muga horiekin estatuen *barrua* eta *kanpoa* finkatu du. *Lurraldea*, horrela, nazio modernoaren osagai bihurtzen da espazio matrize kapitalistan, elementu erabat politikoa eta nazionala. Bortxaren monopolioa tarteko, estatu modernoa gai da botereaz baliatuz lurralde horretako subjektuak moldekatzeko, mugen barnean *nazio bateratzea* eta *nazio homogeneizatzea* gauzatzeko. Aldi bereko fenomenoak dira gainera bere esanetan: bateratze hori eraiki ahala eratzen da estatu kapitalista, batu eta homogeneizatu ahala finkatzen ditu "bere" mugak (1979, 118 or. eta hurr.).

⁴⁴ Kapitalismoa modernitatearekin lotzen badugu ere, historialari eta ekonomialari askok Erdi Aroan kokatzen ditu bere sustraiak. Ikus Mendizabal, 1999.

⁴⁵ Antzinaroko eta Erdi Aroko espazio antolaketan sakontzeko, ikus Poulantzas, 1979, 119-122 or.

Muga nazionalak ezarri eta barnekoa bateratzen duen bezala, kanpoaldera ere begiratzen du estatu kapitalistak: merkatuen, kapitalaren eta lurraldeen hedatzea baita *kanpoaldea*. Kapitalismoak infinituraino heda daitekeen espazio bihurtzen du *barrualdea*: hortxe datza, hain justu, inperialismoa. Inperialismoa lan-prozesuen eta kapitalaren transnazionalizazioa baino ez da Poulantzas-en iritziz. Genozidioak bezala, totalitarismoaren sustraiak ere, nazio estatu modernoaren espazio matrizean sortu dira Poulantzas-en iritziz (1979, 126-127 or.).

Espazio matrizearekin interakzioan, denbora matrizea aipatzen du Poulantzas-ek; bestela esanda "tradizio historiko komuna". Lurraldearen nozioan bezala hemen ere Poulantzas-ek kontatzen du kapitalismoak ekoizpen-harremanetan eta lanaren banaketa sozialean ekarri dituen aldaketek aldatu egin dutela denbora matrizea; kapitalismoaren aurreko populuetan tradizioak zuen zentzua eta funtzioa aldatu egin direla jendarte kapitalistan (1979, 128 or. eta hurr.).

Smith-ek denbora neurriari eta egoera sozioteknologikoari egozten die Erdi Aroko prozesuen eta XX. mendekoen arteko aldea. Smith-ek dio Erdi Aroan galestar, bretoi, kataluniar eta euskaldunen anexio-prozesuak iraupen luzeko prozesuak izan zirela. Egungo komunikazio-biderik, hezkuntzarik eta etorkizunaren irudikapenik ez zutenez, eta estatu boterearen indarra eta esku-hartzea askoz ere ahulagoa zenez, testuinguruak askoz ere gutxiago determinatu zuela etnien erresistentzia. XX. mendearen bigarren erdian, ordea, denbora eskala asko txikitu da eta komunikabide masibo, garraio, hezkuntza eta estatuen esku hartzeak, guztiek elkarri eraginda, eragin handiagoa dute herritarren etorkizuneko itxaropenetan. Eliteen nazionalismoak elikatu ditu itxaropen horiek⁴⁶ (1986, 253-254 or.).

Smith-ek bezala Iztuetak ere gaztigitzen du ilustrazio garaiaz geroztiko estatu aparatu modernoaren antolaketa-prozesuak hasiera-hasieratik izan zuela estatuaren

⁴⁶ Jelen ere bat dator horretan: "Geopolitical constraints and the late-modern diffusion of powerful communications technologies make possible the global acceleration of any social process" (2011, 385 or.).

eta gizabanakoaren arteko egitura guztiak desagerrarazteko helburua; tartean, jakina, "partikularismo polietniko" guzti guztiak ezabatzekoa. Lau elementu nahasi ziren prozesu hartan, lekuan lekuko testuinguruaren arabera: 1) estatuaren mendeko biztanleak asimilatzea; 2) bidean topatutako gizatalde desberdinak diskriminatzea; 3) eremu osoa homogeneizatzeko politika zentralizatzailea bultzatzea; eta 4) modernitateak ekarritako metodo eta teknika zientifikoak gobernu-politikan aplikatzea. Lurraldearen hedadurak, mendean hartutako biztanleriaren, eta agintariak eskura zituzten baliabideek⁴⁷ baldintzatu zuten homogeneizazio prozesuaren "efikazia" (Smith, 1976, 323-325 or.; Iztueta, 2000, 16 or.).

Hortxe lotzen ditu Smith-ek modernitatea eta nazio eraikuntza, hain zuzen. Esaten du modernitate-aroan, estatu izaera nazioaren eta nazionalismoaren baldintzetan soilik legitimatu dela. Horregatik estatuak "nazio eraikitzaile" gisa ikusi behar direla modernitatean (Smith, 1986, 262-263 or.).

Ondorio gisa, ikerketa honen helburuetarako interesgarri iruditzen zaigu Castells-en honako ideia hau: hurrenez hurren, aldian aldiko espazio eta denbora testuinguruek, memoria kolektiboak eskura dituen lehengaiak, eta botere-estrategiek baldintzatu dituztela nazioen eta nazio estatuen eraikuntza-prozesuak (2002).

3.2. Nazioen (berr)eraikuntzak, prozesu generizatuak

Botere harreman oro bezala nazioen (berr)eraikuntza prozesuak ere generizatuak dira. 90eko hamarkadatik aurrera asko handitu da generoaren eta nazioaren

⁴⁷ Baliabide haietako bat hizkuntza homogeneizazioarena izan zen. Eraginkorragoa baitzen lurralde bat administratzea kontu publikoak hizkuntza bakarrean kudeatuz gero. Estatuaren mendeko eremuetan talderen batek etnia dominantearen hizkuntza hitz egiten ez bazuen, "aurkariak" berdintzeko premiak eraginda, homogeneizazio-estrategiak erabiltzen zituzten agintariak etnia horiek asimilatzeko. Hizkuntza uniformizazioa tresna oso eraginkorra izan da bide horretan (Iztueta 2000, 16 or.; Smith, 1976, 323-325 or.).

harremanari buruzko ikerketa⁴⁸. Amurriok dio ikertzaile feminista gehienak⁴⁹ nazioa eta generoaren arteko harremana aztertzeko Anderson-en "irudikatutako komunitatearen" teorian oinarritu direla. Anderson-en nazioaren definizioak etnia eta generoaren gisako bazterreko kategoriei nazionalismoaren eremuan sartzeko bidea ireki diela iradokitzen dute (2003, 162-163 or.).

Egile feministek identitate-gatazka jarri dute mahai gainean, identitate nazionalaren eta identitate feministaren arteko gatazka, alegia. Eta honako galdera honi erantzuten saiatu dira: ea zein neurritan askatu lezaketen emakumeek beren burua nazio eraikuntza prozesuetan. Horretarako emakumeek prozesu horietan bete duten rola aztertzen hasi ziren ikertzaile feministak. Yuval-Davis (1980) eta Anthias-ek (1981; Amurriok aipatuak, 2003, 164-165 or.) etnia, nazio eta estatu eraikuntzetan emakumeen bost parte hartze mota bereizi zituzten 80ko hamarkadan. IV. atalean ikerketa enpirikoa aztertzen dugunean, emakumeen parte hartze hauek baliagarriak izango dira eta, beraz, aipatu egingo ditugu:

- 1) komunitate etnikoetako kideen sortzaile biologiko gisa;
- 2) kolektibitatearen mugen sortzaile gisa;
- 3) kolektibitatearen ideologiaren sortzaile eta kulturaren igortzaile gisa;
- 4) etnia eta nazioen eraketan, eraldaketan eta eraikuntzan erabilitako diskurtso ideologikoetako sinbolo pasibo gisa; eta
- 5) borroka nazional, politiko, militar eta ekonomikoetako parte hartzaile aktibo gisa.

Testuinguru historiko bakoitzean parte hartze bat edo bestea gailendu zaie gainerakoei eta testuinguru aldaketek eraldatu egin dituzte, halaber, denboran zehar. Yuval-Davis eta Anthias-ek (in Amurrio, 2003, 165 or.) zehaztutako parte hartze horien arabera, etnia, nazio eta estatu eraikuntzetan emakumeek

⁴⁸ Ikus Yuval-Davis, 1980, 1993; Jayawardena, 1986; Pateman, 1988; Enloe, 1989; Yuval-Davis eta Anthias, 1989; Kandiyoti, 1991; eta Parker et al., 1992 (Yuval-Davis, 2004, 15 or.). Generoa eta abertzaletasunaren harremanean sakontzeko ikus Del Valle, 1985; Aretxaga, 1988; Ugalde, 1993; Hamilton, 1998; eta Amurrio, 2003.

⁴⁹ Aretxaga (1988), Ugalde (1993) eta Yuval-Davis (2004), adibidez.

halaberrez hartzen dute parte zenbaituetan: sortzaile biologiko gisa, edo egunerokoan seme-alabak sozializatuz kulturaren sortzaile gisa. Beste batzuetan, berriz, sinbolo gisa erabiltzen ditu nazio diskurtsoak. Eta, azkenik, beste zenbait kasutan, kontzientzia osoz dihardute mugimenduan edo borrokan.

Yuval-Davis-ek nazionalismoen hiru dimentsio bereizten ditu genero harremanak aztertzeko (2004, 47 or. eta hurr.): *Volknation* edo dimentsio genealogikoa, *Kulturnation* edo dimentsio kulturala, eta *Staatnation* edo estatuan oinarritutako herritartasuna. Egitasmo nazionalista jatorri edo arraza komunaren gainean eraikitzen denean (*Volknation*) emakumeak umeen sortzaile biologiko gisa hartzen dira eta nazionalismoak kolektibitatearen eramaile bihurtzen ditu nazioaren eraikuntzan. Nazioaren mugak eraikitzekeo prozesuan jatorri edo arraza komunaren ideia dagoenez oinarrian, emakumeen birsortzaile rola garrantzia berebizikoa da; kolektibitate-kidetza bertan jaio izanarekin lotuta baitago. Beraz, arrazaren garbitasunari eutsi nahi dioten mugimendu nazionalistetan berebiziko garrantzia du beste kolektibitateetako kideekin sexu-harremanak ez izateak.

Egitasmo nazionalistak dimentsio kulturala lehenesten duenean (*Kulturnation*), hizkuntza, erlijioa, ohitura edo/eta tradizioak osatutako ondasun sinbolikoa jartzen du nazioaren oinarrian. Sinbolo kultural horiek *gu* eta *besteen* arteko muga sortzen dute; "muga babesle" sinboliko gisa dihardute (Armstrong, 1982). Yuval-Davis-ek dio bereizketa prozesu hori botere harreman orokortuen baitan aztertu behar dela eta genero sinboloek rol erabakigarria betetzen dutela bertan: hala, gorputz generizatuek eta sexualitateak funtsezko zeregina dute etniaren edo nazioaren muga babesle gisa. Kulturaren esparruan birsorkuntza sozialak garrantzi handia du, funtsezkoa baita kulturaren biziraupenerako belaunaldiz belaunaldi transmititzea. Prozesu horretan oinarritzko papera dute familiaren barruko harremanek, hots, etxearen eraikuntzak. Kasu horretan emakumeak kolektibitatearen ideologiaren sortzaile eta kulturaren igortzaile gisa jotzen ditu nazionalismoak (2004, 65 or. eta hurr.).

Rol horiez gain, emakumeen irudiak (amarenak bereziki) kolektibitatearen espiritua sinbolizatzen du kultura askotan. Seme-alabei, familiari, lotuta irudikatzen dira. Etnia eta nazioen identitatearen eta etorkizuneko patuaren sinbolo pasibo gisa *erabiltzen* ditu, beraz, diskurtso nazionalistak. Eta, maiz, kolektibitatearen *ohorea* transmititzeko zama ere bere gain jartzen du nazionalismoak: hartara, arau sozialen bidez emakumeen "jarrera egokiak" definitzen baititu eta jarrera-eredu horiek maiz emakumeen interesen kontrakoak izaten dira. Baina proiektu etniko eta nazionalen identitatea (batasuna eta ohorea) sinbolizatzen duten aldi berean, *gu* politikotik baztertuak izaten dira. Eta, ondorioz, anbiguitasun horrek bizi ditu askotan emakume nazionalistak: izan ere, proiektu nazionalistarekin identifikatzen diren aldi berean eredu hegemonikoarekiko kontraesanean bizi baitira (Amurrio, 2003, 180-184 or.; Yuval-Davis, 2004).

Amurriok dio feminismoa eta nazionalismoa uztartu dituzten ikerketa feministei esker, gaur egun badakigula nazionalismoek nazioen eraikitze-prozesuetan *objektu* bihurtu dituztela emakumeak. Baita hori nola egin duten ere: besteak beste, sinboloen eta tradizioen bidez. Baina Amurriok gaztigitzen du ikerketa feministek ez dutela inondik inola ere maila berean ikertu nazioen eraikitze-prozesuetan emakumeek, *subjektu* gisa, beren partaidetzaz diotena. Eta, ondorioz, oso gutxi dakigula egun nazioen eraikitze-prozesuetan zenbateraino izan litekeen bideragarria emakumeen liberazioa. Kontua da borroka nazional, politiko, militar eta ekonomikoetako parte hartzaile aktibo gisa ere badihardutela emakumeek (2003, 15).

Amurriok argudiatzen du nazionalismoaren baitako genero harremanek forma desberdinak har ditzaketela; hots, komeni dela emakumeen rola nazio eraikuntza konkretuetan aztertzea eta ikustea ea nazionalismo batzuetan besteetan baino rol askatzaileagoa duten emakumeek. Ildo horretan estatudun nazioetako eta estaturik gabeko nazioetako eraikuntza prozesuetan genero harremanen eraikuntza ezberdina izan dela iradokitzen du (2003, 15, 185 or.).

Zentzu horretan, Abdo-k bezala Amurriok ere bereizi egiten ditu nazionalismo instituzionalizatueta emakumeek oro har izan duten parte hartzea eta nazio askapenerako mugimenduetan izandakoa. Batak eta besteak emakumeei ezarri dizkien zeregin eta roletan zenbait antzekotasun daudela onartu arren, Abdo-k ohartarazten du historikoki estatu nazionalismoek agintekeria eta gehiegikeriaz erabili dituztela emakumeak. Nazio askapenerako mugimenduek, berriz, uste du beren izaeragatik emantzipaziorako espazio bat eskaini dietela emakumeei. Alegia, rol aktiboa hartu dutela emakumeek beren nazio askapenean eta, alde edo moldez emakumeen kezka mahai gainean jarrita, emakumeek nabarmenki lagun dezaketela mugimendua bere estruktura patriarkaletatik askatzen (Amurriok aipatua, 2003, 185-186 or.).

4. Nazio (berr)eraikuntzarako faktoreak eta agenteak: nazio diskurtsoa eta nazio mugimendua

Gogora dezagun berriro hemen Smith-en nazionalismoaren definizioa: nazionalismoa nazioaren *ideologia* gisa, nazioaren *diskurtso* eta *sinbolismo* gisa, eta nazioaren izenean sortutako *mugimendu* soziopolitiko moduan definitu dugu. Aipatu dugu baita ere nazionalismoaren helburua nazio beregainaren estatusa lortzea dela eta, horretarako, hiru azpi-helburu hauek bilatzen dituela: nazioaren autonomia, nazioaren batasuna eta nazio identitatea sustatzea eta zurkaiztea (2000, 329 or.; 2004, 19 or. eta hurr.).

Nazio estatusa sustatzeko jendarteak aldatzen saiatzen da gehienetan estaturik gabeko nazionalismoa. Jendarte aldaketan eragiten duten faktoreez eta agenteez hitz egingo dugu atal honetan. Faktoreen artean ideologikoa (diskurtsoa) interesatzen zaigu ikerketa honetarako eta aldaketa hori bultzatzen duten agenteetan mugimendua (eta horri lotuta elitea) aztertuko ditugu.

4.1. Nazio (berr)eraikuntzarako faktoreak: nazionalismoaren ideologia eta diskurtsoa

Nazionalismoaren ideologiak zehazten du diskurtsoaren, sinboloen, eta mugimenduaren norabidea, berak biltzen baititu nazionalismo jakin baten oinarritzko printzipioak, ideiak eta helburuak. Eta helburu horien arabera dihardute diskurtsoak, sinbolismoak, eta mugimenduak. Ideologia nazionalistaren barne osagaiak eta diskurtsoaren kontzeptu gakoak bereiztezinak dira; batak bestea elikatzen baitu (Smith, 2000, 329 or.; 2004, 19 or.eta hurr.). Horregatik aztertuko ditugu elkarri lotuta.

Ideologiak, dakigunez, paper dinamikoa bete izan du historian. Ziurgabetasun eta ezinegon edo sumindura sozialak asetzeko eginbide komun bat proposatu ohi du. Taldeak sorrarazten ditu horrela: *gutasuna*, *alegia*. Norbanakoak *taldearekin* egiten du bat, eta honek botere-sentipena, segurtasuna, eskaintzen dizkio. Ideologiaren gutasun sentiera hori balio batzuk sinbolizatzeko eta gauzatzeko baliatu ohi da; eta gainera, balio berriak ere sor ditzake. Errealitatea azaltzerakoan interes indibidual eta kolektibo jakin batzuei erantzuten die, balio jakin batzuen araberrako iritziak sozializatzen ditu: errealitatea deskribatu ahala epaitu egiten du. Zentzu horretan egoera jakin bat justifikatu egin dezake edo, alderantziz, zalantzan jarri eta kritikatu (Rocher, 1990, 476-478 or.).

Ideologiaren efektuek forma ugari har ditzakete, oso fenomeno konplexua da. Lau irizpide erabiltzen ditu Rocher-ek ideologiak sailkatzeko (1990, 483-484 or.): zein talderi zuzentzen zaion; ideologiaren eta boterearen arteko harremana⁵⁰; bultzatzen dituen eginbideak; eta, azkenik, zein eduki duen. Azken puntu horretan lau ideologia mota bereizten ditu Rocher-ek: *erreakzionarioa* iraganera itzultzea

⁵⁰ Analisi marxistak klase dominantearekin lotu zituen ideologia eta bere funtzio sozialak. Ideologiak klase dominantearen interesei eta posizioari eusteko (statu quo-a mantentzeko) funtzioa betetzen zuen marxisten ustez. *Ideologia hegemonikoari* aurre egiten dion ideologiari *kontraideologia* deitu ohi zaio egun. Kontrakontzientzia sortzeko gai den neurrian, jendarte-aldaketarako funtsezko faktorea bihurtzen da ideologia (Rocher, 1990, 481 or.).

irudikatzen duten konponbideak proposatzen baditu; *kontserbadorea* statu quo-aren alde egiten badu; *progresista* edo *liberala* aldaketa batzuen mesedetan tradizio batzuk alboratzea proposatzen badu; eta *erradikala* statu quo-a erabat edo ia erabat haustea edo iraultzea hobesten badu.

Ideologiaren azterketa enpirikoa egiteko jendarte aktore sozialek ideologiak nola adierazten eta bizi dituzten behatzen du Van Dijk-ek: ea ideologiek eguneroko jendarte praktikan nola funtzionatzen duten. Horretarako, ezinbesteko lana da egile honen aburuz norbanakoen eta taldeen *diskurtso-adierazpenak* behatzea. Praktika ideologiko sozial bakarrak ez diren arren, diskurtsoek funtsezko funtzioa dute ideologiaren formulazioan eta erreproduzioan. Izan ere, talde bateko kideek hizkuntza bat behar dute gauza berriak ikasteko; hizkuntza bat eta hizkuntza horretan idatzitako testuak, elkarrizketak, eta komunikazioa erabiltzen dituzte ideologiak bereganatzeko, aldatzeko, artikulatzeko, eta baita gainerako kideei transmititzeko ere; baita taldekoak ez direnen aurrean defendatzeko, edo haien artean zabaltzen saiatzeko ere (1998, 19 or.).

Hori eta horrenbestez, berrets dezagun, ideologia nazionalistak biltzen dituela nazionalismo jakin baten oinarritzko printzipioak, ideiak eta helburuak. Eta helburu horien arabera dihardutela diskurtsoak, sinbolismoak, eta mugimenduak. Hain zuzen nazionalismoaren ideologiaren funtsa horretan datza Smith-en ustez: kontserbadore edo iraultzaile, nazionalismo orok nazio identitatearen edo nazio estatusaren helburua bilatzen du, nahiz identitate- edo estatus-maila hori oso ezberdina izan daitekeen gero praktikan (2004, 24 or.). Helburu hori lortzeko hiru azpi-helburu hauek bilatzen ditu: nazioaren autonomia, nazioaren batasuna eta nazio identitatea sustatzea (2004, 37 or. eta hurr.). Nazioak kanpoko esku-hartzerik gabe bere burua arautzeko eskubidea aldarrikatzen du. Autonomiaren ideia estu lotuta dago talde batasunarekin. Nazio orok bilatzen duen hirugarren ideala nazio identitatearena da Smith-en hitzetan. Nazio identitatea talde izaeraz eta talde horren oinarri historikoaz eta kulturalaz arduratuko litzateke (Smith, 2004a: 20-22, 43).

Autonomiaren, batasunaren eta identitatearen idealak abstraktu samarrak dira inondik ere. Horiek zertxobait zehazteko beste oinarritzko kontzeptu batzuk ere hartu behar ditugu aintzat, nazio komunitate bakoitzari dagozkion berezitasunekin eta nozioekin; batez ere ideal haiek programa politiko eta kultural praktikoekin, diskurtsoarekin, lotu ahal izateko. Esate baterako, iraupena, duintasuna, atxikimendua, patua, arraza edo hizkuntza (Smith, 2004a, 45 or.).

Ideologia nazionalisten definizio hau proposatzen du Smith-ek: alegia, *nazionalismoa* kontzeptu-multzo gisa hartzea, elkarri gainjarritako "kontzeptu-familia" baten modura ulertzea. Betiere kontuan izanda ideologia horietan guztietan goian aipatutako hiru helburu nagusiak errepikatzen direla: hala nola nazio identitatea, batasuna eta autonomia. Nazionalismo bakoitzean gradu ezberdinean agertu daitezke, edonola ere. Oinarritzko kontzeptu horiek ideologia nazionalistaren mundu ikuskera taxutzen dute Smith-en arabera, baita ideologia horietatik eratorritako programa politikoena ere. Baina kontzeptu horiek oso modu ezberdinean nahasi eta erabil ditzakete nazionalistek eta, horrela, ezaugarri oso ezberdinak hartzen dituzte: horren guztiaren ondorioz, berriz, nazionalismo mota ezberdinak sortzen dira Smith-en arabera⁵¹ (2004, 50 or.).

Egungo nazio estatuen sistema ideologia nazionalistaren gainean eraiki dela esan genezake: ideologia nazionalistak legitimatzen du, hain zuzen, nazio estatuetan oinarritutako mundu-antolaketa. Izan ere, modernitateak legitimatu duen politika-unitate bakarra horixe baita Smith-en arabera, nazio estatuarena. Inplizituki edo esplizituki nazio estatuak nazionalismoaren ideologiarekin bat egiten dute; nahiz askotan nazio estatuen jarduna nazionalismoaren printzipio orokorren⁵² kontrakoa gertatzen den (1986, 228 or. eta hurr.). Estaturik gabeko nazioek beren aldetik,

⁵¹ Ezinezkoa da ideologia nazionalisten profil bakar bat zehaztea. Gehiago ere aipa litezkeen arren, Smith-ek sei ideologia nazionalista mota bereizten ditu: erlijiosoa, sekularra, kontserbadorea, erradikala, inperialista eta sezesionista (2004, 37-38 or.).

⁵² Sei printzipio identifikatzen ditu Smithek (2000, 329 or.; 2004, 38 or.): 1) mundua naziotan banatuta dago; 2) botere politikoaren iturburu bakarra nazioa da; 3) nazioarekiko leialtasuna beste edozein leialtasunen gainetik dago; 4) norbanakoak aske izateko nazio baten kide izan behar du; 5) nazio orok autonomia eta askatasun osoa behar du izan bere burua aditzera eman ahal izateko; eta 6) munduan bakea eta justizia izateko nazio autonomoz osatutako mundua behar da.

berriz, printzipio horiek ozenki (esplizituki) aldarrikatu beste aukerarik ez dute izaten beren nazio estatusa lortzeko saiakeran.

Aurretik ere esan dugu ideologia eta diskurtsoa estu lotuta daudela: ideologiaren barne osagaiak eta diskurtsoaren kontzeptu gakoak bereiztezinak direla (Smith, 2004a, 21-22 or.). Van Dijk-ek, berriz, diskurtsoaren lau definizio ematen ditu⁵³. Gure ikerketarako adiera hauxe interesatzen zaigu: aldi bateko, edo komunitate edo kultura jakin baten testu edo elkarrizketa multzoa⁵⁴. Izan ere, 50 eta 60ko hamarkadetan ETAk ondu zuen diskurtsoa aztertu nahi dugu ikerketa honetan. Diskurtsoaren nozio abstraktu hau maiz ideologiarenarekin estu lotuta agertzen dela dio Van Dijk-ek⁵⁵. Ideologiaren funtzionatzeko era ulertzeko, ideologiaren diskurtso-adierazpenak xehe-xehe behatzea ezinbesteko lana dela esan dugu gorago. Van Dijk-ek diskurtsoaren azterketa subjektiboagoak baztertu, eta testuaren eta elkarrizketaren funtzioetan, kondizioetan eta ondorio sozialetan erreparatzen du: testua eta elkarrizketa dagozkien testuinguru sozialetan egiazki nola produzitzen, interpretatzen eta erabiltzen diren ikusteko (1998, 249-252 or.).

Diskurtso ideologikoen funtzioetan honako hauek azpimarratzen ditu: ezagutza erakustea, talde leialtasuna eta talde kideztza sustatzea, balioen eta ebaluazio-irizpideen normalizazioa, praktika sozialak ebaluatzea, jendarteratzea, konbentzitzea, eta manipulatzeko (1998, 290 or.). Horien artean balioen eta ebaluazio-irizpideen normalizazioa edo legitimazioa da ideologiaren funtzio sozial nagusitako bat (1998, 318 or.). Gure ikerketa aintzat hartuta, talde leialtasunaren, talde kideztzaren, eta legitimazioaren funtzioetan erreparatuko dugu guk.

Diskurtsoa ideologiaren produkzioarako eta erreproduzioarako praktika sozial bakarra ez den arren, estatus berezia aitortzen dio Van Dijk-ek egiteko horretan.

⁵³ Ikus Van Dijk, 1998, 246-250 or.

⁵⁴ Edonola ere, Van Dijk-ek *diskurtsoa* erabiltzen duenean ez da hitzezkoak ez diren estruktura sozialez edo komunikazio-gertaerez ari. Jendarteak eta praktika sozialak, bere horretan, ez ditu *diskurtso* gisa deskribatzen (1998, 250 or.).

⁵⁵ Bi kontzeptuak esanahi berarekin erabiltzea teorikoki, enpirikoki eta analitikoki akats egitea dela azpimarratzen du Van Dijk-ek (1998, 250 or.).

Gainontzeko praktika sozialen alboan (sinboloak, ikurrak, irudiak, keinuak, filmak edo dantza, adibidez), testuaren eta elkarrizketaren ezaugarriek erraztu egiten dute ideologia-sinesmen abstraktuak adierazteko eta jakinarazteko lana. Van Dijk-ek dio sinesmen sozialak, ezagutzak eta iritziak zuzenean adierazteko, oro har, ez dagoela "hizkuntza naturala" (mintzaira) baino kode esplizituagorik. Ideologia zeharka erakutsi dezakeen bezala, diskurtsoa gai da modu esplizituan eta zuzenean sinesmen ideologikorik zehatzenak eta abstraktuenak ere adierazteko. Van Dijk-en iritziak, ideologiaren sozializazioa batez ere, diskurtsoaren bidez egiten dute aktore sozialek (1998, 243-245 or.).

Diskurtsoa testuinguruaren⁵⁶ araberakoa izaten da (Van Dijk, 1998, 285-286 or.). Testuinguru horretan komunikazio-ekintza orok *intentzio* eta *helburu* bat izaten du. Parte-hartzaileek testuinguru jakin batean esan edo idatzi nahi dutenari buruzko eredu mentalak eraikitzen dituzte, halaber, eta diskurtsoa intentzio eta helburu jakin bat gauzatzeko produzitzen dute, inplizituki edo esplizituki. Era berean, hizketa-jarduera oro *kondizio* edo *baldintza* jakin batzuetan gertatzen da; berez, komunikazio-ekintza batzuk kondizio edo baldintza jakin batzuetan soilik gerta daitezke. Diskurtsoaren *euskarriak* eta *objektuak* ere garrantzitsuak izan daitezke interakzio sozialaren ezaugarri ideologikoak erakusteko, diskurtso-praktika bateko harreman hierarkikoak eta dominazioa erakusteko. Parte-hartzaileek beren posizioa, ogibidea, rola edo estatusa erakutsi lezakete eskura dituzten euskarriengatik. Euskarriek (objektuek, uniformeek, eta abarrek) inplikazio sozial eta sinboliko ugari dituzte; funtsean, inplikazio ideologiko ugari (1998, 272-277 or.). Diskurtso-testuinguruaren dimentsioetan, ezin dugu baztertu aktore sozialen *rola*. Parte-hartzaileen roletan igorlearena eta hartzailearena azpimarratzen ditu Van Dijk-ek: hiztun/idazlearena eta entzule/irakurle/behartzailearena. Rolak ez dira finkoak, jakina; interakzio sozialean txandakatu egin daitezke. Parte-hartze mailak, bada, oso ezberdinak izan litezke. Van Dijk-ek gogorarazten digu interakzio sozialeko parte-

⁵⁶ Komunikazio-ekintzen testuinguruan honako dimentsioak aztertzen ditu Van Dijk-ek: komunikazio-ekintza tipoa, intentzioa, helburua, denbora, espazioa, kondizioa, euskarriak, objektuak, rola, afiliazioa, kidetza, *besteak* eta jendarte irudikapena (ikus, 1998).

hartzaileen rolek estruktura konplexuak osatzen dituztela gehienetan. Hemen ere begien bistakoa da komunikazio-rolen dimentsio ideologikoa: hala, boterea eta dominazioa agerikoak dira, esate baterako, boterea dutenak beren komunikazio-rolak baliatu daitezkeenean, eta beste batzuk rol horietatik kanpo utz ditzaketenean. Ideologiek polarizazioa, borroka, gatazka eta lehia dakarten neurrian, rol sozialek ere bere -berek dituzte botere harremanak (1998, 278-281 or.).

Komunikazio-ekintzetako parte-hartzaileek, duten rola dutela, maiz ez dute beren kabuz jarduten, erakunde edo talde baten ordezkari gisa baizik. *Afiliazioak* funtzio garrantzitsua du komunikazio-ekintzan, parte hartzaileek erakundeen izenean jarduten baitute. Berez, Van Dijk-ek dio komunikazio-ekintzak eta parte-hartzaileak erakunde-afiliazio sare zabaletan txertatuta egoten direla; sare batzuk zorrotzagoak eta legalki zehaztuagoak izaten dira, beste sare batzuk aldiz, zehaztugabeagoak, aldaketarako eta negoziaketarako malguagoak. Van Dijk-ek dio erakunde-afiliazioen ondorioz, parte-hartzaileek erakundeen ordezkari gisa hartzen dutela parte komunikazio-ekintzetan eta, beraz, askotan (gehienetan) erakunde horien ideologia daramatela testuingurura. Izan ere, erakundeen ordezkariak lerratuta edo behartuta egoten dira erakundearen interesak ordezkatzera⁵⁷. Rolak eta afiliatioak eraikuntza sozialak diren neurrian, negoziatu, aldatu, indartu, ahuldu, ahaztu edo baztertu egin daitezke denboran zehar (1998, 281-283 or.).

Diskurtsoak maiz *besteei* buruzkoak izaten dira: hau da, testuingurutik at daudenei buruzkoak. Testuingurutik kanpo egon arren, *besteak*, neurri batean, diskurtsoak adierazitako gertaeraren zati izan litezke, diskurtsoaren erreferente. Komunikazio ekintzetako parte-hartzaileek irudikatze sozialak partekatzen dituzte: ezagutzak, jarrerak eta ideologiak. Intentzio eta helburu indibidualagoetatik haratago, parte-

⁵⁷ Edonola ere, ideologia-lerrokatze horiek ez dira zuzenak izaten. Gerta litekeelako, esate baterako, parte-hartzaileen eredu pertsonalak eta kide direneko taldearen jendarte-irudikapenak erabat bat ez etortzea; eta horrez gain, parte hartzaileak aldi berean hainbat jendarte taldetako kide diren heinean, eta aldi berean jendarte irudikapen bat baino gehiago partekatzen dituzten heinean, gerta liteke jendarte irudikapen batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa ematea (1998, 290 or.).

hartzaileak taldeetako eta erakunde sozialetako kide diren heinean, irudikapen horiek irudikapen sozialak izaten dira. Eta alde horretatik, interakzio sozialean eta diskurtsoan eragiten dute (1998, 283-284 or.).

Gorago esan dugu ideologiak praktika sozialen bidez, bereziki diskurtsoaren bidez, erreproduzitzen direla. Sistema, estuktura edo giza jardueren segida edo jarraipen gisa ulertzen du Van Dijk-ek *erreprodukzioa*. Teorikoki, estuktura sozialaren maila makroa eta mikroa lotzen ditu kontzeptuak: alegia, sistema edo estuktura makroak (ideologiak eta hizkuntzak, kasu), aktore sozialen praktika sozialetan jartzen baitira agerian, maila mikroan. Harreman makro-mikro horretan ideologiak produzitu eta erreproduzitu egiten diren aldi berean, eraiki eta berreraiki egiten dira praktika sozialen bidez (1998, 287-288 or.).

Erreprodukzio sozialari dagokionez, Perez-Agotek dio taldekideek partekatzen dituzten definizio soziala praktika sozialen bidez kide guztiek atxikitzen eta erreproduzitzen dituztela, baina ez dituztela guzti-guztiek produzitzen. Ez baitute gaitasun eta botere bera *errealitatea* zer den eta nolakoa den definitzeko. Perez-Agotek ohartarazten du errealitatearen gaineko definizioak aktore espezifiko batzuek produzitzen dituztela, eta hainbat mekanismori esker bihurtzen direla definizio sozial; gero, jakina, gerta liteke definizio sozial horiek aktore sozial gehienek atxikitzea eta erreproduzitzea. Funtsean, definizio sozialen produkzio- eta erreprodukzio-zereginetan aktore sozial batzuek beste batzuek baino egoera abantailatsuagoa (boteretsuagoa) izaten dute, jakina. Perez-Agoteren hitzetan, botere sozial baten sendotasuna, botere horri berari zentzu soziala emateko duen gaitasunaren araberakoa da (1992, XI-XII or.).

Perez-Agoteren hitzak gure eginez, eta gure gaira hurbilduta, esan dezagun *nazioa* errealitate kolektibo baten definizio sozial bat dela. Hortaz, bere arrakasta errealitate kolektibo horretako kideek definizioa ebidentzia gisa bere egitean eta partekatzean datza. Arrakasta horretara iristeko, lehenik eta behin, definizioa bera produzitu egin behar da eta, ondoren, hainbat mekanismo sozialen bidez zabaldu.

Dena dela, Perez-Agotek jakinarazten du definizioaren arrakasta ez dela soilik definizioa zabaltzeko boterearen neurrikoa. Maiz, botereak inposatutako eta indarkeriaren bidez babestutako definizioek ez dute aktore sozialen onarpenik lortu. Hortaz, Perez-Agoteren hitzetan, definizioek arrakasta izan dezaten beharrezkoa da onarpen sozial maila bat izatea; onartuak izateko gaitasun maila bat (baldintza batzuk) izatea. Definizio baten onarpen sozialaren auzia izan liteke Perez-Agoteren hitzetan soziologiaren ikergai konplexuenetako bat; definizioa errealitate kolektibo batena denean, bereziki (1992, XI-XII or.).

Diskurtsoen erreprodukzioan, sinesmenen onargarritasuna azpimarratzen du Van Dijk-ek bere aldetik . Berez, sinesmenen onargarritasuna da, bere ustez, ideologiaren erreprodukzioan irizpide behinena (1998, 292-293 or.). Diskurtsoaren erreprodukzioa, oro har, eta sinesmenen onargarritasuna, bereziki, estu lotuta dago legitimazioarekin. Hain zuzen ere, ideologiaren eta diskurtsoen funtzio sozial nagusietako bat da legitimazioarena (Van Dijk, 1998, 318 or.).

Horiek horrela, diskurtso baten legitimazioa arrakasta soziala lortzean datza. Perez-Agotek dio konplexutasun hori aintzat hartuta ere, definizio baten arrakasta soziala ez dela oinarritzen duen egiazkotasun-mailan, edo beste definizio bat baino egiazkoagoa izatean. Bere hitzetan, definizio sozial bat arrakastatsua bihurtzen da talde batek definizio hori ikasi eta bere egiten duenean. Definizio batek arrakasta soziala lortu duela esaten da, taldekide gehienek bere egiten dutenean eta ebidentzia gisa onartzen dutenean. Perez-Agotek dio subjektuarentzat ebidentzia dena, begien bistako zerbait dena, bere ikuspegiaren parte bihurtzen dela eta, hortaz, ikusezina bihurtzen dela subjektuarentzat; ikusezina izanik, noski, subjektua ezin da ebidentziaz urundu eta ez da berau zalantzan jartzeko gai (1992, XI-XII or.).

Sinesmenaren kasuan bezala diskurtsoarenean ere, errealitatearen ikuspegi jakin bat inposatzeko gaitasunean datza diskurtsoaren egiazkotasuna: hau da, ebidentzia sozialak ekoizteko eta erreproduzitzeko botere-gaitasunean (1986, 39-40 or.).

Perez-Agoteren hitzekin esateko: "Es precisamente uno de los aspectos del fenómeno del poder en cualquier realidad social, la capacidad de imponer una visión de la realidad y la capacidad (...) de producir y reproducir evidencias sociales" (1986, 40 or.).

Harira etorrita, esan dezagun nazio diskurtsoek identitate bat sortzeko funtzio ideologikoa bete ohi dutela, eta, orobat, estrategia politiko jakin batzuekiko identifikazioa ere sortzen dutela (Finlayson, 1998). Batetik, nazio osagai jakin batzuen arabera nazioa definitzen dute; eta, bestetik, nazio osagai horiek nazio diskurtso batean azaltzen dituzte, eta, bidenabar, naziokideengan zabaltzen ahalegintzen dira masa mobilizatzeko (Smith, 1976; Rekalde, 1982, 72 or.; Zabalo, 2006, 83 or.). Diskurtsoan nabarmendutako nazio elementu horiek testuinguru jakin bati lotuta daude, eta, beraz, testuingurua aldatzen denean nazio osagai horien garrantzia aldatu egiten da (Jelen, 2011). Diskurtsoaren bidez eliteak eta mugimendu nazionalistak testuinguru historiko bakoitzean nazionalistekin konektatu behar dute, nazio kideek nazio sentimendua bereganatu eta atxiki dezaten. Abertzaletasuna horren ispilu gardena da.

Diskurtsoaren eta naziokideen artean tentsioak sortzen dira aldian-aldian: izan ere, naziokideak diskurtsoarekin identifikatzen diren neurrian, ideologia horren arabera jokatzen ahalegindu ohi dira. Baina zenbaitetan gerta liteke naziokideak diskurtsoarekin ez bat egitea eta, orduan, diskurtsoa aldatzen ahalegintzea. Kontraesan eta krisi horiek diskurtsoa egokitzeko balio dute noski. Egokitzapena handia denean, paradigma aldatu dela esan liteke. ETAk EAJren nazio diskurtsoarekiko egin zuen aldaketa (Zabalo, 2006, 85 or.).

Edonola ere, nazionalismoa ez da ideologiaren eremura soilik muga daitekeen gertaera: hartara, ez da sinesmen-sistema soila, nazionalismoa kultura mota bat da, erlijio moduko bat. "Ordezkatutako erlijioa" esaten dio Smith-ek. Funtzio horretan

funtsezko zeregina dute nazio sinboloek⁵⁸. Nazioaren historia eta herri-kultura indartzeko forma eta eduki publikoa eta politikoa ematen dio nazionalismoak nazioari. Kultura nazioa politizatu egiten da eta *kultura publiko* hori jendartearen eta eremu politikoaren molde eta neurri bihurtzen da. Smith-en arabera, kulturaren adierazpen publiko horretan sortzen dira sinbolo politikoak eta kulturalak, nazio sinboloak (Smith, 2004a, 51-52 or).

Connor-ek, bere aldetik, zera dio: hitzik erabili gabe naziokideei mezuak igortzeko edo komunikatzeko balio dutela nazio sinboloek. Ideologia eta diskurtsoa ez bezala, nazio sinbolo asko ukigarriak baitira, eta bizitasun handiko ikurrak. Eta horregatik, Connor-ek gaztigatzen du azalpen arrazionalak iristen ez diren lekura iristen direla sinboloak, ikus daitezkeenak bereziki: "Se ha llegado al núcleo no racional de la nación y se ha logrado su reacción a través de los símbolos nacionales" (1998, 192 or.; letra etzanak jatorrizkoan).

Armstrong-en iritziz, berriz, "muga-zaintzaile" gisa dihardute sinboloek: hots, *gu* eta *besteak* bereizteko balio dute. Sinboloak taldearen barneko kideei eta kanpokoei igortzen zaizkien ikurrak dira Armstrong-en hitzetan. Sinboloen interakzioa komunikazio-modu bat da: hala, sinboloak *edukia* dira eta komunikazioa eduki horiek igortzeko *bitartekoa*. Armstrong-ek dio sinboloen edukia gehienetan arbasoek sortua dela: hau da, taldearentzat ikur esanguratsu diren sinboloak, belaunaldi batzuk lehenagokoek sortuak. Horregatik arrazoitzen du Armstrong-ek etnien komunikazio sinbolikoa epe luzean gertatzen den komunikazioa dela (1982, 8 or.).

Armstrong-en ekarpenetatik hurbil, Hutchinson-ek adierazten du kultura sinboloak funtsezkoak direla taldeen eraikuntzan: izan ere, identitate jakin batekiko leialtasuna sortzeko gai dira bere ustez. Era berean, oroitzapenei bezalatsu sinboloei ere funtsezko rola aitortzen die Hutchinson-ek nazioen izaeran eta

⁵⁸ Nazio sinbolismoan sakontzeko ikus Hobsbawm eta Ranger (2002).

historian. Hain zuzen ere, bere ustez, oroitzapenei eta sinboloei esker ziurtatzen du nazioak naziokideen arteko maitasuna (Smith-ek aipatua, 2000, 315-318 or.).

Nazio sinboloek, egia esan, garrantzi handia hartu dute mundu modernoan: hau da, nazio estatu bakoitzak estatu hiriburua du, gobernua, lurralde-mugak, hizkuntza hegemonikoa, zeremoniak, desfile militarrik, arte akademiak, museoak, nazio liburutegiak, gerra-monumentuak, jai-egunak eta ospakizunak. Armstrong-en tesia erdizka besarkatuz, Smith-ek dio nazio sinboloen erakustaldi horrek nazioaren "muga-definizioa" besterik ez duela indartzen: hartara, sinboloek nazioa *besteekiko* ezberdintasunaren gainean definitzeko aukera ematen dute bere ustez. Eta baita naziokideak imajinario komunaren bidez eta partekatutako oroitzapenen eta mitoen bidez nazioaren baitan biltzeko (Smith, 2004a, 22-23 or.).

Billig-ek (1995) esan bezala, estatuak "eguneroko nazionalismoa" erabiltzen dute nazio diskurtsoa eta sinboloak jendarteratzeko. Nazio estatua eraikitzeko bideak *normalizatzeko* boterea dauka estatuak eta, horrenbestez, herritarrek maiz ez dute nazionalismo horren kontzientziarik izaten. Gure eta *besteen* artean etengabeko bereizketa eginez, herritarrek estatuaren erakunde, kirol, kultura edo bestelako edozein egituraren ordezkariekin bat egin dezaten ahalegintzen da estatu nazionalismoa, eta arrakasta izan ohi du gehienetan.

Smith-en iritziz, hortaz, nazio sinboloek nazioaren gainean partekatutako esperientziak eta balioak irudikatzen dituzte, eta *mitoek* esperientzia eta balio horiek *ereduz* adierazten dizkiete naziokideei. Sinboloek eta mitoek taldekideen artean oihartzunik ez badute, funtzio horiek ez betetzearen seinale da Smith-en arabera: esan nahi du naziokide gehienentzat sinbolo eta mito horiek ez dituztela esperientzia eta balio esanguratsuak irudikatzen, argitzen eta ereduz adierazten. Beraz, ez dira gai taldekideak batuta mantentzeko eta, ondorioz, ahuldu eta zatikatu egiten dira. Kultura (sinboloen, oroitzapenen, mitoen eta balioen esanahia eta irudikapena) ez da "ezaugarri-inbentario" hutsa Smith-en iritziz. Belaunaldien

arteko jarraipena, metaketa edo gordailu moduko bat da⁵⁹: tradizio-multzo bat, alegia. Smith-en hitzekin esateko "balio, mito eta sinboloetan adierazitako esanahiak eta irudiak moldatzen dituen bilduma eraginkorra" (Smith, 2000, 328-329 or.). Belaunaldiz belaunaldi gizatalde batek sortzen duen ondarea da, eta partekatutako ondare horri esker taldekideak taldearen barneko sentitzen diren bezalatsu *besteekiko* arrotz sentitzen dira.

Nazionalismoak, nazio identitatearen sustatzaile izanik, bere egiten ditu nazio sinboloak, nazio kultura suspertzeko ez ezik, naziokideak bere diskurtsora eta mugimendura erakartzeko. Naziokideak erakartzeaz gainera, jakina, denboraren joanean, arian-arian, bere proiektuarekin bat egin dezaten ahalegintzen da nazionalismoa. Nazioaren diskurtsoa abstraktu samarra gerta litekeenez, nazioaren eta nazio identitatearen muina naziokideei etengabe gogorarazteko eta, horrela, naziokideak elkartuta mantentzeko belaunaldiz belaunaldi sortutako sinboloen ondare hori erabiltzen du nazionalismoak (Smith, 2000).

Zernahi den ere, nazionalismoak erabiltzen dituen sinboloek jendartean duten zilegitasun-maila, diskurtso eta mugimendu nazionalistaren zilegitasun-ahalmenaren neurrikoa izaten da, batez bestekoan. Eta diskurtso eta mugimendu nazionalistaren zilegitasun-ahalmena boterean datza. Botere sinbolikoak gaitasuna baitu taldeak osatzeko eta erakundetzeko, lehenago soilik inplizituki zegoena azaleratzeko (Bourdieu, 2000b, 124 or.). Beraz, nazio sinboloek bezala diskurtsoak ere jendartearen onspena izan dezaten, eta jendartearentzat sinesgarri gerta daitezen, kapital sinbolikoaren jabe izan behar du nazionalismoak: hots, indarraren jabe, komunikabideen jabe, funtsean, botere faktikoen jabe. Weber-ek esan bezala, estatu nazionalismoak biolentziaren eta biolentzia sinbolikoaren monopolioa izaten du; eta biolentzia hori ezkutatzeko bitartekoena ere bai (2007). Monopolio horri esker, estatu nazionalismoak bere diskurtsoa eta sinboloak normalizatu egiten ditu

⁵⁹ Armstrong-ek dio sinboloen irauteko gaitasuna ikaragarria dela: "Sea cual fuere la fuente última de mitos, símbolos y modelos de comunicación que están en la base de una identidad étnica, su persistencia resulta impresionante" (1982, 283 or.).

herritarren aurrean; nolabait ere, *objektiboak* bihurtzen ditu. Estaturik gabeko nazionalismoek, aldiz, ez dute estatuaren monopolio hori izaten eta, hortaz, zailtasun handiagoa izaten dute taldeak erakundetzeko eta zilegitasun soziala bereganatzeko.

Diskurtsoaz aritu garenean, definizio sozialen onargarritasunaz esan dugunaren norabide berean, Perez-Agotek dio unibertso sinbolikoak (errealitatearen gaineko irudiak) ez direla onargarriagoak izaten objektiboagoak diren neurrian, hau da, zientziak froga ditzakeelako edo; unibertso sinbolikoen balio eta eraginkortasun soziala egiazko balira bezala inposatzeko gaitasunean baitatza, alegia, boterean. Ez da arrazoi kontua, aitzitik, indar kontua da (1986, 37-38 or.).

4.2. Nazio (berr)eraikuntzarako agenteak: elite intelektuala eta nazio mugimendua

Ideologiak diskurtsoaren eta sinboloen nondik norakoa zehazten duen bezala zehazten du elitearen eta mugimenduaren joko-eremua. Izan ere, ideologiek eta balioek ez dute beren kabuz jarduten, eliteetan eta mugimenduetan gorpuzten dira; eliteek eta mugimenduek adierazten, zabaltzen eta sinbolizatzen baitituzte haiek. Eliteak eta mugimenduak ekintza historikoaren bi agente ezberdin dira eta harreman konplexuak izaten dituzte beren artean; aldaketa sozialaren prozesuan elkarren osagai dira harremanok eta, zenbaitetan, faktore garrantzitsu bihurtzen dira (Rocher, 1990, 532 or.).

Eliteak agente ekintzaileak izaten dira jendartearen funtzionamenduan eta aldaketa sozialetan. Modu ezberdinetan lagun diezaiokete ekintza historikoari; Rocher-ek adibidez, hiru ekintza-modu azpimarratzen ditu guztien artean. Lehenik eta behin, erabakiak hartzeko prozesuetan zenbait elitek duen pisua aipatzen du: erakundeetan eta, oro har, jendarte batean, erabaki eta neurri garrantzitsuenak pertsona gutxi batzuek hartzen dituzte, eta, horrela, ekintza historikoan dihardute, epe motzean edo luzean. Eliteek historiaren bilakaeran eragiteko bigarren modua

honako hau da: eliteek definizio kolektiboan duten ondorioa, hots, talde batek bere buruari buruz duen kontzientziaren definizioan duten itzala. Aurrekoa erabakiak hartzean zetzan; hau egoerak definitzean. Egoerak definitzeak esan nahi du egoera sozialak deskribatzen eta azaltzen dituztela eta kritika egiten dietela (1990, 527-529 or.).

Rocher-ek azpimarratzen duen hirugarren ekintza-modua eredu-funtzioarena da: alegia, eliteak pentsaeren, izaeren eta jardueren sinbolo izatean datza. Ondorioz, pertsona eta talde jakin batzuk edo jendarte oso bat erakartzeko gai dira, zeren eta, imitazio edo identifikazio mugimendua eragiten dute. Identifikazio hori, bestalde, zergati ezberdinek eragin dezakete. Hainbatetan, eliteekiko identifikazioa proposatzen edo sinbolizatzen dituzten balioen edo ideologiaren erakarpinak sortu ohi du, ez hainbeste beren prestigio sozialak. Jendartean zabaldua dauden balio edo ideologiak izan litezke, edo lanketa-bidean dauden eredu alternatiboak. Ereduzko izate mota honek identifikazio-maila handia sor dezake hainbatetan, Rocher-en hitzetan, baita heroitasun-maila handiak ere (1990, 530-531 or.). Egia esan, bete-betean datorkigu ikerketa honetarako elite mota hau.

Nazionalismoetako eliteen auziari bagagozkio, esan dezagun, nazionalizatzeko prozesu orotan eliteen buruzagitza- edo lidergo-funtzioa funtsezkoa dela. Eta nazionalismo periferikoetan, nazio estatuen barnean sortutakoetan alegia, buruzagitza-zeregin hori intelligentsiari dagokiola (Smith, 1976). Buruzagi nazionalistek komunitatearen "egiazko" historia berraurkitu nahi izaten dute. Eliteek iragana berrinterpretatzen dute belaunaldiz belaunaldi, kultura etnikoaren parametroetan iragan horren esanahiak aukeratuz. Smith-ek dio galbahetik pasatzen dutela iragan hori "egiazko" gertaerak eta egiazko ez direnak bereiziz. Iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko harreman *ideologiko* horrek masa handiak mobilizatzeko gaitasuna du Smith-en arabera. "Bere" sentitzen duten komunitatearentzat helburu kolektiboaren sentimendua sorrarazten baitu naziokideengan. Hala, iragan etnikora jotzea bitarteko eraginkorra izan da buruzagi nazionalistentzat, zeren eta, adibide askok erakutsi duten bezala, beren burua

sakrifikatzeko nahia eta borondatea sorrarazten du naziokideengan. Smith-en ustez, beste ideologiek ez dute pareko indarririk erakutsi (2004, 105 or.).

Smith-en ekarpenetik hurbil Zabalok dio elite nazionalistak nazioaren arketipo bat zehazten duela etniaren edo nazioaren ezaugarriekin. Elementu horiek zehazterakoan, hierarkia bat sortzen da eta nazionalismoak horietako bat jartzen du beti diskurtso teorikoaren erdian; horrela, bada, hizkuntzan, arrazan, lurraldean, edo beste nazio osagai batean oinarritutako nazionalismoez hitz egiten da. Diskurtsoaren erdian kokatzen den elementu horrek ez du pisu bera izaten nazioaren lurraldetzat hartzen den eremu osoan eta horrek, noski, kontraesan teorikoak eta praktikoak sortzen dituela ohartarazten du Zabalok (2006, 84 or.).

Nazio osagaiei bagagozkie, Connor-ek gaztigitzen du buruzagi nazionalistak oso ondo jabetu direla nazionalismoaren emozio- eta psikologia- eremuaren garrantziaz, eta horregatik azpimarratu dutela maiz beren diskurtsoetan "odolkidetasun sentimendua" (1998, 194 or.). Aranaren diskurtsoa dugu horren adibide.

Eliteak ezin omen ditugu aztertu mugimendu sozialen testuingurutik at. Mugimenduak elitea behar du eta eliteak mugimendua (Rocher, 1990, 532 or.). Smith-en nazionalismoaren definiziora itzulita, nazionalismoa nazioaren izenean sortutako mugimendu soziopolitiko gisa ere definitu dugu gorago. Ideologia, diskurtsoa eta sinbologia baino zerbait gehiago delako nazionalismoa (2004, 50-51 or.).

Smith-en iritziz, antolaketari eta ekintzari dagokienez nazionalismoa ez da beste mugimendu soziopolitiko batzuetatik ezberdintzen (2004, 21 or.). Orduan zooma zertxobait urrunduta, nazio mugimenduak mugimendu sozialen eremu zabalagoan kokatuko ditugu⁶⁰. Mugimendu sozialak era askotan defini litezke. Castells-en

⁶⁰ Mugimendu sozial gisa definitzen dute nazionalismoa Nuñez Seixas-ek (1998, 2008) eta De Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz historialariek ere (1999). Baita De la Encina y Perez de Onraitak ere: "Es un ingrediente activo de la realidad social, un sistema de ideas políticas. Más aún, es un movimiento social que se propone la realización práctica de esas ideas" (2004, 327 or.).

interpretazioaren arabera, mugimendu sozialak ekintza kolektiboa eskatzen du ezinbestean, bere jardunaren kontzientzia izatea, eta mugimendu soziala den heinean, jendartearen balioak eta erakundeak aldatzeko grina (2002, 25 or.).

Castells-en definiziotik hurbil Ajangiz eta Barcenak lau puntutan laburbiltzen dute mugimendu sozialen definizio-aukera zabala: batetik, beren *jendarte-sare izaera*⁶¹ azpimarratzen dute; bestetik, jendarte-eredu hegemonikoaren aurrean helburu kultural, sozial eta politiko alternatiboak proposatzen dituzte; hirugarrenik, erakundeekin harremana izan dezaketela edo erakundeen kontrako jarduna mami dezaketela; eta, azkenik, denboran eta espazioan oso aldakorak izaten direla (2001, 11 or.).

Mugimendu sozialen helburuak eta helburuak lortzeko bitartekoak oso bestelakoak izan daitezke mugimendutik mugimendura. Helburuak helburu eta bitartekoak bitarteko, Rocher-ek ohartarazten du mugimendu sozial orok proselitismoa egiten duela. Eta, noski, aldarrikapen-ekintza horren zerbitzura egoten dela mugimendu sozial ororen antolaketa; funtsean, bere helburuak lortzeko eta eskuratu nahi dituen bitartekoak erabiltzeko egituratzen du mugimendu sozial orok bere antolaketa. Rocher-en hitzetan, beraz, mugimendu soziala aztertzerakoan jendartean bete nahi duen funtzioan erreparatu behar du ikertzaileak (1990, 533 or.).

Mugimenduak aztertzerakoan garrantzi handia ematen dio Castells-ek diskurtsoari; ideiei bezala, erabilitako *hitzei* beraiei (2002, 92-93 or.). Castells-ek Touraine-en (1965) tipologia darabil mugimendu sozialak sailkatzeko. Mugimendu sozial orok hiru printzipio bildu behar ditu Touraine-en arabera: identitatearen printzipioa, aurkaritzaren printzipioa, eta osotasunaren printzipioa, hurrenez hurren. Hasteko eta behin, mugimendu sozial orok *identitate* bat eman behar dio bere buruari: nor ordezkatzeko duen edo ordezkatu nahi duen zehaztu behar du, noren izenean

⁶¹ Tarrow-k ere mugimendu sozialen sare izaera iradokitzen du. Esaten du ekintza kolektiboen sare sozialetan zehar hedatuz sortzen dituztela aukerak (1994, 82 or.).

mintzo den, eta zein interes babesten dituen. Funtsean, taldearen definizioa islatzen du identitateak; azken buruan, jendartean identifikagarria eta esanguratsua den identitatea (2002, 93-94 or.).

Aurkaritzarik gabe ez dago mugimendu sozialik. Bere ezaugarriak behinena galduko bailuke bestela, proselitismoarena eta, orduan, ez litzateke gehiago mugimendu soziala izango; beste zerbait bihurtuko litzateke. Mugimendu sozialek erresistentzia edo blokeo baten aurka egiten dute beti, Touraine-en arabera: hartara, ideia edo interes batzuk zapalduta daudenean sortzen dira, eta aurkaritzaren bat desegiten ahalegintzen dira. Aurkariak behar ditu, beraz, mugimendu sozialak mugimendu soziala izateko (aurkariak denboran alda litezkeen arren). Mugimendu sozialak aztertzeko, beraz, ezinbesteko lana da aurkariak identifikatzea.

Azkenik, *osotasunaren printzipioa*⁶² aipatzen du Touraine-ek. Mugimendu sozial orok balio batzuen, edo ideal edo filosofia jakin baten izenean dihardu. Mugimendua osatzen duten kideek onartu egin behar dute, jakina, oinarrizko pentsamendu hori eta horren izenean egiten ditu mugimenduak bere aldarrikapenak. Bere jarduna pentsamendu horretan oinarritzen du mugimenduak. Horrez gain, Touraine-ek dio talde espezifiko baten interesak defendatzen dituzten arren, balio unibertsalen babesle agertzen direla maiz mugimendu sozialak: esate baterako, nazio interesen izenean. Bestalde, *osotasunaren printzipioa* ere aldatu egin daiteke⁶³ (Castells, 2002, 93-94 or.).

Hurbil ditzagun mugimendu sozialak nazionalismora. Nazio mugimenduak mugimendu sozialen multzoan sartu ditugu, eta aletu ditugu mugimendu sozialen definizioak eta funtzioak. Baina zerk bereizten ditu nazio mugimenduak gainerako mugimendu sozialetatik? Nuñez Seixas-ek era honetan definitzen ditu XIX. mendeko estatutik gabeko mugimendu nazionalistak: "aquellos movimientos sociales,

⁶² Castells-ek *helburu soziala* erabiltzen du osotasunaren lekuan.

⁶³ Demagun oinarri erlijiosoekin abiatzen den mugimendu nazionalista bat laikotu egiten dela halako batean; orduan, oinarri gisa jainkoaren ordena aipatu beharrean, historiaren zentzua aipatzen has liteke.

culturales y políticos que invocaban y defendían la existencia de una nación no dotada hasta entonces de un reconocimiento institucional en forma de un Estado propio" (1998).

Smith-ek ñabartzen du nazio mugimenduek kultura irudikapenei ematen dieten garrantziak bereizten dituela gehien mugimendu sozialetatik. Nazio mugimenduetan ere ideologiak ezartzen ditu noski mugimenduaren helburuak; ideologia nazionalistaren oinarritzko xedea nazio identitatea, nazio batasuna eta nazio autonomia sustatzea dela esan dugu gorago. Nazio mugimenduak, beraz, nazioaren identitatea, batasuna eta autonomia bermatzeko nazioaren irudikapen kolektiboan egiten du enfasia (Smith, 2004a, 37 or eta hurr.).

Printzipio nagusi horien azpian, Smith-ek nazio mugimenduen honako azpi-helburu hauek aipatzen ditu (mugimenduen lehen faseetan nabarmentzen dira bereziki, bere ustez): nazio kulturaren murgiltzea, nazioaren historia berraurkitzea, herri-hizkuntzak suspertzea, literatura lantzea, eta lanbide zaharrak, musika, dantza tradizionalak eta folklorea berreskuratzea, adibidez. Smith-en iritziz horregatik loratzen dira maiz mugimendu nazionalistekin lotutako kultura eta literatura-berpizkundeak; eta horrexegatik izan dira gai mugimendu nazionalistak kultura jarduera mota asko sortzeko eta bizkortzeko. Smith-en esanetan, mugimendu nazionalistak, gehienetan, ez dira manifestazioekin, erresistentziarekin edo armekin abiatzen; hain zuzen literatura-elkarteak, historia ikertzeko elkarteak, kultura aldizkariak, edo musika-jaialdiak antolatzen abiatzen da nazio mugimendu asko eta asko (2004, 21 or.).

Kultura publiko gisa, beraz, nazio mugimenduek nazioaren kultura identitatea berraurkitu eta berreskuratu nahi izaten dute eta, horretarako, jatorrizko kultura erroetara itzultzen saiatzen dira Smith-en iritziz. Kultura batasunaren eta nazio historiaren kontzientzia izaten dute nazio mugimenduek eta, herri-hizkuntzak jorratuz, eta ahal duten neurrian hezkuntza-sistemaz eta erakundeez baliatuz, nazioaren berezitasunak lantzen dituzte. Horrenbestez, "herriaren" kultura

berraurkitu eta hezkuntzaren bidez naziokideei nazioarekiko maitasuna transmititzen ahalegintzen dira (Smith, 2004a, 51 or.).

Edonola ere, mugimendu nazionalisten aldarrikapen kulturalak nazio estatu hegemonikoaren homogeneizatze-bortxarekin talka egiten dutenean, nazio mugimenduak izaera politikoagoa eta are militarra har ditzake. Botere harreman horien dialektikan, nazio estatuaren bortxari, mehatxu, presio eta arma bidez erantzun diezaioke nazio mugimenduak. Baina nazio estatuaren eta nazio mugimenduaren indar-maila eta kapital sinbolikoa ez da berdina izaten gehien-gehienetan, eta, hori dela bide, Gellner-ek honakoa idatzi zuen behin Weber-en ekarpenean inspiratuta: alegia, nazio gatazka zilegitasunez erabakitzeko bortxa erabil dezakeen botere politiko bakarra estatua dela (2008). Beraz, estaturik gabeko mugimendu nazionalisten borroka kultural, politiko eta militarra legitimitate arrazionalik gabe utzi izan du eta uzten du nazio estatuaren aparatu modernoak.

Bereizita aipatu ditugu maila analitikoan baina, berez, eliteek eta mugimenduek etengabeko interakzioan dihardute. Eliteek mugimendu sozialak hauspotzen dituzte; sortu, sustatu eta sinbolizatu. Aldi berean, mugimenduek buruzagiak izaten dituzte gehienetan; mugimenduek buruzagiak babestu eta sostenga ditzakete, edo agian gerta liteke kontrakoa ere. Eliteen eta mugimenduen arteko harremanak konplexuak izaten dira. Mugimenduko kide aktiboenengandik jarraitzaile huts direnenganaino kide izateko modu asko egon ohi dira. Buruzagien eta kideen arteko, eta kideen beraien arteko desadostasunek mugimenduaren bilakaeran eragiten dute (Rocher, 1990, 546-547 or.).

Breuilly-k buruzagi nazionalisten eta nazio kontzientzia bereganatu eta politikoki diharduten kideen arteko harremana nabarmentzen du: hau da, baten eta bestearen arteko norabide bikoitzeko komunikazio-prozesu gisa definitzen du nazionalismoa. Intelligentsiak ideologia nazionalistaren loraldian rol esanguratsua jokatzen badu ere, mugimendu nazionalistaren osagai bat besterik ez da. Izan ere, intelektualek ondutako doktrina nazionalista askok ez dute arrakasta sozialik izan;

eta, alderantziz, mugimendu nazionalista indartsuak izan dira prestakuntza intelektual eta kultural handiegirik izan gabe (Breuilly, 1982: 9-10; De la Encina aipatua, 2004: 322).

Smith-ek bezala De la Encina y Perez de Onraitak ere, mugimendu nazionalisten aniztasun soziala nabarmentzen du. Nazioak klase sozial ezberdinek osatzen baitituzte eta beren osaera soziala oso heterogeneoa baita, bai denboran eta bai espazioan; testuinguru historikoaren eta mugimenduaren fasearen arabera. Hasieran, eta zenbait kasutan, nazio kontzientzia bereganatzen lehena burgesia izan zen arren (Ingalaterran eta Frantzia, adibidez), De la Encina dio ezin dela garai eta leku orotako nazionalismoetara orokortu. Historikoki nazionalismoak forma ezberdinetan proiektatzen du bere burua eta izatez bere eduki soziala askotarikoa, dinamikoa eta konplexua da. Horregatik iruditzen zaio garrantzitsua estruktura sozial nazionalen konbinazioa, konplexutasuna eta aniztasuna azpimarratzea. Nazio bat ez da, berez eta izatez, ez burgesa ez proletarioa: "El proceso histórico nacional no es unclasista ni socialmente homogéneo" (Smith 1976, 191 or., 1997; De la Encina y Perez de Onraitak, 2004, 323-324 or.).

Hori horrela, De la Encina y Perez de Onraitak dio nazionalismoaren ideologiak estratu sozial ugari eragiten diola, interes ugari dituzten estratuei. Nazionalismoa ez da, nahitaez, elitea eta herria elkartu behar dituen mugimendua; zenbaitetan hori izan den arren bere ohiko erretorika. Nazionalismoak klase estrukturak gainditzen dituen komunitate orokortu samar bat inplikatzeko du. Bere arrakasta soziala zatiketa sozialaren gainetik nazio kontzientzia sortzeko gaitasunean datza. Arrakasta sozial horrek azalduko luke nazionalismoak sektore sozial zabal eta aniztatan izan ohi duen erakarpin indarra (2004, 324 or.).

Connor-ek (1998, 185 or.) bezala Castells-ek ere masa fenomeno gisa definitzen du nazionalismoa⁶⁴. Castells-ek ñabartzen du nazionalismoa ez dela, halaberrez,

⁶⁴ Zentzu horretan Castells-ek honako hau dio: "Así pues, el nacionalismo se construye por la acción y reacción social, tanto por parte de las elites como de las masas" (2002, 54 or.).

eliteen fenomeno bat. Castells-en ustez gaur egungo mugimendu nazionalistak elite globalen kontrako erantzunak izaten dira beste ezer baino gehiago. Mugimendu sozial orotan bezala nazionalismoetan ere, eliteak masak baino sarbide handiagoa izaten du hezkuntzaren eta boterearen esparruetara. Dena dela, horrek ez du esan nahi nazionalismoak eliteak beren interesen arabera manipulaturako masen *goitik beherako* fenomenoak direnik (2002, 53 or.).

Smith-ek bat egiten du Connor-ekin puntu honetan: eragin-indarra aitortzen dio emozioen eremuari⁶⁵. Smith-ek uste du norberaren identitatea, alegia, norberaren beharrak eta interesak, edo bestela esanda, norberaren biziraupena nork bere *familiarekin* eta bere *nazioarekin* lotzen dituela. Smith-ek dio horregatik sortzen duela nazioak sortzen duen miresmen-maila, eta horregatik dagoela prest jendea nazioaren (familiaren) alde bere burua ere eskaintzeko (Connor, 1998, 140-141 or.): "Esto hace de las naciones comunidades de emoción y voluntad tanto como de imaginación y cognición" (2004, 100 or.).

⁶⁵ Nazionalismoaren indarra ulertzeko, nazio klase hegemoniko batez hitz egin beharrez, nazionalismoak jendartean duen barneratze-maila nabarmentzen du De la Encina y Perez de Onraitak. Interes ekonomiko eta sozialak mugimendu nazionalista orotan dauden arren, horiek bere horretan ez dira nahikoa nazionalismoa azaltzeko. Nazioa talde identitatearekin lotuta dago, klase kontzientziaren aurretik dagoen fasearekin lotzen du De la Encina y Perez de Onraitak, kultura identifikazioaren fasearekin (2004, 324-325 or.).

II. Abertzaletasun etnikoaren⁶⁶ nazio diskurtsoa eta nazio mugimendua

Zer nolako ondarea jaso zuen Ekin eta ETA sortu zituen belaunaldiak? 50eko hamarkadarako sortua zen euskal nazioaren kontzientzia, baita euskal nazio horri proiektio politikoa eman zion abertzaletasun politikoa ere. Horixe aztertuko dugu atal honetan: abertzaletasuna sorrarazi zuten faktoreak hartuko ditugu mintzagai lehendabizi; Aranaren diskurtsoaren oinarriak eta diskurtso haren bilakaera aztertuko dugu, ondoren; XX. mendearen lehen hamarkadetan saretu zen mugimendu abertzalea analizatuko dugu jarraian; eta, azkenik, diskurtso eta mugimendu hura eten zuen 1936ko gerraren testuinguruaz hitz egingo dugu.

1. XIX. mendearen amaierako testuingurua: abertzaletasuna sorrarazi zuten faktoreak

1890eko hamarkadan sortu zuen Aranak abertzaletasun politikoa. Abertzaletasunaren sorreran gehien eragin zuten faktoreez hitz egingo dugu atal honetan, eta zehazki, honako hauek aipatuko ditugu: faktore historikoa, ekonomikoa, demografikoa, politikoa, eta linguistiko kulturala. Abertzaletasuna faktore haien elkarrekiko harremanaren ondorioa izan zen. Arana bizi izan zen urteetan jo zuten goritu ziren baina, berez, aurreko mendeetan hasitako prozesuen emaitza besterik ez ziren izan. Aranak egin zuen abertzaletasunaren behin-betiko formulazio politikoa baina, hala ere, sortzaile oro testuinguruari zor zaion bezala, Aranari ere ez zitzaion nazio ideia ezerezetik sortu:

⁶⁶ Terminoet buruzko argibide bi. Gure ikerlanean *abertzaletasuna* euskal nazionalismoaren sinonimotzat erabiliko dugu: hain zuzen ere, euskal nazioarekiko leialtasuna sustatzen duen ideologia, diskurtsoa, sinbolismoa eta mugimendua adierazteko. Bestalde, *abertzaletasun etnikoa* kontzeptua erabiliko dugu Aranak sortu zuen abertzaletasuna izendatzeko. Kontzientzia etnikoaren ondorengo urratsa izan zelako bere egitasmo politikoa; komunitate etniko homogeen baten ideia zeukalako Aranak, ez nazio kontzeptu moderno inklusibo batena; eta Aranaren XIX. mendeko *arraza* kontzeptuak asko zeukalako ideia etniko komunitariotik.

Fue el resultado de una larga gestación histórica. Se inició con nuestros primeros escritores conocidos, se enraizó en un patriotismo lingüístico tradicional y siempre vivo, así como en el recuerdo de nuestras instituciones históricas. Dicho nacionalismo ha sido alimentado por la reflexión de numerosos pensadores y hombres políticos que abrieron el camino al líder vizcaíno (Davant, 2005, 477 or.).

Gainerako faktore guztiak bere baitan biltzen ditu faktore historikoak: mendez mendez oratuz joan zen euskaldunen imaginario kolektiboa eta hortik eratorri zen aurreabertzaletasuna aipatuko ditugu⁶⁷. Erromatarren garaikoak dira baskoiei buruzko lehendabiziko dokumentu idatziak⁶⁸. Bisigodoen eta frankoen lekukotasunak ere ezagunak dira⁶⁹. Autore batzuen arabera (Letamendia, 1994, 143-144 or.; Lilli, 1994, 329-330 or.; Alcedo, 1996, 35-36 or.), herri haiei eta arabiarren inbasioari euskaldunek egindako erresistentziak pisu erabakigarria izan zuen euskaldunen imaginario kolektiboaren sorreran; haietako batzuek XVI. mendean kokatzen dute euskal imaginario kolektiboaren eratze-prozesuaren hasiera⁷⁰, noblezia unibertsalaren ideia⁷¹ hedatzen hasi zenean.

1200. urtetik aurrera Gaztelako Erresumak Nafarroa konkistatu eta honek soberania politikoa galdu zuenean⁷² (Urzainki eta Olaizola, 1998), "bortxazko ordena nazional

⁶⁷ Vilarrek dio ez dagoela talde kontzientziarik imaginario kolektibo historikorik gabe (1982, 263 or.).

⁶⁸ Estrabon greziar geografo eta historialariak baskoiak, barduliarrak, karistiarrak, autrigoiak eta beroiak aipatu zituen *Geografia* lanean, aro honen lehen mendean. Erromatarren garaiko Iberiar penintsularen iparraldeko tribuez ari zen, gaur egungo Euskal Herriaren eremuaz gutxi gorabehera. Ondorenera, tribu aniztasun hura desagertzen joan zen testuetatik eta *baskoi* hitza nagusitu zen (Ruiz Urrestarazu, 1995, 12 or.)

⁶⁹ Esate baterako, baskoiek frankoen errege zen Karlomagno Orreagan garaitu zutenean, Karlomagnoaren biografia idatzi zuen Eginhardok utzitako testigantza. Baskoiek mendi-eremu hartan mugitzeko zuten gaitasuna nabarmendu zuen (1999).

⁷⁰ Beste autore batzuek XVI. mendearen aurretik kokatzen dute euskal imaginario kolektiboaren sorrera. Letamendiak berak Behe Erdi Aroa eta Aro Modernoa aipatzen ditu (1994, 143 or.). Alcedoren ustez XVI. mendean sortu zen baina Ahaide Nagusien gainbeherarekin lotzen du haren hasiera (1996, 35-36 or.).

⁷¹ Noblezia unibertsalaren ideian bi elementu elkartzen dira Jauregiren hitzetan: euskaldunen berezko noblezia eta Euskal Herriaren idiosinkrasiak berezkoa duela demokrazia. Hortik sortu zen euskal igualitarismoaren *mitoa* (Jauregi, 1981, 11-12 or.).

⁷² Urzainki eta Olaizolaren ustez, hori da Euskal Herriak espainiar eta Frantziar estatuekin duen nazio gatazkaren jatorria: "Es precisamente en la quiebra de la territorialidad de Navarra por parte de

berri bat fundatu eta jarri" zuen abian (Odriozola, 2014, 21 or.). XVI. mendekoak ditugu lehendabiziko euskal idazle publikoak, eta XVII. mendean Sarako Idazleen Eskolak aurreko mendeko euskal literaturaren historia etenari eutsi zion⁷³ (Sarrionandia, 2010, 435 or.eta hurr.). XVIII. mendean egin zuten euskal idazle batzuek "euskal unibertso nazionalistaren lehen irudikapena", foru-sistema arriskuan ikusi zutenean⁷⁴ (Alcedo, 1996, 24 or.). Idazle haiek *jatorria*, *aberria* eta *herria* bezalako terminoak erabili zituzten behin eta berriro beren idatzietan⁷⁵. Gerra karlisten ostean Espainiako gobernuak foruen erregimenetik geratzen ziren hondarrak⁷⁶ deuseztatu zituen (1876), foru-antolaketaren aldeko mugimendu politiko kulturala sortu zen Hego Euskal Herri osoan⁷⁷ (Apalategi, 1985, 7 or.; Davant, 2005, 482 or.). Nafarroako *Asociación Euskara de Navarra* elkarte (1877) nabarmendu zen mugimendu hartan eta, jakina denez, Arturo Campion⁷⁸ izan zen eragile nagusia. Mugimendu kultural eta politiko haren erdi-erdian, sortu zuen Aranek ideologia abertzalea.

Castilla y de Francia, donde está el origen del conflicto histórico que enfrenta a España y Francia con Euskal Herria" (1998, 19 or.).

⁷³ Apalategik dio nazio ikuskera linguistikoa sumatzen dela XVI. eta XVII. mendeetako ingurune kulturaletan: "Esta primera concepción de la nación en correspondencia con la realidad lingüística de un pueblo la hallamos reflejada en medio de los diversos marcos políticos desde los cuales se ha proyectado encauzar la perduración de la nación vasca" (1985, 6 or.).

⁷⁴ Foruek irudikatzen baitzuten nagusiki Antzinako Erregimeneko euskal gizartearen imaginario kolektiboa eta kapital sinbolikoa (Letamendia, 1994, 143 or.).

⁷⁵ Apalategik Larramendiren obra azpimarratzen du euskal nazioaren defentsa egiten duten dokumentu historikoetan. Apalategik dio harrigarria dela Larramendik zein argi mahai gaineratu zuen Euskal Herriarentzako independentziaren eta soberaniaren beharra. Bere nazioaren ikuskera nola oinarritu zuen hizkuntza propioa eta berezia izatean (nazioaren ikuskera linguistikoa). Eta nola proposatu zuen gerrara jotzeko aukera helburua lortzeko beste biderik izan ezean (1985: 30-31). Beste autore batzuek ere (Caro Baroja, 1971, 67 or.; Davant, 2005, 479 or.) Larramendi jotzen dute abertzaletasun modernoaren lehen teorikotzat. Corcuera "foralismo linguistikoa" esaten dio Larramendiren eta bere bidea hartu zuten euskararen apologisten joerari, eta esaten du erreazioz sortu zela aurrenazioalismo espainiarrari aurka egiteko (1979, 29 or.).

⁷⁶ Urzainki eta Olaizolak diote foruak Nafarroako zuzenbide-sistema deuseztatu haren aztarnak besterik ez direla. Ez zirela ohitura eta usadio multzo bat soilik; baizik eta Nafarroako Zuzenbidea osatzen zutela Erdi Aroan, egiatzko zuzenbide-sistema oso bat. Horregatik tematu zen Gaztela sistema hori deuseztatzen (1998, 17, 158-159 or.).

⁷⁷ Aranaren aurreko hamarkadetan euskal berezitasunen kontzientziazte-prozesua garatu zen foruak ardatz hartuta. Baina gerra karlisten ondoren sortu zen protoabertzaletasun politiko kulturala. Hori aintzat hartu gabe ezin azaldu liteke Aranaren arrakasta (De Pablo, Mees, Rodríguez Ranz, 1999, 1, 28 or.).

⁷⁸ Euskal nazioaren ikuskera pertsonalista izan zuen Campionek (Apalategi, 1985: 51-65). ETArek hasierako diskurtsoan eragina izan zuen Campionen ikuspegiak (aurrerago sakonduko dugu auzi horretan). Autore batzuek pisu handia aitortzen diote Campioni abertzaletasunaren sorreran (ikus Davant, 2005, 483 or.).

Aurrekari historikoez erakusten digute Aranaren nazio ideia ez zela ezerezetik sortu, baina, guztiarekin ere, salto kualitatiboa⁷⁹ eman zuen bizkaitarrak (Elorza, 1978, 8 or.). XIX. mendearen amaierako testuingurua taxutu zuen faktore ekonomikoa funtsezkoa gertatu zen Aranaren ideologizazio-prozesuan: industria-ekoizpena ikaragarri handitu zen Europan XVIII. mendean eta, ondorioz, nekazari-populuaren ondoan industria-jendartea joan zen hedatzen. Ekoizpen kapitalista sendotu ahala, burgesiak bere boterea gogortu zuen. Aldaketa giro hartan, XIX. mendean, asko hazi zen Hego Euskal Herrian⁸⁰ industria-ekoizpena: Bizkaiko meatze-ekoizpena⁸¹ eta ontzi-industria⁸² nagusiki.

Faktore ekonomikoari lotuta etorri zen faktore demografikoa. Ekonomia kapitalista gero eta gehiago sendotu ahal izateko, industriguneetako burgesiak langileen eskulana behar zuen. Lanpostu-eskaintza masibo hark inguruko herrietako lehen sektoreko langile ugari erakarri zuen industria-hiriguneetara, Bilbo ingurura bereziki. Hasieran, langileak Bizkaitik eta inguruko herrialdeetatik etorri baziren ere, burgesiari eskulan beharra handitu ahala, eta garraio-bide berriek erraztuta,

⁷⁹ Larrondek dio Aranaren aurreko autoreen sentimenduek ez zutela literaturaren eta kulturaren eremua gainditu, eta sentimendu-ondare guzti hura bere egin eta sistema politiko koherente gisa formulatu zuela Aranak. Huraxe izan zen, bere ustez, Aranaren funtsezko ekarpena: abertzaletasuna plano politikoan kokatzea (2005, 485-486 or.). Mugimendu protonazionalistei izaera kulturala eta politikoa aitortuko genieke guk baina, Larronderekin bat eginez, ondorioztatu beharko genuke Aranak sortu zuela aurreko autoreek ez bezala, ideologia abertzale koherente bat.

⁸⁰ Vilarrek dio ekonomiaren garapen desorekatuak krisi larrira eramanez zuela Espainiako Estatuaren XIX. mendearen amaieran. Horri 1898an okupatuta zituen koloniak (Kuba, Filipinak, Guam eta Puerto Rico) galdu izana gehitu beharko genioke. Testuinguru hartan kokatu behar da Hego Katalunia eta Hego Euskal Herriko mugimendu nazionalisten sorrera (Larrondek aipatua, 1977, 12 or.).

⁸¹ 1870ean 250.000 tona ekoitzi ziren; 30 urte beranduago, 1900an, 5.361.000. Mineralaren erazketan oligopolioa zen nagusi: Bizkaiko burdinaren erazketaren %70 eta 82 artean 14 enpresaren esku egon zen XIX. mendearen azken laurdenean. Bilboko portua Espainiako Estatuaren merkataritza-arteria nagusia bihurtu zen: 1900an Espainiako Estatuako trafiko osoaren %40 Bilbotik pasatzen zen. Siderurgia-industria ikaragarri handitu zen Bizkaian 1882. urtetik aurrera: adibide baterako, 1896an Bizkaiko siderurgiak, Altos Hornos de Bilbao, La Vizcaya eta San Francisco fabrikek, Espainiako Estatuako burdinartuaren %77 ekoitzi zuten (Letamendia, 1994, 121-123 or.).

⁸² Burdinaren trafikoak ontzi-konpainiak sorrarazi zituen. 1901ean 21 ontzi-konpainia zeuden Bilbon. Ontzigintzako enpresaririk nagusienak Aznar eta De la Sota y Llano izan ziren. Haiek sortu zuten, besteak beste, *Euskalduna* ontziola 1900an. Espainiako Estatuako bapore merkataritza-nabigazioa 315.996 tona handitu zen 1882 eta 1900 urte bitartean; tona haien %76 Bilbok hartzen zuen eta %20 Bartzelonak (Letamendia, 1994, 121-122 or.).

espainiar nazio estatuko hainbat herrialdeetatik hasi ziren etortzen⁸³. Bizkaiak ez zuen aurretik horrelako etorkin-olde handirik jasan⁸⁴, foru-ordenamenduak atzerritarrek onartzeko baldintza zorrotzak ezartzen zituelako (Gezala, 1995, 16 or.).

Langileen pilaketak eta beren bizi-baldintza larriek sortutako gatazka sozialei gatazka politikoa eta linguistiko kulturala gehitu behar zaizkie Euskal Herrian. Kontzientzia abertzalea hartzeko prozesuan eragin handia izan zuen Aranarengan faktore politikoak: alegia, Euskal Herriak soberania politikoa galdu izanak. Aranaren ustez IX. mendean hasi zen Euskal Herriaren nazio degradazioa, biltzar bidezko erakunde primitibo horizontalen lekua jaunen erakunde hierarkikoek hartu zutenean (1978, 44 or.). Baina XIX. mendean galdu zuen betiko nazio askatasuna, karlistek gerrak galdu eta espainiar monarkia liberalak bere legeak inposatu zizkionean (1978, 120 or.). Foru-antolamendua desagitea kanpotik etorritako bortxa bidezko eraso gisa bizi izan zuten euskaldun foruzaleek; hau da, askatasun galera eta ordura arteko euskal ohitura eta balioen hondamendia irudikatu zuen (Elorza, 1978, 43 or.; Corcuera, 1991, 59 or.; Gezala, 1995, 13-14 or.).

Epe luzeko ondorioez gain, berehalako ondorioak ere izan zituen gertaera hark. Faktore politikoari lotuta dago linguistiko kulturala. Irakaskuntza publikoa udaletxeen eskuduntza izatetik estatuaren eskumena izatera pasatu zen eta eragin ikaragarria izan zuen horrek. Hego Euskal Herrira maisu-maistra espainiarrak iritsi baitziren, Espainiako Estatuko ume orori irakaskuntza molde bakarra emateko: bakarra edukietan eta bakarra hizkuntzan⁸⁵. Horri Bizkaiko industria-guneetara langile espainiarrak etorri izana gehitu beharko genioke, orduko panorama orokorra hautemateko. Euskaldun elebakarrentzat arrotzak ziren haiek, hizkuntza eta kultura ezezaguna ekarri zuten eta, alderantziz, euskaldunak espainiarrentzat ere arrotz ziren. Langile-komunitate berri haietan espainieraz komunikatzen baitziren eta ez

⁸³ XX. mendearen hasieran 12.000 biztanleko meatzari-herri batean 2.500 soilik ziren euskaldunak (Letamendia, 1994, 127 or.).

⁸⁴ Hamar urtetan, 1887 eta 1897 bitartean, Bilbon bikoiztu egin zen hiritarren kopurua, Barakaldon hirukoiztu eta Sestaon bederatzi aldiz biderkatu zen (Gezala, 1995, 16 or.).

⁸⁵ Europako nazio estatu askok XIX. mendean ezarri zuten eskola-sistema nazionala, tartean *Espainiako Estatuak* (1857) (Letamendiak aipatua, 1994, 110-111 or.).

zuten beharrik sentitu bertako jatorrizko hizkuntzara eta kulturara hurbiltzeko. Etorkin kopuru ikaragarriaren ondorioz, euskal hiztunen kopurua aurretik gertatu ez zen abiaduran gutxitu zen XIX. mendearen amaieran⁸⁶. Foruen galeraz geroztik sortu zen identitate krisia areagotu egin zen, euskal kultura desagertzeko bidean jarri zuen akulturazio prozesua ekarri baitzuen immigrazioak (Euskaltzaindia, 1977; Tejerina, 1992; Gezala, 1995, 15-16 or.).

Faktore haiek guztiek taxutu zuten, hortaz, XIX. mendearen amaierako hego Euskal Herriko testuingurua. Testuinguru aldakor hartan sortu zitzaion Aranari euskal nazioari proiektio politikoa emateko beharra, eta Euskal Herriari foru-antolamendua kendu izana eta euskararen etengabeko galera nazio terminoetan definitu zuen (Tejerina 1999, 82 or.). hego Euskal Herri osoan aurretik hedaturik zegoen mugimendu kultural eta politikoaren zati handi batek Aranak konfiguratu zuen diskurtsoaren eta egituraren inguruan segitu zuen garatzen. Hurrengo ataletan sakonduko dugu bi alderdi horietan: lehendabiziko abertzaletasunaren oinarri ideologikoetan eta mugimendu politiko kulturalen.

2. Abertzaletasun etnikoaren nazio diskurtsoa

2.1. Sabino Aranaren ideologiaren oinarriak

Aranaren pentsamendua interpretatzeko aintzat hartu behar dira, behar direnez, XIX. mendearen amaierako Euskal Herrian identitate-krisia eragin zuten faktoreak: industrializazioa, akulturazio-prozesua, porrot militarra, porrot politikoa, eta herritarren baitan nagusitu zen etsipena (Gezala, 1995, 16 or.). Teoria abertzale baterako ernamuina aurretik ernea bazegoen ere, aipatu dugu Aranak zehaztu zuela nazio proiektioa zuen egitasmoa: testuinguruaren aldaketa betean euskal

⁸⁶ Letamendiak dio ordura arte euskara erakundeetatik eta kultura idatzitik baztertua egon bazen ere, herriak euskaraz egiten zuela. Baina XIX. mendearen amaieran etorkin-olde espainiarrekin kalean ere euskaraz komunikatzeko zailtasuna handitu egin zitzaiera euskaldunei. Eta kanpotarrei entzuten zieten hizkuntza, bertako patroiei eta administrazioari entzuten zieten berbera zela (1994, 129 or.).

nortasunari eta euskal nazioari etorkizun politikoa ematen saiatu zen (Apalategi, 1985, 79 or.).

Ideologia nazionalista ororen helburua *nazio estatua* eraikitzea edo berreraikitzea den neurrian, nazioaren autonomia, batasuna eta identitatea sustatzen ahalegintzen da. Ideal horiek abstraktu samarrak gerta litezkeenez, elite abertzaleak bigarren mailako beste oinarrizko kontzeptu batzuekin janzten ditu edukiz (Smith, 2004a, 37 or. eta hurr.). Aranaren diskurtsoko kontzeptu nagusiak aletuko eta aztertuko ditugu orain⁸⁷.

2.1.1. Nazioa eta naziotasuna

Parekatu eta kideatu egin zituen Aranek euskal nazioa eta Bizkaia (ikus Arana, 1978, 12 or.; jatorrizkoa *Cuatro glorias patrias (Bizkaya por su independencia)*, 1892). Baina pixkanaka aberriaren eta jarduera abertzalearen zentzua Euskal Herri osora zabaldu zuen⁸⁸ eta *Euzkadi* erabili zuen zazpi herrialdeak izendatzeko⁸⁹ (Jauregi, 1981, 18 or.; Apalategi, 1985, 83 or.). Euskal nazioak soberania politikoa nola eta noiz galdu zuen aztertu zuen Aranek: IX. mendean hasi zen, bere arabera, euskal nazioaren degradazioa biltzar bidezko erakunde primitibo horizontalen lekua jaunen erakunde hierarkikoek hartzen (1978, 44 or.); baina, eta oro bat, XIX. mendean⁹⁰ galdu zuen betiko nazio askatasuna, karlistek gerrak galdu eta espainiar monarkia liberalak bere legeak inposatu zizkionean (Arana, 1978, 115-116 or.; jatorrizkoa *Efemérides infaustas, Bizkaitarra*, 12, 1894).

⁸⁷ Apalategiren obran oinarritu gara Aranaren diskurtsua aztertzeko kategoriak zehazteko (1985, 79-104 or.).

⁸⁸ ETAK halaxe adierazi zuen *Arana-Goiri (II): su doctrina* formaziorako koadernoan: "El término de Bizkaya fue posteriormente y definitivamente sustituido por Sabino por el de Euzkadi. Así también el de bizkaino" (Hordago, 1979, 2, 102 or.).

⁸⁹ Edonola ere, Apalategik dio euskal nazioa Bizkaitik abiatze horrek eragin handia izan zuela bere ondorengoengan; hortik sortu zela gero *bizkaitartasuna* fenomeno. Erregionalismoarekin eta autonomismoarekin parekatzen du Apalategik (1985, 83 or.).

⁹⁰ Zazpi mugarri (XIX. mendeko zazpi gertaera) aipatzen ditu Aranek euskaldunen espainoltze prozesua ulertzeko (ikus Arana 1978, 115-116 or.; jatorrizkoa *Efemérides infaustas, Bizkaitarra*, 12, 1894).

Bost ezaugarri edo elementuren baitan definitu zuen Aranak naziotasuna: 1) arraza, 2) hizkuntza, 3) gobernu eta legeak, 4) izaera eta ohiturak, eta 5) nortasun juridikoa (1978, 51-52 or.; jatorrizkoa ¿Qué somos?, *Bizkaitarra*, 28, 29, 30, 1895). Agerikoa da Aranaren diskurtsoan nazio ikuskera alemaniarraren eragina: izan ere, naziotasuna etniaren oinarriekin⁹¹ (araza, hizkuntza, historia, folklorea eta erlijioa) lotu baitzuen (Jauregi, 1981, 15 or.; Apalategi, 1985, 7 or.). Smith-ek dio nazio bat aurreko etnia loturetatik sortu den kasuetan, kulturaren herri-formek, sinbolo etnikoek eremu publikoan eragiten dutela eta, horrela, herri-kulturak eta sinbolo etnikoek taxutzen dutela kultura politikoa. Hots, herri-kulturaren araberrako forma hartzen duela diskurtso politiko nazionalistak (2004, 51-52 or.).

Aranak euskal balioetan oinarritutako tradizionalismoan ardatsu zuen bere diskurtsoa. Euskal herri tradizionaletik jaso zituen imajinario kolektiboaren elementuak (historikoak eta mitikoak) nazio ikuspegitik interpretatu zituen⁹². Horregatik karlismoarekin lotura handia izan zuen hasieran erlijioaren eremuan eta ikuspegi politiko eta sozial kontserbadorean (Letamendia, 1994, 144 or.; Corcuera, 2001; Larronde, 2005, 486 or.).

Aranak ez zien pisu bera eman bere diskurtsoan nabarmendu zituen naziotasun elementuei; faktore-hierarkia hartan arrazari eman zion lehendabiziko lekua⁹³, elementu etniko guztien artean arraza baitzen beretzat garrantzitsuena.

⁹¹ Horixe da Apalategirentzat Aranaren abertzaletasunaren ezaugarririk funtsezkoena: enfasia etnia oinarrietan egin izana (1985, 7 or.).

⁹² Iturri ugaritatik edan zuen horretarako: beste askoren artean, XVI. mendeko Gartzia Salazar, Zaldibar, eta Garibai; XVIII. mendeko Larramendi eta Astarloa; eta bere garaiko Campion, Oloriz eta Azkue. Letamendiaren arabera, garaiko esparru intelektualetan eragin handia izan zuten bi ikuskeretatik abiatu zen Arana iturri haiek berrinterpretatzeko: batetik, eskubide historikoen gaineko ikuskera erromantikoak eragin zion eta, bestetik, nazionalitateen doktrinak (1994, 144 or.).

⁹³ Arrazaren garrantzia funtsezkoa izanagatik ere, Apalategik dio Aranaren balio-eskalan euskal arraza bera goren mailako beste balio baten azpian zegoela, hots, erlijioaren azpian (1985, 86 or.).

2.1.2 Arraza

Arraza da Aranarentzat nazioaren funtsa⁹⁴. Berdinu egiten ditu arraza eta nazioa; hortaz, arraza desagertzea eta aberria desagertzea biak bat dira bere ustez. Euskal Herria ez litzateke Euskal Herri izango euskal arraza desagertuz gero⁹⁵. Eta horrek kezkatzen du Arana, kinka larrian ikusten baitu euskal arrazaren etorkizuna⁹⁶ (1978, 69-80 or.; jatorrizkoa Efectos de la invasión, *Baserritarra*, 10, 1897). Espainiar langileen izaerak eta ohiturek euskal arrazaren izaera eta ohiturak aldatuko dituztelakoan dago. Hartara, abertzaleen helburu nagusia immigrazioa "kaltetzen" ari den jatorrizko euskal izaera moralari eustea da. Ezinbesteko baldintza da, horretarako, euskal arraza isolatzea eta, etorkizunean iraun dezan, independentzia politikoa eskuratzea⁹⁷ (Arana, 1978, 75 or.; Efectos de la invasión, *Baserritarra*, 10, 1897).

Etorkinekiko Aranaren diskurtsoa zenbaitetan gogorra izan bazen ere, ez zion arrazari garaiko zientziaren esparruak⁹⁸ ematen zion konnotaziorik eman: euskaldunen izaera espiritualarekin (ohiturei eta moralari lotutako izaerarekin) lotu baitzuen euskal arraza, ezaugarri biologiko edo somatikoekin baino gehiago⁹⁹. Eta beste arlo batean ere bereizi zen garaiko diskurtsotik: norberaren arraza goraiatzea eta besteena iraintzea *ohikoa* zen garaian Aranak ez zuen euskal

⁹⁴ Berez, euskal tradizioan ez zen arrazaren aldeko teorizaziorik izan aurretik. *Euskal Herria eta euskalduna* kontzeptuek ere hizkuntzari egiten diote aipamena (Larronde, 1977, 124 or.; Jauregi, 1981, 16-17 or.).

⁹⁵ Modu argian formulatu zuen Aranak ideia hori: "Si desapareciese nuestra raza de estas montañas, (...) esta *Euskeria* no sería nuestra Patria sino otra *Euskeria* diferente" (Arana, 1978, 71 or.; jatorrizkoa Efectos de la invasión, *Baserritarra*, 10, 1897).

⁹⁶ Honako hitz hauek idatzi zizkion Engrazio Aranzadiri 1901ean: "Cuando me pongo a pensar, así sobre esto como sobre la raza, comprendo claramente que esto se va: se va antes de que termine el siglo que acaba de empezar" (Arana, 1980, 2.396-45 or.).

⁹⁷ Zentzu horretan, Aranak ez du uste karlismoa, integrismoa eta erregionalismoaren bidetik arazoa konpon litekeenik; Espainiari lotuta ikusten baititu haien proiektuak (Arana 1978, 75 or.; Efectos de la invasión, *Baserritarra*, 10, 1897).

⁹⁸ Berez, XIX. mendeko Europako zientziaren esparruko kontzeptu bat erabili besterik ez zuen egin Aranak; arraza eta arrazismoa ohikoak baitziren garaiko mundu zientifikoan eta politikoan (Douglass, 2004, 102 or.).

⁹⁹ Aranak berak adierazi zuen ikuspegi etnografikotik bereizten zituela euskal arraza eta espainiarra (Ikus Arana, 1978, 69 or.). Nolanahi ere, zenbaitetan konnotazio somatiko nabari zaio Aranaren diskurtsoari: euskaldunen inteligentzia eta izaera noblea nabarmentzen dituen bitartean, espresio ezarekin eta zakartasunarekin lotzen ditu espainiarrak. Baina orduan ere, dio Letamendiak, Arana gehiago ari zen jokamoldeez eta ohiturez, ezaugarri somatikoez baino (1994, 148 or.).

arrazaren ikuspegia etnia edo nazio gutxiengoen kontra egiteko erabili, estaturik gabeko nazio baten izaera aldarrikatzeko baizik (Solozabal, 1975, 355-357 or.; Letamendia, 1994, 147-148 or.; Douglass, 2004, 102-106 or.).

Euskal identitatearen ardatza arrazan oinarritzen zuen diskurtsoak *naziotasun itxia* ekarri zuen. Argi eta garbi zedarritu baitzituen euskal nazioaren muga sozialak: teoriarik behintzat euskal nazioa *itxita* geratu zitzaien euskal arrazakoak ez ziren guztiei, Euskal Herrira lanera etorritako etorkin espainiarrei nagusiki (Iraola, 2012).

2.1.3. Hizkuntza

Euskarak gordetzen zuen Aranarentzat euskal arimaren esentzia. Euskal arraza *kanpotarren* erlijio gabeziatik eta ez-moraltasunetik babesteko funtzioa betetzen zuen. Arrazaren mendeko naziotasun elementua zen, beraz, Aranaren balio eskalan, bigarren mailakoa¹⁰⁰ (Sarasola, 1976). Edonola ere, euskal arrazaren adierazpidea zenez gero, ezinbesteko baldintza zen Aranarentzat euskara aratzari eustea eta erdarek euskaran ez esku hartzea (Jauregi, 1981, 17-18 or.).

Etorkin-oldeetatik babesteko ez ezik, integrazioarako, kohesio sozialerako eta etnia bereizteko mekanismoa zen euskara Aranarentzat; hizkuntzaren erabilerak eta iraupenak arrazaren garbitasuna babesteko balio zuela idatzi zuen (Tejerina, 1999, 82 or.). Horregatik dio Solozabalek euskararekiko ardura gehiago sortzen zaiola Aranari arraza gordetzeko ikusten dion funtziotik, hizkuntzari berari aitortzen dion barne baliotik baino (1975, 356 or.).

Diskurtso abertzaleak hizkuntza bigarren mailan jartzeak baldintzatu egin zuen euskara berreskuratzeko eta bere erabilera zabaltzeko Aranaren aurreko euskaltzaleek hasi zuten ekimena. Haatik, komeni da Aranak eta bere jarraitzaileek

¹⁰⁰ Arraza ordezkazina zen bezala, hizkuntza ordezkagarri zitzaion Aranari: "¿Qué es el idioma patrio, en sí mismo considerado, más que un simple signo que los miembros de una nación se comunican entre sí sus ideas y sus afectos? Suprimido él y reemplazado por otro, puede en absoluto esa nación encaminarse a su fin" (Arana, 1978, 70 or.; Efectos de la invasión, *Baserritarra*, 11, 1897).

euskara eskolan sartzeko eta euskara aztertzeke egin zuten lana gogoratzea (Corcuera, 1979, 396-397 or.).

Aranak hizkuntzari eman zion esanahi sozialean eta dimentsio politikoan badira bere ondorengo formulazio abertzaleetan eragin zuten elementuak. Hala nola Aranaren kontzientzia linguistikoa: hizkuntza-dominazioa eta euskara euskal nazioan hizkuntza arrotza bihurtu izana salatu zituen¹⁰¹; nazio zapaltzailea nazio zapalduaren hizkuntza desagerrarazten ahalegintzen dela eta horretarako bertakoen kolaborazioa izaten duela ohartarazi zuen halaber, eta erakundeei hizkuntzarekiko axolagabekeriaz jokatzeari leporatu zien¹⁰²; kontzientzia linguistikoa eta abertzaletasuna lotu zituen era berean¹⁰³ (Tejerina, 1999, 82 or.).

2.1.4. Gobernua eta legeak

Euskal Herria aske zen garaiko gobernu-era eta legeak aldarrikatu zituen Aranak. 1839an galdu zituzten euskaldunek iraganeko gobernu-era eta lege propioak eta, ondorioz, desagertu egin da Aranaren hitzetan bi komunitateen (komunitate espainiarraren eta euskaldunaren) arteko muga (Arana, 1978, 197 or.; jatorrizkoa *La pureza de raza, Bizkaitarra*, 24, 1895; eta Arana, 1978, 55 or., jatorrizkoa *¿Qué somos?, Bizkaitarra*, 28, 29, 30, 1895). Aranaren balio eskalan hirugarren nazio osagarria da legea; zehazki, Lagizarra. Gainontzeko elementuak biltzen ditu bere baitan. Lagizarraren erabileratik hiru helburu begiz jo zituen Aranak: Euskal Herriaren independentzia politikoa, juridikoki lege tradizionalaren arabera antolatzea, eta usadio eta ohitura onak berrezartzea (Jauregi, 1981, 18 or.).

Naziotasunaren osagai moduan jarri zituen Aranak euskaldunen biltzar bidezko gobernu-era eta herriaren ohituretatik sortutako foruak. Buru-belarri tematu zen

¹⁰¹ Ikus Arana, 1978, 203 or.; jatorrizkoa *Extranjero en Bizcaya, Bizkaitarra*, 12, 1894.

¹⁰² Ikus Arana, 1978, 204-205 or.; jatorrizkoa *Epilogo, Bizkaitarra*, 18, 1894.

¹⁰³ Ikus Arana, 1978, 210-211 or.; jatorrizkoa *La Patria, Baserritarra*, 8, 1897.

Arana euskal eta nafar foruak Espainiako Estatuko erregio-foruetatik bereizten¹⁰⁴. Foru hitza ez zitzaion egokia iruditzen Euskal Herriko legeak izendatzeko. Izan ere, Espainiar Akademiaren hiztegiak pribilegio gisa definitzen zituen haiek: probintzia, hiri edo pertsona bati emandako pribilegio edo salbuespen gisa¹⁰⁵. Eta Aranak ez zuen hori onartzen; bere ustez, foruak bere burua gobernatzeko Euskal Herriak sortutako lege soberanoak ziren¹⁰⁶ (1978, 137-138 or.; jatorrizkoa Si son Fueros los Fueros Vasko-Nabarro, 1897).

Naziotasun-elementuen hierarkia ezartzeko garaian haiek akulturazio-prozesuan izan ohi duten zereginari begiratu zion Aranak; akulturaziorako behar duten denboraren arabera garrantzia eman zien. Gobernu-erek eta legeek oso epe luzera erasaten dutenez nazio baten bilakaera sozialean hirugarren lekua eman zien; harreman sozialek, ordea, arrazen eta ohituren arteko harremanek berehalako erasana dute, horregatik jarri zuen arraza lehendabiziko lekuan (1978, 70 or.).

2.1.5. Izaera eta ohiturak

Gobernu-era eta lege propioak erauzita, Aranak dio espainiar etorkinek arriskuan jarri dituztela euskal izaera eta ohiturak: "la familia euskeriana, acosada y estrechada por la impetuosa invasión, va viendo perecer (...) a todos sus hijos, no quedándose ya libre del general naufragio más que la cumbre de sus más altas montañas, cuna de nuestra raza" (1978, 72 or.).

Bestalde, Aranaren ustez euskaldunak berezkoa du izaera erlijioso eta morala. Baina kutsatu egin du espainiarren izaera fedegabeak eta moralgabeziak eta,

¹⁰⁴ Aranak bereizi egin zituen Espainiako Estatuko erregio-foruak (katalanak, aragoitarrak eta abar) eta euskal foruak. Espainiako Estatuak bere barneko erregioei eman zizkien pribilegiotzat jotzen ditu haiek; euskal foruak, berriz, iraganeko estatu independente baten lege soberanotzat (1978, 137-138 or.; jatorrizkoa Si son fueros los fueros vasko-nabarro, 1897).

¹⁰⁵ Beltzak dio Espainiako intelligentsiak diskurtso bat ondu zuela foruak erregeek *libreki* emandakoak direla frogatzeko; eta eman bezala kendu egin zitzaizketela justifikatzeko (Goienetxek aipatua, 2005, 451 or.).

¹⁰⁶ Horregatik dio Aranak ez dela zuzena espainiar gobernuak euskal eta nafar foruak *abolitu*, bertan *behera utzi*, edo *indargabetu* dituela esatea. Historikoki eta juridikoki zehaztasunez hitz egiteko esan behar da Espainiak Euskal Herria *konkistatu* eta *menderatu* egin duela (1978, 139 or.).

ondorioz, galtzen ari da hura pixkanaka (1978, 72 or.). Baserritarrek eusten diote soilik jatorrizko izaerari; baserritarra¹⁰⁷ da Aranarentzat egiazko euskalduna. Hirietako klase ertainean ere badu itxaropenik Aranak, gehiengoak euskal legeekin bat egin duelako. Beste muturrean jartzen ditu aberriari uko egin eta Espainiarekin ezkondu diren euskaldunak: hau da, boterean dauden klase sozial altuko jendea eta maiorazko indartsuak (1978, 131, 144 or.).

2.1.6. Nortasun juridikoa: Jaungoikua eta Lagizarra (JEL)

Lagizarra bildu zituen Aranak bere pentsamendu politikoaren oinarriko naziotasun-elementuak: hurrenez hurren lege tradizionalak, arraza, ohiturak eta hizkuntza (Arana 1978, 192 or.; jatorrizkoa *La pureza de raza, Bizkaitarra*, 24, 1895). Horixe da Aranaren pentsamenduaren giltza (Apalategi, 1985, 97 or.). Aberria salbatzeko ezinbesteko baldintza zen bere ustez *Jaungoikua eta Lagizarra* goiburuaren alderdi guztiak garatzea (1978, 160-161 or.) eta, beraz, abertzaleek harekin erabat bat egitea (1978, 114 or.).

Jainkoari lehentasunezko lekua eman zion JEL goiburuan; izan ere, jainkoa da Aranarentzat gauza guztien amaia: euskaldunaren, euskal herriaren eta euskal arrazaren helburu gorena jainkoarenganako bidea egitea eta bere arima salbatzea baita (1978, 121 or.). Hizkuntzak, historiaren oroimenak, erakunde propioek, independentziak eta legeek ez dute askorako balio, dio Aranak, baldin eta euskal arimaren izaera erlijioso eta morala hil egin bada (Arana, 1978, 72-75 or.). Jainkoa da bere balio-eskalaren gailurra. Apalategik dio arraza bera ere haren mende geratzen dela Aranaren pentsamoldean (1985, 86 or.). Edonola ere, eta hierarkiak hierarkia, txanpon beraren bi aurpegi dira Aranarentzat aberria eta jainkoa: "Ideológicamente hablando, antes que la Patria está Dios, pero en el orden práctico y del tiempo, aquí en Bizcaya para amar a Dios es necesario ser patriota, y para ser patriota es preciso amar a Dios" (Arana, 1978, 161 or.).

¹⁰⁷ Indio amerikarren egoerarekin parekatzen du baserritarrena. Aranak dio indioak bezala baserritarrak ere beren lurretatik desterratu dituela industrializazioak eta baso-larreetan "etsaiek" inguratuta geratu direla (1978, 144-145 or.).

Horiek horrela, aberriaren aldeko posizioa erlijioarekin legitimatu zuen Aranak: "¿Hay otra causa tan noble y santa como la nuestra? (...) Traduzcamos en obras nuestros deseos y Dios nos protegerá y nuestra Patria será libre y dichosa" (1978, 76 or.). Helburu goren hori lortzeko oztopo nagusia Espainiaren mendekotasuna da bere ustez; espainiar dinastiaren liberalismoa bereziki¹⁰⁸. "Heresia modernotzat" jo zuen liberalismoa. Karlistek eta integristek bezala Aranak ere erabat gaitzetsi zuen hura, bai esparru erlijiosoan, bai politikoan (Arana, 1978, 75 or.; Larronde, 1977, 86 or.).

Tradizionalismo erlijiosoak eta integrismoak, bada, eragin handia izan zuten Aranaren pentsamenduan. Hiru alderdi nabarmentzen ditu Letamendiak bere programa erlijiosoan: elizaren eta estatuaren independentzia, elizaren eta estatuaren arteko armonia, eta estatua elizaren arauen mendeko izatea (1994, 147 or.). Bere ondorengo joera abertzaleetan eragina izan zuen elizaren eta estatuaren bereizketak. Jauregik dio Aranaren erlijiotasunak gehiago zuela teokratismotik eta klerikalismotik konfesionaltasunetik baino. Horregatik, dio Jauregik, Aranaren ondoko EAJren konfesionaltasunak berezitasun interesgarri batzuk izan zituela. Eta horrek, beharbada, akonfesionaltasunerako bidea erraztu zien ondorengo joera abertzaleei (1981, 19 or.).

2.1.7. Kontrakolonialismoa eta internazionalismoa

Okupazioaren kontrako jarrerak indar handia izan zuen Aranaren nazio diskurtsoan. Euskaldunek inbaditzailea kanporatu eta independentzia politikoa berreskuratu behar zutela berretsi zuen. Larronde-k, Jauregik eta Letamendiak ohartarazten dute Euskal Herria herri okupatu gisa ikusteak ekarri ziola Aranari bere pentsamenduko alderdirik modernoena: alegia, sentimendu kontrakoloniarra (Larronde, 1977, 281-299 or.; Jauregi, 1981, 25-28 or.; Letamendia, 1994, 145 or.).

¹⁰⁸ Kapitalismoa eta sozialismoa ere kritikatu zituen Aranak (ikus 1978, 87, 169, 176-177 or.). Bere ustez, biak ala biak sistema ekonomiko arrotzak dira euskaldunentzat. Eta arrotzak diren neurrian, inbaditzeko funtzioa betetzen dute Euskal Herrian. Arriskutsuak dira Aranaren hitzetan euskal tradizioarentzat, oro har, eta komunitate katolikoaren moralarentzat, bereziki (Apalategi, 1985, 96 or.).

Bere idazkietan independentziarako eskubidea aldeztu zuen Aranak¹⁰⁹. XIX. mendearen amaierako Espainiaren kolonialismoa (Filipinak, Maroko eta Kubaren okupazioa) kritikatu zuen bereziki, baina oro har inperialismoaren forma guztien kontrako jarrera hartu zuen. Arraza zuriak beste arrazen kontra ejertzitoaren indarra erabiltzea kondenatu zuen aldi berean, eta, jakina, kultura guztien bizitzeko eskubidea aldarrikatu zuen. Eta kolonizatzaileek kolonizatuak "zibilizatu" behar zituztela zioen diskurtso inperialista kritikatu zuen (Larronde, 1977).

Gogoan hartzekoa da, bestalde, , Aranak ez zuela Euskal Herria euskal lurretatik kanpo proiektatzeko asmorik erakutsi. Alderantziz, iraganeko *euskal demokrazia* gorai patzen eta mitifikatzen duenean, espresuki adierazten du Aranak euskal nazio hari ez zitzaiola bururatu ere egiten bere lurretatik kanpoko eremuak dominatzea (Arana, 1978, 12-13 or.; jatorrizkoa *Cuatro glorias patrias* (Bizcaya por su independencia), 1892). Nolanahi ere, *Conócete a ti mismo* artikuluan (1901) Espainiak euskaldunengandik jaso dituen gauzak zerrendatu zituenean, ekarpen gisa balioetsi zuen euskaldunek espainiarrei beste herri batzuk konkistatzen lagundu izana. Harro agertzen da Arana "Mundu Berriko" izen entzutetsuen artean euskaldun asko dagoelako (1978, 215 or.).

Borroka kontrakolonialen ereduak Euskal Herriaren kontzientziarako pizgarri gisa aurkeztu zituen Aranak. Jauregik dio alderatu eta kontrajarri egin zituela bi egoerak: bateko, borrokalari kontrakolonialen ausardia eta, besteko, Euskal Herriaren ahulezia-egoera (Larronde, 1977, 287 or.). Nazioen arteko elkartasunari ere egin zion keinua Aranak: munduko nazio guztien arteko harremanak aldarrikatu zituen, baita Euskal Herri independentearen eta Espainiaren arteko *nazioarteko* harremana ere (1978, 146-147 or.).

¹⁰⁹ Ikus adibidez: ¿De parte de quién está el derecho?, *Bizkaitarra*, 4, 1893.

2.1.8. Autonomia eta independentzia

Aranaren hasierako diskurtsoan funtsezko helburuen artean zegoen Euskal Herriaren independentzia¹¹⁰. Aranek bereizi egin zituen independentzia eta autonomia: *autonomia* osotasun baten zatiari, erregio bati, aplikatu behar zaion kontzeptua da bere hitzetan. Euskal Herria zapal dutako nazioa bada ere, Aranek dio ez diola sekula *osotasun* izateari utzi eta, beraz, ez dela Espainiaren *zati* bihurtu; hots, historikoki eta juridikoki Espainiak mendean hartutako nazioa dela, ez nazio espainiarraren erregio bat. Abertzaletasunaren helburua, beraz, euskal nazioaren iraganeko egoera natural eta justua berreskuratzea da (1978, 141-146 or.).

Euskal arrazaren salbazioarekin lotu zuen Aranek independentzia. Ezinbestekoa iruditzen zitzaion euskal arraza ahalik eta gehien isolatzea, horregatik nahi zuen Euskal Herriarentzako burujabetasuna politikoa. Independentzia, ordea, ez zen nahikoa Aranarentzat euskaldunen helburu gorena lortzeko; horretarako, jainkoa zerbitzatu eta euskal arima salbatzeko, ezinbesteko baldintza iruditzen zitzaion Aranari independentzia eskuratutakoan Euskal Herriaren barne antolaketa (bai erakundeetan, bai legetan) helburu hari begira egitea (1978, 75-76 or.).

Besteak beste, *nazio kontzientzia* kontzeptua ere mahai gainean jarri zuen Aranek. Euskal Herriak nazio baten ezaugarri guztiak biltzen zituen Aranaren ustez eta, entitate bat osatzen zuen heinean, bere lurralde osoan izaera berezia aitortzekion eskubidea gura zuen. Pausu bat ematea falta zitzaion, ordea: bere nortasunaren kontzientzia hartzea¹¹¹.

Aberriarekiko sentimendu kontziente hori indartzerakoan, euskal estatuaren barne antolaketari buruz hausnartu beharko zela ohartarazi zuen Aranek. Zazpi herrialde historikoak bilduko lituzkeen konfederazioaren alde egin zuen berak. Horretarako ezinbesteko baldintza da, bere hitzetan, euskal herrialde (*estatu* erabiltzen du berak) bakoitzak hura osatzeko borondatea adieraztea. Eskubide eta betebeharrak

¹¹⁰ Jauregiren ustez, helburu horretatik etorri zitzaion Aranari alderdi politikoa sortzeko beharra (1981, 32 or.).

¹¹¹ Arana, 1980, 1705 or., La conciencia de nosotros mismos, *El Correo Vasco*, 30, 1899.

berberak izango lituzkete, norberak bere independentziari eutsiko lioke, eta eskubidea izango lukete hala nahi dutenean konfederaziotik bereizteko (Letamendia, 1994, 146 or.).

Aranaren ideologiaren ekoizpenean inflexio puntua izan zen 1898. urtea. Euskal Herriko industria garatzeko Espainiako Estatuaren krisia¹¹² eta zentralizazioa oztopo zirela ikusita, Bilboko burgesia liberalaren zati batek diskurtso abertzalearekin bat egin baitzuen: De la Sota y Llano ontzioletako industria-gizona buru zuen *Euskalerrria* elkarteak abertzaleei batu zitzaien. Ondorioz, pixkanaka, hasierako diskurtso antiliberal irmoa moderatu egin zuen Aranak; oro har, aldatu egin zen abertzaletasunaren fisionomia bera. Geroztik bi joera txandakatuko dira EAJn bata bestearen ondoren: hau da, abertzaletasunaren hasierako printzipioak goraiatzeko dituen eta joera pragmatiko posibilista (Jauregi, 1981, 34 or.; Larronde, 2005, 275, 486 or.).

Bere bizitzako azken bi urteetan (1902-1903) nabarmen aldatu zuen Aranak diskurtsoa¹¹³: hain zuzen "bilakaera espainolista" izenez ezagutu da diskurtso aldaketa hura. Estrategia abertzalea aldatzeko *Liga de Vascos Españolistas* alderdia sortzea proposatu zuen: nolabait ere euskalduna eta espainola izango zen alderdi ez independentista (Larronde, 1977, 343 or.; Corcuera, 1979, 512 or.). Interpretazio asko eta oso ezberdinak egin dituzte ikertzaileek¹¹⁴ Aranaren proposamen hari buruz.

¹¹² 1898an aldaketa ugari gertatu zen Espainiako Estatuan: AEBekin zuen gerraren amaiera sinatu zuten bi estatuak Pariseko Itunaren bidez, eta Espainiako Estatuak okupatuta zituen Kuba, Filipinak, Guam eta Puerto Rico-ko koloniei uko egin behar izan zuten. Ondorioz, krisi politiko, intelektual eta moral larrian sartu zen: espainiar monarkiaren erregimena zalantzan jartzen hasi zen, espainiar elitearen zati handi bat sistema oligarkiko, ez eraginkor eta ustela bihurtu zela iritzita (Larronde, 2005, 486 or.).

¹¹³ ikus *La Patria* astekariaren 35. aleko Grave y trascendental artikulua.

¹¹⁴ Beltzak bi interpretazio aukera ikusten ditu: errepresioaren aurrean Aranaren atzera-egite taktiko bat izatea, edo aurrerantzeko EAJren politika "errealista" eta autonomistaren lehen zantzua izatea (1978, 159 or.). Corcuera trikimailu gisa interpretatzen du Aranaren jarrera: diskurtso espainolista berri hura erabiltzea, zeharka, Euskal Herriaren independentzia eskuratu ahal izateko (1979, 588 or.). ETAk berak *Arana-Goiri (II): su doctrina* formaziorako koadernoan (1962) honako hau adierazi zuen: "No consideramos como tal la denominada «evolución española» que falsamente le quisieron achacar en determinadas circunstancias sus amigos, sino más bien como oportunísima y momentánea táctica de máximo provecho; pasaje éste y pensamiento que Sabino llevó en secreto a su tumba" (Hordago, 1979, 2, 102 or.).

Elizondok, Arana anaien gutunak aztertu ondoren, ondorio hau atera zuen: independentzia eskuratzeko ezintasunak behartu zuela Arana diskurtsoa errotik aldatzera. Batetik, independentziaren aldeko jarrera ez zelako berak nahi bezain sutsua eta, bestetik, gobernu espainiarrak mugimendu abertzalearen ekimen oro blokeatzen zuelako (Apalategik aipatua, 1985, 82 or.).

Desbideratzeak desbideratze, bi ezaugarri nabarmendu nahi genituzke Aranaren euskal nazioaren ikuspegian: nazio osagaien hierarkian lehendabiziko lekua arrazari eman izana eta jarduera abertzalea erlijioaren zerbitzura ipintzea. Bere diskurtsoaren oinarrian arraza jarri zuen Aranak: izan ere, euskal arraza bizirik eta "garbi" mantendu nahi zuelako sortu zuen abertzaletasuna. Gailurrean, berriz, abertzaletasunaren helburua irudikatuko bagenu, Jaungoikoa eta Lagizarra leloa kokatu beharko genuke (Apalategi, 1985, 7-8 or.).

2.2. Sabino Aranaren ondorengo diskurtso abertzalea (1903-1936)

Aranaren heriotza ez zen etena izan EAJren bilakaeran (Mees, 1992, 15 or.). 1903ko azaroaren 25ean hil zen; XX. mendearen lehendabiziko hiru hamarkadetako testuingurua ez zen asko aldatu aurreko mendearen amaieratik: industriaren hazte-prozesuak eta aldaketa soziokulturalek bere horretan jarraitu zuten. Orduan hasiberria zen prozesua heldu eta garatu egin zen orain, Bizkaian indartsuago eta Gipuzkoan apalxeago (Fusi, 1984, 12 or.). EAJren barruko burgesia liberalaren¹¹⁵ eragina geroz eta handiagoa bazen ere, burgesia txikiaren ordezkariak, "abertzale anti-espainolistek"¹¹⁶, tinko eutsi zioten Aranaren hasierako espirituari: hala, Espainiako Estatutik bereizitako euskal estatu independentea lortzearen aldeko politika defendatu zuten (Jauregi, 1981, 35 or.).

Jarraitzaile leialenek Aranaren ideiak sistematizatzeari eta dibulgatzeari ekin zioten. Abertzaletasuna garatzeko ezinbestekoa iruditzen baitzitzaien ideologiaren

¹¹⁵ *Euskalduna* astekariaren inguruan biltzen zen *Euskalerrria* taldea.

¹¹⁶ *Aberrri* astekariaren inguruan biltzen zen taldea.

zabalpen-lana egitea, Aranaren ikuspegia euskal herritarrengan sustraitzeko eta euskal herritarrek nazio kontzientzia hartzeko¹¹⁷ (Elorza, 1978, 335 or.). Dibulgazio lan haietan nabarmena da artean arrazaren erabilera politikoa¹¹⁸; nazio osagaietan lehendabiziko lekua eman zioten (Elorza, 1978, 333 or.; Zabalo, 2006, 84 or.). Dena dela, Fusi-k dio Aranaren ikuskera, pixkanaka, aldatu egin zutela: hain zuzen nortasunarekin, kulturarekin eta hizkuntzarekin lotu zutela berehala arrazaren adiera, eta baztertu egin zutela etorkinei itxitako Aranaren ikuspegi etnikoa¹¹⁹ (1984, 197 or.). Hizkuntzari arrazaren berezkotasunari eusteko funtzioa ematen jarraitu zuten, halaber; arrazaren mendeko nazio osagaia izaten jarraitu zuen. Eta erlijioaren garrantziari ere eutsi egin zioten¹²⁰; bereizezinak ziren EAJrentzat abertzaletasuna eta kristautasuna¹²¹ (Jauregi, 1981, 20 or.).

Esanak esan, 1906an aldatu egin zen ordura arteko joera: Kontzertu Ekonomikoaren gaineko eztabaidek barne tentsioa eragin zuten Aranaren printzipioen jarraitzaileen sektorean eta, horren ondorioz edo, burgesia liberalaren joerak hegemonia lortu zuen. Printzipio teorikoei eutsi bazien ere, nabarmen moderatu zuen EAJk bere praktika politikoa¹²². Independentziaren helburua alboraturik geratu zen, nolabait (Elorza, 1978, 331, 343 or.; Jauregi, 1981, 17 or.).

¹¹⁷ Esanguratsua da, zentzu horretan, Jose Arriandiagak Jose Domingo Uribasterrari idatzitako gutuna: "Instruir, instruir, instruir al vasco acerca de lo que fue su País antes del 25 de Octubre de 1839. He aquí el actual Programa de organización de Partido que poseemos" (*Patria*, 32, 1904, in Elorza, 1978, 335 or.).

¹¹⁸ Ikus Aita Iberoren *Ami Vasco*, 1979. Edo Arriandiagaren *Respuesta a un españolista I* (1904) artikulua (in Elorza, 1978, 332-333 or.).

¹¹⁹ Jauregik dio 30eko hamarkadan nazio osagai gisa pisua galdu zuela arrazak EAJren praktika politikoan, nahiz elementu sinboliko garrantzitsua izaten jarraitu zuen (1981, 17 or.).

¹²⁰ Nahiz disidentziaren bat edo beste eragin zuen horrek: 1910ean espainiar gobernuak erlijio-ordenak eta kongregazio berriak sortzea debekatzen zuen lege-proiektu bat idatzi zuenean, EAJ kontra agertu zen. Alderdiaren barruko talde txiki batek alderdia utzi eta *Aberrri ta Askatasuna* alderdia sortu zuen. Katolizismoari uko egin gabe, uko egin zion izaera klerikalari eta konfesionalari (Jauregi, 1981, 20 or.).

¹²¹ Ikus Aita Iberoren *Ami Vasco*, 1979, 549 or. Esaten du abertzale agnostikoak ez direla sekula abertzale oso izango.

¹²² Abertzaletasun posibilistaren formula proposatu zuen Kizkitzak *La nación vasca* (1918) liburuan: alderdiaren barruan zegoen kontraesan handia sintetizatzeko oinarri ideologikoak proposatu zituen. Aranaren diskurtsoko elementu guztiei eutsi zien Kizkitzak baina ez zuen komunitate espainolaren eta euskaldunaren arteko antagonismorik egin; eta euskal nazio identitatea berreskuratzeko ez zuen independentzia ezinbesteko baldintzatat jo (Jauregi, 1981, 36-37 or.; Kizkitza, 2015).

Lehen Gerra Handia amaitu ondoren, krisian murgildu zen Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ); ordukoak dira hain zuzen mugimenduaren barruko posizio "ezkertiarrek" ildo ofizial burgesari egindako kritika gogorrenak. Eta orduan gertatu zen zatiketa ere: 1921ean *Aberrri* astekariaren inguruan biltzen ziren gazteek, aranazale sutsuenekin elkartu, eta alde egin zuten *Comunión Nacionalista Vasca* (CNV) alderdi ofizialetik¹²³. Aranaren oinordekotza hartuta, jatorrizko izena berreskuratu zuten haiek eta, CNVren politika autonomistaren kontra, EAJ alderdia berrantolatu zuten posizio espainolistak baztertu eta independentziaren printzipioei leial eusteko. *Aberrri* taldean *Eli Gallastegi Gudari*¹²⁴ nabarmendu zen. Arrazaren aferan Aranaren diskurtso ortodoxoa defendatu zuen *Gudarik* baina, hala ere, zenbait ekarpen egin zizkion hari: burgesiaren kontrako jarrera hartu zuen eta, zenbaitetan, gogor kritikatu zituen injustizia sozialak, bizkaitar komunisten posizio batzuekiko interesa agertu zuen bitartean¹²⁵; abertzaletasun ekintzailearen eredu izan zen; eta euskaldunen borondatea¹²⁶ abertzaletasunaren alde jartzeko premia ere azpimarratu zuen, euskaldunak kontzientziatu beharraz¹²⁷ hitz egin zuen; azkenik, Aranak baino jarrera kontrakolonialista askoz ere kritikoa eta zuzenagoa agertu zuen¹²⁸ (Elorza, 1978, 355, 445 or.; Jauregi, 1981, 30 eta hurr..; Mees, 1992, 15-16, 342 or.).

Abertzaletasun ofizialaren barneko bi alderdiek, EAJ-PNV/*Aberrrik* eta CNVk, atzera bat egin zuten 1930eko azaroan. EAJ-PNV jatorrizko izena jarri zioten alderdi

¹²³ 1916ko abenduan *Partido Nacionalista Vasco* izena *Comunión Nacionalista Vasca* (CNV) izenarekin ordezkatu zuten.

¹²⁴ Jauregiren ustez ETAREN sorrera ulertzeko giltzarria da *Gudari* (1981, 27 or.).

¹²⁵ Langile klasearen eta burgesia monopolistaren interesen erdibideko jarrera bat hartu zuen *Aberrrik* (Elorza, 1978, 39 or.).

¹²⁶ Jauregik dio borondatearen faktoreari garrantzia emateko joera nahiko zabaldua egon zela Aranaren ondorengo abertzaletasunean (*Gudariren*, Landabururen edo ETAREN nazioaren definizioetan adibidez). Baina Jauregik dio nazioaren osagaietan faktore bat gehiago besterik ez dela izan abertzaletasunean (1981, 22 or.).

¹²⁷ Ikus Gallastegiren *Comentarios*. Hacia una nueva formación artikulua, *Jagi-Jagi*, 4, 1932, in Elorza, 1978, 445 or.

¹²⁸ *Begirunea* eta *miresmena* adierazi zien *Gudarik* Marokoko matxinatuei; parekatu egin zituen euskal nazio auzia eta Marokoko auzi koloniala. Aranek ez bezala, koordinatu politikoetan soilik kokatu zuen kolonialismoa, ez zituen irizpide etikoak eta erlijiosoak erabili. Eta kolonizatzaileen inperialismoaren kontrako borrokan nazio zapalduen arteko elkartasuna aldarrikatu zuen. Galiza, Euskal Herria eta Kataluniaren arteko aliantza hirukoitz bat sortzea ere proposatu zuen: Galeuzca (Jauregi, 1981, 31 or.).

batuari. Orduan gertatu zen bigarren zatiketa: CNVko eta Aberriko laizismoaren aldeko joerak Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV) alderdia sortu zuen 1930eko azaroan bertan. Sortzaileen artean Anacleto Ortueta, Luis Urrengoetxea, Tomas Bilbao eta Justo Garate nabarmendu ziren. EAE-ANVk euskal nazio nortasunaren aldeko jarrera erakutsi zuen lehen unetik: euskararen aldeko jarrera irmoa erakutsi zuen baina, aldaketak aldaketa, *arraza* kontzeptuari aitortu zion oraindik lehentasunezko lekua. Arrazarekin lotzen du naziotasunaren sorrera; haatik, behin naziotasuna osatuta, arrazaren funtzio politiko oro desagertu egin beharko litzatekeela defendatu zuen. Euskadiren batasuna aldarrikatu zuen, halaber; alderdi errepublikazale ezkertiarrekin elkarlan estuagoan aritzeko interesa agertu zuen eta jarrera laikoa¹²⁹ babestu zuen (Elorza, 1978, 418 or.; Jauregi, 1981, 20 or.).

EAJren barruko bi joeren arteko botere lehiak segitu zuen aurrerantzean ere. Aberriren ildokoa zen *Bizkai Mendigoxale Batzak* gogor kritikatu zituen alderdiak espainiar buruzagiekin zituen konpromisoak. Eta EAJk 1931ko estatutu-prozesuari ekin zionean kontrako jarrera hartu zuen Jagi-Jagi astekarian; traizioa iruditzen zitzaion estatutuaren ekimena¹³⁰. Espainiako Errepublikako gobernuaren jarrera ikusita, 1935etik aurrera gero eta kritikago agertu zen estatutuaren prozesuarekin eta halaxe segitu zuen 1936ko estatu kolpera arte¹³¹ (Beltza, 1977, 226-227 or.; Jauregi, 1981, 39-40 or.).

Hizkuntzaren arloan Aitzolek egin zuen ekarpena aipatu nahi genuke azkenik. Orduan argitaratu zuen *La muerte del euskara o los profetas de mal agüero* (1931) liburua. Aranaren ideiak eguneratu zituen bertan eta garrantzi handia eman zion hizkuntzaren funtzioari. Aitzolen esanera etniaren edo herriaren adierazpena da

¹²⁹ Jauregiren ustez ETAREN akonfesionaltasunean eragin zuen EAE-ANV (1981, 20 or.)

¹³⁰ Izan ere, lehen urteetako EAJrentzat alderdi espainolistekin aliantzak egitea bere doktrinaren kontrako zen; erregionalismo huts bihurtzeko arrisku handia ikusten baitzion jokabide hari. Euskal nazioa onartzen zuten eragileekin soilik izan nahi zituen harremanak (Larronde, 1977, 157-158 or.; Jauregi, 1981, 33 or.).

¹³¹ Jauregik dio Euskalerrria elkartekoek, aberrikideek, komunonistek eta sabindarrek, jagi-jagitarrek eta autonomistek, konfesionalek eta akonfesionalek, guzti guztiek osatu zuela Ekin-ETAREN belaunaldia elikatu zuen "magma ideologikoa" (1981, 82 or.).

hizkuntza, harreman-lotura, eta kontzientzia kolektiborako ezinbesteko elementua: "El idioma es el alma, el espíritu, el valor esencial más íntimo, lo que caracteriza más intrínsecamente la conciencia de un pueblo" (La muerte del euskera, *El Día*, 1931, in Elorza, 1978, 318-319 or.). Aitzolen diskurtsoan arrazak du oraindik lehentasunezko lekua baina, hala ere, hizkuntzari esker bizi da: hizkuntza desagertuta, arrazak arima galduko luke eta desagertu egingo litzateke¹³² (ikus El tradicionalismo vasco y el euskera, *El Día*, 1931, in Elorza, 1978, 318 or.).

EAJren bilakaera ikusita ondorioztatu beharko genuke bi aurpegi izan zituela. Diskurtsoari bagagozkio, Aranaren doktrinaren elementu nagusienei eutsi zien 1936ko estatu kolpera arte. Arrazak jarraitu zuen nazio diskurtsoaren erdigunean¹³³ eta, pentsalari batzuek hizkuntzari Aranak baino pisu handiagoa aitortu bazioten ere, bigarren mailan segitu zuen EAJren balio eskalan. Aranak eman zion funtzio bera eman zioten, oro har: alegia, euskal arraza besteekiko ezberdintzea eta euskal komunitatearen barne kohesioa indartzea. Baina printzipio haiei uko egin ez bazien ere, politika pragmatikoaren izenean, dezente moderatu zuen EAJk praxia eta hasierako diskurtsoa (Elorza, 1978, 427 or.; Zabalo, 2006, 84 or.).

3. EAJren inguruko mugimendua

Euskal berezitasunen kontzientziatze-prozesua aurretikoa bada ere, gerra karlisten ondoren ernatu zen protoabertzaletasuna Euskal Herrian, Espainiako gobernuak euskal foruen erregimenetik geratzen ziren hondarrak deuseztatu zituenean (1876). Krisi egoera hartan sortu zen hain zuzen foru-antolaketaren eta euskararen aldeko mugimendu politiko kulturala (Apalategi, 1985, 7 or.; De Pablo, Mees eta Rodriguez Ranz, 1999, 1, 28 or.; Davant, 2005, 482 or.). Eta mugimendu haren erdi erdian sortu

¹³² Landaburuk berreskuratu zuen nolabait, 50eko hamarkadan, Aitzolen diskurtsoa; hizkuntza lehen mailako faktoretzat hartzeko joera nabari zaio haren lanari (ikus *La causa vasca*, 1956; Jauregi, 1981, 22 or.; Zabalo, 2006).

¹³³ Agirreren 1936ko abenduaren 22ko hitzaldia horren lekuko: "El pueblo vasco vive dividido en numerosos Estados (Vizcaya, Guipúzcoa, Alava, Navarra, Laburdi y Soule), unido sin embargo por sus instituciones y por la raza que los habita" (Apalategi aipatua, 1979, 192 or.).

zuen Aranak ideologia abertzalea; mugimendu haren zati handi bat EAJren inguruan artikulatu zen handik aurrera¹³⁴.

Aurretik esana dugu ideologiak eta balioak eliteetan eta mugimenduetan gorpuzten direla, eliteek eta mugimenduek adierazten, zabaltzen eta sinbolizatzen dituztela ideologiak (Rocher, 1990, 532 or.). Bizkaiko burgesia txikiko kide zen Aranak irudikatu zituen abertzaletasunaren oinarriak. Baina ideologoa ez ezik, ekintzailea¹³⁵ ere izan zen (Larronde, 2005, 488 or.) eta berak hasi zuen burubide abertzaleari esker, aurretik sortua zen mugimendu foruzale eta euskaltzalearen zati bat EAJren inguruan antolatu zen handik aurrera. Horixe hartuko dugu mintzagai atal honetan: EAJren inguruko mugimendu soziopolitiko eta kulturala.

Aranaren lehendabiziko jardura idaztea izan zen; dibulgazio eta sorkuntza lan handia¹³⁶ egin zuen. 1892an argitaratu zuen bere lehendabiziko liburu politikoa: *Bizkaya por su Independencia (Cuatro glorias patrias)* (Arana, 1978, 11 or.; Apalategi 1985, 80 or.). Propaganda abertzalearen lehendabiziko ekitalditzat jotzen den hitzaldia ere berak eman zuen 1893an: hau da, Larrazabal baserrian egindako *Discurso de Larrazabal*. Eta hainbat aldizkari¹³⁷ sortu zituen beste abertzale batzuekin batera: *Bizkaitarra*¹³⁸ (1893), *Baserritarra* (1897), *El Correo Vasco* (1899), *Euzkadi* (1901), eta *La Patria* (1901). Argitaletxe bat ere sortu zuen Luis Arana anaiarekin: *Bizkaya'ren Edestija ta Izkera-Pizkundia* (1896); euskarazko ortografia ikasteko liburu

¹³⁴ Azurmendik mugimendu abertzalea sortu izana nabarmentzen du Aranaren ekarpenean. Esaten du alderdi egitura bat baino lehenago herri mugimendu sozio-politiko-kultural bat izan zela abertzaletasuna, Euskal Herriaren aldeko erreakzio bat (Azurmendi, 1979, 17 or.).

¹³⁵ Aranak berak esana da honako hau: "A la Patria no se le hace ningún bien con charlatanería, si los hechos, si la acción no acompañan a la palabra" (Vanidad, miedo y farsa, *El Correo Vasco*, 65, 1899).

¹³⁶ Lehendabiziko artikulua eta saiakeretan euskara, historia eta politika izan zituen ardatz: *Gramática Elemental del Euskera Bizkaíno*, *Etimologías Euskéricas*, *Pliegos histórico-políticos*, *El proyecto de Academia Bascongada del Señor Artiñano*, *Tratado etimológico de los apellidos euskéricos*, *Pliegos Euskeralógicos*, *Pliegos Euskeráfilos*. Artikulu asko atzera bota zizkioten *Euskal-Erria*, *El Noticiero Bilbaino*, *El Vasco*, eta *La Unión Vasco-Nabarra* egunkari eta aldizkariak (Apalategi, 1985; Gezala, 1995).

¹³⁷ Berak sortutakoez gain, egunkari eta aldizkari karlista batzuek, pixkanaka, Aranaren diskurtso abertzalearekin egin zuten bat. Esate baterako, *El Fueristak* 1897an eta *Euskaldunak* 1898an (Gezala, 1995, 30 or.).

¹³⁸ Letamendiak dio *Bizkaitarra* aldizkariaren bi urteak izan zirela Aranaren jardura ideologikoaren gaina eta bikaina (1994, 144 or.).

bat¹³⁹ (1896) argitaratu zuen; egutegi bizkaitarra eta euskal izendegia ere berak burutu zituen. Eta 1903an *Libe* antzerki-lana argitaratu zuen (Gezala, 1995, 25 eta hurr.).

Bizkaiko abertzaleak abertzaletasuna zabaltzen ari ziren garai berean, Gipuzkoako abertzale eta euskaltzale batzuek *Euskal Esnalea* elkarte (1907) eta izen bereko aldizkaria (1908) sortu zituzten, eta 1911n *Euskalerrriaren alde* erakundea eta izen bereko aldizkaria. 1936ko estatu kolpera arteko joera izan zen hura: hala, 1933an agertu zen euskal kulturaren berpizkundearekin bat egiteko helburua zuen *Yakintza* aldizkaria (Apalategi, 1985, 68 or.).

EAJ alderdi politikoa¹⁴⁰ sortu zuen, halaber, Aranak (1895). Alderdia bere oinarri soziala zedarritzen zihoan heinean, erakunde abertzale multzo bat artikulatu zen haren inguruan. Ordurako sortua zuten abertzaleek Bilbon *Euskeldun Batzokija* lehendabiziko elkarte abertzalea¹⁴¹ (1894) eta hurrengo urteetan ere elkarteak sortzen aritu ziren: esate baterako, Bilbon *Alkartasuna* elkarte zabaldu zuten 1896an eta *Centro Vasco* 1899an; *Batzoki Bermiotarra* 1899an eta 1903an *Euskal-Lagun Artea* Ondarroan¹⁴² (Gezala, 1995, 26-34 or.).

Gazteek¹⁴³ garrantzi handia izan zuten abertzaletasunaren sorreran. EAJren inguruan saretzen ari zen komunitatean gazteentzako elkarteak sortu eta antolatu zituzten abertzaleek. 1901eko azaroan sortu zuen ikasle talde batek lehen gazte erakunde abertzalea: *Euzko Gaztedia* (1901-1904). Hortik sortu zen gero Bilboko *Sociedad de Juventud Vasca* (1904-1906). Eta hura legez kanpo utzi ondoren, *Juventud Vasca de Bilbao* (1907-1921). Caminok eta Gezalak diote, funtsean,

¹³⁹ *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* (1896).

¹⁴⁰ 1936an alderdirik bozkatuena izatea lortu zuen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan (De la Granja, 1999, 1, XV or.).

¹⁴¹ Sorrera ekitaldi hartan jaso zuten lehen aldiz Arana anaiek diseinatutako ikurrina (Gezala, 1995, 26 or.).

¹⁴² Larrondek dio 1910erako Euskal Herriko hiri handi guztietan batzokiren bat zegoela, Bizkaian eta Gipuzkoan bereziki (1977, 320-323 or.).

¹⁴³ "Gazte abertzaleak" bereiztea behartua izan daiteke beharbada, izan ere, EAJ sortu zuten ia guztiak gazteak ziren; Aranak berak hogeita zortzi eta hogeita hemezortzi urte bitartean garatu zuen bere jarduera politikoa (Camino eta Gezala, 1991, 17 or.).

batzokien funtzio eta jarduera berdintsuak egiten zituztela gazteen elkarteek: izan ere, gunehaetatik zabaldu eta garatu zen abertzaletasuna lehen urteetan, gazte elkarteek ehundu zituzten sortu berria zen mugimendu abertzalearen estrukturak. Eta, dena esate aldera, dibulgazio lanean ere aritu ziren: *Aberri* astekariaren lehen alea argitaratu zuten 1906an¹⁴⁴ (1991, 17-21 or.).

Gazte erakunde haiek berehala gainditu zituzten abertzaleen aurreikuspenak. Hasieran aktibismoa sustatzeko rola hartu bazuten ere, gazteen grina eta ekimenari esker, eta haietako askoren maila politiko eta intelektual altua zela eta, jende asko erakarri zuten. Antolaketa eraginkorrari esker zailtasun materialak eta espainiar autoritateen eragozpenak gainditzea lortu zuten. Propaganda lana garrantzitsua izan bazen ere, Caminok eta Gezalak diote aipagarriagoa dela egin zuten kultura jardueraren dimentsioa¹⁴⁵.

Gazte-erakundeen propaganda- eta kultura dimentsioaz aparte, EAJren eremu ideologikoan izan zuten papera azpimarratzen dute Caminok eta Gezalak. Eta beste erakunde abertzale batzuen sorrera sustatzen egin zuten lana ere nabarmentzen dute; hala nola *Euzko Langileen Alkartasuna-Solidaridad de los Trabajadores Vascos* (ELA-STV) sindikatua, *Emakume Abertzale Batza* (EAB), *Euzko Ikasle Batza* edo *Bizkaiko Mendigoxale Batza* (aurrerago aipatuko ditugu). *Juventud Vasca* erakunde berri horien sostengu bihurtu zen, bai bitarteko materialetan, bai giza baliabideetan. Bizkaiko jarduera abertzalearen guneha nagusia bihurtu zen gazte erakundeak (1991, 146 or.).

Lehendabiziko sindikatu abertzalea aipatu berri dugu. Gobernu espainiarrak EAJren jarduera legeztatu zuenean zabaldu egin zen haren oinarri soziala eta langile

¹⁴⁴ Aurretik, *Euzko Gaztediako* kideek *La Patria* EAJren astekaria banatu zuten eta hilero hainbat artikulu idazteko konpromisoa hartu zuten (Camino eta Gezala, 1991, 21 or.).

¹⁴⁵ Euskal kultura babesteko eta berreskuratzeko helburuak ideologia abertzalean hartu zuen garrantziarekin lotzen dute Caminok eta Gezalak gazte erakundeen jarduera kulturalak hartu zuen dimentsioa (1991, 145 or.).

abertzale asko sartu zen alderdian¹⁴⁶. Orduan sentitu zuten abertzaleek sindikatua sortzeko beharra. Euskal langile talde batek sortu zuen ELA-STV 1911n Bilbon. Hartara, legez kanpoko zirkulu klandestino izateari utzi zion EAJk eta masa mugimendu izateko lehen pausuak eman zituen. Alderdi gisa baino areago politikaz gaindiko mugimendu gisa definitu zuen EAJk bere burua eta orduan eskuratu zuen, hain justu, goren maila. Arrakasta handia izan zuen hauteskundeetan (Mees, 1992, 15-16, 342 or.).

Emakume abertzaleak EAJren inguruko erakundeetan sartzea ez zen Aranaren egitasmoetan sartu baina, hala ere, bere heriotzatik urte gutxi pasatu ziren emakumeak jarduera politikoan parte hartzen hasteko: prentsa abertzalean kolaboratzen hasi ziren 1906an. Bi hamarkadatan prentsan kolaboratzen jardun bitartean, hainbat saiakera egin zituzten emakumeen erakunde abertzale bat sortzeko; baina, guk dakigula, erakunde haiek ongintzako lanetara mugatu ziren¹⁴⁷. 1922an sortu zuten azkenean emakumeak abertzaletasunaren barruan antolatzeko erakundea¹⁴⁸: *Emakume Abertzale Batza* (EAB). *Juventud Vasca* erakundearen egoitzan hasi ziren elkartzten eta *Aberrri* aldizkariak eman zuen haien zereginaren berri. Bost eremutan egin zuten lan: hurrenez hurren propaganda abertzalea zabaltzen, ongintzan, hezkuntzan, eta afektibitate-zerbitzuetan¹⁴⁹ (Ugalde, 1993, 51 or. eta hurr.).

EABren bidez jarduera publikoan hasi ziren emakumeak baina aritu familiaren eta sentimenduen eremura mugatutako lanetan aritu ziren. Lan-eremu haiek familia-funtzioaren eginbeharretara mugatzen bazituzten ere, Ugaldek dio EABk isolamendutik ateratzen lagundu ziela emakume militanteei. Funtzio hura

¹⁴⁶ Mugimendu abertzalea jendartean hedatu ahala, malgutu egin zuten abertzaleek Aranaren diskurtsoa. Esate baterako, mugimendu abertzalean sartzeko euskal abizenak izatearen baldintza biguntzen eta aldatzen joan zen (Iraola, 2012).

¹⁴⁷ Ikus Ugalde, 1993, 51. or. eta hurr.

¹⁴⁸ Irlandako emakume nazionalisten *Cumann na mBan* erakundearen ereduak eman zion behin betiko bultzada EABri. *Aberrri* taldeak eta Gudarik bultzatu zuten haren sorrera (Ugalde, 1993, 125 or.).

¹⁴⁹ Gizonezko abertzaleek eguneroko borrokan jardun zezaten adorea ematen aritzen ziren emakumeak, baita espetxeratuak eta errepresioaren gainontzeko biktimei laguntzen ere (Ugalde, 1993, 134 or.).

kolektiboki egiten hasi baitziren, norbere familiarik atera eta familia abertzaleen multzora zabaldu zuten beren egitekoa. Lan egiteko eremuak ez ezik, EABren jarduera ere gizonezkoek zedarritu zuten: hala, *Aberriko* buruzagiek definitu edo baldintzatu zituzten erakundearen antolaketa, helburuak eta jarduera-eremua (1993, 51 or. eta hurr.).

Espainiako II Errepublikaz geroztik generoaren araberako espazio sozialen banaketa zertxobait aldatzea lortu zuten emakumeek mugimendu abertzalean: izan ere, zuzenki eragiteko gaitasuna zuten eremuak handitu egin zituzten. Haatik, men egin behar izan zioten bigarren mailako paperari; gainontzean, mugimendutik kanporatzeko arriskua baitzuten eta haien helburua mugimenduan ahalik eta gehien parte hartzea zen. Diskurtsiboki sumisioa erakutsi behar izan bazuten ere, jarrera aktiboa izan zuten espazio sozial berriak bereganatzen; hartara, gai izan ziren beren aktibismo politikorako espazio bat sortzeko eta esfera publikoaren eta pribatuaren arteko langa gainditzeko (Ugalde, 1993, 563-574 or.).

Aurrekoak aurreko, ikasle abertzaleak ere antolatu ziren. Euskal Herritik kanpora unibertsitate-ikasketak egitera joandako ikasleak elkartzen hasi ziren Espainiako II Errepublikan. Euskal ikasleen elkarteak sortu zituzten Espainiako Estatuko hainbat unibertsitatetan: hain zuzen Madrilen sortu zuten *Euzko Ikasle Batzaren* lehendabiziko elkarte (1931). Ondoren etorri ziren Valladolid, Zaragoza, Bartzelona, Lieja, eta Pariseko *Euzko Ikasle Batzak*. Hitzaldiak, ibilaldiak, euskara-eskolak, dantza taldeak, pilota-jaialdiak, eta orfeoiren bat edo beste ere antolatu zituzten. Egiturari dagokionez, kongresuak antolatu zituzten eta 1933an Bizkaiko *Euzko Ikasle Batzaren* zuzendaritza-batzordea osatu zuten. Bilbon *Ikasle-Etxia* izeneko egoitza hartu zuten eta hitzaldiak eta euskarazko eskolak eman zituzten bertan, besteak beste (Camino eta Gezala, 1991, 128-131 or.).

Gainerakoan, EAJren eta bere inguruko erakundeen jarduera kulturala ere oso aberatsa izan zen. Caminok eta Gezalak diote XX. mendearen lehen hamarkadetan esparru politikoko jarduerak adina garrantzi, edo are handiagoa, izan zutela

praktikan jarduera kulturelek (1991, 51 or.). *Círculo de Estudios Vascos* ikasketarako elkarteak sortu zuten, esate baterako, 1907an. Abertzaleentzako ikasketa-guneak¹⁵⁰ sortu nahi zituen zirkulu hark eta, horrekin batera, propagandista berriak prestatzeko, eta gau-ekitaldiak eta lehiaketak antolatzeko zeregina hartu zuen bere gain. Literaturari eta musikari buruzko gau-emanaldiak, eta ikastaroak antolatu zituen, Bizkaiko geografia eta historia eta Arte Ederrak lantzeko; baita argazki-lehiaketak ere; eta euskal historiaren ikerketarako lehiaketak. Caminok eta Gezalak ohartarazten dute ikastaro haien helburu nagusia unibertsitate libreak sortzeko oinarriak ezartzea zela (1991, 53-54 or.).

Camino eta Gezalaren esanetan, Bilboko *Juventud Vasca* erakundeak hasieratik eman zien garrantzi handia musika-jarduerei. Musika-ekitaldi ugari antolatu zituzten, eta gainerako ekitaldi politiko eta kultural gehienetan ere beti izaten zen musika-tarteren bat. 1908ko urrian Musika Akademia zabaldu zuen *Juventud Vasca* erakundeko musika-batzordeak; eguneroko eskolak eskaintzen hasi zen. 1909ko martxoan osatu zen ofizialki *Juventud Vascaren* orfeoia eta urte bereko urrian zabaldu zuten *Juventud Vascaren* solfeo-akademia. Prentsa abertzaleak abesti abertzaleek ekitaldietan zuten eragina oihartzuna zuen eta musika ikasteko deia¹⁵¹ egin zien gazteei (1991, 57 or.).

Horrez gain, erromeriak, herriz herriko abesbatzak, abesbatzen arteko lehiaketak, arrantzaleen aldeko musika jaialdiak, euskal kanta herrikoiak ikasteko eskolak, txistu eta atabal eskola eta abar antolatu zituen gazteen erakundeak. Eta halaxe jardun zuen Espainiako II Errepublikan ere (Camino eta Gezala, 1991, 55-57, 124-125 or.). Antzerki- eta dantza-taldeek, eta aisialdiko kirol-jarduerak funtzio garrantzitsua bete zuten mugimendu abertzalearen ehunduraren, abertzaleak (gazteak nagusiki) elkartzeko balio baitzuten eta kide berriak erakartzen baitzituzten.

¹⁵⁰ Etengabe azpimarratu zuen prentsa abertzaleak euskaldunen artean ikasketa sustatzeko beharra; baita abertzale ez zirenak erakartzeko bide gisa ere (Camino eta Gezala, 1991, 52-54 or.).

¹⁵¹ Ikus *Bizkaitarra*, 1909-10-02.

Gazte abertzaleak *Mendigoixaleak* mendizaleen elkarteetan elkartu ziren 1906. urtetik aurrera. Mendi-irteerak antolatzen zituzten igandeetan. Aranaren hasierako diskurtsoa hobesten zuen joera anti-espainolista ordezkatzeko zuten *Mendigoixaleek*; eta ikusi dugunez, paper garrantzitsua izan zuten abertzaletasunaren bilakaeran (Larronde, 1977, 320-323 or.).

Bestalde, Aranaren diskurtso teorikoak eragin handia izan zuen euskal intelligentsian ere. Apalategik dio Aranaren doktrina erreferentzia-eremu bihurtu zitzaioela ikertzaile askori eta, horrela, ikerketari nazio ikuskera ematen hasi zirela. Ekimen euskaltzale eta abertzale ugari sortu zen ikerketaren eremuan: 1901ean euskal ortografia batzeko oinarriak adosteko kongresua antolatu zuten hainbat euskaltzalek Hendaian; Aranak parte hartu zuen bertan. Eta hurrengo urtean helburu berarekin beste kongresu bat Hondarribian. Iparraldeko euskaltzaleek *Eskualtzaleen Biltzarra* sortu zuten, halaber, eta euskara aztertzeko eta zabaltzeko *Cercle d'Etudes Euskariennes* (1911) elkarte Baionan. Euskararen batasunerako saiakerak Euskaltzaindiaren sorrerarekin (1918) gorpuztu ziren gero (Apalategi, 1985, 8, 14-15 or.; Gezala, 1995, 32 or.).

Eusko Ikaskuntza ere 1918an sortu zuten abertzaleek: hartara, umeen irakaskuntza euskaraz emateko azpiegitura sortzen jardun zuten Euskal Herri osoan. Eskola testuak sortu zituen Eusko Ikaskuntzak, irakasleak prestatu, eta irakaskuntza elebiduna ezartzeko legeak lortzen saiatu zen. Bultzada horri esker sortu ziren gerra aurreko lehenbiziko ikastolak¹⁵² (Basterretxea, Aldekoa-Otalora, Gorostiaga eta Juaristi, 1997, 69 or.).

¹⁵² Amurriok dio abertzaletasunaren lehenengo urteetan euskarazko irakaskuntza orokortzea ez zela lehentasunezko ekimena izan; hori baino garrantzitsuagoa zitzaien Aranaren ideiak lantzea eta zabaltzea, hots, masa mugimendu politiko bihurtzeko hedatzea. Edonola ere, horrek ez du esan nahi hezkuntzarekiko kezkarik ez zutenik. Aranak idatzi zuen hezkuntzari buruz ere baina ez zuen gero ekimen espezifikorik bultzatu eremu horretan (Amurrio, 2003, 212 or.). 1932 eta 1936 urteen artean euskarazko irakaskuntza bultzatzeko *Eusko Ikastola Batza* ikastolen federazioa sortu zuten abertzaleek Bilbon (Basterretxea et al., 1997, 70 or.).

Unibertso sozial abertzalearen garapen prozesuan parte hartu zuten sektoreetan bat nabarmendu zen Tejerinaren ustez: hain zuzen Elizaren inguruko taldeak. Aita Ariztimuño Aitzolek egundoko lana bete zuen eremu hartan. 1931n euskara berreskuratzeko egitasmoak antolatzen aritu zen¹⁵³ eta euskal kultura berpizteko proposamenak egin zituen. Hezkuntza elebiduna ezartzearen alde borrokatu zen beste euskaltzale batzuekin batera: Bonifazio Etxegarai, Eduardo Landeta eta Aita Altzo kaputxinoarekin, besteak beste (1999, 83 or.).

Honezkero ez dago zalantzarik honako honetan: hau da, abertzaletasun etnikoa alderdi politiko bat baino gehiago izan zela. Arana hil ondoren lan handia hartu zuen EAJk bere burua egituratzen eta antolatzen eta, arian-arian, jendarteko sektore ezberdinak ordezkatzeko zituzten erakundeak atxiki zitzaizkion bere orbitan. Larronde-k dio erakunde ugartze hark mistika abertzale bat sorrarazi zuela: hala, ospakizun erlijioso eta profanoak, doktrina abertzalea, ikurrina, eskudoa, *Euzkadi* izena, ereserkia eta abar mistika abertzalearen kanpo zeinuak besterik ez ziren (1977, 320-324 or.).

Erakunde eta ekimen abertzale multzo hark sare sozial dinamikoa¹⁵⁴ harilkatu zuen, "mikro-jendarte" bat (Elorza, 1978), "zibilizazio abertzalea" (Rodríguez Ranz-en kontzeptua De la Granja jaso, 1999, 1, XIII or.), jendarteko esparru guztiak bildu nahi zituen alderdi-komunitatea (De la Granja, 1999, X eta XIII or.). Komunitate abertzalea konfiguratu zuten hasieran. Autore batzuek (Jauregi, 1981; Heiberg, 1991; Alcedo, 1996) arrazoitzen dute euskal arraza gainontzeko arrazetatik, nagusiki Espainiako Estatutik iritsi ziren langile-oldeetatik, isolatzeko sortu zutela abertzaleek. Bizitza sozialeko esfera guztietan euskaldunek elkarrekin jardun ahal izan zezaten espainolekin eta beren ohitura arrotzekin harremanik izan gabe. Interes komunak eta patuak elkartutako familia moduko bat zen, azken buruan.

¹⁵³ Ikus Aita Ariztimuñoen *Qué es y cuánto ha hecho por la cultura vasca la Sociedad Euskaltzaleak*, *El Día*, 1934, in Elorza, 1978, 438-439 or.

¹⁵⁴ Apalategik dio Hegoaldeko gizarte- eta kultura dinamismo hura finkatuz zihoan aldi berean, Iparraldean ere mugimendu bat joan zela saretzen (1985, 14 or.).

EAJk bere eragin-indarra euskal langile eremuetara zabaltzea lortu zuenean, nabarmen handitu zuen bere oinarri soziala. Orduan eman zituen masa mugimendu izateko lehen pausuak: nolabait ere euskal nazioa berpizteko politikaz gaindiko mugimendu kultural eta sindikala bihurtu zen. Jendarteko ahalik eta sektore gehien biltzen eta bertan erakartzen ahalegindu zen (Azurmendi, 1979; Camino eta Gezala, 1991; Mees, 1992; De Pablo, Mees, Rodriguez Ranz, 1999). Sare soziologiko hartan harilkatu zen euskal abertzaletasunaren mobilizazioa, herri-sektore ugari bildu baitzen mugimendu abertzalera (Tejerina, 1999, 83 or.). Mees-ek modu argian formulatzen du EAJren arrakastaren giltzarria:

Una importancia decisiva para el éxito de los "Jeltzales" [1903-1923 urteez ari da] tuvo también su distanciamiento de la política partidista altamente despreciada y su autodefinición como movimiento supra-partidista de salvación nacional (...) que requería no solamente los votos, sino el compromiso firme de una vida ejemplar al servicio de la patria de todos sus simpatizantes. La afiliación a una de las múltiples sociedades nacionalistas de carácter cultural o deportivo así como la utilización de sus símbolos externos (himnos, banderas, festejos) creaba un sistema de identificación y autoestimación que facilitaba la integración de los nacionalistas en la nueva sociedad industrial capitalista (Mees, 1992, 341-342 or.).

1936ko frankisten estatu kolpeak eta gerrak eten egin zuten mugimendu zabal eta oparo hura. Gerrak iraun zuen urteetan oso txikia izan zen abertzaleen jardura eta ekintza politikoa; halabeharrez, gune jakin batzuetara mugatu zen. EAJk mugimenduaren barruko sektore guztientzako talde politika egiteko gaitasuna galdu zuen. Erabat aldatu zuen ordura arteko mugimendu abertzalearen jarduna (Jauregi, 1981, 49 or.; Apalategi, 1985, 8 or.).

4. 1936ko gerra ondoko testuingurua

4.1. Ekinen eta ETAREN sorreran eragin zuten faktoreak

Ekin eta ETA sortu ziren testuingurua aztertuko dugu atal honetan, Ekinen eta ETAREN sorreran eragin zuten faktoreak aipatuko ditugu: hala nola faktore historikoa, politikoa, linguistiko kulturala, demografikoa eta ekonomikoa. Lehendabiziko abertzaletasunaren sorrerarekin lotu ditugun faktore batzuk errepikatu egingo ditugu laburki, hain zuzen uste dugulako bi nazionalismoen fundatzaileengan eragin zuten nazio arrazoi batzuk berberak direla.

Faktore historikoa¹⁵⁵ aipatuko dugu lehendabizi: izan ere, nazio euskaldunaren gainbeheraren kontzientziak eragin handia izan zuen Ekinen eta ETAREN sortzaileengan. Ez ziren alperrik aritu gerra aurreko autore abertzaleen lanak eskuratzen eta Euskal Herriko historia ikasten¹⁵⁶. Gaztelak eta Aragoik XIII. eta XVI. mendeen artean Nafarroako Erresuma militarki okupatu eta konkistatu eta soberania politikoa erauzi izana jarriko dugu abiapuntuan (Urzainki eta Olaizola, 1998). XVI. mendetik aurrera nazio estatuen esparrua finkatzen zihoan neurrian, eta Euskal Herria esparru haietan integratzen joan ahala, galdu egin zituen aurretik zituen erakunde eta harreman-eremuak: ondorioz, euskararen erabilera-eremua etengabe txikitu zen (Apalategi, 1985, 7 or.). XIX. mendeko aldaketak aipatu behar ditugu hurrena: besteak beste, karlistek gerrak galdu izana, aurretik Ipar Euskal Herrian gertatu bezala orain Espainiako gobernuak foruen erregimenetik geratzen ziren hondarrak deuseztatzea (1876), foruen aldeko mugimendua, eta Aranak diskurtso eta mugimendu abertzalea sortzea (1890). 1936ko frankisten estatu kolpea eta ondorengo gerra-urteak aipatuta Ekin eta ETA sortu bezperan kokatuko

¹⁵⁵ Aranaren ideologizazio-prozesua ulertzeko aipatu dugun faktore historikoa baliagarri zaigu hemen ere. Ekin eta ETAREN sortzaileengan gehien eragin zuten gertaera historikoak aipatuko ditugu gainera.

¹⁵⁶ Apalategiren hitz hauek oso modu argian adierazten dute iraganaren bilaketak 50eko eta 60ko hamarkadetako belaunaldi gaztearentzat izan zuen garrantzia: "Los vascos de nuestra generación hemos tenido que intuir desde un túnel oscuro y cerrado las raíces de nuestra historia como nación, y cuando hemos osado salir a la boca del túnel para apreciar la luz y a través de la misma percibir con nitidez las realidades que nos corresponden, (...) nos hemos percatado de que se hacía una lectura de nuestra historia que ignoraba y censuraba conscientemente el hecho nacional vasco" (1985, 5 or.).

ginateke (Casanova, 2007, 16-19 or.). Inondik ere, motibazio iturri pizgarria izan zitzaien historiaren deskubrimendua proiektu kultural eta politiko berria abian jartzeko (Apalategi, 1985, 173 or.).

Horri lotuta dator, ezinbestean, Ekin-ETAren sorrera azaltzeko faktore politikoa: gerra garaian eta gerraren ondoren frankistek euskal naziotasunaren zeinu ororen kontra erabili zuten errepresioa¹⁵⁷ eta eragin zuten izu-ikara aipatu beharko genituzke. Ikur abertzaleen eta euskararen gaineko jazarpenak espazio publikotik desagerrarazi zituen euskalduntasunaren zeinuak¹⁵⁸ (Perez-Agote, 1986, 88 or.).

Euskararen galera faktore ekonomikoarekin eta demografikoarekin lotu behar dugu halaber. 50-60ko hamarkadetako hazkunde kapitalistak industrializazio-prozesua eta immigrazio masiboa eragin zituen Hego Euskal Herrian. Bilakaera demografikoa ikaragarri hazi zen, bi hamarkadatan biderkatu egin zen ia Hego Euskal Herriko biztanleen kopurua¹⁵⁹ (Casanova, 2007, 26 or.). Bizkaian hiri-aglomerazioa saturazio-mailara iritsi zen, eta horrek ingurumenaren kutsadura areagotu zuen. Transformazio sozial horiek berez dakartzaten gatazkei, nazio gatazka gehitu zitzaien Hego Euskal Herrian. Erregimen frankistaren politikak eragindako aldaketek, berriz, euskal nazio kulturaren kontra egin baitzuten (Jauregi, 1981, 208 or.). Espainiako etorkin gehienak lantegien inguruan jarri ziren bizitzen eta beren gizataldeak osatu zituzten. Komunitate berri haiek espainiera besterik ez zuten hitz egiten eta ez zuten euskara ikasteko beharrik sumatu. Beraz, aurreko hamarkadetan nabarmen gutxitu zen euskaldun hiztunen kopuruak gutxitzen jarraitu zuen etorkinek bete zituzten hiriguneetan.

¹⁵⁷ Jackson-ek dio 1939. eta 1943. urteen artean 200.000 preso hil zituztela frankistek, bizi baldintza txarren ondoriozko gaixotasunek eraginda edo exekutatuta (2005).

¹⁵⁸ Perez-Agotek modu argian azaltzen du egoera hura: "En el seno de las familias nacionalistas se vive la frustración por la pérdida, el miedo a la represión física y la represión cultural. Está perseguido todo uso externo del euskera y toda utilización de cualquier símbolo vasco. Con mayor o menor resignación los vascoparlantes dejaron de utilizar la lengua vasca en el exterior de los espacios privados" (1986, 88 or.).

¹⁵⁹ 50eko hamarkadan goitik behera aldatu zen Hego Euskal Herriko estruktura demografikoa: Bizkaian %35,2 handitu zen, Gipuzkoan %27,9, Araban %17,7, eta Nafarroan %5. 60ko hamarkadan gehiago handitu ziren ehunekoak: %47,1 Araban, %38,3 Bizkaian, %31,9 Gipuzkoan, eta %15,6 Nafarroan (Casanova, 2007, 26 or.).

Faktore linguistiko kulturalarekin lotuko dugu ETA sortzeko beste faktore politiko bat: hala, 1936ko gerra galdu izanaren zauriak komunitate abertzalearen adierazpen guztiak markatu zituen, eta krisi sakonean murgildu zen gerra aurreko abertzaletasuna¹⁶⁰. Gobernu frankistaren errepresioaren aurrean EAJk agertzen zuen jarrera pasiboa ez zuen begi onez ikusten belaunaldi gazteak. Ekin sortu zuen belaunaldiak hilda, otzan, eraginkortasunik gabe, ikusten zuen abertzaletasun ofiziala¹⁶¹ (Txillardeggi, 1994, 186 or.). Are gehiago okertu zen egoera 1960tik aurrera; izan ere, gobernu frankistak politika liberalago¹⁶² bati heldu zionean hobetu egin zituen kanpo harremanak, eta EAJren estrategia¹⁶³ hutsaren hurrengo bilakatu zen (Letamendia, 1994, 214 or. eta hurr.; De Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz, 1999, 2, 143 or. eta hurr.).

Horiek horrela, Euskal Herriko egoera testuinguru zabalago baten baitan ulertu behar dugu. II. Mundu Gerra bukatu ondoren, berehala sortu zen berriro ere gerrarako zioa. Gerra Hotzarekin batera, 50eko eta 60ko hamarkadetan deskolonizazio prozesuak gertatu ziren Hirugarren Munduan. Nazio askapenerako

¹⁶⁰ Krutwig-ek modu argian azaltzen du egoera hura *Vasconian*: "Después de largos años de silencio e inactividad por parte del nacionalismo oficial parecía que iba llegar la muerte al sentimiento vasco. Nada sucedía, nada se hacía" (1963, 9 or.).

¹⁶¹ EAJko buruzagiak jabetzen ziren egoeraz. Ikus Parisko Batzordeak 1962ko martxoan EBBri igorritako gutuna (in Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz, 1999, 2, 247 or.): "Hay que tener presente que los patriotas vascos, (...) llegan en su exaltación, y al observar la falta de actividad en sus órganos rectores, (...) les induce a ver una posición en la que, la prudencia se trueca en cansancio y derrotismo". Eta gerora EAJk onartu zuen orduko bere gelditasuna (ikus Qué es ETA, *Euzkadi*, 1985 in Nuñez et al. 1, 26 or.).

¹⁶² Ordura arteko autarkiarekin hautsi eta erregimen frankistak kanpo harremanak hobetu zituen. NBEk 1946an Espainiaren kontra hartutako erabakia baliogabetu zuen (Espainiako Estatuaren enbaxadak kentzea, hain zuzen), eta AEBek mailegua eman zioten 1950ean. Maileguaren ondoren etorri zen 1953ko tratua: 1953ko irailean kooperazio ekonomiko eta militararako hitzarmena sinatu zuten amerikarrek eta Francok. AEBekin ez ezik Vatikanoarekin ere adiskidetu zen Franco; 1953an Konkordatua sinatu zuen Aita Santuarekin (Letamendia, 1994, 214 eta hurr.).

¹⁶³ EAJk uste zuen II. Mundu Gerraren ondoren, Hitler eta Mussolinirekin batera Franco ere boteretik kenduko zutela aliantzako indarrek. Edonola ere, 60ko hamarkadako EAJren krisian barne arazoek ere izan zuten eraginik: barne egitura zaharkiturik geratu zitzaion eta, ondorioz, erbesteko batzordeek ez zuten eragiteko aukerarik eta Hego Euskal Herriko egitura ahulduta geratu zen; zuzendaritza-taldeen demokrazia gabeziak kaltetu egin zuen egoera; eta, aldi berean, ETAk gazte abertzale asko erakarri zuen (De Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz, 1999, 2, 246 or.). Krisiak krisi, EAJk oinarri ideologiko berberei eustea erabaki zuen: "validez permanente y actual de la doctrina de nuestro partido, (...) doctrina veterana y siempre nueva, (...) expresada y confirmada en nuestro lema tradicional: «Jaungoikoa eta Lege Zaharra»" (1960ko Aberri Egunean EBBk argitaratutako manifestua in De Pablo, Mees eta Ranz, 1999, 2, 250 or.).

mugimenduak piztu ziren¹⁶⁴. Egoera hartan bortxaren erabilera normaltzat jo zuen 50eko Euskal Herriko belaunaldi abertzaleak; ez normaltzat soilik, beharrezkotzat ere bai, helburu politikoak lortzeko. Eta, hain zuzen, Euskal Herriko eta munduko aldaketa testuinguru hartan sortu ziren Ekin eta ETA (Apalategi, 1979, 188 or.).

4.2. Ekinen (1952) eta ETAREN sorrera (1958)

1951-1952 ikasturtean literaturaz, filosofiaz, historiaz, eta ekonomiaz eztabaidatzeko elkartu ziren lehendabiziko aldiz Ekinen sortzaile izango zirenak: Manu Agirre, Rafa Albisu, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i, Gurutz Ansola, Jose Maria Benito del Valle, Iñaki Gaintzarain, Alfontso Irigoien, Iñaki Larramendi, eta Julen Madariaga. Gehien-gehienak Deustuko Unibertsitateko eta Bilboko Ingeniari Industrialen Eskolako ikasleak ziren (Casanova, 2007, 20 or.). Txillardegik dio erakunde politiko klandestino bat antolatu beharraz jabetu zirela; eta, lehendabiziko urratsa egin baino lehen, beren formazioaren ahuleziaz jabetu zirenez, oso lan intelektuala egin zutela. Euskal Herriaren iraganaz ezer gutxi zekitenez eta gehienak erdaldunak zirenez, Euskal Herriaren historia eta euskara ikasten hasi ziren (1994, 137-138 or.).

Beren intereseko liburuak eta dokumentuak biltzen hasi ziren eta berehala hartu zituzten badaezpada oinarrizko segurtasun-neurri batzuk. Klandestinitatea eta zentsura tarteko, beren ideiekin bat zetorren materiala eskuratzerik ez zutenaz, abertzaletasunaren iturri klasikoenetara jo behar izan zuten hasieran. Ikasketa- eta formazio-lan harekin taldean egin zituzten hausnarketak eta eztabaidak zabaltzeko *Ekin* aldizkaria¹⁶⁵ sortu zuten 1953an. Abertzaletasun klasikoak aztertu zituen historiako eta politikako oinarrizko gaiak erreparatu zituzten bertan. Beren burua trebatzeaz gain, abertzaletzat jotzen zituzten gazteekin jarri ziren harremanetan

¹⁶⁴ Aljeriako eta Kubako iraultza, Vietnamgo gerra, Pragako Udaberria, arabiarren eta israeldarren arteko gerra, Txileko eta Argentinako estatu kolpeak, Portugaleko Iraultza, eta IRA, RAF, Brigada Gorriak, Sandinistak eta Tupamaroak bezalako erakunde armatuak ugaritzea.

¹⁶⁵ Aldizkaritik etorri zitzaion Ekin izena taldeari.

eta kide berrien formazio politikoa handitzeko saioak antolatzen hasi ziren (Txillardegik, 1994, 139, 184 or.; Casanova, 2007, 20-22 or.).

Zerk bultzatu zituen ezkutuko talde bat sortzera? Txillardegik oso modu argian azaldu zuen hori:

Sin duda el patriotismo (abertzaletasuna). Es decir, la viva conciencia de la opresión nacional, el ferviente interés por todo lo vasco, el descrédito absoluto en la política de España, la idea étnica de Euskal Herria. La inconformidad y oposición a la política pasiva de nuestros viejos (*zaharrak*): no esperar sino actuar (1971, *De Santoña a Burgos* in Casanova, 2007, 21 or.).

Ikasketari eta formazioari eskainitako lehen urte haien ondoren, abertzaletasunaren erreferentzia zen EAJrekin elkartzen saiatu ziren Ekinekoak 1955ean. Dinamika abertzalea indartu nahi zuten eta EAJren estrategia ofiziala Ekinen ideologiarekin biziberritu. Urte hartan bertan elkartu ziren Gipuzkoan Ekin eta EAJko gazteen adarra zen EGI. Asmoak asmo, ordea, ideologikoki eta estrategikoki zituzten ikuskerak bateraezinak ziren. EAJren eta EGI batuko gazteen arteko barne tentsioak areagotu egin ziren eta 1958ko udan bi talde sortu ziren EGI batuaren barruan: gehienek Ekineko kideen tesien alde egin zuten, talderik txikienak, berriz, EAJren diziplina jarraitzea erabaki zuen. Urtearen amaieran Ekineko kide ohiek eta beraiekin bat egin zuten EGiko gazteek erakunde berri bat eraikitzen hastea erabaki zuten. 1958ko abenduan¹⁶⁶ Deban egindako bilera batean Euskadi Ta Askatasuna¹⁶⁷ erakunde bat sortzea erabaki zuten (Casanova, 2007, 15, 22-23 or.).

¹⁶⁶ ETAREN sorrera-data 1959ko San Inazio egunarekin lotu izan da. Baina *Carta a los intelectuales* 2 gutunean 1958an sortu zela esaten du ETAK berak (Hordago, 1979, 3, 506 or.). Hordago taldeak (Hordago, 1979, 1, 31 or.) eta Nuñez et al.-ek (1993, 1, 18 or.) ere 1958an kokatzen dute sorrera. Baita ikerketa honetarako elkarriketatu dugun ETAREN sortzaileetako batek ere: "1958ko azken hileetan [hasi ginen], zeren eta orduan moztu baitzen harreman guztia EAJ eta gure artean" (3. elkarriketatua). Casanovak dio sortu 1958ko abenduan sortu zela ETA eta, gero, 1959ko urtarrileko adierazpen batean erabili zuela lehen aldiz sigla. 1959ko uztailan gutuna bidali zioten sortzaileek Agirre lehendakariari erakunde bat sortu zutela adierazteko. Casanovaren ustez gutun harengatik lotu izan dute historialari askok ETAREN sorrera 1959ko San Inazio egunarekin (2007, 27-28 or.).

Ekin sortzeko arrazoi bertsuengatik sortu zuten ETA, funtsean. ETAk berak bi arrazoi hauek aipatu zituen 1966an:

Nacimiento de ETA. Dos razones principales: a) Como reacción ante la inacción de los partidos tradicionales vascos. b) Como reacción ante la desvasquización lingüística y política de estos medios (*Informe verde revisado*, V. Biltzarrerako ETAREN sektore batek idatzitako agiria, in Hordago, 1979, 7, 60 or.).

ETAk EGI batua zenaren estruktura bera hartu zuen hasieran, eta militante eta bitarteko gehien gehienak ere talde hartan ibilitakoak eta erabilitakoak ziren. Ekinen materiala erabili zuten formazio-ikastaroetarako eta Ekinen segurtasun-neurriak mantendu zituzten (Casanova, 2007, 28 or.).

4.3. ETAREN bilakaera: biltzarrak eta joerak

1962ko maiatzean egin zuen ETAk I. Biltzarra, Belokeko (Ahurti, Lapurdi) beneditarren komentuan. Hamalau ordezkari bildu ziren bertan (denak gizonezkoak). I. Biltzarreko erabakiak dokumentu batean bildu zituen ETAk: *Zuzenbide (Principes, Principios)*. Ekinen ondaretik jaso zuen diskurtsoaren eta ETAk bere lehen hiru urteetan landu zituen oinarri ideologikoen sintesia da nolabait (Hordago, 1979, 1, 526-531 or.; Txillardegí, 1994, 212 or.; 2007, 34-35 or.).

II. Biltzarra hurrengo urtean egin zuen ETAk, 1963ko martxoan, Capbretonen (Frantzia) alokatutako etxe batean. Hamazazpi militante bildu ziren eta bi emakumek hartu zuten parte lehendabiziko aldiz¹⁶⁸. Lehen biltzarrean ideologiaren

¹⁶⁷ Izen hartan honako ideia hauek islatu nahi izan zituzten Txillardegíren hitzetan: "Euskadi, una Euskadi independiente, por medio de un Estado vasco, entre otros Estados del mundo, y Askatasuna; el hombre libre dentro de Euskadi" (in Letamendia, 1994, 253-254 or.).

¹⁶⁸ Hordago taldeak honako hau dio ETAREN II. Biltzarrari egiten dizkion oharretan: "En Marzo de 1963 se celebró la II Asamblea en un pueblecito de las Landas, al norte de Baiona llamado Hossegor, con la

gaineko hausnarketa izan bazen nagusi, bigarreanean, antolaketa-era eztabaidatu zuten bereziki. Erakundearen eta borroka armatuaren antolaketa-era zehazteko, munduko beste nazio askapen mugimendu batzuen ereduak eragin-indar handia izan zuen (Casanova, 2007, 37). Langile frontea osatu zuen ETAk lehen aldiz eta, horretaz gainera, lehentasuna eman zion fabriketan zelulak egituratzeari eta antolatzeari (Hordago, 1979, 2, 434 or.).

Nazio askapenerako estrategia politikoa zehazteko lanean, bi aukera izan zituen ETAk aurrez aurre: alde batetik, Europa Batuaren aldekoa eta, bestetik, Hirugarren Munduko herrien aldekoa. II. Biltzarrean Hirugarren Munduko ereduak Euskal Herrian ezarri eta borroka armatua aktibatu nahi zuen taldea¹⁶⁹ indartu zen ETAREN barruan. Joera horren alboan indar gutxiagoko beste bi zeuden: hizkuntza, nazioaren jatorri etnikoa eta abertzaletasuna lehenesten zituen joera ez-marxista¹⁷⁰ eta langile borroka lehenesten zuen joera marxista-leninista¹⁷¹. Lehen urteetan bere barruko ildoen batasunari eustea lortu zuen ETAk (Jauregi, 1981, 216, 221-224 or.; Casanova, 2007, 38 or.).

III. Biltzarra 1964an egin zuen ETAk, martxoa eta apirila bitartean. Erronkarin (Nafarroa) jarri zuen ETAk hitzordua baina inguruan polizia zebilela konturatzean, bigarren deialdi bat egin behar izan zuen Baionan (Lapurdi). Biltzar hartan errepresioaren aurrean indartzeko berrikuntza organikoetan jarri zuen arreta ETAk, eta iraultza-gerraren printzipioak onartu zituen¹⁷². Printzipio teoriko haiek praktikan jartzen saiatzerakoan konturatu zen ETA bideraezinak zirela, eta, orduan, teoria

presencia por primera vez en la historia de ETA de dos militantes femeninos" (Hordago, 1979, 2, 433 or.). Aurrerago aztertuko dugu emakume haien parte hartzea zer-nolakoa izan zen.

¹⁶⁹ Joera *tercermundista*, *guevarista* edo *kolonialista* deitu izan zaio ildo horri.

¹⁷⁰ Joera *kulturalista* (Letamendia, 1975), *etnizista* (Jauregi, 1981), edo *sozialista humanista* (*grupo socialista* sinatzen dute beraiek 1967ko idatzietan, ikus Hordago, 1979, 7, 25-54 or.) deitu izan zaio joera horri. Azken joera honetan zegoen Xabier Imazek adierazi zuen ez zitzaiola egokia iruditzen beren joerari "kulturalista" deitzea (Hordago, 1979, 7, 73 or.). Txillardegí izan zen talde haren ordezkariarik onena eta berarekin batera zeuden Ekinen eta ETAREN sortzaile gehienak. Hemendik aurrera *joera kolonialista*, *joera sozialista* eta *langileen joera* kontzeptuak erabiliko ditugu ETAREN barruko taldeak izendatzeko.

¹⁷¹ Joera *obrerista* deitu izan zaio ildo horri. Patxi Iturriotz zen talde horretako ordezkariarik ezagunena.

¹⁷² *La insurrección en Euzkadi* liburuxkan bildu zituen ETAk iraultza-gerraren printzipioak.

kolonialistaren alboan teoria anticolonialista bat lantzen hasi zen (Jauregi, 1981, 231-232, 236 or.; Nuñez et al., 1993, 2, 86 or.; Casanova, 2007, 47 or.).

1964ko azarotik aurrera nabarmen urritu zen ETAn joera sozialistaren eragina frantziar gobernuak talde hartako kideak (Txillardegia eta Del Valle) Ipar Euskal Herriatik egotzi zituenean (Jauregi, 1981, 294 or.). Langile borrokaren aldeko joera nagusitu zen horrela ETaren barruan 1965ean (maiatzaren 1a tarteko) eta halaxe segitu zuen 1966ko abendura arte. Norabide aldaketa nabarmena gertatu zen ETaren diskurtsoan, hortaz: Espainiako Estatu osotasunean hartuta egin zituen analisi politikoak eta Hego Euskal Herriko errealitatearen azterketa bigarren mailan utzi zuen. Edonola ere, etakide asko kolonizatutako herrien ikuspegi anticolonialistari atxiki zitzaizkion (Jauregi, 1981, 251, 298-311 or.). Dokumentu batzuetan nabarmena da ETaren barruko sektore batek ez ziola nazio auziari garrantzia kendu nahi¹⁷³.

Lehen hiru biltzarretan ideologia- eta antolaketa-oinarriak zehaztu ondoren, 1965eko uztailean egin zuen ETAk IV. Biltzarra, Urbiako (Arantzazu) borda batean (Hordago, 1979, 3, 513 or.). Ildo anticolonialistaren tesi teorikoek goia jo zuten IV. Biltzarrean eta *Zuzenbide* agiriko ideologia-oinarri batzuk berritzea erabaki zuten militanteek; izan ere, etakide asko langile borroken eta nazioarteko hainbat mugimenduren eraginez, marxismora hurbildu zen arian-arian. Arlo taktikoan ere berrikuntzak egin zituen ETAk: iraultza-estrategiaren printzipioak onartu zituen¹⁷⁴ (Jauregi, 1981, 231-236 or.). Aurrerago sakonduko dugu auzi horretan.

¹⁷³ Ikus *Zutik 29ko Panorama 1965* dokumentua: "Piden «el poder para el proletariado» olvidando que en una nación oprimida hay que fundar el combate principalmente en lemas de carácter patriótico" (Hordago, 1979, 3, 488 or.).

¹⁷⁴ Hemendik aurrera aldendu ziren ETaren barruko joerak. Talde sozialistakoen txosten batek oso modu argian azaltzen du hori. Esaten du sorreratik beretik egon zirela ETaren barruan joera ezberdinak. Baina lehendabiziko urteetan askapenaren alderdi nazionalari eman zionez ETAk lehentasun absolutua, eta formazio ideologiko eskasak eraginda, programa bakar baten inguruan elkartu ziren etakide guztiak. IV. Biltzarraren ondoren aldatu egin zen egoera. ETAk nazio askapenari lotuta askapen soziala bere egin zuenez, esparru sozialaren ikerketan sakondu zuen; orduan hasi ziren ETaren barruko iritzi ezberdinak elkarrengandik urruntzen (*Frente de tendencias, ETA y Frente Nacional*, Hordago, 1979, 7, 49 or.).

1966ko abenduaren 7an deitu zuen ETAk V. Biltzarra Gazteluko (Gipuzkoa) erretore etxean, erakundean bizi-bizi zegoen gatazka ideologikoa argitzeko. Izan ere, azken urtean nabarmen urrundu ziren ETAREN barruko bi joerak (langile borrokarekin bat egitea lehenesten zutenena eta ETAREN borroka, lehenik eta behin, nazio askapenerako borroka zela aldezten zutenena). Biltzar haren lehen deialdian gertatu zen ETAREN barruko lehen zatiketa: hala, Xabier Etxebarrieta *Txabi*¹⁷⁵ biltzarburu zela, klase borroka lehenesten zutenen taldea ETAtik kanporatzea erabaki zuen biltzarrak. 1967ko martxoan egin zuen ETAk V. Biltzarraren bigarren zatia, Getariako (Gipuzkoa) jesuiten gogoeta-etxean. Nazio Askapenerako Euskal Mugimendu Sozialista Iraultzailea izendatu zuen ETAk bere burua, eta bere ideologia *abertzale iraultzailea* (aurrerago sakonduko dugu auzi honetan) definitu zuen, marxismo iraultzailea abertzaletasunarekin uztartu nahi zuenez gero. Arlo taktikoan bere helburuak lortzeko borroka armatuari eustea defendatu zuen¹⁷⁶. Hirugarren Munduko ereduaren aldeko joera gailendu zen horrela. Egoera hartan joera sozialistako kide batzuek (Txillardegik, Benito del Vallek eta Xabier Imazek) ETA uztea erabaki zuten 1967ko apirilean¹⁷⁷ (Jauregi, 1981, 308 or.; Nuñez et al., 1993, 2, 86 or.; Bruni, 1995, 84-86 or.; Garmendia, 1996;).

¹⁷⁵ Hemendik aurrera Txabi Etxebarrieta edo Txabi.

¹⁷⁶ Etorkizuneko zatiketetan ere ildo hori gailenduko da ETAn: "Será siempre el grupo que opte por el mantenimiento de esta línea el que pueda considerarse verdadero continuador de la línea histórica de ETA" (Casanova 2007, 84 or.).

¹⁷⁷ Ikus ETAREN buruzagitzari bidali zioten gutuna (Hordago, 1979, 7, 101-107 or.). ETAk mugimendu izateari utzi eta alderdi marxista-leninista bihurtzen ari dela kritikatzeko dute. Sozialista diren neurrian, marxismo-leninismoaren puntu nagusi batzuekin ez datozela bat adierazten dute.

III. ETAREN nazio diskurtsoa:

euskal nazioaren berpizkundetik euskal nazio iraultzailera

Ekinen (1952-1958) eta ETAREN lehen hamar urteetako (1958-1968) diskurtso ideologikoaren eta estrategikoaren oinarrietan sakontzen ahaleginduko gara kapitulu honetan. Metodologiaren atalean aipatuko dugun bezala, ETA mugimenduaren praxia eta harremanak analizatu ahal izateko garrantzi handia eman diogu aurretik ETAK ondu zuen diskurtsoa aztertzeari; izan ere, mugimendu sozial orotan diskurtso ideologikoak zehaztu ohi du, neurri handi batean, mugimenduaren norabidea. Beste era batean esateko: mugimendu nazionalista osatzen duten sektore eta erakunde multzoaren oinarria osatu eta ehundu ohi du ideologia nazionalistak (Elorza, 1978, 6 or.). Horregatik eskaini diogu kapitulu oso bat ETAREN diskurtsoari: hartara, ETAREN oinarritzko printzipio, ideia eta helburuek erreferentzia-marko gisa zer-nolako arrakasta izan zuten ikusteko aukera izango dugu, batetik, eta ETA mugimenduaren mentalitatea eta iruditeria ulertzen lagunduko digu, bestetik.

Baina aurretik ikerlan honen oinarri epistemologikoa eta metodologikoa argitzen saiatuko gara, zientziari eta ikerketa-prozesuari buruzko gure ikuspegia, alegia. Ondoren, zimendu teoriko horietan oinarrituta garatu dugun ikerketa-prozesua deskribatuko dugu. Gure ikergaiaren mehatxu eta aukera espezifikokoak azalduko ditugu eta informazioa jasotzeko eta analizatzeko erabili ditugun teknika eta tresnak izango ditugu hizpide. Hartara, idatzizko eta ahozko iturrietara jo dugu: ETAREN dokumentu idatzien azterketa zorrotza eta sistematikoa egin dugu, batetik, eta elkarrizketa sakonaren teknika erabili dugu, bestetik. Dokumentu idatziak aztertzeko eta elkarrizketak egiteko moduari buruzko xehetasunak ere azalduko ditugu. Horren segidan, ETAREN diskurtso idatzia eta ETA mugimenduko kide elkarrizketatuen diskurtsoak aztertuko ditugu.

1. Metodologiaren azalpena

1.1. Ikuspegi epistemologikoa eta metodologikoa: ikerlariaren ubera

Proposamen epistemologiko feministetan oinarritu gara nagusiki (Biglia, 2012) baina beste autore batzuen ekarpenak ere erabili ditugu; Bourdieu-k zientifikotasun positibistari soziologiatik egin zion kritika adibidez. Oinarri horiek eta ez beste batzuk erabiltzea erabaki izanaren arrazoiak ikuspegi metodologikoa azaldu ahala joango gara aletzen.

Praktika zientifikoaren helburua zientziaren eremuan dauden indar harremanak mantentzea edo aldatzea izan liteke (Bourdieu, 1997, 85-90 or.). Ikertzaile gisa erreproduzitu nahi ez genuena identifikatzeko eta hori kontzienteki saihesteko hurbildu gara arrazionaltasun moderno positibista kritikatzeko duen epistemologia feministara. Harding-ek generoaren esparruari aplikatzen dizkion irizpideak baliagarri egin zaizkigu egin nahi ez genuena zehazteko: hau da, ez genuen *bazterreko* taldeen ikusezintasuna eta bazterketa iraunarazten duen praktika zientifikorik egin nahi. Irizpide hori estaturik gabeko nazioei aplikatuta, ez genuen estaturik gabeko nazio mugimendu baten jarduna nazio estatuen diskurtso hegemonikoaren irizpideetatik aztertu nahi. Eta ez genituen nazio askapenerako mugimenduak (eta bertako emakumeak) *objektu* gisa tratatu nahi (1987, 1. or. eta hurr.).

Biglia-k (2012) *Ikerketa Aktibista Feminista*¹⁷⁸ terminoa erabiltzen du (testua arintzeko IAKF erabiliko dugu hemendik aurrera). Argitu beharko genuke IAKF metodologiak hipotesi asko partekatzen dituela *Akzio Ikerketa* deitutakoarekin; horregatik, zenbaitetan, IAKF eta Akzio Ikerketa biak bat balira bezala aipatuko

¹⁷⁸ *Ikerketa Aktibista* terminoa 2004ko urtarrilean Bartzelonan antolatutako *Investigación Activista y Movimientos Sociales* jardunaldietan parte hartu zutenek adostu zuten. Jardunaldietan hausnartutakoa ezagutzeko ikus: Col.lectiu Investigació (2005). *Recerca Activista i Moviments Socials* Bartzelona: El Viejo Topo. Ikerketa Aktibistaren postulatu asko analisi feministetatik jaso zituztenez, Bigliak (2012) *feminista* adjektiboa gehitzen dio Ikerketa Aktibistaren definizioari.

ditugu¹⁷⁹. Ikerketarako abiapuntu gisa, dio Biglia-k, ikerketa bat definitzeko eta ulertzeko metodologia espezifikoa aukeratzea bezain funtsezkoa da (alegia, ea ikerketa kualitatiboa edo/eta kuantitatiboa egingo dugun, elkarrizketa edo/eta behaketa erabiliko dugun, eta abar) lan egingo dugun ingurunera nola hurbilduko garen hausnartzea.

IAKF metodologia hipotesi honetatik abiatzen da: ikerketa aldaketa sozialerako prozesu baten parte izan behar dela, eta diskriminazioen eta botere-nagusikeriazko jarreraren kontra gizarte-aldaketarako konpromisoa edo asmo esplizitua erakutsi behar duela. Akzio Ikerketaren metodologiak gizarte-aldaketarako filosofia feminista, antiarrazista edo sozialistarekin egiten du bat. Eta abiapuntu gisa zientziaren, ikerketaren eta ekintzaren artean tradizioz egin den bereizketa baztertzea aldarrikatzen du (Taylor, 1994, Biglia-k aipatua, 2012).

Epistemologia feministarentzat ezinbesteko baldintza da ikerketa prozesuan esku hartzen duten botere-dinamikak kontuan izatea. Premisa hori ukatu egin dezake ikertzaileak, bere onerako erabili, edo bere botere-posizioa aitortu eta horren kontzientzia izanda jardun dezake ikerketa prozesuan. Ikerlariak bere botere-kokalekua onartuta ere ezinezko zaio hortik ihes egitea; baina, Biglia-ren ustez, botere-harreman horiek sortzen dituzten dinamikez ohartzeko eta horiek zalantzan jartzeko aukera eman diezaioke ikerlariari. Eta, gainera, batzuetan, ikerketan parte hartzen duten gainontzeko pertsonen boterearen kontrol partziala erraztu diezaike ikerlariak (2012).

Ezagutza ikuspegi batetik abiatzen da beti. Ez dago ezagutzarik botererik gabe, eta alderantziz; ikerlariak ezin du botere harremanez kanpoko ezagutzarik sortu (Foucault, 2005). IAKF metodologiak ikerlariaren "ikuspegi kokatua" edo "ezagutza kokatua" (Haraway, 1995) aldarrikatzen du. Haraway-k dio *behetik egindako ikuspegiak* ezagutza aberastu dezakeela, ezagutzaren ekoizpen-guneetan ekarpen

¹⁷⁹ Akzio Ikerketaren eta Ikerketa Aktibista Feministaren arteko aldeak jorratzen ditu Bigliak (2012).

"berria" izan litekeelako. Baina ez dela egokia "menderatuen jarrerak erromantizatzea". Gainontzekoak bezala horiek ere ez direlako ikuspegi "xaloak" edo neutroak. Haraway-k subjektu bakoitzaren begiradaren alderdikeria onartzen du eta norberaren begirada kokatua munduari, ezagutzari, so egiteko begirada-aukera gisa aldarrikatzen du (1995, 329 or.).

Ikerlariaren historia, ingurunea, egoera, gaitasunak eta ezintasunak ezagutzaren sortze-prozesuaren parte dira; izan ere, gizarte-ikerketan orotan ikerlariaren esku-hartzea saihestezina da (Haraway, 1995, 329 or.). Ikuspegi horretatik gertu Bourdieu-k dio azterketa oro ekoizten dela posizio sozial batetik eta, beraz, praktika zientifikoak *zorroztasuna* izan behar duela helburu, ez betiereko arauak edo egiak bilatzea (1989). Horrenbestez, ezinezkoa da zientzia *desideologizatua* egitea. Ikerlariak ezin ditu bere ideologia eta bizipenak atean utzi, beti uzten du uberaren bat ikerlanean. Edonola ere, horren etengabeko kontzientzia izatea ezinbestekoa da (Martinez Montoya, 1999).

Bide berean, Cortes-ek dio ikerketaren emaitzak fidagarriak eta baliodunak izan daitezen, ikerlaria kontziente izan behar dela bere parte-hartzea a-neutrala dela. Orduan, Cortes-en iritziz, ikerlariak ikergaiarekiko bere posizioa azaldu behar du xeheki: besteak beste, informazioa jasotzerakoan eta aztertzerakoan ager lekizkiokeen aurreiritziak onartu behar ditu. Era berean, metodologian hartutako erabakiak eta erabaki horien arrazoiak ere azaldu behar lituzke. Erabaki horien artean legoke, esate baterako, ikerketarako hautatu duen kolektiboa (1997, 79 or.).

Ikerlariaren "ikuspegi kokatua" onartzean, erlatibismoaren mehatxua¹⁸⁰ agertzen da; eta, ondorioz, ikerketaren emaitzak baliogabe jotzeko arriskua. Haraway-k

¹⁸⁰ *Feminismo erlatibistak* ezagutza unibertuala baztertu eta esperientzia subjektibo anitzak aldarrikatzen dituen bitartean, *errealitatearen ikuspegi feministak* ez du erlatibismoa, ezagutza ororen baliagarritasuna, onartzen. Azken horrek ikerlariaren partzialtasuna aitortzen badu ere, bere ustez, behar-beharrezkoa da errealitate soziala ulertzeko ikerketa-proposamen batzuk beste batzuk baino *hobeak* direla erakustea. Bigarren joerako feministek argudiatzen dute emakumezkoek eta gizonezkoek ez dutela errealitatea modu berean egituratzen eta eraikitzen, emakumezkoak zapalduta daudelako sexu-genero sistema honetan. Eta, beraz, ikerketa oro esperientzian oinarritzen

honakoa proposatzen du erlatibismoaren aurrean: "La alternativa al relativismo son los conocimientos parciales, localizables y críticos, que admiten las posibilidades de conexiones llamadas solidarias en la política y conversaciones compartidas en la epistemología" (Haraway, 1995, 329 or.).

Zientziaren ikuspegi kokatua eta neutraltasunik eza onartzen dituenek, epistemologia feministak beharrezkotzat jotzen du ikerlariak ardura batzuk bere gain hartzea. Domenech eta Ibañez (1998) aipatuz Biglia-k (2012) dio erlatibismoak autoritatearen printzipioa ahultzen badu ere, bere horretan, ez dela nahikoa gizarte-aldaketarekin konprometitutako ikerlana bermatzeko. Horregatik da funtsezkoa *ardura* kontzeptua epistemologia feministarentzat. Biglia-ren ustez, ikerketa-praktikan ikerlariak galdera batzuk egin behar dizkio bere buruari: norentzat ari gara ikertzen? Zein erabilera egin liteke ikerlanaren emaitzekin? Bere ustez, garrantzitsua da, ikertzaile gisa, gure buruari irizpide etikoak ezartzea eta ikerketa prozesu osoan gogoan izatea. Ardura horien artean sartzen du Biglia-k ikerketa-prozesuan, esplizituki edo inplizituki, barneratuta dauden subjektibitate guztiak baloratzea eta errespetatzea.

IAKF metodologiak bi dikotomia hautsi nahi ditu, gutxienez: publikoaren eta pribatuaren artekoa, eta teoriaren eta praktikaren artekoa. Eta ezinbestekoak dira, bere ustez, hausnarketa eta autokritika¹⁸¹. Ezagutza kolektiboaren aldeko jarrera agertzen du, halaber; jabetzarik gabeko ezagutzaren aldekoa. Izan ere, IAKF metodologiak kritika egiten dio epistemologia modernoari zientziaren ikuskera indibidualistan oinarritu delako nagusiki. Bide berean Biglia-k dio ikerketarako autoritatea (boterea) ikerlariari eman diola ikuskera horrek; edo gehienez ere,

den neurrian, *zapalduen*, kasu honetan emakumeen esperientzia, eta beren munduarekiko ikuspegia eta ikerketa, gizonezkoena baino osoagoa dela eta botere-harremanek gutxiago desitxuratua. Hortaz, zientifikoki *hobea* (Amurrio, 2003, 36 or.).

¹⁸¹ Ikertzaile feminista batzuentzat ikertzailea ikerketa subjektutik aldentzen saiatu behar den bitartean, feminismo erlatibistak ukatu egiten du ikertzaileak ikerketa-prozesutik distantzia hartu behar duenik. Ikerketaren prozesu ulerkorra eta gogoetatsua aldarrikatzen du. Prozesu horietatik lortutako ezagutzak emakumeei (talde zapalduer) beren egoera hobeto ulertzeko eta beren burua askatzeko baliabideak ematen dizkiela uste du (Amurrio, 2003, 34-37 or.).

komunitate zientifikoari. Azken urteotan, Akzio Ikerketak bezala IAKFk ere, joera hura irauli nahian, ikerketa kolektiboaren garrantzia azpimarratu du (2012).

Aletu ditugun erreferentzia teoriko horiek oinarri gisa hartu ditugu baina ikerketa-jardueran murgildu ahala, ikuspegi teoriko hori prozesuaren beharretara eta ezaugarrietara egokituz joan gara.

1.2. Ikergaiaren mugatze-lana: mehatxuak eta aukerak

Gure ikerketarako aukeratu dugun kolektiboa ETAn eta bere inguruan jardun zuten gizon-emakumeek osatzen dute. Ikerketa honen sarreran aipatu dugun bezala, metodikoki erabaki dugu ETA *erakundea* eta ETA *mugimendua* bereiztea: erakundea talde organiko mugatu edo itxi gisa definitu dugu eta mugimendua erakunde-egitura gainditzen duen antolaketa eta harreman-sare gisa. Hemendik aurrera, beraz, ETAz edo *ETA erakundeaz* hitz egingo dugu ETAREN talde egitura organikoaz ari garenean eta *ETA mugimendua* kontzeptua erabiliko dugu erakunde-egituratik haratagoko subjektu zabalago batez ari garenean. Azken horretan ETA erakundea bera eta erakundekoak ez ziren baina haren inguruan militatzen zuten aktoreak sartuko lirateke.

Gorago aipatu dugu ETAREN nazio diskurtsoa eta nazio mugimendua, eta bien arteko interakzioa, ikertzea erabaki dugula gure hipotesia frogatu ahal izateko. Izan ere, ETA mugimenduaren praxia analizatu ahal izateko ezinbestekoa iruditu zaigu aurretik ETAK ekoitzi zuen diskurtsoa aztertzea; diskurtso ideologikoak zehazten baitu neurri handi batean mugimenduaren norabidea, berak biltzen baititu mugimenduan gorpuzten diren oinarritzko printzipioak, ideiak eta helburuak. Hori egingo dugu hirugarren kapituluan, eta laugarrenean ETA mugimenduaren analisisan sartuko gara bete betean. ETAK eta bere inguruan antolatu ziren aktoreek garatu zuten praxi soziopolitiko eta kulturean jarriko dugu arreta, batetik; eta ETAREN

inguruko harreman sarean eta sare hark Euskal Herriko hainbat erakunde eta mugimendurekin izan zuen harremanean, bestetik.

Denbora koordenatu hauek eman dizkiogu gure lanari: 1952 eta 1968 urteak, hots, Ekinen urteak (1952-1958) eta ETAREN lehen hamar urteak (1958-1968). Bi erakundeek lotura organikoa, ideologikoa eta estrategikoa izan zutelako erabaki dugu bereizketarik ez egitea. Batetik besterako pausua, jarraipena izan zelako aldaketa baino gehiago. Eta ETA aztertzeko, ezinbestekoa egin zaigulako aurretik Ekin ezagutzea. Bestalde, 1968. urtea aukeratzeko hainbat arrazoi izan dugu. ETAK, sortu zenetik, bere ideologia-koordinatuen bila egin zuen lanak 1968. urtean jo zuen goia, V. biltzarraren ondoren: alegia, Euskadi nazio kolonizatu gisa hartu zuenean eta, ondorioz, estrategia gisa Hirugarren Mundua deitutako eremuko iraultza-estrategia bere egin zuenean (Jauregi, 1981, 4 or.).

Ikerketa-prozesu orok ditu mehatxuak. Praktika zientifikoan jendarteko botere-harremanak erreproduzitzen diren neurrian, aipatu dugu bazterreko talde ez-hegemonikoek (esaterako, estaturik gabeko mugimendu nazionalistek eta emakumeek), oro har, zailtasun handiagoa dutela ikerketa subjektu izateko talde hegemonikoek baino. Horri gehitu beharko genioke, ikertzaile gisa, proposamen epistemologiko feministak ikerketa prozesuan praktikan jartzeko izan dugun zailtasuna; besteak beste, jaso dugun heziketaren eta prestakuntzaren zatirik handiena ezagutza positiboaren tradiziokoa izan delako.

Nazio fenomenoaren azterketak, oro har, eta estaturik gabeko mugimendu nazionalistenak bereziki, baditu arazo espezifikoko batzuk. Albite-k dio autore gehien-gehienek onartzen dutela ikergaiaren konplexutasun handia, eta eragiten dituen anibalentziak. Horrek asko zailtzen du ikerlarien artean gutxieneko adostasuna lortzen duten interpretazioak eta azalpenak ezartzea, eta nolabait orokortu ahal izatea (terminologiaren eremutik hasita). Izan ere, ikerlariak taldeen sinbolo- eta kultura irudikapenak eta adierazpideak interpretatu behar izaten baititu. Eta

irudikapen eta adierazpen horiek subjektiboak dira erabat. Nazio eremua ikertzea "irudikapenen irudikapena" egitea da (1999, 56-57 or.).

Gure ikergaira gehiago hurbilduta, Mata Lopez-ek (1989) dio, ETAren abertzaletasun iraultzailearen analisi soziologikoa arazo metodologiko ugariko bidea dela. Arazo horietako gehienak arruntak dira edozein gizarte-errealitatearen ikerketan. Baina, Mata Lopez-en arabera, Euskal Herriko gizarte-eremu bat aztertzerakoan arazo espezifiko batzuk sortzen zaizkio ikerlariari. Bere ustez, euskal jendartea osatzen duten prozesu askotarikoek eta prozesu horien konplexutasunak zaildu egiten dute Euskal Herriko gizarte-fenomeno baten azterketa: hala, dimentsio nazionalistaren arabera egiten den euskal gizartearen kategorizazio dualista aipatzen du (nazionalista euskaldunak eta nazionalista frantziarrak/espainiarrak). Horrek diskurtso politikoa eta soziala nahasten duela esaten du, errealitatea eta iragana analizatzeko ikuspegi dikotomikoa sortzen baitu.

Historiaren diskurtsoa ez baita neutroa; historiaren diskurtsoa borroka-leku bat da. Autobiografiak eraikitzerakoan, historia egiterakoan, kontuan izan behar dugu historia teoria dela, teoria ideologia eta ideologia interes materiala. Historia eta ideologia estu lotuta daudela; ideologia historiaren zirrikitu guztietatik iragazten baita. Oroimena gure oroitzapenak gordetzen dituen *biltegi* soila ez denez, ontzi neutroa ez denez, norberak edo kolektibo batek eraikia den neurrian, oso selektiboa izaten da (Jenkins, 1991; Cruz, 2002; Odriozola, 2014).

Gure ikergaiaren azterketak sortzen dituen mehatxuen aurrean, aukerak bilatu behar ditugu. Hasteko, kontuan izan behar dugu gizarte-fenomeno oro azaltzeko saiakera interpretazio lana dela. Errealitatearen irudikapen bat besterik ez da, ez da sekula errealitatea bera izango. Baina interpretazio hori ondo landutako interpretazioa izan liteke, oinarri zientifiko handikoa. Ezinbesteko baldintza da praktika zientifiko zorrotza egitea eta oinarri zientifiko *handia* jartzea (Albite, 1999, 56-57 or.; Zubiri, 2011).

Hiru alderdi nabarmendu nahi genituzke. Batetik, esparru teorikoaren zimenduak ondo jartzea oso komenigarria da: ikertzaile eta saiogile esanguratsuen ekarpenetan oinarrituta, ikerlaneko kontzeptu teorikoak eta beraien arteko harremanak sakonki jorratzea. Ikuspegi epistemologiko eta metodologikoaren oinarriak ondo argitzea ere garrantzitsua iruditzen zaigu. Horrez gain, oinarri horiekiko ahalik eta koherentzia handienarekin, etengabeko hartu-emanean, ahalik eta iturri aberatsenak erabiltzea izan daiteke beste baldintzetako bat. Hirugarrenik, oinarri epistemologikoaren eta metodologikoaren presentzia transbertsala tarteko, esparru teorikoan landutakoa eta iturrietatik jasotako informazioa, etengabe, aztertutako ingurune sozialarekin lotzea komeni da. Hiru eremuen arteko elkarrizketa hirukoitz etengabearekin lanari balio zientifikoa eman ahal izateko.

1.3. Metodo kualitatiboa

Gogora ditzagun ikerlanaren hipotesia eta helburua. Tesi honen sarreran aipatu dugu gure ustez ETAk nazio mugimendu gisa jardun zuela 50eko eta 60ko hamarkadetan. Nazio diskurtsoan askapen nazionala eta askapen soziala uztartu, eta praxian estrategia ekintzailea martxan jarri zuenean, jendarteko ahalik eta esparru gehien erakartzen ahalegindu zen bere proiektura. ETAREN estrategia integral haren bulkadaren testuinguruan nazio askapenaren eta askapen sozialaren aldeko ekimen ugari jarri zen martxan Euskal Herrian, nola maila soziopolitikoan hala maila kulturalean. Ekimen-multzo hura ETAREKIN batera edo ETAREN inguruan artikulatu zen: *ETA mugimendua* osatu zuen gure ustez.

Hipotesi horretatik abiatuta ETAk herri mugimendu gisa jardun zuela frogatzea da ikerketa honen helburu nagusia. Hipotesia eta helburu nagusia, ikerlanean gidalerro izan ditugun helburu zehatzagoetan xehatu ditugu:

- ETAREN inguruan eta ETAREKIN batera Euskal Herrian artikulatu zen ekimen-sare soziopolitiko eta kulturala aztertzea: ETA mugimenduaren praxi soziopolitiko eta kulturala.
- ETAREN inguruan jardun zuten aktoreen harreman sarea, eta sare haren eta Euskal Herriko zenbait erakunde eta mugimenduren arteko harremana ikertzea.
- ETAREN diskurtsoaren oinarrizko printzipioak, ideiak eta helburuak mugimenduan nola gorpuztu ziren analizatzea.
- ETAREN inguruan sortu zen dinamika soziopolitiko eta kultural hura aurreko mugimendu abertzalearekin konparatzea: bateko aldaketak eta besteko jarraipenak.

Horregatik aukeratu dugu metodo kualitatiboa. Fenomeno sozial baten, ETA mugimenduaren, sorreraren esanahia eta motibazioa aztertu nahi ditugulako. Fenomeno hartako aktoreek beren diskurtsoa nola eraiki zuten eta beren errealitatea nola interpretatu zuten ezagutu nahi dugulako. Baita aztergai dugun nazio mugimenduko ikerketa-subjektuen kokapena eta mundu-ikuskerak ulertu ahal izateko ere, beren iritziak, bizipenak eta sentimenduak entzun eta hauteman nahi genituelako (Cardenal de la Nuez, 2006, Zubirik aipatua, 2011, 385-386 or.; Amurrio, 2013, 34 or.).

Ikerketaren hipotesia, helburuak, eta esparru teorikoaren eta ikuspegi metodologikoaren oinarriak neurri batean jarrita genituenean, gero etengabe osatzen eta aldatzen joan garen arren, informazioa jasotzeko eta analitzatzeko teknirik egokienak aukeratu genituen.

1.3.1. Ikerketa-teknikak:

ETAREN nazio diskurtsoari eta nazio mugimenduari buruzko informazio teorikoa eta enpirikoa jasotzeko idatzizko eta ahozko iturrietara jo dugu. Nazio diskurtsoa aztertzeko 1952 eta 1968 urteen artean Ekinek eta ETAK ekoizitako dokumentu

idatzien azterketa zorrotza eta sistematikoa egin dugu. *Documentos Y* bilduma¹⁸² izan da erreferentzia nagusia, bilduma horrek biltzen baititu gure ikerketa-epeldirako behar genituen Ekinen formazio-ikastaroetarako *Ekinen koadernoak*¹⁸³ (1952-1958); ETAk 1960 eta 1961 urteetan argitaratu zuen *Liburu Zuria*¹⁸⁴; *Ekinen koadernoetako* batzuk eta ETAREN lehendabiziko lanak bildu zituzten *ETAREN koadernoak*¹⁸⁵ (1962-1964); ETAk bere lehen bost biltzarretarako erabili zituen txostenak; urte haietako hainbat panfleto eta liburuxka; eta 1968 urtera arteko *Zutiken*¹⁸⁶ argitalpenak. *Documentos Y* bildumarekin batera, Ekin-ETAREN hainbat dokumentu kontsultatzeko *Euskadi Ta Askatasuna* bilduma¹⁸⁷ ere erabili dugu. Ekinen eta ETAREN koadernoen zerrenda eskura izateko, [ikus 1. eranskina](#).

Ikertzaile gisa aintzat hartu behar dugu dokumentu idatzi haien egileek anonimatuan idatzi zutela ia beti. Norbanako konkretuek idatziko zituzten baina errepresio testuinguru historiko hartan ezizenak erabili zituzten autoreek. Horregatik, gerora publiko egin diren ezizenen atzean daudenak kenduta (*Txillardegia*, adibidez, ezagunen artean), ezin dugu ziurtasun osoz jakin gainerako idatziak nork idatzi zituen. Hausnarketa gehienak taldean egin zituzten; idazlanak

¹⁸² Hordago Taldeak (1979) argitaratu zituen *Documentos Y* izeneko 18 liburukiak. Ekinek, ETAk eta ETAtik sortutako hainbat taldek 1952 eta 1977 daten artean sortu zuten dokumentazio idatzirik eskuratu ahal izan zutena bildu eta editatu zuten bertan. Guk lehendabiziko zazpi liburukiak erabili ditugu 1952 eta 1968 arteko ekoizpena jasotzen dutelako.

¹⁸³ Gerora *Ekinen koadernoak* izenarekin ezagutu diren idatziak, abiapuntuan, ekinkideek formaziorako prestatutako txostenak ziren. Ez dute datarik, ez sinadurarik, segurtasun arrazoiengatik, Ekineko kideek formazio ikastaroetarako sortzen zituzten paper-orriak etengabe desegiten eta berregiten baitzituzten (Hordago, 1979, 1, 76 or.; Letamendia, 1994, 254 or.).

¹⁸⁴ *Liburu Zuria* izenbururik eta datarik gabeko sakelako liburua da; azal zuria izateagatik deitzen zioten horrela (Hordago, 1979, 1, 148 or.). 1960ko eta 1961eko sarekaden ondorioz ETAKo buruzagitzako kide batzuk Ipar Euskal Herrian gorde zirenean, *Ekinen koaderno* haietako batzuk *Liburu Zuria* deitutakoan argitaratu zituzten; nagusiki, militanteen barne ikastaroetan erabilitako koadernoak ziren, ez hainbeste jarraitzaileen ikastaro irekietan erabilitakoak (Letamendia, 1994, 254 or.). *Segurtasun Arauak* izenez ere deitzen omen zioten, *Liburu Zuriaren* lehendabiziko lanak izen hori zuelako (Jauregi, 1981, 89 or.).

¹⁸⁵ I. Biltzarraren ondoren (1962), Ekinen txosten haietatik berreskuratu ahal izan zituenak koaderno tankeran berrargitaratu zituen ETAK 1964 urtera arte. Horiei esaten zaie *ETAREN koadernoak* (Hordago, 1979, 1, 76 or.; Letamendia, 1994, 254 or.).

¹⁸⁶ Enbatak ETARI egin zion lehendabiziko elkarrizketan ETAKo arduradunak honela definitu zuen *Zutik*: "ETAK *Zutik* aldizkaria argitaratzen du, Euzkadiko arazoak aztertzen ditu eta hedaketa lana egiten du, bereziki jadanik abertzaleak diren inguruetan, horretarako pintaketak, panfleto banaketak, eta abar erabiliz" (Nuñez et al., 1993, 2, 300 or.).

¹⁸⁷ Lehendabiziko bi liburukiak erabili ditugu 1952 eta 1969 urteen arteko kontakizuna egiten dutelako: ikus Nuñez et al., 1993.

norbanakoek idatziko zituzten arren, ETAREN mugimendu-izaeragatik, teorizazio kolektiboaren emaitza izan dira. Edonola ere, horrek ez die iturri gisa duten balioa kentzen (Apalategi, 1985, 173 or.). Kontuan izan behar dugu, era berean, jazarpen politikoagatik Ekin-ETAk ekoitzi zuen diskurtso idatziaren zati bat besterik ez zaigula iritsi, eta ez diskurtso idatzi osoa.

ETA mugimenduaren izaera aztertzeke ahozko iturrietara jo dugu, izan ere, ETAREN diskurtsoa aztertzeke garrantzi handia eman badiogu ere, ETA mugimenduaren praxia eta harremanak ikertzeke ez da nahikoa izan ETAREN dokumentu idatziak aztertzeke; horregatik erabili dugu elkarrizketa sakonaren teknika. 50eko eta 60ko hamarkadetan ETA erakundean eta ETA mugimenduan, barrurago edo kanporago, agente aktibo izan ziren hamasei lagun elkarrizketatu ditugu, 2013ko apirila eta 2014ko martxoa artean. Hain zuzen horixe da ikerketa honen ekarpen nagusitako bat, gure ikergaiaren lekuko izan ziren kide elkarrizketatuek informazio baliotsua eman baitigute. Elkarrizketetan jasotako informazioaz gain, dokumentu idatzien analisitik jasotako informazioa ere baliatu dugu ETA mugimenduaren izaera aztertzeke.

Esan genezake, beraz, ezagutza modu *dialogikoan* eraikitzen ahalegindu garela (Simon, 2010, 18 or.): orain arte gaiari buruz egin diren ekarpen bibliografikoak eta ETAREN dokumentuak adi-adi aztertu ditugu, elkarrizketatuek emandako informazioa eta beraiekin izandako hausnarketak zorrotz jaso eta analizatu ditugu, eta hori guztia aztertu dugun fenomeno sozialarekin etengabeko barne elkarrizketan jartzen ahalegindu gara. Horrela, gure gaitasunak eta mugak tarteko, gure ikergairako interes handiena zuten gaietan eta gai epifenomenoetan, zailetan eta errazagoetan, sakontzeke.

1.3.2. Ikerketarako tresnak

Baliabideei dagokienez, oinarrizko elkarrizketa bat diseinatu genuen elkarrizketak nolabait sistematizatzeko. Ez dugu xehe-xehe azalduko, baina bere ezaugarriez hitz

egingo dugu zertxobait. Berez, elkarrizketatuen biografia politikoa kronologikoki eraiki ahal izateko, aurrez lau atal eta atal bakoitzean galdera batzuk zehaztu genituen. Baina, gero, elkarrizketa bakoitzean unean unera egokitu dugu gidoia; gida-lagun izan dugu, batez ere, ez elkarrizketa erabat gidatzeko tresna. Hori izan da elkarrizketak bideratzeko oinarritzko irizpidea, baina, aldi berean, saiatu gara elkarrizketatuak diskurtsoa bere kasa ekoitzi zezan, askotan nahi adina hitz egiteko aukera emanaz. Elkarrizketa erdi egituratuak izan dira.

- Elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuaren arteko lehen harremana.
- Haurtzaroko bizilekua eta etxeko giroa: gurasoen hizkuntza, ideologia, lanbidea, fedea, eta gerraren oroitzapena.
- Gaztaroa: kontzientzia soziopolitiko eta kulturala bereganatzea, eta belaunaldien arteko harremana.
- Militantzia: ETA mugimendua aztertzeko identifikatuta genituen kategoriei buruzko informazioa.
- Helduaroa: ETA mugimendua deitu dugunari buruzko balorazioa.

1.4. Informazioa jasotzeko eta analizatzeko prozedura

Datu bilketan hausnarketarako jarrera sendoa izatea beharrezkoa da, ikerlariaren *neutraltasuna* ezinezkoa delako (Bourdieu, 1999). ETAREN diskurtsoa aztertzeke ETAREN dokumentu idatzietatik jaso dugu informazioa. Jauregiren (1981) eta Apalategiren (1985) ekarpenean oinarrituta, ikerketa-kategoria batzuk zehaztu ditugu lehendabizi ([ikus 2. eranskina](#)). ETAREN dokumentuak sistematikoki aztertu ahala, kategoria horien arabera sailkatu dugu informazioa. Apalategik egin bezala bi garai bereizi ditugu diskurtso horretan: ETAREN *trantsizioko diskurtsoa*, batetik, eta *errotze-garaiko diskurtsoa*, bestetik.

ETAREN diskurtsoaren kategoriak kontuan izanda, ETA mugimendua aztertzeke baliagarri izan zekizkigukeen kategoriak zehaztu genituen ([ikus 3. eranskina](#)).

Kategoria bakoitzean informazioa eman ziezaguketen pertsonak begiz jo genituen doktore tesiaren zuzendariarekin. Katgoria bakoitzerako aukera bat baino gehiago pentsatu genuen. Edonola ere, ez dugu aurrez begiz jotako pertsona guztiak elkarriketatzerik izan; batzuek ezetz erantzun zigutelako eta beste batzuek osasun arazoak zituztelako edo Euskal Herritik kanpo zeudelako. Ikerketa-kategoria guztietan informazio nahikoa jaso nahi genuenez, elkarriketak egin ahala hutsuneren bat antzeman dugunean elkarriketatu gehiago bilatu eta elkarriketatu behar izan dugu.

Hamasei elkarriketatuak ETA erakundearen eta mugimenduan, bete-betean edo inguruan, parte hartu zuten gizon-emakumeak dira. Hamalau elkarriketatuk 50eko eta 60ko hamarkadetan hartu zuten parte eta beste biak 70eko hasieran sartu ziren ETAn. Azken bi elkarriketatuen militantzia-jarduna gure ikergaiaren epealditik ateratzen bada ere, *ordukoaz* beste ikuspegi bat jasotzeko elkarriketatu ditugu. Elkarriketatuak aukeratzeko irizpideak aipatzea ere komeni zaigu. Elkarriketatuen aniztasuna bermatzearen, elkarriketatuak aukeratzeko hiru irizpide erabili ditugu:

- *Elkarriketatuen jarduera soziopolitiko eta kulturala*: ETA mugimendua aztertzeke identifikatuta genituen ikergai-kategorien eta elkarriketatuen militantzia-jardunaren arteko harremana izan dugu kontuan.
- *Genero irizpidea*: ikergai-kategoriak zehaztu ondoren, emakume eta gizonen arteko oreka ahalik eta gehien lortzen ahalegindu gara. Sei emakumezko eta hamar gionezko elkarriketatu ditugu.
- *Irizpide geografikoa*: elkarriketatuen jaiolekua eta bizilekua ere aintzat hartu ditugu Euskal Herriko zazpi herrialdeetakoak izan zitezten. Elkarriketatuetakoko bat arabarra da, beste bat zuberotarra, hirugarren bat nafarra, bi baxenabartarrak dira, bost gipuzkoarrak eta sei bizkaitarrak. Bi baxenabartarrek eta zuberotarrak Lapurdi izan dute bizileku. Hego Euskal Herriko lau elkarriketatu Lapurdin eta Baxenabarren bizi dira; eta bosgarren batek urte asko egin zituen Lapurdin. ETA mugimenduan jardun izanagatik

bizi dira hain zuzen ere Iparraldean, atxilotuak izateko arriskua saihesteko bertan babestu zirenetik.

Elkarrizketatuen izengabetasuna gordetzeko ikerlanean identifikazio zenbaki bat erabiliko dugu elkarrizketatu bakoitzarentzat. Aipu bakoitzaren amaieran adieraziko dugu elkarrizketaren zenbakia. Irakurleari argibide batzuk emate aldera, elkarrizketatuen profilari buruzko oinarri-oinarrizko informazioa laburbildu dugu zenbait taulatan ([ikus 4. eranskina](#)); elkarrizketatuak aukeratzeko erabili ditugun hiru irizpideak zehaztu ditugu bertan.

Elkarrizketa harreman sozial bat izanik, uste izatekoa da makina bat distortsio-modu jaria ditzakeela. Elkarrizketaren bidez beti gauzatzen da nolabaiteko bortxa sinboliko bat eta; beraz, hori ahal bezain beste murriztea da gakoa. Horretarako ezinbestekoa da elkarrizketatzaileak elkarrizketatuaren lekuan jartzeko jarrera ahalik eta gehien gauzatzea. Elkarrizketatzailea elkarrizketatuaren alde jarri behar da: bestearen bizi baldintzak ezagutu eta ulertu behar ditu. Horrez gain, irizpidetako bat elkarrizketak gauzatzeko ahal bezain baldintza egokienak sortaraztea izan da, elkarrizketatua eroso egotea lortu ahal izateko (Bourdieu, 1999).

Elkarrizketatuekin harremanetan jartzeko konfiantzazko norbaiten bidez egin dugu lotura; horrek asko erraztu du elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen artean biziki lagungarria den gutxieneko konfiantza giroa sortzen. Eta horrek abiapuntu egokia ahalbidetu du elkarrizketa guztietan. Elkarrizketarako hitzordua jartzeko harremanetan ipintzerakoan, elkarrizketatzaileak elkarrizketatu guztiei azaldu die elkarrizketaren nondik norakoa. Elkarrizketaren egunean elkarrizketatuak ahalik eta lasaien egon zitezen, elkarrizketarako gidioa aurrez bidaltzea proposatu die elkarrizketatuak. Batzuek hala nahi izan dute eta beste batzuek ez dute horren beharrik izan.

Elkarrizketatuentzat egokiena zen orduan eta lekuan adosten genuen elkarrizketa. Lau elkarrizketa ordubetekoak izan dira, hiru bi ordukoak, bost ordu eta erdikoak

eta beste laurak hiru ordu eta erdikoak. Elkarrizketatu gehienek elkarrizketa bere etxean egitea proposatu dute; hamaika elkarrizketa etxe partikularretan egin ditugu. Bi elkarrizketa elkarrizketatuen lantegian bertan egin ditugu eta beste hirurak elkarrizketatuek aukeratutako kafetegi banatan. Azken horietako bat bi egunetan egin behar izan genuen; elkarrizketaren bigarren zatia, elkarrizketatuak berak aukeratuta, elkarrizketatzailearen etxean egin genuen.

Elkarrizketak grabagailu digitalaren bitartez grabatu ditugu. Elkarrizketatu bakar batek ere ez baitzigun grabagailua ez erabiltzeko baldintza ezarri. Elkarrizketen zer nolakoa izan dugu kontuan eta bertan parte hartu duten alde guztiei eman diegu garrantzi bera, elkarrizketatik sortutako narratiba elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen arteko interakzioaren emaitza izan behar baita. Elkarrizketetan hausnarketa eta eztabaida sortzen ahalegindu gara, elkarrizketatuek beren ikuspegi eta esperientziarekin ikergaiarekiko gure begirada aberastu zezaten. Zentzu horretan, elkarrizketatuen ikuspegietatik ikasten eta, aldi berean, gure ikerketako gaiak birdefinitzen aritu gara (Biglia, 2012).

Elkarrizketa egin ondoren, transkribatu egin dugu grabatutakoa. Transkribapenetako informazioa analizatzerakoan ikerlanaren gidalerro izan ditugun helburu zehatzei erantzuten ahalegindu gara sistematikoki, eta aurrez zehaztutako ikerketa-kategorietan sailkatu dugu informazioa. Bildutako informazioa sistematikoki testuinguruan jartzen aritu gara. Irakurleari transkribapenen irakurketa errazteko asmoz, elementu batzuk ezabatu egin ditugu eta beste batzuk aldatu. Gainontzean, elkarrizketetan grabatutakoa transkribatu dugunean, entzundakoa bere horretan idazten saiatu gara, elkarrizketatuen euskarazko forma askok egungo *euskara batuarekin* bat egiten ez bazuten ere. Grabatutakoa ahal bezain leialen transkribatzeko egin dugu horrela, eta elkarrizketatuen hizkera ahalik eta gehien errespetatzeko ere bai. Nolanahi ere, esan bezala, ahozko hizkera transkribatzeak irakurketa zailtzen zuela iruditu zaigun kasuetan, hitzak euskara batuko arauen arabera jartzea erabaki dugu.

Horrez gain, elkarrizketetan elkarrizketatuek aipatu dituzten pertsonen izenak isilpean mantentzeko *urlia, sandia eta berendia* espresioa erabili dugu honako ikur honen barruan: [...]. Ikur hori erabili dugu halaber transkribatutako esaldia ondo ulertzeko hitzen bat edo azalpenen bat behar zela uste izan dugun lekuetan. Elkarrizketatuaren erreakzioren bat adierazi nahi izan dugunetan ere ikur horren barruan azaldu dugu elkarrizketan gertatutakoa.

Iturrietatik jasotako informazioarekin Ekin-ETAren diskurtsoa eta ETA mugimendua analizatuko ditugu segidan. Batean zein bestean, joera nagusiak analizatuko ditugu; baita idatzizko eta ahozko iturrietatik jasotako informazioaren artean dauden koherentziak eta kontraesanak ere.

2. Ekinen eta ETAren trantsizioko diskurtsoa (1952-1962)

ETAk 60ko hamarkadaren amaierarako taxutua zuen diskurtsoa urruti zegoen EAJren nazio diskurtsotik. Edonola ere, zantzu guztiek erakusten dute aldaketa hura ez zela bat-batean gertatu: alde horretatik esan genezake ETAren diskurtso iraultzailea bilakaera baten emaitza izan zela. Bilakaera horretan, arestian aipatu bezala, *trantsizioko diskurtso* bat identifikatzen du Apalategik: 1952-1962 hamarkadakoa, hots, Ekinen urteetakoa eta ETAren lehen hiruzpalau urteetakoa (1985, 173-240 or.). Letamendiak ere dio *Ekinen koadernoetan*, ETAren *Liburu Zuriaren* eduki gehienean eta *ETAren koaderno gehienetan* halako continuum¹⁸⁸ ideologiko bat dagoela (1994, 254 or.). Kapitulu honetan aipatuko ditugun Ekinen eta ETAren koadernoen zerrenda ezagutzeko [ikus 1. eranskina](#). Aurreratu dezagun beraz hemen I. Biltzarrera (1962) arte Ekinek hasitako ildoari eutsi ziola orobat ETAk. Ekin bezala ETA ere autore abertzale klasikoen obran oinarritu baitzen Aranaren abertzaletasuna eta Euskal Herriaren historia ikertzeko (Jauregi, 1981, 87 or.).

¹⁸⁸ Doktore tesi honetarako elkarrizketatu dugun Ekinen eta ETAren sortzaileetako batek ideia hori berretsi du: "Eneko Ekin eta ETA gauza bera dira, bata bestearen segida. Jende berbera ginen, leku berbera" (3. elkarrizketatua). *Enbata* astekariak 1968an ETAr egin zion elkarrizketan (1968ko urriaren 9ko zenbakian argitaratu zuen Enbatak ETAren historiako lehendabiziko elkarrizketa publikoa) ETAko arduradunak honako hau dio: "1958tik aurrera, Ekin-ek ETA (Euskadi Ta Askatasuna) izena hartzen du" (Nuñez et al., 1993, 2, 300 or.).

Erakunde batetik besterako jauzia baino areago, baten eta bestearen arteko jarraipena nabarmendu nahi genuke ikerketa honetan.

ETAk Aranaren ideologiaren oinarritzko zutabeetako bi alboratu zituen hasieratik: hau da, arraza eta erlijioa naziotasunaren erdigunetik baztertu zituen. Aranaren ideologiaren osagai batzuekin bat egiten bazuen ere, bere kategoria garrantzitsuenetatik aldendu zen, horrela. Nolanahi ere, lehen urteetako ETAREN diskurtsoa anbigua zen artean gai horiei dagokienez ere; I. Biltzarraren ondoren (1962) eten zuen garbi aurreko abertzaletasunaren bi zutabe horiekin¹⁸⁹. Haustura ideologiko horrekin batera haustura estrategikoa ekarri zuen ETAREN diskurtsoak: hartara, 1936ko gerra osteko abertzaletasunaren eraginkortasun politiko ezaren aurrean, abertzaletasun ekintzailea sustatu zuten. *Zaharren* geldotasunari, *gazteen* borrokarako grina gailendu zitzaion (Jauregi, 1981, 87-88, 133 or.; Elorza, Garmendia, Jauregi eta Dominguez, 2000, 201–202 or.).

2.1. Sustrai historikoen bila: abertzaletasuna birsortzeko ahalegina

Sustrai historikoen bila jardun zuten Ekin sortu zuten gazteek. 1936ko gerraren ondoren nazio euskaldunaren kontzientzia hartu zutenean premia larria sentitu baitzuten Euskal Herriaren historia eta abertzaletasuna birsortzeko (Jauregi, 1981; Apalategi, 1985; Letamendia, 1994). Horregatik ekin zion buru-belarri Ekinek, eta gero ETAk, Euskal Herriaren historia aztertzeari. Apalategik dio historiari buruzko Ekin-ETAREN lehendabiziko eskemak sinpleak zirela; uste izatekoa ere bada, ordea, izan zituzten baldintza eskasak ikusita. Edonola ere, motibazio iturri izan zitzaien

¹⁸⁹ Jauregik beste ideia bat defendatzen du: bere ustez ETAk arraza eta erlijioa baztertu izana ez da berria abertzaletasunean; esaten du gerra aurreko joera abertzale akonfesionalek ezarritako eredia besterik ez zuela segitu. Jauregiren iritziz ez dago haustura ideologikorik abertzaletasun historikoarekin, ETAk egiten duen haustura estrategikoa baino ez da (1981, 82-87 or.). Edonola ere, Casanovak, eta Jauregik berak, aldeztzen duten ideia hau hartu nahi dugu kontuan: 1936ko gerra eragin zuen belaunaldien arteko etena hain izan zen sakona, orduko abertzaletasuneko joera ideologikoetan bakar bat ere ez zela gai izan jarraipenari eusteko, alegia, gerra ondoko belaunaldi berriekin lotura ideologiko eta politiko sendorik egiteko (Jauregi, 1981, 140 or.; Casanova, 2007, 35 or.). Horregatik Ekin-ETAREN lehendabiziko lana gerraren aurreko abertzaletasuna eta historia ikertzea izan zen. Ia zerotik eraiki behar izan zuten abertzaletasun berria.

historiaren deskubrimendua proiektu kultural eta politiko berri hura abian jartzeko (1985, 173 or.).

Txillardegik berak dio Ekin bezalako erakunde politiko klandestino bat antolatu beharraz jabetu zirenean, beren formazioaren ahuleziaz ohartu zirela eta, horregatik, oso lan intelektuala egin zutela hasieran. Euskal Herriaren iraganaz ezer gutxi zekitenez, Euskal Herriaren historia ikasteari ekin ziotela: besteak beste, foruak aztertu zituzten xehe-xehe, Poloniako, Eireko eta Suomiko askapen mugimenduen berri biltzen ahalegindu ziren, existentzialismora hurbildu ziren eta euskara ikasten hasi ziren (1994, 137-138 or.). Ekinen formaziorako interesa handia zen oso eta, gainera, hutsetik hasi behar izan zuten abertzaletasunaren ondarea ikertzen eta arakutzen eta interpretatzen. Hasieran abertzaletasun historikoa izan zuten iturri ideologiko bakarra, gerra aurreko autore abertzaleen obrara jo zuten gero (Jauregi, 1981, 93, 140 or.).

Euskal Herriaren¹⁹⁰ historiari eta erakundeei eskainitako koadernoak aztertuko ditugu atal honetan. *Un bosquejo de la historia vasca hasta 1512*¹⁹¹ (Hordago, 1979, 1, 91-92 or.) koadernoan Euskal Herritik igaro diren herriez hitz egiten du Ekinek. Eta ondorio garbi batera iristen da: herri haiek inguruko jatorrizko hizkuntzak desagerrarazi zituzten bitartean, euskaldunek beren arrazari, hizkuntzari eta lurraldeari eutsi ziotela. Kanpo presio haien eraginez, euskarak atzera egin eta asimilazio-prozesua jasan badu ere, Euskal Herria hainbestean bizirik egotea miraria iruditzen zaio Ekini.

Historiaren kontakizun erromantikoa nabari zaio oraindik hainbat pasartetan eta estiloak Aranarena gogorarazten digu. Ekinek egiten duen euskal nazioaren definizioak Aranarenarekin antz ohargarria du. Arraza eta hizkuntza aipatzen ditu

¹⁹⁰ Aranek egin bezala, Ekinek eta ETAK ere, *Euzkadi* erabili zuten lehen urteetan eta, gero, *Euskadi*. ETAK euskal zazpi herrialdeak sartzen zituenez Euzkadin/Euskadin, *Euskal Herria* erabiliko dugu guk.

¹⁹¹ Ekinek bezala hasierako ETAK ere gerra aurreko autore abertzaleen lana erabili zuen formaziorako koadernoak idazteko (Jauregi, 1981, 93 or.). Koadernoetarako erabili zuten bibliografia aipatuko dugu Ekinek eta ETAK hala egiten dutenetan. Koaderno honetan, adibidez, Ekinek ez ditu iturriak zehazten.

etengabe; Ekinen diskurtsoan ez da bilakaera handiegirik antzematen oraindik. Apalategik dio aldaketa ezarian-ezarian gertatu zela: lehendabizi, metodoetan, testuinguruan, eta erabilitako bitartekoetan nabari dela berrikuntza, eta aurrerago oinarritu zuela euskal nazioa balio berrietan (1985, 174 or.).

Foruei eta legeei buruzko hausnarketak ere egin zituen Ekinek *Fueros-Leyes*¹⁹² (Hordago, 1979, 1, 78-81 or.) koadernoan. Gai hori gerra aurreko abertzaleek etengabe landu zuten gaia da. Garaiko legeriei leporatzen die interes partikularrak justiziaren gainetik jartzea. Euskal zuzenbideak, ordea, kontrako bidea egin du Ekinen ustez; euskal zuzenbidearen iturri nagusia tradizioa edo ohitura izan baita. Euskal zuzenbidea xeheki aletzen du Ekinek koadernoan eta foruak nola sortu ziren azaltzen du. Apalategik kontatzen du abertzaletasun tradizionalak euskal zuzenbidez eta foruez egin zuen interpretazioa onartzen duela nolabait Ekinek hemen. Baina foruen balioa azpimarratzeko garaian Ekinen eta ETAREN ezaugarri bat nabarmentzen dela dagoeneko; hots, izaera herritarrari ematen dioten garrantzia (1985, 175-176 or.).

2.2. Europar Federazioaren ikuskera

Lehen abertzaletasunak federazioaren aukera hobetsi zuen Euskadiko lurraldeak edo herrialdeak antolatzeke: euskal herrialdeak aske batzeko estrukturazio politikorik egokiena iruditzen baitzitzaion. Logika berean, Europako nazioak eta estatuak antolatzeke modurik egokiena federazioarena da lehen abertzaletasunarentzat. Gorago esan dugu Ekinek bezala lehendabiziko ETAK ere, gerra aurreko abertzale askoren obra aztertu zuela eta diskurtso haren ideia asko

¹⁹² Ekinek idatzi zuen *Fueros-Leyes* koadernoan ETAK berrargitaratu egin zuen 1962tik aurrera ETAREN koaderno gisa. Paragrafo batzuk gehitu zizkion lehendabizikoari baina, funtsean, berdina da (Hordago, 1979, 2, 83-89 or.). Bibliografiari dagokionez, batetik, Baxenabarreko, Lapurdiko eta Zuberoako XVI. eta XVII. mendeetako ohitura-bildumak erabili zituen Ekinek; bestetik, Arabako eta Gipuzkoako XIII.-XVI. mendeetako hainbat itun eta ordenantza; eta, horrez, gain, Bizkaiko eta Nafarroako Foru Orokorrak (Hordago, 1979, 1, 81 or.).

bereganatu zituela bere hausnarketetan. Europar Federazioaren ikusmoldean ere halaxe gertatu zen (Apalategi, 1985, 223 or.).

Ekinek koaderno bat ondu zuen gaiaz: *La Federación Europea* (Hordago, 1979, 1, 83-85 or.). Ekin Europa federala eraikitzearen alde agertzen da: "Europa necesita hacerse y nosotros haremos Europa" (*Federación europea*, Hordago, 1979, 1, 84 or.). Hiru arrazoi-multzo aipatzen ditu horretarako: arrazoi kulturalak, politikoak eta ekonomikoak. Arrazoi kulturalak dira Ekinentzat Europaren oinarria: alegia, Europa kultura dela funtsean, bizi-ikuskerak bat, eta erakunde komun batzuk. Etorkizuneko Europak kultura horri eutsi nahi badio, zimendu soziologiko sendoak behar ditu, Ekinen ustez. Europarrek sortzen segitu nahi badute, oinarri bat behar dutela esaten du, euzkultura bat¹⁹³ (Hordago, 1979, 1, 84 or.).

Europar Federazioa sortzeko arrazoi politikoetan honako hauek aipatzen ditu Ekinek. Batetik, iruditzen zaio nazionalitateen arazoari irtenbidea eman diezaiokeela. Aniztasunean batutako Europak aniztasun horiei guztiei zentzua eman baitiezaieke. Bestetik, estaturik gabeko nazioei politikoki txiki geratu zaizkien nazio estatu handien arazoari ere irtenbidea eman diezaioke, Ekinen ustez. Europa da, ohartarazten du, askatasun horiek lortzeko eta mantentzeko berme bakarra (Hordago, 1979, 1, 84 or.).

Europarentzako forma juridikorik egokiena zein den hausnartzen hasita, bi formula aipatzen ditu Ekinek: bateko, federazioa eta, besteko, konfederazioa. Federazioarena hobesten du. Izan ere, federazioan lekuan lekuko agintariek independentzia mugatua izango lukete eta, horrela, herritartasun bikoitza sortuko litzateke, Ekinen esanetan. Aldi berean estatuak eta herritarrek osatzen duten egitura da (Hordago, 1979, 1, 85 or.).

¹⁹³ Apalategik dio *makro-kultura* deitutakoa defendatzen duela Ekinek hor. Kontraesan handia ikusten dio Ekinen diskurtsoari: izan ere, bere iritzian, makro-kulturaren alde egitea Europako nazio estatuak marjinalatzen dituzten kulturak kondenatzea da. Baina, bestalde, positiboa iruditzen zaio Ekinek hizkuntza eta kultura zapalduen buruz agertzen duen iritzia, eta nazio gutxiagotuen eskubideei buruz agertzen duen ideia: Europako nazio gutxiagotuen aniztasunean berdintasunerako eskubidea aldarrikatzen baitu Ekinek (1985, 226 or.).

Dituen ezaugarriengatik federazioa da abertzaleentzako eredurik onena euskal nortasuna gorde eta garatu ahal izateko. Ekinen esanetan federalismoan ez dira gutxiengoaren arazoak sortzen, gutxiengoei gehiengoaren eskubide berberak ematen baitizkie; sistema kualitatiboa da, ez kuantitatiboa. Ekinen ustez, naziokideen berezko ezaugarriak gorde egiten dira federazioaren egiturari, ez baititu bakar batean elkartzen eta desagitzen; bere baitako konplexutasun kultural, psikologiko eta ekonomikoak errespetatu egiten ditu. Izan ere, Europar Federazioaren antolaketak nolakoa beharko lukeen zehazten du koadernoak. Funtsean honakoa da Ekinen kezka: harreman orekatu eta malguak sortzea herritarrek Europan parte hartzeko aukera izan dezaten. Amaitzen du esanez Europako Komunitatea dela abertzaleentzako esperantzarik handiena eta, beraz, sostengatzeko ahalegina egin behar dutela (Hordago, 1979, 1, 85 or.).

2.3. Nazio erresistentziaren erantzukizuna

Aztertu ditugun bi esparruak ikusita, Ekin-ETAren trantsizioko diskurtsoa lehen abertzaletasunaren ondorengoa dela esan dezakegu. Atal honetan arakatuko dugun nazio erresistentziaren diskurtsoak ere badu lotura Aranaren ideologiarekin baina ikuspegi berritzaile baten zantzuak agertzen dira dagoeneko.

Nazio erresistentzia erantzukizun moduko jokabide batekin lotzen dute Ekinek eta ETAk (Apalategi, 1985, 188 or.). *Moral de resistencia nacional* (Hordago, 1979, 1, 93-97 or.) izeneko koadernoan hausnartu zuen Ekinek gaiak. Arriskuan ikusten ditu abertzaletasunaren printzipioak; denboraren joanak, gainera, gehiago higitu ohi du printzipio horien sendotasuna, izan ere, dio Ekinek, nahasmenak eta abaildurak nazio espiritua belaxkatzen dute pixkanaka. Horixe besterik ez da, zoritxarrez, Euskal Herriko eremu askotan gertatzen ari dena: "mentalitate sasi-baskistaren" eraginez neutraltasuna eta eraginkortasunik eza hedatzen ari dira Ekinen ustez. Horregatik nahi du euskaldun guztiek beren eginkizunaren kontzientzia argi izatea eta horri sendo atxikitzea (Hordago, 1979, 1, 94 or.).

Euskal nazioaren nortasuna mamitzea, iraunaraztea eta garatzea da eginkizun horren funtsa. Eta horretarako ezinbesteko baldintza da borondatea: hau da, Euskal Herria bizi dadin nahi izatea eta euskaldun izan nahi izatea¹⁹⁴. Horixe da Ekinen ustez bere kausaren funtsa. Euskaldun izatea zer den argitzen du bidenabar: bizi-jarrera bat da bere ustez, barne jarrera burujabe bat, goitik beherako erreakzio-espíritu bat. Horrekin lotzen du Ekinek *euskalduntasun integralaren* ideia: "Si de verdad queremos que Euzkadi se salve, (...) hemos de impregnar nuestro espíritu de un basquismo integral, total, viviendo en vasco, siendo vascos con voluntad sincera y encarnizada" (Hordago, 1979, 1, 94-95 or.). Apalategik ohartarazten du, funtsean, kontzientzia hartzeaz ari dela Ekin (1985, 192 or.).

Abertzaleen kultura zereginak¹⁹⁵ zehazten ditu Ekinek jarraian; kultura guztiak bezala euskal kultura ere, fosildu ez dadin, landu, berritu eta egokitu egin behar baita¹⁹⁶. Oroz gain, euskal espíritua salbatu behar da Ekinen ustez, euskalduntasuna, hori baita euskal nazioaren ezinbesteko oinarria eta garaipenerako bermea (Hordago, 1979, 1, 96-97 or.). Ekin-ETAren lehendabiziko testuetan lehen abertzaletasunaren diskurtsoaren aztarnak antzeman badaitezke ere, nabarmena da ikuspegi berritzaile baten zantzuak ere badituela (Apalategi, 1985, 194 or.).

Gaiari buruzko ETAren idatziak aztertuko ditugu jarraian. *Moral de resistencia nacional*¹⁹⁷ (Hordago, 1979, 1, 191-201 or.) kodernoarekin hasiko gara. Izenburu

¹⁹⁴ Jeltzaleak kritikatzten ditu Ekinek euskaldun izateko borondateari muzin egin diotelako. Beren etiketa politikoari eusteko ahaleginean tematuta, ahaztu egin dute Ekinen ustez euskaldun izatea zer den. Utzikeria eta koldarkeria leporatzen die, jarrerarik erosoena hartu izana eta immobilismoan setatuta egotea, egoera noiz aldatuko zain (Hordago, 1979, 1, 94-95 or.).

¹⁹⁵ Kultura zeregin hauek aipatzen ditu: euskal bizi-esentziei balio handiagoa ematea; falta diren bitartekoak sortu eta daudenak garatzea; kultur ondarea lantzea, bai esparru artistikoan eta bai literarioan; euskal naziotasunaren oinarri eta babesleku den "euskal etxea" gurtu eta zaintzea; euskal bizitza soziala babestu, garatu eta zabaltzea; eta haurrak euskaraz heztea, euskara baita euskal kulturaren batasuna eta euskal mentalitatearen oxigenoa (Hordago, 1979, 1, 96 or.).

¹⁹⁶ Kritikatu egiten du Ekinek abertzale askoren jarrera. Euskararen garrantziaren aurrean ez ikusiarena egitea leporatzen die, duen garrantzia kontuan ez hartzea, eta euskararik jakiteko asmorik gabe euskaldun izan daitezkeela pentsatzea (Hordago, 1979, 1, 96 or.).

¹⁹⁷ Bibliografian honako obra hauek aipatzen ditu ETAK: Menachem Beghin-en *La Révolte d'Israel*, Engrazio Aranzadi Kizkitzaren *Ereintza*, Bourguiba-ren *Tunisia*, Allan Pathon-en *Pleure, oh pays bien-aimé*, Erskine Childers eta Darrel Figgs-en *La Tragedia de Irlanda (Moral de resistencia nacional)*, Hordago, 1979, 1, 201 or.).

berdina du baina ETAREN koaderno hau ez da Ekinen berbera. ETAK dio nazio batek biziraun ahal izateko ezinbesteko baldintza duela bere nortasuna eratzeko eta mantentzeko pausu batzuk ematea. Bere ezaugarri bereizgarriak behar adina ezagutzea eta nazio kontzientzia izatea, adibidez; edo ezaugarri eta nazio balio horiek kolektiboki estimatzea eta nazioa gauzatzeko eta iraunarazteko nahia edo grina izatea. Nazio erresistentziarako moral bat izatea ere ezinbestekoa da ETAREN ustez; alegia, nazioa desegin nahi duten barne eta kanpo kausen aurrean herria etengabeko aurkaritzan saiatzeko prest egotea, sakrifizioarako bidea onartzea. Euskal Herriak hiru pausu horiek ematea da ETAREN helburua; horrela bakarrik lortu baitaiteke, bere ustez, nazio erresistentziarako moral gogor samar bat eta moral horrek bermatuko du euskal nazioaren biziraupena.

2.4. Segurtasun arauak

Lehen abertzaletasunarekin erkatuta Ekin-ETAK egin zuen aldaketetan lehendabizikoa segurtasun arauena da. Letamendiak hiru ezaugarri nabarmentzen ditu lehen urteetako ETAN: aktibismo politikoa, klandestinitatearekin zuen obsesioa eta formazioarekiko kezka. Horrek bereizten zuen gehien gainontzeko talde abertzaleetatik (1994, 252 or.). Ekintza politikoa egiteko Ekinek eta ETAK zehaztu zituzten segurtasun-arauak aipatuko ditugu atal honetan.

Ekinek *Normas generales* (Hordago, 1979, 1, 87-90 or.) izeneko koaderno idatzi zuen lehendabizi eta gero ETAK *Normas de seguridad* (Hordago, 1979, 1, 151-160 or.) izeneko koaderno argitaratu zuen *Liburu Zurian*. Berez, Ekinen koaderno osatua da ETARENA; zuzenean ETARENA aztertuko dugu, beraz. Erskino-ren *Historia del Sinn Féin* lanean oinarrituta, xehetasun handiz analizatu zituen ETAK ekintzetan segurtasunez jarduteko kontuan hartu beharreko neurriak: hala nola militanteen jokatzeko modua, isilean edo ezkutuan jarduteko beharra, harreman pertsonalak, talde bilerak, jarduera legalak, atxilotua izandakoan hartu beharreko neurriak, eta polizien galdeketa. Ikerketa honetarako baliagarri zaizkigun ideiak baizik ez ditugu aletuko.

Bi maila bereizten ditu ETAk ekintza politikoan: jokaera pertsonala eta jokaera kolektiboa. Maila pertsonalean militantearen jarrera eraginkorra eta naturala izan dadin, esaten du, militante askok errotik aldatu behar dituztela beren ohiturak. Militantzia eraginkorra egiteko ezinbesteko baldintza da ETAREN ustez militantea jarduera politikoan erabat murgiltzea; horregatik esaten du lehenago edo beranduago militanteak ohiturak, konpromisoak, eta familia- eta lagun-harremanak eten egin behar dituela. Maila kolektiboan segurtasunez aritu ahal izateko "babesneurriak" sortu behar dira ETAREN esanetan. Bi bide aipatzen ditu: ofizial samarrak diren erakundeak baliatzea, edo kultura, kirol eta abarren erakundeak erabiltzea. Erakunde horien babesean egindako militantziak naturaltasun itxura hartzen baitu (Hordago, 1979, 1, 151 or.).

Militante gisa jokatzeko aholku zehatzak ematen dizkie ETAK bere kideei (ikus Hordago, 1979, 1, 151-152 or.). Diskrezioan datza gakoa ETAREN ustez: derrigorrezko baldintza da etakideek isilean edo ezkutuan jardutea. Ohartarazten du ez dela komeni Euskal Herriaren alde nork lan egiten duen zabaltzea. Aktibisten arteko harremanak ere arautzen ditu ETAK. Zuhurtziaz gabe aritzen direnekin eta alkohol-zaleekin harremanik ez izatea gomendatzen die bere militanteei. Harremanetarako leku egokiak iradokitzen ditu eta talde bilerak egiteko ere ematen du aholkurik. Jarduera legalei buruz zertzelada pare bat ematen du. Esaten du euskarazko klaseak, dantza, eta jarduera folklorikoak erregimen frankistak, oro har, toleratzen dituen arren, ez dituela inondik inora ere bultzatzen. Hori eta horrenbestez, ETAREN arabera komeni da jarduera horiei abertzale kutsu nabarmenik ez ematea. Esaten du, orobat, aktibista orok bultzatu behar dituela horrelako jarduerak baina, kontu handiz, ez dela komeni eragile gisa agertzea (Hordago, 1979, 1, 153-155 or.).

Atxiloketaren unerako aholkuak ere ematen dizkie militanteei, norberari eta erakundeari ahalik eta kalte gutxien sortzeko: militanteek aurrez hartu behar dituzten neurriak zehazten ditu, funtsean. Azkenik, poliziaren galdeketa dela-eta aholkuak ematen ditu. Aktibista orok prest egon behar du, bere esanetan, polizia-galdeketa baterako; hartara, ezin du inor ustekabeen harrapatu. Gauza orooren

gainetik, polizien galderak naturaltasunez eta segurantzaz erantzuten ahalegindu behar du atxilotuak. Poliziak itaunketetan informazioa ateratzeko erabiltzen dituen metodoez ere ohartarazten ditu etakideak (Hordago, 1979, 1, 155-157 or.).

Euskaldun gisa bizitzea debekatuta zegoenez, Apalategik dio ETArenezat premiazkoa zela militante gazteentzako aholku eta arau guzti haiek zehaztea. Ikuspegi soziologikotik so eginda interesgarriak dira, errepresio frankistaren eraginez euskal herrietan eta ETAn bertan sortu ziren harremanak nolakoak ziren ezagutzeko eta lehendabiziko etakideek zein giro psikosozialetan ziharduten ikusteko (1985, 200-202 or.).

2.5. Abertzaletasuna, nazio nortasuna eta euskara

Euskararen ikuspegia da Ekinen eta lehendabiziko ETAREN nazio diskurtsoa Aranarenetik gehien bereizten duen arloetako bat; beste bi arloak hurrengo bi ataletan aletuko ditugu. Dakigunez, EAJk arrazan ardaztu zuen nazio nortasuna; euskal arraza bihurtu zuen euskal nazioko kide izateko baldintza. Bigarren Mundu Gerraren ostean arraza Europako diskurtso politikoetatik baztertu ondoren, Ekinek eta ETAK euskalduntasunean ardaztu zuten beren nazio diskurtsoa. Aldeak alde, nazioa eta euskalduntasuna baliokideak bihurtu ziren abertzaletasun berrian (Apalategi, 1985, 178 or.). Perez-Agotek dio ETAREN sorrera bera ulertzeko ezinbestekoa dela bere sortzaileek euskarari eman zioten garrantzia aipatzea: "No es posible entender el nacimiento de ETA, (...) sin referirse a la valoración de la lengua hecha por sus fundadores" (1986, 91 or.). Ekinek eta lehendabiziko ETAK gaiari buruz idatzi zutena aztertuko dugu atal honetan.

Sakon jorratu zuen gaia Ekinek *Euskera y patriotismo vasco* (Hordago, 1979, 1, 104-109 or.) koadernoan. Euskararen atzerakada hirukoitzaz mintzo da, lehenik eta behin: geografikoaz, sozialaz eta dialekto-artekoaz. Euskararen eremu geografikoaren bilakaera aztertzen du lehendabizi; gerra karlistez geroztik,

atzerakada hori oso azkar ari dela gertatzen ohartarazten du. Atzerakada sozialari dagokionez, euskal eliteak euskararekiko izan duen axolagabekeria salatzen du eta, ondorioz, pixkanaka baserri-eremuetan zokoratuta geratu dela. Bi faktore horiei hirugarren bat gehitzen die: Euskal Herriaren batasun politikorik ezak euskal dialektoen dibertsifikazioa handitu duela adierazten du Ekinek eta euskaldunen arteko komunikaziorako balioa galtzen ari dela. Euskara batuaren beharra azaltzen du dagoeneko Ekinek hemen, eta, orobat, euskararen atzerakada Euskal Herria subirano ez izatearekin lotzen du.

Euskararen erabilera eskasa ere azpimarratzen du Ekinek. Atzerakada hirukoitzaren ondorioz, komunikazio-balioa galtzen ari dela salatzen du. Ekinen ustez, euskaldunak euskara baztertzen duenean, ez du soilik utzikieriaz egiten, edo euskalduntasunik edo atxikimendurik ez duelako, egunerokoan euskarak balio ez diolako baizik; eta, jakina, erakundeek erabiltzen ez dutelako, eta eremu ezberdinetako euskaldunen artean komunikatzeko ere balio ez diolako. Ekinek honako ondorio hau ateratzen du horretatik: hau da, iraganeko euskaldunei euskara erabilgarri zitzaien bezala oraingoei ez bazaie, etorkizunean desagertu egingo dela.

Hirugarrenik, hizkuntza erabilgarri bat aldarrikatzen du Ekinek. Ohartarazten du abertzale orok bide horretan kokatu behar duela euskararen auzia: "que una lengua, o es un vínculo real de comunicación UTIL de un pueblo, o desaparece" (Hordago, 1979, 1, 105 or.). Ondorioa argia da, argia denez: euskarak ez badu euskaldunen egunerokorako balio, beren eguneroko bizitza sozialerako ez badie balio, euskara desagertu egingo da. Beraz, euskararen problema hor kokatzen du Ekinek: euskara errealitate sozialarekin harremanetan egotea nahitaezkoa da erabilgarritasun soziala berreskura dezan¹⁹⁸.

¹⁹⁸ Jauregik zentzu horretan dio Ekin-ETAk zentzu dinamikoa eta irekia eman ziela euskarari eta euskal nazio identitateari. Garaiko errealitate sozialera egokitu nahi baitzuen eta bere erabilera zabaldu nahi baitzuen euskaldunen eta euskaldun ez zirenen artean. Hartara, nazio kontzientzia hedatu eta finkatu ahal izateko (1981, 162-163 or.).

Testuinguru horretan, salatu egiten du gerra aurreko abertzale eta euskaldun askok eta, bereziki, EAJko buruzagiek euskararekiko izan duten jarrera zabarra. Ekinen ustez ez dute inolako errespeturik agertu hizkuntza-zapalketa pairatzen zuten pertsonetikiko. Euskara mendi eremuetan zokoraturik, bizitza modernora egokitu gabe, dialekto eta azpi-dialektoetan zatiturik nahi dutenak kritikatzeko ditu¹⁹⁹. Ildo berean, Ekinek aldarrikatzen duen laugarren ideia honakoa da: hizkuntza nazioaren sorkuntza soziala dela. Garaiko hainbat teoriariren ekarpenak bere eginda, hizkuntzaren dimentsio soziala nabarmentzen du: "El idioma (...) es LA REALIZACION SOCIAL más característica de un pueblo. (...) Se trata, tal vez, de la única creación en la que colaboran todas las regiones, todas las clases sociales y todas las generaciones sucesivas" (Hordago, 1979, 1, 105 or.; letra larria jatorrizkoan).

Bosgarrenik, Ekinen iritziz, hizkuntza da nazioaren batasuna gordetzeko faktore nagusia. Ondorioztatzen du Pirinioen iparraldean frantsesa eta hegoaldean espainola soilik hitz egiten den egunean, Euskal Herria desagertutako herria izango dela. Koaderno horretako seigarren egiaztapena, berriz, honako hau da: hizkuntza-ordezkapena dela nazio baten naziotasun galerarako faktore nagusia: "para matar un pueblo no hay nada más fulminante que matar la lengua nacional. (...) Pueblo que cambia su idioma por el del vecino, es pueblo que cambia su alma por la del vecino" (Hordago, 1979, 1, 106 or.).

Hori eta horrenbestez, euskararen heriotza gertu dagoela aurreikusten du Ekinek zazpigarren puntuan. Euskal Herriko haurrek euskaraz ez egitea da horren sintoma. Bi arrazoi identifikatzen ditu haurrek euskaraz ez hitz egiteko. Batetik, eskola, eskola zapaltzaileen esku egotea. Eta, bestetik, gurasoak, baserrietan eta herri arrantzaleetan izan ezik, ez baitute familian euskaraz hitz egiten. Bi arrazoi horiei

¹⁹⁹ Jauregik dio Ekin-ETAren nazio birstortzearen euskarri garrantzitsuenetako bat euskara berehala berreskuratzeko beharra dela. Euskararen eta Euskal Herriaren egoera kaotikoaren errua, dio Jauregik, gerra aurreko abertzaleek euskara berreskuratzeko arloan izan duten utzikeria dela ETARENTZAT (1981, 160 or.).

hirugarren bat gehitzen die Ekinek aurrerago: prentsa, irratia, zinema, literatura, eskola, administrazioa, merkataritza-trukea eta abar, %99,9 baino gehiagoan, frantsesez edo espainolez egitea Euskal Herri osoan.

Ekinen belaunaldiaren "eginkizun historikoa" iradokitzen da hor, inondik ere: hala, belaunaldi gazteak egoera aldatzeko ezer egin ezean, desagertu egingo da Euskal Herria. Gakoa historia soziolinguistikoaren bilakaeran *garaiz* iristea da; zeren eta, baieztapen horren lekuko, Irlandako adibidea aipatzen du.

Munduko hizkuntza osasuntsuak eta desagertzeko arriskuan daudenak gainbegiratzen ditu ondoren, zortzigarren puntuan. Adibide batzuk ematen ditu eta ondorio honetara iristen da: alegia, beren burua gobernatzen duten herrietako hizkuntzak indartsuak eta biziak direla; eta, aitzitik, okupatutako herrietakoak, auto-gobernurik ez dutenetakoak, hilzorian daudela. Indarrean oinarritutako kolonietako administrazioek kolonizatutako herrien hizkuntzak eta kulturak deuseztatu egiten baitituzte; baldintza horietan, eskola, komunikabideak, administrazioa, jarduera publikoak, kultura, den dena, zapaltzailearen hizkuntzan egiten baita. Euskara eta Euskal Herria inork salba baditzake, abertzaleek egin lezakete hori. Horrela, bederatzigarren eta hamargarren puntuetan abertzaleek euskararekiko dituzten eginkizunak zehazten ditu Ekinek. Eremu publikoan, besteak beste, honako hauek: 1) Euskara hizkuntza ofiziala bihurtzea; 2) Euskara gaur egungo hizkuntza izatea; 3) Euskara hizkuntza batua izatea²⁰⁰. Eta eremu pribatuan, berriz, beste hauek: 1) Familia euskalduna; 2) Buruzagi abertzale euskalduna; 3) Abertzale euskalduna²⁰¹

²⁰⁰ Ekinek euskara nazio hizkuntza izatea nahi du, eskolako, administrazio publikoko, prentsako, bizitza ekonomikoko eta beste esparruetako hizkuntza. Horrekin batera, euskara gaurkotua nahi du; abertzale batzuen gehiegizko purismoa kritikatzan du zentzu horretan. Eta hainbat taldek mendebaldeko nafar euskaran oinarrituta hasi duten euskara batuaren prozesua babestu egin behar dela dio (Hordago, 1979, 1, 108 or.).

²⁰¹ Ekinen ustez, familian euskara ezartzen ez duten gurasoek Euskal Herriaren genozidioan kolaboratzen dute frantziar eta espainiar gobernuekin, beren burua abertzaleztat izendatzen badute ere. Traidoreak eta iruzurtiak dira. Horrekin batera, Euskal Herrian kargu publikoren bat bete nahi duen oro euskalduna izan behar dela azpimarratzen du. Eta abertzale erdaldunek euskararen etorkizuna arriskuan jartzen dutela esaten du eta, beraz, euskaldundu egin behar direla. Ekinen ustez Euskal Herria euskalduntzeko modu bakarra abertzaleek boterea eskuratzea baita. Horregatik ikasi eta euskaldundu behar dute beren burua eta eredu izan (Hordago, 1979, 1, 109 or.).

(Hordago, 1979, 1, 107-108 or.). Ikus dezakegunez, borroka politikoa (abertzaletasuna) eta euskara estu lotu zituen Ekinek²⁰².

Aipatu ditugu Ekinen *Euskera y patriotismo vasco* koadernoko ideia nagusiak. ETAk bere horretan berrargitaratu zuen gero *ETAren koaderno gisa* (1962tik aurrera), aldaketarik egin gabe. Ekinen *Moral de resistencia nacional* koadernoaren ere berrargitaratu zuen ETAk orduan (*Liburu Zuria*, 1960-1961, Hordago, 1979, 1, 191-201 or.), eta atal honetarako aukera-aukeran datorkigun hausnarketa bat egin zuen euskarari buruz. Esaldi honetan laburbiltzen da *ETAren jarrera* : "El euskera es la quintaesencia de Euzkadi: mientras el euskera viva, vivirá Euzkadi. (...) Es el euskera pieza fundamental sin la cual nuestra nacionalidad no tiene posibilidades"²⁰³ (Hordago, 1979, 1, 194 or.).

Liburu Zurian argitaratu zituen ETAk *Posición personal respecto al euskera eta Personalidad nacional y patriotismo* koadernoak. *Posición personal respecto al euskera*²⁰⁴ (Hordago, 1979, 1, 253-258 or.) koadernoan abertzale orok bere jarreraren kontuan izan behar dituen printzipioez hausnartzen du ETAk. *Euskera y patriotismo vasco* koadernoko ideia asko errepikatzen ditu: esate baterako, herri bati bere jatorrizko hizkuntza aldatzeak dakartzkion ondorioena. Azken buruan honako ideia hauxe du mami: bere hizkuntza hitz egiteari uzten dion herria, herri hila dela, zeren eta luzaro gabe bere izaera eta arima herri inbaditzailearenarekin ordezkatzeko ditu, eta haren probintzia bihurtzen da. Galera nazional horren arrazoiak aipatzen ditu.

²⁰² Ekinen sortzaileek bere buruari jarri zioten lehendabiziko zeregina horixe izan zen, euskara ikastea: izan ere, kaletarrak izanik, erdaldunak baitziren (Txillardegí, 1994, 138 or.).

²⁰³ Arbasoen ondarea da hizkuntza: euskara ehunka euskal belaunaldiren emaitza dela nabarmentzen du ETAk; horregatik baiesten du herri baten barne-barneko ezaugarri nagusiak gordetzen joaten dela belaunaldiz belaunaldi. Akats larria da, *ETAren* ustez, hizkuntza hitz egiteko artificio edo aparatua tresna huts gisa hartzea, eta hizkuntza-ordezkapenari garrantzirik ez ematea (Hordago, 1979, 1, 194 or.).

²⁰⁴ *Posición personal respecto al euskera* lanean Justo Mokoroa Ibar eta Sebero Altube aipatzen ditu iturrietan (Hordago, 1979, 1, 258 or.).

Euskararen balioez ere hitz egiten du ETAk. Hiru balio ditu euskarak euskaldunentzat: hurrenez hurren balio abertzalea, afektiboa eta etikoa²⁰⁵. Euskararen heriotzaz mintzo da, halaber. Baita abertzaleek euskara salbatzeko duten erantzukizunaz ere: ETAREN ustez, abertzaleek soilik euts diezaiokete euskarari. Inori interesatzekotan, beraiei interesatzen baitzaie hori gertatzea; eta, jakina, euskara ez desagertzeko eguneroko bizitzan erabili beharko lukete. Euskararen salbazioa erabilerarekin lotzen du berriz ere.

Personalidad nacional y patriotismo (Hordago, 1979, 1, 259-271 or.) izeneko koadernoan pertsonaren eta nazioaren arteko harremanaz hausnartzen du ETAk. Ikuspegi pertsonalista²⁰⁶ hartzen du gidari. Pertsonak berez duen kategoria handiagoa da ETAREN ustez nazioarena baino; nazioek ez dute pertsona zapaltzeko eskubiderik. Baina aurrerago honakoa gehitzen du: pertsonaren zerbitzura egoteak ez duela inolaz ere esan nahi nazioaren kontra egon behar denik. Berez, pertsonalista ororen betebeharra da ETAREN hitzetan nazio gutxiagotuekiko errespetua erakustea. *Nazio nortasuna* kontzeptua ere definitzen du ETAk; nazio arimarekin lotzen du eta nazioaren faktore bereizgarrietan²⁰⁷ arraza, hizkuntza eta erakundeak aipatzen ditu²⁰⁸.

²⁰⁵ ETAk dio euskara dela Euskal Herriaren nazio nortasunaren eta nazio kontzientziaren adierazpenik eta faktorerik gorena; horixe da euskararen balio abertzalea. Balio etikoari dagokionez, esaten du, euskara dela arrote-prozesuaren eta espainolen *moraltasun* ezaren kontrako hesirik eraginkorrena (Hordago, 1979, 1, 254 or.). Aranaren hitzak gogorarazten dizkigu.

²⁰⁶ Apalategik dio Campionek bezala ETAk ere nazioen aniztasunerako eskubidea pertsonalistotik abiatuta argudiatzen duela; izan ere, pertsonaren eskubideak jartzen ditu nazio eskubideen aurretik (1985, 184 or.). ETAk berak argi eta garbi adierazten du hori: "Semos [sic], pues, personalistas en cuanto que concedemos PRIMACIA a la persona humana. No a la nación, ni menos al ESTADO artificial" (*Personalidad nacional y patriotismo*, Hordago, 1979, 1, 260 or.).

²⁰⁷ Nazio arimaren eta pertsonaren arimaren *nia* faktore bereizgarriek eta ez-bereizgarriek osatzen dutela esaten du ETAk. Faktore bereizgarriak norbanakoa edo nazioa definitzen duten osagaiak dira, berak soilik dituen ezaugarriak. Faktore ez-bereizgarriak, ordea, norbanakoek edo nazioek, denek edo batzuek, partekatzen dituzten ezaugarriak dira (*Personalidad nacional y patriotismo*, Hordago, 1979, 1, 260 or.).

²⁰⁸ Hasierako ETAk diskurtso anbigua izan zuen nazio nortasunaren gaian. Alde batetik, alderdi kulturala eta soziala lehenesten hasi zen (geroko ETAk horri eutsiko dio) baina, aldi berean, arraza aipatzen du oraindik hainbat idatzitan (Apalategi, 1985, 184 or.).

Abertzaletasunaz eta nazio askatasunaz ere hausnartzen du ETAk koaderno honetan. ETAk azpimarratu nahi duen ideia honako hau da: abertzalea bere eguneroko jarrerarekin nazio arima indartzen duen hura dela eta, beraz, eguneroko ekintzetan ausardi sendoa eta jarrera kontsekuentea eskatzen duela. Nazio askatasunari (independentziari) dagokionez, honako jarrera hau azaltzen du ETAk funtsean: alegia, herriek nazio nortasuna atxikitzeko duten bitarteko errealista bakarria burujabetza dela eta, beraz, Euskal Herria ezin dela salbatu independentzia politikorik gabe²⁰⁹. Azpimarratzen du, halaber, eskubide hori, gainerakoak bezalaxe, ez zaiola Euskal Herriari kanpotik onartuko; baldin eta euskaldunek eskubide hori errespetarazten ez badute, beharrezkoa bada odolaren bidez, Euskal Herriarenak egin duela)

Inondik ere, nazio faktoreetan hizkuntzari eman zion ETAk lehendabiziko lekua. Nazioa birsortzeko Ekinen eta ETAREN helburua erabat lotuta dago Euskal Herria edo euskal arima berehalakoan desagertu daitekeela uste izatearekin. Horregatik da garrantzitsua ETARENTZAT kontzientzietan eragitea, herria dinamizatzea, eta atergabe lan egitea (Jauregi, 1981, 92 or.). Besteak beste, hori azpimarratu nahi du ETAk koaderno horretan.

Arrazaren lekuan hizkuntza pausatzeak arrazoi bat baino gehiago izan dezake atzean. Honako hauek horien artean: ETA sortu zeneko testuinguruan euskal arraza aratz baten existentzia zurriztea bideraezina zen. XX. mendearen erdialdeko fenomeno sozioekonomikoen eta kulturalen (teknologia modernoaren aurrerabideak, garraiobideen garapenak, masa komunikabideak zabaltzeak eta, oro har, bizitza maila hobetu izanak) etnien eta kulturen arteko esperientzia-trukea eta harremanak areagotu baitzituzten. Hitler-en ideologia politikoa arrazistak Bigarren Mundu Gerran eragin zuen giza hondamendiaren ondoren, aldatu egin zen *arraz*a kontzeptuaren erabilera. Diskurtso politikoen kontu handia izan zuten geroztik arrazari buruzko burutapenak egiterakoan; izan ere, arrazan oinarritutako nazio

²⁰⁹ ETAREN ustez horixe da, hain zuzen ere, Aranaren ekarpen nagusia: independentzia politikorik gabe ez dagoela euskal arima salbatzerik (Hordago, 1979, 1, 263 or.).

aldarrikapenak debekatu egin ziren (Jauregi, 1981, 135 or.; Apalategi, 1985, 164 or.). Kontuak kontu, ezin dugu aipatu gabe utzi gerra aurreko abertzaleen obrak Ekin-ETAn izan zuten eragina; eta hizkuntzalari frantsesen teorien eragina ere tartean zegoen.

2.6. Ekintza-metodoak

EAJren diskurtsoarekiko ETAk egin zuen aldaketa handienetan hirugarrena aztertuko dugu orain. Belaunaldi gazteak gerraren oihartzuna presente zeukan arren, ETAk ez zuen abertzaletasunaren diskurtsoan bortxaren aldeko arrazoibiderik izan; ANVk berak ere gaitzetsi egin baitzuen bortxaren erabilera 1936ko programan: "es repudiable el empleo de la violencia, que condenamos terminantemente" (in Krutwig, 1979, 579-586 or.). EAJren abertzaletasun ofizialari eraginkortasunik ikusten ez ziotenez, Ekinek eta ETAk lehen unetik aldarrikatu zuten abertzaletasun ekintzailea. Lehen urteetako ETAk bortxa erabiltzearen aldeko diskurtsoa eraiki eta zuritu zuen eta, teoriak praktika eskatzen zuenez, hasieratik bultzatu zuen frankismoaren kontrako ekintza zuzena (Jauregi, 1981, 136 or.; Letamendia, 1994, 252 or.).

Lehen urteetako ETAk ekintza-metodoei edo borroka-bideei buruz idatzi zuena aztertuko dugu orain. Segurtasunerako arauetara buruz ETAk idatzi zuena ikusita, badirudi, borroka armatura jotzeko giroa zegoela. Baina lehen urteetako ETako teoriarrien kezka nagusia mugimendua eta masa erantzuna sortzeko ekintza-metodoak izan ziren nagusiki (Jauregi, 1985, 202 or.). Ekintza-metodoen inguruan hausnartu zuen arren, I. Biltzarrera arte ETAk ez zuen bortxazko borroka-metodoen praktika zehatzei buruz ezer idatzi²¹⁰. I. Biltzarretik (1962) aurrera hasi zen ETaren barruan gaiaren inguruko eztabaida (1981, 136-138 or.).

²¹⁰ 1962ra arte gaiak ezer argitaratu ez izanaren arrazoiaren artean, ETako buruzagiek hartzen zituzten segurtasun neurri zorrotzak aipatzen ditu Jauregik; horrek ekarri zuela, beharbada, gaiaren gaineko isiltasuna. Edonola ere, kontuan izan behar dugu ETaren sortzaileek seigarren adarrari adar militarra deitu ziotela sortzetik beretik (1981, 136-138 or.).

Ikus dezagun, bada, lehen urteetako ETAk gaiaz argitaratu zuen koaderno bat²¹¹: *Métodos de acción (Comunismo-J.O.C.)*²¹² (Hordago, 1979, 1, 171-190 or.). Berez, hitzaldi baten transkripzioa da. Komunismoaren eta Juventud Obrera Cristiana (JOC) mugimenduaren ekintza-metodoak aztertzen ditu. Doktrina ideologikoak albo batera utzita, mugimendu horien ekintzatik ikastea da hizlariaren helburua. Ez du beraiek erabiltzen dituzten metodoen azalpen hutsa egin nahi, aztertu egin nahi ditu eta, batez ere, ETAREN ekintza indartu ahal izateko ETAREN jardueran izan lezaketen aplikazioa analizatu. Horretarako, komunismoaren ekintza-metodoak aztertzen ditu lehendabizi, bere bertuteak eta hutsuneak tarteko. Komunismoak duen eragiteko ahalmenak txunditzen du ETA; azken ehun urteetan nortasun handieneko mugimendua izatea aitortzen dio, munduko indarririk ahaltsuena izatea²¹³. Baina kritikatu ere egiten du, hala ere: erlijio ateotzat jotzen du. Biziki-ikuskerak holistikoa bezain faltsua eskaintzea leporatzen dio marxismoari; ETAK ez baitu sinesten langileei marxismoak hitzematen dien etorkizun liluragarrian, klase ezberdintasunik gabeko etorkizunean.

1961eko uztaila inflexio-puntua izan zen ekintza-metodoen inguruko ETAREN hausnarketan. Soldadu ohi falangistez beteriko tren bat errailetatik ateratzen saiatu zen Donostian²¹⁴. Jauregik dio ekintza hari erregimen frankistak eman zion

²¹¹ Hemendik aurrera trantsizioko diskurtsoan aipatuko ditugun koadernoak ETAREN dira denak, *Liburu Zurian* bildu zituenak (1960-1961).

²¹² Honako iturri hauek aipatzen ditu ETAK *Métodos de acción (Comunismo-J.O.C.)* koadernoan: Nathan Leites-en *Código operativo del Politburo*, Mac Fadden-en *Filosofía del comunismo*, eta JOCen buletinak (Hordago, 1979, 1, 190 or.).

²¹³ Komunismoaren arrakastan hiru faktorek eragin dute hizlariaren arabera. Lehendabiziko arrazoia materialismo dialektikoaren barne sendotasunean datza, bere oinarri metafisikoak ukatu ezean, nekez topatzen zaiolako kontraesanik. Arrakastarako beste arrazoi bat komunisten jarreran datza: hizlariak dio komunistek ez dutela gauza bat esan eta bestea egiten, eta ez direla egonean egoten. Komunistek ez dituztela ekintza eta printzipioak bereizten, azkeneraino kontsekuenteak direla. Azkenik, Lenin-ek eta Stalin-ek alderdi komunistari eman zioten antolaketa-egitura txalotzen du. Banan banan aztertzen ditu alderdi komunistaren arrastaren gakoak (Hordago, 1979, 1, 172 or.).

²¹⁴ 1961eko uztailean frankismoaren kontrako ekintza bat egitea erabaki zuen ETAK. *25 años de Paz* izeneko kanpaina ospatzen ari zen gobernu frankista, armetan altxatu zirela 25 urte zirelako. Uztailearen 18a ospatzera Donostiara zihoazen soldadu ohi falangistez beteriko tren bat bere lerroetatik ateratzen saiatu zen. Une berean, Donostia erdialdean etakide batzuek hiru bandera espainiar erre zituzten (Casanova, 2007, 31-32 or.).

errepresio erantzunaren²¹⁵ ondoren sortu zitzaiola ETArri galdera, ea bere helburuak lortzeko bortxazko borroka-metodoak erabiltzea tresna baliagarria ote zen ala ez; errepresioak eragin zuen nolabait gaiaren inguruko hausnarketa, metodorik egokiena zein ote zen erabakitzeko (1981, 137-139 or.). ETArri errotze-aldiko diskurtsoan aztertuko dugu ekintza-metodoen gaineko teorizazioan zer-nolako bilakaera egin zuen gero.

2.7. Nazio mugimenduekiko interesa

Aipatu berri dugu aurreko abertzaletasunaren estrategia antzua zela ETArri zentratu eta ekintza-metodoetarako eredu bila ibili zela. Horregatik aztertu zituen beste nazio susperraldi batzuen esperientziak. *Resurgimientos nacionales* (Hordago, 1979, 1, 202-221 or.) koadernoak jasotzen duen *Liburu Zurian*. ETArri analisiaren ideia nagusiak aipatuko ditugu atal honetan eta honako galdera honi erantzuten ahaleginduko gara: alegia, ea ETArri nazio askapenerako ereduren bati jarraitu ote zion ala ez.

Garrantzi handia ematen dio ETArri herri bakoitzaren aldi aldi koiuntura historikoari eta kondizioei. Frantziako Iraultzaz geroztiko mugimenduen bilakaera azaltzen du labur-labur. Lehen Gerra Handiaren ondoren independentzia lortu zuten nazioak aipatzen ditu jarraian, eta Irlandak askatasunerako bidean eman zuen pausua nabarmentzen du. Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan Afrikan eta Asian areagotu ziren mugimendu antinperialistak eta kontrakolonialistak, eta independentzia-prozesu andana aipatzen ditu gero (Hordago, 1979, 1, 202-203 or.).

Nazio bakoitza bere koiuntura historikoak bizi duen bezala, faktore partikular jakin batzuek ere bizi dute. Faktore positiboak eta negatiboak bereizten ditu ETArri. Positiboen artean hizkuntza aipatzen du lehendabizi eta hizkuntza nazio sinbolo

²¹⁵ 100 atxilotu baino gehiago; gehienak torturatu egin zituzten. Kide askok ospa egin behar izan zuen. Atxilotuei 1960ko *Decreto sobre Rebelión Militar, Bandidaje y Terrorismo* lege dekretua aplikatu zieten. Epaiketa militarrik egin eta 25 urtera arteko zigorrak ezarri zizkieten etakideei (Rafael Albisuren kasua da) (Jauregi, 1981, 137 or.).

bihurtu zaien nazioak aipatzen ditu. Erljioa eta beste nazio faktore batzuk ere jorratzen ditu: hala nola batasun geografikoa, historia, ekonomia, estrategia eta arraza. Mugimendu independentistetan ohikoak diren faktore negatiboak ere begiz jotzen ditu ETAk: hurrenez hurren konkista, tirania, klase aberatsak arrotzea edo erdalduntzea, kolonialismoa, immigrazioa, genozidioa eta elizaren esku-hartzea (Hordago, 1979, 1, 203 or.).

Nazio susperraldietan nahitaezko baldintza izan den ezaugarria goraiatzen du jarraian: alegia, baldintzarik gabeko sakrifizio-espirtua, huts egin gabe aberriaren askatasunaren alde jardutea. Horixe da ETarentzat giltzarria: euskaldunek beren buruaren kontzientzia izatea, beren helburua justua dela jakitea, eginbehar bat dutela jabetzea, duintasun kolektiboa berreskuratzea, euskal nortasunaren balioa handitzea, eta bere existentziaren alde gogor borroka egitea. Zailtasun handiak aurreikusten ditu, ordea, Euskal Herriaren askapen prozesuan. Hala ere, uste du, gogo-ohar biziarekin euskaldunek oztopoak gainditzea lortuko dutela eta ereindakoa jasoko dutela: izaten jarraituko dutela. Gainerakoan, euskal nortasunak porrot egingo duela aurreikusten du ETAk (Hordago, 1979, 1, 204 or.).

Kanpoko esperientziak behatuz, berriz, Irlandarren independentziaren aldeko borrokatik ondorio garrantzitsu bat ateratzen du ETAk: autonomia-estatutua (Home Rule) eskatzen hasten zen orduko, ahuldu egiten zela Irlandako askapen-borroka. Ahalegin guztiak eginda ere, Londreseko parlamentutik ez duelako sekula ezer jaso. ETAk dio eskarmentu hari esker, herri irlandarra konturatu zela askatasuna bere ahaleginari esker baizik ez zuela lortuko; eta orduan hasi zela askapen prozesurako bere burua trebatzen eta maniobrak egiten (Hordago, 1979, 1, 228 or.). Bere aurreko abertzaleen jarrera kritikatzeko zentzu horretan.

Gogora dezagun hasieran egin dugun galdera: nazio askapenerako mugimenduren bati edo besteri jarraitu al zion ETAk? Apalategik dio ETAk ez zuela eredu bakar bat bere osotasunean onartu eta jarraitu. Horrek ez du esan nahi, jakina, garaiko beste nazio askapen eta iraultza esperientziei begira egon ez zenik; ikusi dugun bezala,

arreta handiz aztertu zituen beste esperientzia batzuk. Apalategiren ustez beste nazio askapen prozesu batzuk arakatuta ETAk frogatu nahi zuen iraultza bat ez dela arrakastaz arrakasta gertatzen den prozesua eta, beraz, erresistentzia etengabea eta sendoa ezinbestekoa dela (1985, 228, 233 or.).

2.8. Euskal Herriarentzako eredu politiko, ekonomiko eta soziala

Auzi honetan ere hasieratik azaldu zituen ETAk Aranaren diskurtsoarekiko ideia berriak. Nolanahi ere, ikusiko dugun bezala, lehen urteetako ETAREN diskurtsoa oso bestelakoa da 60ko hamarkadaren amaierarako taxutu zuen diskurtsotik. Hasierako ETAk gaiaz apailatu zituen bi koaderno aztertuko ditugu atal honetan. Lehendabizikoan, *Presente y futuro político, económico y social de Euzkadi* (Hordago, 1979, 1, 235-251 or.) izenekoan, oinarrizko egitura sozial bat zedarritzen ahalegintzen da ETA: hain zuzen, euskal nazioak bere bizimodua garatu ahal izateko oinarrizko premisa batzuk ezarri nahi ditu baina ez du oraindik jendarte-eredu konkretu baten alde egiten. Arbasoengandik balio diona hartu nahi du eta etorkizuna eraiki. Koaderno horri buruz arituko gara hurrengo azpi-ataletan.

2.8.1. Euskal Herriaren orainaldi eta etorkizun politikoa

Lehenik eta behin, Euskal Herriko egoera politikoaren diagnostikoa egiten du ETAk: hala nola Hego Euskal Herriko diktadura-egoerarena, Eusko Gobernuaren egoerarena, eta erbestean dauden alderdi politikoena. Ez dugu horretan sakonduko, Euskal Herriaren etorkizun politikoaz pentsatzen duena aipatuko dugu hemen. Francoren diktadura bukatzerakoan testuinguru berria irekiko da parez pare eta, uste izatekoa zen bezala, galdera asko sortuko direla aurreikusten du ETAk. Galdera horiek erantzuten ahalegintzen da koaderno honetan (Hordago, 1979, 1, 235-251 or.).

Euskal Herriaren antolaketa politikorako bost aukera aipatzen ditu: 1) Hego Euskal Herriko herrialdeak Espainiako Estatuaren barruan antolatzea eta Ipar Euskal

Herrikoak Frantziako Estatuaren barruan; 2) Hego Euskal Herrian Espainiako Federazioa eta Ipar Euskal Herrian Frantziako Federazioa antolatzea; 3) aurreko federazioen bidez, Euskal Herria Europan integratzea; 4) aurreko federazioen bitartekaritzarik gabe, Europako federazioan zuzenean integratzea; eta 5) erabateko independentzia. Erabateko independentziaren alde egiten du ETAk. Nazio nortasuna salbatzeko modurik onena iruditzen zaio, euskal nazioa munduaren aurrean gehien garatuko duen eredia baita. Ekonomikoki gerta liteke hasieran arrakasta handirik ez izatea, baina espainolekin eta frantsesekin izandako eskarmentua ikusita aukerarik onena horixe da ETAREN ustez.

Independentzia Euskal Herri osoarentzat nahi du ETAk, sei herrialdeentzat. Irlanda, Israel edo Txipreko esperientzian oinarrituta, ETAk jakinarazten du herritarrek (gazte abertzaleek batez ere) eskuratu beharko dutela independentzia hori. Ez diela inork oparituko eta, beraz, ezin dela kanpo laguntzaren zain geratu. Zentzu horretan, alden egin zen ETA erbestean zegoen Euskal Gobernuaren diskurtsotik. Independentziaren aldeko borrokan bi zeregin nabarmentzen ditu ETAk jarraian: euskal nortasuna desagertu ez dadin euskal arimaren zer-nolako guztiak babestea eta garatzea, batetik, eta tiranoa agintetik botatzea, bestetik. Tiranoa agintetik botatzeko ezinbesteko lana da ETAREN esanetan gazte, ikasle eta langile eremuetan, kezka eta ezinegona zabaltzea eta, aldi berean, elkarriketarako giroa sortzea. Horrek porrot eginez gero, berriz, armetarako giroa eta aldartea hedatzea proposatzen du. Ez da nahikoa gazteak konbentzitzeko propaganda zabaltzea edo mendiak ikurrinaz jostea; horrekin batera, eta horretaz gainera, behar beharrezkoa da ETAREN ustez jendea askatasunaren alde bizitza eta ondasunak sakrifikatzeko prest egotea, eta euskaldunek aberriaren alde batera borroka egitea.

2.8.2. Euskal Herriaren orinaldi eta etorkizun ekonomikoa

Euskal Herriko egoera ekonomikoaren diagnostikoa egiten du ETAk: nazio errenta, ekoizpena, prezio-mailak eta kanpo merkataritza aztertzen ditu horretarako. Esparru horietan etorkizuneko Euskal Herri autonomo edo independente batean zer

aldatuko lukeen aipatzen du gero. Ez dugu horietan sakonduko, ideia batzuk besterik ez ditugu azpimarratuko. Nazio errentaren kasuan aberastasunaren berdintasunezko banaketa aldarrikatzen du. Euskal ekoizpenaren estatistika-azterketa bat ere egiten du ETAk. Etorkizuneko Euskal Herriak jarraitu beharko lituzkeen ildo ekonomiko nagusiak aipatzen ditu. Besteak beste, energia-iturri berriak aurkitzeko lana sustatzea aipatzen du; orobat, iturri nuklearra baliatzea proposatzen du. Aintzat hartzekoa da lehendabiziko ETAk iturri nuklearrekiko agertu zuen interesa: "La utilización pacífica de esta revolucionaria fuente de energía, es interesantísima por su elevado rendimiento en relación al volumen de material a importar" (Hordago, 1979, 1, 242-243 or.).

Nazioarteko merkataritza ere aztertzen du. Ohartarazten du, nazioarteko merkataritzan estruktura-aldaketa sakonak gertatzen ari diren neurrian, ez dela oso zentzuzkoa hari buruzko proposamen doituegirik egitea. Nolanahi ere, ezartzen du oinarri bat bederen: hots, euskal estatuak muga- edo aduana askatasuna handitzearen alde egingo duela. Eta uste osoa du Euskal Herriaren egoera ekonomikoak konpetentziari aurre egiteko aukera ematen duela, nahiz eta, onartzen duen hasieran euskaldunek neke handiak hartu behar izango dituztela.

2.8.3. Euskal Herriaren orinaldi eta etorkizun soziala

Esparru soziala ere aztertu zuen ETAk: herriaren diagnostikoa egiten duenean ETAk ez du gatazka soziala klase sozial ezberdinen arteko antagonismoan kokatzen²¹⁶ (Jauregi, 1981, 96 or.). Euskal jendarteko hainbat arlo aztertzen ditu. Gure ikerketarako interesatzen zaigun auziaren gainean dioena aztertuko dugu soilik. Hala, immigrazio masiboaz hitz egiten du ETAk, eta beste bizimodu batzuk eta

²¹⁶ ETAk dio Euskal Herriko egoera politikoak eta langileen soldata baxuek eta lanordu luzeek asko baldintzatu dutela euskal jendartearen maila intelektuala. Horrelako baldintzetan, dio ETAk, ez da erraza izaten idealismorako joera zabaltzea eta jendartea bere erantzukizunaz jabetzea. Horregatik uste du eremu askotan ez dagoela aberriarekiko ilusiorik eta norbanakoaren eta kolektibitatearen erantzukizunik. Horrelako baldintzetan gutxitu egiten baita kolektibitatearen ekimenerako interesa; eta handitu egin ohi da ugazabarekiko eta agintariekiko gorrotoa eta tirabira. Iritzi horretan nabarmena da lehen urteetako ETAk gatazka soziala ez duela klase gatazkarekin lotzen (Hordago, 1979, 1, 235-251 or.).

euskal izaerarekin zerikusirik ez duten ohiturak ekarri dituela azpimarratzen du. Adierazten du euskaldunek erreazionatzen ez badute, immigrazio horrek ito egingo duela Euskal Herria. Euskalduntasuna desagertzeko arriskua oso handia da ETAREN ustez eta, horren aurrean, bide bakarra ikusten du: euskaldunen arteko ezberdintasun guztiak ahaztea, elkarrekin lan egitea eta euskalduntasuna babesteko neurri politikoak ahalik eta lasterren ezartzea²¹⁷.

Klase kapitalista eta langile klasea ere hartzen ditu ahotan. Funtsean, klase kapitalistaren egoera pribilegiatua eta jasotzen duen estatu babesa kritikatzeko eta erruki da langile klasearen egoera tamalgarriaz²¹⁸.

Euskal Herriaren diagnostikoa eginda, balizko euskal estaturako eredu sozialaz egiten du hausnarketa. Ez du programa sozial zedarrizturik aurkezten, uste baitu, mugimendu nazionalista baten barruan ideia ezberdinak egon daitezkeela. Baina, hori bai, marra gorri batzuk markatzen ditu. ETAK ohartarazten du balizko euskal estatuan ekoizpen-ondasunak ezin direla esplotaziorako tresna bihurtu; aitzitik, herritar guztien bizibidea eta maila materiala hobetzeko bitartekoak izan beharko lirateke. Estatuaren funtsezko egitekoa horixe baita, guztien onura kontuan izatea. Ez du estatu paternalismorik nahi baina, hala ere, esaten du jendartearen funtzionamendua berdintasunean eta justizian oinarritu behar duela estatuak (Hordago, 1979, 1, 247 or.).

ETARENTZAT ezinbestekoa da etorkizuneko euskal estatuan sistema demokratikoa ezartzea, eta, jakina, horren barruan elkartze- eta iritzi-askatasuna bermatzea, langileek sindikatu libreak sortu ahal izatea, eta grebarako eskubidea edukitzea.

²¹⁷ Immigrazioari buruzko ETAREN lehendabiziko diskurtsoaz ari garen honetan aintzat hartu beharrekoa da Ekin-ETA mugimendua sortu zuten teorialarien jatorria; izan ere, ideologo haietako gehienak EAJtik edo bere ingurutik zetozen. ETAREN lehendabiziko idatzietan nabarmena da EAJren diskurtsoaren eragina. Nolanahi ere, Apalategik dio immigrazioarekiko ETAREN ikuspegiaren aldaketa txiki bat antzeman daitekeela hasiera-hasieratik (1985, 161 or.). Aurreraxeago aipatuko dugu berritasun hori.

²¹⁸ Jauregik dio bigarren mailako gaiak direla ETARENTZAT euskal jendartearen antolaketa eta langileen egituraketa. Euskaldunek lanerako joera berezkoa izan dutela eta Euskal Herrian armonia soziala nagusitu dela esaten du hasierako ETAK (Hordago, 1979, 1, 249 or.); Jauregiren ustez ikuspegi mitiko horrek asko eragin zion lehen urteetako ETARI langile klasearen ikuspegiaren (1981, 98 or.).

Aberastasunaren banaketaz ere hitz egiten du ETAk; ildo horretan, gomendatzen du banaketa justuago bat egin behar dela etorkizuneko euskal estatuan. Hainbat neurri aipatzen ditu horretarako²¹⁹. Apalategik dio ETAREN garai hartako hausnarketak zehaztasun handiegirik gabekoak direla eta, funtsean, liberalismo ekonomikoa hobesten zuela; humanizatua baina, azken buruan, kapitalista. Kontraesanean ikusten du Apalategik ETAREN diskurtsoa, liberalismo ekonomiko kapitalista defendatzen duen aldi berean, berdintasun ekonomiko eta soziala aldarrikatzen duelako. Elizaren doktrinan oinarritutakoak dira ETAREN orduko printzipioak (1985, 218-221 or.).

Konpontzeko *arazorik* zailenetako bat immigrazioaren kudeaketa izango dela aurreikusten du. Hiru zailtasun-mota gainditu beharko ditu etorkizuneko euskal estatuak: lehenik, ekonomikoa, bigarrenik, morala eta, azkenik, politikoa. Ekonomiaren arloan eskulanaren beharra gutxitzea proposatzen du ETAk, immigrazioaren emaria eten ahal izateko. Gaurko talaiatik begiratuta harrigarri suerta baliteke ere, honako neurria proposatzen du ETAk: epe labur samar batean lana automatizatzea, era horretan, makinek langileak ordezkatu ditzaten. Espezializatu gabeko lanetan egitea proposatzen du gainera, etorkin gehienak kategoria horretako langileak direla kontuan hartuta. Eskulanaren beharra ez litzateke, horrela, hain handia izango. Ikuspegi etikotik begiratuta, kontraesan handia sortzen zaio ETARI: etorkina biktima gisa agertzen zaio eta, aldi berean, zapalketa espainolaren (genozidioaren) agente gisa²²⁰.

²¹⁹ Besteak beste honako hauek: soldatak kopuru duin batetik gora igotzea, etekinetan parte hartzeko edo industria-jabetzak kolektibizatzeko sistemak ezartzea, edo langileek enpresen kudeaketan parte hartzea. Euskal Herriaren tradizioa aintzat hartuta, industria-, nekazari- eta arrantza-kooperatibak sortzea proposatzen du. Zortzi orduko lanaldia defendatzen du eta belaunaldi gazteen heziketa eta prestaketa bermatzeko Euskal Unibertsitatea sortzea (Hordago, 1979, 1, 247-248 or.).

²²⁰ Garrantzitsua iruditzen zaio ETARI genozidioaren gaia mahai gainean jartzea, honako ideia hau azpimarratu nahi duelako: etorkinek eskubideak dituzten bezala, euskaldunek ere badituztela, eta batzuen eta besteen eskubideak aitortu eta aplikatu behar direla. Onartezina iruditzen zaio etorkinen eskubideez soilik hitz egitea, euskaldunek herri bezala dituzten eskubideak zapalduta daudenean. Esaten du espainolek bezala traidoreek ere, ez dutela euskal arima salbatzeko beharrik ikusten, ez dutela zapalketarik ere ikusten. Lehendabiziko ETAREN immigrazioaren aurreko diskurtsoa argia da idatzi honetan, eta ideia honetan laburbiltzen da ondo: "RECONOCEREMOS SUS DERECHOS SOLO A LOS INMIGRANTES QUE RECONOZCAN LOS NUESTROS. A los otros los consideramos como maketos

Hirugarrenik, irtenbide politikoen arloan ETAk esaten du ezinezkoa dela, utopia bat dela etorkinak Euskal Herritik kanporatzea. Beraz, garrantzitsuagoa iruditzen zaio Hego Euskal Herrian urte batzuk daramatzaten etorkinak "asimilatzea" edo eskulanaren beharrak ondo antolatzea.

2.9. Akonfesionaltasuna

Aranak euskal balioetan oinarritutako tradizionalismoan ardaztu zuen abertzaletasuna; Aranaren definizioan bereiztezinak dira euskaldun eta abertzale izatea, eta katolikotasuna. EAJren diskurtsoarekiko ETAk egin zuen jauzi handienetan laugarrena aztertuko dugu hemen. Lehen idatzietan ez da bilakaera handiegirik nabari, EAJren diskurtsotik hurbil segitzen du. Badirudi, *Personalidad nacional y patriotismo* (1960-1961) koadernoan aipatu zuela lehen aldiz ETAk abertzaletasuna eta erlijioa bereizteko beharra. Ikusi dugunez, Aranaren ideologiaren alderdi asko onartu zituen ETAk hasieran baina, jakina denez, arraza nazioaren oinarri izatea eta konfesionaltasuna berehala baztertu zituen (Jauregi, 1981, 215-216 or.).

Jauregik dio jarrera erradikala eta aitzindaria dela ETarena: izan ere, komunitate abertzalearen jatorri soziologikoa oso erlijioso zen eta euskal jendartean elizak ikaragarritzko itzala zuen. Lehendabiziko etakide gehienek ere sentimendu erlijioso handia zuten. Haatik, testuinguruak eta beraien erlijiotasun handiak ez zien eragotzi eliza katolikoari, bereziki eliza-hierarkiari, gogor kontra egitea. Gerra aurretik EAJren barruan izan ziren zatiketa akonfesionalen eragina ere ezin dugu aipatu gabe utzi²²¹ (1981, 132 or.).

Ekinen koadernoetan eta I. Biltzarraren aurreko *ETAren koadernoetan (Liburu Zurian)* ez dago Elizari edo erlijioari berariaz eskainitakorik (Hordago taldeak

al servicio del genocidio español, y los trateroms [sic] como agentes extranjeros" (Hordago, 1979, 1, 269 or.; letra larria jatorrizkoan).

²²¹ Gerra aurreko abertzaletasunak ETAn izan zuen eraginaren artean erlijio askatasunarena aipatzen du Jauregik (1981).

jasotako en artean behinik behin). Eskura izan ditugun koadernoak aztertuta, badirudi, Liburu Zuriko *Nuestra responsabilidad* izeneko koadernoan aipatu zuela jainkoa lehen aldiz. Eta gero *Moral de resistencia nacional* eta *Personalidad nacional y patriotismo* koadernoetan jainkoa, erlijioa eta Eliza mintzagai ditu uneren batean. Ikus ditzagun aipamen horiek.

Gaurko talaiatik begiratuta, eta ETAREN ondorengo bilakaera ezagututa, bitxiak egin litezke gaiari buruzko ETAREN lehen dokumentuak. *Nuestra responsabilidad* (Hordago, 1979, 1, 161-169 or.) koadernoan abertzale eta pertsona orok bere erantzukizunaren ardura hartu behar duela esaten du ETAK. Hiru erantzukizun-mota bereizi zituela esan dugu: hurrenez hurren Jainkoarekikoa, aberriarekikoa eta jendartearekikoa. Jainkoaren aurreko erantzukizunaz hitz egingo dugu hemen. ETAREN ideia nagusia honako hau da muin-muinean: euskal ondare espirituala eta soziala hurrengo belaunaldiei indartuta transmititzeko erantzukizuna dutela euskaldunek. Eta jakinkoa aipatzen du hor: "(...) pues Dios y ellas [etorkizuneko belaunaldiek] nos exigirán en la Eternidad y en la Historia, cumplida cuenta de esa ineludible misión" (Hordago, 1979, 1, 164 or.).

ETAK nabarmentzen du kristau federik gabeko jende askori piztu zaiola sentimendu abertzalea. Euskal Herriaren ezaugarrietako bat horixe izan baita: norberaren kontzientzia errespetatzea eta fanatismo intrantsigentea salatzea. Abertzaletasunak ere halaxe jokatu behar du ETAREN ustez. Baina beste alderdia ere azpimarratzen du; hots, "euskal arrazaren ariman" erraz eta sakon sustraitu dela kristautasuna. Arana izan zen horietako bat; printzipio kristau sendoko pertsona zen eta ETAK dio printzipio horiek eman ziotela justizia-betebeharraren zentzua. Zentzu horrek gidatu zuen, era berean, ideal abertzalean. Esker ona adierazten dio beste behin ere Aranari; eransten du, euskaldun konfesionalek bezala akonfesionalek ere asko zor diotela aberriaren susperraldian. Izan ere, ETAK aitortzen dio bere espirituak markatu diola bidea Ekin-ETAREN belaunaldiari. Xehetasunetan sartuta, zati hori guztia kendu egin zuen gero ETAK koaderno berrargitaratu zuenean. Errotze-aldiko diskurtsoan aztertuko dugu hori.

EAJk ez bezala ETAk bereizi egin zituen abertzaletasuna eta fedea; horrek ahalbidetu zion hain zuzen akonfesionaltasunerako pausua ematea. Izan ere, ETAk batera ikusten ditu aberrigintzan ateoak, kristauak eta agnostikok. Eta adierazten du aberriaren izenean ezin zaiola inori erlijio-jarrerara jakin bat eskatu, fedea egia batzuen onarpen-ekintza askea delako. Absurdoa da, ETAREN iritziz, abertzale ona izateko fedea kontuan hartzea. Euskaldun ateoak ere badirela esaten du eta ETAk ez ditu jarduera abertzaletik baztertu nahi, ez ditu epaitu nahi. Aldi berean, kristautasunak Euskal Herriaren historian izan duen garrantzia azpimarratzen du hemen ere.

3. ETAREN I. BILTZARRA (1962): inflexio puntua

1961eko uztailan ETAk egin zuen trenaren ekintzari²²² errepresio handiz erantzun zion gobernu frankistak. ETAREN antolaketa-egitura asko larriki kaltetu zuen poliziak; kide asko atxilotu baitzituen eta buruzagi gehienek ihes egin behar izan zuten. Horren ondorioz, ETAk gelditu egin behar izan zuen bere jarduera, ordura arte egindako lana aztertzeko eta etorkizuneko oinarrizko gidalerroak zeintzuk izan zitezkeen zehazteko. Helburu horrekin antolatu zuen ETAK I. Biltzarra 1962ko maiatzean, Belokeko beneditarren monasterioan (Ahurti, Lapurdi). Hamalau ordezkari bildu ziren (gizonezkoak denak) eta biltzarreko erabakiak adierazpen batean bildu zituzten: *Zuzenbide (Principes, Principios)*. ETAREN lehen oinarri ideologikoak biltzen zituen dokumentua da (Jauregi, 1981, 139 or.; Bruni, 1995; Casanova, 2007, 31-34 or.).

Hiru atal ditu *Zuzenbide*ak. Lehendabiziko zatian, bere burua definitzen du ETAK eta erakundearen helburu orokorrak zehazten ditu: "ETA Euskal-Erakundeak bi elburu edo xede nagusi artu ditu bere eginbidearen gidaritzat: Aberriaren Azkatzea, eta Erriaren beraren Azkatzea. Abertzale Ekintzan sortua da, eta ez du iñolako zer-

²²² 1961eko uztailan frankismoaren kontrako ekintza bat egitea erabaki zuen ETAK. *25 años de Paz* izeneko kanpaina ospatzen ari zen gobernu frankista, armetan altxatu zirela 25 urte zirelako. Uztailaren 18a ospatzera Donostiara zihoazen soldadu ohi falangistez beteriko tren bat errailetatik ateratzen saiatu zen. Une berean, Donostia erdialdean etakide batzuek hiru bandera espainiar erre zituzten (Casanova, 2007, 31-32 or.).

ikusirik lehenagoko partidu, erakunde edo elkargorekin" (Hordago, 1979, 1, 526 or.). Euskarazko bertsioan *erakunde* izendatzen du ETAk bere burua baina erdarazko bertsioetan *Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu Iraultzaile* kontzeptua darabil.

Gainerako herriek bezala Euskal Herriak ere, bere buruaren jabe izateko eskubidea duela aldarrikatzen du ETAk; eta bitartekoez hitz egiten du: "Azkatasun ori lortze arren, aldiari eta uneari dagozkien biderik egokienak erabilliko ditu" (Hordago, 1979, 1, 526 or.). Ez du, artean, ekintza-metodo zehatz baten alde garbi egiten. Jauregik dio, funtsean, I. Biltzarretik aurrera hasi zela ETAREN barruan gaiaren inguruko eztabaida: 1962ko bigarren sei hileko osoan eta 1963ko lehen hilabeteetan (1981, 137-138 or.).

ETAREN helburu gorena ez da Euskal Herriaren independentzia baina horixe da, bere ustez, Euskal Herria bere esparru guztietan sendotzeko bide bakarra. Eta *Euzkadi* sei herrialdez osaturiko Euskal Herriarekin parekatzen du: "Kondairan barrena Euskal-Erria osatu zuten eskualdeak osatzen dute gaurko Euzkadi ere. Ots: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa'k" (Hordago, 1979, 1, 526 or.).

Agiriaren bigarren zatian ETAREN egitaraua agertzen da, esparru politikoan, sozialean eta kulturean zehaztu zituen helburuak. Politikari buruzko atalean honako hau finkatzen du: Euskal Herrira herriak berak aukeraturiko eta izendatutako aginte demokratikoa ekartzen ahaleginduko dela. Aginte hori euskaltasunaren zerbitzuan arituko dela eta pertsonen eskubideak oso-osorik gordeko dituela. Orobat esaten du eskubide horiek ezin direla Euskal Herriaren askatasunaren kaltetan erabili; ezta diktadura bat ezartzeko (izan faxista edo komunista), edo klase²²³ politiko, sozial, ekonomiko edo erlijio-klase jakin baten interesetan erabiltzeko ere. Euskal herri politikoa egituratzeko orduan,

²²³ *Taldexkilla* hitza erabiltzen du klasea esateko.

deszentralizazio handienaren alde egiten du; udalerraren eta herrialdearen zeregina goraiatzeko du²²⁴ (Hordago, 1979, 1, 526 or.).

Europaren integrazio federalista aldarrikatzen du ETAK, betiere, nazionalitateen mailan egiten den neurrian, eta esparru politikoan, sozialean, ekonomikoan eta kulturean pertsonen eta herrien mesedetan jarduten duen neurrian. Ez du estatuen Europarik onartzen²²⁵, ezta pribilegioak eta pribilegioek sortzen dituzten zapalketa formak mantentzen dituen Europarik ere. Estatuen arteko mugak kendu egin behar direla aldarrikatzen du (Hordago, 1979, 1, 526 or.).

Atzerrian bizi diren euskaldunak Euskal Herrira itzularazi behar direla gomendatzen du gero²²⁶ (Hordago, 1979, 1, 526 or.). Eta arrazakeria gaitzesten du; ez du onartzen herri bat beste bati gailentzea edo etorkinak erbesteratzea edo segregatzea (betiere, Euskal Herriaren interesen edo eskubideen kontra egiten ez duten bitartean). Militarismoa ere kondenatzen du eta, gaineratzen du, Euskal Herrian dagoen espainiar azpiegitura militarra bertan behera kenduko dela. Eta, jakina, akonfesionaltzat jotzen du bere burua: "E.T.A. akonfesionala da, eta alakoxea nai du ere Euzkadi'ren Legedia" (Hordago, 1979, 1, 527 or.).

Herri mailan honako proposamen hauek egiten ditu ETAK. Batetik, etorkizuneko euskal ekonomian liberalismo ekonomikoa desagertzea. Bestetik, jabetzaren estatusa goitik behera aldatzea eta, horretarako, esaten du legeak jabetzaren dimentsio soziala zaindu behar duela. Baliabideak eta aberastasuna sozializatu egin behar direla ere adierazten du; esaterako, kooperatibak laguntzen bidez indartzea proposatzen du. Funtsean, Euskal Herriko ekonomia herriaren mesedetan

²²⁴ Jauregik dio euskal komunitatearen egituraketa politiko deszentralizatuaren aldeko jarrera hartan nabarmena dela EAJren eragina: bitarteko erakundeak (udalerrak eta herrialdeak) administrazio-egitura politiko gisa onartzea batez ere. Berez esaten du abertzaletasunaren barneko korrante guztiek egin dutela bat alderdi horretan (1981, 144-145 or.).

²²⁵ Erdarazko bertsiotan agertzen da ideia hori argiago (Hordago, 1979, 1, 528, 530 or.).

²²⁶ ETAK bilatzen duen nazioaren eraberritze globalean kokatzen du Jauregik ideia hori; nazioa birsortzeko lanean euskaldun guztiek lagundu behar dutela aldarrikatzen baitu ETAK. Jauregik dio, aurretik, Venezuelan erbesteraturik zeuden euskaldunenek adierazi zutela ideia hori 1960an argitaratu zuten *Manifiesto de Caracas* izeneko agirian. Sionismoak bultzatutako mugimenduekin lotzen du Jauregik (1981, 143 or.).

planifikatu behar dela aldarrikatzen du ETAk; sindikatu, fabriketako batzorde, eskualdeetako elkargo eta udalen bitartekaritzaren bidez, ekonomia demokratizatzea (Hordago, 1979, 1, 527 or.). Egia esan, beste hainbeste proposamen konkretu ere egiten ditu arlo sozioekonomikoan²²⁷.

Kulturari²²⁸ eskaintzen dion zatian ETAk ohartarazten du euskara dela Euskal Herriko hizkuntza bakarra, eta historian izan duen lekua berreskuratu behar duela: hots, euskaldun guztien hizkuntza izatea. ETAREN ustez, erabateko lehentasuna eta ofizialtasuna izan behar ditu euskarak. Baina egoera soziolinguistikoa ikusita, behin-behinean, erregimen hirueleduna onartuko litzatekeela esaten du. Premiazko helburu gisa, euskal unibertsitatea sortzea proposatzen du, norbanakoen mesedetan izateaz gainera, aberria (nazio kontzientzia) esnatzen eta sendotzen lagunduko baitu. Eta euskaltasunaren adierazpen eta ezaugarriek laguntza ofiziala jaso behar dutela aldarrikatzeaz gain, Euskal Herri osoan zabaldu behar direla eranstu du²²⁹ (Hordago, 1979, 1, 527 or.).

Agiriaren hirugarren eta azken zatian gainontzeko indar abertzaleei dei egiten die ETAK Euskal Herriaren askatasuna lortzeko bidean batera jardun dezaten: "Abertzale diran euskaldun partidu, indar eta erakundeekin alkarrartuta lanegin nai du E.T.A.'k. Berdin ere nun-naiko erakunderekin alkarrartuta jokatu nai du, gaur Euzkadi'k jasaten duen zanpatzearen aurka burrukatu nai ba dute oiek" (Hordago, 1979, 1, 527 or.).

²²⁷ Besteak beste, honako hauek: lehentasuna lanari ematea, ez kapitalari, baina lantegiaren kudeaketan eta irabazietan biek hartu behar dute parte proportzionalki; zerga progresiboaren bidez irabaziak eta ondasun-iturriak mugatzea; jendarte-aseguruetan legislazio justu eta duina egitea; sindikatuak jotzen ditu demokrazia ekonomikoaren ezaugarriak edo tresnarik sendoena; eta, halaber kultura herriaren eskura jartzea, kultura demokratizatzea, hori baita, bere esanetan, jendarte justu bat egituratzeko oinarri nagusia (Hordago, 1979, 1, 527 or.). ANVren 1936ko programa politikoaren (ikus Krutwig, 1963, 583-586 or.) eragina ikusten dute Krutwig-ek (1963, 293 or.) eta Beltzak (1977) ETAREN proposamen sozioekonomikoetan. Jauregik ordea kontrakoa uste du: ez duela ANVren eraginik, Aberri eta Jagi-Jagi taldeena baizik. Jauregiren ustez ANVren egitaraua *Zuzenbide* baino aurrerakoiagoa da auzi honetan, ETAREN proposamenak anbiguoagoak baitira (1981, 145-146 or.).

²²⁸ *Jakintza* erabiltzen du euskaraz eta *Culture Nationale* eta *Cultura Nacional* erdaraz.

²²⁹ Apalategik dio kulturaren esparruan ETAK zehaztu zituen irizpideak izaera orientatzailea dutela, ez dela programa aldaezin eta finko bat (1985, 245 or.).

Mugimendu berriarentzako gorputz ideologikoa garatu nahi izan zuen ETAk Zuzenbiden. Ekinek eta ETAk egin zuten ikerketa eta hausnarketa lan handiaren emaitza bildu eta sintetizatu zuen bertan. Jauregik aurreko abertzaletasunarekin partekatzen dituen osagaiak nabarmentzen ditu: 1) Aranz geroztiko abertzaletasunaren esperientzia ideologiko eta politikoa berraurkitzea; 2) Euskal Herriaren egoera tamalgarriaren aurrean, herria birsortzeko espirtu indar argia²³⁰; 3) abertzaletasun historikoaren ondare ideologikoa bere egitea, bere baitako korrante ideologiko eta kontraesan guztiekin²³¹; 4) aranismoak batzen zuen ideologia heterogeneotasuna izatea²³² (Jauregi, 1981, 139-140 or.).

Bruni-k eta Casanovak gerra aurreko eta osteko abertzaleen arteko etena²³³ nabarmentzen dute jarraipena baino gehiago. Gerra aurreko diskurtso abertzalearekiko ETAk Zuzenbiden egin zituen berritasunak azpimarratzen dituzte: 1) akonfesionaltasuna; 2) ekonomia liberalaren kontrako jarrera, eta bitartekoen eta industriaren sozializazioa aldekoa; 3) espainiar indar militarrek ezabatzearen aldeko

²³⁰ Aranzaren lekukoa hartzea berari zegokiola sentitzen zuen ETAk, espirtu abertzalea berriz osatzeko eta biziberritzeko erantzukizuna hartu zuen bere gain (Jauregi, 1981, 141 or.).

²³¹ Jauregik dio abertzaletasun historikoaren ondare ideologikoa ETAk bere gain hartu zuenean, abertzaletasunaren barruko joera ezberdinekin eta kontradikzioekin egin zuela topo. Garbiketa handia egin behar izan zuen ETAk bere ideologiarekin bat zetozen ideiak bere egiteko eta gainontzekoak baztertzeko. Aranismoak biltzen zituen joeretan Aranzaren ideologiaren alderdirik erradikalena, eta Aberri eta Jagi-Jagi taldeena interesatzen zitzaion gehien ETari. ANVren printzipio batzuekin ere bat egin zuen. Jauregiren ustez abertzaletasunaren bilakaerako esperientzia eta kontraesan haiek guztiak biltzen ditu ETAk Zuzenbideko oinarri ideologikoetan. Gainera, abertzaletasunaren ideologia eta jardura mende laurden batez gelditu egon izanari egin behar izan zion aurre ETAk (1981, 143-147 or.).

²³² Aranismoaren barruko ideia batzuk bere egin bazituen ere, oro har, ETari ez zioten balio garaiko euskal jendarteak zituen arazo konplexuak ulertzeko. ETA sortu zeneko Euskal Herriko testuinguru soziologiko, politiko eta ekonomikoa, ezberdina baitzen. Beharrezkoa egin zitzaion, beraz, abertzaletasunaren esparrutik haratagoko beste iturri ideologiko batzuetara jotzea. Ideia berriak barneratzen joan ahala, eta ideia berrien eragina ETAn handiagoa izan ahala, ETaren barneko heterogeneotasun ideologikoa azalera aterako da. Aurretik, Jauregiren ustez, aranismoak nolabaiteko kohesioa ematen baitzion, elementu bateratzaile moduan jarduten zuen nolabait. Eta abertzaletasunaren baitako kontraesanak ere azaleratuko dira berriro; izan ere gerraren etenarekin jarraipenik gabe geratu ziren baina, hala ere, ETAk abertzaletasun historikoa berraurkitzeko ahaleginari esker agertu egin dira berriro (1981, 147 or.).

²³³ Jauregik ere onartzen du gerra aurreko abertzaletasunaren eta gerra ondorengo belaunaldi gaztearen artean izandako haustura. Etenak bultzatu zuen, hain zuzen, ETA nazioa birsortzeko ahaleginera, abertzaletasun historikoa eraginkortasunik gabe hilda ikusten baitzuen. Espirtu abertzalea berriz osatzeko eta biziberritzeko erantzukizuna berari zegokiola sinetsi zuen (1981, 141 or.). Krutwig-ek ere gerra aurreko eta osteko belaunaldien etena nabarmentzen du *Vasconian*. Horregatik esaten du iparrik gabe belaunaldi gazteak ideal propioak sortu behar izan zituela eta, horretarako, munduko beste herri batzuen ereduak jo behar izan zuela (1963: 9).

jarrera. Dakusagunez, aurreko abertzaletasunetik aldenduz zihoan ETA (Bruni, 1995, 40-41 or.; Casanova, 2007, 35 or.).

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu gerra aurreko diskurtso abertzalearen eragina izan bazuen ere, *Zuzenbiden* elementu berritzaileak txertatu zituela ETAk bere oinarri ideologikoak finkatu zituenean. Sortu zenetik I. Biltzarrerara arteko hiru urteetan EAJtik urruntzen aritu zen etengabe, bai ideologian eta bai estrategian. Eta I. Biltzarraren ondoren hasi zen ETA egiazki bere berariazko bidea egiten eta euskal komunitatean errotzen. Inflexio-puntua izan zen, beraz, abertzaletasun historikotik ETAREN abertzaletasun berrirako bilakaeran (Jauregi, 1981, 88, 147 or.). 1962tik luzaroan elikatu zen eta *Zuzenbidetik*. Baina, aldi berean, printzipio haiek berritzen eta egokitzen aritu zen atergabe.

4. ETAREN nazio diskurtsoaren errotze-aldia (1962-1968)

ETAREN trantsizioko diskurtsoa jorratuta, errotze-garaiko diskurtsoaren ardatzak aztertuko ditugu atal honetan: I. Biltzarra (1962) egin eta lehen printzipioen agiria idatzi zuenetik V. Bitzarrean (1966-1967) heldutasun politikora iritsi zen arte. Estatu frankistaren errepresio gogorra jasan bazuen ere, ETAREN oinarri ideologikoak errotzen joan ziren bere inguruko mugimenduan eta euskal herrietan (Apalategi, 1985, 242 or.; Casanova, 2007).

4.1. Akonfesionaltasuna eta eliza-hierarkiari kritika

I. Biltzarreko (1962) agirian bere burua erakunde akonfesional gisa definitu ondoren, aurreko bi koaderno berrargitaratu zituen ETAk orain: *Moral de resistencia nacional* eta *Nuestra responsabilidad*. Aldaketa batzuk egin zituen bertsio berrietan eta atal honetan erlijioaren gaiari dagozkion aldaketak aletuko ditugu. ETAk gaia aztertzeke propio prestatu zuen hirugarren koaderno bat (*Iglesia y Estado*) eta *Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos* agirian esandakoa ere aztertuko ditugu.

Bizpahiru urte pasatu ziren ETAREN *Moral de resistencia nacional* koadernoaren lehendabiziko bertsiotik bigarrenera (Hordago, 1979, 2, 129-134 or.). Baina ETAK diskurtsoa egokitzeke premia izan zuen. Kendu egin zituen erlijioari eskainitako paragrafoak. Aurreko bertsioan ETAK nazioen ezaugarri bereizgarriak aztertu zituenean alderdi erlijiosoak, politikoa eta sozioekonomikoa jorratu zituen. Euskaldunek kristautasunarekin izandako harremana aztertu zuen eta euskaldunen, eta espainiarren eta frantsesen erlijiozaletasunaren artean alde handia dagoela ondorioztatu zuen. Bertsio berrian kendu egin zuen ETAK zati hori guztia; alderdi politikoa eta sozio-ekonomikoa aipatu zituen soilik nazio bereizgarrietan.

Nuestra responsabilidad (Hordago, 1979, 2, 135-138 or.) koadernoan abertzale eta oro har pertsona guztien *erantzukizunaz* mintzatu zen. Hiru erantzukizun-mota bereizi zituen: hurrenez hurren, jainkoarekikoa, aberriarekikoa eta jendartearekikoa. Koaderno berrargitaratu zuenean kendu egin zuen jainkoarekiko erantzukizunari eskainitako zatia. Borondate oneko pertsona orok jainkoaren onarpena izango duela esaten zuen lekuan, hitz hauek jarri zituen bertsio berrian: "Todo hombre por el mero hecho de nacer en un lugar determinado queda poderosamente influenciado, durante su formación y lo largo [sic] de toda su vida, por el ambiente que le rodea" (Hordago, 1979, 2, 136 or.). Eta lehendabiziko koadernoan jainkoari egin zizkion erreferentzia guztiak ezabatu egin zituen bigarrenera; baita euskaldunen kristautasunaz eta Aranaz esaten zuen guztia ere.

Koaderno zaharrak berrargitaratzeaz gain, berriak ere atondu zituen ETAK. Eliza katolikoaren eta estatuaren arteko harremanari eskaini zion bat: *Iglesia y Estado* (Hordago, 1979, 2, 145-153 or.). Garaiko Euskal Herrian erlijioak eragin handia zuen arren, ETAK berehala bereizi zituen erlijioa (Eliza) eta politika (Estatua) (Jauregi, 1981, 131 or.). Elizaren eta estatuaren arteko tirabiraren jatorria gizakiaren beharretan kokatzen du ETAK: hau da, pertsona oro fedeari eta elizari eta, aldi berean, gizatalde bati lotuta dagoelako; biak behar dituelako bizitzeko. Ekintza politiko orok dimentsio morala duela azpimarratzen du ETAK eta autoritate erlijiosoaren eta zibilaren artean gerta litezkeen desadostasunak aztertzen ditu.

Elizaren eta estatuaren arteko harremana Euskal Herriaren testuinguruan aztertzen duenean, ETAk dio euskaldun guztiei eragiten dien arazoa dela. Hartara, Euskal Estatutuaren egitasmoa zehazterakoan (1931-1936) karlistek, sozialistek eta errepublikazaleek izan zituzten ika-mikak ekartzen ditu gogora; ez baitziren ados jartzen erkidego autonomoak eta elizak izan beharko lituzketen harremanak zehazterakoan. Era berean, European gertatzen ari zen kristautasun galeraren prozesua iragartzen die ETAk Bizkaiko eta Gipuzkoako industria-eremuei. Horren sintoma besterik ez da ETarentzat pertsona ospetsu askok fedea galdu izana.

Elizaren eta frankismoaren arteko harremana ere aztertzen du ETAk. Ez da harritzen Euskal Herrian jende asko fedea galtzen aritzea, edo kristautasunaren eta elizaren etsai bihurtzea. Elizak erregimen frankistarekin duen loturari leporatzen dio fenomeno hori. Euskal Herriaren oinarria katolikoa izan den arren, eta ETAREN lehen urteetan gehiengoak oinarri hari eusten zion arren, ETAk dio milaka euskaldun ateo eta antikonformista dagoela Euskal Herrian eta horiek ezin direla bigarren mailako herritar izan etorkizuneko euskal estatuan.

"Arazoaren" aurrean bi irtenbide ikusten ditu ETAk: irtenbide konfesionala edo irtenbide laikoa. ETAk euskal estatu laikoaren alde egiten du: "Tanto por razones ideológicas como por razones históricas estimamos que el Estado vasco se debería constituir como Estado laico. (...) el Fuero vasco estaba mucho más cerca del Estado laico «vitalmente cristiano» que del Estado confesional" (Hordago, 1979, 2, 153 or.). Era honetan irudikatzen du euskal estatu laikoa: erlijio guztiak onartuko lirateke, agintariek ez lukete publikoki erlijiorik gurtuko, eliza fededunen laguntzarekin biziko litzateke, erlijiorik gabeko eskolak sortuko lirateke, eta katolikoak ez direnek ezkontza zibila egin ahal izango lukete²³⁴.

²³⁴ Lau ikuspegi aztertzen ditu xehetasun handiagoz: fededunak ez direnen ikuspegia, katolikoek ikuspegia, katoliko integristen ikuspegia eta katoliko liberalen ikuspegia (Hordago, 1979, 2, 147-153 or.).

Paradoxikoa badirudi ere, Jauregik dio beren erlijiotasunak bultzatu zituela etakideak akonfesionaltasunera. Etsipen eta dezeptzio handiz ikusten baitzuten eliza-hierarkiak erregimen frankistarekin zuen harreman estua. Eta gerra aurreko eta gerra garaiko apaiz²³⁵ askoren abertzaletasuna eredu izan zuten; erregimen frankistak apaiz haiek jazarri²³⁶ izanak eragina izan zuen etakideengan. ETAK aurreko abertzaletasunaren erreferentzia zuen gainera. EAJk eliza-hierarkiaren kontrako jarrera agertu zuen hainbatetan eta, Europako kristau demokrazien norabide berean, elizaren eta estatuaren banaketa aldeztu zuen. Eta talde txikia izan arren, EAJren barruan laikotasunaren alde egin zuten Gallastegik eta Aberri taldeak. Edonola ere ANV izan zen ETarentzat eredu akonfesional hurbilena (1981, 133, 144-145 or.).

Krutwig-ek gertutik segitzen zuen erbestean ETAREN bilakaera eta ETAK abertzaletasun aurrerakoia eta dinamikoa eraiki zezakeela sinetsita, *Vasconia: Estudio dialéctico de una nacionalidad* obra argitaratu zuen 1963an. ETARI oinarri teorikoa eskaini nahi izan zion liburu harekin (Jauregik, 1981, 215-216 or.). Eragin handia izan zuen *Vasconiak*²³⁷ ETAREN diskurtsoan eta praxian. Horregatik, ETAREN diskurtsoaren atal askotan aipatuko dugu *Vasconiaren* eragina.

Zenbait lekutan erlijioa eta nazioa baliokideak direla aitortzen badu ere, eta eliza nazionala maiz batasunerako faktore indartsua izan dela onartzen duen arren, Krutwig-ek ez zuen erlijioa oinarrizko naziotasun faktore eratzailatzat hartu: "La religión de por sí no tiene por qué ser un factor constituyente de la nacionalidad,

²³⁵ *Zutik*-en 5. zenbakian (1962) *¿Es patriota el clero vasco?* izeneko idatzia argitaratu zuen apaiz abertzale batek, Hordago, 1979, 2, 263-264 or.

²³⁶ 16 apaiz fusilatu zituen Francoren erregimenak, 200 baino gehiago atxilotu eta 600 baino gehiago kontzentrazio-esparruetan sartu, deportatu edo erbesteratu (Jauregi, 1981, 133 or.). Ikus Ibarzabal, 1978.

²³⁷ ETAK publikoki onartu zuen *Vasconia* 1963an. Txillardegik ohar bat argitaratu zuen *Zutik*-en 16. alean, 1963ko azaroan. Txillardegik dio, ETA bezala Krutwig ere, ondorio andana honetara iritsi zela: "Importancia sustancial del problema lingüístico, importancia esencial de que el patriotismo vasco sea un movimiento progresista (en lo social particularmente), importancia esencial de un planteamiento político vasco (no vasco-español, ni vasco-francés), importancia esencial de Navarra, nuestro antiguo Estado nacional; importancia esencial de liberar al patriotismo de todo racismo y de todo clericalismo, etc. (Hordago, 1979, 2, *Zutik* 16). Gero ETAK ofizialki egin zuen bere Txillardegiren oharra, *A todos los vascos de buena fe* artikuluan (Hordago, 1979, 3, *Zutik* 19).

pudiéndose muy bien dar el caso de individuos con diferentes religiones que se consideren miembros de la misma nación" (1979, 22 or.).

Euskal Herria berandu kristautu zenez, dio Krutwig-ek, euskaldunek erlijio naturalerako joera izan zuten aurretik; eta neurri batean eusten diote joera hari. Baina hori besterik ez da Krutwig-entzat, joera bat; izan ere, euskaldunek ez dute erlijio propiorik (nazionalik) finkatzerik izan eta, hortaz, erlijioak ez du Euskal Herrian *besteengandik* bereizteko naziotasun faktore gisa jardun. Eliza katolikoak horregatik ez du euskal nazioaren aldeko jarrera instituzionalik izan. Gogor kritikatu zuen Krutwig-ek eliza katolikoaren jarrera, naziogintzaren aurkako faktore izatea egotzi zion (1979, 75-77 or.).

1964an argitaratu zuen ETAk *Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos*²³⁸ (Hordago, 1979, 3, 279-289 or.) agiria. Gai asko landu zituen bertan; hemen erlijioari buruz egin zuen hausnarketa aipatu nahi genuke. ETAk jakinarazten du ez dela bere asmoa etakideen edo herriaren sinesmen erlijiosoetan nahastea. Euskal Herriko errealitate sozialak erakusten du, ETAREN esanetan, protestanteak eta ateoak katolikoak bezain euskaldun izan litezkeela. Erlijioa ez da euskalduntasunaren baldintza sine qua non bat 6oko hamarkadako ETARENTZAT; horregatik ezin izan zituen irizpide konfesionalak onartu: "Por el mismo motivo propugnamos la aconfesionalidad del futuro estado vasco, así como la independencia de los poderes político y religioso" (Hordago, 1979, 3, 287 or.).

ETAK berak adierazi zuenez, euskal intelektualekin hizketan hasi nahi zuelako idatzi zuen gutuna. Eta euskal intelektuaren artean sektore garrantzitsutzat jo zuen euskal behe kleroaren zati handi bat. ETAK militanteen ideiekin eta herri osoaren

²³⁸ Larrinagako espetxean idatzi zuten gutuna 1963ko urria eta abendua bitartean atxilotutako etakideek. Jatorrian, euskal kleroari zuzendutako gutuna zen, ETAREKIKO iritzi kontrajarriak zituelako. Baina zabaldu egin zuen ETAK hartzaileen multzoa eta *intektualei* zuzendu zien azkenean (aurrerago sakonduko dugu ETAK darabilen kontzeptu horretan). Lozorroan ikusten ditu, oro har, eta lozorro horretatik atera nahi ditu. Ez dute, ETAREN ustez, neutro, itsu-mutu-gor egoteko eskubiderik, Euskal Herria bere biziraupenari eusteko hil ala biziko borrokan ari den bitartean (Hordago, 1979, 3, 278-279 or.).

ekarpenekin garatu eta osatu nahi zuen bere sistema ideologikoa; horregatik eta horretarako izendatu zuen, hain justu, bere burua mugimendu gisa. ETAk herriko sektore ahalik eta gehien inplikatu nahi zituen nazio askapenerako borrokan. Eta apaizek paper garrantzitsua zuten zeregin horretan (Hordago, 1979, 3, 287 or.). Aurrerago sakonduko dugu apaizek ETA mugimenduan izan zuten parte hartzean.

4.2. Sustrai historikoen bila: abertzaletasuna birsortzeko oinarria

Ekinek eta lehendabiziko ETAk Aranaren diskurtsoaren ildo berean segitu zutela ikusi dugu trantsizioko diskurtsoan. I. Biltzarra (1962) egin eta gero ETAk gai honekiko idatzi zuena aztertuko dugu orain. Zortzi dira Euskal Herriaren historiari eta erakundeei eskainitakoak: *Nabarra, estado independiente*; *Orígenes*²³⁹; *Instituciones políticas vascas*; *Fueros Leyes*; *Arana-Goiri (I)*; *Arana-Goiri (II): su doctrina*; *Carlismo y fuerismo*; eta *Los Estatutos y el gobierno vasco*. Koaderno horietako ideia nagusiak arakatuko ditugu hemen Euskal Herriaren historiaz ETAk zein diskurtso izan zuen ezagutzeko.

Nabarra, Estado independiente (Hordago, 1979, 2, 53-57 or.) koadernoan Nafarroako Erresumaren dinastiez eta bere konkistaz mintzo da ETA. Eneko Aritza eta Antso Azkarra erregeen arteko garaia goraiatzeko du, dinastia nafarra eta nazionala izan zelako. Orduz geroztiko dinastiak arrotzak balira bezala jotzen ditu ETAk. Lehen errege haiek nazio kontzientziarik ez zuten arren, etnien artean "muga naturalak" bazirela esaten du ETAk. Orduko Nafarroaren kohesioa nabarmentzen du: hartara, boterearen eta herriaren arteko "euskal harmoniaz" hitz egiten du. ETAREN ustez Nafarroa handi hartan ez zen ezberdintasun etnikorik, euskaraz hitz egiten baitzuten Atturri ibaiaren eta Errioxaren hegoaldeko mendien artean eta Sobrarbeko Forua segitzen zuten eskualde haietan guztietan (Hordago, 1979, 2, 54-55 or.).

²³⁹ *Orígenes* (Hordago, 1979, 2, 59-65 or.) izeneko koadernoan euskaldunen jatorria aztertzen du baina hizkuntzaren eta arrazaren ikuspegitik egiten duenez, III.4.3. puntuan jorratuko dugu.

ETAk dio Gaztelak hautsi zuela harmonia hura, Nafarroa eraso eta traizionatu zuenean. Nafarroa suntsitu zuten anexion guztiak okupazio-gerra militarrek izan zirela adierazten du ETAk. Nafarroaren hegoaldea espainiar probintzia bihurtu zuten eta iparraldea frantziarra; orduan hasi zen Nafarroaren gainbehera ETAREN ustez, lurraldearen zati handi bat eta jatorrizko ezaugarriak eta nazio kontzientzia galtzen hasi zenean. Nafarroako Erresumaren heriotza nazio estatuak sortu ziren garaian gertatu izana hondamendi ikaragarria izan da ETAREN ustez, nekez eutsi baitiezaioke estaturik eta gobernurik gabeko nazioak bere nazio grinari.

*Instituciones políticas vascas*²⁴⁰ (Hordago, 1979, 2, 67-73 or.) koadernoan Euskal Herriak tradizioz eraikitako erakunde-sistema aztertu zuen ETAk: hala nola, familia, udalerrria, batzarrak eta batzarkideak, aldundiak eta ahaldunak, jaunak, korrejidoreak, eta alkateak. Bakoitzaren funtzioak zehazten ditu. Ez dugu horietako bakoitzean sakonduko baina, tira, ideia batzuk behinik behin azpimarratu nahi genituzke. Euskal administrazio politikoaren antolaketa deszentralizatuari gorazarre egiten dio ETAk. EAJk eta Ekinek bezala ETAk ere "euskal demokraziaz" hitz egiten du artean; horren sintoma besterik ez da Euskal Herriak errege absoluturik ez eduki izana, eta herriko ordezkariak soberania osoa izatea. Euskal demokraziaren oinarriez hitz egiten du gero: banan banan aztertzen ditu etxeko jauna, batzarra, eta batzarren ordezkari den organo exekutiboa (Hordago, 1979, 2, 68 or.).

Iragana aztertu ondoren, etorkizunari begiratzen dio ETAk. Egin beharreko aldaketak eginda, komenigarri irizten dio ETAk iraganeko euskal erakunde batzuei eusteari: beste gauza askoren artean esaten du udalerriek beren autonomia atxiki beharko luketela. Funtsean, hori da ETAREN mezua, iraganetik elikaturik etorkizuna

²⁴⁰ Honako iturri hauetara jo zuen ETAk *Instituciones políticas vascas* koadernoa idazteko: Fidel Sagarminagaren *El gobierno y régimen foral*; Novia Salcedoren *Defensa histórica del Señorío de Bizcaya*; Jose Antonio Agirrerren *Cinco conferencias*; Darío Areitioren *El gobierno universal del señorío de Bizcaya*; Manuel Irujoren *Instituciones jurídicas vascas*; Jesus Galindezen *El derecho vasco*; Ariztimuño Aitzolen *Democracia vasca*; Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta abarretako foruak; eta Gipuzkoako eta abarretako foru-erakundeak. Ekinen garaiko iturriak darabiltza artean. Ekinen *Fueros-instituciones* koadernoko ideia asko errepikatu zituen ETAk hemen; haren berrargitarapen osatua da hau (Hordago, 1979, 2, 73 or.).

eraikitzea: "ha sonado la hora de comenzar a reconstruir nuestra patria, de mirar al pasado, empaparnos de las ideas de nuestros antepasados y con ellas como base comenzar la reconstrucción. (...) es una obligación de todos los vascos" (Hordago, 1979, 2, 72 or.).

Ekinek idatzi zuen *Fueros-Leyes*²⁴¹ (Hordago, 1979, 2, 83-89 or.) koaderno berrargitaratu egin zuen ETAk 1962tik aurrera. Osatu egin zuen koaderno hura. Zehaztasun handiagoz xehatu zituen foruen ezaugarriak eta gai batzuetan gehiago sakondu zuen: hala, hurrenez hurren euskal foruek gizakiaren eskubideei izan dioten errespetuaz hitz egiten du, Euskal Herrian izan den kontzientzia eta gurtza askatasuna goraiatzeko du, eta iraganeko herri- eta ekonomia-erakundeak eta legeak aztertzen ditu.

*Arana-Goiri (I)*²⁴² (Hordago, 1979, 2, 97-100 or.) eta *Arana-Goiri (II): su doctrina* (Hordago, 1979, 2, 101-107 or.) koadernoak Ekin-ETAren trantsizioko diskurtsoaren atalean aipatu ditugu, Ekinen formaziorako lanak izan baitziren lehendabizi²⁴³. Ekin bezala ETA ere abertzaletasuna birsortzen ahalegindu zen eta, horretarako, ezinbestekoa zitzaion sustrai historikoak ikertzea. Aranaren ideologiak leku berezia izan zuen ikerketa-lan hartan eta horregatik berrargitaratu zituen ETAk bi koadernoak. Lehendabiziko koadernoan Aranaren bizitza, obra eta bere heriotzaren ondoko garaia aztertzen ditu. Ez dugu horretan sakonduko, ideia batzuk gaingiroki

²⁴¹ Bibliografiari dagokionez, herrialde bakoitzeko foru, ordenantza eta ohitura-bilduma gehiago erabiltzen ditu orain ETAk; eta aurreko koadernoan aipatu berri ditugun Jose Antonio Agirrerren *Cinco Conferencias*, Ariztimuño Aitzolen *Democracia Vasca*, Jesus Galindezen *El Derecho Vasco*, eta Manuel Irujoren *Instituciones Jurídicas vascas* lanak ere erabili zituen (Hordago, 1979, 2, 89 or.).

²⁴² Aranaren obran oinarritu zen ETA koaderno hau idazteko (Hordago, 1979, 2, 100 or.). Baita beste iturri batzuetan ere: Ceferino Jemein-en *Biografía de Sabin de Arana-Goiri*; Pedro Basalduaren *El Libertador Vasco*; Marco Urrutiaren *Arana-Goiri'tar Sabin en la Historia de Euzkadi*; Manuel Egilleorren *De su Alma y de su Pluma* bilduma; eta hainbat aldizkari eta egunkaritan (*Euzkadi*, *RIEV*, *Euskerea*, eta abar).

²⁴³ Hordago taldeak dio ETAk I. Biltzarraren ondoren *Ekinen koaderno* asko berrargitaratu zituenean, zalantza egin zuela bi koaderno hauekin; izan ere, kontraesana sortzen zion Aranaren doktrina zabaltzeak. ETAk akonfesionaltzat jo zuen ordurako bere burua eta Aranaren obraren kontraesanak gainditu nahian zebilen (Hordago, 1979, 2, 97 or.). Kontraesanak kontraesan, argitaratu egin zituen ETAk beren koadernoetan.

baizik ez ditugu aipatuko. Idatziaren estiloan nabarmena da oraindik lehen abertzaletasuneko autoreen eragina.

ETAk ohartarazten du Aranak salbatu zuela euskal historia heriotzatik, espainolen eta frantsesen historizismo hegemonikoa euskal nazio kontzientzia itotzen ari zenean (Hordago, 1979, 2, 98 or.). Aranak erein zuen hazia inork ereitekotan eta hil zenean ernetzen hasi zen hazi hura. Horri esker, dio ETAk, bere buruaren kontzientzia hartu zuen euskal arimak eta bere esentziak berreskuratzeko lanean hasi zen. Horixe izan zen ETarentzat Aranaren ekarpenik handiena: alegia, euskaldunen izateko borondatearen kontzientzia sortzea (Hordago, 1979, 2, 100 or.). Era berean, EAJren inguruan sortu zen mugimendua nabarmentzen du: "se fundan "batzokis", núcleos vigorosos del resurgimiento nacional; se da impulso efectivo a nuestra instituciones y costumbres; (...) en un año se editan más libros euskéricos que antes en un siglo" (Hordago, 1979, 2, 100 or.).

Bigarren koadernoan Aranaren doktrinari eskaini zion ETAk. Aranaren lekukoa hartzeko ardura sentitzen zuen ETAk²⁴⁴ eta horregatik landu zituen haren diskurtsoaren zenbait tolestura: *Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra* goiburua; independentziaz eta konfederazioaz hark esandakoa; abertzaletasunaz, erregionalismoaz, foruzaletasunaz eta separatismoaz egin zituen hausnarketak; aberriaz eta nazioaz formulatutakoak; Euskal Herriko historiari Aranak egin zion kritika; eskubide politikoa eta estatu arteko eskubidea; Euskal Herriaren espainoltasuna eta abertzaletasuna; abertzaletasunaren kristau espiritua; Aranaren filosofia eta soziologia; eta euskarari buruz idatzi zuena.

Carlismo y fuerismo (Hordago, 1979, 2, 115-121 or.) koadernoan Hego Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko XIX. mendearen bilakaera historikoa errebasatu zuen ETAk. Eta karlismoa kritikatu zuen: izan ere, oportunismo politikoak eragindako aliantza

²⁴⁴ Koaderno horretan bertan adierazi zuen ideia hori: "Y ahora nosotros. Nosotros y nuestra responsabilidad. (...) porque también ahora, como antes y como siempre, han venido a caballo del fusilamiento, de la denuncia, de la tortura, de la confiscación (...), vale decir: de la tiranía" (Hordago, 1979, 2, 100 or.).

izatea leporatzen dio, foruzaleekin komenientzia hutsagatik elkartu izana. Desagertzea beste etorkizunik ez dio ikusten karlismoari, ETAREN ustez ez duelako testuinguru-aldaketetara egokitzen jakin eta ez duelako, era berean, ildo politiko garbirik izan. ETAK dio nekez garatuko duela bere programa industria-guneetako jendarte- eta lan-arazoei irtenbiderik emateko proposamenik ez duen bitartean.

Azken koaderno bat aztertuko dugu atal honetan: *Los Estatutos y el gobierno vasco*²⁴⁵ (Hordago, 1979, 2, 171-180 or.). 1931ko Lizarrako estatutuaz, 1936koaz eta Euskal Gobernuaz hitz egiten du ETAK. Lizarrako estatutuarena iruditzen zaio ETARI Hego Euskal Herrian adostu diren hitzarmenetan egokiena. Beste batzuen artean, honako alderdiak interesatzen zaizkio ETARI: *País Vasco* izena onartu izana, eta ez euskal herrialdeak bereizten zituen izenetako bat; botere legegilean Hego Euskal Herriko lau herrialdeen artean ezartzen duen oreka; nola saiatzen den eskualderik ahulenen eskubideak eta iradokizunak babesten; Euskal Gobernuak garai bateko euskal diputazioen estruktura bera izatea; euskararen ezagutza eta erabilera eskatzea; eta euskararako gaitasuna Euskaltzaindiak izendatutako epaimahai baten aurrean egiaztatu behar izatea. Estatutuak euskal estatuari esleitzen dizkion eskumenak ere aztertzen ditu²⁴⁶.

Horiek horrela, 1936ko estatutua analizatzen du hurrena. Oso larritzat jotzen du Nafarroa (Iparraldea aurretik bezala) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako autonomiatik kanpo uztea. Ez du, hala ere, estatutua baztertzen; esaten du 1839ko urriaren 25eko

²⁴⁵ Lan hauek erabili zituen ETAK koadernoak idazteko: Azpilkuetaren *Le Clergé Basque [Le problème basque?]*, Jose Antonio Agirreren *Cinco Conferencias*, Andres Irujo Olló (A. de Lizarraren) *Los vascos y la República española* (1945), eta Hugh Thomas-en *La Guerra Civil de España* [sic, *La Guerra Civil Española*, 1961] (Hordago, 1979, 2, 180 or.).

²⁴⁶ Besteak beste, honako hauek: elizaren eta estatuaren arteko harremanak estatuari dagozkiola, eta berak negoziatutako duela konkordatu Vatikanorekin; Espainiar Errepublikako konstituzioak langileei bermatzen dizkien eskubide berberak bermatzen dituela estatutuak; irakaskuntzaren antolaketa erabat gelditzen dela balizko euskal estatuaren esku; Nafarroak estatutuan duen pisua ere goraiatzen du ETAK; Espainiar Errepublikako konstituzioak bermatzen dituen eskubide demokratikoak bermatzeaz gain, euskal oinarri tradizional eta demokratikoetan oinarritu zela nabarmentzen du. Euskarari ere eskaintzen dio ataltxo bat ETAK. Esaten du hizkuntzaren eremuko eskuduntzak ez dituela gehiegi zehazten (1936ko estatutuak baino gutxiago) baina bere abiapuntua egokia dela: "La lengua nacional de los vascos es el euskera. Ella será reconocida como oficial en iguales condiciones que el castellano" (Hordago, 1979, 2, 173 or.).

legeaz geroztik, Espainiak Hego Euskal Herriari aitortu dion askatasun-mailarik handiena dela. Koadernoaren amaieran Euskal Gobernuak nola osatu zen analizatzen du ETAk baina ez dugu, haatik, hemen horretan sakonduko. Garaiko Euskal Gobernuari egiten dion kritika baino ez dugu aipatuko; funtsean honako ideian laburbiltzen da: "El Gobierno vasco sólo merecerá tal nombre cuando no dependa institucionalmente de la Constitución española" (Hordago, 1979, 2, 180 or.). Euskal Herria salbatzeko ezinbesteko baldintzak aipatzen ditu gero: lehenik, *herriak* nazio independentea osatzen duela jakitea; bigarrenik, euskal nortasun hori maitatzea eta iraunarazten ahalegintzea; eta, hirugarrenik, nortasunari eusteko autogobernuak edukitzea. EAJren jarrerari kritika eginez, nabarmentzen du Euskal Herriaren aldeko borroka herriak egin behar duela, ezin dela sekula sekulotan *kanpoko* laguntzaren zain egon.

4.3. Nazio askapena: hizkuntzan eta kulturaren oinarritutako naziotasuna.

Independentzia eta autodeterminazioa

I. Biltzarra (1962) egin orduko, hiru erronka zabaldu zitzaizkion ETARI: 1) Euskal Herriaren nazio aldarrikapena oinarritzeko teoria sendoa bat eraikitzea; 2) abertzaletasuna garaiko errealitate sozioekonomikoetara egokitzea; eta 3) nazio askapenerako estrategia politiko bat abian jartzea (Jauregi, 1981, 216 or.). ETAREN nazio diskurtsoaren hiru zutabe garrantzitsu horien lehendabizikoa aztertuko dugu atal honetan: nazio askapenarena, alegia. Beste biak hurrengo ataletan jorratuko ditugu. Aberriaren askatasunari buruzko teorizazioan bi azpi-diskurtso bereiziko ditugu: batetik, euskal naziotasunaren oinarriari buruz ETAK egiten dituen hausnarketak eta, bestetik, independentziari eta autodeterminazioari buruz ondu eta idatzi zuena. Ekin-ek berak elkartu zituen bi elementuok nazio askapenaren barruan; horregatik sartu ditugu guk ere kategoria berean.

4.3.1. Hizkuntzan eta kulturaren oinarritutako naziotasuna

Hordago taldeak ETAREN koadernoari (1962-1964) eman zion hurrenkeraren arabera, Orígenes izeneko koadernoak da euskararen eta euskaltasunaren gaia lantzen duen lehendabizikoa. Ondoren, *Literatura vasca* eta *La Universidad vasca* argitaratu zituen ETAK. Horiez gain, Ekinen *Euskera y patriotismo vasco* koadernoak berrargitaratu zuen; aldaketarik egin gabe argitaratu zuen gainera. Aurretik argitaratu zituen *Moral de resistencia nacional* eta *Nuestra responsabilidad* koadernoak²⁴⁷ ere berrargitaratu egin zituen.

Orígenes²⁴⁸ (Hordago, 1979, 2, 59-65 or.) koadernoan linguistikaren eta antropologiaren ikuspegitik aztertu zuen ETAK euskaldunen jatorria. Sarreran bertan azaltzen du koadernoaren helburua: hau da, arrazismo oro arbuatu eta euskara eta euskal arraza baldintza zientifikoetan²⁴⁹ definitzea. Euskararen jatorria, hizkuntzen antzinatasuna eta hizkuntzen sailkapena, euskararen lurraldehedaduraren bilakaera, iberismoari kritika, euskal arrazaren jatorria, eta abarrez mintzo da ETA (Hordago, 1979, 2, 61-62 or.).

Goian esan dugun bezala, linguistikan ez ezik, antropologiaren ekarpenetan ere oinarritu zen ETA Euskal Herriaren jatorria azaltzeko; zehazki, euskal arrazaren jatorrian arakatzeko (Hordago, 1979, 2, 62-63 or.). Europan sei arraza-tipo daudela azaldu ondoren, esaten du, Europan ez dagoela arraza-tipo bakarrari eusten dion etnariarik edo herririk; are gehiago, argitzen du arraza-tipo haiek Europako herri guztietan aurkitu dituztela ikertzaileek. Gakoa arraza-tipo horien banaketan datza, hots, non kontzentratzen diren gehiago edo gutxiago. Horrela, euskal arrazari

²⁴⁷ Euskararen eta euskaltasunaren esparruan ildo berari eusten zion ETAK: han idatzi zituenak bere horretan utzi zituen bertsio berrian, inolako aldaketarik egin gabe (idea nagusiak ezagutzeko, ikus III.2.5.).

²⁴⁸ Iturri gisa, aurretik erabili zituen obra batzuetara jo zuen ETAK: Itxaropenak argitaratu zuen *Geografía histórica de la lengua vasca* eta Justo Mokoroa Ibar-en *Genio y lengua*. Baina iturri berriak ere erabili zituen: Telesforo Aranzadi, Joxe Migel Barandiaran eta Miguel Angel Etcheverryren *La raza vasca*, Antonio Tovar-en *El euskera y sus parientes*, eta Koldo Mitxelenaen *Fonética Histórica Vasca* (1961) doktore tesia (Hordago, 1979, 2, 65 or.).

²⁴⁹ Gorago aipatu dugu Aranaren ondorengo abertzaletasuna ere euskal nazioa oinarri zientifikoaren gainean zurkaizten ahalegindu zela.

begiratuta, ohartarazten du, Euskal Herrian antropologia-tipo ugari dagoen arren, horietako batzuk nabarmendu egiten direla euskal tipoan. Eta ondorio honetara iristen da: "si bien no existe una unidad racial vasca pura, sí existen sin embargo una serie de condiciones que hacen que el grupo vasco destaque claramente del de sus vecinos. En este sentido y sólo en éste podremos hablar de raza vasca" (Hordago, 1979, 2, 63 or.).

Literatura vasca (Hordago, 1979, 2, 91-96 or.) koadernoan²⁵⁰ euskal literaturaren ezaugarri nagusiak aletzen ditu lehendabizi. Ahozko literatura, bertsolaritza, eta literatura idatzia aztertzen ditu gero eta, amaieran, euskal literaturaren etorkizunaz hausnartzen du. Hizkuntzaren eta naziotasunaren arteko harremana ETAk nola ulertzen duen xehatzen ari garen atal honetan, aukeran egoki datozkigu koaderno honetako bi hausnarketa: lehendabizikoa, nola definitzen duen ETAk euskal literatura eta, bigarrena, nola azpimarratzen duen hizkuntza eta euskal literatura suspertzeko zeregin garrantzitsua. Euskal literaturaren definizio argia egiten du ETAk: hartara, euskal literatura euskaraz egindako literatura da. Izan ere, "una cosa es literatura vasca y otra distinta, el conjunto de las obras literarias de los autores vascos"²⁵¹. En este sentido hablaremos sólo de la literatura vasca, es decir, de la literatura en euskera. No de los escritores vascos" (Hordago, 1979, 2, 92 or.).

Bigarren hausnarketari dagokionez, zera adierazi nahi du ETAk: euskal literaturaren uzta ahultzen ari dela etengabe, bigarren karlista gerraz geroztik batez ere. Beraz, berehala mamitu beharreko zeregina iruditzen zaio ETARI euskara eta euskal

²⁵⁰ Hordago taldeak dio ETAREN koaderno honek jatorrizko hitzaldia ordezkatu zuela eta Sendoa argitaletxeak Aita Villasanteren *Historia de la Literatura vasca* lana argitaratu ondoren editatu zuela ETAK. Nolanahi ere, *Documentos Y bildumak* ez du jatorrizko hitzaldi hura jasotzen. Lehendabiziko aldiz agertzen da orain *Literatura vasca* izeneko koadernoan, *ETAREN koadernoan* artean (Hordago, 1979, 2, 91 or.).

²⁵¹ "Escritores vascos" kategorian sartzen ditu Unamuno, Baroja, Gonzalo Berceo, Ercilla, eta Zunzunegi, espainiar ("edo gaztelau" gehitzen du parentesi artean) literaturako autoreak direla esanez. Mingarri egiten zaio ETARI egoera hori; esaten baitu, Euskal Herriko pertsona ospetsu handienek ez dutela ezertxo ere egin euskararen alde, eta bai hizkuntza arrotzen alde (Hordago, 1979, 2, 92).

literatura berpizteko lana, eta hor, literatura klasikoari begiratzea proposatzen du (Hordago, 1979, 2, 92 or.).

La Universidad vasca (Hordago, 1979, 2, 109-114 or.) izeneko koaderno argitaratu zuen ETAk ondoren. Bost alderdi aztertzen ditu bertan: euskal unibertsitaterik ez izateak sortzen dituen eragozpenak, egoera horri aurre egiteko irtenbideak, formazio aberkoia, hezkuntza-hizkuntza, eta helduen hezkuntza. ETAk argitzen du, eskuarki, unibertsitatea herria eraberritzeko eta nazio aldarrikapenentarako gunea izaten dela, eta oso ondo dakitela hori beste nazio batzuk politikoki menderatzen dituztenek. Hor kokatzen du ETAk Euskal Herriak unibertsitaterik ez izatea, eta izandako guztiak suntsitu izana (Oñati, Iratxe eta Bilbokoa aipatzen ditu).

Arestian aipatu dugu 1963an argitaratu zuela Krutwig-ek *Vasconia*. Beste esparru batzuetan bezala hizkuntza-kulturaren alorrean ere, itzal handiko teorialari zorrotzenetako bat izan zen Krutwig abertzaletasun iraultzailearentzat (Zabalo, 2006, 93 or.). Zalantza izpirik gabe, euskal nazioaren aldarrikapena oinarritzeko ETAREN teoriaran eragin handia izan zuen *Vasconiak*²⁵² (Jauregi, 1981, 216 or.). Nazioak eta nazionalismoak egitate dinamiko gisa definitu ondoren (1963, 207 or.), hizkuntza jarri zuen Krutwig-ek nazio faktoreen artean lehendabiziko lekuan²⁵³: hala, garaiko hainbat hizkuntzalariren ekarpenean oinarrituta²⁵⁴, eta Europako nazio mugimendu batzuk aztertu ondoren, norbanakoen eta herrien pentsamenduaren oinarria hizkuntza zela konturatu zen²⁵⁵. Euskararik gabe ez legoke Euskal Herririk Krutwig-en tesian (1963, 21-27 or.).

²⁵² 1963ko *Zutik*-en 13-14. alean ataltxo bat eskaintzen die ETAk argitaratu berriak diren Oteizaren *Quousque tandem* liburuari eta *Vasconiari*. Ekarpenean garrantzitsutzat jotzen ditu biak euskal kausarentzat. Poztu egiten da ETA indartsu eta gogortasunez aldeztu dutelako biak nazio hizkuntzaren funtsezko garrantzia (*Dos nuevos libros*, 1963, Hordago, 1979, 2, 360-361 or.). 1963ko *Zutik*-en 16. alean beste bi orrialde eskaini zizkion ETAk Krutwig-en obrari.

²⁵³ Mentalitatea eta kultura aipatu zituen bigarren lekuan, erlijioa hirugarrenean eta arraza-osaera laugarrenean (Krutwig, 1963).

²⁵⁴ *Vasconiako* eraginetan Europako mugimendu etniazalearena aipatzen du Jauregik; nazio aldarrikapenaren funtsa etniaren existentzian oinarritzen duen mugimenduarena. Héraud-en eragina ere nabarmentzen du, *L'Europe des Ethnies* (1963) liburuarena bereziki (1981, 155-158 or.).

²⁵⁵ Nazionalismo alemaniarra deitutako ikuspegiaren eragina nabarmentzen du Jauregik Krutwig-en eta ETAREN diskurtsoan (1981, 155 or.). Apalategik ere ñabartzen du antzekotasun handia dagoela Ekinen eta lehendabiziko ETAREN ikuspegiaren eta Fitcheren nazioaren definizioaren artean.

Nazio hizkuntza hitz egiten dutenen arteko atxikimendua sendotzeaz gain, hura galdu edo inoiz hitz egin ez duten norbanakoak erakartzeko gaitasuna aitortzen dio hizkuntzari²⁵⁶. Euskal Herrian ere, arrazoitzen du, euskarak erakarri dituela kide asko abertzaletasunaren altzora. Alde horretatik gogor kritikatu zuen Krutwig-ek lehen abertzaletasunaren diskurtsoa²⁵⁷, akats larritzat jo zuen hark euskarari eman zion garrantzi eskasa. Eta errotik irauli zuen Aranak onetsitakoa: izan ere, harentzat ez bezala honentzat hil ala biziko auzia zen hizkuntzaren galera. Garaiko hainbat hizkuntza-filosofiarekin bat egin zuen Krutwig-ek: hau da, hizkuntza ideiak elkar trukatzeko kanpo tresna gisa definitu ordez, giza pentsamenduaren eta kontzeptu kolektiboen oinarri gisa²⁵⁸ izendatu zuen (1963, 21 or.).

Ekin-ETAk erabili zuen kontzeptua erabili zuen Krutwig-ek beste kontu batean: hots, naziotasunaren galera edo nazio kontzientzia galtzea. Nazio hizkuntza hitz egiteari uzten dionean desnazionalizatzen ari da herri bat²⁵⁹. Krutwig-entzat nazio kontzientzia galdu dutenak ez dira gehiago nazioaren parte izango (1963, 24-25 or.). Ezinbesteko eskakizuna da Krutwig-en begietara nazio kontzientiari eustea: besteak beste, hizkuntzak emandako kontzientzia hori izan delako bere ustez Euskal Herriaren burujabetasun gogoia hauspotu eta elikatu duena. Bere ustez, euskarak eman zion Euskal Herriari auzoko nazio arrotzengandik aske nazio bat hezurmamitzeko gogoia eta zioa; hizkuntzari zor zaio belaunaldiz belaunaldi independentziaren gurari hura²⁶⁰ (1963, 39-42 or.).

Idealismo alemaniarren sortzailatzat hartzen den Fitcherentzat hizkuntza eta nazioa baliokideak dira. Hizkuntza da Fitcherentzat nazio alemaniarren definizioaren lehendabiziko oinarritzko ezberdintasuna (1985, 164-171 or.).

²⁵⁶ Zentzu horretan, arrazan oinarrituriko abertzaletasunak nazio dinamika okerra abiarazi zuela adierazi zuen Krutwig-ek; ez baitzuen etorkinak bereganatzeko ahaleginik egin eta, hortaz, dinamika baikor gisa hauteman beharrean, arrotza zen orori ateak ixten zizkion dinamika ezkor gisa hauteman zuen (1963, 90-91 or.).

²⁵⁷ Nazioaren ideia indargabetu eta aberriaren euskalduntasuna erauzi izana leporatu zion lehendabiziko abertzaletasunari (Krutwig, 1963, 90 or.).

²⁵⁸ Izan ere, Krutwig-en ustez, herri batek duen mundu-ikuskerak hizkuntzak bere baitan biltzen dituen esturturek sortua da; alegia, hizkuntzak zalantzarik gabe eragingo luke herri batek munduari buruz belaunaldiz belaunaldi sortutako ikusmoldean (1963, 38 or.).

²⁵⁹ Aberriaren etsaitzat jo zituen seme-alabei nazio hizkuntza erakusten ez dieten euskaldunak, aberria desnazionalizatzea leporatzen die (1963, 24 or.).

²⁶⁰ Horregatik aldeztu zuen Krutwig-ek nazionalismo politikoan saiatu ordez, nazionalismo kulturalen jardun behar zutela abertzaleek (1963, 91 or.).

1963tik aurrera euskararen eta naziotasunaren gainean idazten segitu zuen ETAk *Zutik*-en argitalpenetan. Lan horietako bat *Euskera y erderas* (*Zutik* 15, 1963, Hordago, 1979, 2, 368-369 or.) dokumentua da. Etakideen artean euskararen inguruko eztabaida akuilatzea da artikulua xedea. Aurretik Ekin-ETAk adierazitako ideia hauek errepikatzen ditu egileak: euskaldunek euskaraz hitz egiteari uzten dioten egunean Euskal Herria desagertu egingo dela, eta hurrengo belaunaldiak espainolak eta frantsesak izango direla (kritikatu egiten ditu hori zalantzan jartzen duten abertzaleak); euskara galdu duten Euskal Herriko eremuak nazio galera jasandako eremuak direla baiesten du; eta komunikaziorako tresna kolektiboa den heinean, hizkuntzarena ikuspegi soziologikotik aztertu behar den auzia dela ohartarazten du, ezin dela alegia maila pertsonalean planteatuta hizkuntzaren fenomeno itxuragabetu eta faltsutu.

Euskera y unificación (*Zutik* 15, 1963, Hordago, 1979, 2, 370-371 or.) idatziak ixten du *Zutik*-eko euskararen gaineko eztabaidaren jarioa. Euskararen egoera desagertzeko zorian dagoen hizkuntzarena dela esaten du eta euskalduna-euskaraduna identifikazioa egiaztatzen du. Euskararen erabilgarritasun eskasa ere nabarmentzen du, bere balio komunikatibo urria eta murrizta. Euskararen egoeraren barne eta kanpo arrazoiak²⁶¹ zerrendatzen ditu amaieran. Euskararen galera gelditzeko ezinbesteko baldintzak dira ETAREN ustez askatasun politikoa eta euskara batua: "deben empezar desde ahora mismo a preparar este euskera literario (¿el euskera de Axular puesto al día?), este euskera unificado que será la lengua nacional de Euzkadi" (Hordago, 1979, 2, 371 or.).

1964an *Euzkadi euskalduna... edo deusik ez!* (*Zutik* 22, 1964, Hordago, 1979, 3, 243-244 or.) idatzi zuen ETAk. ETAREN diskurtsoan iraunkorrak diren beste bi ideia agertzen dira dokumentu honetan: alde batetik, euskara salbatzeko bide bakarra

²⁶¹ Behin baino gehiagotan errepikatzen du ideia hori ETAk (ikus *Euskera y unificación*, *Zutik*, 15, 1963, Hordago, 1979, 2, 370-371 or.). Euskararen egoera larriaren kanpo eta barne arrazoiak aztertzen ditu. Frantziak eta Espainiak Euskal Herriari eta euskarari egiten dioten zapalketa aipatzen du kanpo arrazoietan, eta euskal kultura eraberritzeko prozesuan oinarri izan ziren lau zutabeak barne arrazoietan: alfabetatzea, euskara industria-jendarte modernora egokitzea, hizkuntza batua eta literarioa eratzea, eta euskal kulturaren esparruko erakundeak eraberritzea (Jauregi, 1981, 272 or.).

askatasunarena²⁶² dela eta, beste aldetik, "euskotarrei" (euskaraz bizi ez diren abertzaleei) egiten dien kritika. Esaten du orobat abertzale askok ez duela ezer egin euskararen alde, ez dakiela euskaraz, eta ez diela seme-alabei erakutsi ere egin. Poztu egiten da egilea bere garaiko abertzaletasuna eta buruzagi abertzale gazteak askoz ere "gogorrago" ikusten dituelako hizkuntzaren aferan. Hortxe kokatzen du ETAREN jarrera ere²⁶³.

Gorago aipatu dugu 1964ko 25. Zutik-en argitaratu zuela ETAK *Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos* (Hordago, 1979, 3, 279-289 or.) agiria. Nazio askapenari dagokion aferan, badira atal honetarako bete-betean datozkigun hausnarketa batzuk. Euskal Herria espainoltzeko eta burgesteko sistemak erabiltzen dituen bitartekoak aztertzen ditu. Bortxazko neurriak bezain garrantzitsuak dira, ETAREN ustez, sistemak erabiltzen dituen manipulaziorako bitartekoak²⁶⁴. Euskararen eta euskal etniaren desagertze-prozesua gelditzeko ideologia bat garatu eta sozializatu nahi du ETAK, eta ideologia horrekin zapalketaren kontrako borroka egituratu eta eraginkor bat eskaini nahi dio ETAK Euskal Herriari. Abertzaletasun berri bat aldarrikatzen du, abertzaletasun historikoari uko egingo diona. Hartara, bada, etorkizuneko Euskal Herrian lehentasun eta ofizialtasun erabatekoa izango du euskarak: hala ere, egileak ñabartzen du behin-behineko erregimen hirueledun bat

²⁶² Zutik-eko idazleen artean erabateko adostasunik ez zuen gai bat ukitzen du artikulu honek. Zutik-etan sortzen ziren eztabaidak ETAREN barruko etengabeko hausnarketaren lekuko dira eta bere mugimendu-izaeraren erakusgarri. *Euzkadi euskalduna... edo deusik ez!* idatziaren egileak dio ETAREN helburua euskara hizkuntza ofizial gisa ezartzea bada ere, hasieran, hiru hizkuntzak erabili beharko direla balizko euskal estatuan baina horrek ez diola euskarari lehentasunik kentzen (*Zutik* 22, 1964, Hordago, 1979, 3, 243 or.). Lau zenbaki ondoren, *Zutik* 26an, *Euskera batez ere* (Hordago, 1979, 3, 295-296 or.) artikulua idatzi zuen beste etakide batek. Oro har, bat dator goiko idatziarekin baina puntu batean ez dago ados: bere ustez, euskara lehendabiziko egunetik izan beharko litzateke ofiziala Euskal Herrian, bai gobernuan, bai lege-batzarretan, ikastoletan, elizan eta abarretan. Elebitasuna hizkuntza zapalduen urkabea dela esaten du. Ikus dezakegunez, *Zutik* ETAREN nazio diskurtsoa zabaltzeko tresna ez ezik, diskurtsoa bera sortzeko, eztabaidatzeko eta osatzeko bidea ere izan zen.

²⁶³ Idatziaren amaieran *Euskera y patriotismo vasco* koadernoko pasarte batzuk transkribatu zituen egileak; honako bi ideia hauei buruz ari diren pasarteak dira: euskara hizkuntza erabilgarri bihurtzeko beharra eta hizkuntzen biziraupenerako auto-gobernuaren beharra (Hordago, 1979, 3, 244 or.).

²⁶⁴ Honako hauek aipatzen ditu besteak beste: eguneroko "ohiko" bizimodua; esturturek jendartean sartzen dituzten indibidualismoaren ikuspegia eta kompetentzia; familia-erakundea; mito sozialak; zinema, telebista, futbola eta abar ez dira espainoltzeko eta burgesteko tresnak besterik ETAREN ustez (Hordago, 1979, 3, 282-283 or.).

ezarri beharko dela lehendabizi. Era berean, ETAREN ustez, estruktura berriek kultura unibertsalaren lorratzean jarri behar dute euskal kultura eta artea²⁶⁵.

1965eko urrian argitaratu zuen ETAREN Caracaseko ordezkariak Goazen aldizkariaren lehendabiziko zenbakia, eta, haren ostean, azaroan bigarrena. Azken horretan daude *ETA y el euskera* eta *Euskera, traba*. Esan dezagun, ordura arteko diskurtsoari eusten diola ETAK. *ETA y el euskera* (Hordago, 1979, 4, 191 or.) idatzian euskal nazioaren eta abertzaletasunaren *raison d'être* bihurtzen du ETAK euskararen afera:

El euskera es la única lengua nacional de todos los vascos. El euskera genera los atributos y características de la nacionalidad. El euskera es la expresión más genuina del alma vasca. (...) El euskera es, en suma, la razón de ser del nacionalismo vasco. Sin euskera no hay nación vasca. Sin euskera la independencia de Euzkadi es un sarcasmo. Sin euskera, las persecuciones, sacrificios, torturas y muertes de tantos patriotas no tienen sentido, son un absurdo (Hordago, 1979, 4, 191 or.).

Apalategik dioenez euskararen defentsa hain da garrantzitsua non nazioa bera euskarara, hizkuntzara, bihurtzen eta mugatzen duela ETAK. Hitz horiek, hala ere, testuinguru jakinean interpretatu behar direla deritzogu: izan ere, ETAK berehala zehaztu zuen etorkizunerako bere egitasmo soziala eta, jakina, hizkuntzaren gainean esandakoa ETAREN diskurtso sozialarekiko elkarreraginean ulertu behar da²⁶⁶ (1985, 248 or.).

²⁶⁵ Horretarako, premia larriko beharra da, ETAREN esanetan, euskal unibertsitatea eta Estetika Konparatzailearen Institutua sortzea. Irakaskuntzaren arloaz ere hitz egiten du ETAK; esaten du, herritar orok kultura maila altuenera iristeko eskubidea duela eta ikasle orok, langile gisa, soldata jasotzeko eskubidea duela. Eskubide horietatik eratorriko da ikasleek jendartea eraikitze eta garatzeko duten erantzukizuna (Hordago, 1979, 3, 285-286 or.).

²⁶⁶ ETAREN barruko aniztasunak eraginda, aldatu egingo du pixkana ETAK nazioaren definizioa: hizkuntzaren aldarrikapena klase borrokarekin lotzen ahaleginduko da 60ko hamarkadan (Apalategi, 1985, 171 or.).

Urte haietako ETAREN nazio diskurtsoarekin joan-etorriko harremanean etorri zen Txillardegiren *Huntaz eta hartaz* (1965) liburua²⁶⁷ ere. Krutwig-ek *Vasconia* argitaratu eta bi urtera argitaratu zuen Txillardegik bere lehen saiakera liburua. Ekin-ETAREN koadernoetako ideia asko errepikatzen ditu euskaltzaleen artean oihartzun handia izan zuen liburuan. Ez da harritzekoa hala izatea, pertsona berbera baita hangoa eta hemengoa, koaderno haietan euskarari buruz gehien idatzi zuena Txillardegi bera izan baitzen²⁶⁸.

Txillardegiren aburuz ez dago erdibiderik euskararen auzian: hots, edo Euskal Herri euskalduna ala heriotza. Bere iritzian, izan ere, "gure aukera ez baita oso zabala: Euskal Herri euskaldunari euts eta atxik, eta Euzkadi libro baten bidez heriotzatik begira; ala Euskal Herri euskalduna hil eta ehortz. Biotatik bat" (1965, 75 or.). Independentzia behar beharrezkotzat jotzen badu ere, Txillardegik azpimarratzen du aurretik euskararen alde jardutea ezinbesteko lana dela. Ezin dela geroko gerotan utzi, garaiz egiten ez diren gauza batzuk ez dutelako gerorik.

Txillardegik muin-muinean honela arrazoitzen du euskararen afera: hots, euskararen galera genozidioarekin eta Euskal Herriaren zatiketarekin lotu behar dela. Eta euskaldunen zoritxar guztien jatorria Espainiako eta Frantziako estatu zapaltzaileen okupazioa dela. Euskal Herria askatzeko ezinbesteko baldintza da, Txillardegiren iritziz, euskal estatua sortzea.

ETAREN historian euskal identitatea eta euskalduntasunaren garrantzia ñabartzen joan bazen ere, V. Biltzarraren ondoko ETAK funtsezko lekua aitortzen zion artean euskarari. Enbata astekariak²⁶⁹ 1968ko urriaren 9ko zenbakian argitaratu zuen ETARI

²⁶⁷ Ordurako idatzita zituen bere lehen bi eleberririk: *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eta *Peru Leartzako* (1960).

²⁶⁸ 1966ko urtarrilean *Huntaz eta hartaz* liburuko "Euskotarrak utikan" kapitulua transkribatu zuen ETAK (*Euskotarrak utikan*, *Zutik Caracas-Venezuela* 59, 1966, Hordago, 1979, 4, 375 or.).

²⁶⁹ 1960an sortu zuten Ipar Euskal Herrian, besteak beste, Ximun Haran, Jakes Abeberri, Jean Louis Davant, Mixel Labegeri eta Piarres Larzabalek. 1963an mugimendu politiko bihurtu zen Enbata, eta Itsasuko 1964ko Aberri Egunean eman zuen jakitera *Itsasuko Ageriaren* bidez (1963-04-15, Hordago, 1979, 2, 448-451 or.).

egindako lehendabiziko elkarrizketa publikoa. ETako arduradunak V. Biltzarraren bigarren partean (1967) ETAk onartu zuen strategiaren dokumentua aurkezten du zehaztasun hauek eskainiz: "Bada euskal etnia bat, berezko kulturak definitua, eta kultura horren barruan euskara da funtsezko elementua. Etnia horrek bere izatearen kontzientzia hartu du eta beraz, herria nazio bilakatu da. Euskal herri edo nazioak beraz, *estatu nazionala* eraiki behar du orain" (Nuñez et al., 1993, 2, 300-301 or.).

ETAren izenean hitz egiten duen ordezkariak ñabartu egiten du orain arteko ETAren diskurtsoan agertu zaigun euskara eta euskaraduna parekatzen dituen definizioa. ETAren oraingo definizioan euskaradun guztiak ez dira euskaldunak: hala, euskal langileen zapalketan parte hartzen duten agenteak, euskaradunak izan arren, ETAk ez ditu euskalduntzat jotzen (Nuñez et al. 1993, 2, 301-302 or.). Ñabardurak ñabardura, euskaldun izatea euskaraz bizitzea da ETArentzat oraindik, baina baita Euskal Herriaren eta euskal kulturaren alde egitea ere. Zehazki praktika politikoarekin lotzen du, jarrera politiko batekin. Hartara, "ETAk ez du euskal izaera jaiotze edo deitura irizpideen arabera definitzen. Euskaldun izateak euskaraz bizitzea esan nahi du, hau da, euskal herria eta euskal kultura defendatzea. Praktika kontua da gehien bat" (Nuñez et al. 1993, 2, 301 or.).

ETAren naziotasunaren gaineko diskurtsoaren bilakaerari buruz, Conversi-k bezala Zabalok ere zera dio: alegia, naziotasuna etnian oinarritu zuela lehendabizi Ekin-ETAk, eta etnikotasunaren baitan hizkuntza nabarmendu zuela oro gain. Baina euskararen egoera soziala ahula zela kontuan harturik, funts-funtsean, hizkuntzak euskal identitatearen sinbolo izaten segitu bazuen ere, zinez eta egitez, abertzaletasunarekiko atxikimendua eta ekintza politikoa gainjarriko zaizkio hizkuntzaren aferari (Conversi, 1997, 203 or.; Zabalo, 2006).

Modu traumatikoan bizi eta adierazi zuen Ekin-ETAk euskara komunikazio-funtzioa galtzen ari zela eta premiazko eginbeharra zela lehenbailehen hizkuntza berreskuratzeko zerbait egitea. Ekin-ETAren diskurtsoak hizkuntza-kulturarekiko

agertu zuen atxikimendu afektiboak eta euskara nazioko kide izateko sinbolo gisa hartzeak, euskararen dimentsio parte-hartzailea indartu zuen Hego Euskal Herriko sektore zabal batean. Orobat, euskara galdu zuten aktoreak, edo inoiz ikasteko aukerarik izan ez zutenak, ikastera mobilizatu zituen. Testuinguru pizgarri horretan euskarak eta euskal kulturak inoiz ez bezalako berpizkunde kulturala bizi izan zuten 60ko hamarkadan. Mugimenduaren atalean aztertuko dugu auzi hori (1992; 1999).

4.3.2. Independentzia eta autodeterminazioa

Nazio askapenaren kategorian bigarren azpi-kategoria aztertuko dugu orain: zehazki, ETAk independentziaz eta autodeterminazioaz egin zuen diskurtsoa, alegia. Gai iraunkorrak dira abertzaletasunaren nondik norakoan, hasieratik agertzen baitira diskurtso abertzalean. Aranak autodeterminazioa eta independentziaren alde egin zuen argi eta garbi, *bilakaera espainolista* deitu izan zaion urteetan baztertu egin bazituen ere. Bere ondorengoek haren printzipio teorikoei eutsi bazien ere, nabarmen moderatu zuen EAJk bere praktika politikoa. Independentziaren helburua alde batera geratu zen, nolabait.

ETAren independentziaren diskurtsoari helduko diogu lehendabizi eta, horren ondoren, autodeterminazioarenari, maiz elkarri lotuta agertuko zaizkigun arren. I. Biltzarrean onartutako *Zuzenbide* (1962) agirian, aipatu dugu, nola aldarrikatu zuen ETAk Euskal Herriak bere buruaren jabe izateko eskubide osoa duela; erakundearen zereginik gorena independentzia ez dela esaten duen arren, Euskal Herria esparru guztietan garatzeko bide bakarra da ETAren iritziz. Eta Euskal Herria (*Euzkadi* erabiltzen du artean ETAk) sei herrialdek osatzen dutela zehazten du (Hordago, 1979, 1, 1962, 526 or.).

Zereginik gorena ez dela esatea honako ideia honekin lotuta dago: nazio askapenaren helburua independentziarena baino helburu zabalagoa da ETArentzat, nazio askapenari independentziaren esanahia baino sakonagoa ematen dio.

Zehazki, nazio askapenaren ideia euskal nazio identitatea berreraikitzearekin eta berreskuratzearekin lotzen du ETAk (Jauregi, 1981, 141 or.).

Aldi berean, ordea, Euskal Herria herri bezala garatu ahal izateko bide bakarra da, ETAREN aburuz, independentziarena. Zentzu horretan, Apalategik dio, Euskal Herriaren independentzia Aranarentzat euskal arraza babesteko eta gordetzeko modua den bezala, ETARENTZAT euskara ez desagertzeko modu bakarra dela euskal estatua lortzea, Euskal Herri independentea eskuratzea (1985, 246 or.).

ETAREN buruzagitzak 1964ko urtarrilaren 1ean zabaldu zuen Euskal Herriari bidali zion lehendabiziko agiria: *Euskal Herria'ri ETA'k Dei (Manifiesto de ETA al pueblo vasco)*. Euskal Herriak nazio independentzia eta askatasun guztiak (eta *askatasuna* bera) galduz geroztik, esaten du ETAK, frantziar eta espainiar erregimen okupatzaileak amorerik eman gabe aritu direla euskaltasunaren kontrako borrokan. ETAK ohartarazten du bi estatu horiek euskaldunak zatitzeko politikan tematu direla jo eta ke. ETAREN esanean, funts-funtsean, bai karlistek eta bai abertzaleek, esaterako, helburu berbera izan dute: hau da, foruak eta askatasuna berreskuratzea. Baina euskaldunen artean ez dago batasunik, eta zentzu horretan, ETAK kritikatu egiten du abertzale historikoen jarrera, Madrilén zein erregimen ezarri zain daudelako, Euskal Herriko zatiren baterako autonomia bat negoziatzeko asmoarekin. Autodeterminazioa eta askatasuna eskuratzeko bidean, Frantzia eta Espainia baino oztopo gehiago ikusten ditu ETAK, beraz. Euskaldunak zatituta dauden bitartean, kezu da ETA, zapaltzaileek politika irmoari eusten diote: hartara, Euskal Herriaren genozidioaren bidean euskal etniaren heriotza bultzatzen eta euskalduna ezabatzen segitzen dute etengabe (Hordago, 1979, 3, 196 or.).

Abertzale batzuen "bigunkeriaz" hitz egin ondoren, bide bakarra dagoela esaten du ETAK: alegia, nor bere buruaren jabetasuna lortzeko borrokarena. Eta horretarako ekinaren ekinez elkarrekin aritzea beste aukerarik ez du ikusten. Seinalatzen du ETAK horretan sinesten duela: "aberri-askatzearen eta sozial-askatzearen burruka, euskaldun GUZIEK egiña, dauka Euzkadi'ren soluzio bakartzat" (Hordago, 1979, 3,

196 or.). Nazio askatasunarekin lotuta, askatasun sozialaz ere hitz egiten du ETAK hemen: hala, kolonialismoa eta kapitalismoa lotzen ditu eta, gartzigatzen du klase bakar baten mesedetan, pertsonen askatasun eta eskubide guztiak zapaltzen dituztela (Hordago, 1979, 3, 196 or.).

Euskal Herriak autodeterminazioa eta askatasuna behar dituela aldarrikatzen du erakundeak: "Auto-determinazioa eta askatasuna behar ditu Euzkadi'k. Ez gera gu ez espagnolak ez frantsesak. EUSKALDUNAK GERA" (Hordago, 1979, 3, 196 or.; letra larria jatorrizkoan). Eta bi xedeak zertarako behar dituen ere zehaztu du: Euskal Herriak bere gobernuia izan dezan, bere bidez, euskal etnia bere buruaren jabe izan dadin behin betiko, atzerritarren esku-hartzerik gabe. Eta, horrela, Euskal Herriak, esparru politiko, ekonomiko eta kulturean "egiazko demokrazia bat" sortu ahal izan dezan (Hordago, 1979, 3, 196 or.).

Bi ildo nagusi nabarmendu genitzake aztergai dugun agirian. Batetik, Euskal Herriari egiten dion deia, nazio gisa berez dagozkion eskubideetan oinarrituta, bere etorkizuna eraiki dezan, erregimen zapaltzaileen politikaren esanera makurtu gabe; eta, bide batez, kritika egiten dio abertzaletasun tradizionalari. Bestetik, berriz, euskal herritar orori egiten dion dei ETAK abiarazitako borrokan parte har dezan (Casanova, 2007, 44 or.).

Hurrengo urteetan oihartzun handiko gaia izan zen independentziarena ETAREN barruan; beste gai batzuekin batera, zeresana izan baitzuen V. eta VI. Biltzarren zatiketari (1970). Argalak dio ETAK betidanik aldeztu zuela Euskal Herriaren independentzia baina, VI. Biltzarraren arabera, aldarrikapen horrek euskal langileak zatitzen zituela eta, beraz, beharrezkoa zela alde batera uztea. Sextaren ustez, hobe zen nazio autodeterminazioaren alde agertzea aukera zehatz baten alde egitea baino. Independentziaren aldeko aukera kontrairaultzailea zen Sextarentzat, langile klasea zatitu eta prozesu iraultzailea geldiarazten zuelako bere ustez, eta, gainera, aukera hori *burgues txikitzat* jotzen zuen, bere esanetan euskal burgesia txikia balizko euskal estatuko klase hegemoniko bihurtzeko saiakera izan zitekeelako.

Argalak zehazten du independentziaren aldeko aukera erreakzionarioratzat edo atzerakoitzat jo zuela VI. Biltzarrak (Argala in Apalategi, 1979, 13 or.).

Orain ETAk espresuki autodeterminazioaz idatzi zuena aztertuko dugu. *Principios político-constitucionales*²⁷⁰ izeneko koaderno argitaratu zuen ETAREN koadernoetan (Hordago, 1979, 2, 75-81 or.). Gai hauek lantzen ditu bertan hurrenez hurren: autodeterminaziorako printzipioak, *herria*, *estatu* eta *autoritatea* kontzeptuak, eta zuzenbide konstituzionala. Sarreran filosofia totalitarioaren eta espiritualaren azalpena egiten du ETAk: lehendabizikoaren helburua jendartea litzateke eta gizakia jendartearen zerbitzura jarriko luke erabat; bigarrenaren, berriz, helburua gizakia izango litzateke baina, aldi berean, norbanakoaren interes partikularretatik haratago gizakia jendartearen mende dagoela onartuko luke. Filosofia espiritualaren printzipio horrekin bat eginda, aginte politikoaren beharra justifikatzen du ETAk abiapuntu gisa, eta hor kokatzen du, hain justu, autodeterminaziorako eskubidea (Hordago, 1979, 2, 76 or.).

ETAk jakinarazten du soziologo gehienek *soberania* deitu izan diotela autodeterminaziorako eskubideari baina, nolana ere, kontzeptu hura gaindituta dagoela dagoeneko. Autodeterminazioaren printzipioa *Zuzenbide Naturalean* dagoela jakinarazten du eta, beraz, aplikazio unibertsala duela: hain zuzen, NBEk Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartuz geroztik, nazioarteko (estatu arteko) balioa duela eta munduko konstituzio guztiek jasotzen dutela. Bi alderdi nabarmentzen ditu ETAk autodeterminaziorako eskubidearen harira: batetik, erabateko barne autonomia, hots, herri guztiek bere burua independentzia osoz eta botere gorenez gobernatzeko eskubidea; eta, bestetik, erabateko kanpo autonomia, hots, gainerako herriekin harremanak izateko eskubidea. Uka ezinezko eskubidea dela seinalatzen du ETAk amaieran, inork ezin baitio herri bati duen eskubide hori kendu (Hordago, 1979, 2, 76 or.).

²⁷⁰ Bibliografian honako lan hauek aipatzen ditu ETAk: *Revue française des Sciences politiques* (hainbat zenbaki), Donnedieu de Vabres-en *L'Organisation de L'Etat*, Manuel Irujoren *Instituciones Jurídicas Vascas*, eta Jacques Maritain-en *L'Homme et l'Etat* (Hordago, 1979, 2, 81 or.).

Jauregik, bere aldetik, zehaztapen hau egiten du: autodeterminaziorako eskubidearen aldarrikapena independentziaren aldeko borrokaren zilegitasunarekin lotu zuela ETAk, eta, ildo horretan, forzaletasunak eta lehendabiziko abertzaletasunak egin zituzten proposamenak baino haratago joan nahi duela (1985, 244 or.). 1964an *Zutik*-en 20. zenbakian *Del pueblo vasco* delako idatzian, *Larrinaga* ezizeneko kideak ñabartzen du, abertzaletasun historikotik aldenduz, ETAREN ideologiak ez duela abertzaletasuna historiako gertakizunetan oinarritzen:

El nacionalismo que nosotros propugnamos es distinto del nacionalismo histórico. Ni el Ducado de *Vasconia*, ni las uniones de Castilla ni la ley de 1839 o la destrucción de Gernika en 1937, son las bases de nuestra ideología. Consideramos sencillamente que hay un pueblo, el vasco, del que formamos parte y conscientes de ello, pedimos para él el derecho de autodeterminación (*Zutik*, 20, Hordago, 1979, 3, 219 or.).

Bere bi oinarriak argi uzten ditu ETAk dokumentu horretan. Batetik, jakinarazten du, ETARENTZAT Euskal Herriaren arazoa arazo nazionala dela, Euskal Herri osoari eragiten diona. Horregatik, Euskal Herriaren batasunerako eskubidea eta autodeterminaziorako eskubidea lortu nahi dituela. Eta bestetik, esaten du, euskal arazoa herriaren arazoa dela. Euskal kausa euskal herritarrek, oro har, eta langileek, bereziki, dituzten arazoekin eta beharrekin identifikatu behar dela. Argi eta garbi lotzen ditu bi auziok pentsamolde bakarrear: "nuestro pensamiento es tanto de liberación nacional como de revolución social. Nosotros la libertad la queremos para algo y no hacemos abstracción de ella" (Hordago, 1979, 3, 219 or.).

1965eko 30. *Zutik*-en argitaratu zuen ETAk *Carta a los intelectuales* (2) agiria. Dagoeneko aipatu dugun bezala, nazio askapena eta askapen soziala txanpon beraren bi aurpegi dira ETAREN pentsamoldean. Kapitalismoaren garapenak Euskal Herrian sortu duen egoeraren bi aldeak dira, eta errealitatea bakarra bada, errealitate hori aldatzeko borroka ere bakarra izan behar da ETAREN ustez.

Dialektika horren baitan kokatzen du nazio autodeterminazioaren aldeko borroka (Hordago, 1979, 3, 507 or.).

Autodeterminazioaren printzipioa justifikatzeko arrazoiak ere ematen ditu ETAK. Esaten du, hiru arrazoiengatik borrokatzen duela nazio autodeterminazioaren alde. Batetik, Euskal Herria herri bat den neurrian eta zatituta dagoen neurrian, gainerako herriek adina eskubide duelako autogobernurako eta batasunerako. Bigarrenik, euskal egiturak izanda, aukera gehiago izango duelako Euskal Herriak, espainolek eta frantsesek bezala, bere burua osoki garatzeko eta munduaren "aurrerapenean" parte hartzeko. Eta, hirugarrenik, autodeterminazioan ikusten duelako ETAK aukera bakarra Euskal Herrian sozialismoa ezartzeko eta sozialismo hori Euskal Herriaren baldintza espezifikotara egokitzeko (Hordago, 1979, 3, 507 or.).

Esandakoa laburbiltze aldera, ikus dezagun zertan datzan gure ustez ETAK autodeterminazioaren eztabaidari egin zion ekarpena. Batetik, txiki edo handi, *herri orori* (edo Krutwig-en terminologian *nazio orori*) berez dagokion eskubidetzat jotzen du autodeterminazioarena. Herria (nazioa) da bere ustez, eta ez norbanakoa edo estatua, autodeterminaziorako eskubidearen jabe dena. Eta, bestetik, Euskal Herriaren askapenarekin lotzen du, bai nazionalarekin eta bai sozialarekin: izan ere, ETAK argudiatzen du Euskal Herriak herri bezala bere burua osoki garatu ahal izateko (bai esparru nazionalean eta bai esparru ekonomiko eta sozialean) egitura propioak behar dituela, eta, jakina, horretarako erabili nahi duela autodeterminaziorako eskubidea.

4.4. Askapen soziala: kristau-pertsonalismoetik iraultza sozialistara

ETAren nazio diskurtsoaren hiru zutabe garrantzitsuenetan bigarrena aztertuko dugu orain, askapen sozialarena. Aipatu dugu gorago I. Biltzarra (1962) egin orduko, hiru erronka zabaldu zitzaizkiola ETARI; horietako bat abertzaletasuna garaiko errealitate sozioekonomikora egokitzea zen (Jauregi, 1981, 216 or.). Lehen hiru

urteetan ETAk ez zuen marxismoarekin eta komunismoarekin bat egin. Marxismoari bizi-ikuskerara osoa bezain faltsua eskaintzea leporatu zion eta komunismoari nazionalismoaren kontrako jarrera izatea. Baina komunismoaren ekarpenean bada ETAREN interesa bereziki piztu zuen alderdi bat: ekintza-metodoena eta militanteen formazioarena. Izan ere, edukiz jantzitako erresistentzia-mugimendu abertzale moderno bat egituratu nahian zebilen eta arreta handiz jarraitu zituen komunisten ekintzarako metodoak.

1962an Hego Euskal Herrian berpiztu ziren gatazka sozialek eta oposizioaren borroka politikoa erradikalizatzek eragin handi izan zuen ETAREN diskurtsoan. ETA ez zen sor eta gor gelditu gertaera haiei begira. Gero eta interes handiagoa agertu zuen langile klasearen egoeraz; eta trantsizioko diskurtsoan etorkizuneko euskal jendartea nola egituratu beharko litzatekeen hausnartzen aritu zen bezala, I. Biltzarraren (1962) ondoren langileen eguneroko errealitatera hurbildu zen pixkanaka. Bere idatzietan nabarmena da askapen integralari pisu handiagoa aitortzen diola: hartara, askapen nazionalarekin batera, gero eta gehiago aldarrikatzen du askapen sozialaren beharra²⁷¹ (Jauregi, 1981, 170 or.).

1962tik aurrera ETAk auzi honen inguruan argitaratu zituen formaziorako koadernoak eta *Zutiken* aleak aztertuko ditugu atal honetan, eta V. Biltzarrera arteko urteetan izan zuen bilakaera ikusiko dugu. Demokrazia-sistemari eta giza eskubideei eskaintzen die ETAk lehendabiziko koadernoak: *La democracia y los derechos del hombre* (Hordago, 1979, 2, 122-128 or.). *Demokrazia* kontzeptuak historian izan duen bilakaera aztertzen du bertan, eta aurreko idatzietan bezala hemen ere, "euskal demokraziak" Euskal Herrian izan duen tradizioa nabarmentzen du. Herritarrek aukera berdinak izatea da ETARENTZAT demokrazia. Bestalde, ez du esparru politikora mugatzen. Horregatik eskaintzen dio beste koaderno bat kultura demokratizatzeari. Herri justu bat egituratzeko oinarritzko zutabea da ETARENTZAT

²⁷¹ Nolanahi ere, Jauregik dio, *askapen soziala* kontzeptua artean ez zela nazio askapenarena bezain argia; ez zituela hain ondo zehaztuta askapen sozialari lotutako helburuak eta edukia eta, zentzu horretan, interpretazio ezberdinak egiteko aukera sortzen zuela (1981, 175 or.).

kultura demokratizatzea. Hori lortzeko neurri batzuk proposatzen ditu etorkizuneko Euskal Herrian aplikatzeko (*Democratización de la cultura*, Hordago, 1979, 2, 187-195 or.).

Pertsonalismo kristauaren ikuspegiari eutsi zion hasieran I. Biltzarraren ondoko ETAk, *Liberación nacional y liberación social* (Hordago, 1979, 2, 181-185 or.) koadernoan ikus daitekeen bezala²⁷². Baina horren ondoren ETARI interesatzen zaiona nazio eta herri auziak lotzea da; kritika batzuei erantzunez, askapen integralaren ideia aldarrikatzen du: "La liberación TOTAL, nacional y social, a que aspiramos (...) exige la ALTERACIÓN TOTAL DEL ORDEN EXISTENTE, es decir, la Revolución en su sentido auténtico" (Hordago, 1979, 2, 184 or.; hizki larria jatorrizkoan). Eskema horren talaiatik berdin gaitzesten ditu ETAK abertzaletasun antisoziala eta sozialismo antiabertzalea: esaten du abertzale erreakzionarioek nazio askapen "purua" egin nahi duten bitartean, sozialismo erreakzionarioek askapen sozial "aratza" egin nahi dutela. Lehendabizikoei pertsonen eskubide sozioekonomikoak ahaztea leporatzen die eta, bigarrenengoei, estatu burgesek inposatutako muga inperialistak onartzea (Hordago, 1979, 2, 184 or.).

Marxismoari eta komunismoari eskainitako koaderno monografikoak atondu zituen 1962tik aurrerako ETAK. Munduaren ikuskera gisa definitzen du marxismoa, erlijio ateo gisa. Hurrenez hurren dialektikaren eta alienazioaren teoriak, materialismo historikoa eta alienazio ekonomikoa aztertzen ditu (Hordago, 1979, 2, 198-205 or.) baina, batik bat, marxisten ekintza politikoa interesatzen zaio ETARI: hau da, teoria praxira eramatea. Egia esan, kritika ere egiten dio marxismoari: kontraesana iruditzen zaio ETARI munduaren oinarrian dialektika jartzea eta gero klaserik gabeko jendarte komunistan alienazio guztiak desagertuko direla esatea, kontraesan sozialak desagertuko direla pentsatzea. Horregatik hitz egiten du ETAK "utopia

²⁷² Norbanakoaren eskubideak dira ETARENTZAT jarrera politiko orenen oinarria. Eta horixe da, era berean, jendarte- eta nazio auzien jatorria aztertzeko funtsezko irizpidea. Pertsonen "oinarriko eskubideak" jartzen ditu beste ezeren aurretik: hala nola bizitzarako eskubidea, aukeraberdintasunerako eskubidea eta erlijiorako eskubidea, besteak beste. Eta nazio eta klase eskubideak bigarren mailakotzat jotzen ditu (Hordago, 1979, 2, 182 or.).

marxistaz". Marxisten oinarriak baliagarri zaizkio ETArri Euskal Herriaren eta abertzaletasunaren bilakaera azaltzeko baina, haatik, argi uzten du horrek ez duela esan nahi marxismoa osoki bere egiten duenik (*Marxismo*, Hordago, 1979, 2, 197-207 or.).

Munduko erregimen komunistak ere aztertzen ditu ETAk; eta Lenin-ek eta Mao Zedong-ek boterea hartzeko metodoen esparruan marxismo klasikoari egin zioten ekarpena. Komunismoari ere egiten dio kritika, nazio askapenerako borrokei bizkar ematea leporatuta: "Para los marxistas, el mundo está dividido, ante todo, horizontalmente: hay clases. Pero el mundo está dividido también en etnias, y este hecho o problema es ajeno al marxismo. Hay así, (...) una aparente CEGUERA (...) hacia el problema de las nacionalidades" (Hordago, 1979, 2, 212 or.; letra larria jatorrizkoan). Hego Euskal Herriko alderdi komunistari Espainiako Estatukoaren morroi izatea leporatzen dio eta Ipar Euskal Herriko komunistei taktikoki frantsesen jarrerak babestea²⁷³ (*Comunismo*, Hordago, 1979, 2, 209-215 or.; letra larria jatorrizkoan).

Economía de Euzkadi (Hordago, 1979, 2, 217-227 or.) koadernoan Euskal Herriak esparru ekonomikoan dituen aukerak aztertzeko faktore ekonomikoak, fisikoak, sozialak eta politikoak aztertzen ditu ETAk. Autogobernuaren beharra azpimarratzen du, oroz gain, baliabide ekonomikoak bere interesen arabera kudeatu ahal izan ditzan Euskal Herriak. Ordura arte bezala ildo orokor batzuk zehaztu nahi ditu ETAk, ez du xehetasunak ematen hasi nahi; aurreragorako uzten du lan hori.

I. Biltzarraren ondoren (1962) argitaratu zituen *Zutik*-en aleetan ere nabari da ETAREN diskurtsoaren nondik norakoa. Diruari besterik begiratzen ez dioten

²⁷³ Jauregik dio ETAREN hasierako antikomunismoa oso arina zela. Jaso zuten heziketa eta herentzia politiko eta kulturalak komunismora hurbiltzea eragozten zien arren, ETA hasieratik agertu baitzen korrante ideologiko edo filosofiko ezberdinak ezagutzeko eta bere ideologian txertatzeko prest. Euskal Herriaren eta abertzaletasunaren bilakaera azaltzeko balio duten heinean, erabili egiten ditu, nahiz bere burua artean ez duen marxistatzat jotzen (1981, 107 or.).

industria-nagusi euskaldunak Euskal Herriaren etsaitzat jotzen ditu ETAk *Jauntxoan saldukeria* artikuluan (Zutik 4, 1962, Hordago, 1979, 2, 256 or.); eta, orobat, kritikatu egiten du Euskal Herrian indarrean den ekoizpen-sistema, guztien onerako antolatuta egon beharrean kapitalaren berehalako probetxurako eratua dagoelako (*Euzkadi libre... con obreros libres*, Zutik 4, 1962, Hordago, 1979, 2, 259-260 or.).

Hego Euskal Herriko herri xehearen etsai hirukoitza identifikatzen du ETAk: Francoren diktadura, zentralismo espainiarra eta kapitalismoa. Hiru indar horien kontra borroka eraginkor bat antolatzeko hiru borroka-mota uztartu behar dira, bere ustez. Borroka baketsua, batetik: irakurtzea eta errealitateari buruzko informazioa zabaltzea. Masa borroka, bestetik: herri osoak²⁷⁴ protestan parte har dezan nahi du ETAk. Eta, hirugarrenik, indarrezko borroka: herria ondo informatuta dagoenean, masa borrokan aurrera egin ahala, borroka hori bortxa bortitzarekin koordinatu egin behar dela dio ETAk; izan ere, zapaltzaileen biolentziaren aurrean biolentziarik gabeko borrokarekin soilik nekez lor liteke egiazko justizia soziala eta norbanakoentzako eta herriarentzako egiazko askatasuna (*Los obreros hemos comenzado la lucha*, Zutik 4, 1962, Hordago, 1979, 2, 260-261 or.).

Idea batzuk behin eta berriro aldarrikatzen ditu ETAk: esate baterako, nazio borroka eta borroka soziala uztartzearen premia²⁷⁵. Baina ordura arte plazaratu ez zituen beste ideia batzuk ere argitaratu zituen. Besteak beste, enpresen kontratuzko politika kritikatzeko du, eta, halaber, langileen borroka aldarrikapen-jarduera hutsera ez mugatzeko beharra azpimarratzen du²⁷⁶. Abertzaletasunaren barruko sektore erreakzionarioak ere kritikatzeko ditu: hala, duten jarrera pasiboarekin abertzaletasun dinamikoaren ekina gelditzea eta langileen ekintzen kontra egitea leporatzen die (*Perspectivas de la lucha obrera de Euzkadi*, Zutik 5,

²⁷⁴ Intelektualek izan beharko luketen jarreraz hitz egiten du: herri osoak bezala haiek ere jarrera aktiboa izan behar dutela uste du ETAk eta zapaltzaileekin kolaboratzeari uko egin behar diotela azpimarratzen du (*Los obreros hemos comenzado la lucha*, Zutik 4, 1962, 260-261 or.). Aurrerago sakonduko dugu auzi horretan.

²⁷⁵ Ikus *Libres en un país libre*, Zutik, 4, 1962, Hordago, 1979, 2, 261-262 or.

²⁷⁶ Jauregik dio garrantzitsua izan zela ETAn jarrera hura, izan ere, JOCekeko militante batzuk ETAn sartu ziren gero. Langile-mugimenduan ondo prestatutako eta kontzientzia handiko militanteak eskuratu zituen ETAk horrela (1981, 172 or.).

1962, Hordago, 1979, 2, 271-273 or.). Horixe izan zen, beharbada, ETA langile klasera hurbildu izanaren ondorio nagusia: alegia, lehen abertzaletasunarekiko jarrera gero eta kritikoagoa agertzea eta, pixkanaka, harengandik urruntzea.

ETAren ordura arteko jendarte-ikuskerari "lehen jendarte-doktrina multzoa" esaten dio Apalategik (1985, 251 or.); aldarrikapen sozialak egiteko pertsonalismo kristauaren ikuspegia erabiltzen duen mailari. Bigarren maila batean sozial demokraziaren korrontera hurbildu zen ETA eta, horrenbestez, sozialismoaren inguruko eztabaida sortu zen etakideen artean²⁷⁷. Sozialismoaren barruko joerak aztertzen hasi zen ETA, beraz. Sozialismora hurbildu ahala, honako galdera hau sortu baitzen ETAren barruan: zein sozialismo aplikatu behar litzateke Euskal Herrian? Sozialismoaren barruko joera batzuk arakutzen ditu baina, hala ere, oraingoz ez du bakar baten alde egiten²⁷⁸.

1963an ere langile-protesten mugimendu etengabea izan zen Espainiako Estatuko hainbat lekutan bezala Hego Euskal Herrian ere. Asturiaseko meatzarien uztaileko eta abuztuko greba-mugimendua nabarmendu zen. Garai berean Bilboko industria-gunean Koordinazio Komite bat hasi zen jardunean, Bilbo inguruko langile klasearen borroka eta jarduerak gidatzeko (Letamendia, 1975). Gertaera haiek izan zuten oihartzunik ETAren hausnarketetan. Asturiaseko grebaren garrantzia azpimarratzen du eta haiei segituz Bizkaiko langileak egiten ari diren borroka irmoki babesten du. Bere bi helburuak (nazio askapena eta askapen soziala) berresten ditu berriro (Hordago, 1979, 2, 357 or.). Eta dei hau egiten die militanteei²⁷⁹: "Pedimos a todos los militantes de ETA el apoyo efectivo; económico y moral, a los heroicos obreros

²⁷⁷ Ikus *Análisis del socialismo*, Zutik 6, 1962, Hordago, 1979, 2, 281-282 or.

²⁷⁸ Ikus *Del socialismo: análisis*, Zutik 6, 1962, Hordago, 1979, 2, 290-291.

²⁷⁹ Jauregik dio ETA langile-problematikara hurbildu bazen ere, eta 1963rako etakide asko langile mugimenduan serioski konprometituta zeuden arren, ETArentzat langileen borroka bere jarduera espezifikotik kanpo zegoen zerbait zela artean. Goiko aipu hori kanpotik egindako deia dela dio Jauregik; langile borrokaren koordenatuetatik kanpo dabilen norbaitek hartzen duen elkartasun-jarrera. Artean ETAren borroka espezifikotik kanpo agertzen da (1981, 173 or.).

de Vizcaya, y la mayor solidaridad con los trabajadores españoles de Asturias" (*Bizkai'ko langilleak gogor ari*, *Zutik* 13-14, 1963, Hordago, 1979, 2, 358).

Bilboko Komite Koordinatzaileak hamar minutuko lan geldialdia antolatu zuen Bizkaian 1963ko urriaren 7an, 52 langile bere lanpostuetara itzul zitezten eskatzeko. ETAk bere gain hartu zuen mobilizazio haren antolaketa eta bere bi helburuen uztarketa nabarmendu zuen berriz ere (*Bizkai'ko langilleak: Pausu bat aurrera*, *Zutik* z/g, 1963, Hordago, 1979, 3, 10 or.). Orduantxe hasi zen ETA langile mugimenduarekin harremanetan jartzen eta Euskal Herriaren askapen soziala eduki harekin jantzen. Jauregik ohartarazten du lan geldialdi hartan aktiboki parte hartu izanak eta bertan eskuratutako esperientziak asko aberastu zuela ETA. Orduetik aurrera, zentzu askoz ere positiboagoa eman zion langile borrokari eta langileen aldarrikapenak ETAn jarduera politikoan txertatzen hasi zen (1981, 174-175 or.). Mugimenduaren atalean sakonduko dugu auzi horretan.

Testuinguru hartan argitaratu zuen Krutwig-ek *Vasconia*. Jauregiren iritziz, *Vasconiak* erakutsi zion ETAn ideologia aurrerakoi eta iraultzaileetara hurbiltzeko bidea. Lau alderdi azpimarratzen ditu egiteko horretan: 1) garaiko aldaketa sozioekonomikoetara egokitutako abertzaletasun hiritar baten beharra ohartaraztea; 2) elite intelektualak abertzaletasunarekin harremanetan jartzeko beharra ikusaraztea; 3) abertzaletasuna etorkizuneko ikuspegia duen indar dinamiko gisa agertzea; eta 4) abertzaletasuna ideologia-korronte progresisten eta iraultzaileen norabide berean joateko beharra aldarrikatzea (1981, 185 or.).

Krutwig-ek dio abertzaletasun aurrerakoi bat soilik izango dela gai langile klasea erakartzeko. Baina aldi berean esaten du abertzaletasuna euskal etniari soilik dagokion proiektua dela; orduan, horrenbestez, bada, etorkinak euskal nazioaren etsai bihur ez daitezten euskal elite kulturalak haiek integratu eta asimilatu egin beharko lituzkeela proposatzen du (1963, 210, 309 or.). Langile mugimenduaren inguruko ideologia-korronte iraultzaileak ezagutzeko eta ikasteko grina piztu zuen *Vasconiak* ETAn. Eta, era berean, abertzaletasuna eta marxismoa lotzeko bere

planteamenduak ETAREN barruko joera antikomunista eten zuen, Jauregiren ustez. 1963. urtearen amaieraz geroztik, askoz ere gehiago aldendu zen ETA aurreko abertzaletasunaren diskurtsotik. Edonola ere ETAREN barruan joera ideologiko ezberdinak zeuden eta denek ez zuten askapen sozialaren helburua berdin ulertzen. Kontraesanak kontraesan, aurrerapauso ideologiko argia eta itzulezina egin zuen ETAK: hain zuzen, Euskal Herriaren askapenerako borroka kapitalismoaren kontrako eta sozialismoaren aldeko borrokarekin lotzen hasi zen (1981, 179, 187-190).

ETAREN ildo berria nahiko argi adierazten du *Del pueblo vasco* lanak (Zutik 20, 1963, Hordago, 1979, 3, 218-221 or.). Dimentsio herritarra ematen dio ETAK euskal auziari; aditzera ematen du euskal auzia euskal herritarren eta, bereziki, langileen problemekin eta beharrekin identifikatu behar dela. Berrito azpimarratzen ditu ETAK bere borrokaren bi zutabeak. Eduki soziala duen abertzaletasuna aldarrikatzen du beraz ETAK²⁸⁰(Hordago, 1979, 3, 219 or.).

ETA langile klasera hurbiltzeko prozesuak gailurra jo zuen 1964ko maiatzaren 1ean: hala, Bilboko manifestazioa babestu eta bertan parte hartu zuen lehendabiziko aldiz. Garrantzia eman zion gertaera hari bere idatzietan²⁸¹, eta ez nolana hikoia. 1964an gero eta artikulua gehiago argitaratu zituen ETAK gaiaz²⁸² eta, aldi berean, gero eta gehiago urrunduz zen bere ikuspegia EAJren diskurtsotik²⁸³. Jendartearen

²⁸⁰ Hitz hauekin definitzen du ETAK bere abertzaletasuna orain: "un nacionalismo nuevo, humanista, abierto a todos los habitantes del país, dinámico y decidido a realizar las transformaciones sociales que desde un punto de vista progresista son imprescindibles para echar las bases de una auténtica democracia política, cultural y económica" (Hordago, 1979, 3, 220 or.). Nabarmena da *Vasconiaren* eragina. Terminologia berria erabiltzen du halaber: ideologia marxistatik hartutako burgesia, langile klasea, klase borroka, jendarte-erlaketak, iraultzarako baldintza objektiboak eta abar erabiltzen ditu (Hordago, 1979, 3, 220 or.).

²⁸¹ Ikus *Gernika-Bilbao-Deba*, Zutik 20, 1964, Hordago, 1979, 3, 222 or.). Hemen ere terminologia marxista darabil.

²⁸² Ikus *Bi kondizio garaitzeko* (Zutik 20, 1964, Hordago, 1979, 3, 217 or.): Euskal Herriaren askatasunaren bi aldeak azpimarratzen ditu berriz ere eta langilea liberatzeko jendarte estrukturak goitik behera aldatu behar direla esaten du; *ETA o la resistencia del pueblo vasco* (Zutik 21, 1964, Hordago, 1979, 3, 231-232 or.); *Lecciones de la huelga* (Zutik 21, 1964, Hordago, 1979, 233-234 or.; Hordago, 1979, 3, 233 or.) artikuluan 1964ko ekaineko langileen lan-geldialdiak zoriondu eta bertatik ikasgai batzuk atera behar dituela ohartarazten du ETAK; *Kapitalisten langille "prestuak"* (Zutik 22, 1964, Hordago, 1979, 3, 241 or.).

²⁸³ Ikus *Definiciones*, Zutik 22, 1964, Hordago, 1979, 3, 242-243 or.

egituraketa sozialista aldarrikatzen du jadanik, nahiz ez duen artean eredu sozialista hori definitzen: "Para nosotros socialismo significa la estructuración socialista de la sociedad a que se llega partiendo de la evolución concreta en el caso de cada pueblo" (*Nacionalismo-socialismo*, Zutik 22, 1964, Hordago, 1979, 3, 245 or.). Eta, jakina, Euskal Herria askatzeko ezinbesteko baldintza jotzen du langile klasea askatzea (*La libertad de Euzkadi*, Zutik 22, 1964, Hordago, 1979, 3, 248 or.).

EAJren abertzaletasuna ez ezik, PSOE ere kritikatu zuen ETAk; esate baterako, *Colonialismo a lo PSOE* artikuluan (Zutik 23, 1964, Hordago, 1979, 3, 261-262 or.). Esaten du PSOEek langile espainolen klase interesak ordezkatzeko dituela eta funtzio bikoitza duela Euskal Herrian: batetik, sozialki zapalduta daudenen interesak babestea, baina aldi berean, Euskal Herriaren kontrako kolonialismoa egitea. Horrez gain, alderdiko buruzagiei burgestu izana leporatzen die eta jatorrian iraultzailea izan bazen ere, egileak dio, gaur PSOE ez dela helburu iraultzaileak dituen alderdia.

ETAren bilakaera ikusita, agerikoa da bere ideologian elementu marxistak txertatu ahala, aldatu egin zuela Ekin-ETAren lehendabiziko mundu ikuskera espiritual eta humanista (Garmendia, 1996). Langile sektoreak mugimendura hurbildu zirenean, orduan mahai gaineratu zuen ETAk sistema kapitalistarekin hausteko beharra eta bere diskurtsoa klase borroken gaineko tesi marxistekin zurkaiztu zuen (Apalategi, 1985, 248 or.). *Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos* (Zutik 25, 1964, Hordago, 1979, 3, 279-283 or.) agiria²⁸⁴ jo dezakegu inflexio puntutzat. Sozialismo marxistaren ideia batzuk erabiltzen ditu bertan: hala nola iraultza estrukturalak sustraieratik aldatzeko prozesu gisa ulertzea eta estatua kapitalisten pribilegioak kontserbatzeko eta babesteko aparatua hertsatzaile gisa aurkeztea (Hordago, 1979, 3, 278 or.). Nolanahi ere, eta aldaketak aldaketa, oraindik ez du marxismoarekin erabat bat egiten (Casanova, 2007, 52 or.).

²⁸⁴ Gutun honekin ETAk I. Biltzarreko printzipioak argitu eta sakonago landu nahi zituen, izan ere, biltzarraz geroztik ETAk ez zituen lehendabiziko oinarriak berriro landu. Gorago aipatu dugun bezala, 1963ko urria eta abendua bitartean atxilotu zituzten etakideek idatzi zuten Larrinagako espetxean (Hordago, 1979, 3, 278 or.).

Bere sozialismo-eredua zehazten jarraitu zuen ETAk²⁸⁵ eta langile-joera indartu zen ETAREN barruan (ikus II.4.3.). Testuinguru hartan idatzi zuen Txillardegik *Seudo-progresistas* artikulua. Erakusgarri ona da ETAREN barruko joeren arteko aldea ezagutzeko. Txillardegik dio Euskal Herria askatzeko ezinbesteko baldintza dela abertzaletasun aurrerakoa. Horixe besterik ez da eta hori guztia da ETA, bere nazio ikuskerak Euskal Herri osoa biltzen baitu: hots, bertakoak eta euskal nazio estatua eraikitzeko prest dauden kanpotar guztiak. Jakina aurrerakoa izateak edo demokrazia sozialistaren alde egoteak ez du eragozten, dio Txillardegik, abertzale izatea. Ezin zaio internazionalismoaren izenean nazioari uko egin: "Es curioso (...) que los «progresistas» anti-vascos que aún pululan en nuestra tierra, (...) sean insensibles a la opresión lingüística que sufre nuestro pueblo. (...) Hora es ya de que pasen del seudo-progresismo colonialista al PROGRESISMO PATRIOTA" (*Zutik* 28, 1965, Hordago, 1979, 3, 481 or.).

Sozialismo iraultzailearen adierazpen formala egin zuen ETAk 1965ean eta, halaber, bere abertzaletasun-eredua Afrika, Asia eta Ameriketako mugimendu antinperialistekin parekatu zuen²⁸⁶ (*Zutik* 29, Hordago, 1979, 3, 486-490 or.). Bateko, independentzia eta abertzaletasuna, eta, besteko, ideologia sozialista uztartu nahian zebilen ETA. Hirugarren Mundua deitutakoan hainbat naziok bat-egite hori lortu bazuten ere, Txinan, Kuban edo Vietnamen adibidez, Euskal Herriko baldintzak oso bestelakoak ziren. Europako ezkerak interes inperialisten zerbitzura egotea egozten zion nazionalismoari; eta, aldi berean, Euskal Herriko tradizio abertzaleak komunismoa arbuatzen zuen. Bi joeren erdian bi ideologiak integratu nahian zebilen ETA: alegia, bateko eta besteko elementu askatzaileekin teoria politiko berria osatu nahi zuen. Casanovak dio bere sozialismoa sozialismo zehaztugabea izan zela urteetan, eta horri esker, barne kohesioari eutsi ahal ziola ETAk; baina

²⁸⁵ Ikus *Democracia-socialismo* (*Zutik* 26, 1964, Hordago, 1979, 3, 296-297 or.) eta *Liberación nacional y popular de Euzkadi* formaziorako koaderno (Hordago, 1979, 3, 387-391 or.).

²⁸⁶ Marxismoaren eta nazio arazoaren uztarketa V. biltzarrean egin bazuen ere, lehen pausu batzuk atzematen dira ETAREN diskurtsoan (Apalategi, 1985, 253 or.). Ikus, adibidez, 1965eko *Zutik* 35: "No queremos un estado vasco... queremos un estado socialista vasco" (Hordago, 1979, 4, 46-47 or.); eta *Zutik* 38, Hordago, 1979, 4, 267 or.

etakide asko sozialismoaren lerroetara hurbiltzen hasi zirenean, saihestezina izan zitzaiola kohesio horri eustea (2007, 68 or.).

1967ko urtarrilean²⁸⁷ sozialismoa jo zuen ETAk kapitalismoaren alienazioarekin bukatzeko bidetzat. Horixe da ETAREN aldarrikapen sozialen kontzientziate-prozesuan Apalategik identifikatzen duen hirugarren maila: hau da, sozialismoa klaserik gabeko jendarte batera edo komunismora iristeko alde aurretiko urrats gisa hartzen duenekoa. Oker ez bagaude, V. Biltzarrean (1966-1967) iritsi zen ETA maila honetara. Apalategik dio V. Biltzarra hasiera besterik ez zela izan; izan ere, eztabaida-urte batzuk ondoren ondu zen gaia ETAn, ETAk marxismoaren eta nazio arazoaren inguruan sakondu zuenean (1985, 253 or.).

Txabiren *Sozialismoa eta abertzaleen batasuna [Frente Nacional]* idatzia izan liteke horren erakusgarri. Euskal sozialismoa aldarrikatu zuen Txabik bi alienazioak, nazionala eta soziala, deuseztatzeko. Espainiar langileekin Espainiako Estatu sozialista baten alde borroka egitea aberriaren aurkako "bide espainolista" iruditzen zaio Txabiri²⁸⁸; hain zuzen, Euskal Herria askatzeko ezinbesteko baldintza da, bere ustez, abertzaleen batasuna. Lehendabiziko fasean langileei jauntxoekin batera lan egitea egokituko zaiela argitzen du, aberriaren askatasuna, batasuna eta euskalduntasuna bermatzeko; baina aberria askatu orduko euskal langileak, oraingoan jauntxoen kontra, euskal sozialismoa ezartzen saiatu behar direla (*Zutik* 44, 1967, Hordago, 1979, 7, 116-117; Nuñez et al., 1993, 2, 266). Aurrerago sakonduko dugu auzi horretan.

²⁸⁷ 1966. urtearen amaieran V. biltzarraren lehen zatia egin ondoren, langile joera kanporatu zuen ETAk erakundetik; eta V. biltzarraren bigarren zatian (1967ko martxoan) Hirugarren Munduko ereduaren aldekoen joera gailendu zenean, joera sozialista-humanistako kide batzuek (Txillardegik, Benito del Vallek eta Xabier Imazek) ETA uztea erabaki zuten (Jauregi, 1981, 308 or.; Garmendia, 1996).

²⁸⁸ Ideia horrek segitzen zuen 70eko hamarkadako ETAn. Argalaren honako adierazpena da horren lekuko: "El Pueblo Vasco ha tenido ocasión de comprobar a lo largo de la historia que una revolución socialista a nivel de estado no es la solución automática de su opresión nacional; que los partidos obreros españoles están demasiado impregnados del nacionalismo burgués español" (Argala in Apalategi, 1979, 14-15 or.).

Klaserik gabeko jendartea bere borrokaren erdigunean jarri zuenean, aldatu egin zuen ETAk naziotasunaren diskurtsoa. Aurretik euskarak eta euskal kulturak ardazten zuten ETAk hobesten zuen naziotasuna; orain, aldiz, jatorria aintzat hartu gabe, Euskal Herrian lan egiten duten guztien eskubide-berdintasuna aldarrikatzen du. *Euskal Langile Herria*²⁸⁹ jo zuen nazio subjektutzat (ikus Jose Antonio Etxebarrietaren *Batasuna bai, Zutik* 47, 1967; Apalategi, 1985, 223 or.; Nuñez et al., 1993, 2, 278-279 or.).

4.5. Estrategia politikoa: euskal iraultza

ETAren nazio diskurtsoaren hiru zutabe garrantzitsuenetan hirugarrena aztertuko dugu orain: zehazki, estrategia eta ekintza metodoena. Abertzaletasun ekintzailea aldarrikatu zuten hasieratik Ekinek eta lehendabiziko ETAk, EAJren abertzaletasun ofizialari ez baitzioten eraginkortasunik ikusten²⁹⁰ (Letamendia, 1994, 252 or.). Biolentziarik gabeko erresistentziaren estrategia hartu zuen praktikan EAJk baina diskurtsoan borrokarako edozein bitarteko erabiltzeko prest agertu zen zenbaitetan²⁹¹.

Lehen urteetako ETAk *Métodos de acción (Comunismo-JOC)* koadernoak argitaratu zuen *Liburu Zurian*. Mugimendua eta masa erantzuna sortzeko ekintza-metodoen bila aritu zen. Ekintza-metodoen inguruan hausnartu bazuen ere, I. Biltzarrera arte (1962) ez zuen bortxazko borroka-metodoen praktika zehatzei buruz ezer idatzi

²⁸⁹ Pueblo Trabajador Vasco.

²⁹⁰ Esanguratsua da Jesus Maria Leizaolak 1959an EAJren jarduerari buruz egin zuen diagnostikoa: "estado de ánimo conformista y acomodaticio que abarca a jóvenes y viejos. (...) La política es un lujo muy caro en Euzkadi. (...) Las inquietudes políticas, es decir, para nosotros, las inquietudes patrióticas, son, generalmente casi nulas" (in Pablo, Mees, Rodríguez Ranz, 1999, 2, 243 or.). Edo EGiko militante batzuek 1963ko uztailan idatzitakoa: "Bakarrik gabiltzala iruditzen zaigu, guk asi bear degula gauzak osatzen, Euzko Gaztedia emen asten. Izan ere gu sartu gifñanean zerbait zegoelakoan geuden, bañan lanean asi geranean bakarrik arkitu gera" (in Pablo, Mees, Rodríguez Ranz, 1999, 2, 245 or.).

²⁹¹ Euskal nazioa askatzeko edozein bitarteko erabiltzeko prest agertu zen EAJ garai hartan: "La Juventud Vasca decidió ya hace mucho tiempo recurrir a los medios ilegales de la resistencia como la generación del 36 decidió oponer la resistencia armada. (...) si fuera menester para vencer la tiranía y volver a un estado de derecho, usar la violencia armada, afirmaríamos, sin vacilar, la legitimidad de este último recurso" (in Pablo, Mees, Rodríguez Ranz, 1999, 2, 266 or.).

(Jauregi, 1981, 136-138 or.). Horrek ez du esan nahi, ordea, bortxa edo armak erabiltzearen alde ezer esan ez zuenik. Ekinen *Moral de resistencia nacional* koadernoak berrargitaratu zuenean (1960-1961), azken muturreraino iristeko prest egongo den morala aldarrikatu zuen ETAk eta nazioa askatzeko armak erabiltzea zilegi dela azpimarratu zuen (Hordago, 1979, 1, 196-197 or.).

Jauregik dio 1961eko uztaileko trenaren ekintzari²⁹² erregimen frankistak eman zion errepresio erantzunaren ondoren sortu zitzaiola ETARI galdera: ea bere helburuak lortzeko bortxazko borroka-metodoak erabiltzea tresna baliagarria ote zitzaion ala ez. Errepresioak bultzatu zuen, nolabait, ETAREN barruan gaiaren inguruko hausnarketa, metodorik egokiena zein ote zen erabakitzeko premia eragin baitzion²⁹³. I. Biltzarreko Zuzenbide agirian (1962) ETAK ez du artean ekintza-metodo zehatz baten alde garbi egiten. I. Biltzarretik aurrera hasi zen ETAREN barruan gaiaren inguruko eztabaida: zehazki, 1962ko bigarren sei hileko osoan eta 1963ko lehen hilabeteetan (1981, 137-138 or.).

I. Biltzarra egin orduko, hiru erronka zabaldu zitzaizkion ETARI. Lehendabiziko biak aztertu ditugu dagoeneko: hots, Euskal Herriaren nazio aldarrikapena oinarritzeko teoria sendo bat eraikitzea, eta abertzaletasuna garaiko errealitate sozioekonomikoetara egokitzea. Nazio askapenerako estrategia politiko egokia abian jartzea da ETAREN hirugarren erronka²⁹⁴. Estrategia hori zehazterakoan bi aukera agertzen zaizkio ETARI: Europa batuaren aldekoa, batetik, eta herri

²⁹² Arestian aipatu dugun bezala, 1961eko uztailean frankismoaren kontrako ekintza bat egitea erabaki zuen ETAK. Uztailaren 18a ospatzera Donostiara zihoazen soldadu ohi falangistez beteriko tren bat errailetatik ateratzen saiatu zen (Casanova, 2007, 31-32 or.).

²⁹³ 1961eko abenduko/1962ko urtarrileko *Zutik* alean gaiari buruzko hausnarketa egin zuen ETAK (Hordago, 1979, 1, 404-408 or.). Langileen grebak txalotzen ditu bertan eta, ekintza bakezalea eraginkortasun handiko bidea izan daitekeela onartzen badu ere, esaten du ez duela bakezaletasunean sinesten. ETAK uste du Euskal Herriko egoera aldatzeko ekintza ez-bortitza baino zerbait gehiago behar dela.

²⁹⁴ 1962ko apirilko *Zutik* alean estrategia horren beharra azpimarratzen du ETAK: "Todo esto no es sino mística, sentimientos; y toda mística requiere una ascética. Y los sentimientos, advierte M. Begin, «precisan una lógica que inspire una estrategia, pues una buena estrategia asegura la victoria». (...) Euzkadi necesita, sobre todo, hacerse con una estrategia" (Hordago, 1979, 1, 412 or.).

kolonizatuen aldekoa, bestetik. Bi aukeren aldeko joerak sortu ziren ETAREN barruan²⁹⁵ (Jauregi, 1981, 216 or.).

Gure aldetik, bi alderdi nabarmenduko ditugu ekintza-metodoei buruzko ETAREN idatzietan. Batetik, ETAK borroka-moldeen inguruan hasi zuen eztabaida (Apalategi, 1985, 257 or.). I. Biltzarra egin ondoren berehala hasi zen ETAN bortxaren inguruko eztabaida eta bi aukera jarri ziren mahai gainean: hau da, indarrezko erresistentzia egitea ala indarririk gabekoa. Indarririk gabeko erresistentziaren aldekoek²⁹⁶ Gandhik Indian garatu zuen borroka hartu zuten eredu (Jauregi, 1981, 209 or.). *En torno a la no-violencia* (Zutik 7, 1962, Hordago, 1979, 2, 295-296 or.) artikuluan laburbildu zuten beren tesia. Funtsean honetan datza proposamena: bortxarik gabeko estrategiak jende gehiago erakarriko lukeela borrokara eta, gainera, ETA ez litzatekeela Espainiaren dominazioaren joko-zelaian sartuko.

Bortxazko erresistentziaren aldekoek²⁹⁷ *Más opiniones sobre la no-violencia* (Zutik 8, 1962, Hordago, 1979, 2, 301 or.) artikuluekin erantzun zioten aurrekoari. Gandhiren borrokari baliotasuna aitortzen dioten arren, ez dute uste Euskal Herrirako baliagarria denik; izan ere, metodo bakezalea "erregimen politiko zibilizatueta" edo "erdi zibilizatueta" soilik ezarri dela ohartarazten dute. Botere judizialak kasurik okerreanean %50ean justizia egiten duen estatuetan. Eta ez da hori, ezta urrik eman ere, Hego Euskal Herriko egoera. Borroka armatuaren alde egiten dute itzulingururik gabe.

Zutik gan jarraitu zuen eztabaidak beste kide baten artikuluekin. Indarrezko bidearen alde egin zuen honek ere. Funtsean dio Indian erabili zuten biolentziarik gabeko estrategiak mugimendu antolatu bat eta faktore jakin batzuk (politikoak, ekonomikoak eta erlijiosoak) eskatzen dituela ezinbestean. Eta faktore horiek

²⁹⁵ Aurretik ere bazen ETAREN barruan Europaren aldeko joera.

²⁹⁶ "El compañero ghandiano de Bizkaia" izeneko kideak idatzi zuen artikulua. Zaila da ETAREN barruan zenbaterainoko babesa zuen jakitea.

²⁹⁷ Zehazki Julen Madariagak, izen-abizenekin sinatu baitzuen artikulua.

Euskal Herrian gertatzen ez direnez, metodo hori antolatzea suizidioa litzatekeela (*Más sobre la no-violencia*, *Zutik* 9, 1963, Hordago, 1979, 2, 312 or.).

II. Biltzarrean (1963ko martxoa) borroka armatuari buruzko eztabaidak leku erabakigarria izaten segitzen zuen ETAREN pentsamendu zurrumbiloan (Hordago, 1979, 2, 434 or.). Aldizka, borroka bakezaleari bertute batzuk aitortzen dizkion arren, eta etakide batzuek horren aldeko testuak argitaratu bazituzten ere, biolentziaren erabilera aldeztu segitu zuen ETAK oroz gainetik²⁹⁸ (Jauregi, 1981, 138 or.). 1963. urtean artikulu gehiago argitaratu zituen auzi horretaz²⁹⁹.

Ekintza-metodoen gaineko ETAREN diskurtsoan bada nabarmentzen den beste ideia bat: alegia, bortxa erabiltzearen zilegitasunarena. 1963ko urriko lan-etenaldiaren harira izandako atxiloketen ondoren, berriro jarri zuen mahai gainean gaia ETAK 1963 amaieran eta 1964 hasieran (Jauregi, 1981, 210 or.). *Diálogo o violencia* izeneko artikulu argitaratu zuen *Zutik* argitaldariaren 17. alean³⁰⁰. Elkarrizketarena da ETARENTZAT aukerarik desiragarriena baina, hala ere, honako galdera hau egiten dio bere buruari jarraian: zer egin alde batek beste aldearen mailan jartzeari uko egiten dionean? Xehetasunak xehetasun, horixe besterik ez da Euskal Herriko egoera; herri kolonizatu batena³⁰¹. Beraz, inperialisten biolentziari biolentziarekin erantzutea bide zilegian jardutea dela ondorioztatzen du ETAK (Hordago, 1979, 2, 387-388 or.).

Bortxa erabiltzearen aldeko jarrera indartu egin zen ETAN 1963ko urrian militanteen atxiloketak gertatu eta Krutwig-ek *Vasconia* (1963) argitaratu zuenean; izan ere,

²⁹⁸ Ikus, esate baterako, ETAREN *Nuestra responsabilidad* koaderno. Bigarren bertsioa editatu zuen ETAK, osatu egin zuen Liburu Zuriko bertsioa. Erakundeak militanteei eskatzen dizkien zereginak aipatzen dituelarik, aurreko bertsioan aipatzen ez zuen zeregin bat gehitzen du orain, hots, metrailetak hartzearena: "entregándonos incondicional y frecuentemente a aquella actividad que la organización nos encomiende, sea el proselitismo, la información, revigorización de nuestras instituciones o tomar la metralleta" (Hordago, 1979, 2, 138 or.).

²⁹⁹ Ikus *Más sobre el problema de la violencia*, *Zutik* 12, 1963, Hordago, 1979, 2, 355-356 or.

³⁰⁰ 1962an *Ginebrako Elkarrizketak* ospatu ziren Suitzan elkarrizketaz eta biolentziaz hitz egiteko; topaketa haren harira idatzi zuen ETAK artikulu.

³⁰¹ UNESCOn Alto Voltako ordezkari zen Ki-Zerbo-k gogor kritikatu zuen Ginebrako elkarrizketetan estatu kolonialisten jardura eta, kritika hori bere eginez, Madariagak Euskal Herriaren eta herri kolonizatuen egoera parekatu zituen artikulan (Jauregi, 1981, 210 or.).

Krutwig-ek talde haren tesiak baieztatu besterik ez zituen egin (Jauregi, 1981, 211 or.). Krutwig-ek bortxazko borroka metodoen alde egin zuen eta horrek eragin erabakigarria izan zuen ETAn³⁰². Bi alderdi nabarmen genitzake bere ekarpenean: batetik, euskal nazio identitatea berreskuratzeko borroka armatua erabiltzea zilegi dela defendatzea; eta, bestetik, Euskal Herriaren testuingurura ondo egokitu ahal izateko, borroka armatuari izaera zientifikoa emateko beharra azpimarratzea (Jauregi, 1981, 216 or.).

Borroka armatuaren legitimitateari dagokionez, Krutwig-ek dio Euskal Herriak eskubide osoa ez ezik, armak hartzeko eginbehar morala duela Espainiaren eta Frantziaren asimilazioari aurre egiteko (1963, 30 or.). Eta, erantsiko du, independentzia eskuratzeko bide bakarra armen arrazoia dela; besterik ez dute erakutsi, dio Krutwig-ek, independentzia lortu duten nazio borroka guztiek (1963, 328 or.). Euskal Herrian elkarrizketarako bitarteko politiko eta aukera guztiak amaitu direla iritzita, Hirugarren Munduko ereduak aukeratu zuen; iraultza-gerra proposatu zuen Euskal Herria askatzeko estrategia gisa, iraultza-gerrak biltzen baitzituen, bere esanetan, gerra-teknika berrienak. Estrategia militarra eta ideologia estu lotu zituen Krutwig-ek iraultza-gerraren definizioan (1963, 329 or. eta hurr.).

Borroka armatuari izaera zientifikoa emateko egin zuen ahaleginari dagokionez, gerra nola egin eta gerrillak nola antolatu behar ziren azaldu zuen *Vasconian*. Gerra modernoaren autore klasikoak ez ezik (Von Clausewitz, besteak beste), gerra iraultzailearen estrategia ezagunen lana ere erabili zuen: hala nola, kontragerrillako profesionalena (Mao Zedong eta Ho Chih Minh-ena, esate baterako) eta Trinquier koronel frantsesarena (1963). Eragin handia izan zuten Krutwig-en ideiek ETAn, besteak beste honako auzi hauetan: gerrillariak herritarren babesa jasotzeko ezinbesteko baldintza dela gerrari ideal bat ematea (zapalketaren kontrako

³⁰² Krutwig-ek berak onartu zuen *Bellica* atalak eragin zuela gehien ETAn, hots, honako alderdi hauek: nazio askapenean biolentzia erabiltzea, eta gerra nola egin eta gerrillak nola antolatu behar ziren (Murua, 1997, 89-90 or.). Hordago, 1979, 3an eragin handieneko *Vasconiaren* zatiak argitaratu zituen Hordago taldeak, tartean *Bellica* (1979, 74 or. eta hurr.).

itxaropenarekin lotzea); babes hori izateko eta ideala zabaltzeko zein garrantzi duen ekintza psikologikoak (propagandak); mendi-gerrilla eta asfalto-gerrilla nola antolatu behar diren eta zein helburu izan behar dituzten; *erretalioa* edo bortxa-espiralaren printzipioa³⁰³; eta *hirurkoen*³⁰⁴ eta *hierarkia paraleloen* ideiak³⁰⁵ (1963: 327-343 or.).

Horiek horrela, *iraultza-gerra* kontzeptua erabiltzen hasten da ETA orain. 1963ko *La guerra revolucionaria* (Zutik-Caracas 2, 1963, Hordago, 1979, 2, 505-508 or.) izeneko artikuluan definitu zuen kontzeptua: hala, bere baitan biltzen dituen ekintza politiko, sozial, ekonomiko, psikologiko eta armatu multzo gisa definitzen du, zeina ezarritako boterea botatzen eta beste sistema batekin ordezkatzeko ahalegintzen den. Izan, ekintza politiko-militarra da iraultza-gerra baina, hala ere, bi alderdi horietan politikoa lehenesten du ETAk (Krutwig-ek egin bezala). Esaten du iraultza-gerra iraultza politiko eta zibikoa dela, oroz gain, espirituak konkistatu behar dituen iraultza. Alde militarra gainerako ekintza iraultzaile guztien osagarria da. Horixe da ETarentzat Euskal Herria askatzeko bide errealista bakarra.

Bidea argi samar du ordurako ETAk baina gaiaren inguruko sakontasun teorikoa *Guerra revolucionaria* edo *La insurrección en Euzkadi*³⁰⁶ (Hordago, 1979, 3, 21-70 or.) izeneko koadernoan egin zuen. 1963ko urriko sarekadaren ondoren idatzi zuen eta III. Biltzarrean (1964ko martxoa eta apirila) onartu: iraultza-gerraren printzipioekin, edo nazio kolonizatuen bide anticolonialistarekin, bat egin zuen horrela (Hordago, 1979, 2, 216 or.). Euskal Herrian gerrilla-ekintzarako plan bat praktikan jartzeko

³⁰³ Printzipio horren arabera etsaiaren ekintza orori kontraneurri indartsuago batekin erantzun behar zaio, zapaltzailea zapalduaren borondatea onartzera behartzeko; okupatzaileari ikusarazteko onuragarriago zaiola atzera egitea. *Mao Zedong*-en ekarpenetik hartu zuen Krutwig-ek (1963, 338 or. eta hurr.). Aldaketa batzuk egin zizkion arren, urte askotan aplikatu zuen gero ETAk printzipio hura, aurrerago aipatuko dugun *ekintza-errepresioa-ekintzaren teorian* hain justu (Jauregi, 1981, 220 or.).

³⁰⁴ Hirurkoak hiru militantek osatutako taldeak dira eta borrokaren oinarrizko zelula gisa definitzen ditu.

³⁰⁵ Hierarkia paraleloak borroka subertsiboaren bizkarrezurra dira; gerrillak garaipena lortutakoan, estatu administrazioaren koadro inperialistak ordezkatzeko dituzten bertako koadro iraultzaileei esaten die Krutwig-ek hierarkia paraleloak (1963, 335-342 or.).

³⁰⁶ III. Biltzarreko prestatu zuen ETAk *Guerra revolucionaria* izeneko koadernoan. Biltzarrean onartu ondoren *La insurrección en Euzkadi* izenarekin argitaratu zuen (Jauregi, 1981, 225-226 or.). Hemendik aurrera *La insurrección en Euzkadi*.

saiakera izan zen funtsean³⁰⁷. Krutwig-en eragina, noski, nabarmena da liburuxkako alderdi guztietan³⁰⁸ (Jauregik, 1981, 226 or.).

Krutwig-en ildo berean iraultza-gerraren zilegitasunaz mintzo da ETA: izan ere, inposatutako legeriaren aurrean nazio zapalduak darabilen askapenerako gerra (bortxa) justua da, estatu zapaltzaileek indarra erabiliz konkistatu baitituzte herri zapalduak. Indarraren erabilera legitimatzen duen beste tesia zera da, konkista-testuinguru horretan ez dagoela, alegia, elkarrizketarako aukerarik³⁰⁹: "CUANDO la política ha agotado todos sus medios, se impone la guerra justa de liberación. En tal situación se encuentran todos los pueblos sometidos a la ocupación extranjera, violados y pisoteados" (Hordago, 1979, 3, 25 or.; letra larria jatorrizkoan).

Horrez gain, *erresistentzia* eta *politika* kontzeptuak ere bereizten ditu ETAk; Krutwig-entzat bezala ETarentzat ere, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borroka ez da jarduera politiko hutsa, erresistentzia-jarduera zabala baizik. Ikerketa honetan ETA mugimendua aztertzea dugunez helburu, puntu hau nabarmentzea interesatzen zaigu. ETAk zentzu globala ematen dio iraultza-gerrari: hartara, borroka armatuaren jarduerak ez ezik, estatu zapaltzailea euskal lurretatik botatzeko ekintza oro hartzen baitu bere baitan. Hor kokatu beharko genuke

³⁰⁷ Hiru zati bereiz ditzakegu dokumentuan: 1) Euskal Herrian iraultza-gerrari ekiteko arrazoiak azaltzen ditu sarreran (Hordago, 1979, 3, 25-28 or.); 2) iraultza-gerraren alderdi teorikoak azaltzen ditu gero: gerra klasikoarekin duen aldea, abantailak, ezaugarriak eta abar (Hordago, 1979, 3, 29-46 or.); eta 3) Euskal Herrian iraultza-gerra garatzeko kontuan hartu behar diren oinarritzko helburuez hitz egiten du azken zatian (Hordago, 1979, 3, 47-65 or.).

³⁰⁸ Hirugarren Mundua deitutako eremuko nazio kolonizatuen eta Euskal Herriaren artean egiten duen paralelismoan: esate baterako, ETAREN hitzetan Euskal Herria bi estatu arrotzek bortxaz anexionatu, konkistatu, eta zapalduak nazioa da. Zentzu horretan, ETAREN borroka erregimen akzidental baten kontrako borroka baino askoz gehiago da, helburua espainiar eta Frantziar estatuak Euskal Herriaren lurraldetik kanporatzea baita. Modu argian formulatzen du gaia ETAK *Nuestro enemigo concreto* artikuluan (*Zutik* 24, Hordago, 1979, 3, 268-270 or.).

³⁰⁹ Jauregik dio ETarentzat oso garrantzitsua dela argumentu hori (iraultza-gerraren zilegitasunarena); izan ere, garatu nahi duen borroka-modua herritarren aurrean justifikatzeko giltzarrietako bat da (1981, 227 or.). Murok errepresio testuinguru hartan ETAREN ekintza armatuek zuten estaldura morala nabarmentzen du (2008, 113 or.).

ETAren *militantzia integralaren* ideia ere³¹⁰ (masa abertzaletasunean sakonduko dugu horretan).

Ekintza ideologikoa lehenesten du ETAk: borroka politikoak du toki nagusia iraultza-gerran eta gainerako jarduerak, armatua barne, haren mende geratzen dira. Zentzu horretan, ETarentzat ezinbesteko baldintza da herriak bere borroka babestea:

Al [sic] arma más importante que da la victoria al combatiente de la G.R. [guerra revolucionaria] es la población civil, el hecho de que el pueblo esté del lado nuestro. (...) La G.R. solo [sic] puede nacer de una voluntad política bien afirmada. Es, pues, indispensable preparar a toda la población para la G.R., para luego arrastrarla y hacerla participar en ella activamente (Hordago, 1979, 3, 38 or.; letra etzana jatorrizkoan).

Iraultza-gerraren metodoak hautatzen ditu ETAk beste herri kolonizatu batzuetan izan dituen emaitza arrakastatsuak direla medio. Gerra klasikoaren metodoek ez diote balio nazio askapenerako. Krutwig-ek bezala ETAk ere, bereizi egiten ditu hiri-gerrilla edo asfalto-gerrilla eta mendi-gerrilla, eta hierarkia paraleloen ideia ere badarabil. ETAren iraultza-gerraren helburuak eta bitartekoak nazio kolonizatuetakoa askapen-mugimenduen berberak dira funtsean (Hordago, 1979, 3, 29-38 or.). 1964ko idatzietan ETAk errepikatu egin zituen gero *La Insurrección en Euzkadi* txosteneko ideiak. Ekintza gogorraren, dinamika propioaren eta masa mobilizazioaren beharra azpimarratzen du etengabe³¹¹.

Borroka-moldeen inguruko ETAren hausnarketetan bi alderdi nabarmendu ditugu. Nolanahi ere, bada ETAren idatzietan transbertsala den gai bat; lehendabiziko

³¹⁰ Resistente idatzian modu oso argian azaltzen du ETAk erresistentziaren eta militantzia integralaren bere ikuspegia: "Ser resistente con algo de responsabilidad es vivir las 24 horas del día con la mirada puesta en Euzkadi" (Zutik 26, 1964, Hordago, 1979, 3, 299 or.)

³¹¹ Ikus *Del pueblo vasco*, Zutik 20, Hordago, 1979, 3, 218-221 or.; *El fin no justifica los medios*, Zutik 20, Hordago, 1979, 3, 224-227 or.; *Bidean...*, Zutik 21, Hordago, 1979, 3, 229-230 or.; *Politika emea ala egiazko politika?*, Zutik 23, Hordago, 1979, 3, 258-259 or.; *Zapaltzailleak, berriz ari* Zutik 24, Hordago, 1979, 3, 265 or.; *Optimismo y olvidemos o pesimismo y obremos*: "Sin violencia no hay independencia, no hay euskera y no hay Euzkadi", Zutik 26, 1964, Hordago, 1979, 3, 294 or.

idatzietan jorratzen du eta, gerora, behin eta berriro aipatzen du: hots, ETA masa mugimendu bihurtzeko beharra (Apalategi, 1985, 261 or.). *La insurrección en Euzkadi* txostenean nabarmendu dugu puntu hori eta beste testu batzuk ere aipa genitzake orain, esate baterako honakoa: 1964an *Zutik* 21ean argitaratu zuen *Dogmas o tabús* artikulua³¹² (Hordago, 1979, 3, 234-235 or.). Biolentziaren eta masa akzioaren arteko harremanaz hausnartu zuen ETAk bertan. Kritika bati erantzunez, bi ideia zurkaizten ditu funtsean. Batetik, ukatu egiten du ETAk masa ekintzak arbuizatzen dituenik eta, bestetik, ez du kontrajarria ikusten biolentzia eta masa ekintza batera sustatzea (Hordago, 1979, 3, 234 or.). Aurrerago sakonduko dugu masa mugimenduaren eta masa abertzaletasunaren auzian.

La insurrección en Euzkadi argitaratu eta urtebetera oso urruti zegoen ETA Espainiako Estatuaren indarrei aurre egiteko antolaketa militar minimo bat izatetik; hain zuzen, txosteneko printzipio teorikoak praktikan jartzen saiatzerakoan zailtasun handiekin egin zuen topo. Orduan Hirugarren Mundua izenez ezaguna den eremuko eredu iraultzailearen egokitzapena egiten du ETAk III. Biltzarraren (1964ko martxoa eta apirila) eta IV. Biltzarraren (1965eko uztaila) arteko tartean. Euskal Herriarentzako teoria antikolonialista bat lantzen hasten da. Hirugarren Munduko ereduaren tesiak eta tesi antikolonialistak Euskal Herriko errealitatera egokitzen eta haietan sakontzen jardun zuen³¹³ (Hordago, 1979, 3, 513 or.; Jauregi, 1981, 231-239 or.).

II. do antikolonialistaren tesi teorikoek IV. Biltzarrean (1965eko ekaina eta uztaila) jo zuten goia. I. Biltzarreko *Zuzenbide* printzipio ideologikoetako hainbat artikulua aldatzea³¹⁴ erabaki zuen ETAk eta gero erakundearen eragin handia izan zuten bi txosten onartu zituen (Jauregi, 1981, 245 or.). Lehendabizikoa: *Bases teóricas de la guerra revolucionaria* (IV. Biltzarrerako prestatua, Hordago, 1979, 3, 514-518 or.).

³¹² Masa ekintzen garrantzia aldeztu du halaber *Erriaren indarra* (*Zutik* 18, 1964, Hordago, 1979, 3, 185 or.) eta *Nuestra actitud* (*Zutik* 28, 1965, Hordago, 1979, 3, 478-479 or.) artikuluetan.

³¹³ Ikus adibidez 1965eko uztailako *Zutik* 31: Kuba, Aljeria eta Vietnam-eko ereduak imitatzearen interesa agertzen du ETAk (Hordago, 1979, 3, 524-525 or.).

³¹⁴ Gizarte-ereduari lotutakoak; jendarte sozialista eraikitzearen helburua onartu zuen ETAk orain (Hordago, 1979, 3, 513 or.).

Iraultza-estrategiaren³¹⁵ bi alde nagusiak biltzen zituen txostena: akzio-errepresioaren printzipioa eta ETAREN lau sailtako antolaketa (militarra, aktibista, informazioarena eta bulego politikoarena). Gerrilla-estrategia Euskal Herriko baldintza objektiboetara eta ETAREN antolaketa-garapenera egokitzeko saiakera egin zuen erakundeak, proposamen zehatzagoak eginez eta Euskal Herriaren eta ETAREN baldintza objektiboak etengabe aipatuz (Hordago, 1979, 3, 513 or.; Jauregi, 1981, 246 or.).

Krutwig-en ekarpenari jarraiki, bortxaren espiral dialektikoan oinarritu zuen akzio-errepresioaren printzipioa. Honako haxe da mekanismoa: 1) ETAK, edo ETAK gidatutako masak, sistemaren kontrako ekintza probokatzailerik bat egiten du; 2) estatuaren errepresio aparatuek masak erasotzen ditu; eta 3) errepresioaren aurrean masak osagarri diren kontrako bi eratan erreakzionatzen du: izuak hartuta eta errebeldiaz, hurrenez hurren. Une hori aprobetxatu behar du ETAK kontragolpe bat emateko, masaren izua gutxitu eta errebeldia handitu ahal izateko (Hordago, 1979, 3, 515 or.). Mekanismo horrek funtzionatzeko baldintzak eta etapak ere aztertzen ditu txostenean³¹⁶ (ikus Hordago, 1979, 3, 515 or. eta hurr.).

Masa ekintzaren beharra nabarmentzen du ETAK berriro. Sistema zapaltzailea kanporatzea baino garrantzitsuagoa zaio ETARI zapalketa begi bistakoa egitea eta,

³¹⁵ Euskal iraultza-gerraren beste definizio bat egin zuen ETAK orain: Euskal Herriaren autodeterminazioa helburu duen prozesu politiko eta militar gisa definitu zuen; helburu hori lortzeko, dio ETAK, politikoki iraultza-gerrak sistema zapaltzailearen okupazioa agerian jarri behar du eta, militariki, ekintza-errepresioaren espirala erabiltzea ezinbestekoa da (Hordago, 1979, 3, 515 or.). Urte batzuk beranduago jarri zuen praktikan akzio-errepresioaren (bortxa-espiralaren) printzipioa (Jauregi, 1981, 247 or.).

³¹⁶ Hiru urteren buruan esperientzia konkretuekin azaldu zuen ETAK akzio-errepresioaren espirala. *Zutik* monografiko bat prestatu zuen horretarako. Adibide zehatz batekin azaltzen du prozesua: 1) ikastola legala; 2) administrazio-debekua; 3) ikastola klandestino; 4) poliziaren debekua eta errepresioa; 5) ekintza gogorra; 6) errepresio militarra (metrailetak eta galdeketak); 7) herri osoaren ekintza (adibidez, manifestazioa); 8) maila guztietako errepresioa herri guztiaren kontra. Ondorioa honakoa litzateke: herria batzea eta gerran altxatzea. Meliton Manzanasen hilketak eta erregimen frankistaren errepresioak estrategia berari erantzuten dio (*Espiral acción-represión, Zutik* 50, 1968, Hordago, 1979, 7, 291 or.). Jauregik dio ETAREN aurreikuspenak bete egin zirela akzio-errepresioaren printzipioarekin, erregimen frankistak errepresioarekin erantzuten baitzion ETAREN akzio orori (1981, 247 or.).

modu horretan masak kontzientziaztea (Hordago, 1979, 3, 514-518 or.). Aurrerago sakonduko dugu auzi horretan.

Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos izan zen IV. Biltzarrean onartu zuen bigarren txostena. Hirugarren Mundua izenez ezagutzen den eremuko tesien eta tesi antikolonialisten egokitze eta sakontze prozesuaren gailurra irudikatu zuen nolabait. Nazio askapenerako mugimendu gisa, erantzun holistikoa eman nahi zion ETAk Euskal Herriaren arazo orokorrari; horregatik landu zituen hain zuzen gutunean hainbeste auzi. Gainera, ikuspegi berritzaile batetik interpretatu nahi zituen Euskal Herriko arazoak, betiere, euskal nazioa askapenerako bidean jartzeko. Herri kolonizatuetakoz nazio askapenerako mugimendu iraultzaileen eragina ikaragarria da³¹⁷.

Estrategia politikoari dagokionez, iraultzaren eta hausturaren bidez abertzaletasun berriak garaiko esturaturak erabat aldatu behar dituela argudiatzen du ETAk. Eta Krutwig-ek *Vasconian* eta ETAk *La insurrección en Euzkadi* liburuxkan landutako "hierarkia paraleloak" sortzeko ahalegina egiten du halaber; izan ere, intelektual abertzaleek funtsezko funtzioa dute estatu administrazio inperialistaren koadroak ordezkatzeko prozesuan (Zutik 25, Hordago, 1979, 3, 279-289 or.).

ETAk V. Biltzarrean (1966-1967) egin zuen nazio askapenaren eta sozialismo-komunismoaren arteko sintesi teorikoa (Apalategi, 1985, 279 or.). Eta *abertzaletasun iraultzailea* kontzeptuarekin definitu zuen bere filosofia. Aurrerago sakonduko dugu V. Biltzarraren ekarpenean. Hemen aipa dezagun oraingoz fronte militarri buruz V. Biltzarraren bigarren zatiak (1967) adostu zuena. ETAREN barruan indartuz zihon frontea zela aitortu bazuen ere, ez zen frontierik garrantzitsuena; bere helburua beste hiru fronteak (politikoa, ekonomiko, kulturala) laguntzea zen berez (Nuñez et

³¹⁷ Iraultza aljeriarrarekin lotutako autoreen eragina azpimarra genezake: Frantz Fanon-en *Pour la révolution africaine* eta Albert Memmi-ren *Le portrait du colonisé* obrena. Baina Aureli Escarré Montserrat-eko abadeak *Le Monde* egunkarian (1963ko azaroaren 14an.) egin zituen deklarazio batzuen eta Oteitzaren *Quousque tandem* obraren eragina ere azpimarratzekoa da (Jauregi, 1981, 254-255 or.).

al., 2, 1993, 301 or.; Enbata aldizkariak 1968ko urriaren 9an ETArri egin zion elkarriketatik hartua). Lau fronteak artikulatuko zituen estrategia nahi zuen ETAK, ez du beste biderik ikusten Euskal Herria modu erabatekoan askatzeko. Beste baldintza masa borrokarena da, ETAK herriak egindako iraultzan sinesten du: "Herriak egin ahal izanen du EUSKAL IRAULTZA SOZIALISTA" (*Batasuna, askatasuna, indarra*, *Zutik* 49, 1968, Hordago, 1979, 7, 265 or.; letra larria jatorrizkoan)

V. Biltzarraren bigarren zatia egin ondoren (1967ko martxoa) hasi zen ETA estrategia antikolonialistaren bideragarritasuna zalantzan jartzen. Gure ikerketa eremutik irteten den arren, bidenabar aipa dezagun hemen borroka armatuaren gaia eztabaida-gai izan zela ETA V.aren eta ETA VI.aren arteko bereizketan³¹⁸ (1970). ETA V taldearen VI. Biltzarrean (1970) baztertu zuen gero ofizialki bide antikolonialista (Jauregi, 1981, 231-236 or.).

Jauregik bezala Jeram eta Conversi-k diote frankismoaren errepresioak bultzatu zuela ETA bortxazko borroka metodoetara. Frankismoaren aurretik ere bazen abertzaleen artean Espainiaren eta Frantziaren okupazioaren kontrako sentimendua; izan ere, euskal identitatearen suntsitze-prozesua aurretikoa da. Baina, Jauregik dio, frankismoak areagotu egin zuela iragan urrunetik zetorren euskal identitatearen deskonposizio-prozesuari buruzko sentimena. Hortik etorri zen, etorri ere, okupazioaren kontrako sentimendutik okupazioaren kontrako erantzun eraginkor baterako jauzia; ordura arteko abertzaletasunak erabili ez zuen ekintza-metodoa hautatu izana (Jauregik, 1981, 208-214; Jeram eta Conversi, 2014, 55 or.).

³¹⁸ Argalak dio ETA VI.ak metodo elitistatzat jotzen zuela borroka armatua; burgesia txikiak langile-masen protagonismoa ordezkatzeko bultzatzen zuen metodotzat hartzen zuela. ETA V. entzat alderantziz zen: herri xehearen mailan, bereziki langile klasearen atsekabearen alderdirik erradikalena adierazten zuen borroka armatuak; euskal langileek pairatzen zuten zapalketa bikoitzaren, nazio zapalketaren eta klase esplotazioaren, emaitza besterik ez zen (Argala in Apalategi, 1979, 13-17 or.).

4.6. Abertzaleen Batasuna eta masa abertzaletasuna sustatzeko diskurtsoa

Abertzaleen Batasuna edo Fronte Abertzalearen proposamena ez zen erabat gai berria ETarentzat, abertzaletasunaren historian izan baitziren aurretik tankerako proposamenak: abertzaleek indar antifrankistekin adostutako itunak, lekuko. 1936ko gerra garaian, adibidez, izan zen indar antifrankistak biltzeko saiakerarik eta, denboran hurbilago, 1945ean Baionako Ituna sinatu zuten Hego Euskal Herriko indar antifrankista guztiek (Apalategi, 1985, 262 or.).

I. Biltzarrean (1962) eta hurrengo urteetan oinarri ideologikoak eta antolaketa-zurkaitzak jartzen aritu zen ETA, eta V. Biltzarrean (1968) halako heldutasun politiko bat eskuratu zuen (Casanova, 2007). Aztertu ditugu dagoeneko ETAREN lehen hamar urteetako diskurtsoaren ezaugarri ideologikoak. Akonfesionaltasuna eta sustrai historikoen azterketa, batetik, eta bere nazio estrategiaren ardatz izango diren hiru zutabeak, bestetik: alegia, arrazaren lekuan hizkuntza-kultura jartzea naziotasunaren oinarrian eta independentziaren aldeko jarrera hartzea (nazio askapena), herri justuago baten aldarrikapena (askapen soziala) eta estrategia iraultzailea.

Diskurtsoaren alderdi bakoitzak bere bilakaera izan duela ikusi dugun arren, ETAREN diskurtsoaren bilakaera orokorrean bada azpi-inflexio puntu bat: zehazki, 1964 eta 1965 urteak. Hirugarren Mundua deritzan herrietako nazionalismoarekin bat egin zuen ETAK eta eredu haien estrategia iraultzailea Euskal Herrira egokitzen saiatu zen. Gero eta gehiago urrundu zen EAJren diskurtsotik eta, alde eta aldi berean, masa abertzaletasuna sustatzen ahalegindu zen (Jauregi, 1981, 275-276 or.). Abertzaletasuna indartu ahal izateko ezinbesteko baldintza zen ETarentzat alderdi eta erakunde abertzaleek batera jardutea. Atal honetan ETAREN diskurtsoaren bilakaeran iraunkorrak diren bi gai horietan sakonduko dugu: Abertzaleen Batasunean eta masa abertzaletasunaz egin zituen hausnarketetan.

ETAk lehen urteetan egin zuen Abertzaleen Batasunerako proposamena. Txillardegiren hitzaldi baten pasarte bat dugu horren lekuko: Agirre lehendakariaren Gobernuaren sorrera-egunaren 25. urteurrenean³¹⁹ ETAren izenean hitz egin zueneko da³²⁰ (ikus Txillardegi, 1994, 201-210 or.). Abertzaleen ordura arteko lanari esker ona adierazten dio Txillardegik eta ETA haien lanari esker bizi dela aitortzen die 1936ko abertzaleei; dena dela, 25 urte beranduago, estrategia abertzalean aldaketa sakona eta ausarta egiteko garaia dela azpimarratzen du. Horretarako, Euskal Herriaren errealitate berrira egokitutako Abertzaleen Batasuna sortzea proposatzen die.

Un Frente Patriótico, que coordine e impulse todas las actividades vasquistas, y creo que al proponer esto, reflejo la opinión de muchos, o de todos, los abertzales de mi edad. (...) Simplemente: es un FRENTE PATRIOTICO, en que sus componentes, sin hacer dejación de su ideología particular, se unen y coordinan, se ayudan y animan, para la consecución de una meta común: LA LIBERTAD DE EUZKADI (Txillardegi, 1994, 205-207 or.; letra larria jatorrizkoan).

Zuzenbide agirian (1962) gonbita egin zien ETAk gainontzeko indar abertzaleei Euskal Herriaren askatasuna lortzeko bidean batera joka zezaten. 1963an ere argitaratu zuen idatzirik gaiaz. *Zutik 12ko Alkartu bearra* (Hordago, 1979, 2, 347 or.) artikulua adibidez. Bereizi egiten ditu ETAk antifrankisten jarrera (Francori begira dagoena) eta abertzaleena (Euskal Herriari begira dagoena); eta esaten du antifrankistak elkartzea ondo dagoen arren, abertzaleak elkartu behar direla aurrena. Euskal Herria askatzeko ezinbesteko baldintza da ETArentzat hori egitea: "Abertzale geran guziok bat-eginda ere, izango dugu, bai, naiko lan, gero Aberriari azkatasuna eta euskaltasuna emateko. Alkartu gaitezen, beraz: EUZKADI

³¹⁹ 1961eko urriaren 6an Parisen, Jaurilaritzaren egoitzan.

³²⁰ ETAk 1961eko azaroko *Zutik* alean Txillardegiren hitzaldiaren bertsio motzago bat argitaratu zuen: ikus Hordago, 1979, 1, 393-397 or.

SALBATZEKO abertzale guziok batera eta egokiro alkar-aditurik" (Hordago, 1979, 2, 347 or.; letra larria jatorrizkoan).

Zutik berean *Partidos políticos y frente nacional* idatzian (Hordago, 1979, 2, 348-350 or.) ETAk ohartarazten du Franco agintetik botatzeko kanpo indarren zain egotea porrota besterik ez dela izan. Eta, aurretik bezala orain ere, gaineratzen du euskal erresistentziak ez duela soilik Francoren kontrako gerra egin behar, Espainiako Estatuaren kontrakoa baizik. Izan ere, eta historiari aipamena eginda, ETAk dio Espainiak beti ukatuko diola Euskal Herriari auto-gobernurako eskubidea eta, beraz, ezinbesteko baldintza dela euskaldun guztiek euskal erresistentzian parte hartzea eta indar abertzale orok egiazko euskal fronte bakar eta trinko bat osatzea (Hordago, 1979, 2, 348-349 or.).

ETAk lehen unetik erabiltzen du aurreko abertzaletasunetik hartutako *erresistentzia* kontzeptua. Dimentsio zabala ematen dio gainera, euskaldun guztien parte hartzarekin eta abertzaleen batasunarekin lotzen baitu (Apalategi, 1985, 264-265 or.). Idatzi batzuetan *nazio askapenaren* ideiarekin parekatzen du erresistentziarena. Luzaroan erabili zituen bi kontzeptuak baina, ezarian-ezarian, nazio askapenarena nagusitu zen ETAREN diskurtsoan³²¹. Ez zen izen aldaketa hutsa izan, jarrera aldaketa baizik; kolonizatutako herrietako mugimenduek erabiltzen baitzuten kontzeptu hura (Jauregi, 1981, 244-245 or.). Euskal Herriaren independentziaren aldeko borrokarekin lotuta daude biak baina, zehazki mintzatuta, nazio askapenaren ideiak esanahi dinamikoagoa eta globalagoa du erresistentziarenak baino. Izan ere, nazio askapenak herri osoaren babesa eta, bereziki, herri xehearen babesa eskatzen baitu³²² (*Liberación nacional y liberación popular de Euzkadi (I)*, Hordago, 1979, 3, 388 or.).

³²¹ I. Biltzarrean bertan (1962) Nazio Askapenerako Mugimendu Iraultzailea izendatu zuen ofizialki bere burua.

³²² *Euskal erresistentzia* kontzeptua erabiltzea ez dela egokia esaten du ETAk *Liberación nacional y popular de Euzkadi (I)* formaziorako hitzaldian (1964): "Es un error hablar de Resistencia, pues no se trata de resistir, sino de liberar" (Hordago, 1979, 3, 388 or.).

ETAk bere burua izendatzeko aukeratzen duen eredia, mugimenduarena, estu-estu lotzen du erresistentziarekin eta nazio askapenarekin. Mugimenduaren ideia ere lehen urteetako da ETAREN diskurtsoan, I. Biltzarra egin aurrekoa. Erosoago sentitzen zen ETA mugimenduaren izaerarekin, erakunde edo alderdi politikoen definizioekin baino; bere nahia nazio erresistentzia egiteko herriaren baitan eragitea delako. Arrazoa garbia da: ETAREN helburua ez da helburu politiko hutsa, helburu globalagoa du, euskal nazioa berreraikitzeke esparru guztietan eragin nahi du. Hortaz, ETAREN ekinbidea haratago doanez, erresistentziaren ikuspegi zabalak hartzen dituen jardura guztiak sartzen dira bere borrokaren ikuskeran (Jauregi, 1981, 141 or.).

1964an onartu zituen ETAk iraultza-gerraren printzipioak³²³ eta, aurretik egina bazuen ere, gehiago nabarmendu zuen orain askapen borrokaren izaera herrikoa: "La G.R. [Guerra Revolucionaria] es la guerra de las masas populares. No se puede llevarla a cabo más que movilizandolas masas populares y apoyándonos sobre ellas" (Hordago, 1979, 3, 38 or.). Krutwig-ek *Vasconian* proposatu zuen bide berean, gerra psikologikoaren garrantzia azpimarratu zuen ETAk. Bi modutan erabili behar da gerra psikologikoa: batetik, zapaltzailea ahultzeko eta, bestetik, eta batez ere, zapaldua kontzientziatzeko. Propagandaren bidez askatasuna, independentzia, eta etorkizun sozial eta ekonomiko hobe baten aldarria herritarrengan zabaltzea ezinbesteko lana da iraultza-gerran (Hordago, 1979, 3, 38-46 or.).

Iraultza-gerraren printzipioak onartuta, borrokaren zentzu globalaren logikan, fronte abertzalearen ideia berreskuratu zuen ETAk 1964an³²⁴ (Jauregi, 1981, 141 or.). Kontzeptuaren erabilera aldatu egin zen ETAREN diskurtsoa aldatu ahala. Hasierako urteetan *Abertzaleen Batasuna* eta *Fronte Abertzalea* izenak erabili zituen ETAk eta

³²³ III. Biltzarrean (1964ko martxoan eta apirilean) onartu zituen ETAk iraultza-gerraren printzipioak *La insurrección en Euzkadi* koadernoan onetsi zuenean.

³²⁴ Ikus *Zutik 18ko Hemos aprendido historia* artikulua (Hordago, 1979, 3, 188-189 or.). Berrito nabarmentzen du ETAk euskal nazioaren arazoa ez dela Francoren zapalketa, Espainiaren eta Frantziaren menderakuntza dela. Eta zapalketa horren dimentsio osoa (nazionala eta soziala) nabarmentzen du bide batez.

euskal erresistentziarekin lotu zituen. Iraultza-gerraren printzipioak bere egin ondoren, pixkanaka, ñabardura berriak hartu zituen terminoak eta kontzeptu haien lekuan, *Nazio Frontea*, *Herri Frontea* eta *Klase Frontea* bezalako terminoak erabiltzen hasi zen (Apalategi, 1985, 262 or.).

1964an Hirugarren Munduko nazionalismoak eredu hartu eta nazionalismo haietara, zehazki gerrilla-estrategiara, egokitzeko ahaleginean zebilela, jarduera-fase berri bati ekin zion ETAk: hartara, ordura arteko jarrera aldatu eta kanpora ateratzeko prozesua hasi zuen ETAk. Lehendabiziko aldiz, masei zuzendutako kanpo ekintza politikoa lehenetsi zuen, mugimenduaren barneko barne ekintza politikoaren aurrean (Jauregi, 1981, 276 or.).

Horregatik argitaratu zuen 1964ko urtarrilaren 1ean Euskal Herriari zuzendutako bere lehendabiziko manifestu publikoa: *Euskal Herria'ri ETA'k Dei (Manifiesto de ETA al pueblo vasco)* agiria (Hordago, 1979, 3, 196 or.). Indar zapaltzailezat jotzen ditu Espainia eta Frantzia, euskal etniaren genozidatzat. Eta okupazio horri erantzuteko eta Euskal Herriaren nazio askapena eta askapen soziala eskuratzeko, herri guztiak parte hartu behar duela jakinarazten du berriro: "Askatasunaren gudu, aberriaren eta sozialaren mailletan batera, ez da taldetxo baten eginkizuna, populu-burruka bat baizik. (...) Euskaldun guziaz, Euzkadi'ko GIZON ETA EMAKUME guziaz, gazteriarri batez ere dei bat egiten die E.T.A.k" (*Euskal Herria'ri ETA'k Dei*, 1964, Hordago, 1979, 3, 196 or.; Jauregi, 1981, 277 or.). Norberak ahal duen neurrian parte hartzearen garrantzia azpimarratzen du agirian eta publikoki kritikatu zuen EAJ lehendabiziko aldiz (Hordago, 1979, 3, 196 or.).

Puntu hau atal honetan bereziki azpimarratu nahi dugunez, esan dezagun, ETAk Euskal Herriaren nazio askapenerako eta askapen sozialerako borrokaren alde indarrak biltzeko deia egiten diela euskaldun guztiei³²⁵. Horixe da ETarentzat Euskal

³²⁵ 1964ko apirilean deialdi publikoa egin zien ETAk gainerako indar abertzaleei mahai-inguru batean parte har zezaten (ikus ETAREN buruzagitzak sinatutako *Hacia un comité coordinador de resistencia*

Herriarentzako soluzio bakarra: hau da, euskaldun guztiek bat egitea. Ez ditu Abertzaleen Batasuna edo Fronte Abertzalea kontzeptuak erabiltzen baina, zalantzarik gabe, ideia hori iradokitzen du beste behin ere: "Euskal Erresistentzian beren eginbidea betetzera eta beren egintza azkartzera DEITZEN DITUGU abertzale erakunde guziak" (Hordago, 1979, 3, 196 or.; letra larria jatorrizkoan).

Masa-akzioa kontzeptua ere garrantzitsua da ETAREN ikusmoldearentzat. 1964an hainbat artikulu idatzi zuen gaiaz. Marxismora hurbildu zenean, hala ere, eztabaida handia sortu zuen masa akzioaren ideiak ETAREN barruan. 1964an artean gehiegi landu gabeko ideia bazen ere, masa akzioaren eta bortxa erabiltzearen bateragarritasunaz hausnartu zuen³²⁶.

1964. eta 1965. urteetan *erresistentzia* kontzeptua ere indartsu agertzen da berriro ETAREN idatzietan. Euskal Herriaren arazoari irtenbidea emateko erantzun global gisa definitzen du ETAK. Hirugarren Munduko herrietako mugimendu askatzaileen ikuspegi bera ematen dio: erabateko "oposizio ideologikoarena" (Jauregi, 1981, 243 or.). Ekintza politiko hutsa gainditzen duen erantzun askatzailea da erresistentziarena. Horregatik lotzen ditu ETAK erresistentziarekin jarduera politiko hutsetik kanpoko gaiak: hala nola euskara, euskal kultura, hezkuntza, artea, Euskal Herriaren historia, emakumeen egoera, immigrazioa, eta abar. Borrokaren dimentsio globalarekin (herri eremu guztiak busti behar lituzkeen zerbait da) eta militante integralaren izaerarekin lotzen du erresistentzia: "Ser resistente con algo de responsabilidad es vivir las 24 horas del día con la mirada puesta en Euzkadi. Es pasarse todo el día pensando qué consecuencias tiene tal o cual hecho normal de la vida respecto al interés supremo" (*Resistente*, *Zutik* 26, 1964, Hordago, 1979, 3, 299 or.).

vasca idatzia, *Zutik* 19, 1964, Hordago, 1979, 3, 214-216 or.). Mugimenduaren atalean sakonduko dugu ETAK indar abertzaleekin elkartzeko egin zituen saiakeretan.

³²⁶ Ikus adibidez, *Dogmas o tabús*, *Zutik* 21, 1964, Hordago, 1979, 3, 234 or.

Arestian aipatu bezala, V. Biltzarraren lehen eta bigarren zatien artean, 1967ko urtarrilean, *Sozialismoa eta abertzaleen batasuna (Frente Nacional)* artikulua argitaratu zuen ETAK³²⁷. Euskal sozialismoa aldarrikatzearekin batera, Euskal Herria askatzeko abertzaleen batasunaren alde egiten du Txabik. Esaten du jauntxoek eta langileek elkarrekin lan egin behar dutela hasieran, nahiz gero, aberri askatasuna lortu orduko, euskal langileak sozialismoa nagusiarazten ahaleginduko diren jauntxoen kontra. Abertzaleen batasunak aberriaren askatasuna, batasuna eta euskalduntasuna bermatu behar lituzke Txabiren hitzetan (*Zutik* 44, 1967, Hordago, 1979, 7, 116-117 or.; Nuñez et al., 1993, 2, 266-267 or.).

Oso esanguratsua da hilabete batzuk beranduago (1967ko urrian) Jose Antonio Etxebarrietak³²⁸ *Zutik* 47an argitaratu zuen *Batasuna bai* idatzia (Hordago, 1979, 7, 185-196 or.). *Batasun Eguna* ospatzearen ideia eta BAI³²⁹ goiburua herritik sortu zirela nabarmentzen du Etxebarrietak. ETarentzat oso garrantzitsua da Batasun Egunean euskal sektore asko elkartu izana eta mutu zeuden gizatalde asko mugitu izana. Batasun Egunaren harira elkarrizketarako sortutako herri-batzarrei esker elkar ikusi ezin duen jendea biltzea ere onuragarria da ETarentzat. Egitasmoaren izaera herrikoia azpimarratzen du oroz gain.

Batasuna lortzeko prozesuaz eta bitartekoez mintzo da. ETarentzat ezinbesteko lana da urte osoan euskal erakunde eta sindikatuek elkarrekin lan egitea. Horretarako herrietan sortu diren batzarrak forma oso egokitzat jotzen ditu. Eta bilkura horiek Euskal Herri osoko herri guztietara zabaltzeko, euskal kulturaren arloan lan egitea proposatzen du: besteak beste, ikastolak eratzea eta zaintzea, euskal gaiez eta gai sozialez hitzaldiak antolatzea, eskola sozialak sortzea, euskal kulturaren asteak antolatzea, euskal artisten erakusketak egitea, euskarazko

³²⁷ Goiri ezizeneko batek idatzi zuen. Nuñez et al.-ek diote Txabi Etxebarrietari zegokiola goitzen hori (1993, 2, 266 or.).

³²⁸ Nuñez et al.-ek diote Jose Antonio Etxebarrietarena dela *Batasuna bai* idatzia (1993, 274 or.).

³²⁹ 1967. urtearen amaieran, Batasuna, Askatasuna, Indarra (BAI) kanpaina jarri zen martxan Euskal Nazio Frontea sortzeko helburuarekin (Letamendia, 1975, 337 or.).

antzerkia bultzatzea, euskal jaiak egitea eta dantza eta txistulari taldeak sustatzea. Baina, hori bai, kulturaren eremuko lana herriaren arazo sozialekin uztartzea proposatzen du. Hala nola buruzagi politikoen handikeriak salatzea, atxilotutako eta espetxeratuko abertzaleak laguntzea, poliziaren gehiegikeriak salatzea eta abar (Nuñez et al., 1993, 2, 279-280 or.).

V. Biltzarrean ETAk estrategia iraultzailea onartu ondoren, abertzaleen batasunaz hizketan segitu zuen ETAk. Oraingoan *Nazio Askapenerako Frontea* kontzeptua erabiltzen du Txabik *Manifiesto de ETA ante el Abarri Eguna de 1968* agirian. Ohartarazten du fronte horrek herriko maila popularrak bildu behar dituela programa minimo baten inguruan eta nazio askapena lortzeko helburua izan behar duela goiburua. Euskal Herriaren nazio askapena maila popularren ardura denez soilik (goi euskal burgesiak Espainiako eta munduko kapitalismoan integratu besterik ez baitu nahi), Txabik dio nazio askapenerako pausua, aldi berean, euskal jendarte popularen interesen aldeko pausua izango dela. Euskal Herriaren nazio askapena euskal sozialismoa ezartzeko ezinbesteko aurre baldintza da (Nuñez et al., 1993, 2, 272 or.).

Garrantzi handiko zeregina izan zen ETarentzat masa abertzaletasuna sustatzea eta, aldi berean, elite abertzalearen batasuna (Fronte Abertzalea) lortzea. Ikusi dugu nola aldarrikatu zuen hasiera-hasieratik batasun haren beharra; etengabe agertzen da bere diskurtsoan, ezaugarri konstante bat izan zen ETAREN historian (Jauregik, 1981, 277-278 or.).

4.7. ETAREN genero diskurtsoa: kultur igortzailearen roletik subjektu militantera

Aranak nazio osagaien erdigunean arraza jarri zuenez, abertzaletasun etnikoak "kolektibitatearen eramaile" (Yuval-Davis, 2004; [ikus 1.3.2.](#)) bihurtu zituen

emakume³³⁰ abertzaleak: euskal arrazaren sortzaile biologiko gisa ikusten baitzituen. Aberriaren sinbolo funtzioa bete zuten emakumeek diskurtso hartan, amatasunarekin lotuta batez ere. Emakumeen parte hartzeak mugimendu abertzalea hedatzen eta garatzen lagunduko zuela ulertuta, aldatu egin zen pixkanaka EAJren diskurtsoa; mugimendu abertzalean emakumeen parte hartzea eta, hortaz, haien jarduera politikoa bultzatu zituen. Orduan sortu zuen EAJk *Emakume Abertzale Batza* erakundea. Emakume abertzaleen "kolektibitate-eramailearen" (Yuval-Davis, 2004) rolak zentzua galdu ez bazuen ere, pixkanaka, "kultur igortzailearen"³³¹ (Yuval-Davis, 2004) gizarte funtzioa nagusitu zen EAJren diskurtsoan (Amurrio, 2003, 231, 430-431 or.). Lehendabiziko abertzaletasunaren diskurtsoaren printzipioak aldatuz zihoan neurrian, eraldatu egin zuen ETAk abertzaletasun etnikoaren genero diskurtsoa; EAJren printzipio nagusietatik aldendu egin zenez, genero politikan ere aldendu egin zen ezinbestean (Apalategi, 1985, 271 or.; Amurrio, 2003, 240 or.).

Eskura izan ditugun Ekinen eta ETAREN dokumentu idatziak aztertuta, badirudi, ez batak ez besteak ez zuela emakumeen jardun abertzaleari buruzko hausnarketa espliziturik egin 50eko hamarkadan³³². Dena den, abiapuntu gisa, Ekinek idatzi zuen *Moral de resistencia nacional* izeneko koadernoan jarri nahi genuke arreta: hain zuzen, *euskal etxeari* buruz egin zuen gogoeta batean. Egileak, euskal kultura berri beharraz ari dela, abertzaletasunaren eginkizunak aletzen ditu: hala nola euskal esentziei balio handiagoa ematea, euskal etxea (familia)³³³ zaintzea, eta euskal bizitza soziala babestea, garatzea eta handitzea. Euskal etxea euskal nazionalitatearen oinarria eta aterpea dela dio testuak (Hordago, 1979, 1, 96 or.).

³³⁰ Ikus Butler-ek (2015) emakume-gizon kategoriei egiten dien kritika. Butler-ek dio generoa ezartzen duen ordena heteropatriarkalak ekoizten duela *emakume* kategoria ere.

³³¹ Komunitate eramailearen rola komunitatea (euskal arraza kasu honetan) iraunarazteko umeen sortzaile biologikoa izatearekin lotzen du Yuval-Davis-ek. Eta kultur igortzailearen funtzioa hurrengo belaunaldiei ezagutza eta kultura transmititzeko funtzioarekin (2004; ikus 1.3.2.).

³³² Del Vallek ETAREN genero diskurtsoa aztertzerakoan aipatzen duen lehendabiziko idatzia 1960-1961ean *Liburu Zurian* argitaratutako *Moral de resistencia nacional* koaderno da (1985, 234 or.).

³³³ *Hogar vasco* erabiltzen du Ekinek. RAEren arabera, espainierazko *hogar* izenak, beste esanahi batzuk tarteko, etxeari edo familiari egin diezaioke erreferentzia.

Hausnarketa horretan Ekinek ez ditu emakumeak modu esplizituan aipatzen baina, hala ere, bada ikuskera inplizitu bat³³⁴. Izan ere, *etxea* eta *familia* sistema patriarkalak historikoki emakumeei ezarri dizkien jendarte-rolen eremuak izan dira, labor-zurrean esanda, *espazio pribatuarena*. Amatasunaren ikuspegi biologizista eta kulturala antzeman ditzakegu diskurtso horretan (Yuval-Davis, 2004).

1960-1961 urteetan Ekinen *Moral de resistencia nacional* koadernoak berrargitaratu zuen ETAk *Liburu Zurian*. Kendu egin zuen goiko paragrafo hori baina jendarteko harremanak aztertzen dituenan, "euskaldunek emakumeari buruz izan duten ikuspegia" azaltzen du. Modu esplizituan aipatzen ditu emakumeak eta beren rola espazio pribatura eta amatasunera³³⁵ mugatzen du berriro (Hordago, 1979, 1, 193 or.).

Lehendabiziko ETaren genero diskurtsoak EAJk eraikitako emakumeen irudi berbera erreproduzitu zuen Del Valle-ren ustez (1985, 235 or.). Abertzaletasun tradizionalak bezala lehen urteetako ETak ere, zeregin kultural eta humanitarioetan kokatzen baititu emakumeak eta amaren eta etxekoandreaken rola ezartzen baitizkie³³⁶ (Amurrio, 2003, 241 or.). Batasunerako proiektu nazionalistetan joera orokor samarra izan da emakumeak irudikatzea eta goraiatzeko, amaren irudia batez ere; elementu nagusi izan dira biak diskurtso nazionalistetan³³⁷. Baina erabili duten *amaren mitoak* sinbolo mailan definitu ditu batez ere amak; ez du gehiegi baloratu mugimendu nazionalistek egin dieten ekarpen praktikoa eta materiala (Hamilton, 1998, 167 or.).

³³⁴ Del Valle *inplizitutasun* hori nabarmentzen du ETaren genero diskurtsoan (1985, 234 or.).

³³⁵ ETak 1962tik aurrera *Moral de resistencia nacional* ETaren koaderno gisa berrargitaratu zuenean, kendu egin zuen paragrafo hau.

³³⁶ Edonola ere, Amurriorekin batera, aurreratu dezagun hemen lehenabiziko abertzaletasunak emakumeei ezartzen zien komunitate eramailearen rola (Yuval-Davis, 2004; ikus 1.3.2.) zentzua galdu zuela hasiera hasieratik ETaren diskurtsoan. Aurreraxeago aipatuko ditugu Amurriok Del Valle-ren iritzi horri egiten dizkion nabardurak (2003, 244 or.).

³³⁷ Zulaikak euskal kulturak, oro har, eta abertzaletasunak, bereziki, euskal emakumeen gainean eraikitako irudian *amak* izan duen garrantzia nabarmentzen du (1982).

ETAren lehen urteetako genero diskurtsoan genero rol banaketa ez ezik, genero estereotipo bereizketa garbia nabarmendu behar genuke: izan ere, emakumeak izaera bakezalearekin lotzen baititu eta gizonak izaera bortitzarekin. *Zutik-Caracas* 10. alean argitaratutako hausnarketa oso esanguratsua da alde horretatik:

La Resistencia ya es múltiple: pacíficas mujeres dedicadas a labores culturales o humanitarias; hombres violentos que sólo esperan un poco más de fuerza y una orden; sacerdotes íntegros, que elevan sin miedo la voz de la verdad... Su fuerza, creciente. Su seguridad, mayor; en parte por su misma multiplicidad (*Editorial*, Hordago, 1979, 1, 453 or.).

Generoaren eta nazioaren arteko harremanak ikertu dituzten ikertzaile feministek, oro har, zapaltzailetzat eta atzerakoitzat jotzen dute nazionalismoaren ikuskera generizatu hori. Azken batean ezin da ahaztu ETAren diskurtsoa ere botere maskulinoaren iturria eta produktua denik. ETAren hasierako diskurtsoa sexista izan arren, bere testuinguru ideologikoan aztertu ondoren, Amurriok ñabardurak egiten dizkio diskurtso hori *de facto* mintzamolde atzerakoitzat jotzen duen ikuspegiari eta lehen abertzaletasunaren jarraipen hutsa dela dioenari. Hiru ideia nabarmentzen ditu auzi honetan. Batetik, ETAk hasiera-hasieratik arraza eta erlijioa baztertu egin zituenez, gerra aurreko emakumeen komunitate eramailearen rola (Yuval-Davis, 2004) zentzua galdu zuen bere diskurtsoan. Eta, horrela, kultur igortzailearen rola nagusitu zen lehen unetik beretik (Amurrio, 2003, 241).

Bestetik, erakunde politiko gisa aurkeztu ordez mugimendu abertzale gisa autodefinitu zuenez ETAk bere burua, Amurriok ohartarazten du esparru publikoa eta pribatua, biak, nazio askapenerako borrokaren parte egiten dituela. Eta, hirugarrenik, euskara eta euskal kultura jo zituenez naziotasunaren oinarritzat, horiek bizkortzeko ezinbesteko eremu ziren ETarentzat kulturaren eta hezkuntzaren eremuak. Eta esparru publikoa eta pribatua biak osotasun baten zati gisa hartzen dituzenez, euskara irakastea eta transmititzea erresistentzia egitea zen ETAren aburuz. Lehen abertzaletasunak bezala ETAk ere eginkizun horiek lotzen

ditu emakumeekin. Beraz, emakumeei genero rolak eta estereotipoak ezartzen eta mugatzen dizkien arren, Amurriok eranstean du emakumeak subjektu gisa ikusten dituela ETAk jarduera abertzalean³³⁸; ez dituela objektu huts gisa hartzen (2003, 243-244 or.).

Zutik bereko Euzkadi y tú artikuluan erresistentziari buruz hausnartu zuen ETAk. *Erresistentzia* kontzeptuaren adierarik zabalena interesatzen zaio, zentzu globala ematen dio. Erresistentzian herri osoak parte hartu behar duela aldarrikatzen du ETAk, eta hor emakumeak eta gizonak aipatzen ditu zehatz-mehatz: "El concepto «Resistencia Vasca» se va interpretando con la amplitud que merece. (...) Hacer resistencia a España en pro de la libertad de Euzkadi es algo al alcance de mujeres y hombres" (Hordago, 1979, 1, 457-458 or.).

Guztiarekin ere, oso bakanak dira emakumei buruzko ETArekin hausnarketak, oso noizean behin aipatzen du zerbait. 1963an bi idatzi topatu ditugu. Batean kasta-antolaketa duten sistemak eta pribilegio-egoerak kritikatzeko eta sistema horietan gizonak emakumeen gainean izan duten jabetza gaitzesten du³³⁹. Bestean Ondarruko ezkontza batean emakume batek euskara gutxiesteagatik apaizari aurre egin izana txalotzen du³⁴⁰.

ETArekin genero diskurtsoa bere mintzamolde orokorraren baitan bazterrean gelditzen bada ere, tesi marxistetara hurbildu zenean (1964-1965) aldatu egin zuen ETAk diskurtso hura (Apalategi, 1985; Hamilton, 1998; Amurrio, 2003). Ordurako nabarmena zen *Vasconiak* (1963) ETArekin pentsamoldean eta jardueran izan zuen

³³⁸ Amurriok *jarduera abertzalea* esaten duenean ETA mugimendu zabalaz ari dela uler dezakegu. Ez da ari ETA erakunde soilaren jarduera politiko hutsaz. Gogoratu behar genuke ETAk *ekintza abertzalea* lehenesten duela *ekintza politiko hutsaren* aurrean (Amurrio, 2003, 243 or.): "Mientras no tengamos Libertad Nacional, lo puramente político no debe dividirnos. Desde el punto de vista patriota es inadmisibile anteponer hoy lo político a lo patriótico" (Hordago, 1979, 1, 453 or.).

³³⁹ Ikus 1963ko urtarrileko *Zutik* 9. aleko *Castas y enseñanza en Euzkadi* artikulua (Hordago, 1979, 2, 315 or.).

³⁴⁰ Ikus 1963ko apirileko *Zutik* aleko *Beste berriak* atala (Hordago, 1979, 2, 438 or.).

eragina³⁴¹. Diskurtso hari lotuta jarduera-fase berri bati ekin zion ETAk: hala, lehendabiziko aldiz, masei zuzendutako kanpo ekintza politikoa lehenetsi zuen, erakundearen barneko barne ekintza politikoaren aurrean (Jauregi, 1981, 276 or.). Horregatik argitaratu zuen 1964ko urtarrilaren 1ean Euskal Herriari zuzendutako bere lehendabiziko manifestu publikoa: *Euskal Herria'ri ETA'k Dei (Manifiesto de ETA al pueblo vasco)* agiria (Hordago, 1979, 3, 196 or.). Eta euskaldun guztiei, emakume eta gizonei, egin zien deia ETAk bertan nazio askapenerako borrokan parte har zezaten: "Euskaldun guzai, Euzkadi'ko GIZON ETA EMAKUME guzai, gazteriarri batez ere dei bat egiten die ETAk" (Hordago, 1979, 3, 196; letra larria jatorrizkoan).

1964an argitaratu zuen ETAk *Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos* izeneko gutuna. Langile mugimenduekin harremana estutzen ari zen ETA; iraultza-gerraren printzipioak onartuta zituen ordurako eta borrokaren globaltasuna eta iraultza gerraren printzipioak Euskal Herrian egokitzen ahalegintzen ari zen; herri-egiturak marxismoaren ikuspegitik aztertzen hasi zen; etorkizuneko euskal estatuaren akonfesionaltasuna hasieratik aldarrikatua zuen ETAk; eta orobat etorkinekiko ikuspegi integratzailea lantzen ari zen. Hori dena islatzen da gutunean (Amurrio, 2003, 246 or.). Bilakaera ideologiko horren joan-etorrian genero diskurtsoa ere aldatu egin zuen ETAk (Apalatategi 1985, 272 or.; Amurrio, 2003, 240 or.).

En cuanto a la posición de la mujer en la sociedad vasca, consideraremos que debe gozar de idénticos derechos y posibilidades que el hombre, en todos los sectores de la vida política, social, económica y cultural. No obstante, conscientes de la especial función que le incumbe en el hogar como esposa y madre, deberá la sociedad prestar la debida atención y facilitar su cumplimiento. Una de las medidas a emprender sería la concesión de un

³⁴¹ Gogora dezagun eragin hura. Krutwig-ek hizkuntza-kultura faktorea lehenetsi zuen nazioaren osagaietan; eta garaiko aldaketa sozio-ekonomikoetara egokitutako abertzaletasun urbano bat aldarrikatzea; eta elite intelektualek abertzaletasunarekin bat egiteko beharra azpimarratzea; eta abertzaletasuna korrante ideologiko aurrerakoiekin lotu nahia; eta abertzaletasuna indar dinamiko gisa aurkeztea (Jauregi, 1981, 185 or.).

salario a la mujer con hijos, en tanto que legitima compensación por su trabajo en la crianza y educación de los futuros ciudadanos vascos y su consiguiente aportación a la formación de la sociedad (Hordago, 1979, 3, 286 or.).

Apalategik dio hemen lantzen duela publikoki lehen aldiz ETAk emakumeen posizio sozialaren gaia. Beste behin ere rol sozial garbia esleitzen die emakumeei etxe eremuko *emazte* eta *ama* (sinbolo) gisa baina, egiari zor, beste ikuspegi bat ematen die: etxeko esparrua lan esparru gisa definitzen baitu, balio ekonomikoa duen esparru gisa. Eta emakumeek esparru horretan betetzen duten funtzioa laudatzen du, baita familiak egitura sozialean betetzen duen funtsezko funtzioa ere (1985, 271-272 or.).

Marxismo klasikoaren ekarpena nabari da iruzkingai darabilgun testuan: esate baterako, emakumeek eta gizonen bizitzaren esparru guztietan eskubide berberak izan behar dituztela eta familiaren zentzu politikoa eta ekonomikoa azpimarratzea. Hezkuntzaren garrantziaz ere hitz egiten du gutunak eta balio ekonomikoa errekonozitzen dio horri ere³⁴². ETAk Euskal Herriaren askapena modu globalean ulertzen duenez, alegia nazio askapena eta askapen soziala uztartuta, hezkuntzak garrantzi berezia du azken horretan (Amurrio, 2003, 247 or.).

Urte haietako idatzietan ohartaraztekoa da ETAk gero eta gehiago sartzen dituela emakumeak nazio askapenerako borrokan³⁴³. 1965ean argitaratu zuen *La liberación de la mujer* artikulua, eta egia esan, inflexio puntutzat har dezakegu ETAREN lehen hamar urteetako genero diskurtsoan. Lehendabiziko aldiz egin zuen ETAk

³⁴² Zuzenbide agirian (1962) ere gauza bera esan zuen hezkuntzari dagokionez.

³⁴³ 1964ko *Zutik 26an Hiru gertaera* izeneko idatzian emakumeak borrokari, "gudaritzako lanei" berriro lotzearen garrantzia azpimarratzen eta txalotzen du ETAk. Esaten du, espainiar kulturaren eraginez, azken urteetan nazio borrokatik kanpo egon direla emakumeak eta hori ez dela batere ona izan. Aurretik (karlista-gerrak aipatzen ditu) euskal emakumeak berezko izan duela gerran eta borrokan aritzea. Horregatik txalotzen du orduko emakume haiek bezala gaurkoak ere borrokari lotu izana eta, bidenabar, legeen eta ekonomiaren esparruetan *sexuak* zer ikusirik ez daukala aldarrikatzen du (Hordago, 1979, 3, 291 or.).

emakumeen askapenari buruzko hausnarketa eta, besteak beste zera dio: ETAREN helburu sozialistetan emakumeen askapena eta sustapen soziala premiazko helburua dela (Zutik, 29, Hordago, 1979, 3, 493 or.). Marxismoaren eragina nabari da artikulu honetan ere. Langile klasearen arazoarekin lotuta aztertu baitzuen ETAK emakumeen egoera eta ikuspegi anticolonialistaren terminologia erabiltzen du (Jauregi, 1981, 253 or.). Modu esplizituan salatzen du ETAK emakumeen zapalketa eta lantegian kokatzen ditu aurreneko aldiz.

Emakume ezkonduen egoera ere salatzen du ETAK: lanaldi mugagabea izateaz gainera, seme-alaben ardura bere gain hartu behar izaten dutela azpimarratzen du. Eta, jakina, horrek ondorio larriak ekartzen dizkiela: etxean sartuta egon beharra, senarraren diru-irabazien mende egotea, bigarren mailan baztertuta egotea, beren iritziak aintzat ez hartzea, eta abar. Horregatik proposatzen du ETAK premiazko eginbeharra dela emakumeen "deskolonizazioa" eta gizonek adina parte hartu behar dutela herri-arazoetan eta arazo horiei irtenbideak bilatzeko lanean. Horretarako ezinbesteko baldintza da ETAREN ustez, emakumeei ukatzen zaizkien denbora eta independentzia ekonomikoa eskuratzea. Horregatik defendatzen du emakumeek lanpostu baterako duten eskubidea; bai emakumeak beraiek pertsonalki garatzeko eta bai jendartea bera garatzeko ere³⁴⁴ (Hordago, 1979, 3, 493 or.).

Zapalketaren ondorioz, jendarteak emakumeak arazo politiko, ekonomiko eta sozialetatik kanpo utzi dituela salatzen du ETAK eta aldarrikatzen du garaia dela emakumeek beren tokia topatu dezaten. Emakumeen askapenerako ezinbesteko baldintza da ETAREN ustez egitura sozialak iraultzea, bitartean, ordea, ETAK bere politika eta ideologia zehazten joan behar duela esaten du. Dei egiten die emakumeei ETAREN iraultza-gerran guztiz parte har dezaten (Hordago, 1979, 3, 493 or.).

³⁴⁴ Neurri batzuk proposatzen ditu ETAK emakumeen egiazko askapena lortzeko: seme-alabak hazteko eta hezteko gizarte-egoitzak sortzea, seme-alabadun emakume ezkonduen lanaldia erdira murriztea, etxeko lanak egiteagatik eta seme-alabak hezteagatik soldata bat jasotzea, eta abar (Hordago, 1979, 3, 493 or.).

Emakumearen independentzia ekonomikoaren ideian sakontzen segitu zuen ETAk handik aurrera, nolabait ere emakumearen "kolonizazioari" aurre egiteko konponbide ororen abiapuntu zela iritzita (Apalategi, 1985, 273 or.). Hamilton-ek dio erakundearen diskurtso feminista sartzen saiatu zela ETA pentsamolde harekin³⁴⁵. Baina, jakina, ETako hainbat sektoretan nagusi zen genero ikuspegi atzerakoiak oztopatu egin zuela saiakera hura (1998: 171-172). Izan ere, *La liberación de la mujer* artikulua eztabaida handia sortu zuen militanteen artean eta ETAk ez zuen bete eta mamitu aurretik esandakoa, *Carta a los intelectuales (2)* gutunean adierazten duen bezala:

La posición de la mujer en la sociedad ha de sufrir una verdadera revolución que la libere de las cadenas que aún hoy le oprimen. Este tema concreto que ya ha encendido vivas controversias desde la aparición en el ZUTIK 29 del artículo «La liberación de la mujer», lo dejamos en suspenso esperando lleguen hasta nosotros todos los ecos de una polémica que, ya por sí misma, puede suponer para la mujer vasca un principio de liberación (*Zutik* 30, 1965, Hordago, 1979, 3, 511 or.).

Apalategik jakinarazten du 60ko hamarkadaren bigarren erdian genero diskurtsoak eztabaida handia sortu bazuen ere, oinarri sendoa jarri zuela ETAk 70eko hamarkadan garatu zen Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduan (ENAM) gertatu zen aldaketa gertatzeko (1985, 273 or.). Orduan hasi baitziren ENAMeko emakumeak modu autonomoan biltzen eta antolatzen. Amurriok ere aldaketa apal bat azpimarratzen du urte haietako ETaren genero diskurtsoaren zer-nolakoan: "Erradikaltasun horren eskutik genero diskurtso berri baten agerpena ere, –apala izan arren–, somatzen da nazionalismo berriaren gorputz ideologikoaren eraikitze saio horretan" (2003, 240 or.).

³⁴⁵ Hamilton-ek dio diskurtso feminista ETAn sartzeko saiakera langile-joerakoena izan zela (1998, 172 or.). 1966an ETatik kanporatu eta ETA-Berri sortu zutenen taldeaz ari da (ikus II.4.3.).

Del Valle-k eta Hamilton-ek ETAREN genero diskurtsoan aldaketa interesgarri batzuk gertatzen direla aitortuta ere, EAJren eta ETAREN arteko jarraitutasuna nabarmentzen dute: hau da, joera abertzaleetan amatasunaren rola izan duen iraunkortasuna, besteak beste. *De facto* diskurtso atzerakoitzat jota edo genero diskurtso berri baten zantzuak ikusita, 70eko hamarkadara arte itxaron behar dugu Europa Mendebaldeko mugimendu feministaren eraginez emakume aktibista batzuek ETA mugimenduaren barruan (gero ENAMen) erakunde feministak sortzen ikusteko³⁴⁶. Eta, ildo berean, abertzale feministak *Mujeres Trabajadoras Vascas*³⁴⁷ kontzeptuarekin zapalketa hirukoitzaren (klase, genero eta nazio menderakuntzaren) identitate politikoa eraikitza iristeko (1998, 173 or.). Bitarte horretan, 60ko hamarkadan, ETAREN sektore batek aldarrikatu zituen ideia feminista haiek zer nolako eragina izan zuten jakitea ez da erraza (Amurrio, 2003, 249 or.). Aurrerago argitzen saiatuko gara.

4.8. Immigrazioari buruzko ETAREN diskurtsoa: integrazioaren bila

Lehendabiziko abertzaletasunaren diskurtsoa, teoriarik behintzat, diskurtso *itxia* izan zela esan dugu; jatorriz bertakoak ez ziren pertsonak, Espainiako Estatutik etorritako langile etorkinak gehienak, ez zituen inongo baldintzatan euskal nazioko kideztzat hartzen. Nazio atxikipena *euskal arrazarekin* lotu zuen Aranaren diskurtsoak eta, beraz, argi eta garbi mugatzen zituen euskal nazioaren ezaugarri sozialak. Izan, izan zen diskurtso hura aldatzeko saiakerarik³⁴⁸ baina, oro har, 1936ko gerrara arte ez zuen aldaketa handiegirik izan.

ETAk orrialde asko eskaini zizkion gaiari (Apalategi, 1985, 276 or.). Harritzekoa ere ez da immigrazioaren gaiak abertzaletasunean leku garrantzitsua izatea. Izan ere,

³⁴⁶ Ikus Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015, 47-113 or.

³⁴⁷ *Pueblo Trabajador Vasco* kontzeptuaren egokitzapena.

³⁴⁸ Iraolak (2012) hiru etapa bereizten ditu etorkinei buruz abertzaletasunak eraiki duen diskurtsoaren bilakaeran: Aranaren diskurtsoa lehendabizikoa, haren diskurtsoa etorkinekiko malgutu zuten Aberri eta Jagi-Jagi sektoreena bigarrena, eta orain aztergai dugun ETAREN diskurtsoa hirugarrena; aldaketa handia gertatu zenekoa.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen bigarren erdian gertatu ziren immigrazio-oldeek goitik behera aldatu zuten Euskal Herriko egoera demografikoa, soziala eta kulturala; Bizkaian eta Gipuzkoan nagusiki³⁴⁹. Dagoeneko aipatu ditugu arrazari eta etorkinei buruzko ETAREN hausnarketa batzuk. ETAREN abertzaletasunak etorkinei buruzko diskurtsoan egin zuen bilakaera gainbegiratuko dugu orain.

Diskurtsoaren osagai batzuetan EAJren planteamendu teorikoetatik gertu ibili ziren Ekin eta ETA hasieran. Arlo honetan ere, Ekinek bezala lehen urteetako ETAK *arraza* aipatu zuen euskal nazioaren ezaugarrietan. Eta 1962ra arteko hausnarketetan immigrazioarekiko ikuspegi *ezkorra* erakutsi zuen zenbait idatzitan. ETAREN lehen ikuspegi hori, edonola ere, luzaro gabe aldatu zen eta ikuspegi malguagoa nagusitu zen bere iritzian. Izan ere, berehala arraza baztertu eta etnia (funtsean etniaren dimentsio linguistiko kulturala) jarri zuen euskal nazioaren erdigunean. Naziotasuna ulertzeko modua aldatu zuen horrela ETAK, hots, euskal nazioko kide izateko *baldintza*. Eta nazioaren definizioa aldatzeak etorkinen gaineko beste diskurtso bat ahalbidetu zion ETARI; hala, identitate-kidetzaren mugak aldatu egin baitzituen. Naziotasunaren osagaien muinean arraza jartzen duen diskurtsoak naziokidetzat *itxia* sustatzen du nolabait; kanpotarrantzat itxita geratzen baita nazio horretako kide izateko bidea. Hizkuntza-kultura, ordea, nahi duen orok egin dezake bere eta, horrela, naziotasun ezaugarri *irekia* dela esan genezake (Rubiralta, 2000; Iraola, 2012, 90-93 or.).

Zuzenbiden (1962) bertan adierazten du ETAK arrazakeriaren kontrako jarrera (ikus Hordago, 1979, 1, 526-527 or.), eta immigrazioaren inguruko hainbat hausnarketa argitaratu zuen urte hartan bertan. Besteak beste, immigrazioaren izaera ekonomikoaz hitz egiten du ETAK³⁵⁰. Munduko testuinguruak eragin handia izan

³⁴⁹ Ikus Ruiz Olabuenaga eta Blanco (1994).

³⁵⁰ Ikus 1962ko *El problema de la inmigración en Euzkadi* artikulua. Berrargitaratu egin zuen gero 1963an, *Zutik* 11n. Arrazismoa errotik salatu eta immigrazioak gordetzen duen arazo humanoa eta bere izaera ekonomikoa ukaezinak direla esaten du ETAK. Baina Euskal Herriko anarkia salatzen du; kezu da Euskal Herria aske eta batua izan arte, ez duela planifikazio demografikorik izango eta, beraz, migrazioen fenomenoak bide berean jarraituko duela: Ipar Euskal Herritik euskaldunak

zuen aldaketa hartan. Izan ere, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, ordura arte zientzian eta politikan oso erabilia zen *arraza* kontzeptuak indarra galdu eta, pixkanaka, baztertu egin zen nazionalitateak definitzeko. Nazioaren definizioan hizkuntza-kultura erdigunean jartzea ere orduko testuinguruan ulertu behar genuke: Bigarren Mundu Gerraren ondoren Mendebaldeko Europako estaturik gabeko nazionalismoetan zabaldu zen joera izan baitzen (Rubiralta, 2000, 110 or.).

Horrez gain, aipatzeko modukoa da Europako ezkerreko mugimendu nazionalisten eta Afrika eta Asiako nazio askapenerako mugimenduen eragina³⁵¹. Ezkerreko nazionalismo iraultzaile haietan eragin handia izan zuten marxismoaren eta komunismoaren teoriariek; besteak beste, Fanon-en obrak. Euskal Herrian, berriz, *Vasconiaren* (1963) eragina aipatu behar genuke. Hirugarren Mundua delako eremuko nazio mugimenduak eredu hartuta, Krutwig-ek etorkinen *jarreran jarri* zuen auziaren iltzea eta muina (Jauregi, 1981, 183 or.). Baldintza horren arabera aztertu zuen etorkinek Euskal Herrian betetzen zuten funtzioa: alegia, euskaldunen komunitatean integratuz gero nazioko kideztat hartzen ditu baina, jakina, integratu ezean, kolonialismoaren agente direla esaten du³⁵² (1963). Nolanahi ere, euskaldunak bezala etorkinak ere frankismoaren biktimatzat hartu zituen (Jauregi, 1981, 181 or.).

1963. urtean arreta berezia eskaini zion ETAk etorkinen auziari; hausnarketa ugari argitaratu zuen gaiaren arian³⁵³. Frankismoaren eta kapitalismoaren biktima sozioekonomiko gisa hartzen ditu ETAk eta, aldi berean, Euskal Herriaren

Frantziar estatua lan bila joaten eta, aldi berean, Espainiako Estatutik Hego Euskal Herrira etorkin-uholdeak etortzen (Hordago, 1979, 2, 251-253 or.).

³⁵¹ Ikus Fusi, 2003; nazionalismo iraultzailea aztertzen du.

³⁵² "Si vienen en son de conquistadores, como brazo del colonialismo y a extender su virus por nuestra patria, entonces son nuestros enemigos, son agentes del colonialismo, y están al servicio de la expoliación nacional" (Krutwig, 1963, 382 or.).

³⁵³ Ikus *Zutik* 11ko hausnarketa. Etakide ezberdinek idatzitako lau artikulua argitaratu zituen ETAk bata bestearen atzetik: gorago aipatu dugun *El problema de la inmigración en Euzkadi* (*Movimientos migratorios en Euzkadi* izenburua jarri zion orain; Hordago, 1979, 2, 340 or.); *El primer deber del emigrante* (Hordago, 1979, 2, 341 or.); *Euskaldunak eta besteak* (Hordago, 1979, 2, 341-342 or.); eta *Aspectos de la inmigración* (Hordago, 1979, 2, 342-343 or.). *Zutik* 12an *Más en torno a la inmigración-Carta a un coreano* artikulua argitaratu zuen (Hordago, 1979, 2, 351-353 or.). Eta *Zutik* 16an, aurreko aleetako hausnarketarekin jarraitzeko, *Más sobre inmigración* (Hordago, 1979, 2, 380-382 or.).

zapalketan parte hartzen duten agente politiko moduan ikusten ditu. Esate baterako, Zutik 11ko *Aspectos de la inmigración* artikuluan: "Se mueren de hambre y emigran a buscar el pan. Conforme. Pero los efectos los sufre directamente un pueblo conquistado: Euzkadi; y entonces esa inmigración se convierte automáticamente, de hecho, en una invasión" (Hordago, 1979, 2, 343 or.).

Zutik 12an aurreko aleko hausnarketarekin segitu zuen ETAk: *Más en torno a la inmigración-Carta a un coreano* (Hordago, 1979, 2, 351-353 or.) idatzia argitaratu zuen. Zutik horietako hausnarketek oso ondo agertzen dituzte ETAREN barruko iritzi ezberdinak. ETAREN idazki batzuek immigrazioaren izaera humanoa eta ekonomikoa onartzen zuten arren, bere izaera ez-integratzailea azpimarratzen zuten, bere funtzio politikoa. Eta beste batzuek, berriz, kritika egiten diote abertzaletasunak izan duen jarrerari eta, immigrazioaren izaera sozioekonomikoa azpimarratuta, etorkinen egoerarekiko errespetua nabarmentzen dute beste ezeren gainetik³⁵⁴ (Garmendia, 1996).

Jauregik dio aurrerapauso kualitatibo nabarmena egin zuela ETAk artikulua harekin; ordura artekoarekin konparatuta, beste ikuspegi batetik aztertzen duela immigrazioaren gaia. Etorkinen egoerara hurbiltzeko ETAREN jarrera berriaren hasiera dela esaten du (1981, 180 or.). Etorkinekiko errespetua agertzeaz gain, Euskal Herriaren errealitatea mahai gainean jartzen duenean hiru komunitatez hitz egiten du ETAk: gehiengo euskaldunaz, espainiar komunitateaz eta frantses komunitateaz. Errealitate horren aurrean, funtsean, bide bakarra dagoela jakinera ematen du idazleak: "no puede ser otra que una solución de integración total, sin reservas... *Una solución vasca*" (Hordago, 1979, 2, 352 or.; letra etzana jatorrizkoan).

³⁵⁴ Ikus *Más en torno a la inmigración-Carta a un coreano* artikuluko pasarte hau: "Nosotros le pedimos perdón por el uno y por el otro [espainiar etorkinak izendatzeko erabiltzen ziren *maketo* eta *koreano* terminoez ari da] y le aseguramos (...) que tenemos una gran confianza en que, todos nuestros compatriotas, acabarán abandonando su empleo. (...) Se trata de un fenómeno socioeconómico y, por tanto no es una "maniobra política" (Hordago, 1979, 2, 351 or.).

Krutwig-ek bezala ETAk ere, euskaldunak eta etorkinak, biak, frankismoaren biktimatzat hartzen ditu. Zer nahi den ere, artikularen egileak ETAREN beste hainbat artikulutako ideia errepikatzen du hemen: hau da, Espainiako Estatuaren barneko migrazio-fenomenoa tresna ikaragarri eraginkorra dela espainiar faxismoaren interes politikoentzat eta nazio gutxiengoak desegiteko. Halaber egileak gaineratzen du ETAK ezin dituela ondorioak eta kausak nahastu. Eta, beraz, ez dela bidezkoa etorkinei espainiar faxismoaren azpijoko batekin kolaboratzen dutela egoztea (Hordago, 1979, 2, 352 or.).

Bada azpimarratzeko beste ideia bat ere. Egileak dio Hego Euskal Herrian bertakoen eta etorkinen artean barne muga bat dagoela. Eta barne muga hori ezabatzeak onura handia ekarriko diola Euskal Herriari eta nazio askapenerako borroka politikoari (Hordago, 1979, 2, 352 or.). Jauregientzat oso garrantzitsua da alderdi hori onartzea, izan ere, lehendabiziko abertzaletasunak muga hori itxi egiten zuen nolabait bi komunitateen arteko zubi gisa. Horrela, abertzaletasunaren historian lehendabiziko aldiz ETAK aukera zabaltzen dio etorkinen komunitateari naziokide bihurtzeko. Immigrazioaren gaineko ETAREN diskurtsoan mugarri garrantzitsua izan zen artikulua hura Jauregiren iritziz. Nahiz eta, aipatu dugun bezala, ETAREN barruan ikuspegi gehiago zeuden gaiaren gainean (1981, 181-182 or.).

1964an immigrazioaren gaineko hausnarketarekin jarraitu zuen ETAK³⁵⁵. Urte hartan argitaratu zuen *Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos* (Zutik 25, Hordago, 1979, 3, 279-287 or.) gutuna eta, beste gai askoren artean, etorkinen gaia ukitu zuen. Etorkinen errealitatearen aurrean ETAK bere jarrera argitu behar duela ohartarazten du gutunak. Ikuspegi hauxe agertzen du bertan: euskal kapitalista, izatez, arrotza bezain zapaltzailea den bezala, langile etorkina euskal langilea bezain zapaldua dagoela. Beraz, askapen sozialerako borrokan Euskal Herrian bizi diren langile guztiek parte har dezaten eskatzen du ETAK. Baina, jakina, baldintza batekin: "Ahora bien, el cambio de estructuras lo vamos a hacer en Euzkadi; va a ser una revolución VASCA. La sociedad que vamos a edificar ha de facilitar el desarrollo de la etnia

³⁵⁵ Ikus, esate baterako, Zutik 18an *Hemos aprendido historia* artikulua (Hordago, 1979, 3, 188-189 or.).

vasca en todas sus manifestaciones" (Hordago, 1979, 3, 286 or.; letra larria jatorrizkoan). Horixe da, hain zuzen, ETArekin ustez etorkizuneko euskal jendartearen oinarria: Euskal Herrian jaioak izan ala ez izan, euskal demokrazia ezartzeko lanean ari diren langileak³⁵⁶.

Emakumeen askapenari buruzko iritzian egin zuen bezala, etorkinen egoerari buruzko hausnarketan ere ñabartu egin zuen diskurtsoa ETAk 1965eko *Carta a los intelectuales* (2) gutunaren bigarren edizioan (*Zutik* 30, Hordago, 1979, 3, 501-510 or.). Bigarren gutunean ETAk leundu egin zuen nolabait lehendabiziko gutuneko hizkera (Jauregi, 1981, 262 or.). Testua oso antzekoa izanda ere, bigarren bertsioan kendu egin zuen ETAk Euskal Herrian "iraultza arrotza" egin nahi duen langilea atzerritartzat joko duela esaten zuen esaldia (Hordago, 1979, 3, 286 or.). Orain espainiar iraultza Espainian (eta ez Euskal Herrian) egin behar dela esatera mugatzen da (Hordago, 1979, 3, 509 or.).

1965ean bertan artikulua esanguratsu bat argitaratu zuen ETAk: *¿De quién es la culpa?* (*Zutik* 29, Hordago, 1979, 3, 491 or.). Espainiar etorkinak abertzaletasunera hurbildu beharrean espainiar sozialismora edo komunismora hurbildu izana, noren errua izan den galdetzen dio ETAk bere buruari. ETA ez da harrizten abertzaletasunak eskaini dien Euskal Herria eskainita, haiek Espainia sozialistaren alde egin izana. Eta autokritika gogorra egiten dio bere buruari:

No somos ni demócratas, ni honrados, ni tan siquiera listos. Porque en vez de integrar en nuestra lucha a los trabajadores inmigrados, ellos que están como nosotros explotados, les hemos despreciado, abandonado e incluso justificado su explotación porque su apellido no nos sirve (Hordago, 1979, 3, 491 or.).

³⁵⁶ Ikus baita ere 1965eko *Zutik* 28an Txillardegik argitaratu zuen *Seudo-progresistas* artikulua. ETArekin euskal nazioaren ikuskeran euskaldun eta Euskal Herri osoa sar daitekeela esaten du baina, jakina, ETAk behin eta berriro errepikatzen duen baldintza erantsita: "a todos los nativos, y a todos los extranjeros dispuestos a colaborar en la construcción de nuestro Estado Nacional" (Hordago, 1979, 3, 480 or.).

ETAren barruan zeuden ikuspegi ezberdinen artean etorkinak abertzaletasunean, ETA mugimenduan, integratzearen aldeko hautua gailendu zen pixkanaka; hartara, ikuspegi horren arabera garatu zuen ETAk ondoko urteetako praktika politikoa (Garmendia, 1996). Marxismoak eraginda, etorkinak euskal nazioan integratzearen alde egin zuen eta *Euskal Langile Herria* kontzeptuak³⁵⁷, zalantzarik gabe, indarra hartu zuen ETAren diskurtsoan. Shafir-en (1995, 113 or.) arabera, ETAren barruan zeuden bi ikuspegiak uztartu zituen formula hartan: oroz gainetik nazio askapena azpimarratzen zutenena, batetik, eta askapen soziala edo marxismoa azpimarratzen zutenena, bestetik. Zentzu horretan, Shafir-ek dio abertzaletasunak ETArekin aldatu zuela goitik behera etorkin espainiarrekiko ikuspegia (1995, 112 or.). Abertzaletasunaren printzipioak garaiko errealitate soziopolitiko eta kulturalera eguneratzeko etengabeko ahaleginean, diskurtso irekia eraiki zuen ETAk immigrazioari buruz (Jauregi, 1981, 184 or.).

Immigrazioaren gaineko hausnarketek V. Biltzarrean jo zuten goia, bertakoen eta etorkinen arteko antagonismoa hausten ahalegindu baitzen ETA (Apalategi, 1985, 276 or.). Jose Antonio Etxebarrietak argitaratu zuen *Batasuna bai* (1967) idatzia esanguratsua da alde horretatik: "Atzerritik etorritako langille orrek (...) *Euskal Langille Erriko parte bat dira?*" (Zutik 47, Nuñez et al., 1993, 2, 278 or.; letra etzana jatorrizkoan). Modu honetan erantzuten dio Etxebarrietak galderari: beren borondatez *Euskal Langile Herrian* sartzea erabaki duten langileak ongi-etorriak izango dira ETAren partetik. Esaten du euskalduntzen joango direla eta *Euskal Langile Herriak* harro egon behar duela beste kultura bateko langileek euskal kultura onartu dutelako. Oligarkiaren alde eta *Euskal Langile Herriaren* kontra jarri diren langileak jotzen ditu etsaitzat (Zutik 47, Nuñez et al., 1993, 2, 278-279 or.).

³⁵⁷ Gorago ikusi dugun bezala, V. Biltzarraren bigarren zatian (1967) ETAk *Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu Sozialista* izendatu zuen bere burua. Abertzaletasun iraultzaile gisa definitu zuen bere abertzaletasuna eta *Euskal Langile Herria* kontzeptuak (aurretik ere erabili bazuen ere) indarra hartu zuen bere diskurtsoan. Kontzeptu horretan nazio askapena eta askapen soziala uztartu zituen ETAk (Letamendia, 1994, 310-312 or.).

ETAk nazioaren oinarrian hizkuntza-kultura jarri izanak abertzaletasun osoa kutsatu zuen nolabait. Arraza-osagaia baztertu eta immigrazioaren gaineko eztabaida ETAk hasi bazuen ere, pixkanaka, naziotasunaren eta etorkinen gaineko ikuspegi berri hura abertzaletasun osoan zabaldu zen. 1966an EAJk argitaratu zuen dokumentu batean, autodeterminaziorako eskubidea defendatzearekin batera, eta demokrazia politikoa demokrazia ekonomiko eta sozial gisa definitzearekin batera, aldi berean, etorkinen integrazioa aldarrikatu zuen (Letamendia, 1994, 304 or.; Iraola, 2012).

Berez gure ikerketari ez badagokio ere, aipa dezagun hemen 70eko hamarkadatik aurrera ETAREN abertzaletasunak ñabartu eta erlatibizatu egin zuela pixkanaka hizkuntza-kulturaren nazio oinarria. Eta nazio definizioaren ardatzean, hizkuntza-kulturak sinbolikoki indarra izaten segitu bazuen ere, praktikan, abertzaletasunerako atxikimendua eta aktibismo politikoa joan zirela indartzen (Conversi, 1997, 240 or.). Etorkinen integrazioari dagokionez ere, aurretik integrazio kulturala eta politikoa aldarrikatu bazuen ETAk, gero, integrazio politikoaren ikuspegia nagusitu zen. Eta, praktikan, etorkin edo etorkinen seme-alaba ugari lotu zitzaion nazio askapenerako mugimenduari³⁵⁸ (Iraola, 2012).

Honenbestez, ondorioztatuko genuke ETAREN diskurtso orokorraren bilakaerak etorkinen gaineko diskurtso berri bat ahalbidetu zuela. ETAREN pentsamoldeak arraza baztertu eta nazioa hizkuntzan eta kulturaren oinarritzean, aldatu egin zuen ezinbestean etorkinekiko bere jarrera. Eta, garaiko testuinguruak eraginda, langile-mugimendura eta marxismora hurbildu ahala, emeki-emeki, euskaldunen eta etorkinen bereizketaren ordeztu etorkinak euskal nazioan integratzearen alde egin zuen. Lehen hamar urteetan integrazio kultural eta politikoa aldarrikatu zituen ETAk bere diskurtsoan, *Euskal Langile Herrian* integratzearen alde. Gerora, denboraren joanean, ordea, integrazio politikoa indartu zen batez ere.

³⁵⁸ Ikus Clark, 1984, 147 or. eta hurr. ETAN sartu ziren etorkin espainiarren seme-alaben datuak ematen ditu.

4.9. ETAREN tesi antikolonialista

EAJk bezala ETAK ere kolonia gisa definitu zuen Euskal Herria. Aranaren eta Aranaren ondorengo EAJren diskurtsoak bere egin zuen kolonialismoa: alegia, zapaltzailearen okupazioa, *metropoliarekiko* haustura eta nazio identitatearen berreskurapena. Kolonialismoarekin lotutako ideia horiek erabili zituen. Kolonizatua/kolonizatzailea harremanaren gaineko hausnarketan EAJren planteamendua berretsi zuen neurri batean ETAK baina jarrera irmoagoa hartu zuen eta gehiago sakondu zuen gaian: berdindu egin zituen Frantzia eta Espainiaren okupazioa eta metropoliek kolonietan egiten zuten dominazioa (1981, 27, 240 or.).

Gutxienez 1962az geroztik egin zuen ETAK bat tesi kolonialistekin. Harritzekoa ere ez da, ez denez, ikuspegi antikolonialista ez baitzen berria abertzaletasunean. 1936ko gerraz geroztiko frankisten zapalketa *okupazioan* oinarritu zen; beraz, aurreko abertzaletasunak bezala, ETAK ere okupatutako nazio gisa hartu zuen Euskal Herria (Jauregi, 1981, 411 or.). Nafarroako Erresumaren anexioa eta karlistagerrak ere konkista- eta okupazio-gerra militar gisa interpretatu zituen ETAK.

I. Biltzarra (1962) egin eta bere oinarri ideologikoak zabaltzen hasi zenean, deskolonizazio-prozesuekin eta nazio haietako askapen borrokekin egin zuen topo ETAK. Oso begiko izan zituen hasieratik Hirugarren Mundua deritzan eremuko nazioak, eta Euskal Herriaren egoera kolonizatutako herrienarekin identifikatzen hasi zen. Geroztik Euskal Herria Frantziaren eta Espainiaren kolonia gisa definitu zuen etengabe; hartara, bada, herri kolonizatuen irudira aztertu zuen Euskal Herriko errealitatea³⁵⁹. Erabateko antagonismo-harremana (haustura) ezarri zuen Euskal Herriaren eta potentzia okupatzaileen artean³⁶⁰ (Jauregi, 1981, 200, 412 or.).

Aldi berean Europa batuaren alde egin zuen ETAK, etnien eta nazioen Europa batuaren alde. Gai iraunkorra da hori ETAREN iruditerian: izan ere, etengabe

³⁵⁹ Ikus, adibidez, 1962ko *Zutik-Caracas* 25. zenbakiko *Euzkadi desde América* idatzia, Hordago, 1979, 2, 247-248 or.

³⁶⁰ Ikus 1962ko *Zutik* 5, *Los topos (II)*, Hordago, 1979, 2, 269-271 or.

kritikatzen du ETAk nazio estatuen eredua. Adibidez *El estado, nuevo dios político* artikuluan: "Este federalismo no puede ser un federalismo de entes monstruosos como los estados modernos" (Zutik 7, 1962, Hordago, 1979, 2, 289 or.). Urte haietako Zutik agerkariaren aleetako artikuluek erakusten dute iritzi ezberdinak zeudela ETAREN barruan; etakide batzuek etnia eta nazio kolonizatuen bide anticolonialista defendatzen dute argi eta garbi eta beste batzuek, aldiz, gehiago azpimarratzen dute Europako etnia eta nazioen garapena eta Europar Federazioaren ideia (Jauregik, 1981, 201 or.). Edonola ere, gehienetan, batak ez du bestea baztertzen; elkarren osagarri agertzen dira ETAREN idazkietan³⁶¹.

Bere jarduera eta helburuak egituratzeko formula bila zebilenez, ETAk arretatsu segitu zituen bi bideak. Etakide askok ondo ezagutzen zuten erresistentzia-mugimendu haietako hainbat liderren lan idatzia³⁶². Kubako gerrillaren garaipenak eta frantziar kolonialismoaren kontrako Aljeriako borroka eragin handia izan zuen ETAREN baitan, neurri txikiagoa izan arren, baita Europako mugimendu nazionalisten eta autonomisten susperraldiek ere. Hasieran era berean saiatu zen iturri batetik eta bestetik ikasten; Jauregik dio hasieran anbiguotasun handia izan zuela esparru horretan (1981, 199-200 or.).

Ipar Euskal Herrian *Enbata* mugimendu abertzalea sortu izanak³⁶³ Europaren aldeko ikuspegia indartu zuen nolabait ETAREN barruan. Hilabete batzuk beranduago Krutwig-en *Vasconia* ETAn zabaldu zenean gaiaren gaineko hausnarketa eta eztabaida pil-pilean zegoen (Jauregi, 1981, 201-203 or.). Krutwig Europa batuaren alde agertu zen *Vasconian*. Klase zapaltzaileen interesekiko mesfidantza azaldu bazuen ere, Europaren barruan kokatu zuen balizko euskal estatu federala (1963, 215 or.). Baina, aldi berean, Hirugarren Munduko esperientzien estrategia

³⁶¹ Adibidez *Estados, autonomías, federaciones* (Zutik 5, 1962, Hordago, 1979, 2, 267-268 or.) artikuluan: Afrikako herrien bidea hobetsi zuen ETAK, hots, lehendabizi independentzia eskuratzea, gero, etnien eta nazioen Europa batuari nazioz gaindikoa eskuduntza batzuk eman ahal izateko (Hordago, 1979, 2, 268 or.).

³⁶² Esate baterako, etnien aldeko korrante frantseseko Héraud-ena eta iraultza aljeriarrarekin lotutako Fanon eta Memmi-rena (Jauregi, 1981, 155, 199, 254 or.).

³⁶³ 1963ko apirilean sortu zuten Enbata mugimendua, nahiz 1960. urteaz geroztik izen bereko aldizkaria argitaratzen zuten.

gerrillariaren oinarri teorikoak aztertu zituen Krutwig-ek³⁶⁴ eta Euskal Herria kolonia³⁶⁵ gisa definitu zuen (ikus *Cuestión vasca*, 1965; *Nacionalismo revolucionario*, 1966). 1963tik aurrera hor oinarritu zuen ETAk, neurri handi batean, bere tesia: hala, Europa batuaren aldeko helburuak baztertzeko joan zen pixkanaka eta Hirugarren Munduko herrien eredu nazionalista hobetsi zuen. Jauregiaren iritziz eredu horren alde egin izanaren arrazoietan Krutwig-en ekarpen teorikoak bezainbat eragin zuen frankismoaren errepresio gogorrak (1981, 203 or.).

Bereziki 1964 eta 1965 urteetan landu zuen ETAk Euskal Herriarentzako teoria antikolonialista, Hirugarren Mundua delako eremuko askapen mugimenduen eredu hobetsi zuenean. Bi alderditan jarri zuen arreta: kolonietako eta Euskal Herriko egoeren analogia egiten du, batetik, eta *jarduera-formulen* analogia, bestetik. Lehendabizi, Euskal Herriak Frantziarekiko eta Espainiarekiko duen harremana kolonizatutako nazioek potentzia kolonizatzaileekiko duten *dependentzia eta zapalketa* egoerarekin parekatzen du; egoera horretan jartzen du arreta, ez hainbeste bi errealitateen testuinguru sozioekonomiko, politiko eta kulturalen (Jauregi, 1981, 239-240, 419 or.).

Nazio askapenerako mugimendu antikolonialistek bezala, ETAk ere hiru osagai nabarmentzen ditu kolonizatuaren eta kolonizatzailearen arteko harremanean: a) potentzia kolonizatzaileak *okupatu* egiten du eta, errepresioaren bidez, okupazioaren ezaugarriak (kulturala, politikoa, ekonomikoa, militarra, eta abar) eta hedapena zedarritu ditu; b) ezinbesteko baldintza da kolonizatutako nazioak potentzia kolonizatzailearekin guztiz *haustea*; okupazioaren kontrako erabateko borroka egin eta haustura-estrategia bat ezarri, beste aukerarik ez du kolonizatuak; eta c) kosta ahala kosta kolonizatuak nazio identitatea *berreskuratu* egin behar du,

³⁶⁴ *La cuestión vasca* (1965), *Nacionalismo revolucionario* (1966) eta *Estrategia guerrillera* (Branka, 2, 20 or.).

³⁶⁵ Ez Krutwig-ek ez ETAk ez zituzten kolonialismoaren eta inperialismoaren terminoak bereizi³⁶⁵ (Iztueta eta Apalategi, 1977, 196 or.). Zentzu zabala eman zioten kolonialismoari; zapalketa eta dependentzia ekonomikoa, kulturala, politikoa, instituzionala, administratiboa eta militarra bildu zituzten kontzeptu hartan. Hirugarren Mundua deitutako esparruko herrien egoerarekin parekatuta, kolonialistatzat jo zuten Europako gutxiengo etnikoen eta nazio estatuen arteko harremana (Jauregi, 1981, 416 or.).

jatorrizko hizkuntza eta kultura lehenera leheneratu; kolonizatzaileak bere hizkuntza, kultura eta tradizioak inposatzen baitizkio kolonizatuari, erauzi egiteko dio identitatea³⁶⁶ (Jauregi, 1981, 239-240, 425-429 or.).

Jarduera-formulak ere parekatzen ditu ETAk: bi errealtateetako borroka-metodoen eta estrategia iraultzailearen identifikazioa egin zuen berehala (*La insurrección en Euzkadi* liburuxkan³⁶⁷). Herri okupatua izanik Aljeriak eta Vietnamek bezala Euskal Herriak ere, bere nazio askapenerako gerrari ekin behar liokeela ohartarazten du ETAk. Aurretik ere hartua zuen ETAk jarduera dinamikoaren edo aktibismoaren aldeko bidea; baina Jauregik dio orain beste bulkada bat ematen diola ETAk bere ekinari. Herria abian jartzea lehenesten baitu orain, herria ekinbide horren parte egitea: hau da, masa borroka suspertzea (Jauregi, 1981, 243, 412 or.).

Kolonizatzailea/kolonizatua harremanean beste bi ideia nabarmentzen dituzte nazio askapenerako mugimenduetako teorialariek. ETArri baliagarri egin zitzaizkion Euskal Herriaren, eta Espainiaren eta Frantziaren arteko harremana aztertzeko. Batetik, metropoliko alderdi ezkertiarrek arazo kolonialarekiko agertzen duten ulertu ezina azpimarratzen dute; maiz ez dute onartzen edo estali egiten dute koloniaren esplotazioa. Eta, bestetik, metropoliko ezkertiarrek ez dute ulertzen kolonietan kontraesan nagusia kolonizatuaren eta kolonizatzailearen arteko antagonismoa dela, eta ez burgesiaren eta langileen arteko etsaigoa³⁶⁸ (Jauregi, 1981, 420-427 or.).

³⁶⁶ Kolonizatutako herrietako mugimenduen teorialariek behin eta berriro errepikatzen dituzte hiru ideia horiek. Okupazioaren eta hausturaren ideiak landu zituen, esate baterako, Fanon-ek aljeriar iraultzaren garaian, eta kultura identitatearen galera prozesuaz idatzi zuen Memmi-k (Jauregik aipatuak, 1981, 239-240 or.).

³⁶⁷ Herri kolonizatuaren kontzeptua Euskal Herrian aplikatzearen ideia nabarmentzen du ETAk *La insurrección en Euzkadi* txostenean. Apalategik dio jarrera ideologiko horrek eztabaida handia sortu zuela ETAn marxismora hurbildu zenean. Eta marxismoaren eta nazio auziaren inguruko eztabaidan sakondu zuenean argitu zuela ETAk ondo tesi kolonialistekiko bere jarrera (Apalategi, 1985, 259 or.).

³⁶⁸ Ikus Argalaren hausnarketa ETA Ven eta Viren bereizketan gaiak sortzen zuen eztabaida ezagutzeko: "VI Asamblea se declaraba internacionalista y tachaba a ETA de nacionalista pequeño-burguesa. Pero, (...) ¿Ser internacionalista exige a los trabajadores de una nación dividida y oprimida renegar de sus derechos nacionales para de este modo confraternizar con los de la nación dominante? En mi opinión, no. Internacionalismo obrero significa la solidaridad de clase, expresada en el mutuo apoyo, entre los trabajadores de las diferentes naciones, pero respetándose en su peculiar forma de ser nacional. Si las relaciones entre las fuerzas obreras españolas y las patrióticas vascas no han sido mejores no se debe a las justas exigencias de estas últimas, sino a la

Testuinguru horretan aztertu beharko genuke ETAk langile etorkinei buruz eraiki zuen diskurtsoa. Lehen urteetan, immigrazioaren izaera humanoa eta ekonomikoa aipatzen dituen aldi berean bere funtzio politikoa nabarmentzen du ETAk: alegia, erregimen frankistaren tresna politiko gisa betetzen duen funtzio asimilatzailea azpimarratzen du bere idatzietan. Tesi antikolonialistan etorkina aparatuzapaltzailearen osagai bihurtzen da eta halaxe interpretatu zuen ETAk ere neurri batean. Edonola ere, ETAk euskal nazioan integratzeko aukera ematen dio hasieratik etorkinari; bere jarreraren arabera kokatzen baitu aparatuzapaltzailearen barruan edo kanpoan. Jauregik dio horretan ezberdintzen dela ETAn diskurtsoa kolonietako askapen borroken tesietatik (1981, 429 or.).

Hirugarren Mundua deritzan eremuko herrien tesien eta tsi antikolonialisten egokitze eta sakontze prozesu hark *Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos* (1964) idatziarekin jo zuen goia (Jauregi, 1981, 238 or.). 1965ean (maiatzaren 1aren testuinguruan) indartu egin zen ETAn langile borroka lehenesten zuen joera ([ikus II.4.3.](#)). Edonola ere, ETako zati handi batek kolonizatutako herrien ikuspegi antikolonialistari eutsi zion artean (Jauregi, 1981, 251 or.). Eta ETA-Berri eta Branka taldea ETatik bereizi zirenean, Hirugarren Mundua delako eremuko herrien bereganatu zuen ETAk V. Biltzarrean (1966-1967), bai borroka-metodoen arloan, bai estrategia orokorrean (Jauregi, 1981, 413 or.).

1968. urtearen amaierara arte aldatu gabe eutsi zion ETAk Euskadi kolonia gisa identifikatzen zuen ideari. Bidenabar, esan dezagun hemen tsi kolonialista eztabaida-gai³⁶⁹ izan zela hurrengo urteetan ETAn barruan. (Jauregi, 1981, 417 or.). 1970ean, pixkanaka, jarrera antiinperialista gailendu zitzaion ETAn jarrera

incomprensión y actuación oportunista mostrada por aquéllas frente a la cuestión nacional vasca" (Argala in Apalategi, 1979, 17 or.).

³⁶⁹ 1968ko abenduan *Hacia una estrategia revolucionaria vasca* liburuxka idatzi zuen Jose Luis Zalbidek. Eragin handia izan zuen ETako militanteen eta jarraitzaileen artean. Jauregik dio esplizituki egin ez bazuen ere, inplizituki tsi kolonialista baztertu zuela Zalbidek nolabait eta Euskal Herriaren borrokari beste ikuspegi bat eman ziola, ikuspegi antiinperialisten alde egin zuela. Kritika gogorrak jaso zituen etakide batzuegandik (1981, 417 or.).

antikolonialistari³⁷⁰. VI. Biltzarraren osteko zatiketen ondoren, 1971etik aurrera, ETAk jarrera antiinperialistetara jo zuen; nahiz eta, dena esate aldera, joera antikolonialistak ere iraun zuen ETako sektore batzuetan (Jauregi, 1981, 416-418 or.).

4.10. Ipar Euskal Herriari buruzko ETaren diskurtsoa

EAJk bezala ETAk ere *Euzkadi* (eta gero Euskadi) erabiltzen du bere idatzietan. Baina argi esaten du Euzkadi *Euskal Herria* historikoarekin parekatzen duela. I. Biltzarreko *Zuzenbide* (1962) agirian argitu zuen puntu hori: "ETA'ren aburuz, kondairan barrena Euskal-Eria osatu zuten eskualdeak osatzen dute gaurko Euzkadi ere. Ots: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa'k" (Hordago, 1979, 1, 526 or.).

Aurretik ere adierazi zuen ETAk bere nazio borrokak Euskal Herri osoa zuela helburu. Adibidez *Presente y futuro político, económico y social de Euzkadi* (Hordago, 1979, 1, 235-251 or.) koadernoan: sei herrialdeentzako independentzia edo federazioa nahi duela esaten du ETAk. Behin eta berriro errepikatzen du Frantziatik eta Espainiatik bereizteko helburua eta Euskal Herria estatu, nazio edo etnia aske batean elkartzekoa. ETaren borroka ez da Espainiako Estatuaren kontrako borroka soilik; aitzitik, hasieratik azpimarratzen du bi estatuen zapalketa pairatzen duela Euskal Herriak. ETaren borroka ez da halaber unean uneko erregimen baten kontrakoa; ez da beraz inondik inora Francoren edo de Gaulle-en erregimenaren aurkako borroka soilik³⁷¹.

³⁷⁰ Funtsean honako honetan zetzan aldea: antinperialismoak nabarmentzen duen *dependentzia ekonomikoaren* lekuan, ETAk Euskal Herriaren okupazio-egoera eta okupazioaren alderdi politiko instituzionala nabarmendu zuen oroz gain; horregatik lehenesten du ETAk potentzia kolonizatzailea kanporatzea eta independentzia politikoa eskuratzea. Beltzak oso modu argian formulatu zuen tesi kolonialistaren oinarria: Euskal Herriak historian eta egun pairatzen duen kontraesan nagusia euskal herria versus zapaltzaile arrotza dela, eta ez burgesiaren eta langileen antagonismoa (Jauregik aipatua, 1981, 416-418 or.).

³⁷¹ Hor ikusten du garbi Jauregik ETaren eta gainerako erakunde politiko antifrankisten arteko aldea. Erakunde antifrankistek Francoren erregimenaren kontrako borroka garatzen dute, sistemaren eta botere frankistaren oinarria zalantzan jartzen dutelako eta beren helburua erregimena desagertzea

1960. eta 1961. urteetan babestu ziren lehendabiziko etakideak Ipar Euskal Herrian. Bertako nukleo abertzaleekin harremana hasi zuten orduan, Enbata aldizkari sortu berriaren inguruan antolatzen ziren abertzaleekin bereziki (aurrerago aztertuko dugu harreman hori). Harreman hark oihartzuna izan zuen ETAREN diskurtsoan (Apalategi 1985, 267 or.). Esate baterako, *Zutik*-Caracas-en 10. alean (*Ultima hora*, 1960-1961, Hordago, 1979, 1, 459 or.): ETA prest agertzen da Enbata harpidetza egin nahi duten abertzaleak laguntzeko. Enbata harpidedun eginda zapaltzaileari erresistentzia egiten zaiola azpimarratzen du (Hordago, 1979, 1, 459 or.).

Zutik-Caracas-en 13. alean *Enbata dice* izeneko atala argitaratu zuen ETAK (Hordago, 1979, 1, 477-478 or.), Enbatak argitaratutako iritzi batzuk itzultzen ditu bertan. Funtsean dio libre izateko euskaldunak euskaldun bezala bizi behar duela, eta ez frantziar edo espainiar herritar baten gisan. Amaieran esaten du nazio borroka hobeto ulertu ahal izateko garrantzi handikoa dela ETARENTZAT *Zutik*-en irakurleei Enbataren iritzien berri ematea. Eta berriro gogorarazten die irakurleei Enbata harpidetza egiteko eta banatzeko zerbitzua duela *Zutik*-ek (Hordago, 1979, 1, 478 or.).

1960ko irailean argitaratu zuen Ipar Euskal Herriko abertzale talde batek Enbata aldizkariaren lehendabiziko alea. Eta 1963ko apirilean sortu zuten aldizkariaren inguruko mugimendua. Mugimenduaren sorrera data esanguratsua izan zen oso: 1963ko Itsasuko (Lapurdi) Aberri Eguna baliatu zuten horretarako eta *Itsasuko Ageria*³⁷² izeneko dokumentua zabaldu zuten (Apalategi, 1979, 333 or.). ETAK garrantzi handia eman zion Enbataren sorrerari eta, horregatik edo, *Zutik* berezi bat eskaini zion Itsasuko Aberri Egunari³⁷³. Ekitaldiaren berri ematen du ETAK eta, bide batez, txalotu egiten du Europako eta Amerikako mugimendu nazionalistetako

delako. ETARENTZAT funtsezko baldintza Espainiar eta Frantziar estatuak beraiek aldatzea da, Euskal Herriaren lurraldetik at gera daitezen (Jauregi, 1981, 212-213 or.).

³⁷² Ikus Hordago, 1979, 2, 448-449 or. Funtsean, Europako gainerako herriekin osatutako Europa batuan Euskal Herri batu, euskaldun eta burujabea aldarrikatzen du Enbataren agiriak.

³⁷³ Ikus *Zutik* número especial, Aberri Eguna 1963, Hordago, 1979, 2, 453 or.

ordezkariak³⁷⁴ bertaratu izana. Europako komunikabide batzuek ekimen hari buruz argitaratu zituzten albisteak ere biltzen ditu. Eta Enbataren mezua azpimarratzen du: hots, Ipar eta Hego Euskal Herrietako borrokak elkartu egingo direla eta indar guztia euskal nazio batua lortzeko lanean jarriko dutela bi aldeetako abertzaleek: "Itxasu tu [sic] has demostrado al mundo que esa "frontera", verdadero Muro de la Vergüenza, NO EXISTE PARA LOS VASCOS!" (Hordago, 1979, 2, 453 or.; letra larri jatorrizkoan).

Jauregik dio Itsasuko ekitaldia akuilu izan zela ETarentzat bere aldarrikapenak Europako gainerako nazioen mugimenduetara hurbiltzeko (1981, 202 or.). Ekitaldi haren eragina nabari da ETaren hurrengo hilabeteetako idatzietan. Esate baterako 1963ko *Zutik 13-14ko Separatistas?* (Hordago, 1979, 2, 361-362 or.) artikuluan.

Hurrengo urteetako idazkietan ere Frantziaren eta Espainiaren zapalketaren kontrako diskurtsoa erabili zuen ETAk. Nazio ikuskera ematen dio bere borrokari eta antifrankisten borrokarekin duen aldea nabarmentzen du: hartara, ETaren borroka espainiar eta frantziar inperialismoaren kontrakoa dela azpimarratzen du etengabe, ez unean uneko erregimenaren kontrakoa. Esate baterako, *Zutik 24ko Nuestro enemigo concreto* artikuluan oso modu argian azaltzen du ETAk Euskal Herriaren zapalketan parte hartzen duten bi faktoreen (iraunkorraren eta akzidentalaren) ideia eta bere borroka, oroz gain, faktore iraunkorraren kontrakoa dela nabarmentzen du: "El factor accidental es pasajero y sustituible, mientras que el permanente es fijo y esencial para perpetuar esa dominación. (...) Nuestra lucha va dirigida contra todo poder no vasco sobre tierra vasca. Contra toda autoridad extranjera sobre la nación vasca" (Hordago, 1979, 3, 269 or.).

Zutik bereko *Un pueblo... una idea... una mística* artikuluan norabide berean hitz egiten du ETAk: "Franco –y De Gaulle– son para Euzkadi meros accidentes históricos en la larga cadena de opresión y colonización que parece nuestro pueblo bajo las

³⁷⁴ *Movimiento para la emancipación de los pueblos minoritarios* mugimenduan elkartutako nazioez arida.

botas imperialistas de España y Francia" (Hordago, 1979, 3, 273 or.; letra etzana jatorrizkoan). Aldaketarik gabeko gaia da hau ETAREN diskurtsoan.

Ipar Euskal Herriak ETAREN mintzoan izan zuen pisua aztertzen ari garen honetan, esanguratsua da ETAREN ordezkariak *Enbata* astekariak 1968an egin zion elkarriketan esandakoa. Batetik, kritika egiten dio Euskal Gobernuari borroka antifrankistaren esparruan jardunda, praktikan, Ipar Euskal Herria ahaztu egin duelako. Bestetik, kazetariak ETAREN hedapenaz galdetzen dionean, damu du Nafarroako Erriberan eta Ipar Euskal Herrian ETAK indar gutxi duelako. Horren arrazoa ere azaltzen du: alderdi abertzale tradizionalak gutxi landu izan dituzten zonaldeak direla esaten du eta praktika iraultzailea ahula dela bertan. Edonola ere, ETA da, bere esanetan, herriari irtenbidea eskain diezaiokeen erakunde bakarra "duen ekintza oso, gogor eta iraultzaileagatik" (Nuñez et al., 1993, 2, 301-302 or.).

ETAK Ipar Euskal Herrian kokatu nahi duela iradokitzen du ETAREN ordezkariak. Eta kazetariaren galdera bati erantzunez zalantzan jartzen du euskal gobernuaren eta *Enbata* mugimenduaren izaera iraultzailea: "Nire ustez, eusko gobernuak, antifrankismoari lotua, ez du benetako praktika nazionalistarik garatu Ipar Euzkadin. Enbatak ere, legaltasun frantsesaren bidea hartuz, oso aukera murriztuak ditu Euskal Herriaren batasun eta askatasunaren aldeko borroka azkeneraino eramateko (Nuñez et al., 1993, 2, 302 or.).

Aurrerago Ipar eta Hego Euskal Herriko erakundeen harremanetan kontraesan handia sortu duen gai bat ukitzen du ETAREN ordezkariak. Mugimenduaren atalean sakonduko dugu gaia baina, tira, aipa dezagun hemen bere iritzia. Funtsean honakoa da iritzi horren muina: alegia, ETAK ez dituela Hego Euskal Herriko "borroka baldintzak" Ipar Euskal Herrira tokialdatu nahi, Ipar Euskal Herriak bere inguruabarren arabera jardun behar duela. Edonola ere, Hego Euskal Herriko hainbat herriren arteko aldea nabarmentzen du etakideak (Eibarreko eta Tuterako errealtateak konparatzen ditu), eta, aldeak alde, horrek ez duela ukatzen ETAREN borroka nazionala eta komuna izan behar denik. Eta, ildo honetan, abertzale

batzuen jarrera kritikatzeko du: "Horren ondoan badira Ipar Euzkadiko borroka Hego Euzkadin egiten denaren desberdina izan behar duela esaten duten sasiabertzaleak. Gure ustez pentsamendu eskema hori zapaltzailearenarekin bat dator, dena mugan finkatzen duena, eta beraz bi Euskal Herri daude, frantsesa eta espainola" (Nuñez et al., 1993, 2, 302 or.).

Horrenbestez, Euskal Herri osorako estrategia iraultzailea diseinatu behar dela aldarrikatzen du etakideak elkarriketaren amaieran eta, arazo lokalak konpontzeko autonomia taktikoari eutsi behar zaiola iritzita, Ipar eta Hego Euskal Herria borroka iraultzailean batuta aritu behar direla aldarrikatzen du: "ETAk uste du bere ildo bereko antzerako ideologia garatzen lagundu behar diela Ipar Euzkadiko nazionalistei eta ETAk espero du horren ondoriozko praktikak aparatu mailako batasuna ekarriko duela, bai erakunde gisa bai borroka gisa, beste modu batean esanda, Askatasun Nazionalerako Frontea" (Nuñez et al., 1993, 2, 302 or.).

ETAk Hego Euskal Herrian garatu zuen jarduera politikoaren alderdirik handiena; eta borroka armatua ere Hego Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan soilik jarri zuen praktikan. Ez hitzez ez egitez ez zuen Ipar Euskal Herrian eta Frantziako Estatuan bortxazko metodoak erabiltzeko asmorik adierazi. Ezta Enbatak ere, eta bera izan zen ETArekin harreman estuena izan zuen Ipar Euskal Herriko mugimendua (Jauregi, 1981, 213 or.). Aurrerago sakonduko dugu auzi horretan.

4.11. Elite intelektualari buruzko ETArekin diskurtsoa

ETAk hasieratik erakutsi zuen *intelektualekiko*³⁷⁵ interesa (Apalategi, 1985, 261 or.). Diskurtso hori aztertuko dugu hemen. 1963an *Proféticas minorías de choque* (Zutik 9, Hordago, 1979, 2, 313-314 or.) dokumentua argitaratu zuen ETAk. Maritain pentsalari frantsesari hartutako kontzeptua da "talkarako minoriena". Maritain-en hitzak baliatzen ditu ETAk minoria horiek herriaren zerbitzari edo profeta gisa definitzeko.

³⁷⁵ Elitea kontzeptuarekin pareka liteke.

Jendartearen ongiar arduratzen diren minoriak dira, eta masa suspertzeko eta mugimenduan jartzeko ardura hartzen dute. Indiak Gandhi edo Errusiak Lenin behar izan zituzten bezala, Euskal Herriak Arana eta Agirre behar izan ditu ETAREN hitzetan. Herri baten abangoardia edo elitea profeta horien inguruan antolatzen da gero.

Emantzipazio nazional, politiko eta sozialetan funtsezko zeregina aitortzen die ETAK intelektualei: "la misión fundamental de estas minorías (...) especialmente donde ya no existe expresión popular, es la de DESPERTAR al pueblo. Y luego conducirlo si puede. (...) Algunos son o tienen que ser esa minoría profética de choque en Euzkadi" (Hordago, 1979, 2, 314 or.; letra larria eta etzana jatorrizkoan). Nazio askapena aurrera eramateko ETAREN erantzukizuna iradokiz, badirudi, artikulua egileak euskal intelligentsiaren zereginarekin lotzen duela ETAREN erantzukizuna.

Lo que no hacen los intelectuales vascos (Zutik 16, 1963, Hordago, 1979, 2, 377-378 or.) artikuluan kritikatu egin zuen ETAK euskal intelektualen jarrera. Escarret Montserrateko abadeak *Le Monde* egunkarian Francoren erregimenaren kontra egin zituen adierazpenak aitzaki hartuta, ETA kexu da euskal intelektualek ez dutelako publikoki protestarik egiten. ETAK nabarmentzen du ahots publikorik gabeko pertsonen osatu dutela euskal erresistentzia, hots, langileek, ikasleek eta gazteek. Pertsona publikoak isilik egon dira bitartean (artistak, kazetariak, enpresariak, gotzainak eta abar aipatzen ditu); ez dute ETAREN hitzetan beren eginbeharra bete. ETAK Euskal Herriaren eta euskaldunen askapenean lagundu dezaten eskatzen die (Hordago, 1979, 2, 378 or.).

III. Biltzarrean (1964ko martxoa eta apirila) onartu zituen ETAK iraultza-gerraren printzipioak³⁷⁶. Krutwig-ek bezala ETAK ere zentzu globala eman zion iraultza-gerrari: hala, borroka armatuaren jardura ez ezik, estatu zapaltzailea euskal lurretatik botatzeko ekintza oro hartzen baitzuen iraultza-gerraren parte. Osotasun

³⁷⁶ *La insurrección en Euzkadi* txostenean teorizatu zuen iraultza-gerraz.

horretan ekintza ideologikoa lehenesten dute Krutwig-ek eta ETAk: jakina, borroka politikoak du toki nagusia iraultza-gerran, eta gainerako jarduerak, armatua barne, haren mende geratzen dira. Gerra iraultzailea herriaren borondate politiko sendotik baizik ezin da sortu, ETAREN ustez; horregatik da ezinbesteko baldintza herri guztia iraultza-gerrarako trebatzea, gero bertan aktiboki parte har dezan. Gerra iraultzailea izan herri-masen gerra baita; zentzu horretan, ezin da aurrera atera herri-masa hori mobilizatzen ez bada eta masa horietan zurkaiztuz ez bada (Hordago, 1979, 3, 21-70 or.).

Iraultza herri-proiektu gisa ikusten du ETAk eta, horretarako, herria konbentzitu behar du ezinbestean. Konbentzitzeko lan horretan intelektualek zeregin garrantzitsua dute oso, iritzi publikoan izan dezaketen eraginagatik (Apalategi, 1985, 274 or.). Hor kokatu behar genituzke ETAk euskal intelektualentzat idatzi zituen bi gutunak: lehendabizikoa 1964ko irailean eta 1965eko ekainean bigarren bertsioa³⁷⁷.

Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos (1964, Hordago, 1979, 3, 279-287 or.) gutunaren lehendabiziko bertsioan harrিতuta agertzen da ETA abertzaletasuneko sektore batzuek ETAREN jarduerarekiko agertu duten jarrera kritikoarekin. Apaizen eta artisten jarrerak mintzen du batez ere; herriaren arazoekin beste inor baino kezkatuago egon behar lukete, ETAREN ustez, baina alderantziz gertatzen da. Kexatu egiten da ETAREN *abertzaletasun berriarekiko* interesik agertu ez dutelako. Gutunean zehazten du ETAK argi eta garbi zein sektore sartzen dituen euskal intelligentsiaren zakuan: "los intelectuales vascos, poetas, profesores, pintores, escultores, músicos, sacerdotes, novelistas, periodistas, técnicos, investigadores, filósofos, dramaturgos, actores, cineastas, ensayistas, profesiones liberales" (Zutik 25, Hordago, 1979, 3, 279 or.).

Gutuna idatzita zer lortu nahi duen ere argi eta garbi azaltzen du ETAk. Lehenik eta behin, ETAk zeren alde eta zeren kontra borroka egiten duen azaldu nahi die euskal

³⁷⁷ Bigarren bertsioan aldaketa batzuk egin zituen.

intelektualei; beraiekin elkarriketa "zintzoa" izan nahi duela ere adierazten die; eta ohartarazpen bat egiten die, alararako dei bat, lozorrotik esna daitezten: "No podéis, no tenéis derecho a permanecer ciegos y sordos, neutros, ante las convulsiones que agitan a un pueblo (políticamente, religiosamente, estéticamente, socialmente, culturalmente, en fin existencialmente) en su lucha por su total liberación, por intentar llegar a SER otra vez" (Zutik 25, Hordago, 1979, 3, 279 or.; letra larria jatorrizkoan).

Berriro nabarmentzen du ETAk borrokaren izaera integrala. Bere burua mugimendu gisa definituta, euskaldun guztien askatasuna eta garapena lortu nahi dituela esaten du. Zentzu horretan ETAREN ideologia bere militanteen ideien sintesia dela esaten du; ez dela ideologia estatikoa, dinamikoa dela eta herri osoaren ekarpenekin garatu eta osatu behar litzatekeela. Ideologia eraikitzeko lan horretan sektore bat nabarmentzen du ETAk: hain zuzen ere, euskal behe kleroa. Sektore erlijiosoek aktiboki parte hartu behar luketela azpimarratzen du (Hordago, 1979, 3, 287 or.; aurrerago sakonduko dugu parte-hartze horretan).

Azken ideia horri heltzen dio bigarren bertsioan ere. *Carta a los intelectuales* (2) (Zutik 30, 1965, Hordago, 1979, 3, 501-510 or.) gutunean intelektualek prozesu iraultzailean duten zeregin garrantzitsu bat azpimarratzen du ETAk: alegia, ideologia eraikitzearena. Hitza ematen die nolabait. Sistemaren egiturak egitura sozialistekin ordezkatzekoan, dio ETAk, prozesu iraultzaileak aukera politiko ugari sortuko dituela, herria antolatzeko forma ugari jarriko direla mahai gainean. Horregatik segituko du ETAk ordura arte bezala oinarri ideologikoak lantzen baina, hala ere, aurrerantzean, hitza intelektualek hartu behar luketela ohartarazten du (Hordago, 1979, 3, 506 or.).

Intelektualekiko ETAk erakusten duen interesa iraultza osoaren ideiarekin lotu beharko genuke. Gutunaren bigarren bertsioan Euskal Herriak, iraultza politikoa eta ekonomikoa ez ezik, iraultza integrala behar duela errepikatzen du berriz ere: hala nola artean, kulturean, filosofian eta balio sozialetan egin behar da iraultza, ETAREN

hitzetan. Mugimendu politiko gisa, ETAREN egitekoa Euskal Herriaren autodeterminaziorako eta sozializaziorako egiturak iraultzea da, eta ez iraultza integralaren gainerako alderdiak *gizatzea*. Intelektualen zeregina, beraz, funtsezkoa da hor: Euskal Herriak dituen arazo konkretuei irtenbidea aurkitzeko lanean herri osoak parte hartu behar du baina, dena dela, "langile intelektualek" etengabe aritu behar lukete bideak bilatzen, egoera konkretuak aztertzen, eta nazioaren errealitatea beste nazioen esperientziekin konparatzen (*Zutik* 30, Hordago, 1979, 3, 506 or.; letra larria jatorrizkoan).

Gutunaren amaierako hitzak esanguratsuak dira alde horretatik:

Decir música, teatro, o poesía vasca, ha de ser pues, decir COMPROMISO con la problemática actual de todo el pueblo vasco. (...) No nos dirigimos a "artistas vascos"; nos dirigimos a todo el pueblo (...) Adelante! Habla, dibuja, escribe, canta... usa de todos los medios de expresión para que Euzkadi viva una revolución INTEGRAL. Haz verdadero ARTE. Si es preciso rompiendo con las formas tradicionales (*Zutik* 30, Hordago, 1979, 3, 510 or.; letra larria jatorrizkoan).

Bi gutun horiez gain, estrategia iraultzaileari buruz egiten dituen hausnarketetan behin baino gehiagotan aipatzen du ETAK euskal intelligentsia. Esate baterako, *Del pueblo vasco* (*Zutik* 20, 1964, Hordago, 1979, 3, 218-221 or.) artikuluan. Ekintzan oinarritzen du ETAK bere ildo politikoa eta langileei zuzendutakoa dela esaten du; eskulangileak eta langile intelektualek bereizten ditu eta zeregin garrantzitsua ematen die bigarrenei: "Paralelamente a la infiltración entre los trabajadores manuales, es necesario forzar la infiltración entre los estudiantes, intelectuales y cuadros técnicos, con lo que se conseguirá arrastrar más fácilmente a los primeros" (Hordago, 1979, 3, 221 or.).

Azken dokumentu bat aipatuko dugu. *Seudo-progresistas* (Zutik 28, 1965, Hordago, 1979, 480-481 or.) artikuluan³⁷⁸ herri-buruzagiez hitz egiten du ETAk: intelektualak, buruzagi sindikalak, buruzagi politikoak, eta abar aipatzen ditu. Herriaren kide gisa ikusten ditu ETAk; ekoizpen-prozesuetan eta nazioaren bizitza espiritualean sartuta dauden buruzagiak dira. Buruzagi burgesekin alderatzen ditu: hala, intelektual burgesak herriaren etsai gisa ikusten ditu ETAk, herritarrekin duten oposizio ekonomiko eta soziala dela eta herritik aldentuta bizi direlako. Etorkizuneko Euskal Herria langileen esku egongo dela ohartarazten du ETAk eta ekonomia, politika eta kultura, klase pribilegio izateari utzi eta herritik sortutako buruzagi "natural eta errealean" esku egongo direla aldarrikatzen (Hordago, 1979, 3, 480 or.).

Zergatik ematen die ETAk garrantzi hori intelektualei? ETAk uste du iraultzaren eta zapaltzailearekiko erabateko hausturaren bidez abertzaletasun berriak herri egiturak erabat aldatu behar dituela. Estructura horiek ordezkatu ahal izateko Krutwig-ek *Vasconian* eta ETAk *La insurrección en Euzkadi* liburuxkan lantzen dituzten *hierarkia paraleloak*³⁷⁹ sortu behar dira; eta euskal intelligentsiaren zeregina funtsezkoa da hor. Intelektual abertzaleek funtsezko funtzioa dute estatu administrazio inperialistaren koadroak ordezkatzeko prozesuan (Zutik 25, Hordago, 1979, 3, 279-289 or.). Aipatu dugun bezala, nazio askapenerako mugimenduarentzako ideologia eraikitzeke zeregina ere aitortzen die ETAk. Izan ere, masa suspertzeko eta mugimenduan jartzeko intelektualen energia dinamikoa ordezkazina da. ETAREN ustez, herri buruzagiek gidatu eta bultzatu behar lukete herri mugimendua.

³⁷⁸ Izen-abizenekin eta ezizenarekin sinatzen du Txillardegik (Hordago, 1979, 3, 481 or.).

³⁷⁹ Arestian aipatu bezala (ikus III.4.5.), Krutwig-ek defendatu zuen *euskal iraultzarekin* bat egiten zuten hierarkia paraleloek ordezkatu behar zituztela estatu administrazioaren koadroak. Ezinbesteko baldintza da horretarako, dio Krutwig-ek, borroka iraultzailea gidatzeko gai den elite-buruzagia izatea (1963, 340-342 or.).

5. ETAREN V. BILTZARRA (1966-1967): HELDUTASUN POLITIKOA

Aztertu ditugu dagoeneko bai ETAREN lehen hiruzpalau urteetako trantsizioko diskurtsoa (1958-1962), bai I. Biltzarraz geroztik garatu zituen oinarri ideologiko eta estrategikoak. Aipatu dugu Hego Euskal Herrian gertatzen ari ziren aldaketa sozial handiek sekulako eragina izan zutela ETAREN barruan eta nola hurbildu zen pixkanaka ezkerreko korrante ideologikoetara. IV. Biltzarretik (1965) aurrera gehiago sakondu zuen ETAK errealitate sozialaren azterketetan eta horrek bere barruko joerak gero eta gehiago urrundu zituen elkarrengandik (Hordago, 1979, 7, 49 or.; Apalategi, 1985, 281-282 or.; Casanova, 2007).

Hain zuzen, kontraesan ideologiko haiek argitzeko antolatu zuen ETAK V. Biltzarra (1966ko abenduan lehen zatia, 1967ko martxoan bigarrena). Gorago esan dugun bezala, V. Biltzarren lehen zatian langile joerako kideek osatzen zuten Bulego Politikoa kanporatu zuen ETAK. *Bostgarren Batzarrean onartutako ideoloji posturak*³⁸⁰ (Nuñez et al., 1993, 249-250 or.) agiriak zehaztu zuen handik aurrerantzeko ETAREN ideologia ofiziala. Aktan jasota daude bertan hartutako erabakiak (V. *Asamblea Nacional de ETA 2. Sesión (Actas)*, Hordago, 1979, 7, 84-97 or.) eta Txabik eztabaidarako prestatu zuen idatzia (ETAREN barruan *Ideología oficial de Y* izena hartu zuen Txabiren dokumentuak, Hordago, 1979, 7, 98-99 or.).

Oinarri ideologikoetan IV. Biltzarrean onartutako tesi antikolonialista berretsi besterik ez zuen egin baina, egitari zor, gehiago zehaztu zuen oraingoan Euskal Herriaren askapen sozialari zegokion gaia. Horretarako ez zuen Europako marxismora jo, Hirugarren Mundua deitutako herrien eredia hartu zuen; batez ere Mao Zedong-ek defendatu zuen *nazionalismo iraultzailearen* printzipioak egin zituen bere (Jauregi, 1981, 309-310 or.). Eta estrategiaren alorrean *iraultza-gerra* edo,

³⁸⁰ Nuñez et al.-ek (1993, 249 or.) *Ideoloji baldintzak* esaten dio dokumentuari (espainolez *Posiciones ideológicas*). Langile joeraren aurrean beste aukera bat proposatu asmoz, *Informe verde* idatzia prestatu zuten Bruselan Madariagak, Krutwig-ek, Bareñok, Eskubik eta abarrek. Hego Euskal Herrian zeuden Etxebarrieta anaiekin, Beltzarekin eta beste hainbat etakiderek eztabaidatu ondoren, *Informe Verde revisado* idatzia (Hordago, 1979, 7, 57-70 or.) eraman zuten V. Biltzarrera. *Informe Verde revisado* idatziak proposatzen zituen definizioak segitu zituen praktikan V. Biltzarreko lehen zatian ETAK onartu zuen *Ideoloji baldintzak* agiriak (Hordago, 1979, 7, 56 or.).

Euskal Herrira ekarrita, *euskal iraultza* praktikan jartzea erabaki zuen (Hordago, 1979, 7, 257-262 or.). Hirugarren Mundua deitutako herrietako teoriarrien ekarpenarekin³⁸¹ batera, Krutwig-en obrak³⁸² finkatu zuen neurri handi batean V. Biltzarreko ETaren ideologia eta estrategiaren gida-lerroa: *Nacionalismo revolucionario*³⁸³ (1966, Branka 1) eta *Estrategia guerrillera* (1966, Branka 2) lanekin (Jauregi, 1981, 443 or.).

*Nazio Askapenerako Mugimendu Sozialista*³⁸⁴ izendatu zuen ETAk bere burua eta era honetan definitu zuen *nazionalismo iraultzailea*: alegia, euskal etnian finkatutako Euskal Herriaren eta euskal herritarren³⁸⁵ askapen integral gisa. Abertzaletasun iraultzaileak inperialismo espainiarraren eta frantziarraren zapalketa bikoitzari aurre egiteko tresnak ematen dizkio ETari: batetik, zapalketa linguistiko kulturalari (nazionalari) aurre egiteko eta, aldi berean, zapalketa sozioekonomikoari buru egiteko. Borrokaren globaltasuna azpimarratzen du V. Biltzarrean ere: "El N.R. [Nacionalismo Revolucionario] (...) es una lucha revolucionaria. Esta lucha es global, es decir, que abarca todos los aspectos de la realidad vasca (cultural, social, económica, etc.) y, por tanto, es, ante todo y sobre todo, una lucha política" (Hordago, 1979, 7, 93 or.). Nazio askapenaren eta sozialismo-komunismoaren arteko

³⁸¹ Israelgo Menaghen Begin buruzagiaren *Reuelta en Tierra Santa*; Aljeriako iraultzari buruzko lanak, tartean, Claude Delmas frantziar armadako koronelaren *Le guerre révolutionnaire*; Kubako iraultzari buruzko lanak; Lenin-en hainbat obra eta abar (Hordago, 1979, 7, 77 or.).

³⁸² Lenin-en ideietan oinarritu zuen Krutwig-ek nazionalismo iraultzailearen teoria, horixe izan baita bere hitzetan II. Mundu Gerraren ondoren inperialismoak zapaldutako nazioek jarraitu duten bidea. Euskal Herriak ere kolonialismo frantziarraren eta espainiarraren kontrako euskal iraultza egin behar du. Horixe da nazionalismo iraultzailearen funtsa: okupazio arrotzaren kontrako nazio borroka. Nazionalismo iraultzailearen indarra honako honetan datza Krutwig-en ustez: herri zapalduaren nazio helburuak aintzat hartzea eta elementu nazionalista horiek estu lotzea elementu sozialista iraultzaileekin. Horretan bereizten dira Krutwig-en ustez nazionalismo iraultzailea eta komunismo klasikoa; nazionalismo iraultzaileak nazio auziari ematen dion garrantzian eta elementu sozialista iraultzaileekin egiten duen loturan (Jauregi, 1981, 443-444 or.).

³⁸³ ETaren barruko joeren lehia ikusteko argigarriak dira Krutwig-en hitzak, *Nacionalismo revolucionario* delakoa zergatik argitaratu zuen azaltzen duenean: "con el fin de combatir ciertas ideas erróneas que se estaban divulgando entre las masas revolucionarias vascas desde un «comité ideológico» incrustado en ETA, compuesto por trozkistas y miembros «vascos» del FLP" (Jauregi, 1981, 443 or.).

³⁸⁴ *Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu Iraultzailea* I. Biltzarrean onartu zuen definizioa aldatu zuen horrela. *Sozialista* jarri zuen *iraultzailearen* lekuan. Nazio askapenari eduki soziala eman nahi baitzion ETAk, aldi berean, nazio iraultza eta iraultza sozialista egiteko (Apalategi, 1985, 282 or.).

³⁸⁵ Gizona erabiltzen du.

sintesi teorikoa egin zuen horrela ETak V. Biltzarrean. Orduan onartu zuen ofizialki marxismoa inspirazio-ideologia gisa³⁸⁶ (Apalategi, 1985, 279-282 or.).

Nazio askapenaren arloan, naziotasunaren oinarrian euskara eta euskal etnia jartzen segitzen du ETak (Txillardegik eta Krutwig-ek, Branka taldeak, teorizatutako bide berean): "Izkuntza degu gure ethniaren oiñarria eta aberri-konziñziarekin batean bereizkizun goienekoa aberri gaietan" (*Ideoloji baldintzak*, Nuñez eta al., 1993, 249 or.). Baita biltzarraren bigarren zatiko aktetan ere: "Basamento de este sistema cultural [euskal etniaz ari da] es la lengua vasca: el euskera" (*V. Asamblea Nacional de ETA 2. Sesión (Actas)*, Hordago, 1979, 7, 91 or.).

Baina ETak nazio borroka eta klase borroka lotu zituen V. Biltzarrean eta, ondorioz, ñabartu egin zuen etniarekiko eta hizkuntzarekiko ikuspegia (Jauregi, 1981, 439-440 or.). V. Biltzarrean *Euskal Langile Herria*³⁸⁷ definitu zuen nazioaren subjektu gisa; euskararen alboan euskal langileak jarri zituen, beraz, nazioaren oinarrian: "¿Quiénes forman parte del Pueblo Vasco? El proletariado vasco y diversos elementos oprimidos de otras clases sociales" (Hordago, 1979, 7, 91 or.). Euskal Herriak pairatzen duen zapalketa bikoitza aldatu dezakeen subjektu iraultzaile bakarra kulturalki eta ekonomikoki esplotatutako klasea da, ETaren ustez³⁸⁸ (*V. Asamblea Nacional de ETA 2. Sesión (Actas)*, Hordago, 1979, 7, 90 or.).

³⁸⁶ Lenin-en oinarri teorikoekin batera, Mao Zedong-en Txinako eredu iraultzailea aukeratu zuen V. Biltzarrak Europako marxisten eskema klasikoa hartu beharrean. Izan ere, Europako marxisten doktrina klasikoari nazio afera estatu estrategiatatik soilik tratatu izana kritikatzeko dio ETak; horixe leporatzen die Euskal Herriko mugimendu komunista, sozialista eta sindikalistari ere, nazio helburuak iraultzarekin ez lotzea. Ikuspegi horren aurrean, gogo berok hartu zituen ETak tesi maoistak; Mao Zedong-en teoria iraultzailean euskal iraultza ikuspegi teoriko egokitik interpretatzeko aukera ikusi zuelako. Mao Zedong-ek nazio borroka eta borroka soziala zuzenki lotu zituelako eta iraultza-estrategian garrantzi handia eman ziolako gerra iraultzailea erabiltzeari. Horregatik aukeratu zuen ETak Txinako eredia eta Mao Zedong-en estrategia iraultzailea eta praxi aktiboa Euskal Herrian aplikatzen ahalegindu zen (Jauregi, 1981, 437-447 or.).

³⁸⁷ Apalategik dio ikuspegi horren baitan egin zuela ETak bere proiektu politikoaren sintesia, Euskal Herrian beren lan-indarra saltzen duten guztientzako proiektua prestatu zuenean (1985, 282-283 or.).

³⁸⁸ Krutwig-entzat bezala ETarentzat ere kontraesan bikoitza gaingitu behar du euskal iraultzak. Eskema honekin azaltzen du Krutwig-ek euskal iraultzaren kontraesana: euskalduntasun aurrerakoia versus espainolismo atzerakoia. Espainiako Estatuko kontraesana berriz, espainiar aurrerakoia versus espainiar atzerakoia kontrakotasuna da. Euskal Herrian indar iraultzaileak bi osagaiak bildu behar ditu ezinbestean: euskalduntasuna eta izaera aurrerakoia. Eskema horri jarraituz, euskal burgesia kontraesan handi batek bizi du Krutwig-en esanetan: osagai euskalduna izan baduelako baina ez

Hirugarren Mundua deiturikoan dauden herriek bezala Euskal Herriak ere Askapenerako Nazio Fronte bat osatu behar du ETAREN ustez³⁸⁹. Borrokaren osotasun horretan intelektualez³⁹⁰ eta emakumez ere hitz egiten du ETAK V. Biltzarreko idatzietan. Intelektualek herriaren zerbitzura jarri behar dute beren ezagutza, beraiek landu behar dute teoria iraultzailea. Iraultzan duten funtzioa herriari kontzientzia nazionala eta soziala ematea baita ETAREN ustez; kontzientzia iraultzailea piztea (*Ideoloji baldintzak*, Nuñez et al. 1993, 250 or.; *Asamblea Nacional de ETA 2. Sesión (Actas)*, Hordago, 1979, 7, 92 or.). Emakumeen jardunaz bi hitz besterik ez ditu esaten: iraultzak maila berean jartzen dituela emakumeak eta gizonak (*Ideoloji baldintzak*, Nuñez et al. 1993, 250 or.).

Jauregik dio ETAK nazionalismo iraultzailearen eredia bere egin izana aurrerapauso kualitatibo garrantzitsua izan zela euskal bloke abertzalea eta iraultzailea sendotzeko. Prozesu iraultzaile berberaren osagaitzat hartzen baititu nazio borroka eta klase borroka; eta, horrenbestez, elkarri lotutako bi osagai direla azpimarratzen du. Nazio borrokaren eta klase borrokaren sintesiak ordura arte ETAREN barruan zeuden kontraesanak gainditzen lagundu zuen nolabait (1981, 447 or.). Apalategik kontatzen du ETAREN barruko eztabaida hura (marxismoaren eta aldarrikapen nazionalen uztarketari buruzkoa) izan dela ETAK pentsamendu politikoari, oro har, eta euskal nazioari buruzko ikuspegi politikoei, bereziki, egin dien ekarpen teoriko

delako aurrerakoia. Abertzalea den neurrian, jakina, beraz, abertzaletasun iraultzailearekin (langileekin) elkarlanean arituko da baina, aldi berean, langileen zapaltzaileekin kolaboratzen du. Alderdi iraultzaile ez abertzaleen kontraesana alderantzizkoa da: espainolista oro, oso aurrerakoi agertuta ere, atzerakoia baita Euskal Herrian; zapaltzailearen eta inperialismoaren defendatzaile izanik, beren jarrera kontrairaultzailea da eta gobernu espainiarrarekin kolaboratzen dute Krutwig-en hitzetan (*Nacionalismo revolucionario*, Branka 1, Jauregik aipatua, 1981, 445 or.).

³⁸⁹ Krutwig-ek bezala ETAK ere fronte abertzalea antolatzearen alde egiten du. Krutwig-ek dio, kontraesanak kontraesan, nazio frontea osatu behar dutela burgesia nazionalak (burgesia txikiak eta ertainak) eta langile klaseak. Fronte horren funtsezko zeregina herri euskaldunaren eta zapaltzaile espainolaren/frantsesaren arteko kontraesan nazionala ahalik eta gehien garatzea da Krutwig-en esanetan. Kontraesan nazionala gainditu arte, burgesiaren eta langileen kontraesan ekonomikoa bigarren mailan geratzen da. Euskal nazio iraultza lortutakoan, orduan, euskal langile klaseak bigarren kontraesanaren garapenari ekin behar dio. Une horretan euskal komunitate nazionalaren barruko bi aldeak aurrez aurre jarriko dira eta, gerta liteke, euskal langile klasea bilduko duen klase fronte bat osatu behar izatea burgesia nazionalaren kontra borroka egiteko (*Nacionalismo revolucionario*, Branka 1, Jauregik aipatua, 1981, 446).

³⁹⁰ Krutwig-ek *Estrategia guerrillera* lanean (ikus Branka, 2) intelektualei buruz esaten duenaren bide berean hitz egiten du ETAK.

handienetako bat. Garaiko marxismoarentzat bateraezinak baitziren aldarrikapen sozialak eta nazionalak; marxismoarentzat atzerakoiak ziren Europa Mendebaldeko aldarrikapen nazionalak, iraultza burgesaren hondakinak ziren. ETAk, ordea, marxismora hurbiltzearekin batera, euskal nazio askapenaren aldarrikapenari eutsi zion tinko (1985, 282 or.).

Hirugarren mundua delakoan dauden herrien estrategia iraultzailea Euskal Herrian aplikatzea erabaki zuen ETAk V. Biltzarrean. Horrenbestez, lau frontetan egituratu zuen V. Biltzarrak erakundea: hurrenez hurren elkarri lotutako fronte kulturala, politikoa, sozioekonomikoa eta militarra (*Asamblea Nacional de ETA 2. Sesión (Actas)*, Hordago, 1979, 7, 94 or.). Krutwig-ek proposatu zuen gerrilla-gerra³⁹¹ bere egin, eta diskurtsoan aldeztu zuen borrokaren osotasuna praktikan jartzen hasi zen ETA. Krutwig-en teoriari segituz, fronte kulturala jo zuen ETAk fronte nagusia eta gainerakoak zuzendu behar zituen. Fronte kulturalaren lehentasuna euskararen berreskuratzea da ETAREN esanetan eta euskararen bidez nazio kontzientzia zabaltzea. Euskalduntze-prozesua bi mailatan bultzatu behar du fronte kulturalak: ETAREN barruan eta herri-mailan. Horretarako ikastolak kontrolatzea, euskara batzea, euskarazko itzulpenak prestatzea, kultura jarduerak antolatzea eta abar proposatzen du (*Asamblea Nacional de ETA 2. Sesión (Actas)*, Hordago, 1979, 7, 94 or.).

Fronte politikoaren zeregin nagusia iraultza gerraren gida-lerroa zehaztea da; hots, teoria iraultzaile egokia ontzea. Fronte politikoaren zeregina da, baita ere, Euskal Nazio Frontea bultzatzea; independentzia politikoarekin, Euskal Herriaren batasunarekin eta Euskal Herria euskalduntzearekin ados dauden alderdi abertzaleen elkarlana sustatzea du xede. Fronte militarrek, bere aldetik, estatu

³⁹¹ Bi gerrilla mota bereizi zituen Krutwig-ek: hiru fronteen gerrilla eta lau fronteena. Zapalketa bikoitza, soziala eta nazionala, jasaten duten herriek ezinbesteko baldintza dute lau frontetan egituratzea eta fronte kulturala ere antolatzea. Horixe da Euskal Herriaren askapen borrokak eskatzen duena (*Estrategia guerrillera*, Branka, 2, Jauregik aipatua, 1981, 452 or.).

administrazio kolonialaren kontrako eraso zuzenak antolatu eta burutu behar ditu³⁹² ETAREN arabera; betiere fronte politikoak zehaztutako ildo sozialista iraultzailearen funtzioan (Hordago, 1979, 7, 95-96 or.).

Fronte sozioekonomikoa langileen ekintzaz arduratzen da ETAREN antolaketan eta bi mailatan jardun behar du: maila teorikoan eta praktikoan. Batetik, eskema teorikoak eskaini behar dizkio langileen ekintzari; eta, bestetik, kontzientzia nazionala eta soziala langile klase osoan zabaltzen ahalegindu behar du jarduera praktikoaren bidez. Lantegietan zelulak sortzea, formazioa, propaganda, ekintzak (grebak eta sabotajea) eta abar egitea proposatzen du ETAK (Hordago, 1979, 7, 96-97 or.).

Akzio-errepresioaren printzipioa IV. Biltzarrean onartu zuen ETAK baina ez zuen praktikan jartzerik izan. Lau fronteen teoria bezala akzio-errepresioaren printzipioa ere Euskal Herrirako egokia zela berretsi zuen V. Biltzarrak eta, horrenbestez, praktikan jartzen ahalegindu zen: "El método de lucha será un proceso en espiral ascendente de acción-represión en los cuatro frentes que componen la lucha revolucionaria de un país oprimido (...) para la toma del poder vasco por la clase trabajadora vasca" (*Asamblea Nacional de ETA 2. Sesión (Actas)*, Hordago, 1979, 7, 93 or.).

Honenbestez, ondoriozta dezakegu V. Biltzarrarekin eskuratu zuela ETAK heldutasun politikoa. Nazio arazoa sozialismoarekin eta marxismoarekin uztartu nahi zuen joera nagusitu zitzaizen gainerakoei, Hirugarren Munduko herrien borroka hobesten zuena³⁹³. ETAK onartu zituen oinarri ideologikoak sendotu egin ziren hurrengo urteetan eta herrian sustraitzen joan ziren (Casanova, 2007). Eta estrategiak arrakasta izan zuen berehala. Masen sostengua lortzeko ekintza-plan bat prestatu zuen ETAK; lau fronteen artikulazioaren bidez populuan eragiteko

³⁹² Ezinbesteko baldintza da horretarako militanteak ideologikoki eta teknikoki formatzea, ekintzak aurrez xehetasunez aukeratzea, atal militarrek bere autonomia izatea (Hordago, 1979, 7, 95-96 or.).

³⁹³ Joera huraxe bihurtu zen ETAREN oinordeko legitimoa. Bide hori izango da aurrerantzean ETAREN barruan gertatuko diren krisi guztietan aurrera egingo duena (Jauregi, 1981, 309-310 or.).

jarduera-sare bat dinamizatzen ahalegindu zen eta emaitza onak lortu zituen (Letamendia, 1975, 336 or.; Jauregi, 1981, 456 or.). Horrekin batera, akzio-errepresioaren espiralaren printzipioa praktikan esperimentatu zuen ETAk: ETAREN ekintza-kanpainaren aurrean poliziak nabarmen gogortu zituen neurriak eta giro hartan hil zuen Txabik Jose Pardines guardia zibila Tolosako kontrol batean eta, luze gabe, guardia zibilak Txabi hil zuen. Herri-mobilizazio handiak eragin zituen gertaera horrek. Jauregik dio ETAREN akzio-errepresioaren printzipioaren arrakastan funtsezkoa izan zela erregimen frankistaren papera: izan ere, bere jarrera errepresiboarekin akzio-errepresioaren espiralaren ziklo osoa betetzen baitzuen (1981, 155, 456-457 or.).

ETAREN lehen hamar urteen bilakaerak V. Biltzarrean jo zuen goia. Bere barruko joeren arteko indar harremanen emaitza irudikatzen du nolabait, eta, halaber, aurretik egindako hausnarketa eta ikerketa lan handiaren sintesia da.

IV. ETA mugimendua:

euskal nazioaren berpizkundetik euskal nazio iraultzailera

Lan honen sarreran adierazi dugun bezala, ETAr buruzko ikerketetan ideologiari eta estrategiari buruzko historia politikoa gailendu zaio ETAREN historia sozial eta kulturalari. Gure ustez, ordea, ETA zergatik sortu zen eta nolako bilakaera izan zuen ulertzeko ezinbesteko baldintza da bere esparru politikoa eta ideologikoa bezala, soziala eta kulturala ere aintzat hartzea. Hori egiten saiatuko gara orain.

Ikerketa honetarako propio egin ditugun elkarriketen emaitza aurkeztuko dugu kapitulu honetan. ETA mugimenduaren barne logika ulertu ahal izateko, ikergai-kategoria batzuk zehaztu genituen ([ikus 3. eranskina](#)) eta kategoria horien arabera analizatuko dugu bildutako informazioa. ETA mugimenduaren praxian eta barne eta kanpo harremanetan jarriko dugu arreta: *mikrokosmos* bat bihurturik, erreferentzia-marko sozial gisa, ETA mugimenduak pentsamendu eta ekintza forma jakin bat ordezkatzeko zuela ikusiko dugu (Del Valle, 1985, 227 or.). Horrez gain, ETAREN diskurtsoak mugimenduko kideengan izan zuen eragina analizatzen saiatuko gara. Izan ere, aurretik esan dugun bezala, mugimendu nazionalista osatzen duten sektore eta erakunde multzoaren oinarria osatu ohi du ideologia nazionalistak (Elorza, 1978, 6 or.). Ikerketaren helburuak biribiltze aldera, eta ETA mugimenduaren ekarpenaren ikuspegi hobea izateko, bere aurreko mugimendu abertzalearekin konparatuko dugu, halaber.

Kontuan izan behar dugu, nolana ere, ETA mugimenduaren lehendabiziko hamar urteak besterik ez ditugula ikertu eta, beraz, gure ikerketatik kanpo utzi dugula 70eko hamarkadan ETA mugimenduak izan zuen bilakaera. Apalategik dio etengabe aldatuz joango den mugimendu baten hasiera besterik ez zela izan ETAREN lehen urteetako ideologia eta antolaketa-era. Gero 70 eta 80ko hamarkadetan ENAMek etengabeko bilakaera izan bazuen ere, eta etengabe unean uneko testuingurura

egokitu behar izan bazuen ere, (Ekin-)ETAk 50eko eta 60ko hamarkadetan ezarri zituen oinarrietan ikus ditzakegu geroko ENAMen ardatz nagusiak (1985, 242 or.).

1. ETA mugimenduko kideen jatorri soziala eta kontzientzia politikoa

ETA mugimenduaren izaera ulertzeko mugimendua bera osatu zuten kideen jatorri soziala ezagutzea komeni da. Jatorri sozialak eta jasotako herentziak zeresan handia izan baitezakete norbanako bakoitzaren ibilbidean. Familia, eskola, lagunartea eta lana izan dira elkarriketatuei kontzientzia nazionala eta soziala bereganatzen lagundu dieten erakunde sozialak. ETA mugimendua aztertzeko giltzarrietako bat horixe izan daiteke, elkarriketatuek gaztaroan sentitu zuten motibazio politikoa eta soziokulturala ezagutzea: zerk bultzatu zituen ETA erakundearen edo mugimenduan sartzea?

1.1. ETA mugimenduko kideen jatorri soziala

Elkarriketatu ia guztien familia tradizio abertzalekoa da, eta elkarriketatu batzuen senideek arduraren bat izan zuten EAJn, beraiek adierazi digutenaren arabera. Horren erakusgarri dira hurrengo aipuak.

Gurasoak abertzaleak ziren. Aitak eta amak egin zuten bide bat guk jarraitzeko. (...) Kutsu euskalduna biek bai, (...) nahi dut esan, kutsu hori txikitatik [jaso genuela] (2. elkarriketatu³⁹⁴).

Amaren eta aitaren familia denak nazionalistak, denak abertzaleak. [EAJkoak] ez zegoen besterik (9. ELK.).

Ama familixa abertzalekoa, oso abertzalea. (...) Amaren aldeko aitatxi, aitona, sortze sortzetik PNVkoa zen (11. ELK.).

³⁹⁴ Hemendik aurrera ELK. erabiliko dugu aipu bakoitzaren amaieran elkarriketatuaren zenbakia zehazterakoan. Bestalde, elkarriketatu ditugun pertsonen profilar buruzko oinarri-oinarriko informazioa laburbildu dugu zenbait taulatan: ikus 4. eranskina.

Nire amama zen PNVn andreen presidentea. Etxean denok ginen PNVkoak (5. ELK.).

[Aita] izan zen hemengo zinegotzia, [herri jakin bateko] zinegotzia PNVren aldetik sasoi hartan (1. ELK.).

Nabarmentzeko modukoa da elkarrizketatu gehienek etxean bereganatu zutela sentimendu abertzalea. Garaiko abertzaletasun hegemonikoa EAJrena izan arren, elkarrizketatu guztien senideak ez ziren EAJren joera ofizialekoak izan. Segidan aurkezten ditugun bi elkarrizketaturen aipu banatan islatzen da hori:

1930-32 urte horiek arte Euskal Herrian zegoen (...) erakunde abertzale bakarra PNV zen, EAJ. Eta orduan hori bakarra izanik gure aita ere hor zegoen. Baina 31a edo 32an Eusko Ekintza [EAE-ANV] sortu eta berehalaxe gure aitak PNV utzi zuen eta alderdi berrian sartu zen Ortuetaekin eta. Oroitzen naiz ttipitatik, behin baino gehiagotan, gure aitak kontatu zigun zergatik utzi zuen PNV eta zergatik bestean sartu. Erran zigun PNVn nahita nahiez euskaldun fededun izan behar zela eta aitak ez zuen hori nahi, ez zuen maite. Nahiz eta bera pertsonalki kristaua izan, bazen kristaua baina biziki zabaldua (3. ELK.).

Gure aita ez zen PNVkoa, gure aita zen, lehen ere izana zen Luis Arana Goiriren eta... pixka bat ezkerrago. Gure aita PNVkoekin ez zan ibiltzen (9. ELK.).

Elkarrizketatu gutxi batzuek adierazi dute tradizio errepublikazalekoa zutela aita edo kontzientzia sozialarekiko atxikimendua handiagoa zela etxean abertzaletasunarekiko baino:

Aita republikanoa zen baino orduan ez zen abertzalea desde luego! (13. ELK.).

Osaba bat neukan Frente Popularreko [herri jakin bateko] alkate izana eta kartzelan eduki zutena. (...) Aita hil zenean hasi zen familian kontatzen aitaren historia eta orduan hasten zara ezagutzen aita mineroa izan zela Asturiasen. Horregatik erdaraz oso ondo egiten zuen. Eta bazeukan gainera aitak kontzientzia sozial bat. (...) Osaba bat fusilatu zuten (...) UGTkoa zelako beste arrazoirik gabe. (...) Ni ez nator tradizio abertzaleetik (10. ELK.).

Zenbait elkarrizketatuk adierazi dutenaren arabera, gaztaroan ez zuten gurasoen ideologiarekin gatazkarik izan; ez zuten belaunaldien arteko hausturarik sentitu. Nolanahi ere, elkarrizketatu gehienek ñabartu egin dute erantzuna. Ez zuten gurasoekin haustura handirik izan baina elkarrizketatuak ekimen politikoan hasteak tentsio uneak sortu zituen etxean:

Diferentzia handia dago amona eta gurasoetara. (...) Adibidez, amari gordetzerik ez dago ezta, ezta ezer! Eta ama berehala konturatu zen. Eta beti gauza bera esaten zidan: "kontuz ibili hadi ze hortik sekula ez diagu izan gauza onik. Baina norbaitek egin behar dik". Ama abertzalea zen, hori garbi dago (11. ELK.).

Aitak erraiten zidan (...) beti: "hik egin zan nahi dunana! Neri huntsa iruditzen zait zeren eta hitan badut konfiantza. Bainan que no te pillen! Ez tontoa izan!" [barre egiten du] (14. ELK.).

Pentsaera politikoaren aldetik ez. Kontua zen sartzea edo ez sartzea aferetan, eta asuntoetan sartzearen galbide edo peligroa, hori bai! Hor talka bat bai: "zer ari haiz?" hori behin baino gehiagotan eta "kontuz ibili horrelako gauzetan!" (6. ELK.).

Elkarrizketatu batzuen arabera belaunaldi batetik besterako aldaketari berez dagokion zerbait da gatazka. Mentalitatean edo izaeran aldea dagoelako gurasoen eta seme-alaben artean:

Lehenengo txokea dago gurasoak ausartzen ez ziren, ez aita eta ez ama ausartzen ez ziren mundu bati aurre egiteko edo, eta gainera orain agresibitate batekin. (...) Erreibindikatu gure euskalduntasuna, eta hori gaur imajinatu ezin litekeen ausardia eta lotsagabekeria zen (10. ELK.).

Herentzia erlijiosoarekiko haustura nabarmendu du elkarrizketatu batek. Konfrontazio gogorra izan zuen gurasoekin. Hori eta elkarrizketatuak emantzipazioari ematen dion garrantzia islatzen dira ondorengo aipuan.

Cuando dejo la religión, que la dejé en unos ejercicios espirituales (...), luego fui a casa y en casa dije "yo ya no voy a misa". Hombre, ¡por supuesto que hubo confrontación! (...) Sí, sí y a partir de ahí, yo me acuerdo que en un momento ya, no sólo por cuestión de esto, sino por una cuestión biológica de emancipación particular personal, (...) me acuerdo que estuve un año sin hablar en casa (16. ELK.).

Ama-hizkuntza frantsesa edo espainola izan zuten elkarrizketatu gehienek. Aitona-amonen belaunaldiak, edo berdin gurasoenak edo beraienak euskara galdu zuelako. Nabarmentzeko modukoa da aitona-amonen edo gurasoen euskara berreskuratzeko egin zuten ahalegina aipatzen duela elkarrizketatu askok. Joera hori erakustearren, zenbait aipu aukeratu ditugu.

Gure aitaren aldetik bazen laugarren edo bosgarren gizaldia erdalduna zena. (...) Ez zekiten baina ahalegin guztiak egiten zituzten gurasoek. Familia burgesa zen eta alde horretatik bagenuen etxean zerbitzua, bi neskame. (...) Eta neska horiek beti euskaldunak ziren, batez ere, gugatik. Eta neska horiei esker, badirudi, nahiko euskara bagenekielan. (...) Bai aita eta bai ama euskara ikasten joaten ziren arratsero, militante gisa. Ahal zuten gehiena bai amak, bai aitak egiten zuten gurekin (3. ELK.).

[Birraitonaz ari da] emigra del campo a la ciudad. (...) Entonces mi abuelo pierde el euskara pero curiosamente lo recupera él personalmente en el exilio pero sus hijos son erdaldunes. (...) Y la familia de mi madre (...) con el euskara nada que ver. (...) Iban a clases de euskara pero, ¿te imaginas en los años 30 qué clases de euskara recibirían! (4. ELK.).

Gure etxean aita euskalduna zen; ama ez. Euskara ez zitzaigun arrotz baina familiako hizkuntza erdara zen. (...) Gure aitak hartu zuen Gasteizen euskara irakasteko (...) erantzukizuna. (...) Eta, hain zuzen, gogoratzen naiz 13-14 urterekin aitaren klaseetara joan izana. [Euskararekin harreman] handia. Baina, egia esan, gazte nintzenean hizkuntza nagusia, inongo dudarik gabe, erdara zen (6. ELK.).

Nire aita guztiz erdalduna zen. (...) Joan zan Toribio Alzagaren euskarazko klaseetara, beste bospaseirekin; orduan, euskaraz ikasi zun. (...) Aitak nahi zuen euskaraz guk jakitea baino gerra etorri zen (...) eta aitak alde egin zuen. (...) Bitarte hortan nire amaren zera guztia zen euskaraz ikasi behar genula, eta berak bere euskara txar hortan ba euskaraz egiten zun. (...) Ni oroitzen naiz, nire amarekin beti ari ginela erderaz (13. ELK.).

Elkarrizketatuen artean gutxi izan zuen euskara ama-hizkuntza bakar eta nagusi. Hiru elkarrizketaturen aipuek iradokitzen dute, euskara ez ezik, euskararekiko kontzientzia edo sentimendua jaso zutela etxean.

Gurasoen fedeari dagokionez, elkarrizketatu guztiek adierazi dute kristauak zirela. Baina nabarmentzeko modukoa da gehien-gehienek ñabartu egin dutela erantzuna. Gurasoek, edo aitona-amonek, kristautasuna *beren erara* bizi zutela edo ez zutela modu zorrotzean bizi esan dute gehienek. Eliza-hierarkiaren kontrako jarrera ere batek baino gehiagok azpimarratu du:

Etxeko amona sinkretismoan bizi zen. Itxuran oso erlijiosoa baina gero bere praktikan... Praktika batzuk harrigarriak aurkitu ditut berandu (11. ELK.).

Ama oso elizkoia zen. Baina, alde horretatik, gero ikusi nuen bere eliza hori berak antolatutako modukoa zela, ez zela eliza hierarkikoa. Bere modukoa. Maila horretan hezituak izan gara etxean; (...) alde batetik, eliza katolikoan, garai hartan gainera ez zegoen beste irtenbiderik (2. ELK.).

Katolikoak ziren. (...) Nahiz eta bera [aita], pertsonalki, (...) kristaua izan, bazen kristau baina biziki zabaldua. (...) Esaten zuen "cristiano ya creo que soy pero católico no creo". Eta Vatikanoa ez zuen soportatzen ahal! (3. ELK.).

Católicos, apostólicos y romanos pero no muy integristas hay que decirlo. Mi padre anticlerical total, anti jerarquía eso absolutamente. Mi madre no, mi madre como las mujeres en general, más sumisa (4. ELK.).

Mezatarra joatea jarrera sozial bat zela ere nabarmendu dute elkarrizketatu batzuek. Fenomeno hori oso argi ikus daiteke honako aipuan:

Igandetan elizara joatea ezinbestekoa zen baina betekizun sozial bat bezela nik uste. Gurasoak nahiko hotzak. (...) Sinisten zuten hori bai, ez ziren inondikan ere ateo, ateo hitza gero azaltzen den zerbait da. Orduen sinistunak baziren baina ez beroki (11. ELK.).

Garai hartako betekizun sozial hori ulertzeko gakoetako batzuk modu nabarmenean formulatzen dituzte bi elkarrizketatuk:

Elizak indar absolutua zeukan eta funtzionatzen zuen, baita ere, modu horretara: alde batetik, kontrola, eta gogorra, eta beldurraren predikazioa; eta, bestetik, ongilearen eta errukitsuaren eta, beraz, apaizari lana eskatzen zitzaion, apaizak jauntxoari eskatzen zion... Funtzionatzen zuen elizak eta

jauntxoeriak nahiko batuta. (...) Ez da ahaztu behar eliza ere erabat Francoren sistemarekin zegoela eta, hain zuzen, mentalitatearen produkzioan eliza faktore inportante bat zela (10. ELK.).

Eta gero zegon eliza. Eliza oso inportantea zen, oso. (...) Elizak manejatzen zuten dana, (...) sekulako sermoiak, ;moral y moral! Neskentzako izugarria. Bekatua gora eta behera eta ez dakit zer. Hamalau urtekin hain giro erlijiosoa eta opresantea zegon, opresantea benetan! (9. ELK.).

Familiaren maila ekonomikoari dagokionez, elkarrizketatuen heterogenotasuna nabarmendu nahi genuke. Baserritarrak izan ziren elkarrizketatu batzuen gurasoak, edo gurasoetako bat. Ama etxeakoandrea eta aita enpresa txiki edo fabrikaren bateko langilea izan zuten beste elkarrizketatu batzuek. Elkarrizketatu bakar batek esan du familia burgesekoa zela eta beste bik, gurasoen lanbidea zehaztu gabe, klase ertainean kokatu dute familia.

1936ko gerrak eragin handia izan zuen Hego Euskal Herriko elkarrizketatuen haurtzaroan. Erraz antzeman daiteke hori elkarrizketa guztietan. Beraien haragitan ezagutu zuten gerra Ekinen eta ETAREN sortzaileek, haurtzaroan familiarekin edo senideren batekin erbestean babestu behar izan baitzuten. Heriotza hurbil izan zuten elkarrizketatu askok: senideren baten heriotzak betiko markatu zuen elkarrizketatu batzuen familia, segidan aurkezten ditugun aipuetan antzeman daitekeen bezala.

Nik ez nuen ezagutu aita. Bi urte egin gabe eraman zuten kartzelara (...) eta nik uztailean bi egin eta abuztuaren bostean hil zuten. Bera izan zen hemengo zinegotzia (...) PNVren aldetik sasoi hartan. Hori atxakia izan zela nik uste dut baina bai hemendik eraman zituzten hainbat lagun, hamar edo, eta garbitu zituzten sei (1. ELK.).

En la familia de mi padre sucede un hecho dramático que un hermano de mi padre muere en el Puerto Santa María. Entonces eso marca. Y luego que toda la familia participaba (...) en el lado republicano. (...) La guerra yo creo que les marca, me imagino que ;como a todo el mundo! (4. ELK.).

Abertzaleen edo errepublikazaleen bandoan parte hartu zuen elkarrizketatu askoren aitak, besteak beste, Eusko Indarra, Saseta edo Padura batailoietan. Beste elkarrizketatu batzuen senideek erbestera ihes egin behar izan zuten. Francoren bandoan gerra egin zuenik ere bada. Elkarrizketatuen artean askok adierazi dute gerra-gaiak tabu zirela haurtzaroan. Horietako batzuek esan dutenaren arabera, gerra bukatu ondoren ezagutu zituzten gerra garaiko gertaerak:

Etxean politikaz ia sekula ez zen hitz egiten, ia ez, sekula! Salbu norbait etortzen zanean familiakoa orduan hasten ziren gerra garaiko kontuez hitz egiten eta ordun gu bialtzen gintuzten kanpora. Hori ez zen entzun behar baina ateari holaxe egoten ginen jarrita [keinua egiten du]. (...) Klaro, entzuten genituen reketeak, falangistak, nazionalak, nazionalistak, jagi-jagikoak, milizianoak, karlistak eta gehiago. "Ze kristo dek hori?" (...) Eta amari esaten nion "baina hori zer da?, nor noren kontra dabil ama?". "Zertako egote zea ate atzien?", "jakin nahi dudalako!". Baina amak esplikatzen zidan beti (...) mutiko bateri gauzak ahal bezain sinpleki, (...) baina ulertzeko moduan. Beno, beraz, politikaz sekua bez ez zen hitz egiten. Hori zen tabu bat bezela (11. ELK.).

[Amak umetan] ez du inoiz aipatu. (...) Geroago kontatu izan ditu nola sartu ziren tropa nafarrak eta erreketek han garrasika, eta nola jarri izan zituzten. Gure aita paredoian eduki zuten fusilatze baina nik hori geroago jakin dut. [Umetan] (...) ez ziguten sekula aipatu hori. (...) Sekula, ez, ez, alderantziz! (10. ELK.).

Gerra umetatik [aipatu] ez, baina gero gaztea nintzela, esate baterako, 16-17 urterekin, bai, hor bai. Aitak kontatzen zuen nola Gasteizen kartzelan egon zen, Santoñan... (...) Nola eraman zituzten asturianoak eta denak bilduta, Zaragozan bukatu zuten (2. ELK.).

Ahora se empieza a verbalizar [gerrako gertaerak], porque ni se ha podido. Pero aparte mi abuela se propuso cuando murió su hijo que a sus nietos les iba a contar desde el minuto cero lo que había sucedido. Entonces, ¿te metía un rollo! (4. ELK.).

Elkarrizketatuen solasaldietatik hartutako aipu hauetan aise soma genezake joera orokortua izan zela gerraz umeen aurrean ez hitz egitea. Elkarrizketatu bakan batzuek soilik aipatu dute gurasoek edo gurasoetako batek gerraz hitz egiten zietela etxean. Horrez gain, gerra galduaren oihartzuna nabarmentzen duen diskurtso bat aurkitu dugu elkarrizketa askotan:

Perdedores de la guerra civil. (...) Yo creo que era una gente muy honesta en el sentido que se creían lo que hacían. (...) Mi padre siempre ha tenido la conciencia del perdedor pero con esa cultura de que hemos perdido la batalla pero la guerra no la hemos perdido (4. ELK.).

Gurean nabari zen gerra galdu izana abertzale gisa, euskaldun gisa, eta gero errepublikano gisa. (...) Gure etxean exiliora edo atxilotuak eta jipoituak izanaren presentzia hori frankismo garaian gauza ezaguna izan da. Horrelako komentarioak, honi edo hari gertatu zaio... (...) nahiko orokorra izan da (6. ELK.).

Gerra galduaren presentzia bazegoen, baina helduak isildu egiten ziren eta beste aldera begiratzen zuten. (...) Orduan gerra isildu egiten zen, gerra oso presente zegoena geroago konturatzen zara. Presentzia handia daukala (10. ELK.).

Gurasoek gerra galdu izanaren frustrazioa edo sentimendua eurek ere bereganatu zutela nabarmendu du elkarrizketatu batek:

Sí nos inculcan, (...)se siente mucho, sí claro. Somos una familia de vencidos (4. ELK.).

Edonola ere, gerraren kontzientzia beranduago eskuratu dute elkarrizketatu gehienek. Gerra beren haragitan edo gurasoen kontakizunen edo ahopeko kontuen bidez bizi izan zuten umetan, baina bizipen haien gaineko irakurketa politikoa gaztaroan egin zuten. Honako aipuak prozesu horren berri ematen digu:

Gerra ondoaren presentzia, geroago zuk gerraren presentzia bezala interpretatuko duzuna handia zen. (...) Badakizu gerra galdu duzula... Edo ez dakizu gerra galdu duzula, batzuek gerra galdu dutela eta gerran biktimetako batzuk izan ginela eta holako gauzak. (...) Gerraren presentzia ebidentezen baina ez zen ikusten gerraren presentzia bat bezala. (...) Baina zuk ez duzu hori asoziatzen, alegia. bi fronte zegoen eta zu bien artean harrapatuta zeunden. Gogoeta hori askoz geroago egiten da: (...) "hi heu haiz galtzaileetako bat" kontzientziara etortzeko oraindik igual beste hiru, lau urte gutxienez pasatzen da, nire kasuan ari naiz (10. ELK.).

Ipar Euskal Herriko elkarrizketatuen ekarpenak aztertzen baditugu, ikus dezakegu zenbait kasutan Bigarren Mundu Gerrak asko markatu zuela beren haurtzaroa eta gaztaroa. Hego Euskal Herriko etxeetan ohikoa izan zen dinamika bera nabarmentzen dute gainera, gerraz hitz egitea gai tabua zela. Horren adibide da honako aipua.

Jakin ez dutana da aitak [Bigarren Gerra Handian] erresistentzia egin zuenez edo ez. Hortaz ez zuen hitzik ere erraiten! Badakit ukan dituela problemak leku batean utzi zuelakotz etxe bat, delako ingles jende hoieri ere. Baina ez zen aipatzen! Amarekin ere ez zuen aipatzen! Inorrekin! (14. ELK.).

Elkarrizketatuen hitzak baliatuz esan genezake 30eko eta 40ko hamarkadetako gerrek (1936koak eta Bigarren Mundu Gerrak) eragin handia izan dutela Euskal Herriko memoria kolektiboan. Eta Ekin eta ETA sortu zuten kideengan bezala ETA mugimenduan parte hartu zuten kideengan ere, salbuespenak salbuespen, kontzientzia politikoa eta soziokulturala hartzeko faktoreetako bat izan zela. 1936ko gerrak gainera gerra aurreko mugimendu abertzalearen ekimena eten zuen eta, beraz, hautsita geratu ziren belaunaldi arteko transferentziak.

Guretzako mozketak oso handia zen. (...) Gerrak estrategikoki eman zuen eman zuena eta, gero, Franco Estatu Batuekin joan zenean... Gerraren inguruko estrategiak ez zeukan jarraipenik. Gauden egoeran zerbaitek berri egin behar da! (6. ELK.).

Idea bat edo hazi bat beti egon da. (...) Baina apurketa ikaragarria da eta alde askotatik da apurketa. Eta apurketaren lehengo datua da ez genekiela ezer gerra aurreari buruz. Ez genekien! (10. ELK.).

1.2. ETA sortzeko eta ETA mugimenduan sartzeko motibazioa

1.2.1. EAJren abertzaletasunarekiko ikuspegi ezkorra

Ekin eta ETAREN sortzaileek EAJrekin izan zituzten gatazkek eta EAJri leporatzen zioten immobilismoak eragin handia izan zuen bi erakunde haien sorreran. Sortzaileetako biren aipu banatan iradokitzen da hori:

Badakigu noiz hasi ginen PNVrekin gure istiluekin. Oso gogorra izan zen! (...) Nik batzuetan hortaz pentsatzen dudalarik, gorritzen naiz lotsaz, noraino joan ginen gu delako euskal batasun hori ez galtzeagatik! Nire ustez momentu batean ezin da gehiago! (...) Haustura izan zen momentu batean EAJ eta gure [Ekinekoen] artean. Eta orduan hor bildu gure artean eta kito, aski denbora galdu dugu alferrik! (3. ELK.).

Aktibista edo ekintzaile aldetik hori zen guretzat bultzada: ikustea hemen (...) ez zegoela ezer eta PNV beti zebilela gezurrekin! (...) Ez zuten egiten ezer bez, baina gu [ekinekoak] atera ginen eta gure aurka etorri. (...) Gerra batean bezala ibili ginen, (...) istiluak eduki genituen. (...) PNVk zeukan gorrotoa itzela zen, zeren eurak ikusten zuten geuk egiten genuela eurek inoiz egin ez zutena! (5. ELK.).

Elkarrizketatu batzuen hitzak baliatuz esan genezake ETAREN jarduteko eta ekiteko era ezberdina zela ordura arteko abertzaletasunarekin alderatuz gero. EAJtik ETARA hurbildu zen elkarrizketatu batek bi erakundeen *estiloaz* hitz egin du, segidan aurkezten dugun aipuan ikus dezakegunez.

Es que tú ibas con los del PNV al monte y los jefes iban en coche y tú ibas andando. Son unos estilos que lo de ETA era distinto; lo de ETA era "yo doy todo a cambio de nada". No sé quién escribió hace poco que leí que decía "nosotros luchamos por amor y ellos por dinero". Es un poco eso. Y que es verdad, que eso tiene sentido (4. ELK.).

6oko hamarkadako militanteek ere EAJren jarduera eza edo immobilismoa kritikatzeko jarraitzen zuten. Hala islatzen da hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan, segidan aurkezten ditugun hauetan adibidez:

Guk *partido nacionalistari* leporatzen genion akats nagusia zen immobilismoa. (...) Dударik gabe guk leporatu genion hori, geldiak zirela. Gu ibiltzen ginen gudari zaharrek mendian (...) eta beti eskandalizatuak ginen ikusirik zer herabe ziren. (...) Gerra garaian, ezkutu denboran, jende ausarta fisikoki! Eta hala eta guztiz ere zein kikilduak ziren, nonbait, gauzak hedatzeko. (...) Guretzako atera behar zen, atera behar zen! Hori zen printzipalena. Ez egon zain (6. ELK.).

Yo había tenido relación con parte de un sector del PNV y lo habías vivido; es decir, el PNV en aquel momento no hacía absolutamente nada, (...) la lucha en clandestinidad no participa en ella. Lo único que estaba era esperando la muerte de Franco, bueno, como el Partido Comunista (...). Ver pasar el cadáver del enemigo y tú esperar tranquilamente a que pasase el tiempo. Entonces yo creo que el trauma que habían sufrido, no ya los del PNV de aquel momento sino los padres de los de aquel momento, les había hecho encajonarse y era una pasividad ;total y absoluta! (16. ELK.).

Azken elkarrizketatu honek ñabartu egin du gero erantzuna. EAJren buruzagitza eta EAJren oinarriko militanteak bereizi egin ditu EAJren pasibotasuna azaltzerakoan.

No digo que no hicieran cosas; está el surgimiento de las ikastolas, por ejemplo. Yo participé como alumno y gente que me daba clases en casas particulares era gente del PNV, pero no el PNV dirección, organización jerárquica, sino la gente con pensamiento tradicional del PNV. Sí que estaban ahí y, a veces, a nosotros nos han echado alguna mano ayudando y tal. Y ese aspecto lo he vivido también. (...) Entonces el PNV como dirección, el PNV de la oficialidad, ha vendido toda una época de nuestra historia, la ha dejado pasar (16. ELK.).

Hortaz, ondoriozta genezake EAJren abertzaletasunarekiko, hots, ordura arteko ereduarekiko, ikuspegi ezkorrak motibatu zuela zenbait elkarrizketatu ETA mugimendura hurbiltzera. Ondoren aurkezten dugun aipuan irakur dezakeguna izan daiteke horren adibide:

Niretzako asunto inportanteena izan zen zerbait egin behar zela. (...) Ni ez nintzen ETAn sartu nazionalismoan marxismoa sartzeko! (...) Zerbait egin behar genuen oro har. Guk partido nacionalistari leporatzen genion akats nagusia zen immobilismoa (6. ELK.).

1.2.2. Euskararen eta euskal nazioaren galeraren kontzientzia

EAJren jarreratik haratago, euskararen eta euskal kulturaren galeraren kontzientziak berebiziko garrantzia izan zuen Ekinen eta ETAREN sorreran. Perez-Agoteren hitzak ederki datozkigu hemen: "No es posible entender el nacimiento de ETA (...) sin referirse a la valoración de la lengua hecha por sus fundadores" (1986, 91. or.). Hala islatzen da Ekin eta ETAREN bi sortzailearen diskurtsoetan. Ekinkideei laguntzen aritu eta gero ETA mugimenduko kide izan zen elkarrizketatu batek ere ETAREN sortzaileek euskarari eman zioten lehentasunezko lekua nabarmendu du bere diskurtsoan:

Dударик gabe (...) prioridadea eman zioten euskerari [Ekin-ETAREN sortzaileek]. (...) Joan ziren batzuk baserri batera beste batzuk ez dakit nora... Euskerarena ez zan baztertzen inoiz, baino inoiz! (...) Beharrezkotzat jarri zuten euskeraz jakitea (13. ELK.).

Zenbait elkarrizketaturen diskurtsoetan agerikoa da ekintza politikoan hasteko motibazioa euskalduntasunetik sortu zitzaiela. Ekin-ETAREN sortzaileetako batena da lehendabiziko aipua eta Ekinen laguntzaile izan zen batena bigarrena.

Ez da erraza esaten [motibazioa] baina ni pertsonalki zer edo zer banintzen euskalduna nintzen. Eta batentzat izango da dirua, beste batentzat jakintza, beste batentzat erlijioa. Baina ni neu neure pertsonalitatea betetzeko euskalduna eta independentea, ostantzean, ez dago zer eginik! (5. ELK.).

Bueno, nik uste det euskeraren bidez etorri zitzaidala, pertsonalki motibazioa. (...) Ekinekoen eragina... (...) dударик gabe, sartzen hasteko bai behintzat (13. ELK.).

Ekinen eta ETAREN sortzaileen profila da ETA mugimendua aztertzeko giltzarrietako bat eta adierazle horrek agerian uzten du hasiera-hasieratik izan zutela

abertzaletasunaren eta euskararen kontzientzia handia. Honako aipuak Deustoko Unibertsitateko lehen elkartze-urratsen berri ematen digu:

Hastapenean, bazen talde askoz handiagoa, askoz kosmopolitagoa, zeren (...) Bilbon momentu horretan kontestataria zen guztia hor ginen: (...) antifrankistak. Oso orokorra zen. Baina, noski, haien artean gu denok ginen ere bai. Eta gutika gutika hautaketa natural bat egin zen: (...) gutika gutika euskaltzale eta abertzaleak hasi ginen biltzen besterik gabe. (...) Abertzale eta euskaltzale ez ziren guztiak kendu eta kendu, (...) hola hasi ginen (3. ELK.).

Ekin-ETAren diskurtsoa aztertu dugunean, aipatu dugu frankismoaren errepresio politikoaren eraginez, euskararen galeraren kontzientzia hartu zutela Ekin-ETAren sortzaileek; eta modu traumatikoan bizi izan zutela gainera galera hura. Ondorioz, handitu egin zitzairen euskararen komunikazio-funtzioaren galeraren auto-kontzientzia eta hizkuntza jarri zuten nazioa berreraikitze borrokaren erdigunean (Tejerina, 1992, 1999). Gutxienez hiru ondoriotara iritsi ziren auzi honetan ([ikus III.2.5.](#) eta [III.4.3.](#)): batetik, euskara osatu eta batu egin behar zela eta garaiko beharretarako prestatu. Hala islatzen da Txillardegiren aipu honetan:

Euskaraz bizi nahi genuenok geure hizkuntza kaletartzeko eta gaurkotzeko behar gorria senditzen genuen. Eta eginkizun hori, osoki zitzaigun lan teknikoa, euskalari-lana; iturrietara joaz, eta literatura zaharra eta herriaren mintzaira berrirakurrituz eta berraztertuz sortu behar baitzen Euskara Batua famatu hura (1994, 136 or.).

Bestetik, euskararen erabilera bultzatu egin behar zutenekoa dago. Euskaltzaleak beraiek ere erdaraz bizi baitziren, eta hori kontraesan ikaragarria zitzairen gazte haiei. Txillardegik dio bere aurreko euskaltzale asko erdaraz bizi zela, baita beren artean ere, eta euskararen aldeko lana ere erdaraz egiten zutela (1994, 135-136 or.). Gauza bera nabarmendu du elkarrizketatu batek ere:

Elbira Zipitria beti erderaz ari zan eta, pentsa zazu, Elbira Zipitria! (...) Giroa oso erdalduna zan. (...) Adibidez Landaburuk esan omen zion Jose Luisi [Txillardegiri]: "Mira Txillardegi, ya cogeríamos una Euskadi sin euskera, ya cogeríamos!". Eta esan zion: "Pues cogerías tu, ¿porque yo desde luego no!" Pentsa zazu, esan nahi dizut mentalidadez ere... "¿una Euskadi sin euskera? ¡Oiga, que no, que sería Logroño o Cantabria, no hombre que no!" Hortan ere, euskeran, (...) ez zeuden ados (13. ELK.).

Eta, hirugarren lekuan, euskararen arazoa erabat politikoa zelako iritzikoak ziren eta, beraz, politikatik at, hots abertzaletasunetik kanpo, ezin zela konpondu. Aldi berean, halaber, sistema frankistaren barruan jardunda eta sistema errotik aldatu gabe euskararen arazoa konpontzerik ez zegoela ondorioztatu zuten. Horrela, bi esparrutan batera jardun behar zutela konturatu ziren: alegia, borroka kulturean eta politikoan (Txillardegi, 1994, 137 or.).

Hori eta horrenbestez, euskara eta euskal kultura berreskuratzeko lana eta borroka politikoa uztartu zituzten Ekin-ETAren sortzaileek. Euskararen galera-ergo-euskal nazioaren galera ondoriora iritsi baitziren. Horregatik hasi ziren euskara ikasten edo berreskuratzen, euskara berreskuratzea euskal nazioa berreskuratzea baitzen; eta berreskurapena jendarte mailan ez ezik maila pertsonalean ere egitea ezinbestekoa zela iruditzen zitzaien (Txillardegi, 1994, 138, 177 or.). Segidan aurkezten ditugun bi elkarrizketaturen aipu banatan islatzen da jarrera hori. Ekinen eta ETAren bi sortzailearenak dira:

Txillardegi eta biok barra-barra zein hizkuntzaz eta erdaraz! (...) Txillardegi ikasten ari zen jadanik pertsonalki, ni oraindik ez. Hasi nintzen [urliarekin] eta beste batzuekin Riberan, hor zegoen Euskaltzaindia. (...). Han ematen nuen urratsa euskara berriz berreskuratzeko (3. ELK.).

ETAn sartu nintzenean euskaraz egiten nuen baina erdizka eta gero Federiko Krutwig-ekin eta Jose Luisekin [Txillardegiri]. Benito del Valle eta biok

euskaraz ahalegina egiten genuen (...) 18 edo 19rekin. Eta orduan ni baino gutxiago zekienari hasi nintzen ematen euskarazko ikasgaiak (5. ELK.).

Ekin-ETAren lehen urteak igarota, 60ko hamarkadan ETA mugimenduaren ingurumarian zebiltzan batzuek ere beren burua euskalduntzeko edo alfabetatzeko beharra sentitu zuten.

Gero berriro ikasten autodidakta moduan. (...) Euskal aditza eta gauza horiek [lagun batek] erakutsi dizkit. (...) Eta [herri bereberek ezagun batek] (...) [herriko] euskara oso ongi zeukan oraindik, ez zuen batere galdu. Eta horrengandik hasi nintzen berriro ikasten [herriko] esaldiak, eta hitzak, eta hori dena berriro eskuratzen (10. ELK.).

1.2.3. Motibazio eta kontzientzia sorta zabala

50eko hamarkadan Ekin-ETAren sortzaileen eta inguruko kideen motibazio politikoa nahiko homogeneoa izan zen bezala, 60ko hamarkadan ETA mugimenduan sartzeko arrazoia heterogeneoagoa da. Hainbat eta hainbat motibazio mota aipatu dituzte elkarrizketatuek beren diskurtsoetan.

Zerbaiten bila edo barne bulkada batek hartaraturik irrika bat bete nahian ari zirela nabarmendu dute zenbait elkarrizketatuk:

Egarri bat, herri maitasune barruen nuen. Gorpuztu gabe, arrazoindu gabe, baina sentipen handia nuen. (...) Arnas-egarri baten iturbegi bat balitz bezela. Barruko behar baten betegarri, osagarri, ez dakit nola esan (11. ELK.).

Teníamos ansias de algo. En mi caso tenía ansias de algo y no me cubría esas ansias la religión a la que había creído firmemente (16. ELK.).

Elkarrizketatuen artean batzuek adierazi dute etxean jasotako euskalduntasunak eta abertzaletasunak, eta baita herriko giro abertzaleak ere, eraman zituela ETA

mugimendura (lehendabiziko aipua). Beste elkarrizketatu batzuek, berriz, adierazi dute gaztaroan euskara eta abertzaletasuna *deskubritu* ondoren hartu zutela kontzientzia eta hurbildu zirela ETA mugimendura. Lagunarte abertzalea izan da, kasu horietan, elkarrizketatuari ETA mugimendura hurbiltzen lagundu dion sare soziala (bigarren aipua). Segidan aurkezten ditugun aipuetan islatzen dira eredu horiek.

Orduan ni 60an sartuta nago herriko giroan. (...) Beti abertzaletasun horretan (...) eta giro horretan sartu nintzen erakundean. (...) Horrek guztiak [Urbiako euskal jaiez ari da] markatu egiten du. (...) Beste alderditik, aita eta amaren eragina. (...) Eta kultura maila horretan sartuta, antzerkia dala, kantuak dala, hizkuntza dala... irtenbidea ez zuen inork ematen ETAk ez bazen. Orduan nik bat-batean ETAn sartuta ikusi nuen nire burua konturatu gabe. Guztiz naturalki (2. ELK.).

Ni ez nator tradizio abertzaletik. Gero nik deskubritzen dut euskalduna naizela eta badaudela abertzaleak. Eta nire lagunak, hain zuzen, abertzaleak direla (...) eta lagun horiekin batera hasten naiz ni, nolabait, neure buruaren bila bezala. Galdu dudana euskara berrekuratu nahita, ulertzen nolabait "hi euskalduna haiz" eta "zer da euskalduna izatea?" Bilatzea eta historia bat badaukagula... (10. ELK.).

ETAren inguruan zegoen misterioa ere, halako miresmen bat alegia, aipatu du elkarrizketatu batek erakarpen-indar gisa. Herritik ihes egin behar izan zuten gazte batzuen gertaerak eragin handia izan zuten beraiengan, lekukoak adierazi digunez:

[Herrian] Hamazazpi urte genituela, beraz 61ean, egon zen lurrikara bat bezala, zeatik (...) bost mutil gaztek alde egin behar izan zuten. Gainera herrian entzute bat zutenak. (...) Horiek alde egin behar izan zuten eta misterioa zen! (...) "Nonbait ikurrina bat jarri dutela ta Frantziara alde egin omen ditek". Baina misterioa! Ta misterio horrek zerbait sortu zigun,

jakingura bat, hemen behintzat zerbait gertatzen duk. Ta hor, hain zuzen, hasi ziren eskolan eskupeka lehenbiziko Zutikak (...) sekretu handiengan. Gero berriz itzuli behar zen ta abar, ta abar. (...) Hor ja egonezin hortan ba lagunekin (...) hitz egiten genuen gure artean: "Zutik, eta hau zer duk ba?", "uste joat badaola erakunde bat" baina misterioa zen! (11. ELK.).

6oko hamarkadan ETA mugimenduan ibili zirenen elkarrizketak aztertuz gero, nabarmena da garaiko ETAn diskurtsoaren eragina. Kontzientzia edo motibazio abertzalea eta sozialista aipatu dituzte zenbait elkarrizketatuk. Batzuek bat nabarmendu dute, beste batzuek bestea, eta beste hainbatek biak, ondorengo aipuetan ikus dezakegunez:

Gu lehenengo, nik esango nuke momentu hartan oraindik (...) gera abertzaleak, sozialistak baino. (...) Gero denborarekin jun gera parekatzen. Baina hala ta guztiz ni momentu honetan ere ezkerrekoa naiz, eta ez nuke ikusiko beste biderik, baina nere bihotza abertzalea da. Ezkerrekoa egiten dezu burutik baina jaio abertzale bezela jaio nintzen ni. Zeren ez nuen mamitu beste gauzik (2. ELK.).

Nire iduriko jende asko sartzen da ETAn abertzale delako. Klase egoeran jende asko zen langilea eta motibatzen da hor ere lan egiteko (6. ELK.).

Euskaldun beteago, osoago izateko modu bat aurkitzen genuen batez be. Orduen horren beharra sentitzen genuen. (...) Garbi esango dizut: (...) sozialismoa neretzako zen "algo referente a la sociedad, punto", hortik atera kontuak nola nebilen! Nola nengoen barrutik jantzita! Orduan neretzako bustita nengoen euskaldun eta Euskal Herriari dagokionez (11. ELK.).

Porque las expectativas que cada uno podíamos tener o las expectativas generales, sociales y nacionales, que podía haber, la única organización que respondía entendíamos que era la organización ETA. Simplemente. Porque

ya te digo yo había pisado otras organizaciones, (...) había vislumbrado un poquito otros panoramas, en esa reacción juvenil de buscarte a ti mismo y buscar tu salida. Y, sin embargo, lo único que me llenaba, que me convencía, era una organización que ligaba los dos aspectos: la cuestión nacional por un lado, que estaba totalmente oprimida y la cuestión social que ya la había vivido, la había mamado desde casa (16. ELK.).

1968ko maiatzak eragin handia izan zuen 50 eta 60ko hamarkadetako belaunaldietan, elkarrizketatu honen arabera:

Una gran influencia que tuvimos nosotros fue el mayo del 68. (...) Ya tenía 17 años, ya estaba intentando buscar fuentes de conocimiento a niveles ideológicos y tal... (...) Y ahí sí mayo del 68 viene como una ola de renovación de abrir nuevos horizontes y ahí se te abre a ti una expectativa también (16. ELK.).

Bestalde, Txabi Etxebarrietaren hilketa inflexio puntua izan zen gazte askorentzat. 1968ko ekainaren 7an tirokatu zuen guardia zibilak Etxebarrieta. Gertaera haren ondoren jende asko sartu zen ETA mugimenduan, elkarrizketatu honek kontatzen duenez:

Con la muerte de Txabi Etxebarrieta, ese es el punto de inflexión. (...) La clave no en mí solo, sino en una mayoría de gente. (...) A partir de ahí es masiva la entrada de gente joven en ETA. (...) Pero no es por mi persona (...) porque es un movimiento que se genera espontaneo a partir de ahí porque hay latente pues yo que sé un sufrimiento, una opresión, un sin vivir (4. ELK.).

Askapenaren teologiari esker hartu zuen kontzientzia soziala elkarrizketatu batek eta, gero, lagunen bidez sartu zen ETAn, hurrengo aipuan irakur daitekeen bezala:

Hirugarren munduaren borrokan buru-belarri sartua Hélder Cámara eta jende ospetsu horiek beste ikuspuntu bat ematen zioten Elizari. Nire kontzientzia osoa piztu zen pobrezia eta injustiziaren inguruan eta gainera hainbertze urte pasatu nituen Euskal Herritik kanpo, nire Euskal Herriko bizipenak erabat desberdinak ziren. Asko maite duzu aberria bertze lekutan zaudenean, (...) baina hurbiltasun-konpromiso hori ez duzu. Hunat [Euskal Herrira] etorri nintzenean, horrek markatu ninduen, (...) lagunak mundu sozialean erabat bustita, sartuta zeuden (12. ELK.).

Nolanahi ere, elkarrizketatuen artean askok adierazi dute faktore asko elkartu zitzaizkiela kontzientzia hartzeko prozesuan, ez zela arrazoi bakar eta garbirik izan. Familia, eskola, lagunartea eta giro soziokulturalaren eragina aipatzen dute prozesu horretan. Ondoren aurkezten ditugun aipuetan irakur dezakeguna izan daiteke horren erakusgarri:

Nik uste nire historia dela jende askoren historia bezalakoa gerra ostean: gure gurasoek gerra galdu zuten eta frankismoan bizi izan ginen. Ez dugu izan formakuntza politikorik Euskal Herriari begira, edo iraultza sozialari begira. Hori bilatu egin dugu (6. ELK.).

Euskararen atxikimendua etxetik jasota, eta gero egin dugu frantses eskolaren esperientzia, euskara debekatua, zigortuak euskaraz ari ginelarik herriko eskolan. (...) Eta gero hor (...) ikasle munduan gauzak eztabaidatzen dira eta Algeriako Gerrari buruz eztabaidatzen da. (...) Taldean hasi ginen, baginen multzo bat eta abertzaletu ginen; euskaltzale ginen aspalditik, euskarari atxikiak, eta abertzaletu ginen emeki-emeki Enbataren bitartez (8. ELK.).

Elkarrizketatuen artean batzuek adierazi dute eskolak eragin handia izan zuela beraiengan kontzientzia politikoa eta soziokulturala eskuratzeko sozializazio prozesuan. Eskolak barne kontraesanak sortzen lagundu ziela. Hezkuntza-

sistemaren barruan unibertsitateko esperientzia azpimarratu dute elkarrizketatu batzuek. Diskurtso horietan badirudi, neurri handi batean behintzat, unibertsitateak ireki ziela jarduera politiko eta soziokulturalerako bidea. Hurrengo aipua da horren lekuko.

Politikan sartzeko (...) batez ere unibertsitatean hasi nintzenean. Preu [unibertsitate aurreko ikasketa] egin nuen 63an. (...) Valladoliden egon nintzen eta zortea izan nuen zeren bazen nahikoa jende formazio politiko handiarekin. Ez ziren euskaldunak. Jende horrek marxismoa irakurria zuen, materialista zen, (...) eta ibiltzen eta paseatzen. Holako jendearekin (...) nahikotxo entzun genuen batez ere marxismoaz, demokrazia, iraultzaz, dena nahasten zen (6. ELK.).

Beste elkarrizketatu batzuek, aldiz, lagunartea nabarmendu dute:

Euskalduna naizela deskubritzen, beraz, formulazio batean, ez derrigor politikoki, baina abertzaletzen kulturalki edo hizkuntzaren aldetik 17-18 urterekin hasiko nintzen. Eta lagunei eskerrak, ez familiari eskerrak inoiz; nire historian erabakigarriak lagunak dira (10. ELK.).

Gure lekukoak murgildu ziren giro soziokulturalean mendi-taldeak, abesbatzak, dantza-taldeak eta udalekuak aipatu dituzte elkarrizketatu batzuek. Ondoren aurkezten ditugun pasarteetan irakur dezakeguna izan daiteke horren adibide:

Urte haietan mendiko taldean (...) bazen gerra egina jende asko, eta esperientzia handikoa eta gauza asko bizitakoa eta kontatua. Ez dakit, mendira joan eta aipatu zahar batek gure lagun bati: "hire osaba han garbitu ziaten, holako lekuan eta oraindik ez diagu aurkitu haren hilobia". Horrelako gauzak mendian hitz egiten ziren (6. ELK.).

En una academia que fui para aprender cosas estas de secretariado, había unas chicas que iban a bailar al *Gaztedi*, en Santutxu me pareció maravilloso, precioso y a partir de ahí me metí en el *Gaztedi* (4. ELK.).

Dantza super inportantea [abertzaletzeko]! Korala ere, koral batzuk, mendi taldeak... (...) Dantza taldeak, nik uste, inportanteenak. Badakizu zergaitik? Koraletan egoten ziren adineko jenteak ere eta batzuk gerra eginda ere! ;No querían saber nada de política! (...) Baina dantza taldean denak ginen gazteak. Danak gazteak, ;de la nueva generación! (9. ELK.).

Horrenbestez, joera orokor bat aipa genezake. Elkarrizketatu ditugun pertsonen ibilbideak aztertuta, aitor dezakegu, ETA mugimenduko kideen kontzientzia eta motibazio politikoa eta soziokulturala eragin multzo baten emaitza direla; eraikuntza prozesu sozial baten emaitza dinamikoa. Sozializazio prozesuan norbanakoen printzipioak etengabe definitzen eta birdefinitzen baitira (Bourdieu, 1991), Hori ulertzeko gakoetako bat argitasun handiz formulatzen dute bi elkarrizketatuk; zirimiriaren eta lanbroaren metafora erabili dute kontzientzia politikoa eta soziokulturala nola barneratu zuten azaltzeko, hurrengo aipuetan ikus daitekeen bezala.

Lo que pasa es que esto es como un sirimiri que va penetrando, penetrando poco a poco (4. ELK.).

Nik uste, hau da sentipen bat da ta nahiko orokorra da: uste dut gertatu zaigula lanbroak egiten duen modura. Ez da euririk (...) ta konturatu orduko barruraino bustitte! Hola uste dut sartu zaigula herriarekiko dugun maitasuna ta lotura. Gero azaltzen da hitza *abertzalea* baina horrek gorputza hartzen du poliki, poliki. (...) Orduan "hau geurie duk!". Ta hor ba nik uste dut lanbroak bustita ginaudela. Baino oraindik gauzak gorpuzteko zeuden (11. ELK.).

2. ETA mugimenduaren eta euskara/euskal kultura sustatzeko mugimenduaren arteko harremana

1936ko gerrak eten egin zuen gerra aurreko abertzaleen jardura politiko, kultural eta soziala. Gerraosteko ekimen abertzale eta euskaltzaleek hutsetik hasi behar izan zuten, aurrekoen esperientzia eta jakinduria baliatu ezinik; eta, aldi berean, haren bila. Frankismoaren errepresio soziopolitiko eta kulturalari ahal bezala iskin eginez ekimen euskaltzale eta abertzaleak ugaritzen hasi ziren 40ko hamarkadaren azken urteetan eta 50aren lehenetan. Europako eta kolonietako elkartzeko mugimenduak pil-pilean zirenean gertatu zen. Herri-antolaketari esker ezkutuan zen mundua gainazalera ateratzen hasi zen (Basterretxea et al., 1997).

Ekin-ETAren diskurtso abertzaleak hizkuntza jarri zuen naziotasunaren ardatzean eta horrek euskararen balio sinbolikoa hazi zuen jendarteko hainbat sektoretan. Euskal nazioaren eta borroka abertzalearen muina adierazteaz gain, euskal identitatearen galera sentimendua sinbolizatu baitzuen. Euskararen balio sinbolikoa areagotuta, euskara ikastea, erabiltzea eta ikertzea euskal nazioa erreproduzitzeko giltzarri bihurtu zen ETAren diskurtsoan. Baita Francoren errepresioari kontra egiteko modua ere; sistema hari intsumisioa egiteko ekintza politikoa bihurtu baitzen (Tejerina, 1992, 1999).

Tejerinak dio euskararen komunikazio-funtzioaren galeraz jabetzeak euskararen funtzio parte-hartzailea handitu zuela; horren isla besterik ez da euskararen galera gelditzeko 60ko hamarkadan abiatu zen mobilizazio zabala. Bi esparrutan eragin zuen mobilizazio hark: euskararen balioa handitzen lagundu zuen, batetik, eta horri lotuta jende asko euskara ikasten eta euskararen alfabetatzen hasi zen. Euskararen galeraren auto-kontzientziak euskaldunak euskara gehiago erabiltzera bultzatu zituen eta euskaraz hitz egiten ez zutenak hura ikastera: hartara, euskararen komunikazio-funtzioaren beherakada gelditu egin zen neurri batean (1992, 1999). Torrealdairen iritziz euskal kulturaren historiako etaparik biziena eta sortzaileena

izan litekeena hasi zen 1956an. Hain zuzen ere, belaunaldi gazteak aurreko belaunaldiari lekukoa hartu zionean (1977, 312-313 or.).

Euskararen eta euskal kulturaren biziberritze hura elkarri lotutako hiru arlotan gertatu zen nagusiki: euskararen arloan, euskal literaturaren arloan eta, oro har, euskal kulturaren arloan (Jauregi, 1981, 268 or.).

Euskara sustatzeko euskalduntze- eta alfabetatze-mugimendua sortu zen Hego Euskal Herrian. Elkarri lotuta egon dira bi mugimenduak. Hasieran eredu autodidakta segitu zuten askok, liburuak irakurriz eta beren idazketa landuz euskaldundu edo alfabetatu ziren. Beste batzuek irakasleak bilatu zituzten³⁹⁵ (Basterretxea et al., 1997, 71-103 or.). Baina helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko mugimendua, mugimendu gisa, 1966tik aurrera abiatu zen, euskaldunak euskaraz alfabetatzeko eta euskaldun ez zirenenak³⁹⁶ euskalduntzeko nukleo-sarea sortuz joan zenean (Tejerina, 1992, 142 or.).

Bizkaiko alfabetatze mugimenduaren jatorrian egon zen Herri Gaztedi elizaren mugimendua. Elkarriketatu baten hitzak baliatuz esan genezake, mugimenduaren jarduera guztia euskaraz egitea erabaki zuela Herri Gaztedik 60ko hamarkadan. Komunikatzeko hizkuntza euskara izango zutela erabaki zutenean, alfabetatzeko beharra sortu zitzaion. Izan ere, euskara hutsean jarduteko arazoak zituzten, herri batetik bestera elkarri ulertzeko lanak baitzituzten. Herri Gaztedik *ekintzaren* bidez hezi nahi zituen gazteak balio kristauetan eta metodo hura erabili zuen hizkuntzaren arloan ere: bizitzako esparru guztietan euskaraz egiteko eta ingurua euskalduntzeko konpromisoa hartu zuen (Lizundia, 1990).

³⁹⁵ Elbira Zipitria ibili zen, adibidez, etxez etxe eskolak ematen gerra aurretik eta gerra ondoren. 1946an bere etxe-eskola ireki zuen Donostian. Gerraostean erakunde batek bultzatutako lehendabiziko euskarazko klase antolatua, badirudi, Euskal Ikasleen Alkartasunak (EIA) antolatua zituela Bizkaian 1947. urtearen inguruan (Basterretxea et al., 1997, 71-103 or.).

³⁹⁶ Torrealdairen arabera, 1973an Euskal Herriko biztanleen %33k (milioi bat inguruk) ulertzen zuen euskara; %25ek (750.000 inguruk) hitz egiten zuen, %17k (510.000 inguruk) irakur zezakeen, eta %10ek (300.000 inguruk) idatz zezakeen (1977, 471 or.). Antzeko datua eman zuen argitara Siadeco Ikerketa Institutuak ere; bere inkesta baten arabera, Euskal Herriko biztanleen %22,7 zen euskalduna 1975ean (Ugalde, 1979, 68 or.).

1969ko udaberrian ikastaro-bilera bat egin zuen Herri Gaztedik Berrizko moja-etxean. ETA mugimenduan ibili zen elkarrizketatu batek bete-betean hartu zuen parte ekimen hartan; bere ustez, hiru konpromiso hartu zituzten:

Talde bat sortzea alfabetatzeko, (...) talde bat Bizkaian antolatzea ikastoletarako, eta gizarte eskoletarako; hiru talde. Nahiz eta lehendabizi ikastoletarako izan, hemengo gaztiak hasi ziren eskatzen "alfabetatu egin behar dugu, ikasi behar dugu idazten eta hitz egiten". Punta bateko eta besteko bizkaitarrak elkar ulertzeko, ez bakarrik gipuzkoarrekin". (...) Eta egin genun (1. ELK.).

Gau eskolek funtzio garrantzitsua izan zuten euskara suspertzeko ekimenean. Hori jakinarazi du ETA mugimenduko kultura arloan jardun zen elkarrizketatu batek. Nabarmentzeko modukoa da ez zutela euskara irakasteko eta euskararen alfabetatzeko funtzioa soilik izan, diskurtso abertzalea zabaltzeko eginkizuna ere izan zuten, informatzaile honen aburuz:

Gau eskolak niretzat oso garrantzizkoak izan ziren zeren jende nagusia etortzen zen. (...) Nik gau eskolakoei [euskararekin] batera, irakasten nien Euskal Herriaren historia pixka bat, nekiena. Identitatea eta hori, nire barrutik ateratzen zena. Esanaz zergatik ez ginen espainolak ezta frantsesak, nola (...) geuk egin dugun gure bidea baina nola oinpeturik ginen. Hala eta guztiz gizaldietan eta gizaldietan horrela bizi izan garela baina ez dugula gure nortasuna galdu. Eta gero geure nortasuna salbatzeko eta Euskal Herria euskal herri izateko ezinbestekoa zela hizkuntza, euskara; euskararik gabe ez dago Euskal Herririk (2. ELK.).

Euskara berreskuratzeko saiakeran kokatu behar dugu ikastolen mugimendua ere. Seme-alaben heziketarekin kezkatuta zeuden guraso euskaldun batzuek sortu zuten 1957an gerra osteko lehendabiziko ikastola, Bilboko San Nikolas elizan. 1936ko gerrak eten egin baitzuen abertzaleen gerra aurreko ikastetxe eta ikastolen

ekimena (Basterretxea et al., 1997, 72 or.). 1960. urtetik aurrera abiatu zen ikastolen mugimendua eta 1964an mugimenduaren hazte-prozesua; ikastola gehienak 1965 eta 1969 urteen artean sortu ziren³⁹⁷ (Jauregi, 1981, 268 or.).

Euskarazko hezkuntza sistema eraiki ahal izateko eta hurrengo belaunaldiak euskaraz hazi eta hezi ahal izateko jendarte dinamika zabala saretu zen ikastolen inguruan. Ikastolak ere ez ziren euskarazko eskolak soilik izan, nazio nortasuna finkatzeko baliabide gisa funtzionatu zuten: hartara, ikastolan parte hartzea, euskal nazioaren eraikuntzan aritzearen sinonimo bihurtu zen (Fernandez, 1994, 101-105 or.). ETA erakundeko eta mugimenduko kideak ikastoletako irakasle izan ziren eta hainbat ikastolaren sorreran parte hartu zuten. ETAREN hiru sortzaile Lapurdin babestu zirenean, etxean antolatutako ikastola bultzatu zuten elkarrizketatu honen arabera:

Hona [Lapurdira] heldu eta denborarik galdu gabe antolatu genuen gure haurrendako ikastola. (...) Hiru ginen hegoaldekoak, gure emazteak, (...) gehi iparraldeko bat (...). Orduan egunero-egunero guretariko batek hartzen zituen haur guztiak, zazpi bat uste dut, eta autoz egun horretan edo aste horretan ikastola egiten zen etxera eramaten genituen (3. ELK.).

Ekinen laguntzailea eta kultura mugimenduko kidea izan zen lekuko honen arabera Ekinekoek sustatu zituzten Donostiako lehendabiziko ikastolak. Ekinkideek bultzatuta hasi omen zen Elbira Zipitriaren etxe-eskolan andereño:

Ni hasi baldin banitzan ikastolan Elbira Zipitriakin hoiei esker izan zan, Ekinekoai esker. (...) Ni azkeneko urtea ikasten ari nintzan Majisteritzan eta esan zidaten: "aizu, hemen gauza bat egin behar da, nola edo hala hori lortu behar da". (...) "Begira, Elbira Zipitriak euskerazko eskola dauka eta joan

³⁹⁷ 1964-1965 ikasturtean Gipuzkoako ikastoletako ikasleak 520 inguru ziren (Jauregi, 1981, 268 or.). Eta legalizatze eta finantza oztopoen gaineratik asko zabaldu zen mugimendua hurrengo hamarkadan: 1977an 185 ikastola zeuden eta 40.000 ikasle (Euskaltzaindia, 1977, 294-295 or.).

zaitez harengana". Berak martxan jarri ninduten eta ez hori bakarrik (...) hiru urtez, gure bidez, zabaldu ziran Donostian hiru ikastola; lehenengo haiek! Bueno Elbira Zipitriak egin zun lehenengoa baino martxa eman genion guk eta nork bultzatuta? Hoiek [ekinkideek]. Benetan esaten dizut, neri ez zitzaidan bururatu hola derrepente hori egin behar nunik; garai hartan gainera! Danak bildurtuta ginan baino, hala ere, esan nun "nola ezetz!" (...) Beraz, ikastolan hasieran ez dago dudarik txikiena ere, haien planifikazio bat izan zala Donostian (13. ELK.).

Ikastoletako giro abertzalea eta urte haietan indartu zen kultur giro hura izan zen erakundearen sartzeko bidea elkarrizketatu honentzat:

Ikastola zabaldu zenean, atxilotu arte, (...) horko andereño izan nintzen, musika irakaslea. (...) Beti abertzaletasun horretan eta giro horretan sartu nintzen erakundearen (2. ELK.).

ETA bera ere giro hark sortu zuela edo giro hartan sortu zela nabarmendu du beste elkarrizketatu batek.

ETA creo que fue el elemento que tenía que surgir, que el mismo pueblo lo hizo surgir, porque ETA nace del pueblo, para el pueblo, y desde el pueblo (16. ELK.).

Euskara batzeko eta estandarizatzeko mugimendu berritzaile indartsu bat ere garatu zen 60ko hamarkadan; Euskaltzaindiko talderik aurrerakoienak bultzatu zuen ekimena. Aranaren garbizaletasuna gainditu eta euskararen batasunerako, modernizaziorako eta normalizaziorako oinarriak ezarri zituen (Euskaltzaindia, 1977, 295 or.). 1964ko abuztuan eman ziren lehen pausuak. Idazle gazte batzuk Baionan bildu ziren ortografia, deklinabidea eta aditz laguntzailearen oinarritzko formak batzeko irizpideak ezartzeko asmoz. Gero, 1968an, aldaketa txiki batzuk eginda Euskaltzaindiaren kongresuak onartu egin zituen Baionako proposamen haiek.

Horrela ezarri zituzten euskara batuaren oinarriak (Sarasola, 1971). ETAREN sortzaile bat Lapurdiko bilera haien lekuko izan zen:

Hemen biltzen ginen [urlia, sandia eta berendia] Baionan Txillardegiren inguruan. (...) Arantzazuko bilkura famatua hemen Baionan prestatu genuen guk (3. ELK.).

Aipu honetan azpimarratzekoa da euskara batuaren zereginen elkarrizketatuak Txillardegiri aitortzen dion itzala. ETAREN beste sortzaile batek ere Txillardegiren figura nabarmendu du:

Jose Luis [Txillardegi] zen euskarako doktorea, txapela kendu behar da Jose Luisen aurrean. (...) Euskara batua berak atera zuen. (...) Niretzat ez da egon Jose Luis bezalakorik. (...) Eta Jose Luisek egiten zuen hori ETAKoa zelako eta ETAREN espirituarekin (5. ELK.).

Diskurtso horrek aztergai dugun gaiaren oinarrietako bat iradokitzen du. Gorago aipatu dugun bezala ETAREN sortzaileak konturatu ziren nazio askapenerako borrokan ezinbestekoa zutela bi esparrutan batera jardutea: hala nola esparru kulturalen eta hertsiki politikoan:

Bi sailetan batera (...) bultzatu nahi izan baitut, ezinbestean, gure herriaren pizkundea. Gure herri borrokaren ardatza hizkuntz arazoa dela sinetsirik, alor horretan eman dut neure indarren zati handi bat: bai ikerkuntzan, eta bai erabilpenaren bultzadan. Baina, horrekin batera, aldaketa politiko funtsezkorik gabe gure herriarenak egina duela seguru egonik, iratzarkuntza politikoaren inguruko egitekoetan ere murgildu izan naiz buru-belarri (Txillardegi, 1994, 137 or.).

Urte batzuk beranduago ETA mugimenduan ibili ziren elkarrizketatu batzuek euskara batuaren garrantziaz jabetzen zirela adierazi dute. Kultur mugimenduan

jardun zen informatzaile honen arabera, biziki interesaturik jarraitzen zuen berak euskara batuaren prozesua, eta ETaren eta euskara batuaren arteko harremana azpimarratzen du:

Ordurako hasita ziren Arantzazuko santutegian bilera horiek guztiak egiten, nik jarraitzen nuen hori. Atxilotu nindutenean barruan eduki nituen Arantzazuko zera guztiak. (...) Euskararen aldeko apustua egin zuen erakundeak eta hor sarturik euskara batuan ere bai (2. ELK.).

Hirugarren atalean aipatu dugu nola azpimarratu zuen ETAk bere diskurtsoan euskara eta euskal literatura suspertzeko zeregina (Hordago, 1979, 2, 91-96 or.). Naziogintzan ari zirelako ekin zioten batzuek literatura txikian idazteari (Sarrionandia, 2010, 433 or.). Sarasolak bi urte nabarmentzen ditu euskal literaturaren historian: 1901 eta 1964. Bi gertaera politikorekin lotuta daude bi urteak: alde batetik, EAJren urterik indartsuena 1901a izan zen eta, beste aldetik, 1964an ETaren abertzaletasunaren ideia berriek goia jo zuten. ETaren diskurtsoak euskal literaturaren garapenean eragin zuela iradokitzen du Sarasolak (1971).

Eraberritze-prozesu haren obrarik esanguratsuenetako bat Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* (1964) olerki liburua izan zen (Sarasola, 1971). Eleberriaren eraberritze prozesuan bi obra gailendu ziren: Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eta *Peru Leartzako* (1960). Antzerkian Xalbador Garmendiaren *Historia triste bat* (1969) aipa genezake; eta saiakeran Txillardegiren *Huntaz eta Hartaz* (1965). Eraberritze-korrante haren helburua, funtsean, euskara komunikazio-tresna erabilgarria egitea zen, hiriko industria-giroan erabili ahal izateko. Era berean izugarritzko lana egin zen gai-eremu berriak lantzen: hala nola filosofia, soziologia, ekonomia, artea, historia, natura-zientziak eta abar. Eskola-liburuak prestatu ziren ikastoletarako eta Europako obra moderno esanguratsu batzuk itzuli ziren euskarara. Kezka eta jakin-nahi berritzaile hari esker, euskarazko liburuen ekoizpena asko handitu zen 1962tik aurrera; eta 1977an munduko ekoizpenen batez

bestekoetara iritsi zen proportzionalki euskarazko ekoizpena (Euskaltzaindia, 1977, 295 or.).

Halaber, informazio- eta iritzi-aldizkariak ere sortu ziren: *Jakin* aldizkaria, esate baterako, 1956an (Jauregi, 1981, 270 or.). Literatura-ekoizpena sendotu orduko lehendabiziko Euskal Liburu eta Diskoen Azoka antolatu zuten Durangon 1965ean, Euskal Herriko liburugintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutzera emateko.

Euskal kulturaren eremu guztietan eragin zuen euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduak; zinez eraberritze-prozesu sakona izan zen: alfabetatzeko eta euskalduntzeko guneak, ikastolak, liburuak eta aldizkariak ugaritzeaz gain, euskal kanta, bertsolaritza eta herri irratiak ere indartuta atera ziren. Euskal kanta berria sortzaile askoren emaitza izan zen, herri mugimendu indartsu baten adierazgarri eta eragile. "Herri burrukari lotua" zen eta erreibindikazioa zuen helburu. Gogotik lortu zuen herria bereganatzea, publiko gaztea bereziki. Kultur mugimenduaren transmisiorik zuzenena izan baitzen kanta; eta horri esker lortu zuen, hein batetan, euskal kultura herritartzea (Artze, Knörr, Beloki, Lete, Iriondo eta Zubizarreta, 1977, 5-6 or.).

Ez Dok Amairu taldea aipatu behar genuke hemen oroz gain (1966). Lurdes Iriondo, Maite Idirin, Julen Lekuona, Joxe Angel Irigarai, Estitxu, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Pantxo eta Pello, Etxamendi eta Larralde, Oskarbi, Antxon Valverde, Xabier Lete, Juan Miguel Irigarai, eta Ibai Rekondo izan ziren euskal kantagintzaren ordezkariak batzuk. Beste musika tresna-jotzaile eta artista batzuekin sortu eta garatu zuten euskal kantagintza. Herri-folklorearen, Hego Ameriketako musikaren, eta folk amerikar, eskoziar eta ingelesaren eragina izan zuten (Artze et al., 1977, 10 or.).

Euskal kantaren loraldi hartan ETako kideek Mixel Labegeriren³⁹⁸ diskoak grabatu eta banatu zituzten, ETAREN sortzaile honen esanera:

Labegeriren diskoak guk pasatu genituen. Guk egin genituen, guk erregistratu, grabatu, fabrikatu, sartu lantxa batean... (...) [Urliak], hemengo kontrabandoko erregeak, tranpak egiteko tailer hoberenak ezagutzen zituen Iruñean, eta Iruñera eraman genuen gure autoa. Izugarria zen! (...) Txakurren eskuetan egon zen [autoa] 48 orduz eta ez zuten topatu! (3. ELK.).

Kultur mugimenduan jardun zuen elkarrizketatu baten diskurtsoan nabarmena da ETAk asko estimatzen zuela bere kantari-jarduera, edo berak behintzat hala sentitzen zuen:

Nik uste dut eurek [ETA erakundekoek] izugarri apreziatzen zutela nik egiten nuena. Zeren ni hasi nintzenean Atahualpa Yupanquiren kantuak kantatzen... Gañera kantu reibindikatioak ziren, nahiz ta indiotaz hitz egin. (...) Eta gero Arestik egin zidan kantu bat, nahiz ta musika Atahualparena izan [kantatu egiten du]. Eta ni kantu hoiek hasi nintzen kantatzen, egin nituen letra batzuk. Gu ginen sustatzaileak, kulturaren sustatzaileak (9. ELK.).

Kultur dinamika eta esparru hertsiki politikoa eskutik zihoazen. Ipar Euskal Herriko kultur mugimenduan lan egin zuen elkarrizketatu batek Iparraldeko kantagintza eta Enbata mugimendua lotu ditu. Hark honen eragina izan zuen, hurrengo aipuan irakur daitekeen bezala.

Gero sortu zen 65 aldera, eman dezagun, Enbataren eraginarekin kanta berria, kantagintza berria (8. ELK.).

³⁹⁸ Euskal herri-kantaren aitzindaria (Artze et al., 1977, 8 or.).

Euskal kanta berriak "errepresioaren markak" sufritu zituen. Hamaika kantaldi debekatu baitzituen espainiar gobernuak eta beste hainbeste abesti zentsuratu. Kantaldiak antolatzeko baimenen prozesua oso luzea eta konplikatu zen; baina trabekin espainiar gobernuak kontrakoa besterik ez zuen lortu (Artze et al., 1977, 6 or.). ETAREN kultur frontean eta kantagintzan ibili zen elkarrizketatu batek azaldu du kantaldiak debekatu arren, lepo betetzen zirela aretoak eta pilotalekuak; eta zentsura zela eta, nola hala osatu behar izaten zituztela hainbatetan kantaldiak:

Nola ikastolen alde zen kantaldia (...) jende guztia joan zen. Bazekiten debekatua zegola. (...) Kantaldia egin genuen, jenteak kantatuz eta han egon ginen ordu pare bat edo, jakinik debekatua zela. (...) Kantaldian erdia bete genuen, baina beste erdia hola (9. ELK.).

Euskal kantaren mugimendua ez zen *Ez Dok Amairu* taldera mugatu. Letek dio Ez Dok Amairuko lehen kantariak laster izan zutela segida Bizkaian (Bittor Egurrola, Maite Idirin, Estitxu, eta Natxo De Felipe aipatzen ditu), eta kasik une berean Ipar Euskal Herrian (Peio eta Pantxoa, Manex Pagola, Etxamendi eta Larralde, Borda eta Sarasola, eta abar). Planteamendua eta helburuak berdintsuak ziren Euskal Herri osoan (Artze et al., 1977, 22 or.).

Gaur eta Jarrai antzerki taldeek ere euskal kulturaren loraldian parte hartu zuten (Jauregi, 1981, 270 or.). Jarrai antzerki taldea (1959) sortzeko arrazoia euskara izan zela dio Beobidek, sortzaileetako batek: "Sortu, sortu, gauza garbia da: hizkuntza. Euskara izan zen Jarrai sortzeko lehen arrazoia. (...) Donostian oso euskara gutxi egiten zen, eta gu herrietatik etorritako xelebre batzuk ginen; halako lagunarte bat sortu zen, eta taldea atera zen. Euskaragatik sortu zen" (2010). Herri mugimendutik sortutako ekimena izan zela azpimarratzen du, gainera. Zernahi obra zela ere, edo zein obra zen jakin gabe, jendeak lokalak betetzen zituela dio, antzerkia zegoenean ikustera joatea militantzia ekintza zelako.

Arte plastikoetan ere izan zen berrikuntzarik. 50eko lehen urteetan Arantzazuko basilika berria eraiki ondoren, dekorazioan, Jorge Oteiza arduratu zen eskulturaz, Nestor Basterretxea kriptako pinturez, Carlos Pascual de Lara absideaz, Javier Alvarez de Eulate beirateez eta Eduardo Txillida ateez. Egitasmo apurtzailea bezain urratzaile izan zen eta eztabaida handia eragin zuen; eztabaida hartatik bide berritzaile bati ekin zioten artista haiek eta Euskal Eskolaren Mugimendua artikulatzeko ideia aldarrikatu zuten. Maila teorikoan Oteizak jardun zuen bereziki: hala, *Quousque tandem* argitaratu zuen 1963an. Euskal estiloa sortu beharraz idatzi zuen, besteak beste (Kortadi, 1993; Casanova, 2007, 53 or.).

Euskal jaiak ere herriz herri antolatu ziren. Debakoa 1963an antolatu zuten lehen aldiz eta euskal kultura plazara ateratzeko egun osoko egitaraua prestatu zuten: herrialde guztietako dultzaineroak, txistulari-bandak, trikitalariak, meza, abesbatza, bertsolariak, erakusketak, euskal dantzak eta abar. Hogeita hamar mila euskaltzale bildu ziren bertan antolatzaileen kalkuluen arabera. Aizpuruak dio gerra osteko euskal folklore eta kulturaren lehendabiziko adierazpen garrantzitsua izan zela. Eta antolaketa-prozesua bera ere garrantzitsua izaten zen, izan ere, urte osoan ibiltzen ziren antolaketa kontuetan: Euskal Herriko hamaika jenderekin hitz egiten zuten, eta jende euskalduna eta euskaltzalea ezagutzeko aukera paregabea izaten zuten (Nuñez et al., 1993, 2, 167-169 or.).

Zailtasun handiak izaten zituzten legearen barruan hainbat ekitaldi antolatzeko. 1965eko Debako euskal jaia debekatu egin zuen gobernadore zibilak; hala ere, jende asko joan zen Debara eta atxiloketak eta liskarrak gertatu ziren. Aizpuruak dio debekuak euskal sentimendua leherrarazi besterik ez zuela egin. Kutsu nazionala hartu zuen jaiak, Aizpuruaren begietara; bereziki abertzale gazteen elkargunea bihurtu baitzen (Nuñez et al., 1993, 2, 167-169 or.).

Mugimendu abertzalea eta kultur mugimendua eskutik zihoazen. Elkarrizketatu batek nabarmendu du ETAk aldeztu egin zuela Debako jaia. Segidan aurkezten

ditugun bi elkarrizketaturen aipu banatan islatzen da euskal jaiek abertzaleentzat zuten garrantzia.

Garai horretan, 17 urterekin, joaten ginen Urbiara. Urbian egiten ziren, hain zuzen, euskal jai batzuk: abestu, zeren ezin zen abestu, txistua jo, dantza egin, aureskua (...) Horrek guztiak markatu egiten du (2. ELK.).

Urte haietan joan ginen Urbiara, Urbian egon zan sekulako festa. Han ikurrinak eta dena, (...) holako festa! Hor hasi zen giroa abertzaletzen (9. ELK.).

Babestu bakarrik ez, ikurrinak jartzeko eskatu zien ETAk bere militanteei Elgoibarko euskal jaietan, elkarrizketatu honen arabera:

Hurrengo urtean [1965] Elgoibarren bazela euskal jaia eta guri eskatu zigun erakundeak ahalegin guztiak egiteko. Ordurako hasiak ginauden ikurrinak jartzen tentsio handiko harietan. (...) Eskatu ziguten herri pare parean errekaren ezkerreko aldean [ikurrina jartzeko]. (...) Jarri behar zen sorpresaz, eguerdian ez kentzeko, ageri zedin. Joan ginen ikurrina jartzera ta tiroka urten genuen, zergatik goardia zibilek ere pentsatu zuten zerbait ta han zeuden (11. ELK.).

Kontuak kontu, folklorismoaren mehatxua ikusi zuen ETAk jai haietan eta boikotatu ere egin zituen, lekuko honi bagagozkio.

Etorri zitzaigun beti bezela arduraduna esanaz euskal jaiak ondo zirela herri giro bat sortzeko, baina luzarora folklorismoan erortzeko arrisku handia zegoela eta boikotatu egin behar zirela. (...) Deban bazen euskal jaia ta gu joan ginen Debara goizeko 5:00etan, oktabillak botatzera boikotatzeko! (11. ELK.).

Dantza-taldeak eta mendi-taldeak abertzaleen arteko harremanak egiteko guneak izan ziren gerra aurrean bezala gerra ostean ere. ETA mugimenduko kideen arteko harreman-sarea sortzeko funtzioa izan zuten. Elkarrizketatu honen adierazpenek argi bezain garbi ispilatzen dute fenomeno hori:

Abertzaleak etxetik ginen baina gure abertzaletasuna esplaiatu zan tokia dantza taldea izan zen. (...) Hoiiek denak [dantza taldeko lagunak] ziren PNVkoak, (...) eta hor gu lehendabizi PNVko giroan sartu ginen. (...) Eta gero tipo hoiak [urlia eta sandia] etorri ziren Bilbotik eta hasi ziren beste ideia batzuekin [ETArekin lotzen ditu]. (...) Ni batekin nahiko laguna egin nintzen (9. ELK.).

Belaunaldi arteko transferentziak egiten ziren mendi taldeetan; militantziaz kanpoko sare informalak osatzen zituzten mendi taldeek, dantza taldeek edo abesbatzek. Horren adibide izan daiteke arestiko atal batetik berreskuratzen dugun aipua.

Mendian hasi nintzen asko ibiltzen. (...) Mendiko taldean (...) bazen gerra egina jende asko eta esperientzia handikoa, gauza asko bizitakoa eta kontatua. Mendira joan, igo eta hor aipatu zahar batek gure lagun bati: "hire osaba han garbitu ziaten holako lekuan eta oraindik ez diagu aurkitu haren hilobia". Horrelako gauzak mendian hitz egiten ziren (6. ELK.).

Elkarrizketatu ditugun hainbaten iritziak kontuan hartuz, zalantzarik gabe esan ahal izango genuke ETA erakundeko eta mugimenduko kideak jabetzen zirela ETAREN diskurtsoak hizkuntza-kulturari eman zion leku estrategikoaz. Eta EAJren abertzaletasunaren diskurtsoarekiko aldea handia zela beraien ustez.

Izugarrizko garrantzia ematen zaio [hizkuntza-kulturaren arloari], garrantzi estrategikoa. (...) ETAK euskal arraza baztertu eta hizkuntzan oinarritzen du identitatea. Hor salto garrantzizkoa ematen da (2. ELK.).

[Naziotasun-faktore gisa hizkuntzari eta kulturari ETAk emandako garrantzian] teorizazio mailan, (...) nik uste dut salto erabakigarria dagoela. Eta hori ez dago minimizatzerik askok egiten duen bezala, "esentzialismoan gelditzea da" (10. ELK.).

[ETAren diskurtsoan] aldakuntza haundiena izan zen oinarritzen zuela Euskal Herriaren herri izaera hizkuntzan eta faktore etnikoetan. Eta PNVk, Sabino Aranak, oso desberdina (11. ELK.).

Hizkuntza-kultura diskurtsoaren ardatzean jarrita hasiera-hasieratik baztertu zuen ETAk arrazak aurreko abertzaletasunean izan zuen zentraltasuna³⁹⁹. 60ko hamarkadan urruti ikusten zuten ETA mugimenduko kideek arrazaren diskurtsoa, (beraien ahoz jakin ahal izan dugun eran).

[Arrazari buruz hitz egiten ote zuten] Nada tampoco. (...) No, yo no, es que eso además a mi me chirriaba, me parecía imposible, insoportable. Si tú has leído a Franz Fanon... (4. ELK.).

Arrazarena ez zen mantentzen, ez zen mantentzen teorian. Horrekin hautsi egin zen, hori egia da (6. ELK.).

Orain arteko diskurtsoak aztergai dugun diskurtso abertzalearen zutabeetako bat iradokitzen du: alegia, EAJren ideologian euskaldun jaiotzen zara, eta euskal komunitatea itxita geratzen da *besteentzat*; ETAren ideologian ez zara euskaldun jaiotzen, euskaldun *bihurtu* egiten zara. EAJren abertzaletasunean euskalduna odolez edo arrazaz da euskaldun; ETAren formulazio berrian, ordea, euskalduna euskarak egiten du halako. Horregatik bultzatu zituen ETAk euskara eta euskal

³⁹⁹ Edonola ere, diskurtsoaren atalean aipatu dugu Ekinen eta lehen urteetako ETAren diskurtsoak ez ziola arrazari naziotasun osagaiaren funtzioa erabat ukatu. Ekin-ETAren sortzaileetako batek diskurtso hura berretsi du: "Ez [genuen] baztertu arraza. (...) Guretzat zen elementu objektibo bat bakarrik, hor zegoena baina ez determinantea" (5. ELK.).

kultura eraberritzeko eta sendotzeko egitasmoak. Ekintza politikoaren gakoetako bat bihurtu baitzen euskararen ikaskuntza eta irakaskuntza ([ikus III.4.3.](#)). Fernandezek modu oso argian azaltzen du hori.

Kontzeptu dinamiko honetatik [hizkuntzari funtsezko lekua aitortzen dion abertzaletasunaz ari da], euskalgintza eta nazio eraikuntza bat eginda agertuko zaizkigu, herri nortasuna eta hizkuntza nortasuna bana ezinezko errealitate gisa, eta bidenabar euskalduntzea, edo euskararen ikaskuntza-irakaskuntza, ekintza politikoaren oinarritzko tresna (1994, 104 or.).

Beste zenbait elkarrizketatuk ñabartu egin dute hizkuntza-kulturak ETArenezat zuen zentraltasuna. Teoriatik praktikarako jauzian sortzen diren kontraesanak aipatu dituzte. Hurrengo aipuan agerikoa da ETAREN eta militanteen beraien iritzietan euskara ikastea eta sustatzea euskal nazioaren eraikuntzan aritzea bazen ere, praxian bestelakoa zela errealitatea.

Guk ETAN egin genuen apustu nagusia izan zen hori: borroka nazionalistari ematen badiogu eduki iraultzaile orokorra integrazioa posible egiten diogu immigratuei edo kontzientzia euskalduna ez duen vascoari. Eta horrekin euskara izango da azkenean gure definizio nagusia. Oso polita da baina problema da jende askok ez duela ez kondizio sozialik, ez gogorik horrelako pausuak emateko (6. ELK.).

Euskara ikasteko baldintza egokirik eza eta norbanakoen borondate falta aipatu ditu aurreko lekukoak. Horrez gain, ETAREN barruko botere harremanetan gertatu zen aldaketak ere izan zuen garrantzia euskararen pisuak ETAREN diskurtsoan eta praxian izan zuen bilakaeran. Frantziar gobernuak kanporatu egin zituen ETAKO joera sozialista humanistako ordezkari esanguratsuenak ([ikus II.4.3.](#)). Txillardegiren eta joera sozialistako gainerako kideen eragina nabarmen ahuldu zen ETAN. Horren adibide garbia da honako aipua.

Txillardegi erbestera joan zen, gero erbestetik izan zituen bere eraginak (...) baina oso urrundik eta ez ziren gure erreferentziak. Beno, nireak behintzat. Horrekin esan nahi dut V. Biltzar Nagusian Txillardegiren ekarpenak zero. (...) Urratsa ematen da [hizkuntza-kulturari garrantzia ematean] baina ondo ulertu behar da urrats horrek zer suposatzen duen. Biltzar Nagusiak erdaraz egin ditugu (6. ELK.).

Halako batean *Enbata* astekariak ETARI egin zion lehendabiziko elkarrizketa publikoan (1968) ETAREN izenean hitz egin zuen ordezkariak ETAREN V. Biltzarreko estrategia azaldu zion kazetariari. Lau fronteen antolaketaz⁴⁰⁰ mintzo da eta honela azaltzen du ETAK kultura frontearen esparruan onartu zuena:

Ikastola, aldizkari, kantu, antzerki, eta abarren bidez gure kultura eta, batez ere, gure hizkuntza zabaltzeko eta eguneratzeko saioak (adibidez, ETAKo zenbait argitalpen euskara hutsean daude). Bereziki prentsa eta telebistaren bidez burutzen den kultur sistema zapaltzailea erasotzen du (Nuñez et al., 1993, 2, 301 or.).

Hor ikus dezakegunez 60ko hamarkadaren amaierako ETAREN diskurtsoak euskarari eta euskal kulturari leku estrategikoa ematen jarraitzen zuen. Baina praxia bestelakoa zen. ETAREN eta etakideen jardueran euskarak zuen lekua erakusteko V. biltzarreko hizkuntza hautuaz hitz egin dute bi lekukok.

[V. Biltzarraren lehen zatian] 60-70 bat lagun izango ginen. Batzarra hasi zan gabeko hamarrak inguruen. Goizeko laurak arte eutsi zion [urliak] berak bakarrik denen aurka biltzarreko hizkuntza euskera izango zela. (...) Goizeko 4:00ak eta oraindion gogor, bera bakarrik danen kontra! (11. ELK.).

[V. biltzarraren bigarren zatian] ez zen dena gazteleraz egiten baina hizkuntza dominantea gaztelera zen. (...) Eszisia egin eta VI. [biltzarrean]

⁴⁰⁰ Politikoa, sozioekonomikoa, kulturala eta militarra.

gogoratzen naiz, hizkuntza ofiziala eta testuen ofizialtasuna euskarazko bertsioak izango zuela. Eta gehiago mintzatu zen euskaraz. (...) Honekin esan nahi dut, baietz, eman genuela urratsa; urte horietan garbi esaten da (...) hizkuntzak ematen diola gure etnari nortasun berezia. Arrazismoa, apellidismoa, abandonatzen da baina amestu gabe (6. ELK.).

Orain artekoa ETAREN bilakaeraren aurpegi bat da. Beste aldera begiratuta, ordea, beste elkarrizketatu batzuen iritziak hartuta alegia, esan genezake euskarak eta euskal kulturak ez zutela garrantzi hori erakutsi ETAKO sektore batzuen ideologian eta praxian. ETAREN barruko langile joeran batez ere. Ikergaiaren denbora tartetik atera egiten den arren, bereizketaren ondoren ETA VIAN sartu zen kide baten lekukotasuna ekarriko dugu hona.

Gure munduan ez zegoen nazioaren errealitatea, orduan ez zegoen euskara ikasteko grinarik eta beharrik, nik ezagutu dudana gehienbat zen oso teorikoa. (...) Sestaren eta bortzaren artean zein izan zen desberdintasuna? Batek iraultza sozialari garrantzi gehiago ematen ziola eta besteak nazionalari gehiago. (...) Hauek [ETA VEKOAK] ez ziren sortuak mundu hortara sozialetik ni bezala adibidez, hauek sortu ziren abertzaletasunetik (12. ELK.).

ETAK marxismoarekin bat egin zuenean, Euskal Herrian lan egitea eta nazio askapenaren alde egitea bihurtu ziren euskal nazioaren kide izateko baldintza. Aurreko eskakizun hori, euskalduntasunaren baldintzari gehituta diskurtso batzuen iritzi eta euskalduntasunaren baldintza ñabartuta beste batzuen aldetik⁴⁰¹. Ondoren aurkezten dugun lekukotasunean elkarrizketatuak bi naziotasun baldintzak lotzen ditu: hartara, lehen urteetako ETAREN diskurtsoak lehenesten zuen

⁴⁰¹ Ekinen eta ETAREN sortzaileek euskarari eta euskal kulturari eman zioten garrantziak pisua galdu zuen ETAREN diskurtsoan marxismora hurbildu ahala. Fenomeno hori iradokitzen da Julen Madariagaren aipu honetan: "ETA sortu dugunontzat, euskara berreskuratzea lehenetsun izan bada ere, gure ondoko belaunaldiek baztertu duten zama izan da" (Madariaga, 2014, 285 or.).

euskalduntasunarena, eta 60ko hamarkada amaierako ETAn indartu zen diskurtso marxista.

Guk nazionalitatea ulertzen genuen hemen bizi eta bere lana honako egiten zuena gu beste zela. Eta gu beste ikasteko bidea zuela eta gu beste euskalduna izateko. Noski, hona etortzen bada lanera eta gu gorrotatzen bagaitu, eta dirua eramaten badu beste toki batera, hori ez da. Baina hona etortzen dena eskuzabal... (2. ELK.).

ETAren diskurtsoak ETA mugimenduan zenbateraino eragin zuen aztertzea ere argigarri zaigu. Elkarrizketatu batzuen arabera euskara eta euskal kultura sustatzeko mugimendua ETAren abertzaletasunaren eskutik etorri zen. Beste informatzaile batzuek ñabartu egin dute erantzuna: hala, elkarrekiko eraginaz edo bi prozesuen aldiberekotasunaz mintzo zaizkigu.

El desarrollo de ETA va en paralelo con lo que está pasando en el pueblo. (...) Yo creo que lo que ETA propicia es que todo eso que está aguantando emerja, y además emerja de abajo arriba que es cosa muy importante. Porque el movimiento de ikastolas y tal y cual no emerge de una decisión de ningún despacho, sino que surge de la pura necesidad; cosa fundamental para que perdure el movimiento (4. ELK.).

Elkarreragina (...) batak bestea elikatu zuen (2. ELK.).

Euskal Herriko berpizkunde politikoa (ETAren diskurtso abertzalea) eta kulturala (euskararen eta euskal kulturaren aldeko ekimena) batera gertatu ziren. 1953-1954 ikasturtean hasi zen berpizkunde hura eta, heldutasun-aldi bat igaro ondoren, 1964an eman zuen pausurik handiena: hain zuzen euskara eta euskal kultura herri-masetan sartu ziren eta esparru hertsiki politikoan masa abertzaletasuna biziberritu zen (Jauregi, 1981, 271 or.). Interesgarria da aztertzea zergatik berpiztu zen masa abertzaletasuna 60ko erdialdera. Hori erakusten saiatuko gara aurrerago.

Argi bezain garbi formulatzen du elkarrizketatu batek berpizkunde politikoak eta kulturalak nola eragin zioten elkarri:

Hor biak batera doaz. Alde batetik dator hizkuntzaren kontzientziaren berritze inportante bat. Eta, gero, beste ezer egin ez duen eta gerra galdu duen abertzale pila baten problema, politikan ezin da inola ere aktibo izan eta gelditzen zaion posibilitate bakarra da, hain zuzen, kulturaren mailan, hizkuntzaren mailan zerbait aktibo egitea. Eta, orduan, hizkuntzaren potentziaztea, ikastolak eta hori dator. Hori neurri handi batean dator, hain zuzen, politikoki parte hartzerik posible ez denean kulturalki aktibo izateko gogotik. Nolabait, izan beharra dago eta kulturalki izaten dela. (...) Politikoki aktibo ezin izanak euskarari mesede egin dio, fase horretan, lagundu dio asko (10. ELK.).

ETAren eta kultur mugimenduaren arteko elkarreragina hezur-mamitzeko testuingurua urte haietako herri-giroa edo giro euskaltzaleari eta abertzaleari zor zaie, elkarrizketatu batzuek diotenez:

[ETAK nazioa hizkuntzan eta faktore etnikoetan oinarritzearekin batera] beste berrikuntza da (...) askatzeko lana egin behar zala, gure eginkizuna zala eta horretarako borroka egin beharko zala. Orduan zer gertatzen da? Dena irakiten dagoen hortan (...) herrian sortzen dira, han ikastola bat, "euskeraz ikasi beharko da", hau ta bestia. Giro bat sortzen da (11. ELK.).

Esparru politikoaren eta kulturalaren arteko loturaren erakusgarri da kultura mugimendua izan zela hainbat militanterentzat ETA erakundean sartzeko zioa. Horren adibide izan daiteke arestiko atal batetik berreskuratzen dugun aipua.

Kultura maila horretan sartuta, antzerkia dala, kantuak diala, hizkuntza dala... irtenbidea ez zuen inork ematen ETAK ez bazen. Orduan nik bat-

batean ETAn sartuta ikusi nuen nire burua konturatu gabe. Guztiz naturalki. Nik ez nuen beste giro bat (2. ELK.).

Hori ulertzeko gakoetako bat xehe-xehe formulatzen du Edur Arregik:

Lehenik, euskarazko teatroaz hasi ginen, erdi galerazita zegoenean ekintza hori. (...) Nahikoa zen hori fitxatua izateko. (...) Bestalde, herrietan biltzen hasia zen zenbait gazte ETAREN inguruan, poliki-poliki. Berehala konturatu nintzen ni, eta ni bezala beste batzuk ere konturatuko ziren, hura ez zela kultur-lan soil bat, baizik konpromezu politiko bat, eta oso serioa gainera (Nuñez et al., 1993, 2, 176 or.).

Lekukotasun batzuk aztertzen baditugu, ikus dezakegu ETA erakundeko militante batzuek harreman zuzena izan zutela kultura eremuko hainbat eragile edo agenterekin.

Lehen lehenengo ETAKoak hasi dira Arantzazura etortzen [1962-63az ari da] eta *Jakinekoekin* hitz egiten eta guzti hori, eta nik [*Jakineko* kide batek] eduki ditut harremanak horiekin. (...) Baina egon naiz (...), ez dakit nola esan, neu kulturako gizon bat izanez bezala (10. ELK.).

Oteizarekin ere izan zen harremana, harreman oso estua (...) Txabik eduki zuen. (...) Eta hor Oteizak egin zuen Arantzazun dauden apostoluak; Amabirjina dago erdian eta berak esan zuen Txabi zela. Eta gero esate baterako egin zen aldizkari bat, ETAK egindako aldizkaria. (...) Eta hango marrazkia egin zuen Oteizak (2. ELK.).

El nombre [Ez Dok Amairuz ari da] lo pone Oteiza, Oteiza está en ese tiempo muy vinculado a ETA, con Etxebarrieta. En la Piedad de Arantzazu, la madre con el niño, el Cristo es Etxebarrieta (4. ELK.).

Bazegon kantaldi bat Baigorri eta [Baionan gordeta zeuden etakide batzuek] eraman ninduten [kantari bat]. Eta hor ere Benito Lertxundi eta Mikel Laboa etorri ziren eta gero hemengo batzuk, Larralde eta... Joan nintzen kantatzera, eta jende pilla zegoen! Monzon ere han zegoen (9. ELK.).

ETAren barruan ere lotuta zeuden esparru kulturala eta hertsiki politikoa edo *ekintzailea*. ETAren fronteen arteko koordinazioa bilatze aldera ([ikus III.4.5.](#)), fronte kulturalaren eta beste fronte batzuen arteko harremana ere zuzena zen hainbatetan, elkarrizketatu honek dioenez:

Ni kulturaren nengon (...) eta hoietako batzuekin [fronte militarreko kideez ari da] eduki genuen hartu-emanak nik uste dut Gorbeia bilkuretan ere. (...) Hoiek nahiz ta militarrean sartuta egon, baina kulturataz hitz egiten genuen (9. ELK.).

ETAren eta euskara eta euskal kultura biziberritzeko mugimenduaren arteko elkarreragina aztergai dugularik, lekuko batek kultur mugimenduaren autonomia nabarmendu nahi izan du:

Esan nahi dizut jende horrek [Ez Dok Amairuz eta Oteizaz ari da] bazeukala nortasun eta dinamika nahikoa, propioa. Ez ziren gure zain egon ezer egiteko. Baina beno, oro har bai, eragin bai (6. ELK.).

Horrenbestez, mugimendu bakoitzak hala-nolako autonomia partziala zuen, ez zeuden jakina goitik behera determinatuta. Baina ETAren diskurtsoak eta jardunak garaiko testuinguruan izan zuen eragina arakatuta, esan genezake garai berean ETAren norabide bertsuan garatu ziren dinamika politikoak eta soziokulturalak baldintzatu egin zituela. Nolabait esateko, ETA mugimenduan ETA erakundekoa ez zen eragile eta pertsona askok jardun zuen. Horren adibide da honako aipu hau.

Mugimendu hori dena, nolabait, ETAREN inguruan [gertatzen da]. Bere eboluzioa ere ETAREN inguruan egingo baitute Herri Gaztedik eta hauek; azkenean, ETA mugimenduaren barruan sartu litezke. (...) Orduan jende asko, hain zuzen, [EAJren] proiektu gabetasun hori ikusten ari zena euskararen aldeko lan horretan sartuko da. (...) Hizkuntzaren munduan ere sortzen ari den mugimendu berri horretan gehien gehienak EAJkoak dira. (...) Baina ETAREN inguruan edo ETA mugimenduaren barruan ari da sortzen mugimendu guzti hori (10. ELK.).

Jaso dugun informazio-iturri horrek aztergai dugun ETAREN eta euskara eta euskal kultura biziberritzeko mugimenduaren arteko lotura dinamikoa iradokitzen du: alegia, ETAREN erreferentziak motor lana egin zuela. ETA mugimenduak ahalbidetu egin zuen nolabait euskararen eta euskal kulturaren inguruko norbanakoek eta eragileek espazio politiko, kultural eta sozial erreferentziala edukitzea. Anaut-ek modu txit argian azaldu zuen ETAREN inguruko mugimenduaren eta euskal kulturaren susperraldiaren arteko lotura.

Euskal kulturaren esnatzea eta berritzea, nolahi ere, ETAK euskal gizartean eragindako mugimendu soziopolitikoarekin batera gertatu zen. (...) ETAK euskal kulturaren eta euskararen aldeko prozesu hori babestu eta bultzatu zuen, diskurtsoan eta praktikan. ETAREN sorrerak ekarritako ideologia abertzale berrian euskara ardatz bihurtu zen, eta ekarpen ideologiko hori ezinbesteko gakoa da abertzaletasunaren baitan euskalgintzak duen kokapen ideologikoa ulertzeko (2013, 224 or.).

Apalategiren ekarpenari jarraiki, ondorioztatu beharko genuke euskal kulturaren aldeko mugimendua eta ETA norabide berean zihoazela. Eta hark ETAREN eskuhartze eta eragin zuzena gaitzen zituen arren, nekez azal litekeela mugimendu haren zer-nolakoa ETAREN eta ETA mugimenduaren eragina aintzat hartu gabe (1979, 230 or.).

3. ETA mugimenduaren eta langile mugimenduaren arteko harremana

EAJren diskurtso ortodoxoak apenas egin zion kritikarik sistema kapitalistari eta ez zuen bere programan gai sozialei buruzko iritzirik azaldu. Baina lehen urteetako alderdi txiki eta erdi-legezkoa jendartean zabaldu eta mugimendu bihurtu ahala, gero eta langile gehiago sartu zen mugimendu abertzalean. Fenomeno hari erantzuteko sortu zuen EAJk ELA-SOV sindikatua (1914), langile abertzaleak antolatzeke alegia ([ikus II.3](#)). Edonola ere, katolizismo hertsari eutsi zion EAJk bere programan eta orden sozialeko alderdi antisozialista gisa aurkeztu zuen bere burua. EAJren "neutralismo sozialak", programa sozialik ez garatzeak, EAJko burgesek eta burges txikiek anabasa sozialari, iraultzari, zioten beldurra erakusten du (Mees, 1992).

Baina gai honetan ere egon, badago salbuespenik: izan ere, EAJko abertzale batzuen jarrera bestelakoa izan zen; Eli Gallastegi nabarmendu zen talde hartan. Nazio borrokaren eta borroka sozialaren arteko interdependentzia onartu zuen Gallastegik eta ugazaben aurka langile guztien arteko elkartasuna aldarrikatu zuen, langile euskaldunen eta euskaldunak ez zirenen artekoa. Berria bezain salbuespenezkoa izan zen hori EAJn (Mees, 1992, 350 or.). Ondorengo aipuan ikus genezake nola kritikatu zuen Gallastegik klase baten dominazioak sortzen duen injustizia soziala:

Hay pobres y hay ricos. (...) Aquéllos, viviendo una vida de privación, arrastrada; éstos, gozando de toda abundancia y comodidad. Ahí tenéis, una frente a otra, una causante de la otra, dos castas, dos clases sociales! (Mees-ek aipatua, 1992, 334 or.).

50 eta 60ko hamarkadetako industria-garapen izugarriaren ondorioz berpiztu egin ziren gatazka sozialak Hego Euskal Herrian; eta gogortu egin zen, orobat, Francoren erregimenaren kontrako borroka politikoa, 1962tik aurrera batez ere. Testuinguru hartan gertatu zen langile klasearen antolaketa-prozesua: besteak beste,

Comisiones Obreras izeneko batzordeak sortu zituzten langileek masa mugimendua eratzeko. Langile-batzorde haietatik bideratu ziren langile borrokak eta oposizioko indar gehienek elkargune bihurtu ziren (Nuñez, 1977, 104 or.).

1962ko gatazka sozialek ETAREN barruko kontzientzia asko astindu zuten arren, ETAK artean ez zuen sona handirik langile-mugimenduaren esparruetan. Ekin-ETAREN sortzaileetako baten aipuan islatzen da egoera hura:

Greba hori [1962ko greba batez ari da] biziki gauza ona izan da guretako. (...) Klase borrokan, nik dudan oroitzapena da, guk horretaz ikasteko biziki baliotsua izan zela. Mundu horretan ez ginen ezagunak, oso guti langileen artean (3. ELK.).

I. Biltzarrean, 1962ko maiatzean, bi talde zeuden dagoeneko ETAREN barruan. Batean Ekineko sortzaileak zeuden eta bestean geroago langile-ildoak ([ikus II.4.3.](#)) deitutako taldean nabarmendu ziren kideak. Langile-ildokoen ustez, "eskuindarrak", "elizkoiak" eta "atzerakoiak" ziren Ekinekoak; eta Ekinekoen ustez, "felipeak"⁴⁰² eta "espainolistak" ziren haiek. Txillardegik dio langile-ildoko kideak ESBA⁴⁰³ alderdiarekin oso lotuta zeudela eta aldatu egin nahi zutela ETA, erakunde marxista-leninista bihurtzeko. ETARI eskatu omen zioten erakundearen barruan ezkerreko joera gisa antolatzeke aukera baina ETAK ez zuen onartu eta, orduan, Txillardegik kontatzen du ofizialki lortu ez zutena "infiltrazioz" lortu zutela. Laburbilduz, barrutik ETA aldatzen hasi zirela (1994, 212-213 or.).

Elkarrizketatu baten aipuan islatzen dira ETAREN barruko bi joerak:

⁴⁰² Frente de Liberación Popular (FLP) alderdiko kideei esaten zitzaien *felipe* hizkera arruntean. FLP alderdi sozialistak Francoren erregimenaren aurka borrokatu zuen Espainiako Estatuan, 1958 eta 1969 urteen artean.

⁴⁰³ Euskadiko Sozialisten Batasuna (ESBA) Frente de Liberación Popular alderdiaren Hego Euskal Herriko saila izan zen; Francoren erregimenaren aurka borrokatu zuen Hego Euskal Herrian, 1958 eta 1969 urteen artean.

ETAn barnean baziren bi korriente: bat erraiten zuena, ez zuen horrela erraiten baina, "tenemos que controlar el movimiento obrero", sustatu eta kontrolatu. Eta besteak erraiten zuen "que hagan lo que les parezca bien!" [barre egiten du]. 60 hamarkadan. Hori beti izan da gure artean, zeren eta gure artean problema gehiena izan da bereizketa (14. ELK.).

II. Biltzarrean (1963ko martxoan) langile frontea osatu zuen ETAk lehen aldiz eta lehenatasuna eman zion fabriketan zelulak egituratzeari eta antolatzeari. Plangintza bat prestatu zuen fabriketan jarduteko, Ezkerraldean hastea erabaki zuen eta klandestinitatean arituko zen liberatu⁴⁰⁴ bat jarri zuen arduradun (Hordago, 1979, 2: 434). 1963ko urrian hasi zen ETA langile mugimenduarekin harremanetan jartzen eta bere idatzietan aipatzen zuen "askapen sozialarekin" langile aldarrikapenak bere egiten zituela (Jauregi, 1981, 175 or.).

Bilboko Komite Koordinatzaileak hamar minutuko lan-etenaldia antolatu zuen Bizkaian 1963ko urriaren 7an eta ETAk 11.000 esku-paper bota zituen langileak langeldialdira deitzeko (Hordago, 1979, 2, 525 or.). ETako militante batzuek lehendabiziko aldiz parte hartu zuten Komite Koordinatzailean eta, horrela, nabarmendu behar genuke lehen aldiz hartu zuela zuzenean parte ETAk langilegatazka batean. Eta ez zitzaion merke atera, alajaina; poliziak atxiloketa masiboak egin baitzituen hurrengo egunean eta etakide askok erbestera jo behar izan zuen; ondorioz, ETA deseginda geratu zen gehienbat (Letamendia, 1975, 307 or.).

Nolanahi ere, langile mugimendura hurbiltzen hastea oso garrantzitsua izan zen ETarentzat eta, era berean, baita langile mugimenduarentzat ere; elkarrekin lan egiteko aukera ikusi baitzuten bi aldeek, Ekin-ETAREN sortzaileetako batek adierazi digunaren arabera:

⁴⁰⁴ ETArri dedikazio osoa eskaintzen zion militantea.

Ez nintzen (...) klase borroka kontu horietan ibili (...) baina badakit bertze etakideei entzunda guretzat heien [langileen] artean garai hartan ibiltzea eta gure eginahalak egitea (...) arrunt garrantzitsua izan zela. Praktikoki gure eguneroko egitekotan bazen lehen aldikoz horrelako zerbait egiten genuela, eta bide batez langileak, nola erran, gure izaera, gure presentzia edo ikusi dutela eta pozik ziren: "biziki ados zuekin eta ahal ditugun eginahalak egingo ditugu zuei laguntzeko" (3. ELK.).

ETA langile-mugimendura hurbiltzea eta 1963ko lan-etenaldian parte hartzea ez zen oharkabean jazo Hego Euskal Herriko gainerako indar politiko klandestinoen begietara. Horrela, 1963ko urriaren amaieran eta azaroan harremanetan jarri ziren ETA eta Euskadiko Alderdi Komunista; bilera bat baino gehiago egin zituzten arren, ez zuten adostasunik erdietsi (Jauregik 1981, 195 or.). Segidan aurkezten dugun lekukotasunean informatzaileak elkarrizketatuak modu txit argian azaltzen du ETAREN eta langile-mugimenduaren artean izan zen lehia:

Huelga bat bazen, huelga orokor bat eta joan nintzan [Bilbora] (...) con dos cartones de octavillas de ETA y un coche grande que me habían dado. (...) [Langile mugimenduko] tipo bateri eman nizkion los cartones de octavillas. Berak esan zidan, "ikus, ikusi, banatuko ditut". [Baserritik] Kanpora joan zen, holako egur txikiak ezarri eta dena bota sutarat [barre egiten du]. (...) Nere aurrean, ikus dezatan zer egiten zuten ETAK igorritako octavillekin [barre egiten du]. (...) Para decir ;que no les mandaba nadie a ellos! (14. ELK.).

Botere-gatazkarekin batera, noski, ideologikoki bien artean zegoen aldea aipatu behar genuke. ETAK espainoltzat jotzen zituen momentu hartan Hego Euskal Herrian ziharduten ezkerreko alderdi eta mugimenduak, horiek ez baitzuten nazio problematikaren kontzientziarik. Enbata aldizkariak ETARI egin zion elkarrizketan honela mintzatu zen gaiaz ETAREN izenean hitz egin zuen ordezkariak:

Denak dira alderdi espainolak eta izateko arrazoi bikoitza dute. Batetik Hego Euskal Herriko 300.000 immigratuei ari zaizkie, eta beste alde batetik, iraganean militante sozialista izan zirelako, eta sozialista eta abertzalea den erakundea duela nahiko gutxi agertu delako, euskaldun eta sozialista kontrajarririk egon ordez osagarriak direla ulertu ez duten euskal langile ugariri (Nuñez et al., 1993, 2, 301 or.).

ETAren diskurtsoaren atalean aipatu bezala ([ikus III.4.4.](#)), 1963 eta 1964 arte ETAk ez zuen estatu sozialistek hobetsitako jendarte-ereduak imitatzeko beharrik sentitu; hasieratik Mendebaldeko estatuak gogor kritikatu eta, aldi berean, komunismoa, marxismoa eta sozialismoa ezagutzeko interesa agertu zuen arren. Baina ikusten ari garen bezala, 1963az geroztik gutxienez, etakide askok langileen hainbat ekintza-unitatetan parte hartzen zuen, ez ordea ETAk erakunde gisa (Jauregi, 1981, 106-107, 282). Esate baterako, ondorengo elkarrizketatuen aipuetan ederki asko ikus daiteke hori:

[Urlia] Oso gazte hartu zuten delegatu bezala enpresan. (...) CCOOeko delegatua, bera izan zen sortzaileetariko bat [eskualde bateko] CCOOen. Eta momentu horretan ETAk bultzatzen zuen CCOO zeren UGT ikusten zuen askoz eskuinerago. Orduan CCOO zen sindikatu bat ezkerrekoa; CCOO bidez gure jendeak nahi zuen abertzaletasunean sartu (2. ELK.).

ETA es fundadora, ETA no, militantes de ETA son fundadores de CCOO (4. ELK.).

Urte haietan nik behintzat ez nuen ikusi ETA egiten fabrikako politikarik. (...) ETAk hor ez zeukan jenderik. Hor zen jendea eta ETako izanik, klase kontzientzia baldin bazeukan puntu bateraino parte hartzen zuen fabrikako zeretan baina ez ETAk emandako politika baten zerara. (...) Jendeak lan egiten zuen fabrikan eta sentitzen zuen hori baina ez zen holako jarrera argia, organizatua (6. ELK.).

Zer nahi ere den, Beltzak bezala Jauregik ere dio urte haietan Comisiones Obreras delako batzordeek egin zituzten planteamenduetan nabarmena dela ETAREN eragina. Baina langileen jatorri soziologikoaren ondorioz, eta halaber ETAREN zabaltze desorekatuaren ondorioz, Gipuzkoan askoz ere eragin handiagoa izan zuela ETAK Bizkaian baino. Eskualde bateko eta besteko langile batzordeen osaera eta planteamenduak nahiko ezberdinak baitziren. Bizkaiko langile batzordeak, hastapenean, euskal nazio auzitik at sortu ziren; Gipuzkoan, berriz, euskal afera ez zen aldarrikapen edo erreferentzia hutsa, langile klasearen zati handi baten sentimendua baizik (Beltza, 1976, 141-142 or.; Jauregi, 1981, 282 or.).

1963 eta 1964an nazio borroka borroka sozialarekin uztartzea garrantzitsua izan zen oso ETAREN diskurtsoaren nondik norakoan. Honako aipu hauek pauso teoriko eta ideologiko haren berri ematen digute. Lehendabizikoa *Enbata* astekariak ETARI egin zion elkarrizketatik (1968) hartua da eta beste biak hurrenez hurreneko informatzaileenak. Xehetasuna argitze aldera, aipatzen duten data ez dator bat:

1963an ETAK sozialistatzat definitzen du bere burua («herriaren beharren araberrako» estrategia-saioen ondorio logikoa) eta ikuspegi bikoitzetik, nazionala eta soziala, ekiten dio euskal gizonaren askatasunaren aldeko borrokari (in Nuñez et al., 1993, 2, 300 or.).

Erakundeak egiten du III. Biltzar Nagusia [1964ko martxoan eta apirilean] eta hor aipatzen dira hiru frentek eta aipatzen da *sozialismo* hitza lehenbiziko aldiz. Oroitzen naiz zergatik [komando-kideek] esan zuten: "hunkitu ditek behar den tokia!". Zergatik hoiek bazuten horren egarri zerbait eta ulertu ere egiten zuten (11. ELK.).

III. Asanbleatik aurrera hori [langile problematika] aipatzen da etengabeki (6. ELK.).

Antzeman daiteke 1963 eta 1964 urteetan egin zuela ETAk langile-auziari dagokionez lehendabiziko aldaketa esanguratsua. Orduan argitaratu zuen Krutwig-ek ere ETAREN diskurtsoan eragin handia izan zuen *Vasconia* (1963; [ikus III.4.4.](#)). Elkarrizketatu batek adierazi digunez, esparru sozialari buruzko ikuspegia aldatu zion Krutwig-en obrak:

Momentu horretan horrelako ikusmoldeak ireki zidan leiho bat oso-oso inportantea niretzat (6. ELK.).

Berari ez ezik, bere inguruko askori ere eragin zion *Vasconiak*. Erraz suma daiteke hori elkarrizketatu beraren hurrengo pasarte honetan; eztabaida handia sortu baitzen ETAREN barruan immigrazioaren fenomenoak Euskal Herrian betetzen zuen funtzioaren inguruan. Besteak beste Krutwig-en ekarpenak eraginda, langileak, etorkinak, ETAREN borrokan sartzeko ikuspegia handituz joan zen ETAN:

Immigrazio itzela izan genuen urte horietan [hiri jakin batean]. Fenomeno terriblea izan zen; hainbat eta hainbat kanpotar etorri zen konbentzitura Espainiara etortzen zirela; (...) beraz, jende hori konportatzen zen praktikan hizkuntzaren eta, oro har, euskalduntasunaren arerio bezala. Baina (...) jende hori ezagutzen genuen eta ikusten genuen esplotatua zela, zer kondiziotan bizi zen; eta hor sartzen ginen kontradikzioan. (...) Diskusio handia bada eta, nik uste, poliki-poliki askoren artean sortzen dela ideia bat, esanez, Euskal Herria aldatu da. Hizkuntzari lehentasuna ematen badiogu asimilablea da, edozeinek har dezake nahi badu. Borondate hori erraz dezakegu iraultza sozialista egiteko posibilitatea ematerakoan. (...) Iraultzaren bidez Euskal Herria libre eta integrala lortuz eta euskara ikasteko motibazioa izanik, (...) euskaldun libre eta sozialista (6. ELK.).

60ko hamarkadako ETARENtzat aurreko abertzaletasunaren arrazaren diskurtsoa zuritu ezina zen ([ikus III.4.8.](#)). Joera nagusia hori zen teorian eta ideologian. Baina

etakideen jardunean ikuspegi teoriko hura ez zen beti hain argi islatzen. Segidan aurkezten dugun aipua esanguratsua da alde horretatik:

Guretzat astakeria [zen arrazarena]! Baina hala eta guztiz ere (...) gogoratzen naiz oso ondo 63an izango zen edo lauan Arrasateko euskal besta batean taberna batean ari ginela (...) kantatzen: (...) "eta tiro eta tiro eta tiro beltzari, eta tiro eta tiro belarri motzei!" (...) Batek esan zigun (...): "baina zer ari zarete abesten, konturatzen zarete?". (...) Eta nola esango nuke, niri zerbait egin zidan. Garai haietan guk jarrera faborablea geneukan [etorkinekiko] baina, hala eta guztiz ere, historia dela eta errepikatzen genituen horrelako... (...) Nik uste, beharbada, oso toleranteak ginela Partido Nacionalistaren arrazismoarekin. (...) Gero gure historia ere ikusten genuen, (...) gure erreferentziak ziren bertakoak. Berandu arte ez dugu immigrante haurrik ikusi ETAn sartzen, berandu arte! (...) Esan nahi dizut ETAREN barnean ez geneukan kasik immigranterik (6. ELK.).

Alde biko fenomenoak izan zela islatzen du elkarrizketatu beraren hurrengo aipu honek; hau da, immigranteek beraiek ere hoztasuna sentitu zutela esparru abertzaleetara hurbiltzerakoan:

Eta gero hitz egiten bat eta bestearekin [euskal jatorria ez zutenekin] (...) batez ere Autonomoen giroetan... "eta hi nola hasi hintzen [militatzen]?" "Nik familian beti sentitu izan diat holako hoztasuna kanpotarra nintzelako". Eta hori esaten zidan langile militante batek, taldean [ETAko komandoan] integratua. Orduan, beharbada gauzak guk sentitzen genuena baino larriagoak izan dira (6. ELK.).

Horiek horrela, III. Biltzarraren (1964) ondoren, hausnarketa eta eztabaida teoriko eta ideologiko handia sortu zen ETAREN barruan langile problematikaz eta sozialismoaz. Diskurtsoaren mezuan eta ETAREN barruan sozialismoaren aldeko

jarrera gero eta sendoagoa zen arren, praktikan ez zen artean aldaketa handirik antzematen lekuko honen esanera:

Hastapeneko talde gotorrean, bistan dena, eztabaidatzen zirela gauzak: sozialismoa batez ere, une hartan. (...) Baina hortik aurrera, ezer gutxi! (11. ELK.).

Are gehiago, beste elkarrizketatu baten mezua aztertuz gero, nabarmena da ETAREN barruko hainbat sektoretan marxismoa eta langile klasearekin lotutako korrante ideologikoak urruneko erreferentziak zirela artean. Beraz, argi dago ETAREN barruan ez zegoela artean askapen sozialaren gaineko diskurtso eta praxi bakar eta garbirik. Urte haietan etakide izan zen baten aipua egoera horren lekukotasun ona da:

Nazionalisten artean, hala nago 63-64etan, marxismoa eta ez ziren aipatzen, batere! Nik marxismoaren erreferentziak, holako gauzak hartu nituen unibertsitatean. (...) Lehendabiziko egunetan marxismo eta sozialismoaren erreferentziak nahiko orokorrak ziren. (...) Gero gertatzen da momentu batean erabakitzen dela orain parte hartu behar dugu fabrikako politikan (6. ELK.).

Langile borrokaren eremuko ETAREN jarduera 1965eko urritik aurrera hedatu zen nabarmen; hain zuzen, ETAREN barruko langile-ildoak Bulego Politikoaren ardura hartu zuenean. Horrela, 1966. urtean ETAREN jarduera praktikoa bakarria langile-eremukoa izan zen Jauregiren ustez; dinamika praktikoa bizia mamitzen ahalegindu zen (Jauregi, 1981, 282 or.). *Enbata* astekariak ETARI egin zion elkarrizketan ETAREN ordezkariaren adierazpenek guztiz argi islatzen dute fenomeno hori. Urte haietaz ari dela ETAREN hiru jarduera nabarmentzen ditu: lehenik, propaganda, langile-esparru guztietara zabaltzea eta, azkenik, oinarri soziala sendotzen ahalegintzea:

Lehenagoko propaganda ekintzekin segitzen du [ETAk] eta langile esparru guztietara zabaltzen da: lantegi eta nekazari herrietan finkatu, ikasle inguruei

eragin... Aldi berean erakundeak oinarri sendoa izan nahi du: dirua biltzeko eta armak, autoak, etxeak lortzeko sareak sortzen dira (Enbata, 1968ko urriaren 9a, in Nuñez et al. 1993, 2, 300 or.).

Bulego Politikoak espazio handiagoa eskaini zion *Zutik* aldizkariko idatzietan langile klasearen problematikari. Marxismoaren eragina nabarmen handitu zen hala ETAREN diskurtso ofizialean nola ETAREN barruko eztabaidetan. Zenbait informatzailereren pentsaeretan fenomeno hura iradokitzen da:

Gure aitzineko militanteen artean askok irentsi zuen marxismoa. Marxismoak nonbait iraultza bortitzean efikaz ibiltzeko erreferentzia bat eskaintzen zuelako. Hirugarren munduko zeretan kolonia asko askatzen da marxismoarekin lotua, hori da asuntua! (6. ELK.).

Egia da marxismo epidemia bat jasan genuela. Nolabait denok zurrumbilo horretan nahastu ginen, eta batzuk bastante hartuak ere. Eta gero abertzale gogor,itsuak bilakatu garenok (11. ELK.).

ETAk *Gipuzkoako Behin-behineko Langileen Batzordearen*⁴⁰⁵ sorreran parte hartu zuen Zumarragan, 1966ko udan (Letamendia, 1976, 64 or.). ETAREN parte hartzea oso argi islatzen da elkarrizketatu honen diskurtsoan:

Gipuzkoan egiten da la *Comisión Obrera Provisional de Gipuzkoa* (...) eta hor ETAk parte hartzen du. (...) Baina hori, batez ere, egin zuten gero ETA Berrirekin geratu zirenek [langile-ildokoek]. Baina hor sartzen da behintzat *Comisión Obrera Provisional* afera, alde nazionala sartzen da langileen elkarteetan zeretan (6. ELK.).

⁴⁰⁵ Comisión Obrera Provisional de Gipuzkoa. Alianza Sindical de Trabajadores sindikatuarekin, USO, ESBA eta PCrekin parte hartu zuen ETAk batzorde hartan.

Lekuko honen esanean, nazio ikuspegia sartu zuen ETAk *Gipuzkoako Behin-behineko Langileen Batzordean*. Batzordearen printzipioen adierazpena⁴⁰⁶ ikusi besterik ez dago ETAREN ideologiak eragin nabarmena izan zuela ikusteko. Beste gauza batzuen artean adierazpenak dio Batzordearen helburu nagusia esplotazioa desagerraraztea eta Euskal Herriaren nazio askapena burutzea dela. Eta elkarlanerako baldintza bat jartzen du: hots, Euskal Herriaren independentziarako eskubidea argi eta garbi aitortzea (Jauregi, 1981, 282 or.).

ETAREN borroka eta langile klasearen borroka elkarrengana gero eta gehiago hurbiltzen ari ziren unean, Espainiako Estatuko hauteskunde sindikalak iritsi ziren 1966ko irailean. ETAREN barruko langile-ildoak hauteskunde haietan parte hartzeko deia egin zuen, nazio arazoa aipatu ere egin gabe (ikus *Zutik* 43, in Hordago, 1979). Gertakarien zurrumbilo horretan, ETAREN barruko tentsioak lehertu egin ziren; militante-sektore askok presio egin eta Komite Exekutibo bat egiteko deia egin zuen ETAK. Urte hartako azaroan aho batez erabaki zuen Komite Exekutiboak langile-ildoak, Bulego Politikoko kideak, ETAtik kanporatzea. Eta Bulego Politikokoaren ildoak ETAREN barruko sektore baten oniritzia zuenez gero, ETAREN barruko lehen bereizketa gertatu zen⁴⁰⁷ (Jauregi, 1981, 284-285 or.; Casanova, 2007, 75-77 or.).

Nazio auziaren eta auzi sozialaren arteko uztarketa ez zen erraza izan, ez horixe, ETARENTZAT. Ondorengo elkarriketatuak ETAREN barruko bereizketen gakoa aipatzen du, hots, askapen sozialaren inguruko desadostasunak:

Beti gure barneko bereizketak izan dira, erran nahi dut eztabaidak, konklusio gabekoak ... Eztabaidak oso onak dira zeren eta zimentatzen du, porlantzen du gehiago baina ezin delarik konpondu orduan zartatzen da. Eta zartatze guztiak izan dira poli-milien istorio artio beti sobre la cuestión obrera (14. ELK.).

⁴⁰⁶ Ikus *Zutik* 47, 1967ko maiatza. Gero ETAtik kanporatu zuten langile-ildoak editatu zuen *Gipuzkoako Behin-behineko Langileen Batzordearen* printzipioen adierazpena.

⁴⁰⁷ Bulego Politikokoaren ikuspegiari ETAREN barruko beste ildoek zer kritika egiten zioten ezagutzeko ikus Casanova, 2007, 76-77 or.

Bizkaian nazio borroka eta langile borroka hain argi lotuta ez zeuden arren, Etxebarriko Laminaciones de Bandas enpresako langileen grebak testuinguru ezin hobe sortu zuen langile klasearen eta abertzaleen aldarrikapenak harilkatzeko. 1966ko azaroaren 30ean hasi zuten greba Bandas-eko langileek eta 1967ko maiatzaren 15era arte iraun zuen. Jauregik dio Hego Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko langile mugimenduaren historian mugarri garrantzitsua izan zela oso bere iraupenagatik, hango eta hemengo langile klaseak erakutsi zien elkartasunagatik, espainiar gobernuaren errepresioagatik, eta izan zuen oihartzunagatik (1981, 283 or.). Erreferentzia-puntua izan zen Francoren erregimenaren eta industria- eta finantza-oligarkiaren kontrako borrokan. Sei hilabete iraun zuen ia eta langile-borroken bideratzailea izan zen; baita eredu ere ekarri zuen borroka-mailagatik, langile-batasuna eta erresistentziagatik (Idigoras, 1999, 159-160 or.). Honako pasarte hauek bere garrantziaren berri ematen digute:

Bandas (...) epopeia bat izan zen (10. ELK.).

Greba ikaragarriak egon ziren... Bat oso-oso nabarmena eta sona handikoa izan zen Bandasekoa. (...) Hor oso inplikazio handia izan zuen herri guztiak, enpresak eta denak zeren hilabeteak iraun zuen. (...) Familia osoak jana ematen, greba, guardia zibila tiroka (2. ELK.).

Comisiones Obreras egiten direnean eta indartzen direnean Bizkaian, batez ere, (...) hor gure erreferentzia izan zen Laminación de Bandas. (...) Estado de excepción eta borroka ikaragarria. Horrek ekarri zuen mugimendu ikaragarria Euskal Herrian, ikaragarria! Kontaktuak baziren han lan egiten zuten batzuekin. (...) Laminacionesekoa guretzat izan zen zerbait estrordinarioa; jendeak nola borrokatu zuen eta guzti hori. Dudarik gabe! (6. ELK.).

Jauregik jakinarazten du greba hark langileen aldeko jarrera masiboa sortu zuela, lehendabiziko aldiz, Hego Euskal Herrian. Grebaren aldeko sostengu askoren artean 107 euskal apaizek sinatu zuten dokumentua nabarmentzen du Jauregik;

lehendabiziko aldia baitzen euskal elizak langile-eremuko gatazka bati geriza ematen ziola (1981, 283-284 or.).

Bandas-eko langileen %70 Euskal Herritik kanpo jaiotakoa zen arren, langile borroka euskal nazio aldarrikapenarekin lotu zuten beren aldarrikapenetan (Jauregi, 1981, 284 or.). Zentzu horretan, Idigorasek dio Bandas-eko grebaren testuingurua aukera ezin hobea izan zela ETAREN langile frontea sendotzeko:

Fue una época de actividad intensa, de reuniones, de propaganda y, sobre todo, de consolidación de la estructura del Frente Obrero en el Duranguesado (Idigoras, 1999, 165 or.).

Fabriketako dinamikez gain, formaziorako eskola sozialek ere garrantzi handia hartu zuten urte haietan, elkarrizketatu honek adierazi digunaren arabera. Eta etakide askok hartu zuen parte:

Ez ziren fabrikako mugimenduak baina, adibidez, eskola sozialak esaten genuen guk. (...) Horrelako mugimendutan ETAKO jendeak parte hartu zuen asko. Formakuntza emateko langileei, klase zentzu batekin. Eskola soziala ez zen gizarte edo jendarte eskola, baizik eta sozialismoa sartzeko. (...) Bazeukan horrelako erreferentzia eta hor bai, hor jendea ibiltzen zen (6. ELK.).

Sozialismoa klaserik gabeko jendarte batera edo komunismora iristeko alde zuzeneko urrats gisa hauteman zuen ETAK V. Biltzarrean (1966-1967). Orduan hasi zen ETAREN barruan marxismoaren eta nazio arazoaren harremanari buruzko eztabaida eta gogoeta (Apalategi, 1985, 253 or.). Honako lekukotasun hauxe dugu diogunaren erakusgarri:

Euskal nazionalismoari buruzko ikuspegia (...) nahasten da ikuspegi marxista iraultzaile batekin. Ekipo hori zen, batez ere, Etxebarrieta anaien inguruan

zena, gero kanpoan egon ziren batzuk; eta 66an oker ez banaiz [Ernest] Mandelekin kurtsilo bat izan zuten Belgikan edo, marxismoa ikasteko (6. ELK.).

Gertakarien joan-etorri honetan, V. Biltzarrean ETAk *sozialismo iraultzailea* onartzea kontraesanez betetako pausua izan zen elkarrizketatu honen begitara:

Sozialismo iraultzailea, marxista-leninista nahi bada (beno, hitz horiek ez dira erabiltzen eduki politiko osoarekin) baina langile klaseko zentzuarekin hori onartua zen V. Asanblean! Eta hori irentsi behar... (...) esan nahi dizut kontradikzioz beteta ginen! (6. ELK.).

V. Biltzarraren bigarren zatiak marxismoarekin bat egin ondoren, ETAREN barruko joera sozialista humanistak erakundea uztea erabaki zuen ([ikus II.4.3.](#)). ETAREN barruko ildoen arteko ezadostasunak ezin argiago formulatzen dituzte elkarrizketatu hauek:

Marxismo-leninismoa [da kontraesana]. (...) [Ildo sozialista humanistakoek] aipatzen zuten Comisiones Obrerarekin izandako harremana, esateko, horrek erakusten zuela espainolismoa. (...) Baina problema ez da harreman hori, problema da ideologikoa (6. ELK.).

Oroitzen naiz hauek [ETAREN sortzaileak] zirala sozialistak, sozialista-humanista deitzen zioten. (...) Gertatzen dana da gero marxismoa etorri zala eta batzuek ez zutela onartu eta kitto; iruditzen zitzaielako marxismoak ez zeramala herriaren liberaziora, arrazoia hori da. Baina nik uste det hauek beti izan direla sozialistak danak gainera hasierakoak; gehiago edo gutxiago baino (...) danak nere ustez. (...) Historiak ez zuelako erakusten marxismoaren bidez lortu edo indarra hartu zezakeenik liberazio nazionalak (13. ELK.).

V. biltzarreko txosten teoriko nagusia Jose Antonio Etxebarrietarena izan zela berretsi du elkarrizketatu batek eta txosten hari esker hartu zuela ospea, neurri batean, *Euskal Langile Herria* kontzeptuak. Bi helburu barnebiltzen zituen kontzeptuak lekuko beraren iritziz:

Pueblo Trabajador Vascon bada bi helburu. Lehen da burgesia ttipia integratzea, hau da, besteen lana esplotatzen duen kapitalista handia [ez den hura]. (...) *Trabajador* erabiltzen bada da, hain zuzen, obrero ez erabiltzeko. Hori lehen elementua. Bigarren elementua dago emigrazioarekin [lotuta]: (...) *Pueblo Trabajador Vascok* esan nahi du "el que vende su fuerza de trabajo en Euskadi en situación de conciencia nacional". Eta gero ezartzen da hirugarren baldintza bat: "y que reacciona o que se levanta contra..." Hau da, integratzen dena, borondatea daukana. (...) Oso-osoa zabala izan da definizioa hasieratik. (...) Es que egoera kontradiktorioa [zen]! (6. ELK.).

V. Biltzarreko erabakietan oinarritu zuen ETAk hurrengo bi urteetako praktika politikoa eta, bidenabar, erabakitakoa bideragarria zela ikusi zuen: *abertzaletasun iraultzailearen* planteamenduak arrakasta izan baitzuen eta, gainera, ETaren antolaketaren eta taktikaren esparruan erabakitakoak (lau fronteetan antolatzea eta akzioa-errepresioa-akzioa, [ikus III.4.5.](#)) emaitza onak ekarri baitzizkion. Meliton Manzanasen kontrako ekintzaren ondoren, erregimen frankistak errepresioarekin erantzun zuen arren, ez zuen ETaren estruktura desagiterik lortu eta, gainera, ehunka gazte sartu zen ETAn. 600 militante inguru izatera iritsi zen. Atal honetan interesatzen zaigunez, esan dezagun, etakide haietako gehienak langile eremutakoak zirela, eta batzuk etorkinak eta etorkinen seme-alabak. Abertzaletasunaren eta sozialismoaren arteko lotura indartu egin zuen horrek (Pereira, 2001: 105 or.; Casanova, 2007, 100-101 or.).

ETA mugimenduaren eta langile mugimenduaren arteko harremana aztertzen ari garen atal honetan aipagarria da Txabi Etxebarrietaren ekarpena. 1966-1968 urteetan Ezkerraldean eta Bilbon harreman zuzena izan zuen langileekin eta langile

mugimenduko buruzagi batzuekin. Elkarrizketatu batek baino gehiagok nabarmendu du Txabik bete zuen funtzio hura:

Txabi Etxebarrieta es el primero que empieza y entra en la margen izquierda, y contacta con (...) Periko Solabarria. (...) Cuando empieza a coger fuerza es ahí Jokin Gorostidi, Txabi Etxebarrieta es la misma época. Son años del 66 al 68. La V es la clave, donde hay un salto cualitativo en el proyecto y en todo, es la que determina. (...) Periko Solabarria lo cuenta muy bonito en una entrevista: "yo le conocí a Txabi Etxebarrieta y cuando vino a Ezkerraldea (...) yo pensé primero cuando me empezó a hablar de ligar la cuestión nacional con la lucha de clases me pareció una marcianada. ¡Aquí vienen éstos a pescar gente! Y luego me di cuenta que no, que era un planteamiento sincero y profundo". (...) Y a partir de ahí empiezan a captar, a captar y se hace el frente obrero (4. ELK.).

[Lotura] zuzena zegoen, Bizkaia aldean gehiago zeren handik hasi zen. (...) Txabi Etxebarrieta izan zen pertsona bat lantegietan ibilitakoa beste taldeekin, erdi mitinak, erdi hitzaldiak, erdi solasaldiak emanaz kanpoko langileekin eta baita bertakoekin ere. Kanpoko langileei esanaz Euskal Herrian zeudela, esanez "zuek ez zarete hangoak, hemengoaz zarete, hemen ari zarete zuen ogia ateratzen, zuen familia aurrera ere hemen aterako da, euskaldunak gara". Ezkontza hori egiteko, uztarketa hori egiteko (2. ELK.).

V. Asanblada egin eta gero, Txabi Etxebarrieta oso lagun zen Ezkerraldean Partido Comunistako buruzagi batzuekin. (...) Holako jendearekin loturak izanik, ETA sartzen da Comisiones Obrerarekin lanean Ezkerraldean (6. ELK.).

Guztiarekin ere, 1966 eta 1968 urte bitartea nahasketa handiko garai gisa deskribatzen du elkarrizketatu batek; hala, ETAk PCrekin eta CCOOrekin izan zituen harremanak aipatzen ditu. Hasieran, ETAk eta PCK elkarrekin langile-politika bateratua egiteko aukera ikusi zuten eta ETA CCOOen barnean aritu zen lanean.

Baina, pixkanaka, bien arteko aldea handitu egin zen eta ETAk iraultzaile izan ordez *erreformistak* izatea⁴⁰⁸ leporatu zien CCOO eta PCri, eta Enpresa Komiteen alde egin zuen:

Hori izan da bi urtetan ETAREN nahasketa bat! (...) Gertatzen da 68an Comisionesen aurrean alternatiba bat agertzen dela: las Comisiones de Empresa, Enpresa Komiteak. Eta momentu horretan ETAKO jende askok Enpresa Komiteen alde egiten du apustua. Esanez Comisiones [CCOO] eta PC (...) *erreformistak* zirela. (...) Comités de Empresa bilakatzen da (...) alternatiba Comisiones burokratizatuaren aurrean. Esan nahi dizut 66 eta 68 artean sartu, atera, sartu, atera, lau aldiz errepikatzen dela (6. ELK.).

1969 hasierako grebetan jo zuen goia langile borrokan esparruko ETAREN parte hartzeak. Epizentroa Bizkaiko Labe Garaietan izan bazuten ere Bizkaian eta Gipuzkoan zabaldu zen langileen protesta eta ETAREN babesaren izan zuten greba antolatzeke eta garatzeko; ETAREN propaganda-aparatua izan zuten euskarri nagusi (Casanova, 2007, 102 or.). Segidan aurkezten dugun aipuan elkarrizketatuak modu oso argian berresten du hori:

Adibidez ETAREN azpiegiturak erabiltzen dira octabillak eta besteak egiteko (6. ELK.).

Gure ikergaiaren epealditik irteten den arren, aipa dezagun hemen elkarrizketatu batek adierazitakoa. Bere aburuz, 70eko hamarkadan hasi zen ETA fabriketan benetan lanean, orduan egin zuen ETAK langile-mugimendura hurbiltzeko pausurik handiena:

Niretzako pausu nagusia ematen da 70etako hasieran, hau da, sextako haustura gertatu eta gero. Hor jende asko sartzen da ETAN, masiboki. Eta

⁴⁰⁸ Iraultzaren eta erreformismoaren gaineko eztabaidara hurbiltzeko ikus Txabi Etxebarrietak idatzi zuen *Maiatzaren Leena eta erreboluzioa* (Nuñez et al., 1993, 2: 268-270).

aurkitzen gara jende asko lantegian, fabrikan lan egiten. (...) Burgosko Prozesua dela eta orduan bada mobilizazio oso handia Euskal Herrian eta mobilizazio handi horrekin gauzak aldatzen ari dira ere sozialki; eta jende asko sartzen da bai sextan eta bai quintan. (...) Hor ja hainbeste militante barnean izanik langile eta langile klasearen kontzientziarekin problema planteatzen da (6. ELK.).

ETA mugimenduaren eta langile mugimenduaren arteko harremanean joera orokor bat aipa genezake. Hartara, testuinguru historikoak sortutako baldintzetan batak bestea elikatu zuen, eta alderantziz; hots, elkarri eragin zioten. Segidan aurkezten dugun aipuan elkarrizketatuak modu oso argian azaltzen du bi mugimenduen arteko dialektika:

Horrek [kaos sozialak] ETA posible egin du, alde batetik, eta ETAk posible egin du bestetik. Hori elkar egin duten mugimendu bat da. ETA sortu egin da neurri batean, kaos horretatik, ez fundatzaileak, baina ETA mugimendua [sortu da] kaos horretatik. Eta, alderantziz, ETAk eman dio kaos horri nolabait mentalitate bat edo pentsamendu bat sortu ahal izateko posibilitatea edo bidea (10. ELK.).

Argalak ere biziki argi formulatzen du elkarlotura hori ulertzeko gakoetako bat. Bere iritziz, langile klase abertzalea sortu zenean besarkatu zuen egiazki abertzaletasunak sozialismoa. 30 eta 40ko hamarkadetan burgesia txikiak zuzendu zuen nagusiki nazio borroka, orduan ez baitzen bere buruaren egoeraz kontzienteki eta publikoki jabetzen zen langile klase abertzalerik. Baina 60ko hamarkadan bere posizio sozialaz kontzientzia argiagoa lortu ahala, sektore abertzalea agertu zen langile klaseren baitan. ETAREN bilakaerak, eta norabide batean zein bestean egin zituen bat-bateko aldaketek eta bereizketek, hori besterik ez dute erakusten Argalaren iritziz: alegia, bere interesen kontrako errealitate hartan langile klase abertzaleak egin zuen bilaketa ideologiko eta politikoa. Orduantxe sortu zen, bere esanetan, iraultza sozialistaren aukera (in Apalategi, 1979, 18 or.).

Argalaren ildo berean azaldu du fenomeno informatzaile honek ere:

Es el caladero de ETA el movimiento obrero. Porque hay que tener en cuenta que es cuando emerge la industrialización a tope, y ésa es gente que viene del campo y va a la ciudad, obreros euskaldunes. Y, de hecho, la composición social de la militancia de ETA se transforma. Cuanto más proletaria es en la época de ETA V. O sea que son obreros conscientes, la mayoría. Porque en la etapa anterior son estudiantes, niños de la pequeña burguesía, hijos del nacionalismo (4. ELK.).

Elkarrizketatu baten ikuspegitik, hain zuzen, horixe da ETAREN ekarpen nagusitako bat: batetik, nazio arazoa eta arazo soziala lotu eta, bestetik, langile klasearen ordeztu, nazio askapenerako mugimendua izendatzea subjektu iraultzaile. Hain justu nazio askapenaren alderdia ezkerreko korrante ideologikoetan, oro har, kontuan hartzen ez zen garaian.

Esto sí que me parece importante como aportación y que la ha hecho ETA, entre otros movimientos: que el sujeto revolucionario se transforma de ser la clase obrera de los estados (los que van a dar la revolución, la transformación) se pasa a los movimientos de liberación nacional, cuestión que estaba totalmente ignorada. (...) Yo creo que el cambio del sujeto político es muy importante, ya no es la clase obrera del estado opresor, sino los movimientos, las nacionalidades sin estado, las que se revelan. Empieza en el tercer mundo pero también llega por aquí: porque mira Irlanda cómo va cogiendo su fuerza, o yo qué sé Escocia. O sea que hay una razón histórica. Yo creo que ésa es una de las claves, ese cambio que se da (4. ELK.).

Alabaina ezinbesteko baldintza da elkarrizketatu beraren iritziz, nazio askapenerako mugimenduak aldarrikapen sozialak egitea:

Para que ese movimiento de liberación nacional tenga características transformadoras tiene que abanderar las reivindicaciones de la clase explotada, que es la clase obrera. Si no no tiene ni pies ni cabeza (4. ELK.).

Gure ikerketaren epealditik irteten den arren, diogun, hurrengo urteetan ere eztabaida eta zatiketa-iturri izan zela askapen sozialaren gaia ETAREN barruan. Hona Argalak nola azaltzen duen ETA VEN eta ETA VIren arteko desadostasuna. Halatan, VI. Biltzarraren eskema Lenin-ek SESBen aplikatutakoaren kopia zehatza zen eta Argalak dio desegokia zela hori bere horretan Euskal Herrian aplikatzea. ETA Ventzat Euskal Herriaren etsai bakarra ez zen estatu frankista eta bere zentralismo eta inperialismo espainola; langile alderdi espainolek euskal auziarekiko historikoki agertutako ulertu ezina ere ez zen arerio txikia. Argalak dio ETA Vek argi ikusten zuela euskal nazio zapalketa konpontzeko soluzioa ez zuela automatikoki estatu mailako iraultza sozialistak ekarriko. Langile alderdi espainoletan nazionalismo burges espainolaren eragin handiegia ikusten zuen ETA Vek (in Apalategi, 1979, 14 or.).

Francoren errepresio politikoaren eraginez, jendarte sektore berrietara zabaldu zen abertzaletasuna eta erradikalizatu egin zen. Ideologikoki, diskurtso abertzaleari dagokionez, ezkerreko korrante ideologikoetara hurbildu zen; eta estrategikoki, eduki politiko eta gizarte onarpen handiko bortxa erabiltzen hasi zen (Perez-Agote, 2008, 82 or.). Errepresioaren eraginaz gain, garaiko korrante ideologiko ezkertiarrek eta langile-mugimenduak ere eragin zioten ETARI. Diskurtsoan nazio askapena eta askapen soziala uztartu zituen berehala eta praxian langile klasearen arazora hurbildu zen pixkanaka, eta harreman zuzena izan zuen langile-mugimenduekin. Zitzu bizian pasatu zen "existentzialismotik sozialismo humanistara, eta hemendik marxismo-korrante desberdinetara" (Iztueta, 1996, 341 or.).

Apalategirekin aurreratu dezakegu, mugimendu abertzalearen ikuspegi berri horrek, pixkanaka, etorkinak erakarriko dituela mugimendura. Klaserik gabeko

euskal jendarte baten aldeko borroka mahai gaineratzen duenean, batez ere (1985, 163 or.).

4. ETAREN fronte militarren inguruko sarea

Ez Ekinek ez ETAK ez zioten EAJren abertzaletasun ofizialari eraginkortasunik ikusten eta abertzaletasun ekintzailea sustatu zuten hasieratik (Letamendia, 1994, 252 or.). Ekin-ETA sortzeko motibazioen artean dago, hain justu, EAJri leporatzen zioten immobilismoa⁴⁰⁹ ([ikus IV.1.](#)), Txillardegiren aipuan irakur dezakegun bezala.

Ez genuen guk kanpoko indarren eta estatuen laguntzan ezertxo ere sinesten. Guk euskal estrategia eraiki nahi genuen. Euskal indarretan oinarritua. Sekula-sekulotan "aro hobeen zain" egon gabe. (...) Honela sortu zen Ekin, eta ez bestela (1994, 190).

Elkarrizketatu honen diskurtsoetik hartutako pasarte honetan ere aise sumatu genezake ikuspegi hori:

Gerra bukatu eta denak sartzen dira lurpean. Hau da, alde egiten dute EAJko burukide guztiek eta (...) euskal gobernu osoak. Beste guztia, hemen gelditzen dena, daude EGI zenarekin baina ezer egiten ez dutela (2. ELK.).

Elkarri lotuta dauden bi alderditan erreparatuko dugu atal honetan: batetik, ETAREN ekintzen bilakaeran eta ekintza-kate hark bere inguruan sortu zuen sarean; eta,

⁴⁰⁹ Krutwig-ek 1979ko irailean Muga aldizkariak egin zion elkarrizketa batean adierazi zuen EGiko gazteak izan zirela 1936ko gerra ondoko lehendabiziko komando armatuak antolatu zituztenak. Iker Gallastegi (Eli Gallastegiren semea) eta Jose Antonio Etxebarrieta aipatzen ditu. Krutwig-ek dio gazte haiek lehergailua eta pistola zaharrak prestatu zituztela, nahiz gero ez zituzten sekula erabili (Hordago, 1979, 7, 77 or.). Nuñez eta abarrek ere aipatzen dute EAJren eta borroka armatuaren arteko harremana: Jokin Artajo eta Alberto Asurmendi EGiko kideak autoan zeramatzen lehergailua lehertuta hil ziren 1969an. EAJren diskurtsoak borroka armatuaren erabilera baztertzen bazuen ere, Nuñez eta abarrek diote 1968 eta 1969an EAJk finantzatutako eta trebatutako komando bat osatu zutela EGiko bi kideek. Donibane Lohitzunen egin omen zituzten entrenamenduak. Dirudenez, bi gazteak hil ondoren utzi zuen EAJk albo batera ekimen armatua erabiltzeko asmoa (1993, 2, 244 or.).

bestetik, ETAk nazio askapenerako estrategiari eman zion zentzu globalean. ETAk diskurtsoan nabarmentzen duen borrokaren osotasuna eta fronteen arteko artikulazioa mugimenduan nola islatzen den ere aztertuko dugu. Hari kronologikoa segituko dugu.

Lehen urteetako ETAk ekintza-metodoen inguruan hausnartu zuen arren, I. Biltzarrera (1962) arte ez zuen bortxazko borroka-metodoen praktika zehatzei buruz ezer idatzi (Jauregi, 1981, 136-138 or.). Berez, hastapeneko ETA masa erantzuna eta mugimendua sortzen ahalegindu zen nagusiki (Apalategi, 1985, 202 or.). Baina bortxazko praktika zehaztu gabe zuen arren, Ekinek bezala ETAk ere nazio erresistentziak moral gotortua behar zuela aldarrikatu zuen. Eta biolentzia edo armak erabiltzearen aldeko jarrera hartu zuen hasieratik formaziorako hainbat koadernotan ([ikus III.4.5.](#)).

Ekinen dinamika berean segitu zuen ETAk hasieran: hala nola kideen formazioan, ikurrinak jartzen, pintadak egiten eta panfletoak botatzen. Lehen unetik agertu zuen ETAk ordura arteko abertzaletasunak baino modu aktiboagoan jarduteko asmoa. Bere ardatz politikoak eta antolaketa oinarriak begiz jotzen hasi zenean, ez zuen borroka armatuaren aukera baztertu eta, horretaz gainera, aldatu egin zuen Ekinen antolaketa-estruktura. Ekintza Adarra gehituta, sei adarretan antolatu zuten erakundea I. Biltzarrean (1962) bertan: Idazkaritza, Euskara, Propaganda, Ekintza Legala, Taldeak, eta Ekintza (Casanova, 2007, 25-29 or.).

Lehen urteetako ETA gainerako talde abertzaleekin konparatuta, Letamendiak honako ezaugarriok nabarmentzen ditu ETAn: lehenik eta behin, formazioarekiko zuen kezka eta, ondoren, aktibisimoa erabateko klandestinitatean egiteko obsesioa (1994, 252 or.). 50eko hamarkadan Ekinekoak laguntzen zituen elkarrizketatu batek (lehendabiziko aipua) eta Ekin-ETAREN sortzaile batek (bigarren aipua), adibidez, klandestinitate-neurriei ematen zieten garrantzia azaltzen dute.

Pentsa ze seguridade sistema genun! [Lagunak] uzten zuen [sobre bat] hemen [denda batean]. (...) Eta handik bi egunetara pasatzen nintzan ni eta jasotzen nun aginduakin edo kontaktoakin edo dana dala. (...) Eta nik [gero] jakin nun [bikotekidea] zala sobrea uzten zuena, nik ez nekin ezer (...) porque oso gogorra zan klandestinidadea garai hartan! Lehenengo puntua hori zan, klandestinidadea. Klandestinidadea hutsa, segurtasuna! (13. ELK.).

Hori izan zen eta izan da betiko kontradikzioa. Bazen, alde batetik, ziurtasuna eta, beste aldetik, efikazia abertzalea. Nola egin? (...) Beti ibili gara bi zango horien gainean (3. ELK.).

1959ko abenduan egin zituen ETAk lehergailuekin lehen ekintzak: etxeko hiru lehergailu leherrarazi zituen Gasteizko Gobernu Zibilean, *Alerta* egunkari falangistaren erredakzioan Santanderren, eta Indautxuko polizia-etxean. Ondorioz, lehen etakideak atxilotu zituen poliziak 1960ko martxoan. ETAk ez zuen bitarteko ekonomiko eta material handirik, ezta ekintza armatuen diseinurik ere; ez zekien oraindik ekintza haiek zenbaterainoko eragina izan zezaketen. Horrela, erakundea eta mugimendua finkatzeko eta sendotzeko denbora hartu zuen (Casanova, 2007, 29-32 or.).

ETAren sorreraren berri izatean (urte eta erdiz polizia frankistak ez baitzuen ETAren berririk izan) eta Euskal Herrian jarduera politikoa handitzen ari zela ikustean erantzun *eredugarri* eta *eraginkor* bat ematea erabaki zuen gobernu espainiarrak: 1961eko martxoaren 27an poliziak Madariagaren autoarekin nahasi zuen kotxe bat tirokatu zuen Boluetan. Javier Batarrita hil zuten, bigarren lagun bat paralitiko utzi, eta hirugarren bat onik irten zen. Itxura batean, Batarritak ez zuen inolako jarduera politikorekin harremanik (Casanova, 2007, 30-31 or.).

Batarritaren hilketak egundoko zirrara eragin zuen ETA mugimenduko kideen artean. Argi geratu zen frankismoak ETAren kontrako jarrera gogorra hartzeko

asmoa zuela. Ondoren aurkezten dugun lekukotasunean irakur dezakeguna izan daiteke horren adibide:

A ETA le ataban desde el minuto cero que es cuando matan a Batarrita, el año creo que es 60 o 61. Le matan ahí en Bolueta porque creían que era Julen Madariaga, que venía en un Peugeot; le confunden y le matan (4. ELK.).

1961eko uztailean frankismoaren kontra egin zuen trenaren ekintza izan zen ETAREN lehendabiziko ekintza militarra (Nuñez et al., 1993, 2, 300 or.). Erregimen frankistak berehala erantzun zion ekintza hari: hala, 200 lagun atxilotu zituen Hego Euskal Herrian 1961eko uztailan, abuztuan eta irailean. Atxilotu gehienak Madrilera eramantuz zituzten eta gehien-gehienek tortura salatu zuten. Auzipetutako zazpi pertsonek ETAREN kontrako lehen gerra-kontseilua pairatu zuten eta kondena luzeko lehen zigorrak izan ziren ETARENtzat. Beste etakide batzuek Ipar Euskal Herrian babestea erabaki zuten. Trenaren aurkako ekintza eta ondorengo errepresioa inflexio puntua izan ziren ekintza-metodoen gaineko ETAREN hausnarketan; izan ere, galdera edo zalantza sortu zitzaion ETARI ea bere helburuak lortzeko bortxazko borroka-metodoak erabiltzea tresna baliagarria ote zitzaion ala ez (Jauregi, 1981, 137-138 or.; Casanova, 2007, or. 32).

Errepresio kolpeetatik indarberritzeko ETAK I. Biltzarra egitea erabaki zuen (1962ko maiatza): batik bat, erakundearen jarrera zehaztu ahal izateko eta, formalki, erakundearen ideiak eta ekintza-printzipioak sortze-agiri moduko batean biltzeko (Casanova, 2007, 32-33 or.). I. Biltzarreko Zuzenbide agirian (1962ko maiatza) ETAK ez du artean ekintza-metodo zehatz bat irmoki hautatzen. I. Biltzarretik aurrera hasi zen ETAREN barruan gaiaren inguruko eztabaida: 1962ko bigarren seihileko osoan eta 1963ko lehen hilabeteetan (Jauregi, 1981, 137-138 or.).

Edonola ere, ETAK Nazio Askapenerako Mugimendu Iraultzailea izendatu zuen bere burua I. Biltzarrean. *Iraultzailea* kontzeptuak ezarritako egiturak beste egitura batzuekin ordezkatzeko esan nahi du ETARENtzat baina ez (edo ez soilik) ezkerreko

mugimenduek ulertzen zuten moduan. ETAk *euskal* iraultza egin nahi du, hots, espainiar eta frantziar sistemak kanporatzeko edo desegiteko abertzaletasun ekintzailea burutu, elkarrizketatu honek adierazi dioskunaren arabera.

ETAk bere burua proklamatzeko du *revolucionarioa*. (...) Iraultzaileak ez du esan nahi langileen iraultza proletario komunista. Ez, iraultzak esan nahi du armak hartu eta estatuaren kontra altxatu! Gaitasun hori (...) inportantea zen lehen aipatu dugun motibazioarekin lotuta: hau da, zerbait egin behar zela eta zerbait efikaza! (6. ELK.).

I. Biltzarraren ondoko hilabeteetan ETAREN kaleko aktibismoa, barne eztabaida eta polizia-errepresioa izan ziren nagusi (Casanova, 2007, 37 or.). Hala ere, ETAREN lehen urteetan Ekintza Adarraren neurria eta antolaketa txikia izan zen oso. Segidan aurkezten dugun Bareñoren lekukotasunean antzematen da hori:

Gogoratzen naiz sarekada bat egin zuela poliziak 1962an Bizkaian, oso mahai zabaletan funtzionatzen baikenuen orduan, eta gure enlazeak esan zigula: "Lasai, Seigarrenekoak etorri dira eta". Adar armatukoak. Gero jakin nuenez, *Haundixe* (Joan Jose Etxabe) eta *Culebrin* ziren etorri zirenak. Horra, bada guk hain uste handia genion adar armatu guztia (Nuñez et al., 1993, 2, 195 or.).

II. Biltzarrean (1963ko martxoan) urtean bizpahiru ekintza garrantzitsu egitea erabaki zuen ETAK eta hiru militante liberatzea (Casanova, 2007, 37 or.). Ez zailtasunik gabe ordea, K. de Zunbeltz-ek *Hacia una estrategia revolucionaria* idatzian⁴¹⁰ adierazi zuenez:

⁴¹⁰ 1975eko bertsioan; lehendabizikoa 1968an argitaratua.

Basta decir que en 1963, el herrialde I, que era con mucho el más fuerte, llegó a permitirse *el lujo* de dedicar dos mil pesetas mensuales a sustentar a un militante *liberado* (in Jauregi, 1981, 232 or.).

Krutwig-en *Vasconia* (1963) obrako Bellica atalak zer pentsatu handia eragin zuen ETAn ([ikus III.4.5.](#)). Bortxazko borroka metodoen alde egin zuen Krutwig-ek eta horrek eragin handia izan zuen ETAn, bereziki, nazio askapenerako estrategia politikorik egokiena aukeratzeko hausnarketan. Euskal nazio identitatea berreskuratzeko borroka armatua erabiltzea zilegi dela aldeztu zuen Krutwig-ek eta, horrekin batera, Euskal Herriaren testuinguruan gerra nola egin eta gerrillak nola antolatu beharko liratekeen zirriboratu zuen (Jauregi, 1981, 216 or.; Murua, 1997, 89-90 or.). Segidan aurkezten ditugun bi elkarrizketaturen aipu banatan islatzen da Bellica atalaren eragina; Krutwig-ek azaldu bezala, *hirurkoak* erabili baitzituen ETAk borrokaren oinarritzko zelula edo talde gisa:

Nik ikusten nituen [hiru lagun min] nigandik aparte hitz egiten egoten zirela. Orduen misterio mundu hartan, "ze ostia dabiltz?" (...) "Bueno garbi esango zait: haxe ta haxe". "Zergatik ez nauzue ni hartu?". "Es que eurek esaten ditek bakarrik hiru". Hirurkoak ziren orduan. "Hiru lagun behar zirela ta hirurok lan egin diagu ta...". "Eskatik laugarrena!". Ta eskatu zuen ta onartu zuten (11. ELK.).

Lo que pasa que personalmente nunca he estado integrada ni en *taldes*, ni en *hirurkos*, ni en células tal. Yo andaba más bien por mi cuenta y con determinadas personas, porque entonces también caías como... ¡Es que era la hostia! Una manera de preservarte también (4. ELK.).

Nazio askapenerako bortxa politikoa erabiltzearen zilegitasuna onetsi zuten Krutwig-ek *Vasconian* bezala ETAk orduko bere idatzietan. 60ko eta 70eko hamarkadetan etakide izan ziren elkarrizketatu hauen hitzetan oin hartuz berretsiz genezake armak hartzeak ez ziela etika edo kontzientzia arazorik sortzen:

Ez batere! (...) Ez da ahaztu behar gerra belaunaldia zen gure aurreko belaunaldi zuzen-zuzena! Eta (...) sistema zen berbera. Sistema horrek armak erabiliz zanpatu gintuen eta guk sistema horren kontra armak hartzea... Ez geneukan inongo problemarik zilegitasunarekin. (...) Problema zen egokitasuna, gaitasuna, momentua izan behar zen egokia, kapazitatearena. (...) Horiek ziren problema nagusiak (6. ELK.).

Etika eta kontzientzia kontuak orduan ez genituen pentsatzen, "la violencia revolucionaria siempre es buena". (...) Oso ondo ikusia zen hori guztia (...) metodo horiek onartuak zeuden (12. ELK.).

Beste elkarrizketatu batek ere azaldu du biolentzia erabiltzeko argumentu sendoak zituela berak, eta etakide izan zen urteetan behin bakarrik gertatu zitziola militanteren batek fedearen eta bortxazko bitartekoak erabiltzearen arteko kontraesana agertzea.

Behin bakarrik ikusi dut, behin. [Bilera batean bi militantek] oroitzen naiz galdetzen zuten: "Baina hau gure sinesteekin?". Arantzazun egin gendun [bilera]. "Hortxe daukazue frailiek eta galdetu beraiei!" (...) Baina, adibidez, nik neuk personalki esaten nun, joder, herri ukatu bat eta eskatzen deguna da herri bezela bizitzen uztea (11. ELK.).

Frankistek gerran eta gerraondoan ereindako beldurra oztopo bihurtu zen ETarentzat eta oposizio antifrankistarentzat herritarren kolaborazioa lortzeko (Jauregi, 1981, 227 or.). ETaren lehen urteetan beldur handia sortzen zuen armez hitz egiteak, elkarrizketatu honen arabera:

Ni lehenengo urteez ari naiz, oraindik beldurra nagusi denekoaz. Ze beldurrak luzaro iraun du! Eta ETaren hasierako urteetan oraindik armak entzuteak bakarrik jendea izutu egiten zuen. (...) Gerraren beldurra oraindik

ikaragarria zen eta armak hartzearen mundu hori ;no entraba en las cabezas!
(10. ELK.).

Errepresio frankista saihestu ahal izateko, ETA mugimenduko kideen lehendabiziko zeregina klandestinitatea gordetzea zen, 60ko hamarkadan etakide izan zen elkarrizketatu honek modu oso argian azaltzen du hori.

Lehenbiziko gauza zen klandestinidatean bizitzen ikasi beharra, hori inportantea zen. Zergatik inork ez zuen joan nahi ta erakundeak gutxiago oraindik jentia kartzelarako bidean jartzea! Orduan lehenbiziko lana zen klandestinidateko normak esaten zirenak, beraz, egiturak ezagutzea eta zaintzea baina artoski! (11. ELK.).

Ilido honetan, barrura begira bigarren zeregina formazioa zen. Eta, ondoren, kanpo ekintzak prestatu eta egin behar izaten zituzten. Pasarte honek zeregin horien berri ematen digu:

Ta gero egin behar zen zerbait. Eta egite hori izaten zan pintadak, ematen ziguten oktabillak banatu, beti klandestinitatea zainduz. (...) Baseko komandoa ginen eta orduen komando ia denak salbu bakarren bat edo beste hortarako ziren. (...) Holaxe zan orokorki (11. ELK.).

Hori eta horrenbestez, ordurako ETA lehegailuekin ekintzak egiten hasia zen arren, 60ko hamarkadan kanpora begirako lan aktibista lehen urteetako berbera zen nagusiki; eta halaxe izan zen 1964. urte ingurura arte (Jauregi, 1981, 273 or.). Esaterako, propaganda zabaldu, edota panfletoak bota eta pintaketak egin. Aizpuruak (lehen aipuan) eta 60ko hamarkadan etakide izan zen elkarrizketatu batek (bigarren aipuan) zeregin horien berri ematen digute:

Propaganda zabaldu, adibidez. Goizeko seietan zen lehen meza, eta ordurako orriz beteta geneukan elizpea. Alamedan ere zabaltzen genuen, eta zenbait pasealekutan (Nuñez et al., 1993, 2, 169 or.).

Uste dut ekintza gotorrak egin genituela, ez gogortasunean baizik oihartzuna izan zutelako. Bat aipatzearren: igual hasten ginen Abadiñon ta joaten ginen Amorebietaraino trenbidetik, bidean jartzen genituen hiru lau bost ikurrina eta baztar guztiek pintatuz. Baina ez ginen lau katu baizik ginen hamar lagun, zergatik horra bildu ziren une hartako inguru haietako adar hori hautatu zutenak (11. ELK.).

Iristeko zailak ziren lekuetan (linea elektrikoetan eta zubietan, adibidez) ikurrinak jartzea zen etakideen eta ETA mugimenduko gogaideen beste zereginetako bat. Esate baterako, ondorengo elkarrizketatuen adierazpenetan ikus daitekeen zeregina.

Orduko hasiak ginauden ikurrinak jartzen tentsio handiko harietan. Hori ere abentura bat da. (...) Zen ekintza bat nahiko arriskatua ta ondo landu behar zena (11. ELK.).

Ikurrinak, esate baterako, zintzilikatu dira hemen errekatik batetik bestera, txirristan ipini ziren (...) eta guardia zibilak ez ziren ausartzen hura kentzen ere, ezin zuten. Eta egunetan han izorratu beharra hura ikusten, izugarritzko ikurrina hor! (2. ELK.).

Barrura begirako jardueretan, berriz, klandestinitate-neurri zorrotzak betetzeaz gain, oinarri sendoa eraikitzeko sareak sortzen ahalegintzen zen ETA. Enbata aldizkariari ETAREN ordezkari batek adierazi ziona izan daiteke horren frogaz:

[1963an] Lehenagoko propaganda ekintzekin segitzen du (...). Aldi berean erakundeak oinarri sendoa izan nahi du: dirua biltzeko eta armak, autoak, etxeak lortzeko sareak sortzen dira (in Nuñez et al., 1993, 2, 300 or.).

ETAren ekintzek, taxuz burutuko baziren, inguruan harreman-sarea eskatzen zuten. Harreman-sare horretan etakideak babesteko konfiantzazko etxeak lortzea zen zereginetako bat. Aizpuruarena da lehendabiziko aipua eta 60ko hamarkadan etakide izan zen elkarrizketatu batena bigarrena:

Ez dakit nor izan zen ere [kontaktatu zuena]. Ikastolan ematen nuen pianoa, bertako ezagunen bidez kanpotar bat hurbildu zitzaidanean, ETArentzat etxeak behar zituztela esanez. Zuzenean euskara bidetik barik, etxeak direla-eta sartu nintzen, bada, ETAn (Aizpuru in Nuñez et al., 1993, 2, 169 or.).

No había, digamos, ni directrices, ni cómo hacerlo, ni cómo juntarlo, ni qué proponer, ni nada; era una cuestión completamente libre y gratuita. (...) Era la gente que más se jugaba el tipo. "¿Tú estarías dispuesto a [esconder] una persona, para poco rato, para un par de días?" Y luego eran un par de meses. (...) Yo me acuerdo, a casa de mi abuela, hicimos meter dos liberados (4. ELK.).

ETAren inguruko harreman-sare hartan ETA erakunderako edo ingururako (mugimendurako) kide berriak lortzea zen beste zereginetako bat. Egiteko hori oso argi ikus daiteke honako aipu honetan:

Kaptazioa inportantea zen, eginkizunetarik bat zen. (...) Ikusten genuen ba hau euskalduna, mutil majua ta (...) ibiltzen ginen usainka txakurrek ibiltzen diren bezela. Orduan galdetzen genion: (...) "badakik Euskaditaz hitz egiten?"; "Euskadi, zer dek hori?". Orduan moztu egiten genuen. Mot de passe esaten dana *Euskadi* zan. (...) Galdetzen bazigun "zer dek hori?" esaten genuen "hau desertuen zegok!" (...) Ikusten badut baietz orduen ba haria

jarraitzen dezu. Hori poliki poliki egiten zan gauza bat da, zergatik ondo zaindu behar da norberaren zera (11. ELK.).

ETAren egiturak babesteko poliziak etakideren bat atxilotzen zuenean, torturaren eraginez atxilotuak poliziarri zer informazio eman zion jakitea zen beste kezka-iturri bat. Halaxe ispilatzen da elkarrizketatu honen diskurtsoan.

[Lagun bat] izan zen kartzelean, gutxi egon zen y me habían mandado a recoger la cantada. Hori ere egiten zen, recoger la cantada. Norbait erortzen zelarik behar zen berari hurbildu eta jakin zer erran zuen [polizia-etxean] (14. ELK.).

Lekuko batzuen aburuz, etakideen eta ETA mugimenduko kideen jardunean nahasi egiten ziren zeregin haiek denak. Denetarik egin behar izaten baitzuten, aldian aldiko beharrei erantzunez. Nazio askapenerako estrategia modu integralean ulertzen zuenez ETAk, militanteen jarduna ere zeregin askoko jardura zen; *militante integralaren* irudia agertzen zaigu hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan. Fronte kulturean jardun zen kide baten aipua da lehendabizikoa, 60ko erdialdean ETAren oinarritzko komando batean sartu zen kide batena bigarrena, eta Arantza Arrutik publikoki adierazitakoa hirugarrena:

Hasten zara gauza batean eta gero dena nahasten da. Zeren, azken batean, langile frontea batetik eta kulturaren frontea, eta gero armaren beste frontea eta hori dena. Zeren hemendik eta handik horrenbeste ere momentu batean ez ginen eta denetik tokatzen da egitea (2. ELK.).

Denetarik egiten genun. (...) Gure artean ibiltzen ginen, ez zen holako organizazio hierarkikorik gure artean, esan nahi dizut gutxi ginelako eta denak ezagututa (6. ELK.).

Kaptazioa, militantzia antolatzea, liberatuentzat etxeak topatzea... Baina denetik egin behar izaten genuen sarritan. Propaganda, faxisten plakak puskatu... Seiscientos-ak "erostera" joan, hots, kotxeak lapurtzea ere tokatu zait batean baino gehiagotan, hori berez nire eginbeharra ez izan arren. Gaez pintadak egitea... Eta gero, hurrengo goizean, noski, monjen ikastetxera eskola ematera (Arruti in Nuñez et al., 1993, 2, 186 or.).

Ekintzak eta gainerako jarduerak egiteko eta koordinatzeko egitura zehazten aritu zen etengabe ETA. Erabakiak hartzeko gunez gain, lehendabizi adarrak eta gero fronteak erabili zituen ETAk I. Biltzarraz gerotik. Militantzia-eredu ezberdinak topatu ditugu elkarrizketatuen lekukotasunetan: batzuen esanetan beraiek ez zuten egitura haren arabera jardun, zenbait lagunek edo ezagunek osatutako komandoetan aritu ziren; beste batzuek, ordea, fronteen antolaketa-egitura nabarmendu dute. 60ko hamarkadaren hasieran eta erdialdean oinarrizko komandoetan jardun zuten bi informatzailereren jardueran ez zuen eraginik izan fronteen egiturak, beraiek adierazi digutenaren arabera.

Lagun taldea ginen eta egiten genitun gure batzarrak. Ta gure batzarretan hartzen genitun geure erabakiak (...) eta hartzen ziren erabakien arabera, egiten genitun gauzak. Sinplea zen, ez zen beste misteriorik. (...) Liberatuak ziren ordun buru genituenak, haiengana denok joaten ginen. (...) Gainera orduen (...) kuota bat pagatu behar zen (11. ELK.).

Frenteka ez [ginen antolatuta] baina bagenituen kontaktuak Komite Ejekutiboan ordezkariekin liberatuen bidez. (...) Eta bagenekien zer zen kanpaina eta *Zutik* banatzen genuen, ofiziala. Esan nahi dizut korrientean ginen (6. ELK.).

Beste elkarrizketatu batzuek ETaren fronteren batean antolatuta jardun zutela adierazi dute. Baina fronteetan jarduteak ez du esan nahi militantzia integralaren eredia agortu zenik. Fronteen egiturak sarea sortzen zuen: halatan, hainbat

borroka-esparru zehazten zituen baina esparru haiek elkarri lotuta zeuden, ez ziren egitura itxiak. Horren adibide izan daiteke arestiko atal batetik berreskuratzen dugun aipua.

Ni kulturan negon (...) eta hoietako batzuekin [fronte militarreko kideez ari da] euki genuen hartu-emanak nik uste dut Gorbeia bilkuretan ere. (...) Hoiek nahiz ta militarrean sartuta egon baina kulturataz hitz egiten genuen (9. ELK.).

ETA mugimendua ETA erakundetik kanpo zabaltzen zen sarea zen, etakide ez zirenen laguntza ere jasotzen baitzuen ETAk. Esate baterako apaiz askoren laguntza jaso zuen ETAk (aurrerago sakonduko dugu horretan). Hurrengo bi aipuak dira horren lekuko:

Arantzazun egin gendun [bilera] zergatik lekua uzten digutenak badakizu nortzuk ziren! (11. ELK.).

Ni [apaiza] orduan Gernikan bizi nintzen eta laguntzen nien batzuetan ETAkoei, baita ere papera gorde eta (10. ELK.).

Kontuak kontu, beste erakunde batzuetako kideen laguntza ere jaso zuen ETAk. ETAREN ekintza-jarduerak eskatzen zuen sarean parte hartu zuen, esate baterako, EAJko, Enbatako, eta beste hainbat erakundeetako jendeak. Hurrengo bi aipuetan modu oso esanguratsuan adierazten dute hori lekukoek. Hirugarrena Arrutirena da.

Ez da derrigor ETAKoa baina ETAKo jendeari ere lagundu egingo diona eta lagundu etxean hartuz eta abar. ETAKo jendeari lagundu EAJko jendeak egin dio hasierako urteetan (...) ekonomikoki ere bai (10. ELK.).

Enbatan nintzen bainan laguntzailea ekintzetan. Kotxe gidatzailea eta haiekin [etakideekin] hartu-emanak banuen (14. ELK.).

JIC, JOC, Antonianas, Hijas de Maria... denengana jo beharra izaten genuen, horrela baitzegoen antolatua herriko gaztedia (Arruti in Nuñez et al., 1993, 2, 186 or.).

Bareñoren azpiko lekukotasunaren arabera, Enbatako kideekin eta beste erakunde batzuekin harremana izatea zen etakide gisa zuen zereginetako bat. 1963an poliziaren sarekada batetik ihes egin ondoren, ETAk Zutik kopiatzen zuen bulegorako liberatu zuen uneaz ari da:

Zutik atera, Ordezkaritzetara idatzi [atzerriko ETAREN ordezkaritzez ari da], Enbata eta abarrekin harremanak mantendu... eta abar. Horixe zen nire egunerokoa (in Nuñez et al., 1993, 2, 198 or.).

ETAren ekintza-sortan armen erabilera txikia zen oso artean 60ko hamarkadaren lehen urteetan. Hurrengo aipua oso esanguratsua da.

Joan ginen ikurrina jartzera ta tiroka urten genuen zergatik goardia zibilak (...) han zeuden. (...) Bueno alto ta gero tiroak klaro! (...) Guk ez genuen armarik eta ezer! Beno, beno, gero etorriko dira armak ere askoz be geroago! (11. ELK.).

II. Biltzarrean (1963) Hirugarren Munduko ereduak Euskal Herrian ezarri eta borroka armatua aktibatu nahi zuen taldea indartu zen ETAren barruan. Eragin handia izan zuen Vasconiak (1963) horretan. ETAren komando batzuk armak eta dinamita erabiltzen hasi ziren orduan. Horixe da, adibidez, 1963an Ipar Euskal Herrian gordeta zeuden etakideen egoera; Bareñoren testigantza erabiliko dugu berriro (lehendabiziko aipua). Bigarrena 60ko hamarkadaren erdialdera Hego Euskal Herriko oinarritzko komando batean jardun zen elkarriketatu batena da.

Orduan bai eman zigutela arma-ikastaro ederra. Jon Ozaeta Gautxo izan zen etxalde batera eraman gintuena, eta iraultzari buruzko hitzaldi teorikoen

ondoren, Landetara, gidatzen ikastera, pistola eta metrailetarekin entrenatzera. Tiro gutxi, egia esan, ez baitzegoen bala askorik eta (in Nuñez et al., 1993, 2, 197 or.).

Gero hor gertatu zen, abiadura hortan, erakundea bera ere beste maila bateko ekintzak egiten hasi zen: diru biltzeak, bonbak, eta abar. (...) Baziren beste komando batzuk, gero ezagutu ditudanak, beste maila batean ari zirenak. Baina gu ez ginen maila hortan, guk garai hartan ez genuen bonba bat ipini sekula! Tiroa bota bai baina trapu batekin! (11. ELK.).

Horrenbestez, propagandarako ekintzak egiten segitu zuen ETAk baina, aldi berean, ekintzak indartzen segitu zuen. 1963 amaieran eta 1964 hasieran (1963ko urriko atxiloketen ondoren) bost ekintza egin zituen erakunde armatuak dinamitarekin: hain zuzen, erregimen frankistak Hego Euskal Herrian zituen hainbat gune eraso zituen. Etxean prestatutakoa ez zen lehergailua erabili zuen lehendabiziko aldiz. Polizia-operazioek erakundea praktikoki deseginda utzi zuten arren, ETAREN azken hilabeteetako jarduera hazkorrari esker gero eta erreferentzia handiagoa lortu zuen herriko hainbat sektoretan (Casanova, 2007, 43 or.).

III. Biltzarrean (1964ko martxoa eta apirila) iraultza gerraren printzipioak onartu zituen ETAk *La insurrección en Euzkadi* koaderno bere egin zuenean. Iraultzaren osotasunari eutsiz, lau fronteen egitura nabarmenagoa da orain eta halaber hermetikoagoa. Segurtasunaren argumentua erabiltzen dute hainbat elkarrizketatuk hermetikotasun hori zuritzeko.

Garai hortan ETA zen gauza bat lau adarrekin: politikoa, militarra, obrera y cultural. (...) Lau adar ziren baina ez ziren nastekatu behar edo ahal bezain gutxiago; por la cuestión de seguimiento. Eta zuk nahi bazinuen hartu-eman bat ukan, eman dezagun, con los obreros de Alava, tenías que venir al centro. (...) Ez genuen egiten ahal hori transversalmente [barrez]. Eta orduan ni

gehiago militarrekin nintzan garai hortan. (...) Lagunekin ere ez zinen hortaz mintzatzeko ahalporque ekintzak ez dira partekatzen! (14. ELK.).

III. Asanbladaren ondotik egin ziren fronte hoiek ta etorri zitzaigun arduradunak [galdetu zigun] guk nun nahi genuen lana egin: fronte politikoan, kulturean edo militarrean. (...) Gu sartzen gera (...) fronte militarrean ordena zehatzarekin: honetxekin bakarrik eta beste inorekin ez [izateko harremanik]. Gu diziplinatuak ginen! (11. ELK.).

ETAko ordezkariak ere diziplinaren alderdia nabarmentzen du Enbatak 1968an egin zion elkarrizketan. Kazetariak etakideen lan metodoez galdetzen dionean honakoa erantzuten du:

ETAko militanteek bi baldintza bete behar dituzte militante izateko: ETaren ideologia onartu eta erakundearen diziplinara makurtu (in Nuñez eta al, 1993, 2, 302 or.).

Egia esan, fronte militarrek ez zuen izaera *militar* handirik izan 60ko hamarkadaren amaiera arte. Fronte militarren zeregin nagusia ikurrinak jartzea, pintadak egitea eta panfletoak botatzea izan zen ordura arte. Ondorengo elkarrizketatuak dinamika horren berri ematen digu.

Militarra, militarra nahiko kaxotx artean jarriko duzu. (...) Ordun zer zan militarra? Militarra zen ordura arteko ekintza ttipi horiek egiten jarraitzea, hobeto ta maizago, bistan dena (11. ELK.).

Nolanahi ere, eta ordura arte armak etakide eta komando gutxi batzuen esku zeuden arren, pixkanaka, zabalduz joan zen gainerako komandoetan ere. Nahiz artean arma gutxi izan, dena esate aldera. Hurrengo aipuan elkarrizketatuak argi adierazten du egoera hura:

Egia da orduan hasi ginela lehendabiziko armak hunkitzen baina ziren... hau museo bat zen! Pistola bat bi balakin ta bestie hiru t'erdirekin. (...) Oroitzen naiz ondo pistola fundamental bakarra zen *Luger* bat alemanen gerra garaikoa, bederatzi luzea; gero bi *Stein* Likinianok eta konpainiak erabilitakoa gerra denboran. Orduan ekintzak egiten genituen, bai egia da, armatuta baina zan... (...) Hamabostean behin egiten genuen ekintza on bat ta hurrengoko aste hondarra izaten zan hitz egiteko ta aterrizatzeko ta abar (11. ELK.).

Gure garaian ez zen armarik. Oinarriko militante ginenean, armak bueno... Baziren bospasei pistola hortik! Eta acciones especiales eta horiek erabilitakoak. Guk holakorik ez (6. ELK.).

Nazio askapenerako estrategia modu integralean ulertzen du ETAk eta ekintza armatua gerra iraultzailearen faseetako bat besterik ez da; baina fase garrantzitsua, hori bai. Estrategia horretan aurreko faseak burutu ondoren, eta ez aurretik, dator ekintza armatua. *Vasconiaren* eragina handia izan zen gerra iraultzailea praktikan jartzerakoan; eta, inondik ere, etakideen artean hausnarketa eragin zuen. Bareñoren lekukotasuna izan daiteke horren adibide.

Garai hartan argitaratu zuen Krutwigek liburu famatua, *Vasconia*, eta han planteatzen zen gerra iraultzailearen gainean zebilen gure orduko debatea. Lehen urratsa, herriaren aurrean aurkeztea zen; jarraian, aurkeztutako horrekin herria identifikatzea, abertzaletasuna, askatasuna, zazpiak bat, akonfesionaltasuna, independentzia... ideia nagusi hauek azalduz propagandan; eta azkenez ekintza armatuetara pasatzea, aurreko lan guztia egin ondoren. Hori guztia zen beharrezko "arraintxoak uretan bezala mugitu ahal izateko", Maok esana aipatuz (in Nuñez et al., 1993, 2, 196 or.).

Gerra iraultzailea Euskal Herrian aplikatzerakoan zailtasunak izan zituen ETAk; *La insurrección en Euzkadi* koadernoan eredu hartu zituen Vietnamgo eta Aljeriako

esperientziak oso bestelako testuinguruan gertatu baitziren. ETAREN sortzaile baten aipuak argi laburbiltzen du desoreka hori, eta horrekin batera gerra iraultzaileari ETAK gehitu zion nazio ikuspegia azpimarratzen du:

Horren huts nagusia (...) izan zen Vietnam edo Aljeria bezalako herriak besterik gogoan hartu gabe transposatzea Euskal Herriaren [baldintzetara]. (...) Ikasitakoak ipini (...) Azpeitia batean, Durango batean edo Errenterian eta, noski, ez zen hori batere. Bazen, hala ere, garrantzitsua zeren eta (...) horren edukia goitik behera abertzalea da, euskal abertzalea erran nahi dut. Eta (...) ateratzen den espiritua da "zernahi egin herriaren alde!" (...) Alde horretatik, teoriak behintzat, 1960tik gizaldi oso baterako izan zen apur bat ebanjelioko liburua (3. ELK.).

Armen erabileraren inguruko eztabaidak segitzen zuen 60ko hamarkadaren erdialdera erakunde armatuaren barruan. Eztabaidak badu oihartzunik etakideen jardunean eta hausnarketetan. Fenomeno hori oso argi ikus daiteke honako bi hauetan:

Iluntze batean etorri ziren ikaratuta bi mutil [apaizen etxera, 64aren bukaeran]. (...) Ari ziren pareta batzuek pintatzen eta guardia zibilak tiroteatu egin zituen. (...) Ihes egin zuten (...) eta niregana etorri ziren eta gaua han berriketan, kontsolatzen. Dardarka zeuden biak eta haietako batek (oraindik ez zuten armarik erabiltzen), (...) hori gelditu zitzaidan buruan, nola esan zuen: "mira pase lo que pase, ;yo no me deajo matar como un conejo!". Eta zen yo tomo las armas. Ordurako, ebidentemente, ETAREN barruan armen eztabaida zabaldua zegoen baina denek ez zeukaten oso garbi nondik joan beharko zuen (10. ELK.).

Gabetan lo egiten genuen beti kobazuloren baten edo bordan baten, oihanean berdin, beti egoten zan bat guardian. (...) Goizeko azken guardia tokatu zitzaidan, (...) ikusten nuen egunsentia etortzen eta nere barruan

esan nuen: "ez dago Euskal Herria askatzerik holako jolasekin". Holako zerbait sentitu nuen, sentitu ez, pentsatu egin nuen! Euskal Herria askatzeko borroka benetakoa egin beharko da! Baina hori ez sentitu baizik halaxe pentsatu nuen: "azaltzen zaidak orain hiru guardia zibil ta zer egiten diat?" Ez ginauden prest borroka egiteko! Hori zen barruen zebilena. Une hartan hori pentsatu nuen: hemen benetako borroka egin beharko da (11. ELK.).

ETAren barruko lehendabiziko bereizketan, ETA eta ETA-Berriren artekoan (1966), borroka armatuaren erabilera ere eztabaida-gai izan zen beste gai batzuen artean. Elkarrizketatu honen adierazpenek desadostasun haren berri ematen digute:

Gero hasten dira holako kritikak esanez aktibismoarekin desbideratuta, azkenean bakarrik hori pentsatzen genuela. Hori hasten da (...) ETA Berrirekin 66an. Beraz, horiek proposatzen dute bide berri bat: ez armaz egindako enfrentamendu intsurrekzionala, (...) baizik eta beste bide bat boterea lortzeko gizarte demokratikoan. Hor finkatzeko (...) baina benetan masen gainean, klase langilearen gainean baina indar harreman berri bat iraultza sozialista egiteko. Eta hor bada militarismo stalinistaren kritika bat guk momentu horretan egiten ez genuena (6. ELK.).

V. Biltzarraren bigarren zatian (1967) ETAk onartu zuen estrategia politiko militarrean iraultzaren integritasuna berretsi zuen: alegia, ETAren helburu bikoitza (nazio askapena eta askapen soziala), fronteen arteko artikulazioa eta herritarren parte hartzea. Hala hautematen da hainbat elkarrizketaturen mintzoetan, segidan aurkezten dugun honetan adibidez.

67an udaberrian egin zen ETAren V. biltzarra eta V. biltzar horretan egiten da ja estrategia politiko militarra gaur arteraino egindakoa. Hortxe kokatzen da nola herri bezala ezin garen askatu bakarrik naziotasun mailan, baizik eta sozial mailan. Orduan, ezinbesteko zela izatea abertzalea baina baita ere sozialista. Bi aldeak zirela txanpon bakarra. (...) V. biltzarrean erabakitzean

hori lau frentek onartzen dira eta aurkezten dira: frente kulturala, frente ekonomikoa deitua, frente militarra eta frente politikoa (2. ELK.).

Baina 60ko hamarkadaren amaieran etakide izan zen elkarrizketatu batek zalantzan jartzen du fronteen egiturak praktikan zuen eragina. Gorago aipatu dugun egoera azpimarratzen du berak: hau da, bere jarduera zeregin askokoa zela, ez zegoela egitura bakar eta garbi batean kokatua.

Yo hacía como de todo, que es lo que hacía todo el mundo. Las cosas no eran tan estructuradas aunque existían frentes y todas esas cosas. (...) Dar una información exhaustiva y precisa de cómo le pueden zumbiar a [alkate jakin bat], que no era cualquier cosa por ejemplo; recoger a gente que andaba; infraestructura; llevar dinero de un lado a otro, de todo (4. ELK.).

60ko hamarkadako ETAREN jardueran urte gutxitan egoera asko aldatu zela nabarmentzen duen diskurtso bat aurkitu dugu hainbat elkarrizketatan. Ondoren aurkezten ditugun aipuetan, adibidez, elkarrizketatuek gertaera politikoek eta ETAREN ekintzek hartu zuten abiadura azaltzen dute.

Gero hor gertatu zen, abiadura hortan erakundea bera ere beste maila bateko ekintzak egiten hasi zen. (...) Abiadura haundia hartzen du erakundeak berak ere (...) dana oso abiadura handien joaten baitzen (11. ELK.).

Pintadas ya no se hacían, estaba superado, ¡eso era una tontería! Totalmente. En ETA se corría mucho en ese sentido (4. ELK.).

V. Biltzarraren bigarren zatia egin eta urte eta erdira ETAREN estrategiaren bilakaeran, oro har, eta ETAREN armen erabileran, zehazki, funtsezko aldaketa ekarri zuen gertaera jazo zen: izan ere, 1968. urtea inflexio puntua izan zen ETARENTZAT. Ekainaren 7an Xabier Etxebarrieta Ortizek (Txabik) Jose Pardines Arcay guardia

zibila tirokatu eta hil zuen Billabonako kontrol batean. ETAREN lehendabiziko hildakoa izan zen Pardines. Ordu batzuk beranduago, guardia zibilak Txabi tirokatu eta hil zuen Tolosako Benta Haundiko bidegurutzean. Poliziak hildako lehendabiziko etakidea izan zen Txabi⁴¹¹ (Casanova, 2007, 95-97 or.). Esan gabe doa, zirrara handia eragin zuela Txabiren hilketak ETA mugimenduan eta Euskal Herrian. Segidan aurkezten dugun aipuan elkarriketatuak modu oso argian azaltzen du hori.

La muerte de Txabi Etxebarrieta (...) es el punto de inflexión. La clave no en mí solo, sino en una mayoría de gente. (...) ;Es que matan al hombre más importante de la organización, al primero! Entonces lo que sí hacen es todos los domingos a partir del 7 de junio, que es cuando le matan a este chaval, ;es que era un niño de 23 años! Todos los domingos hacen misa en Lekeitio ;hasta no sé cuándo! Y quieras o no es un elemento de cohesión y de tal, y a partir de ahí es masiva la entrada de gente joven en ETA. (...) Es un movimiento que se genera espontaneo a partir de ahí porque hay latente pues yo que sé un sufrimiento, una opresión, un sin vivir (4. ELK.).

ETAREN iraultza-gerraren gaineko ideia batzuek garrantzi handia hartu zuten 60ko hamarkadaren bigarren erditik aurrera. Esate baterako, borrokaren eta herriaren artean ETAK etengabe egiten duen loturak. Eta berretsi egin zen gero praktikan iraultza-gerraren printzipio hura; izan ere, ETAREN borroka babes sozial eta herriaren onarpen handia eskuratu zituen. Francoren kontrako mugimenduaren abangoardia irudikatu zuen, nolabait, 60-70eko hamarkadetan. Elkarri lotutako bi kausa aipa genitzake ETAREKIKO sinpatia handitze hori azaltzeko: errepresio frankista, batetik, eta ETAK errepresio harekin koherentea zen estrategia hartu izana, bestetik (Jauregi, 1981; Perez-Agote, 2008; Muro, 2008; Jeram eta Conversi, 2014). Ideia hori sumatzen da Arrutiren lekukotasunean (lehendabiziko aipua); baita elkarriketatu baten mintzoan ere (bigarren aipua).

⁴¹¹ Ikus Txabiren hilketaren ondoren ETAK argitaratu zuen *Zutik* alea: *Batasuna, askatasuna, indarra* (*Zutik* 49, Hordago, 1979, 7, 259-265 or.).

Garai antifrankista hartan ez zen hain zaila jendea biltzea. Nahikoa erraz egiten zen jendea ETAREN laguntzaile. Hori bai, ez zaio eskatu behar bakoitzari bere ahaletik gain dagoenik (Arruti in Nuñez et al., 1993, 2, 186 or.).

Castro eta horiekin, nolabait, (...) [aldatu egin zen] armen irudia eta (...) hau oso inportantea da ze lehenago gutxi batzuek armak hartu edo atentatu bat eginda ere, onarpen sozialik ez zuten. Eta denborarekin... Klaro, gero kasu konkretuek ere lagundu egin dute, ze torturatzailerik bat Meliton Manzanos edo, zaila da kontra egotea (10. ELK.).

ETAREN onarpen soziala ulertzeko gakoetako bat argitasun handiz formulatu berri du elkarrizketatu honek: zehazki Hirugarren Mundua deitutako eremuko ereduaren eragina aipatu du. Zehaztasun handiagoz azaltzen du azpiko aipuan kanpo erreferentziarik ETAREN bortxaren legitimazio sozialean izan zuten eragina:

Armen beldurra eta gerraren oroimena, nik uste nolabait, gutxitzen joan dela kanpoko erreferentziarik handitzen joan direnean. Eta horretan Castroren influentzia eta Aljeria izugarri inportantea izan da, ikusten da armaz garaitu litekeela. Posible dela eta halako esperantza bat edo gutxienez armen legitimazio modu bat, altxamenduaren holako gauza bat deskubritzen joaten da jendea. (...) Evidentementean, ETAKO gutxi batzuk erabakiko zuten armak hartzea baina beraien onarpena jendeak onartu eta ulertu ahal izatea, kanpoko ereduak eman dute (10. ELK.).

Usteak uste, ETAREN bortxaren erabileraren onarpen soziala EAJko sektore batzuetara ere zabaldu zen. Hala sumatzen da hainbat elkarrizketaturen iritzisortan, segidan aurkezten ditugun bi hauetan adibidez:

ETA era un poco el Robin Hood. La gente cuando había algo, una ikurriña puesta en la antena de una iglesia, un petardito, la propaganda armada que se solía realizar, aquello era como un desfogue, un tubo de escape. La

impotencia era tan grande que cualquier cosa que se hiciera era un respirar. El PNV sociológico, no dirección, también respiraba aquellos aires (16. ELK.).

Nik uste dut gertatu zela (...) geure barruan bi mundu batera bizi direla. Alegia, gerra galdu zuenak, nolabait, nekez biolentziaren kondena total bat egin zezakeen, ze (...) biolentzia armatu baten biktima bat zen bera. Bestetik, kristaua zen eta, beraz, bere tradizioan ez zegoen matxinada edo holako gauza bat; eta, batez ere, dudagarri ikusten zen abentura baten alde ez zegoen. (...) Ezagutu ditut pertsona horiek, erabat bortxaren kontra zeuden baina ETAk ekintza bat egin eta guardia zibil bat hiltzen bazuen pozten ziren ez dakit noraino. Eta ez guardia zibila hil zutelako baizik erreakzio bat ikusten zutelako, badator zerbait (...) eta, beraz, ez da erabat galdu! (10. ELK.).

Urte batzuk beranduago hasi zen ETAREN barruan borroka armatuaren erabileraren gaineko eztabaida handia; ETA V eta ETA VIren arteko zatiketean (1970) eragina izan zuen. 70eko hamarkadan borroka armatuak indarra hartu zuenean borroka-metodoen arteko koordinazio eta koexistentzia arazoak sortu zitzaizkion ETARI (Apalategi, 1985, 203 or.).

Laburbilduz, esan genezake, Hego Euskal Herriko eta munduko testuinguruak eragin handia izan zuela ETAK hartu zuen bide iraultzailean. Garai berean Europan eta Espainiako Estatuan aktibo ziren talde iraultzaileen eragina izan zuen, batetik; frankismoaren errepresio giro ikaragarriak⁴¹² ere asko baldintzatu zuen ETAREN jarduera, bestetik; eta Hirugarren Mundua deritzan eremuko zenbait nazio kolonizaturen nazio askapenerako borroken eragina ere oso handia izan zen (Jauregi, 1981, 195 or.).

⁴¹² Rocher-ek dio erregimen totalitarioen lehendabiziko jokaera jendarte mugimendu inkonformistak, eta etorkizunean hala izan litezkeenak, likidatzea izaten dela. Mugimenduek ezkutuan berriz sortzeko eta erregimena agintetik kentzeko mehatxua egiten dutela (1990, 537 or.).

5. Masa abertzaletasunaren susperraldia eta Fronte Abertzalea

1936ko gerrak eten egin zituen gerra aurreko ekimen politiko eta soziokulturalak. Mende laurdena gehienbat geldi egon ondoren, 1964tik aurrera pizten hasi zen berriro Hego Euskal Herriko herri-mugimendua. Hiru esparrutan gertatu zen suspertzea: hurrenez-hurren, euskara eta euskal kultura biziberritzeko mugimenduan, langile mugimenduan, eta masa abertzaletasunean. Hizkuntza, literatura eta kultura eraberritzeko ekimenen emaitza. 1964an hasi zen nabarmentzen (Jauregi, 1981, 273 or.; Letamendia, 1994, 313 or.). 60ko hamarkadaren amaieran ETA mugimenduan ibili zen elkarriketatu batek kultura mugimendu haren indarra azpimarratzen du:

Es el euskara, es el movimiento del Ez Dok Amairu, donde emerge la literatura, la poesía, la música, o sea, un movimiento cultural-artístico muy potente, porque ten en cuenta dónde estaba España... ¡Tela marinera! Ni en el interior, ni en el exilio. Es que [1936ko gerran] se mata mucho, ¡muere mucha gente! (4. ELK.).

Euskaltzaletasunaren agerraldiak asko zabaldu ziren eta Jauregik dio 1964. urtetik aurrera, pixkanaka, herritarrek (gazteek nagusiki) gero eta gehiago hartu zutela parte kulturaren eremuko jardura orotan: hala nola euskal jaien antolaketan, dantza-taldeak osatzen eta prestatzen, antzerki-taldeetan, euskara ikasten, ikastolak sortzen, eta abarretan (1981, 275 or.). 60ko hamarkadaren hasieran ETArekin kultura frontean ibili zen lekuko baten aipuan, adibidez, dinamika horren dimentsioa ikus daiteke.

Ekintza bat oso garrantzitsua izan zen, igual orain zozokeria dirudi baina egin ezazu kontu orduan debekatua zegoen. (...) 64an egin zen Euskal Herri osoko dantzarien bilkura Deban, (...) Euskal Jaia maiatzaren hirugarren igandean. (...) OARGIK⁴¹³ antolatzen zuen. (...) Horko idazkari izan nintzen baina legala

⁴¹³ Organización Artística Recreativa de Gipuzkoa.

zen zeren hori zegoen Gipuzkoa osoan, beti ere elizaren babesean. (...) Hori antolatzen urte osoa eramaten genuen. Joaten ginen herriz herri, dantza taldeak, abesbatzak, harri jasotzaileak, gure gauza guztiak, aizkolariak, albokalariak. Denetik ekartzen genuen (2. ELK.).

Bestetik, ETAREN antolaketa-egitura ere 1964an hasi zen hazten eta, horri esker, masetan (langile mugimenduan) zuzenki eragin ahal izan zuen lehendabiziko aldiz (Jauregi, 1981, 273 or.). 1964an onartu zituen Hirugarren Mundua deritzan eremuko nazionalismoen iraultza-gerraren printzipioak eta nazionalismo eredu hartara, zehazki gerrilla-estrategiara, egokitzeko lehen ahaleginak egin zituen. Diskurtsoan ez ezik, jardueran ere fase berri bati ekin zion ETAK: masei zuzendutako kanpo ekintza politikoa lehenetsi zuen, mugimenduaren barne ekintza politikoaen aurrean ([ikus III.4.6.](#)). Langileen hainbat sailetan eta ekimen zabalagoetan parte hartu zuen ETAK eta, batez ere 1965etik aurrera, nabarmen handitu zen langile borrokaren eremuko ETAREN jarduera.

60ko hamarkadaren bigarren erdian etakide izan zen elkarrizketatu baten diskurtsoak ETAREN jarduera hura iradokitzen du.

En este país, en ningún país de Europa se han hecho tantas huelgas generales políticas. Y era con ETA, era junto a ETA. ETA no estaba al margen de eso (4. ELK.).

Azkenik, ia hiru hamarkadatan indarrrik gabe isilik egon ondoren, 1964an gertatu zen masa abertzaletasunaren egiazko susperraldia (Jauregi, 1981, 273 or.). Hirugarren esparru horretan sakonduko dugu atal honetan.

XX. mendearen lehen hiru hamarkadetan Euskal Herrian zabaldu zen diskurtso eta mugimendu abertzalea ez zen erabat desagertu gerra garaian eta gerra ondoren; baina testuinguru hartan bere adierazpenak oso mugatuak izan ziren. Barealdiaren ostean, erregimen frankistaren errepresioari aurre eginez, Ekinek eta ETAK areagotu

egin zuten ekintza abertzalea eta horrek ezkutuan zegoen sentimendu abertzalea gero eta gehiago azalarazi zuen herrian. ETAREN borroka babes sozial eta herriaren onarpen handia eskuratu zituen (baita EAJren barruko sektore batzuetan ere), Francoren kontrako mugimenduaren abangoardia irudikatu baitzuen 60-70eko hamarkadetan (Jauregi, 1981, 273 or.).

ETAren lehendabiziko urteetan ez zen oso argia ETAren eta EAJren arteko aldea, bien arteko gatazkak eta haustura ez baitziren artean oso ezagunak masa abertzalearentzat. Erakunde batek ala besteak antolatu abertzaleek begi onez ikusten zituzten abertzaletasunaren ekintza edo adierazpen oro. Baina, pixkanaka, Jauregik dio ETAren jarduera askoz ere biziagoa zenez, abertzaleen sinpatia EAJtik ETARA aldatu zela. Euskal Herrian indarra zeukan indar abertzale bakarra izateari utzi zion EAJk eta, horretaz gainera, nabarmen egin zuen atzera ETAren mesedetan (1981, 274 or.).

ETAk prestigioa irabazteko beste bi arrazoi garrantzitsu aipatzen ditu Jauregik. Batetik, nazio aldarrikapena jarrera erradikal batetik egin izana; diktadura frankistari aurre egiteko ETAren erabateko irmotasuna begi onez ikusi zuen abertzale askok (1981, 274 or.). Elkarrizketatu batek adierazi du etxean ETAren lehen ekintzen eta aldarrikapenen berri izaten hasi zirenean, aitak ETAren aldeko jarrera hartu zuela berehala:

Orduan ja 60an aitak berak hartzen du posizioa eta aita posizionatzen da ETAren alde oso garbi, esaten du: "Mutil hauek egiten ari dira egin behar dena!". Izan ere, gerra bukatu eta denak sartzen dira lurpean. (...) Eta ni gogoratzen naiz lehendabizi aurre egin niola aitari: "pintadak egiten ari dira baina, atrako bat zertarako?". "Hori zertarako uste duzu? Gauzak lortzeko dirua behar da!" (2. ELK.).

ETA sektore abertzalean hartzen ari zen indarra ikusita, kezkatu egin zen EAJ eta 1964an bizitu egin zuen bere jarduera. Batetik, EGI gazte erakundea berritzen eta

indartzen ahalegindu zen eta, bestetik, ELA-STV (Eusko Langileen Alkartasuna) sindikatua berregituratzen eta berriro abian jartzen saiatu zen. Ildo horretan, Aberri Egunerako deia egin zuen Gernikan. ETA oso azkar zabaltzen ari bazen ere, arrakasta handia izan zuen EAJren Gernikako Aberri Egunak⁴¹⁴. Bi hilabete beranduago ETAk Debako Jaietan egin zuen kontzentrazio masiborako deiak ere arrakasta itzela izan zuen. Masa abertzaleek begi onez eta gogo beroz hartzen baitzuten ekimen abertzale oro, erakunde batek ala besteak antolatu; sentimendu abertzalea baitzen, orokorki, indartzen ari zena (Jauregi, 1981, 274-275 or.). 60ko hamarkadan ETAREN kultura frontean ibili zen elkarrizketatu baten mintzoak, ETAN sartu aurreko urteez ari denean, egoera hura marrazten du:

Hor ja [koral batean] abertzale giroan ginen eta gero joan ginen Aberri Egunetara. (...) Lehena joan ginen Gasteizera. Ze giroa, beldurtzekoa! (...) Dena poliziaz beterik, korrika, ez dakit zer... Abentura bat izan zen, hori izan zen nere enfrentazio lehena esango genuke, hola direktoa. (...) Bistan dena, PNVk organizatzen zuen hori (9. ELK.).

1964ko Aberri Egunaren eta Debako Jaiaren arrakastaren giltza Euskal Herrian gertatzen ari zen kontzientziazio-prozesu zabalean zetzan, abertzaletasunaren balioa handitzen ari baitzen. Ikastolen fenomeno ere masa abertzaletasuna suspertzearen ondorioa izan zen. Euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna indartzearen ondorioa (Fernandez, 1994; Mateos, 2000; Amurrio, 2004).

Jauregik dio ETA izan zela kontzientziazio prozesu haren sustatzaile nagusia. Ordura arte indar handia izan zuten oposizioko erakunde batzuk krisi-zantzuak sumatzen hasi ziren; batez ere, Euskal Herrian oso indartsuak ziren JOC, JIC eta Herri Gaztedi bezalako ekintza katolikoko gazte taldeak. ETAREN eragin indarra ikusita, frankismoaren kontrako indar politiko, sindikal eta sozialek kontuan hartu behar

⁴¹⁴ Jauregik dio Gobernu espainiarrak jarritako zailtasunak zailtasun, milaka pertsona hurbildu zela Gernikara eta gerra ondoko lehendabiziko masa kontzentrazio handia izan zela EAJren 1964ko Aberri Eguna (1981, 274 or.).

izan zuten ETAREN fenomenoaren beren estrategia eta jardueraren plana zehazterako garaian (Jauregi, 1981, 275 or.). 1966ko udan adibidez, *Gipuzkoako Behin-behineko Langileen Batzordearen* sorreran parte hartu zuen ETAK. Horren adibide izan daiteke arestiko atal batetik berreskuratzen dugun aipua.

Gipuzkoan egiten da la *Comisión Obrera Provisional de Gipuzkoa* (...) eta hor ETAK parte hartzen du. (...) Alde nazionala sartzen da langileen elkartearen zeretan (6. ELK.).

Hurrenez hurren, 1964an Gernikako EAJren Aberri Eguna babestu zuen ETAK, Debako kontzentrazioa deitu zuen, halaber Bilboko maiatzaren 1eko manifestazioan parte hartu zuen, eta Gasteizko hainbat eraikin publikotan lehergailu bana jarri zuen. ETA jendartera *ateratzeko* ahaleginean zebilen; jarduera eta ekintza haiek argi erakusten dute herri-masetan eragiteko helburuan pausuak ematen ari zela (Letamendia, 1975, 308 or.). Horregatik argitaratu zuen 1964ko urtarrilaren 1ean Euskal Herriari zuzendutako bere lehendabiziko manifestua: *Euskal Herria'ri ETA'k Dei* (*Manifiesto de ETA al pueblo vasco*) agiria (Hordago, 1979, 3, 196 or.). Eta horregatik izendatu zuen bere burua *mugimendu*. Gorago aipatu dugu ETAREN kezka edukiz jantzitako erresistentzia-mugimendu abertzale moderno bat egituratzea zela. Izan ere, aberria askatzeko zeregina ez dagokio alderdi politiko bati mugimendu abertzaleari baizik. Aberriaren aldeko borroka ez da jarduera politiko hutsa, Nazio Erresistentziarekin lotutako eginbehar zabalagoa da.

Halaxe berretsi digu ETAREN sortzaileetako batek, Euskal nazio askapenerako mugimendua sortu nahi zutela.

Bai mugimendu bat Libian edo Aljerian egon den bezala, horrelako gauza bat (5. ELK.).

6oko hamarkadan kulturaren esparruan jardun zuen militante batek ere ETAREN inguruko mugimendua aipatu du behin baino gehiagotan. Hor kokatu du bere burua:

Gu ETAN mugimentuan ginen, (...) nola ETAKo mobidan genbiltzen. (...) Hastapenean ETAKoa izatea zen militante izatea. Eta gero, klaro, ekintza militarrek jartzen zituztenak batzuk ziran baina ETA mugimentu zabala zan. Zabala zan, politiko-militarra eta kulturala (9. ELK.).

Masa abertzalean eragitearekin batera, elitean ere eragin nahi izan zuen ETAK ([ikus III.4.11.](#)). ETAREN diskurtsoan hasieratik gai iraunkorra izan zen arren, 1964an iraultza-gerraren printzipioak onartu ondoren, garrantzi handia eman zion berriro Fronte Abertzalearen ideiare; eta behin baino gehiagotan saiatu zen indar abertzaleak elkartzen⁴¹⁵. 1964ko martxoan egin zien lehendabiziko deialdi publikoa ETAK gainerako indar abertzaleei mahai inguru batean parte har zezaten. Abertzaleen arteko desadostasunak leuntzen saiatzea eta Euskal Herriaren aldeko borrokan koordinatzea proposatzen die ETAK (ikus *Zutik* 19an ETAREN buruzagitzak sinatutako *Hacia un comité coordinador de resistencia vasca* idatzia, Hordago, 1979, 214-216 or.).

Idatzi horretan ETAK dio aurretik bizpahiru aldiz saiatu dela EAJrekin bat etortzen, eta indar abertzale guztien artean Euskal Erresistentzia Koordinatzeko Batzordea⁴¹⁶ sortzea proposatu diola. Isidro Monzon⁴¹⁷ izan zen bi erakundeen arteko bitartekaria. ETAK dio EAJk ezetz erantzun ziola bi erakundeen arteko harreman gaiztotua zela eta borrokan (Hordago, 1979, 3, 215 or.).

1964ko ekainean hiru erakunderekin bildu zen ETA: Enbata, Iratxe eta Euzko Mendigoxale Batzarekin (Jagi-Jagi zaharra). Topaketa haietara gonbidatu zituen

⁴¹⁵ 1965eko apirilera *Zutik* 28an indar abertzaleak elkartzeko egin zituen saiakerak aipatzen ditu ETAK (Hordago, 1979, 3, 477 or.).

⁴¹⁶ Comité Coordinador de Resistencia Vasca.

⁴¹⁷ Telesforo Monzon zenaren anaia.

beste hiruk huts egin zuten: EAJk, EAE-ANVk eta ELA-STV⁴¹⁸. Bilera batzuk egin ondoren, baztertu egin zuten ekimena (Hordago, 1979, 3, 477 or.). Dena dela, Bareñoren lekukotasuna baliatuz esan genezake bilkura haiek oso aberatsak izan zirela abertzale batzuentzat.

[1964an] Euskal Fronte nazionala eratu nahian genbiltzan, eta oso gustura joaten nintzen bilera haietara. Telesforo Montzon baitzegoen han, baita Enbatako jendea, ANVko Zumalabe, Jagi-Jagiko Eli Gallastegi, bere semetzat hartzen gintuena, Arrasateko Likiniano, Irungo defentsan erabilitako metraileta batzuk, orduetik gorderik zituenak, eman zizkiguna, begiak malkoz bustirik, Lezo, gerra denborako kontrabandistarik onena, Mixel Labegueri, bere kantengatik hain miretsia genuena... (Nuñez et al., 1993, 2, 198 or.).

1965eko Aberri Egunaren harira, ETAk berriro gonbidatu zituen elkarrekin solas egitera huts egin zuten indarrak (ikus *Zutik* 28, in Hordago, 1979, 3, 477 or.). Erantzunik jaso ez zuenez, 1965eko uztailean berriro gonbidatu zituen alderdi abertzaleak:

Cuanto más esfuerzos hacemos por alcanzar la unión de las fuerzas vascas, más violentamente reaccionan los imperialistas para dividirnos. (...) Este convencimiento nos lleva a renovar desde aquí, el llamamiento a TODAS las Organizaciones patrióticas. Llamamiento al diálogo sin condición previa (*Zutik* 31, in Hordago, 1979, 3, 522 or.).

Gonbita bakar batek ere ez zuen esperotako fruiturik eman. Fronte Abertzalea osatzeko ahaleginak porrot egin zuen arren, 1964tik aurrera, ikaragarri suspertu zen abertzaletasuna. Inori ekartzekotan ETArri ekarri zion onura gehien gainera, izan ere, 1964. urtearen hasieratik handia izan zen militanteen emana eta 1966. urtearen

⁴¹⁸ ELA-STV^k bertaratu ezina adierazi zion ETArri. Sindikatua izanik, eztabaida politiko batean ezin zuela parte hartu adierazi zuen (Jauregi, 1981: 278). Eta EAE-ANVko kide batzuek bere kasa hartu zuten parte (Nuñez et al., 1993, 2: 198).

amaierara arte segitu zuen militante berriak hartzen. Bilera haiei esker, *Iratxe* mugimendu nafarrak eta ETAk bat egin zuten 1965eko urtarrilean. Iratxe taldeak Nafarroan jarduten zuen 1963az geroztik eta ETAREN tankera bereko jardura politikoa egiten zuen (pintadak, propaganda banatu, sinbolo frankisten kontrako erasoak egin eta *Iratxe*, *Revista Libre Navarra* aldizkaria argitaratu. Jauregik dio garai hartako abertzaletasunaren garapenaren adierazgarri argia dela Iratxe taldea eta, aldi berean, ETAREN eta EAJREN arteko hegemonia-borrokaren erakusgarri ona ere bai. Izan ere, biek zuten begiz jota Iratxe taldea baina, ETAk bultzatu zuen elkarlanari esker, ETAN sartzea erabaki zuen talde nafarrak⁴¹⁹ (Hordago, 1979, 3, 477 or.; Jauregi, 1981, 278-279 or.).

1968an V. Biltzarraren ondoren, ETAk abertzaleen batasunaren aldeko diskurtsoari eusten zion artean. Modu argian azaldu zuen batasunerako helburu hura ETAREN ordezkariak *Enbatak* egin zion elkarrizketan:

PNV eta gainerako indar nazionalistei⁴²⁰ dagokienez, ETAk uste du benetako borroka nazionalistan ari diren euskal herriaren sektoreak ordezkatzeko dituztela eta, estrategia eta ideologia desberdintasunen gaineratik, gurekin hainbat amankomuneko puntu badituztela. Instituzio zaharkitua den Euzko Jaurlaritzaren ordezkariak, ETAk eskaini eta eskatu egiten du, egun abertzale diren guztien batasun berria (Nuñez et al., 1993, 2, 301 or.).

Abertzaleen elkarlanerako hiru printzipiotako programa⁴²¹ bat ondu zuen ETAk. V. Biltzarraren bigarren zatian (1967) onartu zuen ETAk programa hura, fronte

⁴¹⁹ Ikus EAJko Nafar Buru Batzarrak 1965eko otsailan idatzi zuen txostena: *Informe sobre la Actuación de ETA en Navarra*. EAJk Iratxe bere eragin-eremutik urruntzeak eragiten zion kezka adierazten du bertan (Jauregi, 1981, 279 or.).

⁴²⁰ Aipatzen ditu PNV, ANV, Jagi-Jagi, EGI, ELA-STV, ELA berri, *Eusko Deya* eta Euzkadi irratia (euskal gobernuarenak), *Alderdi* (EAJrena), *Gudari* (EGIrena). ANV eta Jagi-Jagiri buruz dio EAJ baino ezkererago daudela. EGIri buruz EAJren menpeko gazte mugimendua dela baina gero eta aktibistagoa dela eta aipatzen ditu: pintaketak, ikurrinak, panfletoak, salatarien dendak ere erre egin dituztela eta TBko errepikagailuak saboteatu (Nuñez et al, 1993, 2, 301 or.).

⁴²¹ Ikus Txabi Etxebarrietaren *Sozialismoa eta abertzaleen batasuna (Frente Nacional)* artikulua eta Jose Antonio Etxebarrietaren *Batasuna bai* idatzia (Nuñez et al., 1993, 2).

politikoaren estrategiaren baitan. Honela aletzen du ETAREN ordezkariak Enbatako elkarrizketan:

Hauek dira hiru printzipiook: Euskadi batua, euskalduna eta independentea. Fronte politikoak horrez gain Frantziako nahiz munduko iraultzaileekin eta indar antifrankistekin egin beharreko aliantzak ezarriko ditu (Nuñez et al., 1993, 2, 300 or.).

Euskaldunen batasuna urte osoan mantentzeko eta sendotzeko herriz herri eremu kulturalen eta sozialean elkarlanean hainbat ekimen antolatzea proposatu zuen ETAK (Jose Antonio Etxebarrietaren *Batasuna bai* idatzia). Zenbait lekukok ETAK proposatu zituen ekimen haietan parte hartu zutela adierazi digute. 60ko hamarkadaren amaieran etakide izan zen honek adibidez:

Había intentos de hacer cursos. Buscabas gente: "Oye, que voy a organizar...". Yo dinamizaba bastante ese tipo de cosas. (...) Las famosas escuelas sociales y eso, eso existió. En centros parroquiales que se utilizaba el local (4. ELK.).

Horiek horrela, sektore zabaletan errotutako abertzaletasuna elkargune sozial bihurtu zen, jendarte harremanetarako topagune. Mugimendu abertzalean ezarian ezarian sortzen dira komunitate-erakundeak (elkarte-sareak: mendi-taldeak, dantzataldeak eta abar), lagun-sareak, sinboloak, eta abar. Komunitatea da, Gurrutxagaren hitzetan, tradizio abertzaleari indarra ematen diona. Abertzaletasuna, diskurtso politikoa edo kulturala ez ezik, kontzientzia-egitura eta erreferentzia-markoa bihurtzen da naziokideentzat. Erreferentzia-marko hori babeslekua da, segurtasuna ematen du eta aktoreei giza bizitza antolatzen laguntzen die (1996, 123-124 or.).

Gure ikerketari zuzenki ez badagokio ere, diogun hemen 70eko hamarkadan, jendarte mugimenduak indartu ziren hamarkadan, ETAK masa abertzaletasuna artikulatzeko ahaleginean tematuta segitu zuela. 70eko testuinguruan uztardura

hura hiru eremutan gorpuztu zen: hurrenez hurren, borroka instituzionalean, masa borrokan eta borroka armatuan. 70eko hamarkadan ENAMeko kide izan zen elkarrizketatu baten pasarteak hiru eremu haien arteko ehundura azaltzen digu.

Éste es un ejemplo: (...) la interrelación de esos ámbitos [borroka instituzionala, masa borroka eta borroka armatua]. Pero que no sólo se ha dado aquí. Se ha dado en todos los lugares del mundo: en Chile, en Vietnam, en todos los sitios donde ha habido transformaciones, no evoluciones (4. ELK.).

Masa abertzaletasunaren artikulazioak hiru ardatz izan zituen beraz: batetik, politikoa (ETAren jarduera), bestetik, kulturala (euskara eta euskal kultura berreskuratzeko mugimendua) eta, azkenik, soziala (langileen aldarrikapenak). Eta hiru ardatz haiek ETAren abertzaletasun ekintzaileak harilkatu zituen. 1936ko gerra galdu zutenen seme-alabak izanik, erantzunik gabeko galdera asko zituztela sentitzen baitzuten (Gurrutxaga, 1996, 107 or.).

6. ETA mugimenduko emakumezkoen militantzia

Esan dugu gorago abertzaletasun etnikoaren diskurtsoak eta praktikak emakumeak kolektibitatearen eramaile biologiko eta aberriaren amaren sinbolo pasibo bihurtu zituela hasieran. Baina *Emakume Abertzale Batza* erakundea sortu eta emakumeak mugimendu abertzalean parte hartzen hasi zirenean, emakumeen jarduera politikoa bultzatzen hasi zen EAJren diskurtsoa katolizismoak onartutako mugen barruan. Kultura igortzailearen rola lortu zuten emakumeek orduan ([ikus II.3.](#)). Euskal nazioaren eraikuntzan ikastolen ekimenak izan zuen garrantziari esker, gainera, nolabaiteko boterea eskuratu zuten emakume abertzaleek gerra aurreko ekimen abertzalean (Amurrio, 2003, 431 or.).

EAJren barruko tentsio bera identifikatzen du Hamilton-ek ETAn: ETAren diskurtsoak neurri batean *emakumeak* nazioaren sinbolo pasibo gisa hartzen

jarraitzen zuen aldi berean, emakume abertzale *erreak* protagonismo politikoa zuten erakundean eta mugimenduan. Abertzaletasun etnikoaren herentzia jaso zuten ETAk esparru honetan ere; hala ere etengabe mugimendua modernizatu nahiak genero diskurtsoa eta emakumeen praxia aldatzeko aukera ekarri zion. Edonola ere, Hamilton-en ustez lehendabiziko bi hamarkadetan Ekin-ETAk ez zuen tentsio haiek askatzea lortu (2007). Berez, 70eko hamarkadan sortu zen Emakumeen Askapenaren Aldeko Mugimendua Euskal Herrian, Ipar Euskal Herrian lehendabizi eta Hego Euskal Herrian ondoren (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015, 32 or.).

50eko eta 60ko hamarkadetan emakume abertzaleek ETA erakundean eta mugimenduan nolako praxia izan zuten aztertuko dugu atal honetan; emakume haien jokaeran, ahalduntzean eta balioetan jarriko dugu arreta. Eta ETAREN genero diskurtsoak ETA mugimenduko emakumeen jarreran eta beren buruaren irudian zenbateraino eragin zuten aztertzen saiatuko gara halaber. Emakumeen rol sozialei eta militantziari buruzko hausnarketak bigarren mailakoak izan ziren lehen urteetako ETAREN diskurtsoan ([ikus III.4.7.](#)). Edonola ere, Hamilton-ek dio praxia korapilatsuagoa izan zela: hartara, emakume aktibistek ikuspegi konplexuagoa agertzen dute beren identitateaz eta abertzale gisa izan zuten jarreraz (1998, 173 or.).

Elkarrizketatuen biografietatik jaso dugun informazioaren arabera, Ekin taldean ez zen *ofizialki* (Ekinen bilkura *ofizialetan*) ekinkide emakumezkoak izan. Nolanahi ere, kide ofizial ez izateak ez du esan nahi Ekinen jardueran emakumeek parte hartu ez zutenik; 50eko hamarkadaren amaieran Donostiako eta Donostialdeko emakume batzuk taldean biltzen aritu ziren denbora batez. Elkarrizketatu baten hitzen haritik esan genezake emakume haiek Ekineko kideei laguntzen zietela:

Gauza batzuk egiten genitun (...) Aberri Egunian hemengo tipo bati eramaten genion tarta bat ikurriñarekin. Baina hori mutilak [ekinkideek] esaten ziguten guri egiteko. (...) Holako beste agindu txiki batzuk: [ekinkide batek] uzten

zuen hori [ohar bat] hemen (...) eta, gero, handik bi egunetara pasatzen nintzan ni eta jasotzen nun aginduarekin edo kontaktoarekin. (...) Egiten genitun zerbitzu batzuk, hola egin behar zanian (13. ELK.).

Informatzaile beraren arabera, ekintza zehatzetan lagundu ez ezik, beren kasa biltzen ziren liburuak irakurri eta taldean eztabaidatzeko.

Formazio kursilloak batez ere egiten genitun. (...) Argentinan Buenos Airesen Ekin argitaletxeak botatzen zituen liburuak. (...) Irakurtzen genun Ekineko libururen bat eta gero komentatzen genun. Eta gero euskal kantak ere bai, ez genuen ezagutzen letrarik. (...) Formazioan gure herriaren historia (...) eta gero euskera, euskera a tope. (...) Gure ardatzak hoiiek ziran. Gure taldean [urlia, sandia eta berendia] biltzen ginan gure kasa (...) batez ere ikastera. Irakurri ta hitzeitea, besterik gabe (13. ELK.).

Formazio-saioak egiteko Ekineko kideren batekin elkartzen ziren noizbehinka. Segidan aurkezten dugun Ekineko sortzaileetako baten pasarteetan agertzen da dinamika hori:

Lehenengo denboretan ni joaten nintzen Donostiara (...) emakumeen batzar batera. (...) Ez dakit ziren 10 edo 15 neska. (...) Hori izan zen 58, 56an, ETA sortu aurretik Ekin ginenean oraindino. (...) Ni joaten nintzen txarлак ematen talde bateri (5. ELK.).

Edonola ere Ekineko jardueran emakumeek gutxi parte hartzen zutelako azpimarratu du ekinkideei laguntzen aritu zen emakume batek:

Gaurko perspektibekin ikusita oso pobrea zan, bai partizipazioa eta bai emana garaiak ere besteak ziran eta (13. ELK.).

Horren kontzientziarik ere ez zutela esan genezake elkarrizketatu beraren hitzak iturritzat hartuz. Zehatzago esatearren: Ekinen ekintzetan eta formazio-saioetan parte hartu zuten emakumeek ez zutela genero kontzientziarik.

Pentsa, gu hemen ginan Espainiaren menpean (...) eta Espainian bertan ere noiz izan zen emakumearen zera? 31 edo 32an derecho a voto; pentsa zazu ez detela eskatzen gauza handirik! Ordun mentalidade hori guztia hemen zegoen! (...) Gurian zegoen su azpian, ez zela batere nabaritzen; orduan, giro hortan ez zitzaigun bururatzen ere gauza handirik! ;Qué va! Porque Simone de Beauvoir geroztik irakurri genuen oso geroztik, garai hartan ezta... (...) Oso oso mugatuak ginan (...) nire garaian (13. ELK.).

Ekinen urteak utzi eta emakumeek ETAn lehen hamar urteetan zenbat eta nola parte hartu zuten aztertzeko, ETAn bereizi ditugun bi eremuak izan behar ditugu kontuan: ETA *erakundea*, batetik, ETA talde mugatu edo itxi gisa ulertuta eta ETA *mugimendua*, bestetik, ETA erakundearen inguruan antolatutako sare zabal gisa hautemanda. Izan ere, batean eta bestean oso bestelakoa izan zen emakumeen parte hartzea. Lehen begi golpean bietan, ETA erakundean eta ETA mugimenduan, emakumeek gutxi parte hartu zutela iradokitzen du zenbait informatzaileren pentsamoldeak.

Nik erran dezaket emazteak garai hartan guti inplikatzeko zirela (8. ELK.).

Gure herriko taldean ni bakarrik (9. ELK.).

Ibilira naiz ni hemen neska bakarra propaganda ipintzen (2. ELK.).

Baina beste zenbait elkarrizketatuen diskurtsoetan agerikoa da emakumeen parte hartzea sakonago aztertuz gero, bestelako errealitate bat ezkutatzeko duela lehen itxura horrek. Goiko iritzien aurrean beste elkarrizketatu batzuek azaldu dute

emakumeek lan handia egin zutela argi fokuetatik kanpo; *ofizialtasunaren* atzean lan isila egin zutela:

Beste lanak egiten bai, ofizialki kanpoari begira ez. Adibidez ikastoletako lan taldetan ta lanean beti ari ziran. Gero jartzeko ofizialki Seaskako bulegoan eta hori, orduan gutiago (7. ELK.).

Gizonak apropiatzen dira denetaz, hori terriblea da! Emakumeek egindako hainbeste lana eta gero etortzen dira gizonak eta denak han eta hemen. (...) Hori ikaragarria da! (9. ELK.).

Has gaitezen, horrenbestez, ETA *erakunde*an militatu zuten emakumeen militantzia-jarduera analizatzen. 60ko lehen urteetan hasi ziren emakume batzuk ETAko formazio taldeetan eta *ekintzak* egiteko herriko taldeetan parte hartzen. Ondoren aurkezten dugun aipuan, adibidez, elkarriketatuak herriko taldean emakumeak sartu zireneko testuingurua azaltzen du.

Hor hasten dira neskak, (...) hori 63, 64 hortxe. (...) [Ordura arte] Nere inguruan ez eta badakit [herri jakin batean] bazela beste talde bat ta talde hartan ere ez zen emakumerik. Orain beste leku batzuetan... (...) Gu egunero lanean ta egunero bizi normala egiten ari ginen jendea ginen. (...) Ta nola kaptazioa egin behar zen ta gero nola ikurrinak josi behar ziren, erosi behar zen tela ta hau ta bestia, esan nuen emazteak behar dizkiagu. Baina gero konturatu ginen emazteek (...) berdin erantzuten zutela ekintzetan, gizonak bezain ondo, berdin-berdin. Gogortasun berarekin erantzuten zutela. Taldean izango ginen gizon adina emazte ta sekula ez nuen ikusi atzera egiten. (...) Eta gainera ikusten genuen beste lan asko gu gai ez ginenak egiteko gaitasuna zutela. Ta gero berehala konturatu ginen, ibiltzearekin, ekintzetan ez zirela atzera gelditzen, inundikan inora gainera! Nik oroitzapen gardenak ditut, ziurrak, emazteek beti erantzun zuten ondo (11. ELK.).

Irakurri berri dugun pasartean oso esplizitua da rol femeninoen eta maskulinoen diskurtsoa. Hasierako taldeetan militante maskulinoek rol espezifiko batzuk *esleitu* zizkieten emakumeei. Baina berehala *gizonezkoen zeregin* bera bereganatu zuten militante emakumezkoek ere. Segidan aurkezten dugun aipuan ere rol banaketa hori islatzen da.

Emakumea sartutako lehendabiziko komandoetan eman diote emakumeen papera. (...) Hor ere bakoitzaren arabera... esango genuke, izaeraren arabera ere badago. Zeren igual [pistola] eramateak konplexua, beldurra edo estresa sortu [zezakeen]. Eta orduan gehiago egin du emakumeak lana, badakizu, "taldean egon behar dugu honelako tokitan", "ba nik egingo dut sukaldekoa". Hori egin da (2. ELK.).

Gizonezko etakideentzat *babes* izugarria izaten zen poliziaren aurrean bidaide emakumezkoekin ibiltzea. Emakumezko batekin bikote itxura egiteak disimulatu egiten baitzuen gizonezko militanteen jarduera politikoa. Hori adierazi dute behintzat bi elkarrizketatuk: lehendabiziko aipua gizonezko batena da eta bigarrena emakumezko batena.

Emazte batekin bizkarretik helduta edozein bazterretan ez zenuen aitzakia handirik behar justifikatzeko zertan ari zinen. Babes izugarria ematen zuten emazteek laguntzaile bezala. (...) Berehala ikusi genuen izugarrizko abantaila ematen zigutela mugitzeko! Babes izugarria zela (11. ELK.).

Logistikan ere baziren gizonak bainan uste dut berek [etakide gizonezkoek] pentsatzen zutela bikote bat baldin bazinen [poliziak] ez zauziela segitzen (14. ELK.).

ETAren biltzarrak erakusleihen onak izan litezke ETAren barruko emakume militanteen parte hartzea nolabait neurtzeko. I. Biltzarrean (1962) ez zen emakumerik izan; II. Biltzarrean (1963) hamazazpi militante bildu ziren eta bi

emakumek hartu zuten parte lehendabiziko aldiz⁴²² (Casanova, 2007, 37 or.). Emakume haiekin zuzenean hitz egiterik izan ez dugunez, II. Biltzarrean parte hartu zuten elkarrizketatuek egiaztatu digute datu hori. Emakume haiek "laguntzera" joan omen ziren Capbretoneko biltzarrera, "sukaldeko lanak" egitera. Honako aipuak parte hartze haren berri ematen digu:

Baina erran behar da zertarako etorri ziren bi. Etorri ziren laguntzeko batez ere, sukalde [lanak] egiteko eta. Bolondres, kasu! (3. ELK.).

III., IV. eta V. Biltzarretan militante gisa hartu zuten parte emakumeek. V. Biltzarrean bost emakume inguru izan ziren; segidan aurkezten ditugun hiru elkarrizketaturen aipu banatan islatzen da hori.

Hirugarren eta laugarren bilkura nagusietan gehiago izan zen, emakume gehiago. (...) Eta bosgarrenean gehiago, bost bat edo sei edo ez dakit nik (3. ELK.).

Baziren bai. [V. Biltzarrean] Bai, bazen baina gutxi, minoria handia. (...) Nik ezagututako militante aktiboak gutxi. [V. Biltzarrean guztira] 50 bat uste dut eta hortik lauzpabost emakume (6. ELK.).

[V. Biltzarrean emakumeen parte hartzea] Te puedo decir que menos de una mano, insignificante. Luego en los taldes de formación sí había, pero a la hora de pasar a un nivel superior la mujer se echaba para atrás (16. ELK.).

V. Biltzarraren ondoren, herriko taldeetan eta baseko komandoetan ez ezik ETaren aparatuan ere izan zen emakumerik. 1968-1969 urteetan hiru emakume izan ziren ETaren zuzendaritzan, Biltzar Ttipian (Nuñez et al., 1993, 2, 190 or.; Casanova, 2007,

⁴²² Hordago taldeak honakoa dio ETaren II. Biltzarrari egiten dizkion oharretan: "En Marzo de 1963 se celebró la II Asamblea en un pueblecito de las Landas, al norte de Baiona llamado Hossegor, con la presencia por primera vez en la historia de ETA de dos militantes femeninos" (1979, 2, 433 or.).

104 or.). Emakume haiek liberatu gisa jardun zuten ETAn. Elkarrizketatu batek hiru emakume haiek aipatu ditu bere adierazpenetan eta beste batek liberatu zen lehendabiziko emakumeaz hitz egiten du.

Arantza Arrutik publikoki azaldu du hogeita bi urterekin erabaki zuela liberatzea, eskualdeko kideak harrapatu eta Ipar Euskal Herrian ezkutatu behar izan zuenean. Erabaki hartan emakumea izateak adinak bezainbeste eragin ziola aitortzen du. Gizonezko militanteen zeregin eta ardura berberak bete zituen Arrutik. Eta pistola aldean zuela ibili zen liberatu zenean (Arruti in Nuñez et al., 1993, 2, 185-189 or.).

Hori bera adierazi du informatzaile batek ere, hots, gizonezkoak bezala ETAn liberatu ziren lehendabiziko emakumeak ere armatuta ibili zirela (lehendabiziko aipua). ETAREN sarean laguntzaile jardun zuen beste elkarrizketatu emakumezko batek adierazi du berak ere arma autoan ibiltzen zuela; bere burua babesteko badaezpadako neurri gisa eman zion ETAK, bigarren aipuan ikus dezakegunez.

Nik uste dut hoiek [ETAko zuzendaritzan egon ziren hiru emakumeak] armakin ibili zirela (9. ELK.).

Armak erabiltzen ziren bainan ez ziren eginak hiltzeko, ziren babesteko bezala. Ukan dut holako armarik baina ez dut atera kotxetik zeren eta ez nekian zer egin horrekin, eta ez genuen ikasi ere [barre egin du] (14. ELK.).

ETAren diskurtsoak hori aldarrikatu zuen 1965ean, *La liberación de la mujer* artikuluan: emakumezkoek eta gizonezkoek jarduera berbera zutela ETAn eta batera zihardutela (Hordago, 1979, 3, 493 or.). ETAK *emakume militanteaz* eraiki zuen irudian eragin bat baino gehiago egon zen ziur aski. Elkarrizketatu baten ekarpenean oinarrituz esanenez Kubako iraultzaren ereduak eragina izan zuela neurri batean behintzat. Hala islatzen da segidan aurkezten dugun lekukotasunean.

Emakumeak Kuban jokatu zuen paper nahiko interesantea. Zeren marxismoan emakumea katolizismoan bezain gaizki dago. Baina Kuban eman da fenomeno bat, emakume batzuk behintzat agertu dira presentzia sozial iraultzaile [handiarekin] (10. ELK.).

EAJren tradizioetik ere edan zuen ETAk. EAJren ideologia politikoak eraiki zuen emakumeen irudiak funtzio garrantzitsua zuen zeregin politikoan. Ondoren aurkezten dugun aipuan, adibidez, lekukoak harreman hori azaltzen du.

"Emakumeak politikan parte hartu behar du" EAJrena da. Beste asunto bat da EAJko emakume hori, ez dakit, emakumearen emantzipazio bezala dagoen ulertuta, segur asko ez. (...) Aberriari begira dago pentsatuta, segur asko. Eta ETArena ja dago pentsatuta aberriaren alde bai baina emakumearen beraren emantzipazio bezala, segur asko (10. ELK.).

ETAren diskurtsoa botere maskulinoaren sorkaria dela esan dugu ([ikus III.4.7.](#)). Nolanahi ere, zenbait elkarrizketatu emakumezkoek ez dute negatibotzat jo ETAk "emakumeen saila" ez izatea. Haatik, askeago izateko abagune bezala interpretatu dute gizonetzkoekin batera jardutea eta jarduera berberak egitea. Horren adibide da honakoa.

Emakumezkoentzat gauza bat garrantzizkoa bazan gizonekin batera lan egitea. Ze frankismo garaian eskolan aparte ginen, lanean ere aparte ginen, beti aparte. Orduan maila horretan bai zeren elkarrekin lan egiten genuen, bai ikastola sartu ginenean edo bai, esate baterako, beste lanetan. Ibilia naiz ni hemen, neska bakarra, propaganda ipintzen. (...) Emakumeek praktikoki egin dugu beraiek bezala baina ez ginen onartuak maila berean, esango genuke. Baina gero ETAn sartzea nahiko naturalki egiten zen (2. ELK.).

Ordena heteropatriarkalaren dominazio forma ideologiko eta materialak identifikatu eta problematizatu gabe fenomeno *natural* bezala aurkezten dira;

alegia, legitimotzat hauteman eta onartzen dira. ETAn emakumeek gizonetzkoen leku *berbera* zutela esateak ikusezin bihurtzen du emakumeen zapalketa-egoera; egoera *natural* eta *neutral* gisa ikusten dira ETAREN barruko botere harreman orokortuak. Hamilton-ek dio lehen urteetan ETAn parte hartu zuten emakume militante haiek militante gisa "ikusezinak" izan zirela komunitate abertzalean (2007, 172 or.). Ondoren aurkezten ditugun elkarrizketatuen lekukotasunek ere antzeko ideia iradokitzen dute.

Las mujeres de los hombres valientes eran imprescindibles para que ellos fueran valientes pero no se notaban. Su proyección social era de marujas, ocupadas de la casa y de los niños (4. ELK.).

Nolanahi ere, eta esanak esan, ETAREN genero diskurtsoaren eragina ez zen guztiz hutsala izan. ETAK emakumeen deskolonizazioa aldarrikatu zuen; jendarteko arazoetan gizonak adina parte hartu behar zutela azpimarratu zuen. Ezinbesteko baldintza da, ETAREN ustez, emakumeek ukatzen zaizkien denbora eta independentzia ekonomikoa eskuratzea. Horretarako etxeko lanak egiteagatik eta seme-alabak hezteagatik eta hazteagatik soldata bat jasotzea proposatu zuen besteak beste ([ikus III.4.7.](#)). ETAREN genero diskurtsoa ekarpen garrantzitsua izan zen elkarrizketatu batzuen arabera. Esate baterako, ondorengo informatzaileen aipuetan ikus daitekeen iritzia horren lekuko.

Hay un momento en que ETA interviene, que no es ni siquiera debate lo que hay, pero sitúa el papel de la mujer en los procesos de transformación. Y eso es muy importante. Porque es a nivel teórico solo porque luego no es una organización especialmente feminista, es bastante misógina; pero es porque la realidad es misógina porque la mujer no existía. Pero yo creo que tiene aportaciones, por ejemplo ésa, a nivel de organización, digamos de élite, de vanguardia es la única; ni los partidos comunistas ni nadie. Entonces tiene su valor (4. ELK.).

Hori [etxeko andreak soldata jasotzea proposatzea] erreboluzionarioa da. Hori oraindik ez da lortu, pentsa (10. ELK.).

ETAren genero begirada iraultzaileztat jo du goiko elkarrizketatuak. Ondoren aurkezten dugun aipuan elkarrizketatuak garaiko testuinguru soziopolitiko eta kulturala hartzen du ahotan ETAren genero diskurtsoa aurrerapausoa izan zela frogatzeko.

Gauza bat ez da ahaztu behar: Euskal Herrian ez zegoen lanik emakumeentzat. (...) Gure herriko ekonomia moduak emakumeentzako lanposturik ez du sortu, ez emakumeek ezin dutelako lan egin gizonezkoen postuetarako, baizik monopolio bat bezala sortuta dagoelako lan horiek gizonezkoen lanak direla, tradizioz horrela datorrelako. (...) Ez zuen posibilitatzen gure ekonomiak beste ezer. Eta orduan logikoa da ETA ere zegoen egoerarekin egotea, pentsatzea eta proposatu baldin badu hori (...) nahiko iraultzailea zen. Esan nahi du planteatua zeukala galdera! Planteatuta zeukala, ba ez da gutxi! (10. ELK.).

Aitzitik, zenbait elkarrizketatuk diote ETAren lehen urteetako genero diskurtsoak oso eragin txikia edo inolako eraginik ez zuela izan militanteengan, edo beraiek behintzat hala sentitzen dutela. Hona hemen horren lekukotasunak.

Era poca reflexión. Eso [Zutikeko artikuluek ari da] era uno que escribía pero de la teoría a la práctica mucha distancia (4. ELK.).

Batere, batere! Ez dut erraiten ez zela izan bainan ni ez naiz gogoratzen (14. ELK.).

Ez nun sekula ikusi zuk orain aipatu dezun testu bat. Ez dut esan nahi ez zela, nik ez dut ikusi (11. ELK.).

ETAren genero diskurtsoari ideia aurrerakoiak aitortu arren, lekuko batzuen arabera, esan genezake garaiko jendartea bezala ETA ere erakunde matxista zela; alegia, militantzia eredu maskulinoa zela erabat. Modu oso esanguratsuan adierazten du hori gizonezko elkarrizketatu batek (lehendabiziko aipua) eta baita Arrutik ere (bigarren aipua).

Gu matxista ginen a muerte (12. ELK.).

Gizartean zegoen, eta dagoen, misoginia bezalako bat bai, noski. Hori hor dago, eta ez da askorik aldatu. Ideia eta planteamendu "serioak" gizonezkoen artean konpontzekoak bailiren, eta arazo pertsonalak eta abar emakumeekin. Eta, beraz, emakumeon planteamenduak aintzakotzat ez hartzeko joera. Are gehiago, neska gazte izanik... Baina ni orduan zapla! jotzen nuen mahaian, "ixo!" esanez, errespetu pixkat sartzeko. Eta hasieran serio eta karratu planteatzen nituen bilerak (Arruti, in Nuñez et al., 1993, 2, 190).

Goiko aipuak iradokitzen du *gai serioak* botere maskulinoaren eremua zirela ETAn. Hori ulertzeko gakoetako bat argitasun handiz formulatzen du emakumezko elkarrizketatu batek: diskrezioaren eta segurtasunaren izenean, zenbaitetan, gizonezko militantekideen artean alferrik zegoela sentitu eta ospa egiten zuela adierazi du.

Kontrako jarrerak ere ikusi ditut. "Hitz egin behar dugu..." Eta nik esaten nuen neure artean "ba sobran nago". Edo nik alde egin momentu hartan. (...) Nola fronte desberdinak ziren eta niri ez zegokidan zerbaitez hitz egin behar bazuten ba alde egin. Horretaz ere aprobetxatzerik ere bazuten, esateko hau kanpora, hori ere egia da (2. ELK.).

Edonola ere, zenbait elkarrizketaturen arabera, gizonezko etakideek *begi onez ikusten* zuten emakumeak ETAn sartzea. Lehendabiziko elkarrizketatua emakumea

da eta bikotekidearen, gizonetzko etakide baten, jarrera zein zen azaltzen du. Bigarren aipua ETAREN sortzaileetako batena da, hots, gizonetzko militante batena.

[Urlia] izan da beti, alde horretatik, oso emakumea sartzearen aldekoa. "Hau zer iruditzen zaigu" galdera edo (...) "zuk hobeto dakizu hori". Hori beti izan du baina berezkoa (2. ELK.).

Poztu egin nintzen, zeren eta emakumeak hor egotea bazuen erranahi bat, zentzu batean diñot gauzak munduan aurrera doaz eta emakumeak nonahi dira jadanik, normala da gure aferetan ere emakumeak egotea, beraz, alde horretatik badirudi ongi goazela (3. ELK.).

Baziren, ETAN militante gizonetakoek modu esplizituan formulatutako iruzkin matxistak ere (ikus Arruti in Nuñez et al., 1993, 2, 191 or.). Baina emakumezkoak gutxiesteko ageriko modu hori, diskurtso esplizitua, izebergaren goiko muturra baino ez da; ezkutuan gauzatzen baita prozesu eraginkorra. Naturala balitz bezala barneratzen zituzten militante gizonetakoek eta emakumezkoek ETAREN barruko hainbat portaera eta rol; berezki zeuzkaten. ETAREN barruko matxismoa matxismo sotila zen; hori azpimarratu dute behinik behin zenbait elkarrizketatuk. Lehendabiziko aipua ETA erakundearen ibili zen gizonetzko batena da, bigarrena, berriz, ETAREN sarean jardun zuen emakumezko militante batena. Esanguratsua da azken honek erabiltzen duen *militante osoaren* terminoa; emakumeek *militante oso* izateko zailtasun handiagoa zutela iradokitzen du, hots, gehiago jarduten zutela ETA laguntzeko sarean militantzia *ofizialean* baino.

Emakumeentzako nik ez dut inongo diskriminaziorik ikusi. Esate baterako esanez, "hori neska duk, hori ez diagu behar". Holako erreflexiorik ez. Sartzen zena sartzen zen eta puntu. Beraz, hori alde batetik. Nire ustez e! Baina gero ez da inongo diskurtso feminista elaboraturik izan (6. ELK.).

¿Has visto la película de Yoyes? (...) Sale un tío ahí diciendo "y tú no se qué" un machista así... Eso es mentira, nunca ha pasado eso en ETA. Nunca de nunca; era más sutil, era de otra manera. (...) Hombre, que en vez de ser ella mujer [militante batez ari da], hubiera sido hombre le hubieran hecho militante, militante completa, ¿me entiendes? Sin embargo, era más sutil que buscara casas o que te tuviera en la casa, y que se enrollara contigo. Pero nunca ha habido eso de que viene en la película, lo del acoso... No mentira, eso es falso, radicalmente falso. Desde mi experiencia (4. ELK.).

Diskurtso horrek aztergai dugun emakumeen parte hartzearen funtsetako bat iradokitzen du: emakumeek gehiago parte hartu zutela *ETA mugimenduan* (sarean laguntzaile gisa) *erakundean* "militante oso" moduan baino. ETAREN barruko militantzia eredu maskulinoak horixe bultzatu zuen. Segidan aurkezten dugun lekukotasunean informatzaileak modu oso argian azaltzen du hori.

Neska asko ibili da ETAREN inguruan, asko. Organizazio armatuan beste gauza bat da. (...) Mugimenduan asko, mugimendu sozialean baina ETAREN lagun; ETAKO mutil bati, ihesean dabilen bati etxea zaindu egin behar zaio eta andre laguna eduki behar du etcetera. Hor neska asko ibili da, asko, asko (10. ELK.).

Militantzia politikoa botere harreman generizatuen testuinguruan ulertu beharra dago; beraz, eta kontuan izan behar da botere harreman horiek posizio batzuen aldeko dinamika sortzen dutela (Bourdieu, 1996, 84-85 or.). Harreman hierarkikoa sortzen zen ETAKO gizonezko eta emakume militanteen artean: gizonezkoek erdigunea hartzen zuten bitartean (erakundeko *militante oso* bihurtzen ziren gehienak), emakumeek periferiako "laguntzaile" rola betetzen zuten (etakideak laguntzeko sarean jardun zuten gehienek, mugimenduan). Botere harreman horrek, jakina, baldintzatu egiten zuen emakumeen militantzia politikoa. Besteak beste, militantzia eredu maskulinoak emakumeak erakundean sartzea bera zailtzen baitzuen; zentzu horretan, kaptazio-lanak egiten zituen militantea emakumezkoa izaten zenean horrek erraztu egiten zuen emakume gehiago sartzea. Arrutik dio

Nafarroan liberatu gisa jardun zuen denboran neska batzuk erakarri zituela erakundera (1993, 2, 189 or.). Elkarrizketatu honek dioenez emakumea eta Iparraldekoa izateak baldintzatu egin zuen ETAREN erdiguneko gizonezko etakideekiko bere harremana:

Bai [emakume izateagatik] eta Iparraldekoa ere izateagatik, ez beren mundukoa (14. ELK.).

Horrenbestez, ETA mugimenduan emakume askok lan egin zuen etakideei laguntzeko sarean. Baina kulturaren esparrua izan zen emakumeen lan-eremu espezifikoa, euskalgintzarena, ikastolena nagusiki⁴²³. Hezkuntza-ekimenean, ikastolen mugimenduan, funtsezkoa izan zen emakumeen lana. Abertzaleentzat ikastola "estatuari irabazitako eremua" zenez (Mateos, 2000), nazio komunitatea eraikitzeko funtsezko lan eremua zen. ETAK diskurtsoan eta praktikan kulturgintzaren eta jarduera politikoaren artean egiten zuen lotura estuak, eta hizkuntza-kulturari eman zion lehentasunezko lekuak, emakumeak nazio mugimenduan subjektu izatea ahalbidetzen zuen. Emakumeak *kultur igortzailearen* zereginarekin lotuta aritu ziren, nagusiki, ETA mugimenduan (Amurrio, 2003, 246-251 or.). Ondoren aurkezten ditugun bi aipuak izan daitezke horren erakusgarri:

Emakumeak hemen izan dute batez ere irakaskuntzan bai pisua eta bai adorea, eta nahi dezun guztia aurrea jotzeko behar zan bezela porque garaiak ez ziran errexak. (...) Nik ikastolan beatzi urte egin nitun (...) baino behin ere ez zait inor etorri ezertara. Ta [urliari], berriz, joan izan zitzaion polizia; esan nahi dizut horrekin emakumeak ikastolan buru belarri jartzea bazula bere arriskurik baino hala ere aurrera jo zuten. (...) Bai, bai, batez ere ikastoletan (13. ELK.).

⁴²³ Ikastoletan gehienbat emakumeak aritzearen arrazoiak aipatzen ditu Fernandezek (1994, 151-152 or.): legalak, sozioekonomikoak eta ideologiko-historikoak.

Kontzientzia feministarik ez zutela nabarmentzen duen iritzi bat aurkitu dugu elkarrizketetan. Eta dominazioaz jabetzeko ezinbestekoa da menderakuntzaren kontzientzia izatea. Militantzia eredu heteropatriarkalak legitimotzat ezartzen zituen jokamolde eta balioak bereganatzen zituzten emakumezko militanteek. Botere sinbolikoak eragin handia du dominatzaile-dominatu harremanean eta mendekoek beren buruak dominatu bezala ez ikustea lortzen du (Bourdieu, 2000, 88 or.). Aipu honek harreman horren berri ematen digu:

[Jarrera matxistarik] Ez genun nabaritzen. Es que bakizu zer gertatzen dan? Gertatzen da reflexioa ez duzunean egin (...) ez zerala konturatzen. Ez dezu identifikatzen zer dan zer. O sea onartzen duzu eta ez dakizu (9. ELK.).

Kontzientzia feministarik ezean, militanteek ez zuten ETAn barruko botere harreman generizatuei buruzko hausnarketarik egiten. Segidan aurkezten ditugun bi elkarrizketatu emakumezkoen pasarte banatan islatzen da hori.

[Emakumeek eta gizonen batera jardun ETAn] Baina ez hausnarketarik egin delako. Hori pausu garrantzizkoa da baina praktikak berak eraman duelako horra, egunerokotasunak eraman du. Baina ez esan dugulako orain egingo dugu hau eta beste. (...) [Emakumeen bazterketari buruzko hausnarketa] ez zeren ni ibili naiz gizonen taldean, beti gizonekin ibili naiz eta gero ere beti horrela tokatu zait. [Hausnarketa] maila horretan ez (2. ELK.).

[KAS Emakumeen aurretik] No hay nada concretado. (...) Hombre, yo era muy defensora de mi independencia (...) pero muy intuitiva. (...) Yo el primer libro que leí fue uno de Margaret Randall creo, y algún otro así pero no... Hombre, tú te revelabas a lo de que la mujer no tiene porqué estar haciendo las comidas y siendo el descanso del guerrero. Pero sin más (4. ELK.).

Elkarrizketatutako etakide gionezkoen iritzia ere bide berean agertzen zaigu:

[Gogoetarik] Ez, ez dakit, joan gara apur bat gizartearekin salbu [ETAren] artikulu horiek hasi ziren. Izan ere, gure buruei erran genien guk ere parte hartu behar dugu emakumeen kanpaina honetan baina besterik gabe (3. ELK.).

Ez da inongo diskurtso feminista elaboraturik izan emakumeen lekua edo sentitzen ez genituen diskriminazioen salatzeke. Ba noizbehinka baten batek esango luke zerbait. (...) Ez, genero errebindikazioak deitzen direnak nik ez daukat holako kontzientziarik, (...) holako gauzak gero agertzen dira. (...) Genero kontuaz, genero hitza ere ez genekien zer zen, ez zen existitzen (6. ELK.).

Baina ez zen, taldean bertan ez zen gizon eta emazte eztabaida holakorik sortzen. Orduen eztabaida izango zen, ba hasia zen (...) sozialismoa zer eta nola, ta bai ala ez, ulertzen dezu? (11. ELK.).

Por ejemplo, con [Jose Antonio] Etxebarrieta sí hablaba mucho, mucho, porque ese tipo, ¡es que era la hostia! (...) Hombre, y decía que había que hacer una revolución científica porque a ver si objetivamente el embarazo de una mujer objetivamente no le retrasa con respecto al hombre. Pero en plan bueno. Era un tipo... (4. ELK.).

Kontzientzia feministarik ezean, emakumezko (eta gizonezko) militanteek militantzia eredu maskulino hegemonikoaren balioen arabera jokatzeko zuten. Del Vallek dio EAJren ideologia politikoak euskal emakumeen gainean eraiki zuen irudiak bezala ETArenak ere eragin handia izan zuela emakumeen beraien jarreran eta beren buruarekiko irudian (1985, 227 or.).

Erakunde barnean emakumeok aportatzen genuen ikuspegia eta egiten genuen ekarpena ez genuen egiten, egia esan, emakumezkoen ekarpen gisa. Esaten genuena onartua bazen, planteamenduaren beraren indarrarengatik zen, ez emakumeak ginelako. Gizonezkoen balioetan oinarriturik

funtzionatzen genuen, beraz, eta maila horretan baloratzen zen gure ekarpena. Horrek ez du kentzen emakumeok, arazoen azterketa egiterakoan, teknika eta iragazki oso ezberdinak erabili ohi ditugula. Baina ez ginen aurkezten emakume feminista iraultzaile bezala, ETako beste borrokalari batzuk gehiago bezala baizik (Arruti, in Nuñez et al., 1993, 2: 190).

Arrutiren hitzei atxikiz esan genezake 60ko hamarkadan ETA erakundean eta mugimenduan jardun zuten emakumezkoek *emakume iraultzaile* gisa ikusten zutela beren burua; hots, iraultza nazionala eta soziala gizonezkoen maila berean hezur-mamitu nahi zuten. Baina oraindik ez zutela *feminista iraultzaile* izateko kontzientziarik, hots, emakumeen borroka iraultzaren barruan sartzeko kontzientziarik (Arruti in Nuñez et al., 1993, 2, 190 or.).

Dena dela, elkarrizketatuek modu arrazionalizatuan kontzientzia feministarik ez zutela dioten arren, emakume batzuek garaiko jendarteak ezarritako eredutik askatzeko hartu zuten militantzia politikoaren bidea (ETA erakundean edo mugimenduan sartzea⁴²⁴). Hala, garaiko emakume militanteen lekukotasun batzuetan oinarrituta Apalategik dio ETako militante izateak itotzen zituen jendarte batetik askatzeko balio izan ziela emakume batzuei (1985, 272 or.). Arrutiren honako aipu honek inguruak *ezarritako* bizimodutik ihes egin nahi zuela iradokitzen du:

Bada, adin hartan uste dut oso argi neukala zer ez nuen nahi. Ez nekien argi zer nahi nuen, beraz, baina zerbaiten bila abiatu nintzen orduan. (...) Gauza da ezen, gizarte ustel hari, "daukazun adina balio duzu" eta horrelako faltsukeriez, ez niola nik baliorik aurkitzen. Horren aurka zen, adibidez,

⁴²⁴ Amurriok bezala Abdo-k ere bereizi egiten ditu nazionalismo instituzionalizatuetan emakumeek oro har izan duten parte hartzea eta nazio askapenerako mugimenduetan izan dutena. Batak eta besteak emakumeei ezarri dizkien zeregin eta roletan zenbait antzekotasun daudela onartu arren, Abdo-k dio historikoki estatu nazionalismoek agintekieriaz eta gehiegikeriaz erabili dituztela emakumeak. Nazio askapenerako mugimenduek, berriz, uste du emantzipaziorako espazio bat eskaini dietela emakumeei. Rol aktiboa hartu dutela emakumeek beren nazio askapenean eta, aldi berean, emakumeen kezkak mahai gainean jarrita, emakumeek nabarmenki lagun dezaketela mugimendua bere estruktura patriarkaletatik askatzen (Abdo, 1991 in Amurrio, 2003, 185-186 or.).

nebaren bakero zaharrak eta abarketak jantzita ateratzea igande batean herriko plazara. Eta horregatik joan nintzen gustura Parisera ere (Nuñez et al., 1993, 2, 183 or.).

Horretaz gain, emakume militanteek ETA mugimenduko erabaki-guneetan parte hartzen zutela adierazi dute zenbait elkarrizketatuk. 60ko eta 70eko hamarkadetan ETA mugimenduan jardun zuten bi emakumeren diskurtsoan ikusten da hori.

Nik egiten nuen entzun, ni baino zaharragoak baldin baziren, noski, entzun; praktika gehiago zuten. Baita ere gauza gehiago egiten zuten edo ni baino beste maila batean zeuden. (...) Baino gero nik neure iritzia ematen nuen (2. ELK.).

Yo no me callaba ni debajo del agua. (...) Lo que pasa es que se sufre mucho... ¡Yo leña al mono! Vergüenza en público toda, ¡por favor! Pero en las reuniones internas no, ningún problema (4. ELK.).

Militantzia politikoa eta amatasuna bateraezinak izan daitezke zenbaitetan, ordea. Horixe da ETA erakundearen eta mugimenduan militatu zuten emakume askoren egoera. Aitatasunak gizonezko etakide gehienek militantzia eten ez zuten bezala, amatasunak eten egin zuten emakume gehienek. Amatasuna emakumeen askapenerako oztopo gisa sentituta ama ez izateko hautu politikoa ere egin zuten zenbait militanteek, ordena heteropatriarkalarekin hausteko estrategia gisa (Odriozola eta Rodríguez, 2015). ETA mugimenduan jardun zuten emakumezko informatzaile honen diskurtsoan amatasun- aitatasunaren eta militantzia politikoaren arteko harreman hori iradokitzen da. Eta emakume abertzale askoren errealitatea azaleratzen du: hartara, emakume askok eremu pribatuan egin zuten lan etxeetan haurren heziketan euskara eta euskal kultura txertatuz.

Ezkondu nintzan 57an eta izan nitun bi ume, gero hirugarrena; ez zegon... [Bikotekidea] aritu zan [militantzian] (...) baino ni etxean. [Gero erbestean,

bikotekidea] jeisten zan Hendaiara mila aldiz eta ni han gelditzen nintzan klaro. Hori zan gure lana (...) eustea. Ez zan besterik, benetan. Azkenean nire urte asko holakoak izan dira. Nola edo hala eutsi eta animatu (...) baino hori inportantea zan, emakume asko holakoak izan dira (13. ELK.).

Esanak esan, 60ko hamarkadan ETAn jardun zuten emakumeek tradizioz gizonena zen militantzia politikoaren estereotipoak desafiatu zituzten, baita neurri handi batean ETaren diskurtsoa eta praktika ere. Hamilton-ek dio ETA mugimenduaren historia ezin dela osotasunean ulertu genero harremanen pisu sinbolikoa eta materiala aintzat hartu gabe. Eta hasieratik emakumeen parte hartzea erabakigarria izan zela mugimenduaren biziraupenerako (ez ama gisa soilik, baita sinbolo edo jardueretan "laguntzeko" militante gisa, eta parte-hartzaile zuzen gisa ere). Emakumeen parte hartzea askoz ere konplexuagoa eta askotarikoagoa da ETARI buruzko ikerketa gehienek azaldu dutena baino. Horrela ulertzen du behintzat Hamilton-ek: hau da, ETaren diskurtsoan irudi tradizionalista nagusitu arren eta militantzia eredia maskulinoa izan arren, 60ko eta 70eko hamarkadetan emakume ugari ETA erakundearen eta mugimenduan sartu izana eta, orobat, haietako batzuk erabaki-guneetan egon izana eta beste batzuk aktibista armatu bihurtzea (2007: 172-173).

70eko hamarkadan sortu zituzten emakume militanteek abertzaletasun iraultzailaren barruko lehendabiziko talde feministak. 60ko hamarkadaren amaierako iraultza kulturalaren ondotik sortu ziren "jendarte mugimendu berrien" testuinguruan *Emazteak Iraultzan* taldea sortu zuten emakume militante batzuek Ipar Euskal Herrian, 1974an (Lopez Romo, 2010). Parisen eta Ipar Euskal Herrian babestu zen ETA mugimenduko emakumezko militante batek modu oso argian azaltzen du Emazteak Iraultzan taldea sortu zuteneko testuingurua.

Mayo 68k egin zuen dena mugitu. Hastapenean reboluzio bat egin zen baina gero reboluzio horrek bildu zituen zeuden protestak eta mugimenduak. (...) Mugimendu haundia sortzen da, baina gero zer gertatzen da? Emeki emeki

nork hartzen du boterea beti gizonak. Eta orduan rebista hauek [Pariseko aldizkari batzuez ari da] hori dira, reibindikazio bat dira. *Des femmes* hor ibili gara, hor gabiltza baina ez dugu tokirik! (9. ELK.).

Abertzaletasun iraultzailearen barruan sortutako lehendabiziko talde feminista izan zen Emazteak Iraultzan, eta berak jarri zuen Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduan teorizazio-prozesu feministaren oinarria (Lopez Romo, 2010). Emazteak Iraultzan taldearen sorrera deskribatzen du elkarrizketatuak.

Guk sortu genuenean hori [Emazteak Iraultzan taldea] Parisen egonda ginen ez dakit zenbat. (...) Baina gertatu zen gose greba bat egin zela militanteena katedralean. Eta badakizu zer gertatzen zan? Hitz egiteko beti gizonak; emakumeak paperak egin, (...) lan guztiak egin... Hemen gertatu zen emakumeak beti baztertuak izaten zirela hitz egiteko. Hitz egiteko beti gizonak eta bildu ginen 30 emakume edo etxe batean, Uztaritzetik hurbil. (...) Batzuk ginen abertzaleak eta beste batzuk ziren sozialistak. (...) Afera zen hori: guk partzipatzen dugu borroketan, baina gero hitza beti gizonak dute (...) ta denak ados ginen. Bildu ginen hiruzpalau aldiz edo hola, eta bueno ja montatzeko (...) zerbait, idazteko gure gauzak. Eta hau [Pariseko aldizkari bat] ikusi genuen sortua zela eta orduan (...) hauetako batzuekin jarri ginen kontaktoan. (...) Guk Parisekoekin kontaktatu genuen beharra genuelako holako reflexioak egiteko. Porque ETAn ez zegoen holako reflexioa. Bakarrik zegoen militante batzuen partetik, nik uste, irikitasun bat bazegoen eta, bai, emakumeak ere partzipatu behar dute eta... Batzuk bazeukaten, igual ez denak baina bazegoen, airean bezela (9. ELK.).

Ipar Euskal Herrian sortu izana, berriz, ez da hain harrizkeoa. Goiko aipuetan argi ikus daiteke Frantziako Estatuko jendarte mugimenduek Emazteak Iraultzan taldearen sorreran izan zuten eragina. Hego Euskal Herriko elkarrizketatu honek ere eragin horixe iradokitzen du.

Iparraldean beste mentalidade bat zegon! Ez zen frankismoa, ez zegon holako historia, eta seguraski haiek aurrerago zeuden. (...) Ta gainera ni oroitzen naiz Iparraldean bazeudela feminista talde batzuk (13. ELK.).

Hego Euskal Herriko feministak urte batzuk beranduago hasi ziren antolatzen⁴²⁵. Hego Euskal Herriko testuinguru politikoan gertatu ziren aldaketekin lotzen du elkarrizketatu batek emakumeen askapenerako borroka suspertzea.

A mediados [70eko hamarkadaz ari da] por ahí. La liberación [emakumeen askapenez ari da] se da mucho también por la decadencia del franquismo y que no se da ya ese garrote tan opresor, eso hace que la mujer pueda despertar (16. ELK.).

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu 60ko hamarkadan emakume ugarik hartu zuela parte abertzaletasunean, kulturgintzan eta euskalgintzan. Batzuk ETA erakundeko militante izan ziren; beste batzuek ETA erakundea sostengatu eta babestu zuten eguneroko jardunean; beste batzuek, lehen lerroan jardun zuten ETA mugimenduan, euskara sustatzearen aldeko ekimenetan edo ikastolen sorreran; eta, azkenik, beste batzuek eremu pribatuan egin zuten lan: alegia, etxeetan haurren heziketan euskara eta euskal kultura txertatuz (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015, 32-69 or.). Gero 70eko hamarkadan modu autonomoan biltzen hasteko beharra sentitu zuten ETA mugimenduko emakumeek.

7. ETA mugimenduaren eta Ipar Euskal Herriko abertzaleen arteko harremana

EAJren diskurtsoak aintzat hartzen zituen Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdi; Euskal Herri batuaz hitz egiten zuen. Praxian EAJren inguruko iparraldeko eta hegoaldeko kultura erakundeek lana eta ahalegina trukatu zuten euskal kultura eta euskara bizkortzeko. Apalategik dioenez, hala ere, EAJk ez zuen Ipar Euskal Herrian

⁴²⁵ 70eko hamarkadan Euskal Herriko mugimendu feminista nola antolatu zen ezagutzeko ikus Epelde, Aranguren eta Retolaza (2015, 68-113 or.) eta Lopez Romo (2010).

jarduera abertzalea sustatu. Lapurdin babestu ziren lehendabiziko etakideek, ordea, oso bestelako jarrera izan zuten Apalategiren ustez; bertako nukleo abertzale txikiak ahalik eta gehien bultzatzen saiatu ziren (1985, 266-267 or.). Horixe aztertuko dugu atal honetan. ETA erakundearen eta mugimenduaren eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako dinamika abertzalearen arteko harremana.

1960 eta 1961 urteetan babestu ziren lehendabiziko etakideak Ipar Euskal Herrian. Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Lapurdin nukleo abertzale txikiak zeuden eta haietako asko Enbata (1960) aldizkari sortu berriaren inguruan antolatzen ziren⁴²⁶ (Apalategi, 1985, 267 or.). 60ko hamarkadaren aurretik, mugimendu abertzale orokorturik ez osatu arren, hainbat erakunde abertzalek jardun zuen Iparraldean. Elkarriketatu batek denboran atzera egin eta EAJren ideologiatik gertu zegoen *Aintzina* aldizkari elebiduna (1934) aipatu du horren lekuko.

Nahi baduzu herri mailan kontzientzia politikoa bazitakeen gure belaunaldia baino lehen ere. (...) Abertzale mugimendu bezala sortu zuten *Aintzina* izenekoak; *Aintzina* mugimendu hori zen herrizalea, Euskal Herria ta... (...) Beraz, banaka batzuk baziren ez zen mugimendu zabalik. (...) Eta Enbatak nahi zuen hori publikora atera, hauteskudetara aurkeztuz, automatikoki gauzak zabaldu ziren nahitaez (8. ELK.).

Etakideak iritsi aurreko mugimendu euskaltzalea ere azpimarratu du informatzaile berak. Honako aipu honek euskararen aldeko jarduera haren berri ematen du:

Zer zegoen ordu artio? Hizkuntza aldetik hemen lan bat egiten zen: kantua sustatzen zen, antzerkia anitz, herri guzietan baziren antzerki taldeak, beraz,

⁴²⁶ 1963ko apirilean sortu zuen abertzale talde batek Enbata mugimendua Ipar Euskal Herrian. 1960az geroztik izen bereko aldizkari bat argitaratzen zuten hilero. Mugimenduaren sorrera data esanguratsua izan zen oso, izan ere, 1936ko gerraren ondoko lehen Aberri Egunean gertatu zen; Itsasuko herrian (Jauregi, 1981, 201-202 or.).

euskal kultura bat bizi zen eskuaraz. Bizi zen kultura mota bat, tradizionalista, kontserbatzailea eta dena, bainan eskuaraz bizi zen (8. ELK.).

Elkarrizketatu honek Ipar Euskal Herriko kultura kontserbadorea aipatu du. Beste elkarrizketatu batek ere Ipar Euskal Herria soziologikoki oro har eskuindarra zela nabarmendu du, ETAk marxismoarekin bat egin zueneko testuinguruan ikuspegi ezberdinen arteko talka gertatu zela adierazteko.

Esto es un anticomunismo en Iparralde... ;Hacían manifestaciones! (...) Era un territorio de derechas, espantosamente de derechas (4. ELK.).

Lehen etakideak Ipar Euskal Herrian babestu aurretik, EAJko buruzagiak gerizatu ziren bertan frankisten altxamendu militarren ondoren. Elkarrizketatu batek modu oso argian azaltzen du orduko testuingurua: EAJren eragina zuen Iparraldeko mugimendu abertzalea aipatzen du eta abertzale haiek etakideei eman zieten laguntza nabarmentzen du aldi berean.

Iparraldean bazegoen mugimendu abertzale bat EAJ/PNVko mentalitate eta influentzia zuena (...) eta ahaidetasunak ere bai. Eta baita ere zegoen EAJ/PNVko jende mordoa ihes egin eta han [Iparraldean] ongi situatua, onartua eta bizi zena. (...) Hegoaldeko jendea zen partez eta Iparraldeko jendea zen partez, baita ere. Eta ongi situatuak, alkate eta... Nolabait, abertzale Iparraldeko modura zirenak. Eta Hegoaldeko ETAko gazteak ihesi doazenean, horiek lagundu dituzte! Lehenengo laguntzaileak horiek izan dira (...) eta ez Monzon bakarrik, beti aipatzen delako. Beste batzuk ere bai (...). Horiek asko lagundu dute (10. ELK.).

1960an Lapurdin babestu zen ETAREN sortzaileetako batek ere laguntza hori azpimarratu du.

Han goian [Lapurdin] genbiltzan eta jateko txarto, jateko e! Gogoratzen naiz [beste etakide batekin] joatea PNVrengana diru bila zeren ez geunken ezer (5. ELK.).

EAJk diskurtsoan Ipar Euskal Herria aintzat hartzen bazuen ere, egitez ez zuen Iparraldea politikoki kontzientziatzeko grina handirik izan; aitzitik, Apalategik dio oso harreman onak izan zituela Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako "handikiekin eta euskaldunen kontrako agintariekin". Apalategik dio bertako handikien babesaren truke abertzaletasun iraultzaile edo subertsiboa garatzearen kontrako politika egin zuela EAJk Ipar Euskal Herrian (1985, 267 or.). Horixe bera azpimarratu dute elkarrizketatu batzuek ere: EAJk ez zuela Iparraldean politika abertzalerik egiteko asmorik izan eta frantses zirkuluetan sartu zirela bertan gerizatu ziren buruzagiak. Nolanahi ere, salbuespenak nabarmendu dituzte aldi berean. Ondoren aurkezten ditugun aipuetan irakur dezakeguna izan daiteke iritzi horien ispilu:

Partido Nacionalista hona [Iparraldera] heltzen denean proklamatzeko du hemen ez dela politika abertzalerik egin behar. Hala eta guztiz ere, hor daukazu Monzon bezalako pertsonaia, edo *Ibiltzen* euskal antzerkia pizteko, edo *Hernandorena* bertsolaritza pizteko. Hori daukazu eta gero diru aunitz mugitzen dena hemendik hara [Hegoaldera] eta kristau-demokratekin kontaktuak. Hori guzti hori existitzen dira aurretik (6. ELK.).

Hegoaldeko Gerra ondoko iheslariak, hemen gelditu direnak, sartu dira ene ustez frantses giroan; ikusi baitute hemen ez zela abertzale oihartzunik. Bakar batzuk salbu, eman dezagun, Telesforo Monzon salbuespen bat izan da. Hura tokian tokiko jendearekin, nola euskaltzalea zen, antzerkizalea, kantu-egile eta dena, harremanetan sartu da tokiko... (8. ELK.).

Naziotasuna arrazan oinarritu zuen EAJk. Diskurtsoan Euskal Herria osorik aintzat hartzen bazuen ere, EAJko kideek Iparraldearen kontzientzia zutenik zalantzan

jartzen dute elkarrizketatu batzuek. Ondoren aurkezten dugun aipuan, adibidez, elkarrizketatuak bere familiako jeltzaleen jarrera aipatzen du:

Es que una cuestión importante, cosa que el PNV nunca hizo, porque de mi familia estuvieron refugiados y a Iparralde le llamaban *Francia*. "Estuvieron refugiados en Francia" ;y se quedan tan anchos! Y ETA es la primera organización que define la patria vasca como la patria del euskara (4. ELK.).

Naziotasuna euskaran eta euskal kulturaren oinarritu zuen ETAk. Lehen etakideak Ipar Euskal Herrian babestu zirenean, beraz, euskara eta abertzaletasuna eta bertako talde abertzaleak ahalik eta gehien sustatzen ahalegindu ziren (Apalategi, 1985, 267 or.). Publikoki babestu zuen ETAk Enbata eta bi erakundeen arteko harremanak oihartzuna izan zuen bere pentsamoldean ([ikus III.4.10.](#)). Hala bada, bi galdera behintzat bururatzen zaizkigu. Diskurtsotik haratago, zein neurritan zuten gogoan Ipar Euskal Herria bertan babestu ziren etakideek? Zenbateraino ezagutzen zituzten Zuberoa, Nafarroa Behera eta Lapurdi?

Pasatu ginen hegoaldetik hona [Iparraldera], hori gertatu zen 1961eko apirilaren 14an, errepublikarren eguna, horregatik oroitzen naiz. (...) Hona heldu eta denok bai Txillardegia, bai Benito del Valle, bai beste guztiak (...) denak ederki genekien ez genuela hegoaldetik ateratzen pour entrer en France, kontzientzia hori bagenuen (3. ELK.).

Bagenekien existitzen zela. (...) Zaharren artean Iparraldea zen etengabeko erreferentzia espainolak ez garela eta Espainiako barneko problema ez zela frogatzeko. Hori, bistan dena, beti izan da ideologikoki oso argudio inportantea. Baina egiazko problemak zein diren hemen [Iparraldean], ni hona etorri nintzenean ikusi egin nuen eta esan nuen nahiko diferentea da! (6. ELK.).

Guk Ipar Euskal Herria entzuten genuen. (...) Eta beste alden dagoela Frantzia Ipar Euskal Herria eta amari galdetzen diot: "Baina egia da Frantzia Ipar Euskal Herria dagoela?"; "bai". "Baina euskaldunek dira gu bezela?"; "bai". "Baina hitz egiten dute gu bezela hola?"; "bai, bai, holaxe". "Zer dok hau?" Dana zan misterio bat! (...) ETA barruen lurraldetasuna, *Zazpirak Bat* eta hori oso garbia zen. Gero Ipar Euskal Herria oso berandu ezagutu degu eta ezagutzen ari gara, nahiz berrogei urte bertan bizi! (11. ELK.).

Lekukotasun horiek gainbegiraturuz gero, nabarmena da ETA erakundeko eta mugimenduko kideek Ipar Euskal Herriaren aditza eta kontzientzia izan bazuten ere, bertan babestu eta bizi izan zirenean ezagutu zutela egiazki bertako errealitatea. Argalak modu oso argian azaltzen du ideia hori bera.

Con respecto a la relaciones entre Euskadi continental y Euskadi peninsular, el exilio me ofreció la ocasión de conocer directamente la problemática existente. Hasta entonces, mi opción frente a este tema obedecía más a razones históricas e ideológicas que a un conocimiento real de la Euskadi continental actual. No obstante, la experiencia no hizo sino confirmar mis hipótesis y dotarlas de una base más científica (Argala in Apalategi, 1979, 15 or.).

Baina galdera gehiago ere gelditzen dira airean. Adibidez, zer nolako loturak izan ziren Ipar Euskal Herriko abertzaleen eta bertan babestu ziren etakideen artean? 1961ean Iparraldean babestu ziren bi elkarrizketaturen iritziak harreman haien berri ematen digu. Lehendabiziko aipua ETAREN sortzaileetako batena da: hala, Enbatako kideekin harremanetan jarri zirela esaten du eta 1963an Itsasun Enbatak eta ETAK elkarrekin ospatu zuten Aberri Eguna ([ikus III.4.10.](#)) aipatzen du harreman haren ikur gisa. Bigarren lekukotza Hegoaldean eta Iparraldean kultur mugimenduan jardun zuen kide batena da.

Enbatarrengana jo genuen, jadanik bagenuen harremana batez ere [urlia, sandia eta berendiarekin]. (...) 1963an apirilean, uste dut 15ean, egin genuen hemengo lehen Aberri Eguna. Eta Aberri Egun hori hemen Iparraldean, Itsasun egina, profitatu genuen (...) gure laguntza guztiarekin Enbataren lehen kongresua [egiteko]. (...) Kongresua egin zen eta gero (...) herri bazkari bat egin genuen frontoian. Gernikako arbolaren kimu bat edo landatu genuen (3. ELK.).

Enbatakoak ere hor ziran eta Enbatakoekin ere harremanak bagenitun. (...) Nik badakit gure jende horrek bazuela harremana Enbatakoekin eta Iparraldeko batzuekin (13. ELK.).

ETAren II. Biltzarrean (1963) Enbataren ordezkariak batek hartu zuen parte, harreman estua baitzuten ordurako bi erakundeek (Casanova, 2007, 37 or.). Eta 1963ko Aberri Eguna Itsasun ospatu zutenean, Europako hainbat mugimenduren ordezkariak gonbidatu zituzten eta ETAkoek leku nabarmena izan zuten (Jauregi, 1981, 201-202 or.). ETAk, hortaz, garrantzi handia eman zion Enbataren sorrerari. Zutik berezi bat argitaratu zuen hain zuzen Itsasuko Aberri Egunean izan ziren albisteez hitz egiteko eta ekitaldi haren eragina argi nabari da ETAren hurrengo hilabeteetako idatzietan ere. ETAko lehen belaunaldikoa izan ez zen etakide elkarrizketatu batek ere harreman haren berri ematen digu.

Badaude datoak lehenengo errefuxiatuak Enbata sortzaileekin harreman sendoa eta zuzena izan zutela eta hori historikoa da. Julenek jarraitzen du harreman horiekin, Txillardegik jarraitu zuen hil artean, beraz hori errealitate bat da. Eta Itsasuko arbola landatzen dute (11. ELK.).

6oko hamarkadako azken urteetan Iparraldean babestu ziren elkarrizketatuen diskurtsoak aztertuz gero, nabarmena da ETA erakundeko eta mugimenduko kideek Enbatakoekin harremana izaten jarraitzen zutela. Harreman hori deskribatzen da honako aipuetan.

Izan nituen [harremanak] ETako ordezkari bezala hemengo jendearekin. (...) Ni heldu nintzen hain zuzen Enbataren barnean gazteek ezkerretik eszisia planteatu zutenean, hori 68an. (...) Horiek planteatzen zuten, beraz, urrats bat ezkerretik emana Enbata gainditzeko eta ni jende horrekin ibili nintzen eta oso talde ederra zen. Ez zen mugimendu bakarra baina bizi-bizia zen (6. ELK.).

Hasi ginen bilkurak egiten han Enbatako lokaletan eta hola, Baionan, uste det Cordelier karrikan. (...) [ETako] Militanteak, gu [kultur mugimendukook] eta Iparraldeko batzuk. Afera zen (...)Euskal Herrian, hemen Iparraldean, (...) ze dinamika edo nola kreatu dinamika. Hortako kantaldiak! (9. ELK.).

Zeren eta Enbatako lokala zen haundi haundia baina baziren beste gauza batzuk politika ez zirenak: musika grabaketak, ez dakit, beharba eskuarazko kursoak ere. (...) Txillardegik egiten zigun formazio politika! Eta berak idatzi zuen liburu txiki bat (...) *Euskadi subversivo* edo holako... eta hori esplikatzeko zaukun. (...) Hola jartzen ginen borobil batean, uste dut ez ginuela mahaiarik ere; eta hor hiruzpalau ginen. Eta egiten zaukun bere doktrina. (...) Nere urtean Iparraldekoak [ginen] eta hiruetatik bi neska (14. ELK.).

Lekukotasun hauen esanetan islatzen da Enbatako eta ETako militanteak harremanetan izan zirela eta ekimen batzuk elkarrekin egin zituztela: hala nola Itsasuko Aberri Egunaz gain, formazio saioak edo kulturaren esparruko ekitaldiak antolatuta zituzten⁴²⁷. ETA militante berriak bereganatzen ere saiatu zen Iparraldean.

⁴²⁷ Ipar Euskal Herriko dinamika politikoa eta kulturala suspertzen ari zirela ikusita, Frantziar gobernuak ETako lehendabiziko iheslari haietako lau kanporatu egin zituen (Apalategi, 1985, 268 or.). Horrela adierazi zuen ETAK *Zutik* batean: "La noticia debería irritarnos profundamente, y hacernos ver la realidad. Un Gobierno español, fascista, y un Gobierno francés, «democrático», se acaban de poner de acuerdo para EXPULSAR A CUATRO PATRIOTAS VASCOS DE EUZKADI. Si para nosotros no existe frontera, para nuestros enemigos comunes menos aún..." (*Zutik* 6, 1962, in Hordago, 1979, 2, 285 or.; hizki larria jatorrizkoan).

Enbatako kide izan zen elkarrizketatu batek ekintza zehatzetan ETArri laguntzen ziola aitortu du.

Enbatan nintzen bainan laguntzailea [ETAren] ekintzetan (14. ELK.).

Guztiarekin ere, Enbataren eta ETAren arteko harremana arakatzen ari garenez, aintzat hartu beharko genuke bi erakunde hauek burujabeak edo autonomoak zirela. Elkarrizketatu batek esplizituki nabarmendu du Enbataren autonomia. Horren lekuko da segidan aurkezten dugun aipua.

Hemengoa nahitaez autonomoa da. Gero harremanak bazirela ETAko militanteen eta Enbatako [kideen artean]. (...) Enbatan ziren horiek harremanak bazituzten zeren eta handik [Hegoaldetik] ihesi etorri direlarik harrera politikoa Enbata zuten. (...) Beraz, harremanak badira bai bainan Enbata nahiko autonomoa da (8. ELK.).

Jauregik dioskunez, Ipar Euskal Herrian aukera abertzale bat eskaintzeko mugimendu gisa sortu zela Enbata (1981: 202). Elkarrizketatu baten hitzei jarraiki esan genezake Iparraldeko euskaldun batzuk Enbatarekin abertzaletu zirela; alegia, Enbataren eraginez bereganatu zutela kontzientzia politikoa.

Baginen talde bat, (...) hor abertzaletu ginen. Euskaltzale ginen aspalditik, euskarari atxikiak eta abertzaletu ginen emeki-emeki Enbataren bitartez; Enbata sortu zen 60-61 aldera. (...) Enbata politikoki abertzalea zen, euskaltzalea. Gu ere, nahitaez, 63-64-66 inguru hortan mugimenduan jarraitu ginuen, abertzaletu ginen. Gero sortu zen 65 aldera eman dezagun Enbataren eraginarekin kanta berria, kantagintza berria (8. ELK.).

Abertzaleen jarduera hertsiki politikoa eta jarduera kulturala elkarri estu-estu lotutako bi esparru zirela iradokitzen du goiko aipuak. Jarduera politikoa ez ezik kulturaren esparruan ere elkarrekin hartu-emanetan sartzeko ahalegina egin zuten

Hegoaldeko eta Iparraldeko abertzaleek. Harreman sozial haiek, kontaktuak, hori da kontuan hartu beharreko beste funtsezko faktoreetako bat. Iparraldeko kultur mugimenduan jardun zuten bi elkarrizketaturen aipuetan ederki asko islatzen da harreman sare hura.

Egina zen lotura. Kantu berria Hegoaldean *Ez Dok Hamairu*kin Gipuzkoa aldean; Bilbon bazen beste talde bat. (...) Aldizkarien bidez egiten zen lotura, irratia bidez ere, ordukotz irrati mailan egiten zen indar bat irratan euskararen alde eta. Mezuak zabaltzen ziren. (...) Hor bazen lotura bat, harreman handia bazen intelektual mailan, bazen elkartasun giro bat hango [Hegoaldeko] eta hemengo [Iparraldeko] jendearen artean, guk harremanak bagintuen. Dena lotua da (8. ELK.).

Hor ibili ginen mendi taldean. (...) Eta bai harremanetan hasi ginelarik ere, bai kantu mailan eta bai mendi taldean. (...) Bertze aldekoekin [Hegoaldekoekin] anitz gauza egin genuen, ni orduan hasi nintzen konturatzen eskuara han ere, hemen ere... Gure mendi talde hortan ibiltzen ziren ere *Guk* taldekoak. (...) Mendira joan eta gero etortzean gelditzen ginen ostatu batean, ateratzen zituzten gitarrak eta kanta ta kanta aritzen ginen, bazen jende bat biziki kurios. Eta hasi ginen ere kantaldiak egiten herrietan eta hola, beti 50 bat jende edo hola beti berak, edo hemen edo Garazin, edo Xuberon, jende bera ibiltzen zen (7. ELK.).

Beste informatzaile batek ere azaldu du Euskal Herriaren batasuna aldarrikatzeko eta irudikatzeke Hegoaldeko eta Iparraldeko musikariekin kantaldiak antolatzen zituztenekoa.

68an hasi ginen kantaldiak antolatzen eta beti ekarrarazte genituen Hegoaldetik *Ez Dok Hamairu*ko kantariak erakusteko Euskal Herri bat zela eta zazpiak bat (8. ELK.).

Ekarpen hauen arabera, ez dago zalantzarik Iparraldean babestu ziren etakideen eta nagusiki Enbataren inguruan antolaturik zeuden nukleo abertzaleen artean harremana izan zela. Baina interesgarria da harreman horiek garaiko testuinguruan kokatzea eta alde bateko eta besteko abertzaleen arteko tirabirak nolakoak ziren ikustea. Elkarrizketatuen diskurtsoetan badirudi, neurri handi batean behintzat, Ipar Euskal Herriko abertzaleek Hegoaldeko etakideak gordetzeko eta laguntzeko zeregina izan zutela. Segidan aurkezten ditugun bi elkarrizketaturen aipu banatan, adibidez, dinamika hori ikus daiteke.

Iparraldeko batzuk Hegoaldeko batzuekin nahiko paper inportante eduki dute hor; orain [urliarekin] gogoratzen naiz, pertsonalitate handi bat izan dena Iparraldean. (...) Bere komentuan (...) ETako zenbat jende egon den ezkutatuta eta han bilerak egin zituzten (10. ELK.).

Errefuxiatuei lagundu, errefuxiatuak integratu, errefuxiatuen eragina, hori guzti hori izan da (6. ELK.).

Iparraldeko abertzaleen harrera abegitsua antzeman daiteke hurrengo aipuetan ere. Lehendabizikoa ETaren sortzaileetako batena da; bigarrena etakideak etxean gorde zituen Iparraldeko abertzale batena.

Txarto ginenean edo gaixorik ginenean beregana [Iparraldeko musikari bat aipatzen du] joaten ginen beti. Eta berak laguntzen zigun bihotzez (5. ELK.).

Hemendik pasa da jainkoa eta jainkoaren haur guziak! (8. ELK.).

Hegoaldeko askapen mugimenduak Iparraldean izan zuen eragina nabarmentzen duen iritzi-sorta aurkitu dugu hainbat elkarrizketetan; Iparraldeko nazio kontzientzia piztu izana aitortzen diote, oro har, Hegoaldeko mugimendu abertzaleari eta, bereziki, 1936ko gerraren ondoko ETaren mugimenduari. Segidan aurkezten dugun aipuan elkarrizketatuak modu oso argian azaltzen du hori.

Berehala-berehala ez, harremanak eginez, luze joan da prozesu hori. (...) Kontzientzia politikoa piztu da hemen [Iparraldean] Hegoaldearen bidez, argi ta garbi, enetako bai. Hegoaldean ez balitz piztu, ikastola ez balitz izan hegoaldean hemen ez zen izanen. Abertzalegoa ez balitz piztu Hegoaldean 36ko Gerra galduta, hemen ez zen sekula piztuko, hori segur da. (...) Bai, giro horrek sorrarazi zula dudarik gabe (8. ELK.).

Iparraldeko eta Hegoaldeko abertzaleen arteko harremana ulertzeko gakoetako bat ondo asko formulatu du elkarrizketatu honek: hots, Hegoaldeko mugimendu abertzaleak, eta etakideak Iparraldean babesteak eta antolatzeak, Iparraldeko mugimendu abertzalea eta euskaltzalea suspertu zuela. Ideia horixe bera azpimarratu dute beste elkarrizketatu batzuek ere. Iparraldeko abertzaleek ETArekin aldeko ekimenetan buru-belarri parte hartu zutela aipatzen du, adibidez, elkarrizketatu honek.

Eta gero hasten da errepresioaren asuntua, solidaritatea errepresioaren kontra. (...) Errepresioaren kontra gose grebak, manifak eta hori guztia. [Iparraldeko abertzaleek] denetan parte hartzen dute. Beraz, badela eragina, ez da dudarik (6. ELK.).

Dena esate aldera, alderantziz ere gertatu zen: alegia, Iparraldeko esparru politikoan eta kulturalean parte hartu zuten ETA erakundeko eta mugimenduko kideek. Esan dugu ETako kideek beraiek Mixel Labegeriren diskoak grabatu eta banatu zituztela eta Iparraldean babestu ziren lehendabiziko etakideek seme-alabentzako ikastola abian jartzen lagundu zutela ([ikus IV.2.](#)). Ondoren aurkezten ditugun aipuetan irakur dezakeguna izan daiteke horren adibide:

Nik uste det benetan han [Iparraldean] loraldi bat izan zala gu jun ginanian; gu eta gerokoak esan nahi dizut (13. ELK.).

Bai, beno, dudarik gabe [eragina izan zen]. (...) ETAKoak [Iparraldera] heltzen direnean, ETAKo lehen militanteak finkatzen dira, hain zuzen, Enbataren azpiegituretan. (...) Eta holako jendeak gauzak egiten ditu hemen [Iparraldean] eta eginarazi. (...) Lehendabiziko kanta horiek *Gu gira Euskadiko gazteri berria* eta besteak hemen inprimatuak han [Hegoaldean] zabaldua. Hori, zera, Enbatari edo holako jendeari esker egiten da baina ETAK mugitzen ditu bere koadroak (6. ELK.).

[ETA mugimenduaren eragina Iparraldean] Bai neretzako. (...) Egia da aurretik batzuk bazeudela, (...) bazegon jende abertzalea, euskalduna. (...) Hemen eurek biltzen ziran baina, bakizu, beste modu bat zen (...) ezer konkretatu gabe. Hemen konkretatu ziren gauzak gurekin, kultur mugimendu guztia guk jarri genduen (...) porque hemen zer zegon, ez zegon ezer! Bazegon liburu denda txiki-txiki bat baina saltzen zituen dozena bat gauza, eta ez zuen saltzen. Ikastolak bazeuden, bai Arrangoitzen baina umeak nongoak ziren? (9. ELK.).

1969-1970 ikasturtean sortu zuen guraso talde batek Arrangoitzeko ikastola. Eta hurrengo ikasturtean beste bi jarri zituzten abian, bat Donibane Lohitzunen eta bestea Baionan. Hainbat elkarrizketaturen lekukotasunak gogoan esan genezake ETA erakundeko eta mugimenduko kideak Iparraldeko kultura ekimen haietan inplikatu zirela. Ondorengo elkarrizketatuak Iparraldeko lehendabiziko ikastolen sorrera azaltzen du; 1960ko hamarkadan Parisen eta Lapurdin babestu zen lekuko hau eta Baionako ikastolako andereño izan zen gero.

[Iparraldeko abertzale bati] esker baina gure [ETAren zenbait sortzailereren eta ETA mugimenduko hainbat kideren] bidez, porque han [Iparraldean] ez zegon andereñorik eta gutxiagorik ere, lortu zan ikastola hastea. (...) Lehenengoa izan zan Arrangoitzen (...) eta bigarrena neria Baionan. Baionako fraile toki txiki batean baina han hasi ginan. (...) Hegoaldeko bidetik sartu zan. Hango [Iparraldeko] neskek ez zuten ez preparaziorik eta ezer.

Gainera gero Iparraldeko beste andereñoak, bertakoak, etortzen ziran Hegoaldeko ikastoletara Itsasondora edo Beasaina praktikak egitera (13. ELK.).

Beste elkarrizketatu batzuek ere erakutsi dute Ipar Euskal Herriko lehendabiziko ikastolen sorreran Iparraldeko eta Hegoaldeko abertzaleak elkarlanean aritu zirela.

Ikastolan hegoaldeko batzuk, Algortako batzuk (...) hasi ziren (...) bi andereño hoiekin. Eta ikastola hola sortu zan Arrangoitzen. [Iparraldeko abertzale batek] jarri zituen bere umeak lehen ikastolan ze bazituen lau-bost ume (...) eta gero beste batzuekin bildu zituzten. Eta lehen ikastola hori izan zen (9. ELK.).

[Iparraldeko abertzale batek] leku bat eman zuen Arrangoitzen, berea zena. Gero joan ziren neska baten bila beste aldera [Hegoaldera] eta hola egin zen lehena. [Iparraldeko beste abertzale batek] ere bazitun bere harreman bereziak, etxeakoak, eta hor antxeman zuen andereño bat libre zena eta bera etorrarazi zuen. Hori zen lehena izan (14. ELK.).

Hegoaldeko nazio askapenerako borroka eragina izan zuen, beraz, Iparraldeko mugimendu abertzalean. Iparraldeko ikastolen sorreran Enbatak (enbatakideen hausnarketak) izan zuen funtzioa azpimarratu du elkarrizketatu batek.

Atzean dagoena neretako da Enbatako bilerak! Nun gure koherentziak galdegiten zuen hori, ikastola bat, eskola baten montatzea eta gainera Frantzia guztian garai hortan (...), 68a hortik pasatu zen eta Europa mailan ere bazen reflektzio bat hezkuntzari buruz eta hazkuntzari buruz. (...) Orduan gauza horiek pil-pilean ziren. Eta eskola bat eskuaraz egitea militanteen seme-alabentzat behar bat bilakatu zen. Koherentzia interna ukaiteko. Eta gero baziren errefuxiatuen seme-alabak. Uste dut hemengoak [Iparraldekoak] baino gehiago bazirela. (...) Egin, egin zuten Enbatako

jendeak. (...) Eginen dugu ikastola bat eta ezautzen dugun artean eginen dugu (14. ELK.).

Besteak beste, ETAk ekintza zehatz bat egin zuen Iparraldeko ikastoletan. Testuliburu bat euskaratu zuen eta ezkutuan banatu zuen Iparraldeko eta Hegoaldeko ikastoletan. Horren erakusgarri da hurrengo aipua.

Hastapenean ez dakit zenbat ikastola izanen ziren bost edo, beno, bost gela: bat Angelun, Baionan, Donapaleun... ETAk egin zuen golpe oso polita. Liburu bat eskuaraz jarri (nik uste katalanez egina zela) eta klandestinoki helarazi ikastola guztier, umeentzat. Ez dakit zenbat egin zuten baina beste aldeko [Hegoaldeko] ikastoleri ere. Esto era una acción de ETA, por ejemplo (14. ELK.).

Zentzu berean Argalak dio Hego Euskal Herriko borroka uhin gisa hedatu zela Ipar Euskal Herrian eta, ondorioz, eta nazio kontzientzia zuten bertako sektore intelektual jakin batzuen lanari esker, kontzientzia hartzea handitu egin zela. Argalak kontatzen du Frantziako Estatu bi faktore haien arriskuaz jabetu zela eta horregatik utzi zituela legez kanpo ETA eta Enbata. Baina neurri hark nazio susperraldia bultzatzeko besterik ez zuela balio izan dio Argalak; horrela, poliki bada ere, erakunde berriak sortu eta hedatu zirela (Argala in Apalategi, 1979, 15-16 or.).

Horrenbestez, ondoriozta genezake Ipar Euskal Herriko esparru hertsiki politikoan bezala kultur mugimenduan ere eragin handia izan zuela ETA mugimenduak; Iparraldeko jarduera politikoa eta kulturala suspertzen lagundu zuela nolabait. Apalategiren iritziz orduan jarri zen abian Ipar Euskal Herriko mugimendu politikoa. Eta, lehendabiziko aldiz, Euskal Herriko zazpi herrialdeetarako nazio aldarrikapenak egiten zituen erakunde politiko bat nazio mailako praktika egiten hasi zen. Zazpi herrialdeak nazio askapenerako borroka bakarrean biltzeko ETAREN asmoak ETAREN zelulak sorrarazi zituen Ipar Euskal Herrian; hartara, bertako militanteek osatutako

taldeak ziren. Aurrerago arrazoi taktikoengatik baztertu egin zuten ekimen hura eta *Iparretarrak* (IK, 1973) taldea sortu zuten (1985, 268-270 or.).

Nolanahi ere, ez zen zentzu bakarreko influentzia bulkada izan; alderantzizkoa ere gertatu zen. Elkarrizketatu batzuentzat Ipar Euskal Herriko abertzaleen zenbait ekarpen oso baliagarriak izan ziren Hegoaldeko abertzaleentzat, hurrengo aipuetan irakur daitekeen bezala.

Hasiera hasieratik heldu nintzenean eta jende hori ezagutu nuenean, jende horrengan aurkitu nituen niri eskas zitzaizkidan erreferentzia asko, politika aldetik esan nahi dizut. Jende hori ibilia zen Parisen, holako lekuetan, (...) mugimendu iraultzaile oso aktiboetan, teoriiaz oso ondo jantzita. Egia esan, jende horrengan nik aurkitu nituen guri eskas zitzaizkigun erreferentzia asko (6. ELK.).

Recuerdo con gran pena el encontronazo cultural, o sea, queramos o no, nosotros somos de cultura española y ellos son de cultura francesa. Ellos ya habían hecho su ruptura democrática hacía 200 años con la Revolución Francesa y nosotros todavía no habíamos hecho ninguna ruptura democrática; entonces veníamos con una mentalidad muy, en ciertos aspectos, teóricamente sí muy avanzada pero luego los aspectos prácticos de vivencias de convivencias etc. Relaciones hombre-mujer y tal y cual, con años de retraso! Ellos eran mucho más avanzados y desarrollados que nosotros. O sea, que en eso sí nos han dado ellos y ellas lecciones, sobre todo ellas a nosotros (16. ELK.).

Iparraldean aterpea hartu zuten ETA erakundeko eta mugimenduko kideek eta bertako abertzaleek, beraz, *elkarri* eragin zioten; norabide biko harremana izan zen. Baina botere harreman guztietan bezala Hegoaldeko eta Iparraldeko abertzaleen artean ere tentsioak eta kontraesanak izan ziren. Ezinbestekoa da, horretarako, bi

aldean artean izan zen gatazkaren nondik-norakoa kontuan hartzea. Hori ulertzeko gakoetako bat zehatz-mehatz formulatzen du elkarrizketatu batek:

Egia da Hegoaldetik ihesi etortzen zen jende hori, ez zen dena berdin integratu tokiko abertzale munduan nahi baduzu, horietarik batzuek bederen, behar bada gehienek, estimatzen zuten Iparraldea horien zerbitzuko gune bat bezala (8. ELK.).

Ipar Euskal Herria ETA erakundeko eta mugimenduko kideen *babeserako leku* bihurtu zen neurri batean. Hauxe da bi aldean arteko tirabiren gakoetako bat hain zuzen, botere harreman asimetrikoak sortzen baitzituen: hala, Hegoaldea nazio borrokaren erdigunea zen bitartean Iparraldea bazterreko eremuaren egitekoa jokatzeko zuen. Elkarrizketatu batek harreman eredu honi *frente nagusiko teoria* deitzen dio. Hurrengo aipuan informatzaileak argi laburbiltzen du teoria horren esanahia.

[Hegoaldeko mugimendu abertzalearen eragina] Oso handia. Baina hori lotuta izan da beti problema batekin (...) formulatu izan dena *frente nagusiko teoria*. Hau da, Gerra batean ez duzu berdin borrokatzen frente guztietan, orain beharbada ofentsiba eman behar da frente honetan eta hemen etsaia desegina Gerra irabaziko duzu. Orduan frente nagusia izan da Hegoaldea. Eta hau [Iparraldea] izan da babeslekua militante gogorrenentzat. Beraz, horrek izan du eragin ikaragarria zeren horrek planteatzen zuen problema bat eta hori estrategikoki eta taktikoki beharrezkoa da: babesleku batean ez duzu kaka nahastu behar! Eta hori beharkizun praktikoa izan da! Orduan hemen ETako jende asko ibili da, hau da, operazio basean bezala. Beraz, parte hartu du bai ikastoletan, beste gauzetan, hor eragin handiak dira; adibidez, ikastolen mugimenduan ez da dudarik eragin handia izan dela, baina gero politikan kontuz ibili behar da zeri behatzen diogun. Eta 80etan oso harreman gogorrak izan ziren hori zela eta (6. ELK.).

Iparraldeko eta Hegoaldeko abertzaleen arteko harremana ulertzeko gakoetako bat ezin argiago formulatu du lekuko honek: ETA erakunde eta mugimenduko kideak Iparraldeko erakunde abertzaleekin elkarlanean aritu ziren, bai, baina, aldi berean, ez zuten bertako mugimendua *gehiagi gogortu* nahi izan (aurrerago ikusiko dugunez, Iparretarrak erakundea sortzeak areagotu egin zuen eztabaida hura). Hegoaldeko mugimendu abertzaleak Iparraldean izan zuen influentzia anbigua izan zen, hori eta horrenbestez. Ondorengo elkarrizketatuak harreman haren bi aurpegiak azaltzen ditu:

Hegoaldekoen rola Iparraldean, nik uste, anbigua izan dela. Alde batetik eraman dute, batzuek behintzat eraman dute, Iparraldeak irentsi ezin zuen erradikalismo bat, batez ere, urteak pasa ahala geroz eta gehiago; eta bestetik eraman zuen, eta nik uste dut positiboa, ba euskaltzaletasuna. Txillardegi eta hauek, ebidentemente, inportanteak izan dira; hizkuntzaren ardura eta guzti hori. (...) Eta politikoki ere eduki dute, Iparretarrak bat egon da, esan nahi dut influentzia anbiguo bat. Eta gero, bestetik, probokatu dute, baita ere, bertako euskaldun eta abertzale askoren kontrakotasuna. Konfliktuak eduki dituzte. Beti arriskutsua da baina arrotza zara eta ez zara, Hegoaldekoa zara, espainola zara beraien hizkuntzan eta hasten bazara han astintzen zuhertasuna eduki behar da eta ez da beti eduki. Influentzia eduki du baina ez beti positiboa (10. ELK.).

[Hegoaldearen eragina] Nik uste det baietz baina nik uste bestetik ere, ez genula oso ondo jokatu. Egitan ardatz bezala ginan eta hori inori ez zaio gustatzen. (...) Esan nahi dizut ez genula oso diskreto jokatu, nere ustez, eta nere ustez kontuz ibili behar da eta gu pixkat gera... (13. ELK.).

Las relaciones con Iparralde "frente pteador de Hendaia, frente pteador de Baiona". Luego había elementos concretos que vivían el mundo cultural, por ejemplo, gente que pasaba al otro lado [Iparraldera] que no tenía sitio en la organización para seguir desarrollando sus labores militantes y se

empezaba a incorporar en ambientes de Iparralde. (...) Sí se veían esas relaciones y luego la gente que trabajaba; pero eran trabajos cerrados, por eso, era como un estado dentro del estado, así lo solíamos calificar nosotros. Y por eso solían surgir, a veces, roces y diferencias con la gente propia de Iparralde. Por eso, ¿hasta qué punto beneficiamos o perjudicamos las relaciones y la situación? Pues de todo ha habido (16. ELK.).

Diskurtso horiek aztergai dugun hegoaldea/iparralde harremanaren zutabeetako bat iradokitzen dute: alegia, ETA mugimenduak Iparraldeko eremu abertzaleetan hartu zuen protagonismoak bertako dinamika abertzalea garatzea baldintzatu zuela nolabait. Segidan irakur dezakeguna aski esanguratsua da alde horretatik; etakideak etxean gorde zituen Iparraldeko kultur mugimenduko kide baten aitorpena da.

Egia erran, batzuetan, gure artean eta komentatzen genituelarik Hegoaldeko erabakiak, ETAk hartzen zituen erabakiak ta, erraten genuen "jo Hegoaldeko horiek!" Ez denak... "Oraino ere, beren eskalapoi handiekin sartu dituk!". Eskalapoiak, (...) egurrezko zapatak. (...) Erabaki batzuk bai, ez nahiko kontsideratzea hemengo [Iparraldeko] berezitasunak, hemengoek moldea bazutela gauzen eramateko. Hemen girela 200 urtez frantsestiak eta espainolduak Hegoaldean, eta toki bakotzak berezitasuna nahitaez baduela, eta orduan bere urratsez behar dituela gauzak aurrera eramán (8. ELK.).

Aipu honetan iradokitzen da Iparraldeko abertzaleek autonomia maila bat nahi zutela bertako nazio askapenerako borroka antolatzeko. Gure ikerketa eremutik irteten bada ere, aipa dezagun hemen Iparraldearen *laguntzaile rola* eztabaida iturri izan zela 70eko hamarkadan ere. Ipar Euskal Herriko abertzale batzuek Iparretarrak erakunde sortu zutenean nazio borroka aztertze eta garatzeko ikuspegi artekotalka areagotu egin zen alde bateko eta besteko abertzaleen artean. Iparraldean borroka armatua egin ala ez egin, horra auzia. ETAk ez zuen bere iritzian Frantziako Estatuaren kontra indarkeriazko ekintza-metodoak erabiltzeko aukerarik

aipatu eta Hego Euskal Herrira mugatu zuen bere ekimen armatua ([ikus III.4.10.](#)). Ondorengo aipuan adi genezake tentsio haien oihartzun bat.

IK-koak hasi ziren egiten hemen [Iparraldean]: "guk gure borroka berezia behar dugu ere eman, bestenaz, bukatu da hemengoa". (...) Eta hor ez ziren ados ETA eta IKren artekoak. (...) Logikoa da haien [etakideen] aldetik, nik gauza logikotzat atzematen dut. (...) Haien logikan zen Iparraldean mugitzen ez bada frantses polizia lasaiago egonen da. Iparraldean hasten badira, bereziki atentatuak eta hola, automatikoki guk egoitea zailago izanen dugu eta beharko dugu hemendik urrundu. Beraz, beraienezat dudarik ez da hemen borroka armatua piztuz, haiendako egoera zailtzen zela, biziki. Beste logistika behar zutela antolatu (8. ELK.).

Atal honen erdialdera aipatu dugun lekuko baten ekarpenak adierazten duenaren haritik, Jauregik ere dio borroka armatua Ipar Euskal Herrira ez zabaltzeko arrazoietako bat estrategikoa izan zela; hots, frantziar autoritateek ETaren jardueraren aurrean *jarrera neutrala* izan zezaten eta ETAk espainiar poliziak eskumen zuzena ez zuen eremu bat izan zezan (Jauregi, 1981, 213 or.).

Iparraldean borroka armatua egiteko edo ez egiteko estrategian ez ezik, beste gai batzuetan ere ez zuten bat egiten Iparraldeko eta Hegoaldeko abertzaleek. ETA mugimenduko kideak izan arren, eta ETARI lagundu arren, beste ikuspegi batetik begiratzen zioten oro har marxismoari Iparraldeko abertzaleek. Badirudi ordea ezberdintasun horiek ez zutela ahuldu alde bien arteko elkarlana eta elkartasuna. Fenomeno hori iradokitzen da hainbat elkarrizketaturen diskurtsoan. Honakoan, esate baterako.

Nik pertsona mailan lehenagotik irakurriak nituen [autore ezkertiarren obrez ari da], gure ikasketetan ikasita nituen nahitaez. Gu ez gintuen, ni pertsonalki hasteko, (...) hainbeste ukitu mugimendu horrek, ezkerrekoa ta marxista. Hitz eginik, bai, eman dezagun [ETaren sortzaile batekin] asko hitz eginik,

haien hautua hori zen. Gurea beste molde bat zen baina horrek ez zuen aldatzen elgarrekin lan egiteko posibilitatea. Edo lan egiteko baino gehiago gure sustengatzea, horrek ez zuen trabatzen, nahi baduzu (8. ELK.).

Egia esan, alderantzizkoa ere gertatu zen: hartara, ETAREN barruko marxismoaren aldeko joerak Iparraldeko abertzale batzuk erakarri zituen. Etakideekin harreman handia izan zuen Enbatako kide baten ekarpenak adierazten duenaren ildotik, etakideek diskurtso ezkertiarra zuten eta berak etakideen eskutik jaso zuen askapen sozialaren ikuspegia.

Ni hasten naiz sozialki ETAko jenden diskursoarekin. (...) Baionako parte zaharra zen burbuila bat. Eta hoiekin [etakideekin] laguna nintzan; Enbatako guztiak ez ziren hoiengatik lagunak. (...) Hek [etakideek] bazuten bai diskurso oso ideologizatua (14. ELK.).

Beste zentzu batean ere bazen alderik Iparraldeko eta Hegoaldeko abertzaleen artean: izan ere, identitate eta praktika kultural eta linguistikoek elkarrengandik urrundu egiten zituzten bateko eta besteko abertzaleak. Horren erakusgarri izan daiteke hurrengo aipuan elkarrizketatu batek adierazten duen distantzia.

Yo creo que vivíamos mundos paralelos, es decir, el mundo de refugiados, huidos y tal; el comportamiento que tiene es un poco paralelo a la propia realidad vivencial sociológica de Iparralde, como explicarlo, juntos pero no revueltos. Es decir, nosotros continuábamos haciendo nuestras vidas, nuestras costumbres de Hegoalde, nuestro castellano de Hegoalde, salvo los euskaldunes, claro, pero la mayor parte del tiempo se hablaba en castellano (16. ELK.).

Euskal Herria garatu eta askatu ahal izateko ezinbestekoa zen ETARENTZAT Iparraldean eta Hegoaldean estrategia bateratua edo bateratsua garatzea. Arrazoi historiko, ekonomiko eta kulturek hori eskatzen zuten. Baina, egia zor, alde

bakoitzaren ezaugarriak eta erritmoa errespetatuz. Horren erakusgarri izan daiteke hurrengo aipuan Argalak garaiko ETAREN diskurtsoaz egin zuen hausnarketa.

Por lo tanto, ambas zonas del país no habrían de caminar separadas en dos estrategias correspondientes a los estados en que se hallaban incluidas, sino que era preciso desarrollar una sola estrategia nacional y unitaria, aunque coordinando tácticas y etapas diferentes en correspondencia con la realidad de cada zona (Argala in Apalategi, 1979, 16 or.).

8. ETA mugimenduaren inguruko apaizen sarea

Aranaren nazioaren definizioan bereiztezinak dira euskaldun eta abertzale izatea, eta katolikotasuna: "euskaldun fededun" leloa lekuko. EAJren barruko sektore batzuek akonfesionaltasunaren aldeko jarrera hartu bazuten ere, erlijioan ardaztutako nazio diskurtsoa izan zen hegemonikoa abertzaletasun etnikoan, eta horrek mugimenduaren adar guztiei eragin zien. Gorago aipatu dugunez, apaizek eta elizaren inguruko taldeek aktiboki parte hartu zuten EAJren ezpaleko mugimenduaren garapen prozesuan. 50eko hamarkadan aldatu egin zen abertzaletasunaren jarrera ETAK akonfesionaltzat jo baitzuen bere burua ([ikus III.4.1.](#)). Horrek ez zuen, ordea, etakideek eliza eta erlijioarekin zituzten lotura guztien etena ekarri. Eta gerra aurretik bezala gerra ondoren ere, funtsezko zeregina bete zuten apaizek eta elizaren inguruko taldeek ETAREN lerroko mugimenduaren garapenean. Hori guztia aztertuko dugu atal honetan.

1936ko gerra ostean Euskal Herriko testuinguruan ikaragarriko kontrol soziala ezartzen zuen elizak, zegokion mentalitatea moldatzeko faktore oso garrantzitsua zen artean. Jendarteko eremu gehienak dominatzen zituen. Elizaren muga sozialak eta pentsamendu bakarraren inposaketa oso presente dituen diskurtso kritiko bat aurkitu dugu hainbat elkarrizketatan: hartara, herri txikietako bizitzaren erabateko kontrola eta gerra ondoko izu-giroa aipatu dituzte haur eta gazte garaiko testuingurua deskribatzerakoan. Ordena hura mantentzeko ezinbesteko baldintza

zitzaion erregimen frankistari nazional-katolizismoaren transmisioa egitea. Elkarrizketatu askok heziketa hura jaso eta jasan izana adierazi dute.

Espainiako historia den-dena seminarioan jasotzen genuen. (...) Nik falangista baten formazioa hartu nuen protesta sentimendurik sentitu gabe eta zigortu ninduten euskalduna nintzelako eta nik normal bezala hartu nuen, errebeldiarik gabe (10. ELK.).

[Umetan eta gaztetan] cristiano, católico profundo, hasta... (...) Mi aita no, ama bai, pero tampoco... yo sí. Yo de niño estudié primero con las Carmelitas (...) y luego con los Jesuitas 16 años. Y en Jesuitas he sido de los de espada corta, guerrillero de Cristo rey, cruzado, más que guerrillero, cruzado de Cristo rey, pero sí, sí, misa diaria, rosario diario, ejercicios espirituales... (16. ELK.).

Eliza-hierarkia Francoren diktadurarekin bat eginda bazegoen ere, apaizen sektore zabal batek nazional-katolizismoaren kontrako jarrera hartu zuen Euskal Herrian. Kontzientzia sozial handiko kristautasun subalterno bat praktikatu zuten apaiz haiek eta Ekin-ETAko militante izango ziren gazte askoren heziketan parte hartu zuten:

Nazional-katolizismoarekiko kontraesanak ekarri du beste kristautasun tipo bat garatu nahi izatea. Hego Amerikan dago *teología de la liberación* deitzen den hori, kritikoa, bertako katolizismo tradizionalaren kontrako erreakzio bat da. Hemen ere eman zen nazional-katolizismoaren kontrako erreakzio bezala baina apaizengan ematen da hori eta apaiz hauekin kristautu dira gure herriko gazteak. (...) Daukaten kristautasunaren kontzientzia ez da ordenaren defentsako nazional-katolikoa baizik eta sozial kritikoa da erabat. (...) Eliza bera da kasik anti eliza bat bezala. Euskal elizak ez du konfliktorik sortu kontzientzietan, katolizismo espainolak bai (10. ELK.).

ETA mugimenduan parte hartu zuen apaiz baten lekukotasunak ondo asko erakusten du euskal apaizen praxia, oro har, ez zetorrela bat hierarkiarenarekin. Ez jarduera erlijiosoan, ez politikoan. Hain zuzen ere, frankismoaren kontrako borroka politikoan inor ibili bazen, apaizak ibili zirela adierazi dute elkarrizketatu batzuek. Honako aipu hauek bi *elizen* arteko dikotomia erakusten dute:

Gauzaren bat gertatzen bazen horri buruzko azalpenak ematen genituen ebanjelioaren ikuspegitik, ebanjelioa ez baitzen Francoren aldekoa. Apaiz frankistek mezu hori zabaltzen zuten baina guk ez genuen horrelakorik egiten (15. ELK.).

Gauza bat da Euskal Herriko eliza esaten dudanean, Euskal Herriko apaizak esan nahi dut, ez hierarkia, ez gotzainak eta. Baina gure kasuan, gerra galtzaileen artean, hain zuzen, inor egotekotan apaizak zeuden, oso zigortuak izandakoak. Eta horiek zabaldu zuten kontzientzia soziala, baina kontzientzia sozialarekin batera, hain zuzen, neurri handi batean joaten zen politikoa ere bai (10. ELK.).

Ekin-ETAren sortzaileen artean aniztasuna zegoen erlijio gaietan: fededunak, agnostikoak eta ateoak zeuden militanteen artean. Elkarrizketatutako sortzaile batek adierazi du halako tira bira bat sortzen zuela erlijioaren auziak lehendabiziko talde hartan. Ondorengo aipu honetan antzeman daiteke egoera hura.

Ni beti izan naiz fededuna eta orain ere bai. Istilu itzelak edukitzen genituen Txillardegirekin esate baterako, zeren berak horretaz ez zuen nahi jakin ezer ez. Katolikoak, esate baterako, Jose Mari Benito del Valle eta ni neu ginen, besteak ez-fededunak (5. ELK.).

ETAren sortzaileen artean ez ezik, 60ko hamarkadan ETA mugimenduko kide izan ziren elkarrizketatu batzuek ere adierazi dute harreman estua izan zutela fedearekin eta elizarekin. Esate baterako, ondorengo aipu hauetan ikus dezakegu.

Acción Católicako Baserri Gaztedin ni guztiz sartuta egon nintzan. Baino gero, nola nahi dezu ikusi genitunak ikusita? Ez zan posible segitzea eta utzi egin genun. Ni urte askotan juten nintzen mezetara (13. ELK.).

Mezetara joaten ginen. Ta ni, pertsonalki, 17 urtera arte nahiko beroa nintzen zeatik amandrie, amona, bere infernu puta horrekin, joder! Ta ni beti pekatuan nengoen gainera! Infernu horrekin zenbat zera zuen! Gero horregatik nintzen beroa baina ezagutza erlijioso oso azalekoa (11. ELK.).

Nik uste dut ETA hor nahiko malgua izan dela beti, izan du esku ona. Nahiz eta sozialista bihurtu eta hori, bihurtu bai asko gainera bihurtu buruan baina sentitu ez, beste batzuk sentitu bai baina desberdintasunak egon dira eta daude. Baina hor malgua izanik, sartzen ziren, nik dakit ziurtasun osoz esaten dizut komandoetan, komando militarretan guztiz elizkoiak zirenak (2. ELK.).

Nolanahi ere, oso modu argian bereizten dituzte elkarrizketatuek kristau fedea eta eliza-hierarkia. Eta bereizketa horrek azaltzen du, hain zuzen, zergatik ez zuten kontraesanik sentitzen kristau izanda eliza hierarkiaren kontra borroka egiteko, edo ETA erakunde akonfesional izendatzeko. Hala islatzen da hainbat informatzailereren diskurtsoetan, segidan aurkezten ditugun hauetan bezala.

Espainiako hierarkiarekin inoiz ez, eta Vatikanoz ere ez. Pertsonalki ni katolikoa naiz. (...) Pertsonalki bai baina organizazio bezala akonfesional, hori ez da esan behar! (5. ELK.).

Urrundu ginen hierarkiatik eta praktika tradizionalista batetik. Diferentzia egiten dugu: kristautasuna, sinesmena guretako, eta uko Elizari (7. ELK.).

Inongo arazorik gabe elizara joan igual, mezetara, eta gero egin behar zenuen elizaren kontra ez dakit zer. Elizan, esate baterako, bota ditugu octavillak goizeko mezetan eta igual hurrengo egunean joaten zinen ikustera

ea jaso ote duten, zer esaten zuten. Ez dela horrelako oztopoa izan. (...) Gero sartzen denean tartean etikoa eta ez etikoa, morala eta ez morala orduan nahasten da dena. Gauzak naturalak egiten direnean, zuk mezatara nahi duzu joan ba joan zaitez, baina hura putakume bat da (2. ELK.).

Egia esan, ez da problema izan! Nik irakurtzen dudanean "ikusten da ETA seminariotik datorrela" ez da egia! Koadroen aldetik ez da batere horrela gertatu. Guk ez geneukan problemarik! (6. ELK.).

Kontraesanik ez, beraz: alderantziz, etakideen sakrifiziorako gaitasunarekin lotu du elkarrizketatu batek kristautasunaren etika. Hurrengo aipuan informatzaileak zehatz mehatz hitz egiten du garai hartan erlijioak motibazio iturri indartsu gisa bete zuen funtzioaz.

Erljioak garai honetan funtzionatzen du motibazio potenteena bezala, hain zuzen, borroka egiteko. Hasieretako ETako jende askori elizak eman dio sakrifiziorako moral hori; elizatik hartu duen leialtasunaren, sakrifizioaren eta ideal baten alde bizitza ematearena. (...) Kristautasun erradikal hori da lagunduko diona ETAraino joaten, ETaren inguruan edo mugimenduan bere bizi guztia emateko eta eskaintzeko. Ez da egon kontradikziorik (10. ELK.).

Dena dela, elkarrizketatu ditugun etakide eta ETA mugimenduko kide gehienek elizarekin, eta batzuek erlijioarekin, eten zutela adierazi digute. Fenomeno orokortua bihurtu zen joera hura erakustearren, zenbait aipu aukeratu ditugu.

Frantzian egon nintzen nobiziadoa egiten, Kanadan (Ottawan) hiru urtez, eta Afrikan bi urtez. Afrikatik etorri eta erabat eten nuen fedearrekin: nola apustu dezaket nire bizitza horrelako antolamendu talde baten atzetik, hain faltsu den talde baten atzetik? (12. ELK.).

Ni ETAn sartu nintzenean nire burua neukan ateotzat eta ez neukan problemarik. Denek bezela irakaskuntza erlijiosoa [jaso nuen] baina gure taldean ibili ginen V. ondoko Biltzar Tipian, Komite Ejekutiboan Etxebarrieta, Eskubi... Izenak eman ditzaket bata bestearen atzean. Esan nahi dizut jende guzti hori laikoa zen, laiko-laikoa (6. ELK.).

A los quince ya di el salto y me convertí en comunista y rompí con la religión católica. Yo veo que la religión intenta hacer desarrollar un proceso de ayuda a la sociedad, los obreros y tal, pero que luego se queda en pura teoría. (...) Y entonces busco la antítesis y ¿cuál es la antítesis? El comunismo. Y entonces empiezo a leer los pocos textos que había del comunismo. La nuestra es la generación que rompe con la religión y, no solo nosotros, los mismos jesuitas; es una generación de curas que empiezan a incorporarse a cura-obrero, empiezan a salir del colegio, se van a casas, se van en comuna a vivir y yo te voy a decir que seguramente el 50-60% de los profesores que yo tenía dejaron el hábito (16. ELK.).

Eliza-hierarkiaren kritikatik erlijioaren kritikara pasatu zen ETA. Dagoeneko zantzu batzuk ikusi baditugu ere, elkarriketatu baten hitzak baliatuz esan dezakegu ETAREN barruko erlijioaren kritika, berez, 70eko hamarkadan gertatu zela: alegia, nazio auzia eta marxismoa uztartzeko eztabaida gorenera heldu zenean. Segidan aurkezten dugun aipuan ondo asko azaltzen du hori informatzaileak.

Marxismoa fuerte bihurtu denean, orduan hasten da kontradikzioa. Marxismoak badauka erlijioaren kritika bat: (...) alienazio sozialaren deskubrimendutik dator erlijioa ere alienazio sozial bezala deskubritzea, eta zeure erlijioa ere alienazio bezala, nolabait, kuestionatzea. Nik esango nuke hori ez dela eman 70a baino lehen. Beno, kasu batzuk emango dira baina nik uste hori fuerte 70 aldera hasi dela ematen (10. ELK.).

Elite intelektualaren barruan kokatu zuen ETAk behe kleroa ([ikus III.4.11.](#)). Nazionalismoaren prozesu gehienetan eliteen buruzagitza- edo lidergo-funtzioa funtsezkoa izaten dela esan dugu lehen eta, gure ikerketara begira, azpimarratu dugu estaturik gabeko mugimendu nazionalistetan buruzagitza-zeregin hori talde intelektualek betetzen dutela askotan (Smith, 1976). Horretan saiatu zen ETA: hau da, intelektualak euskal nazio askapenerako borrokan inplikatzeko. Horregatik argitaratu zituen euskal intelektualei zuzendutako bi gutunak. Hiru zeregin ematen dizkie, funtsean, prozesu iraultzailean: batetik, iritzi publikoan izan dezaketen eraginaz baliatuz herria iraultzara erakartzea; bestetik, nazio askapenaren ardura bere gain hartzea, herri-proiektuarekin konprometitzea eta krisi garaietan masa gidatzea; eta, azkenik, herri mugimenduaren oinarri ideologikoak eraikitzeke lana. Azken zeregin horretan sektore erlijiosoek (behe kleroa) duten zeregina nabarmentzen du ETAk.

Euskal Herriaren aurkako zapalketaren lehendabiziko salaketa publikoa euskal kleroaren eskutik etorri zen hain justu (Jauregi, 1981, 130 or.): 339 apaizen gutuna da horren lekuko. 1960ko maiatzean Euskal Herriaren zapalketa salatzeke eta atxilotuen torturak salatzeke dokumentu hura argitaratu zuten. Gure elkarrizketatuen arteko apaiz bat zegoen sinatzaileen artean.

ETA mugimenduko kideek "apaizen sarera" (Nuñez et al., 1993, 2, 197 or.) jo zuten maiz laguntza edo babes eske. Sortu orduko apaiz askok eskaini baitzioten laguntza ETari. Jauregiren arabera hainbestearainokoa izan zen apaizen laguntza ezen kleroaren eta ETako gazteen matxinadaren artean komunikazio handia sortu baitzen. Ez da kasualitatea etakide asko seminariotatik atera izana edo apaiz ugarik ETAn militatu izana (1981, 131 or.). Zeregin askotan lagundu zioten ETari: hala nola, militante berriak aurkitzen, agiriak gordetzen, eraikinak uzten, eta abar. Segidan, lau elkarrizketaturen solasetatik hartutako adibide bana jarriko dugu. Lehendabiziko biak elizgizonenak dira; hirugarrena ETaren oinarrizko komando bateko kide batena.

Ni [Frantziskotarra] orduan Gernikan bizi nintzen eta laguntzen nien batzuetan ETAkoei, baita ere papera gorde eta. (...) Berriztatze guzti hau elizak lagundu du neurri handi-handian: kultura eman du, formazio kurtsuak ematen zituen, eraikinak eman ditu, dena eman du (10. ELK.).

Nik abadetxea beti edukiten nuen zabalik, gauez eta egunez; ezin zen beste inon egon eta orduan gazteak eta etorteko. (...) Guk organikoki ez genuen loturarik ETakoekin baina beraiek Durango eta nahaste guztietan sartuta ibiltzen ziren. (...) Alfabetatze kanpainak ere elizaren inguruan eratzen ziren, ikastolekin ere berdin, posibilitate bakarra hori izaten zen eta jende abertzaleak hori baliatzen zuen (1. ELK.).

Nahiz eta ordurako ia denok Eleizarekin moztu genuen, batzarrak egiteko behar genituen aretoak, baldintza egokietan; apaizek baizik ez zituzten eskeintzen ahal. Ta orduen guk izan genuen suerte handia [herri jakin bateko] frantziskanoak ziren eliza bateko jabe ta haiek uzten ziguten areto ederra. Eta beti babes leku ziurrenak beti apez-etxe eta holakoak ziren; hori ere holaxe da, nahiz ia denok eleizatik aldentuta ginauden (11. ELK.).

Elizaren inguruko talde batzuek ETA mugimenduarekin jardun zuten elkarlanean. Herri Gaztediko kide izan zen abade bat bi mugimenduen arteko elkarreraginaz mintzatu da. Honako aipu honetan islatzen da harreman hori.

Nik uste dot gure [Herri Gaztediren] euskalduntasunak kutsatu zuela ETA, elkar eragina egon zen, elkar aberastu eta kontzientziatu ginen (1. ELK.).

Bizkaiko alfabetatze mugimenduaren jatorrian egon zen Herri Gaztedik bere jarduera guztia euskaraz egitea erabaki zuen 60ko hamarkadan. Elkarrizketatu bera euskara eta euskal kulturaren esparruan egin zuten lanaz mintzo zaigu.

Atera kontu zenbat kostatu zan euskara sartzea elizatan. Ez zegoen ezer ere eginda. Mezak eta euskaraz zeuden baina eragozpen handiak eduki genitun ez zelako ezer preparatuta obispadutik eta inondik. Espainolez Madriletik etortzen zen dena egina. (...) Bat egin genuen langile, euskara eta abertzaleen aldeko planteamenduekin. Ordura arte ibai ezkerrean egon ziren apaizek eraman zuten bide hori, batez ere Periko Solabarriak eta horiek. Baina guk hemengoek gehio herri mugimendua edo Euskal Herriaren planteamendua eduki genuen (1. ELK.).

Bestalde, dibulgazio lanean ere aritzen ziren apaizak: *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan auzi sozialei buruzko idazlanak argitaratu zituzten. Elkarrizketatu baten mintzoari darionez, esan genezake ETAREN borrokaren transmisioa ere egin zutela zenbaitetan. Segidan aurkezten dugun aipuan ikus dezakegu hori.

Hegoaldeko jendearen influentzia Iparraldeko jendearengan apaizen eta fraideen bitarteez izan da askotan. Ze Iparraldeko jendeak errazago onartzen zituen fraide eta apaiz hauek ihes egindako batzuk ETAKo gazteak baino (10. ELK.).

Tartean, protesta ekintza ugariren protagonista izan ziren apaizak⁴²⁸. Erregimen frankistak egiten zituen torturen salaketa publikoan nabarmendu ziren. Gogor taldearen berri ere eman digu informatzaile batek.

Gogor taldea 67an edo sortua. Gotzainek eta obispaduko jendeak ez zuten ezer egiten eta, gogorkeriari gogortasunez erantzun behar zaiola, eta hortik atera zan Gogor taldea. Manifa bat egin zen sotanaz jantzitako apaizekin Bilbon. Bilboko obispaduan bi entzerrona egin ziren, Derion 6otik gora elkartu ginen. Giza eskubideen urraketaz jabetzen joan ginen, torturak eta tarteko (1. ELK.).

⁴²⁸ Letamendiak dio 1968ko abuztuan hogeit hamar apaiz zeudela atxilotuta (Historia de Euskadi, 340; Jauregi, 1981 458).

1968ko apirilean Euskal Herriko elizbarrutietatik kanpo zeuden hiru euskal gotzainek Gipuzkoako gobernadore zibilar gutun irekia bidali zioten, hainbat atxilotuk salatu zituen torturak salatzeke. Urte bereko abuztuan berrogei euskal apaiz inguruk Bilboko gotzaindegian sartu ziren Euskal Herriarekiko eliza-hierarkiak zuen jarrera salatzeke (Jauregi, 1981, 458 or.). ETA mugimenduan ziharduen apaiz batek parte hartu zuen bertan. Honako aipu honetan azaltzen du gertaera hura.

Etorri zen [gotzain jakin bat] eta agindu zigun ateratzeko handik. (...) Esaten genion "gu gera hurrengo katea eta geuk egin beharko dogu, Bizkaiko eliza ezin da egon ezer esan gabe: tortura, detentzioak, kartzela... horiek salatu behar dira. Elizaren doktrinak hori esaten du, hor gogor jokatu behar dogu". Berak ez zuen egiten, ba geuk egingo dogu. (...) Ekainaren batean etorri goizaldean polizia eta eraman gintuzten. Papertxua bota genuen Parisera esaten zergatik egiten genuen gose greba eta horregatik rebelión militar leporatu ziguten (1. ELK.).

9. ETA mugimenduaren ekarpena militanteen ahotan

ETAren inguruan antolatu zen mugimendua aztertu dugu esparruz esparru. Orain artekoa osatzeko interesgarria izan daiteke mugimendu horretan parte hartu zuten agenteek zer iritzi duten. Horrela, atal honetan ETA mugimenduaren *ekarpena* izango dugu hizpide, zehazki elkarrizketatuek beraiek ETA mugimenduaren ekarpenaz adierazten duten ikuspegia.

Elkarrizketatu batzuek ETAk nazio askapenaren eta askapen sozialaren artean egin zuen sintesi teorikoa azpimarratzen dute. Esate baterako, segidan aurkezten ditugun aipuetan irakur dezakeguna izan daiteke horren adibide:

El nacionalismo revolucionario (...) cuando surge en los años 60 es el núcleo ideológico que mejor ha podido contribuir a lo que supone la lucha de liberación nacional y social de este pueblo. Es decir, donde se entroncan los

dos aspectos, la cuestión nacional y la cuestión social. Eso ha sido un elemento clave. (...) Clave porque supera el nacionalismo burgués y, por otro lado, supera también los déficits socialistas-comunistas-españolistas que cada uno sólo aportaban uno de los elementos. Sin embargo, nosotros sabemos combinar los dos elementos y ofrecer a este pueblo, que es Pueblo Trabajador Vasco en definitiva, las dos realidades (16. ELK.).

Langileriarekin ere harreman gehiago ta kontzientzi gehiago. Herri eskubideak bakarrik barik langileen eskubideak, horretan asko sakondu zan. Horretan lagundu zuen komunismoak eta sozialismoak eta Hego Amerikako aurrelariak: Fidel Castrok eta horiek egin zutena asko lagundu zuen. (...) Gure aurreko eredu atzerakoia zan eta euskalduntasun eskasekoa (1. ELK.).

Askapen nazionala askapen sozialarekin uztartzeko ETAk estrategiaren esparruan egin zuen ekarpena nabarmentzen du beste iritzi uste batek. Elkarrizketatu batzuek ETAREN *abertzaletasun ekintzailea* aipatu dute eta beste batzuek, berriz, ETAk garatu zuen *estrategia iraultzailea* nabarmendu dute. Segidan aurkezten ditugun elkarrizketatuen ekarpenetan ederki asko ikusten da hori.

Nik uste dut Pariseko 68, (...) Frantzian ez zala egon hamen egon zan mugimendua, ezta gutxiagorik ere. Hau askoz ere aberatsagoa izan zan. Abertzaletasun ekintzaileagoa ta zabalagoa, askoz ere aurrerakoiagoa (1. ELK.).

Para desarrollar eso [abertzaletasun iraultzaileaz ari da, nazio askapena eta askapen soziala lotzeaz], ¿qué elemento, qué instrumento se necesitaba? Creo que ahí fue clave ETA. (...) Que hemos sabido en cada momento, en cada contexto saber responder a esa ideología del nacionalismo revolucionario. En su momento, con la insurrección revolucionaria, después, con lo que eran las ofertas de alternativa de negociación político-militar y, en la actualidad, con la propia decisión de la organización armada de hacer un

cese de la lucha armada. (...) Yo creo que va todo ligado desde su nacimiento con las realidades específicas a las cuales había que enfrentarse. (...) Creo que ha sido ETA una gran contribución (16. ELK.).

Nazio askapenaren esparruan ETAk EAJren abertzaletasuna irauli izana azpimarratzen duen iritzia ere aurkitu dugu elkarrizketatuen diskurtsoetan. Elkarrizketatu batzuek naziotasuna odolean edo arrazan oinarritu beharrean, ETAk euskara-kulturan eta, bereziki, euskararekiko jarreran jarri izana nabarmentzen dute. Ondorengo informatzaileak aldaketa hori eta bere garrantzia azaltzen ditu; hots, naziotasun irekia aldarrikatzeak (ikus III.4.8.) etorkinak abertzaletasunean integratzeko bidea eman ziola ETARI:

Abertzale (...) hasi zen lehen aldikoz historikoki izaten ez (...) lau edo bost edo zortzi izen euskal izen zituelako, baizik eta Euskal Herrian sortu eta euskara hitz egiten zuelako. (...) Eta gu geuk hurbiletik ikusi genuen gure inguruan genituen zenbait kidek (...), eman dezagun itsasadarraren ezkerreko Lopez, Gonzalez eta, (...) "gu ere ¡a partes iguales!". (...) Berdin da (...) nondik zetozen baizik eta eguneroko ekintza. Euskaraz hitz egiten egunero edo idazten edo irakasten. (...) Zinezko abertzalea dena (...) euskaldun gisa ari dena gure hizkuntza erabiliz eta abar, zein den izena eta bost axola zaigu (3. ELK.).

Beste adibide batzuk aztertzen baditugu, ETAk independentziaren ideari eman zion pisua ere garrantzitsua da elkarrizketatuen iritziz. EAJren abertzaletasunaren diskurtsoarekin konparatzen dute, eta, egia esan, aski esanguratsuak dira ateratzen dituzten ondorioak. Segidan irakur dezakeguna aski esanguratsua da.

Izen batekin esan behar bada, nik esango nuke independentzia, zeren eta PNV inoiz ez da joango bide horretatik, inoiz ez (5. ELK.).

Independentziaren aldeko jarrerarekin batera, ETAREN diskurtsoak ekarri zituen beste osagai batzuk nabarmentzen ditu gero elkarrizketatu berak:

Aconfesionalismo, socialismo (socialismo humanista, ez socialismo del PSOE), (...) euskara, independentzia, autodeterminación... Gu etorri arte horretaz inork ez zuen esaten ezer be ez. Zeren Euskadiko intelligentsia, *la intelligentsia de Euskadi* inoiz, inoiz ez da... (5. ELK.).

Akonfesionaltasuna edo politikaren sekularizazioa azaleratu du elkarrizketatu honek. Zentzu horretan ETAREN sortzaileetako batek uste du fedez gaindiko politika egiteak bortxarekiko beste jarrera bat hartzen utzi ziela etakideei. Nahiz heziketa katolikoa jaso zuten guztiek, honako aipu honek kontraesan horren berri ematen du:

Ni neu pertsonalki eta oso aspalditik agnostiko izanik (...) nahiz eta guretariko askorentzat ETAREN barnean (...) judu-kristaua den guztiaren pisua handia zen oraindino. Eta gauza bat da teoriaz hori hartu eta balkoitik behera bota dut bai ederki, baina hor dago oraino. (...) Hor dator bortxakeriaren kontua; noski, gu jadanik pentsamendu horrekin, (...) nahiz eta hori dela eta ahaleginak egin behar genituen bortxatzeko apur bat edo asko gure borondatea, errazago (...) zitzaigun (...) horrelako konfrontazio bat. (...) PNVkoek konfrontazio hori zuten. Orduan, ez dakit, errazago zitzaigun guri pausua ematea, teoriaz, euren ondoan ezarririk (3. ELK.).

Askapen sozialaren esparruan ETAK egin zuen ekarpena nabarmentzen dute beste informatzaile batzuek: alegia, ETA, mugimendu abertzale gisa, 50eko eta 60ko hamarkadetan Hego Euskal Herrian gertatzen ari ziren aldaketa sozial handiak ulertzen ahalegintzea eta errealitate hartara hurbildu izana azpimarratzen dute. Iritzi hori oso argi ikus daiteke honako bi aipuetan:

Niretzako lan txukuna. Aipatutako kontradikzio guztiak hor zirela eta gauza asko benetan gelditu ziren planteatu gabe edo gaizki planteatuta hasieratik baina, oro har, (...) mugimendu abertzale berria base sanoetan edo sanoagoetan finkatzeko, euskararen alde dinamika berri eta bizigarri baten sortzeko... lan txukuna. (...) Errealitateari benetan jarraitzen diola, (...) indar handia egin zela jende askoren artean (6. ELK.).

Nik errango nuke errealismo giza politiko bati buelta ematea; (...) ez naiz ausartzen erraiten guztiz errealista izateraino heldu garela horrekin baina filosofikoki zinezko errealitateari hurbiltzea. Hurbilago gaudela orain (3. ELK.).

Elkarrizketatu batzuen diskurtsoetan ikusi dugunez, ETAk etorkinak mugimendu abertzalean integratzeko eraiki zuen diskurtsoa izan daiteke askapen sozialaren esparruan ETAk egin zuen ekarpen nagusia. Hala islatzen da hainbat lekuko diskurtsoetan, segidan aurkezten ditugun hauetan adibidez.

Para mí lo más importante que ha aportado ETA lo más es romper definitivamente con que en este país existen dos comunidades enfrentadas y antagónicas; sino que existe un Pueblo Trabajador Vasco (es una aportación de Etxebarrieta). Y la definición de ese Pueblo Trabajador Vasco (...) es lo más progresista del mundo. ¿Quién es vasco? Todo aquel que vende su fuerza de trabajo en Euskal Herria, punto pelota. Da igual de dónde vengas, tú aquí con seis meses que estés empadronado puedes aspirar a ser lehendakari. Eso no existe en ningún sitio. Eso es una aportación de ETA. Ésa y la visión internacionalista de la lucha. Me parece colocarse en el lado de la humanidad, del progreso y del futuro (4. ELK.).

Gure gizartearen ehuna asko aldatu da eta kanpoko aportazioa izugarria da. (...) Espainolak edo frantsesak edo portugesak sartu dira, barra barra, hori

denak hau aldatuz inkorporatu egin ditugu gure kausara. Alde horretatik ene ustez salto handi bat da (3. ELK.).

Euskal nazioko kide izateko euskal abizenak edo euskal arraza izatearen baldintza irauli zuen ETAk. ETAREN abertzaletasunak naziotasunaren oinarrian naziokideen *borondatea* jarri izana azpimarratzen duen diskurtsorik ere bada. Ondoren aurkezten dugun aipuan, adibidez, elkarrizketatuak ETAk euskal nazioari aurrera begirako perspektiba ekarri ziola azaltzen du.

Neretzat garrantzizkoa izan da gu geu izatea baina batez ere etorkizunari begira. Eta etorkizunari begira esan nahi du nahiz eta une bakoitzean gauza asko zapuztu, bataila asko galdu baina etorkizuna geurea dela, zeren ezinbesteko degu irabaztea. Eta hori bai ETAk erakutsi digula, ezinbesteko dugula eta herri hau bere buruaren jabe izango dela. (...) Hor buelta eman zion esanaz "hemen ez da bakarrik honelako odola ta honelako zera. Ez, ez, hemen dago herri bat, izan nahi duena. Eta borondatea duen bitartean izango da. Eta etorkizuna izango du". Eta hori da, nere iritziz, borroka iraultzailea, bestela badoa (2. ELK.).

Edonola ere, elkarrizketatuen diskurtsoetan gehien nabarmendu den ideia honakoa da: hots, ETAREN abertzaletasunak *herria* berpiztu eta mugimenduan jarri izana eta mugimendu abertzalea eta mugimenduko kideak beraiek suspertu izana. Hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan gainerako balorazioei gaina hartzen die ideia horrek, segidan aurkezten ditugun elkarrizketatuen adierazpenetan ikus dezakegunez.

Etorri zait Eva Foresten gauza bat: (...) "si, si, todo lo que me explicas es cierto pero para que todo eso se ponga en ebullición y en movimiento, tiene que haber una fuerza...". Ez nion aurkitzen argumentu sendorik. Ta berak esaten dit: "Claro, (...) el carbón que mueve esa locomotora erais vosotros porque os enfrentabais cara a cara, abiertamente y claramente, y eso es lo

que no se atrevían a hacer los demás. (...) Eso rompe la indiferencia". Ta, klaro, orduen, beraz, hitz hauen ondotik iritsi nintzen lehen aipatu dutan helburu bikoitzera: etsipena ehortzi eta abertzaletasuna piztu. Baina hori Eva Foresteri zor diot. Zola hortxe dago. Ni geldituko nintzake Evak esandakoarekin: rompe la indiferencia de la sociedad, hau da, zegoen isiltasuna, indiferentzia. (...) Indiferentzia apurtze horrek herri bat mugimenduan jarri du, bakoitza bere eremuan. Aspalditxotik Euskal Herria zutik dago eta ez da kasualidadea ETAREN aldizkaria Zutik izatea, bizirik dago eta bizi nahi du; hori ETAREN lorpena da (11. ELK.).

Eman du biziaren gatza! Hori da, hitz batez da gatza. Bizitzeko gustoa emaiten duena. Erran nahi duena gure aurkakoek dioten alderantzia arrunt: pena merezi izan duela [barrez]. Zahartu eta gero nik maiteago dut hola bizi izatea, ez eta behar nuen bezala. (...) Bakotxak bere burua askeago... Izanik ere kartzelean, izanik ere baldintza oso txarretan, askeago senditzen zira zeren eta badakizu zerbait etsaiak ez dakiena (14. ELK.).

Guk ere okerrak egingo genitun, bistan da, egiten duna okertu liteke, egiten ez duna ez da behin ere okertzen. Baina nik uste det emaitza izan dala herria piztutzea. Hori ez dizute onartuko besteak, baino benetan herria piztu, itxaropena piztu, eta perspektiba bat jarri aurrez aurre. (...) Eta nik uste det hain zuzen horrek salbatu gaituela, bestela auskalo non egongo ginan! Egongo ginan amerikanok honeaino sartuta. (...) Nere ustez, lortu genula mentalidade kolonizatu hori pikutara botatzea. (...) Nere ustez argi ta garbi da hor izan zala berpiztu bat, *renacimiento* bat, bai, nik dudarik ez det (13. ELK.).

Aurretik zegoenarekiko salto handi bat izan zen, askatasun mugimendu bat, eta askatasuna ofiziala baino gehiago praktikoa (12. ELK.).

Bukatzeko, elkarrizketatu baten esanak baliatuz erantsi genezake, ikuspegi globalago batetik begiratuta erabateko *lurrikara* ekarri zuela ETA mugimenduak; aldez edo moldez, euskal gizarteko esparru guztietan eragin zuela. Elkarrizketatu honen adierazpenek biziki argi ispilatzen dute fenomeno hori:

Ekarri duena da laurehun urteko gure errekupeazioa, egin gabe geneuzkan iraultza erlijioso, iraultza burgesa, iraultza liberala, iraultza industrial eta iraultza teknologiko modernoa. Horrek mentalitate mailan eragin digun guztia, berak eragin digu. Lurrikara bat eragin du, totala, espiritualki, moralki (edo inmoralki), kulturalki, o sea alde guztietatik, lurrikara totala. (...) Hori da inportanteena, lurrikara totala ekarri du; ekarri du eta bera da lurrikararen produktu. Ez dugu pentsatu behar historia subjektu batek egiten duela edo eragiten duela, ez, momentu horretan momentuak egiten du mugimendua eta mugimenduak egiten du une historikoa ere, elkar egiten dute (10. ELK.).

V. Ondorioak: ETA mugimendu bihurtua

ETA abertzale mugimendu bat da.

BESTERIK EZ!!⁴²⁹

Hasieran planteatutako hipotesia bete ote den egiaztatzea dagokigu orain. Gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, ETA herri mugimendu bat izan zen 50eko eta 60ko hamarkadetan, erakunde-egitura soila gainditu zuen antolaketa eta harreman-sarea osatu baitzituen bere inguruan. ETA ez zen ETA erakundea bakarrik izan, fenomeno sozial zabal eta errotua bihurtu zen Euskal Herrian. Mugimendu gisa, berriz, honako ezaugarriok nabarmenduko genizkioke: erdietsi zuen sare sozial izaera, batetik, eta sistema hegemonikoari erabat kontrajartzen zitzaion eredu kultural, sozial eta politiko alternatiboa proposatzea, bestetik. Herri-giro abertzale eta euskaltzalea izan zen ETAREN oinarri sozialaren elkargunea, era batera edo bestera ETA mugimendua ahalbidetu zuena. Eta euskal nazio iraultzaile sozialista eraikitzea ETA mugimenduaren motorra.

Formazioari eskaini zizkion lehendabiziko urteak igaro ondoren, oinarri ideologikoak eta estrategikoak zehazten aritu zen ETA ; ondoren, berriz, pixkanaka, zabaldu egin zuen bere oinarri soziala. Ikerketa honen emaitzek adierazten digute ETA sortzeko, ETAN sartzeko edo ETARI laguntzeko motibazioetan hiru alderdi gailendu zirela elkarriketatu ditugun kideengan ikus dezakegun moduan ([ikus IV.1.](#)): EAJri leporatzen zioten immobilismoa (estrategia ekintzailearen ezinbestekotasuna), euskara eta euskal kultura desagertzen ari zirenaren kontzientzia (nazio auzia) eta sozialismoan oinarritutako Euskal Herria helburu izatea (auzi soziala). Hiru erpin horietan eta elkarren arteko harremanean oinarritu zuen, hain justu, ETAK beren mugimendua.

⁴²⁹ Hordago, 1979, 1, 479 or.

Batera edo bateratsu gertatu ziren batik bat Hego Euskal Herrian berpizkunde politikoa (ETAren diskurtso eta jarduera abertzalea) eta berpizkunde kulturala (euskara eta euskal kulturaren aldeko mugimendua). ETAren kultura frontearen inguruan sortu zen antolaketak *euskarazko kultur mugimendu* orokorrarekin sortu zuen harreman sareak ([ikus IV.2](#)) ematen digu gure ondorio batzuk aletzeko lehendabiziko gakoa. Gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, elkarri eragin zioten bi mugimenduek (hots, ETA mugimenduak eta kultur mugimenduak) eta esan, esan genezake, alde batera edo bestera, presentzia eraginkorra izan zuela ETAk euskalgintzaren esparru guztietan, eta, gainera, bere bulkadaren altzoan sortu zirela euskararen eta euskal kulturaren aldeko ekimen politiko eta kultural gehienak: hala nola noski euskara batuaren eta gau-eskolen garapena, ikastolen mugimendua, kantagintza berria, euskal literaturaren susperraldia, liburugintza, dantza eta antzerki taldeak, euskal jaiak eta abar. Azurmendik publikoki agertu izan duen ikuspegia baliatuz esan genezake, ETA ez zela haren guztiaren *agente eragilea* izan, ez zen dena bere diskurtsoaren esanera makurtu. Are gehiago, ETAren kontra ere egin bide ziren hainbat gauza. Baina, nolanahi ere, *kondizio* gisa funtzionatu zuen testuinguru hartan: izan ere, dinamika zabal eta aberats hura nekez azal liteke ETAren eta ETA mugimenduaren jarduera eta diskurtso abertzalea kontuan hartu gabe.

Gure ikerketan aurkitu dugunaren arabera, ETAk bere eragina zabaldu eta sozializatu ahala, biziberritzen hasi zen erabat apaldurik zegoen euskalduntasunaren gogo-aldarte. Askotan ETAk berak (ETAren fronte kulturalak) hartu zuen inizatiba ekimen kulturalak bultzatzeko edo elkarlanean beste eragile batzuekin harremanetan jartzeko. Beste hainbatetan, berriz, kultur eragileek edo EAJk sortu eta bultzatu zituzten ekimenetan parte hartu zuen; edo, gutxienez, haien aldeko posizioa hartu zuen. Haren guztiaren artikulazioa ezkutuan edo erdi-ekzutuan ziharduen herri-giro abertzale eta euskaltzaleak ahalbidetu zuen neurri handi batean. ETAren barruan ere, izatez, lotuta zeuden esparru kulturala eta gainerakoak. Euskal nazioa askatzeko estrategia integrala ezinbesteko baldintza zela sinetsita, bere lau fronteen (politikoa, ekonomiko, kulturala eta militarra)

arteko koordinazioa bultzatu baitzuen. Horrez gain, jakina da etakide batzuek kulturaren eremuko hainbat eragilerekin harreman zuzena izan zutela, adibidez, Ez Dok Hamairu, Jorge Oteiza, Euskaltzaindia eta Jakin aldizkariarekin.

Euskal nazioari eta euskalduntasunari buruzko teorizazioan hiru ondoriotara iritsi zen, gutxienez, ETA (ikus [III.2.5.](#) eta [III.4.3.](#)): batetik, euskara osatu eta estandarizatu egin behar zela eta garaiko beharretarako prestatu; bestetik, euskararen erabilera bultzatu egin behar zutela, EAJko abertzaleak erdaraz bizi baitziren eta hori kontraesan ikaragarria suertatzen zitzairen Ekin eta ETA sortu zituzten gazteei; eta, azkenik, euskararen egoera larria erabat auzi politikoa zela eta, beraz, politikatik at, hots abertzaletasunetik kanpo, ezin zela konpondu. Aldi berean, sistema frankistaren barruan jardunda eta sistema errotik aldatu gabe euskararen eta euskal nazioaren egoera konpontzerik ez zegoela ondorioztatu zuten. Bi esparruetan, borroka kulturean eta politikoan, batera jardun behar zutela ohartu zen ETA. Hor koka genezake hain zuzen ETAREN diskurtsoaren ekarpenik handiena: arazo kulturalak maila politikoan kokatu izana eta, ondorioz, auzi kulturala bideratu ahal izateko testuinguru politiko eta sozioekonomikoaren mende dagoela ulertzea. Hots, auzi nazionala eta auzi soziala uztartzea.

Gure ikerketan idoro dugunaren arabera, ETAREN nazio diskurtsoak eragin zuzena izan zuen kultur mugimenduan, oro har, eta ETA mugimenduan, bereziki. ETAREN sortzaileek euskara eta euskal kulturari eman zioten garrantzia ondorengo belaunaldiek nolabait ñabartu egin bazuten ere ([ikus III.4.3.](#)), ohartu gara ETAREN hasierako diskurtsoa sozializatu eta hedatu ahala, handitu egin zela euskararen balio sinbolikoa; izan ere, euskara ikastea, erabiltzea eta ikertzea euskal nazioa erreproduzitzeko giltzarri bihurtu zen ETAREN diskurtsoan. Baita Francoren errepresioari kontra egiteko ekintza modua ere. Horrek, aldi berean, euskararen funtzio parte-hartzailea handitu zuela ondorioztatu dugu: horrela azal liteke gure ustez 60ko hamarkadan euskara erabiltzeko, ikasteko, modernizatzeke eta gizarteratzeko abian jarri zen mobilizazio zabala.

Gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, ETAREN erreferentziak akuilu lana egin zuen hizkuntzaren eta kulturaren arloan. ETA mugimenduak ahalbidetu zuen nolabait euskararen eta euskal kulturaren inguruko norbanakoek eta eragileek espazio politiko, kultural eta sozial erreferentziala edukitzea. Eta ETAREN diskurtsoak eta jardunak garaiko testuinguruan izan zuten eragina eta oihartzuna ikusita, ondorioztatu dugu ETAREN norabide berean garatu ziren dinamika politiko eta soziokultural garaikideak baldintzatu zituela.

Bigarren gakoan ETAREN langile frontearen inguruan sortu zen antolaketak, eta antolamendu hari zerion egiturak *langile mugimenduarekin* sortu zuen harreman sarean ([ikus IV.3.](#)) aurkitu dugu. Gure ikerketan ondorioztatu dugunaren argitan, euskararen eta euskal kulturaren ardaztutako ETAREN diskurtsoak kultur mugimendua sustatu eta horren hedatzea lagundu zuen bezala, esparru sozialean alderantziz gertatu zen. ETAK hasieratik agertu zuen komunismoa, marxismoa eta sozialismoa ezagutzeko interesa baina 1963 eta 1964 arte ez zuen estatu sozialistek proposatutako eredu sozialen aldeko diskurtsorik ondu. Ordurako etakide askok (ez ETAK ofizialki) langileen hainbat ekintza-unitatetan parte hartzen zuen eta, neurri handi batean, horrek ezaugarritu zuen barrutik ETA. Etakideek langileekin zituzten harremanetik sartu zen nolabait marxismoa ETAN.

Langile mugimendura hurbildu eta langile-mobilizazioetan parte hartzen eta, parte hartu ez ezik, haiek zuzenean sustatzen hasi zen ETA. Bere barruko langile-ildoak hegemonia izan zuen urteetan izan ezik, desadostasun ideologikoak izan ziren bi mugimenduen artean: ETAK, izan ere, espainoltzat jotzen zituen Hego Euskal Herrian ziharduten ezkerreko espainiar alderdi eta mugimenduak, nazio problematikaren kontzientziarik ez izatea eta nazio askapenerako borroka albo batera uztea leporatzen zien. Gure ikerketan idoro dugunaren arabera, ETA langileen mobilizazioa artikulatzen hasi zenean, botere-gatazka sortu zen, zenbait kasutan, langile mugimenduaren antolaketan ziharduten gainontzeko eragileekin.

Edonola ere, eduki bi aurpegi dauzka fenomeno honek: ezaugarri bat aipatu dugu jadanik baina orain beste ezaugarri bat azaltzea dagokigu. Langile mugimenduarekin harremanetan jarri eta diskurtso soziala garatu ahala, ETAk langile batzordeen planteamenduetan eragin zuen: hartara, euskal nazio auziaren kontzientziarik ez zuten langile eremu batzuetan nazio askapenaren hazia erein zuen. Eta, pixkanaka eta arian-arian, nazio askapena eta askapen soziala uztartu ahala, langile asko hurbildu zen ETARA askapen bikoitza lortzeko estrategia egokia zeramala sinetsita. Honenbestez, ondoriozta genezake langile mugimenduarekin harremanak izan ez ezik, langile mugimenduaren zati bat ETA mugimenduan (abertzaletasunean) integratu zela 60ko hamarkadatik aurrera. Orduan hasi zen ETA masen baitan zuzenki eragiten.

Beraz, orain arte azaldu dugun guztia kontua hartuz, esango genuke mugimendu biek, ETA mugimenduak eta langile mugimenduak elkarri eragin ziotela. ETA mugimendua garaiko gatazka sozialetatik elikatu zen, eta aldez edo moldez, mugimendu gisa hartu zuen forma eta ideologia anabasa sozial hari zor dio neurri handi batean. Eta bidenabar langile mugimenduaren sektore bati mentalitate bat itsatsi zion ETAK, hots, nazio askapena helburu zuen abertzaletasun akonfesional eta ezkertiar baten diskurtsoa. Mugimendu ezkertiarrek garapen historikoaren subjektu iraultzailetzat *langile klasea* hartzen zuten bitartean, ETAK nazio askapenerako mugimendu iraultzailea, hots, *Euskal Langile Herria*, izendatu zuen subjektu iraultzaile gisa. Hori izan zen Argalaren ustez Euskal Herriaren berpizkunde nazionalaren giltzarria.

Euskal nazioko kide izateko baldintzetatik arraza baztertu, eta ETAK euskal nazioaren subjektua lehendabizi euskalduntasunean eta gero *Euskal Langile Herrian* oinarritu izanak etorkinak erakarri zituen mugimendu abertzalera. Hala, abertzaletasunaren ikuspegi berriak, klaserik gabeko euskal jendarte baten aldarrikapenak bereziki, *ireki* egin zien etorkinei abertzaletasunerako sarbidea. Nolanahi ere, urte batzuk igaro behar izan ziren oraindik abertzaletasunaren eta etorkinen arteko harremana normalizatzeko.

Estrategia ekintzailea garatzeko ETAREN fronte militarren inguruan harilkatu zen sareak ([ikus IV.4.](#)) eman digu gure ondorioetara iristeko hirugarren gakoa. Nazio Askapenerako Mugimendu Iraultzailea izendatu zuen ETAK bere burua I. Biltzarrean, bere idatzietan mugimenduaren izaeraz hausnartu ondoren. Alderdi komunistaren eta JOC mugimenduaren eredia jarraituta, hasierako ETAREN kezka nagusia mugimendua eta masen erantzuna sortzeko ekintza-metodoak izan ziren. Mugimendua masa helburu jakin batera gidatzen duen indar gisa definitu zuen; alderdi politikoetan nagusitzen diren eliteak baztertu eta herri xehe osoarentzako mugimendua izan nahi zuen ETAK. Eragin handia izan zuen bereizketa hark ETAREN ideologian eta praxian.

60ko hamarkadan murgildu ahala, Hirugarren Mundua delakoan indarrean zeuden eredu-erakundeak jo zuen ETAK eta kolonizatutako herrietako nazio askapenerako mugimenduetan inspiratu zen euskal iraultzaren estrategia zehazteko. Izaera integrala eman zion iraultzari: hots, nazio askapena eta askapen soziala eskuratu ahal izateko lau fronteak borroka berean artikulatzen ahalegindu zen. Borroka politikoa lehenetsi zuen ETAK iraultza-gerran, eta gainerako jarduerak, armatua barne, haren mende jarri zituen. Fronteen egitura inoiz zurrunagoa inoiz malguagoa izanda ere, eta egoera hark militantzia ezberdinak sortu zituen arren, oro har, eginkizun orotarako militante eredu integralak formatu zituen ETA mugimenduak. Kulturean, eremu sozioekonomikoan edo ekintzen esparruan ziharduten aldi berean. Herri-mugimendua eta militantismoa izan ziren ETAREN estrategia iraultzailearen oinarriak.

Frankismoaren errepresio bortitza gori-gori zegoela, herri-babesa eta harreman-sarea behar zituen ETAK abertzaletasun ekintzailea gauzatzeko: bai propaganda zabaltzeko, ikurrinak jartzeko eta pintaketak egiteko, eta bai etakideak konfiantzako etxeetan gordetzeko, adibidez. Oinarri sendoko sareak sortzen ahalegindu zen buru-belarri eta sare haietan etakide ez zirenen laguntza ere jaso zuen, EAJrena eta Enbatarena lekuko. Fronteen egiturak sarea harilkatzen zuen: hala, hainbat borroka-esparru zehazten baitzituen eta esparru haiek elkarri lotuta

zeuden. Borroka eta herria atergabe lotu zituen ETAk bere diskurtsoan eta, gure ikerketan idoro dugunaren arabera, arrakasta izan zuen praxian iraultza-gerraren printzipio hark 60-70eko hamarkadetan, ETArenean borroka babes sozial eta onarpen sozial handia eskuratu zuenez gero.

Azaldu ditugun hiru erpinen garapenak eta elkarren arteko harremanak ahalbidetu zuten, neurri handi batean, orain aipatuko dugun fenomenoak: *masa abertzaletasuna* ([ikus IV.5.](#)), alegia. Izan ere, euskararen eta euskal kulturaren galeraren kontzientziak jende asko mobilizatu zuen abertzaletasunaren altzoan (bai ETArenean eta bai EAJrean). Horrekin batera eta horretaz gainera, Hirugarren Munduko nazionalismoen ereduak bere egin eta Euskal Herrirako iraultza-gerraren estrategia abian jartzerakoan, lehendabiziko aldiz, masei zuzendutako kanpo ekintza politikoa lehenetsi zuen ETAk. Ondorioz, eta uste izatekoa zen bezala, gero eta langile gehiago sartu zen ETAn.

Abertzaletasunaren balioa handitu egin zen beraz jendartean eta, kontzientziazio-prozesu masibo bati esker, ezkutuan zegoen ekimen eta sentimendu abertzalea biziberritu eta espazio publikora jalgi zen ezarian-ezarian. Kuantitatiboki ugartu egin ziren agerraldi euskaltzale eta abertzaleak, baina kuantitatiboki ez ezik, kualitatiboki ere aldatu egin ziren 60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera: herritarrek (gazteek eta langileek nagusiki) gero eta gehiago hartu baitzuten parte jarduera kultural eta soziopolitikoetan, hala nola, euskal jaien antolaketan, dantza-taldeak osatzen eta prestatzen, antzerki-taldeetan, gau eskoletan euskara ikasten, ikastolak sortzen, eta abarretan.

Masa abertzaletasuna elkargune sozial pizgarri bihurtu zela ondorioztatu dugu gure ikerketan: izan ere, harreman sozialetarako topagune funtzioa bete zuen. Naziokide izateko kontzientzia-egitura eta erreferentzia-markoa eskaintzen dien komunitate gisa jardun zuen. Erreferentzia-marko hori babeslekua da euskal naziokideentzat, segurtasuna emateaz gainera, bizitza soziala antolatzen laguntzen baitie.

Honenbestez, ondoriozta genezake 60ko hamarkadaren erdialdera lehertu zen masa abertzaletasun hura fenomeno orokortua izan zela nolabait Hego Euskal Herrian: sentimendu abertzalea indartu zen, oro har, eta alde batera edo bestera komunitate abertzale osoari eragin zion. Gure ikerketan aurkitu dugunaren argitan, ETA mugimendua izan zen kontzientzia prozesu haren sustatzaile nagusia. Harritzekoa ere ez da ETA horretan tematu izana, izan ere, ETAk edukiz jantzitako erresistentzia-mugimendu abertzale moderno bat egituratzea zuen helburu. Bere ustez, aberria askatzeko zeregina ez baitzegokion alderdi politiko jakin bati, mugimendu abertzaleari baizik. Aberriaren aldeko borroka Nazio Erresistentziarekin lotutako eginbehar zabal gisa ulertzen zuen ETAk. Horregatik izan zen gai behinena bezain iraunkorra ETAn Fronte Abertzalearen aldarrikapena, eta ikusi dugunez, behin baino gehiagotan saiatu zen gainerako indar abertzaleekin elkarlana sustatzen.

Gure aldetik garrantzi handia eman diogu ETA mugimenduaren barruko *genero harremanak* aztertzeari ([ikus IV.6.](#)). Ikerketa honen emaitzek adierazten digute ETAREN diskurtsoak arraza eta erlijioa nazio osagaien erdigunetik baztertu egin zituenez, gerra aurreko emakumeen komunitate-euskarriaren rola zentzua galdu zuela hasieratik ETAREN diskurtsoan. Jakina denez, euskara eta euskal kultura jo zituen naziotasunaren oinarritzat, hasieratik lotu zuen emakumeen zeregina kultur transmisioaren rolaekin. Emakume militanteei genero rol eta estereotipo *femeninoak* ezartzen eta esleitzen dizkien arren, subjektu aktibo gisa hartu zituen ETAk. Izan ere, euskara irakastea eta transmititzea erresistentzia egitea zen ETARENtzat. Diskurtsotik haratago, gure ikerketari darionez, emakume militante askok aktiboki hartu zuen parte ETA mugimenduaren kultur frontean, hots, kulturgintzan eta euskalgintzan. Eremu pribatuan egin zuten lana ere aintzat hartu beharko genuke noski: emakume abertzaleak haurren heziketan euskara eta euskal kultura txertatzen aritu baitziren eremu pribatuan.

ETA mugimenduan izan zuten emakumeek beste parte hartze mota garrantzitsu bat ere: hain zuzen, estrategia ekintzailea garatu ahal izateko ezinbesteko zituen ETAk

herri-babesa eta harreman-sarea, eta emakume militante asko oso aktiboa izan zen gizonezko militanteen sostengu eta babeserako jarduera hartan. ETA mugimenduan emakume askok jardun zuen bezala, ETA erakundearen oso bestelakoa izan zen emakumeen parte hartzea. Lehen hamar urteetan emakume gutxi jardun zuen erakundeko militante *ofizial* gisa. Gainera, parte hartu zuten gutxi haiei rol femeninoak esleitu zizkieten militante maskulinoek erakundearen barruan. Baina gure ikerketan aurkitu dugunaren arabera, denbora gutxian deskolonizazio-prozesuetako nazio mugimendu iraultzaile batzuen eraginak lagunduta, ETAko gizonezko militante osoen rol bera edo bertsua eskuratu zuten emakume militanteek. Eta erabaki-guneetan ere parte hartu zuten.

Guztiarekin ere, ETA erakundearen eta mugimenduaren barruko genero harremanak aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu erakundeko militantzia eredu maskulinoa zela erabat eta elkarrizketatutako militanteek esandakoaren haritik, oro har, ez zutela kontzientzia feministarik. Beraz, militante gisa parte hartu zuten emakumeak bigarren mailako militanteak izan ziren eta eredu hark ezarritako jokamolde eta balioen mugen barruan jardun behar izan zuten. Dena dela, ikerketa honetan aurkitu duguna oinarritzat hartuz, esan beharko genuke ETA bezalako nazio askapenerako mugimendu batean parte hartzeak itotzen zituen giro sozial batetik askatzeko balio izan ziela emakume batzuei. Bukatzeko ñabar dezagun tradizioz gizonena zen militantzia politikoaren estereotipoei erronka jo ziela emakume haiek eta, neurri handi batean, ETAren diskurtsoa eta praktika ere aldarazi zituztela beren militantziarekin.

ETA mugimendua Euskal Herri osoan hedatu zela hauteman dugu gure ikerketan ([ikus IV.7.](#)): hartara, *Ipar Euskal Herrian* ETAren inguruan sortu zen antolaketak eta harreman-sareak eman digu gure ondorioetara iristeko hurrengo gakoak. Lehendabizikoetak 1960. eta 1961. urteetan gorde ziren Iparraldean, eta orduetik ez zen eten Hegoaldeko militanteen emana. ETAren diskurtsoak Euskal Herri osoaz hitz egiten zuen eta erakundeko eta mugimenduko kideek Ipar Euskal Herriaren aditza eta kontzientzia bazutela sumatu dugu gure ikerketan. Edonola

ere, pentsatzekoa da militante haiek Iparraldean babestu eta bizi izan zirenean ezagutu zutela egiazki bertako errealitatea.

Lehendabiziko etakideak hasieratik sartu ziren harremanetan Iparraldeko eragile abertzale batzuekin (Enbatarekin, batez ere). Bi mugimenduek bere autonomiari eutsi bazioten ere, elkarlanean aritu ziren esparru politikoan eta kulturalean: Aberri Egunaren antolaketan, formazio saioak egiten, eta kultur ekitaldiak antolatzen, adibidez. Horrez gain, Iparraldeko abertzale batzuek ETA mugimenduaren sarean parte hartu zuten beren kasa, eta beste batzuek unean uneko ekintzetan laguntzen zioten ETARI. Esparru politikoa eta kulturala elkartu egiten ziren Iparraldeko gune abertzaleetan. Harreman sozial haiek funtsezko zeregina izan zuten abertzaletasuna hedatzeko prozesuan, elkartasun giro bat sortu baitzen Hegoaldeko eta Iparraldeko jendearen artean.

Gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, Hego Euskal Herriko borrokaren uhin gisa hedatu zen Ipar Euskal Herrian eta, ondorioz, eta nazio kontzientzia zuten bertako sektore intelektual jakin batzuen lanari esker, kontzientzia abertzalea biziberritu egin zen han. ETA mugimenduaren eta Iparraldeko abertzaleen arteko harremanak aztertuta, lau ondoriotara iritsi gara hondar-hondarrean. Batetik, ETA mugimenduak eragin handia izan zuela Ipar Euskal Herriko esparru hertsiki politikoan bezala kultur mugimenduan ere, eta bestetik ETA erakundeko eta mugimenduko kideak Iparraldeko esparru politikoan eta kulturalean inplikatu orduko, bertako jarduera politikoa eta kulturala suspertzen lagundu zutela nolabait. Elkarrizketetan ikusi dugu ETA mugimenduko kide batzuek Iparraldeko nazio kontzientzia piztu izana aitortzen diotela ETARI. Nolanahi ere, ez zen norabide bakarreko influentzia izan, alderantziz ere gertatu zen. Elkarrizketatu batzuentzat Ipar Euskal Herriko abertzaleen zenbait ekarpen oso baliagarriak izan ziren Hegoaldeko abertzaleentzat.

Horrenbestez, gure ikerketan Iparraldean babestu ziren ETA erakundeko eta mugimenduko kideek eta bertako abertzaleek elkarrekiko eragin osagarria eta

elikagarria izan zutela idoro dugu. Baina, jakina, botere harreman guztietan bezala Hegoaldeko eta Iparraldeko abertzaleen artean ere tentsioak eta kontraesanak izan ziren. Hegoaldea nazio borrokaren fronte nagusia edo erdigunea izan zen bitartean, Iparraldeak bazterreko zereginaren rola jokatu zuen, haren babesleku bihurtu zen, eta horrek baldintzatu egin zuen bertako dinamika abertzalea. ETA mugimenduak Iparraldeko abertzaletasunean hartu zuen protagonismoak bertakoen dinamika abertzalea garatzea baldintzatu zuen nolabait.

Mugimendu sozialak *eliteekin* lotutako fenomenoak izan ohi dira; maila batean edo bestean, eliteak agente aktiboak izaten baitira jendartearen funtzionamenduan eta aldaketa sozialetan. Gure ikerketan hauteman dugunaren arabera, ETAk herritar aitzindariengan jartzen du herri mugimenduaren gidaritza lana; uste baitu nazio askapenerako borrokaren norabidea zehaztea elite intelektualari dagokiola ([ikus IV.8.](#)). Auzi honetan bereizi egiten ditu bi esparruak: mugimendu politiko gisa ETAREN egitekoa Euskal Herriko egiturak iraultzea da, baina ez da bere egitekoa iraultzaren gainerako eragileak gidatzea. Hori intelektualen zeregina da ETAREN ustez, beraiei dagokie Euskal Herriak dituen arazo konkrituak aztertzea eta horiei irtenbideak bilatzen jardutea. Elite intelektualari dagokio beste inori baino gehiago arazo soziopolitikoekin eta kulturalekin engaiatzea eta baitan herri-proiektuarekin konprometitzea, eta herria iraultzara erakartzea ere. Euskal intelligentsiaren baitan sektore erlijiosoek (behe kleroak) duten zeregina nabarmentzen du ETAK.

Gure ikerketan ondorioztatu dugunaren argitan, eliza-hierarkiarekin eten zuten euskal apaizak aipatu berri ditugun funtzioak betetzen ahalegindu ziren neurri handi batean. ETAREN inguruko mugimenduan agente oso aktiboak esku hartu zuten. Injustizia soziopolitiko eta kulturalak salatzeke ekintza publikoetan parte hartu ez ezik, ETA erakundeko eta mugimenduko militanteak laguntzen ere aritu ziren buru-belarri: lokalak uzten, militanteak ezkutuan gordetzen, militante berriak erakartzen, formazio ikastaroak egiten eta abar. Eta, xehetasunak xehetasun, ETA erakundeko militante gisa ere jardun zuen apaiz batek baino gehiagok. Baina, edonola ere, gure ikerketari darionez, elite intelektualaren sektore batzuek aktiboki parte hartu

bazuten ere (ETAko kide batzuen funtzioa ere hor uler genezake), Euskal Herriaren berpizkunde kultural eta soziopolitikoaren herri-mugimenduan oinarritu zen nagusiki.

Hona hemen, bada, ETA mugimenduaren praxiaren eta harreman sarearen azterketatik atera ditugun ondorioak. ETAREN diskurtsoak mugimenduaren esparru bakoitzean izan zuen eragina azaleratzen ere saiatu gara interesgarria iruditu zaigun kasuetan. Baina gure ikerketaren xedeetako bat ETAREN *diskurtsoaren* oinarritzko printzipioak, ideiak eta helburuak mugimenduan nola gorpuztu ziren ikertzea denez, hori egiten saiaturako gara orain. Gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, nazio kontzeptuaren berrikuntza soziala ekarri zuen ETAREN diskurtsoak ([ikus III.](#)). Bere ekarpen nagusia horixe izan zen: hau da, nazio askapena eta askapen soziala uztartu eta uztarketa hura estrategia iraultzailean ardaztea. Gure ikerketan idoro dugunaren arabera, ETAREN diskurtsoa abertzaletasun etnikoaren herentziatik hurbil ibili zen hasieran auzi batzuetan. Baina I. Biltzarretik aurrera urrunduta egin zen nazio ikuskera hartatik. 1962 eta 1968 urteen arteko zikloan ETAREN diskurtsoaren osagai bakoitzak bere bilakaera izan duela ikusi dugun arren, inflexio puntu orokortu bat identifikatu dugu: 1964. eta 1965. urteetan koka dezakegu. Orduetik aurrera Euskal Herriko gatazka politiko, kultural eta sozioekonomikoei lotutako gaiak zehaztu zituen ETAK. Eta etengabe haietan sakontzen eta Euskal Herriaren errealitatera egokitzen jardun zuen. Horren ondorioz, ETAREN abertzaletasunaren ikuspegia gero eta gehiago urrunduta zen EAJk eta, oro har, abertzaletasun etnikoak ordezkatzeko nazionalismo tradizionaletik. Nolanahi ere, gure ikerketatik ondorioztatu dugunez, ETA-EAJren arteko ideologia-bereizketa ez zen bat-bateko aldaketa izan, gogoeta- eta praxi-prozesu baten emaitza baizik.

Ikerketa honen emaitzek erakusten digute ETAREN diskurtsoak mugimendua mobilizatzeko gaitasuna izan zuela. Euskal nazioaren hil ala biziko egoeraren zori latza azpimarratuz, ekintza komun batean antolatu zuen abertzaletasunaren sektore zabal bat. Oinarritzko printzipio, ideia eta xede jakin batzuk zehaztu eta mugimenduak helburu horien arabera jardutea lortu zuen. Izan ere, Euskal Herriko sektore askorentzat erreferentzia-marko bihurturik, aparatua ideologikoa gisa jardun

zuen neurri handi batean. Gure ikerketan aurkitu dugunaren arabera, ETA mugimendua *behetik gorako* fenomeno izan zen neurri ohargarri batean: esan nahi baita, hasieran talde txiki baten (elitearen) ekimena ezinbestekoa izan bazen ere, mugimendu indartsua bezain zabala bihurtu zela berehala. Eta, ondorioz, euskal kulturaren herri-taupadek eragin erabakigarria izan zuten ETAk eraiki zuen kultura politikoan eta diskurtsoan. Hots, nabarmena da ETA mugimenduaren kasuan herriak eta herri-kulturak nazioa biziberritzeko prozesuan parte hartze handia izan zutela.

Edonola ere, ezin ditugu arrakala batzuk aipatu gabe utzi. Elkarrizketatu batzuen adierazpenetatik ondorioztatu dugunaren arabera, ETA mugimenduko militanteek ETAREN printzipio eta helburu orokorrek gidatuta jardun bazuten ere, maiz ez zuten kontzientzia handirik ETAk argitaratzen zituen hausnarketei buruz. *Zutik*-etako artikuluak militante askoren lanaren emaitza izaten ziren; zenbaitetan iritzi kontrajarriak ere agertzen ziren. Gure ikerketarako elkarrizketatu ditugu oinarrizko komandoetako kide batzuek, esate baterako, ez zituzten beti eztabaida haiek segitzen. Zernahi ere den, ETAREN oinarrizko printzipio ideologikoak garbi zehaztuta zeudela ondorioztatu edo egiaztatu dugu eta, zailtasunak zailtasun, printzipio haiek jendarteratzea eta bere inguruko sare antolatuetan bere jarduna pentsamendu horretan oinarritzea lortu zuela.

Jarraian ETA mugimenduari buruz itxuratu dugun ikuspegi orokor hori EAJren mugimenduarekin *konparatuko* dugu. Gure ikerketan aurkitu dugunaren arabera, EAJk bezala ETAk ere gune sozial mikro moduko bat ehundu zuen bere diskurtsoaren inguruan. Biek ala biek esparru sozial ezberdinak ordezkatzeko zituen mugimendua sortu zuten, hots erakunde- eta harreman-sarea, antolatu zuten. ETAREN kasuan esan dezagun ez zela bere inguruko erakunde eta harreman haien guztien sortzaile zuzena izan baina, nolana ere, ETAREN abertzaletasun berriari esker edo harekin batera garatu ziren egintza haiek: demagun, adibidez, euskara eta euskal kulturaren aldeko ekimena, langileen borroka, abertzaletasun ekintzailea sustatzeko sarea, masa abertzaletasuna, emakume militanteen parte hartzea, Ipar Euskal Herriko abertzaleen esku hartzea, elite intelektualaren laguntza (apaizak

nagusiki), dibulgaziorako komunikazio-tresnak, kultura, kirol eta aisialdiko taldeak, eta abar.

Kontuan izan behar dugu, nolana ere, ETA mugimenduaren lehendabiziko hamar urteak besterik ez ditugula ikertu eta, beraz, gure ikerketatik kanpo utzi dugula 70 eta 80ko hamarkadetan ETA mugimenduak izan zuen bilakaera. Orduan gertatu zen izan ere mundu zabalean mugimendu sozialen erupzioa (feminismo eta ekologismoarena) eta Hego Euskal Herrian erakundetze prozesua. Testuinguru berri hartan lehen urteetako ETA mugimenduaren esparruak garatu eta aldatu egin ziren eta berriak sortu ENAMen barruan (alderdi politikoa eta sindikatua, besteak beste). Dena dela, gure ikerketan aurkitu dugunaren arabera, esan dezakegu ENAMen ardatz nagusiak 50 eta 60ko hamarkadetako ETA mugimenduak jarri zituela.

Touraine-en tipologia ([ikus I.4.2.](#)) erabilgarria iruditu zaigu mugimendu sozialak sailkatzeko eta konparatzeko; horretan oinarrituko gara beraz. Touraine-ek aipatzen duen lehendabiziko printzipioa (identitatearen printzipioa) kontuan hartuta, ikerketa honen emaitzek adierazten digute EAJk eta bere inguruko mugimenduak ([ikus II.3.](#)) euskal kristau arrazan oinarritutako nazioaren izenean hitz egin zuten bitartean, ETAk eta bere inguruko mugimenduak euskalduntasunean eta langile klasean oinarritutako nazioa ordezkatu zutela. Oso bestelako interesak ordezkatu zituzten, beraz, bi mugimendu abertzaleek.

Aurkaritzaren printzipioari dagokionez, ondoriozta dezakegu biek ala biek aurkari bera identifikatu zutela, funtsean: hots, Espainiako eta Frantziako Estatuaren okupazio eta dominazio historikoa. Baina hori esanda, nabarmendu beharko genuke Aranaren abertzaletasunak ez bezala ETAk ekonomia kapitalistan eta klaseen arteko antagonismoan kokatu zuela Euskal Herriaren dominazio politiko eta kulturala. Eta ETAREN diskurtsoak eta praxiak oso bestelako jarrera izan zutela Frantziako Estatuarekiko eta Ipar Euskal Herriko abertzaletasunarekiko. Askoz ere modu zuzenagoan identifikatu zuen Frantziako Estatuaren dominazioa eta, EAJk ez

bezala, Ipar Euskal Herriko jarduera abertzalea ahalik eta gehien sustatzen aritu zen ETA.

Azkenik, osotasunaren edo helburu sozialaren printzipioari dagokionez, esan dezagun ETAk oso bestela kudeatu zituela Euskal Herriaren oinarri etnikoak. Funtsean, helburu orokor bera zutela esan genezake: hots, abertzaletasuna birsortzea eta euskal nazioa berreraiki ahal izatea. Baina arrazoi oso ezberdinetatik abiatu ziren euskal nazioaren existentzia justifikatzeko. EAJk euskal arraza (euskal nazioa) eta bere jatorrizko balioak iraunaraztea zuen helburu eta, azken buruan, kristau moralean txertatzea. Moralarekiko ikuspegiak ardaztu zuen Aranaren proiektua. ETAk, berriz, euskalduntasuna (euskal nazioa) eta jendarte justuago bat eraikitzea (gero sozialismoan eta euskal langileen iraultzan zehaztu zuena) zuen xede. Muinean, kulturarekiko eta ekonomiarekiko ikuspegiak zurkaiztu zuen ETAREN abertzaletasuna.

Hori eta horrenbestez, ikerketa honetan oinarrizko ondorio hauetara iritsi gara:

- ETA mugimenduak 50eko eta 60ko hamarkadetako Euskal Herriaren bilakaera baldintzatu zuen; esan dezakegu goitik behera irauli zituela ordura arteko abertzaletasunaren eta jendartearen printzipioak. Bere praxi soziopolitiko eta kulturala aztertuta, ondorioztatu dugu ez zela garaiko gizarte dinamika ororen *subjektu eragilea* izan baina hori bai, *kondizio gisa* funtzionatu zuela; izan ere, xehetasunak xehetasun garaiko ekimen soziopolitiko eta kultural gehienak ETAREKIN batera eta ETAREN inguruan garatu ziren. Mugimendu guzti haren eraginez, ezkutuan zegoen mundu abertzalea azalera atera zen pixkanaka: hala nola Euskal Herriaren historia, hizkuntza eta kultura. Aldi berean, abertzaletasunaren tradizio erlijiosotik urrundu eta akonfesionaltasuna eta herriaren eskubide sozioekonomikoak bere eginda, estrategia iraultzailearen formulaziora iritsi zen. ETAk ekarri zuen unibertso ideologikoak mentalitate aldaketa inplikatu zuen belaunaldi

berrian: testuinguruaren aldaketetara egokitutako euskal mundu (abertzale eta euskaldun) berri bat.

- Fenomeno sozial zabala bezain sustraitua bihurtu zen ETA mugimendua Euskal Herrian. Euskal nazio sozialista iraultzailea helburu, harreman sare aktiboa antolatu zuen bere inguruan. Euskal nazioa eraiki ahal izateko proiektu integrala itxuratzen jardun zuen ETAk eta, horretarako, nazio eraikuntzarako ezinbestekoak zitzaizkion esparru politikora, kulturalera, sozialera, eta militarra bideratu zuen bere inguruan ehundutako sare sozial hura. ETA mugimenduaren harreman sarea ikertuta ondoriozta dezakegu esparru sozial anitzetako agenteek parte hartu zutela bertan eta ETA mugimenduko kideek harreman zuzena eta aberatsa izan zutela garaiko euskara eta euskal kultura biziberritzeko mugimenduarekin eta langile mugimenduarekin.
- ETAREN diskurtsoari bagagozkio, ondorioztatu dugu ordura arteko abertzaletasunaren oinarriekin zerikusirik ez zuen nazio ikuskera ekarri zuela ETAK: alegia, nazio askapena eta askapen soziala uztartzen zituen eta uztarketa hura estrategia iraultzailean ardazten zuena. Bere printzipioak Euskal Herriaren errealitatera egokitu ahala, betiere emeki-emeki, urrundu egin zen abertzaletasun etnikoaren ikuspegitik. Zenbaitetan hala mugimenduko kideek nola erakundeko komandoetako kideek ETAREN argitalpenen eta barne eztabaiden kontzientzia osorik ez zutela ondorioztatu badugu ere, ikusi dugu ETAREN diskurtsoak mugimendua mobilizatzeko gaitasuna izan zuela: hots, oinarrizko printzipio, ideia eta xede jakin batzuk zehaztu eta mugimenduak helburu horien arabera jardutea lortu zuela.
- EAJren inguruko mugimenduarekin izan zituen antzekotasun eta ezberdintasunei begira, berriz, ondorioztatu dugu interes oso ezberdinak ordezkatu bazituzten ere, eta euskal nazioaren existentzia oso oinarri ezberdinetan pausatu bazuten ere, Euskal Herria askatzeko helburuak, neurri batean, emaitza berdintsura bideratu zituela EAJ eta ETA: hots, biek ala biek gune sozial mikro moduko bat mobilizatzea lortu zuten beren inguruan.

Estatu tresnarik gabeko Euskal Herria garatzeko hor ikusi baitzuten aukera bakarra: herriaren parte hartzean oinarritutako proiektu abertzalea garatzean, alegia.

Orain arte esandakoari ondorio orokor bat gehituko diogu bukatzeko. Ikerketa honetarako egin ditugun elkarrizketetan aurkitu dugun mezu bat ekarriko dugu hona. ETA mugimenduak 50eko eta 60ko Euskal Herrian bete zuen funtzioa argitzeko balio bailiezaguke: tren-makina abian jartzeko ikatzarekin parekatu dute ETA. Herria murgildurik zegoen axolagabekeria hausteko eta lozorrotik berpizteko funtzioa izan zuela. *Lurrikara* moduko bat izan zela Euskal Herriaren historiaren bilakaeran euskal jendarteko esparru guztietan eragin baitzuen, aldez edo moldez, eta tradizioa iraultzeko *kondizioa* izan baitzen neurri handi batean.

VI. Bibliografia

- Ajangiz, R. eta Barcena I. (2001). *Euskal Herriko gizarte mugimenduak*. Bilbo: Deustoko Unibertsitatea.
- Albite, P. (1999). *Sociedad vasca y construcción nacional*. Donostia: Tercera Prensa.
- Alcedo, M. (1996). *Miliar en ETA. Historias de vida y muerte*. Donostia: R&B.
- Amezaga, J. (1995). *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*. (Doktore tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Amurrio, M. (1995). Jenero kontzeptuaren inguruko hausnarketak. *Uztaro*, 13, 89-98.
- Amurrio, M. (2003). *Genero, nazio eta nazio hezkuntza: ikastoletako irakasleria*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Anaut, D. (2013). *Euskararen kate hautsiak: hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa.
- Anderson, B. (1993). *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica [lehen argitalpena, ingelesez, 1983an].
- Apalategi, J. (1979). *Los vascos, de la nación al estado: PNV, ETA, Enbata*. Donostia: Elkar.
- Apalategi, J. (1985). *Los vascos, de la autonomía a la independencia. Formación y desarrollo del concepto de la nación vasca*. Donostia: Txertoa.
- Apalategi, J. (1992a). *Movimientos sociales y nacionalismo*. Gasteiz: Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua.
- Apalategi, J. (1992b). *Sociología de una nación en movimiento*. Gasteiz: Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua.
- Arana Goiri, S. (1978). *Obras escogidas. Antología política*. Donostia: Haranburu.
- Arana Goiri, S. (1980). *Obras completas*. Donostia: Sendoa.
- Aretxaga, B. (1988). *Los funerales en el nacionalismo radical vasco: ensayo antropológico*. Donostia: Baroja.

- Armstrong, J. A. (1982). *Nations Before Nationalism*. Chapel Hill: University of North Carolina Press.
- Artetxe, K. (2011). *Euskara unibertsitatera bidean: eragileak eta proiektuak (1939-1990)*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Artze, J. A., Knörr, G., Beloki, J. R., Lete, X., Iriondo L. eta Zubizarreta, I. (1977). Euskal kanta berria, *Jakin*, 4, 1-111.
- Azumendi, J. F. (2012). *PNV-ETA, crónica oculta (1960-1979)*. Donostia: Ttarttalo.
- Azurmendi, J. (1979). *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa*. Donostia: Hordago.
- Azurmendi, J. (1998). *Oraingo gazte eroak. Gogoetak ETAREN sorrera inguruko kultur giroaz eta gaurkoaz*. Irun: Luma.
- Azurmendi, J. (2007). *Volksgeist herri gogoia: ilustraziotik nazismora*. Donostia: Elkar.
- Azurmendi, J. (2010). Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok. In L. Agirre, *Hegats*, 45, 183-214.
- Azurmendi, J. (2014). *Historia, arraza, nazioa: Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk*. Donostia: Elkar.
- Azurmendi, J. (Ed.) (1998). *Hizkuntza eta talde nortasuna*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Barcena, I., Ibarra, P. eta Zubiaga, M. (1995). *Nacionalismo y ecología. Conflicto e institucionalización en el movimiento ecologista vasco*. Madrid: Los Libros de la Catarata.
- Basterretxea, I., Aldekoa-Otalora, A., Gorostiaga, I. eta Juaristi P. (1997). *Euskal alfabetzatzearen historia zenbait sortzailearen ahotan (1960-1990)*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Baxok, E. (Ed.) (2006). *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Beltran, M. (1982). La realidad social como realidad y apariencia. *REIS*, 19, 27-53.
- Beltza [Lopez Adan, E.] (1976). *Nacionalismo vasco y clases sociales*. Donostia: Txertoa.
- Beltza [Lopez Adan, E.] (1977). *El nacionalismo vasco en el exilio, 1937-1960*. Donostia: Txertoa.

- Beltza [Lopez Adan, E.] (1978). *Del carlismo al nacionalismo burgués*. Donostia: Txertoa.
- Beobide, I. (2010, azaroak 27): Euskara izan zen Jarrai sortzeko lehen arrazoia. *Berria*. Hemendik hartua: https://www.google.fr/search?q=Frankismoko+urteetan+kulturgintzako+arlo+ia+guztietan+aritu+zen+sustatzaile+lanetan+I%C3%B1aki+Beobide&ie=utf-8&oe=utf-8&gws_rd=cr&ei=ymU8Vo_OA4KQabuBk-gG
- Biglia, B. (2012). Corporeizando la epistemología feminista: investigación activista feminista. In M. Liévano eta M. Duque (Ed.), *Subjetivación femenina: investigación, estrategias y dispositivos críticos* (195-229 or.). Mexiko: Universidad Autónoma de Nuevo León.
- Billig, M. (1995). *Banal Nationalism*. Londres: Sage.
- Bourdieu, P. (1991). *El sentido práctico*. Madril: Taurus Humanidades [lehen argitalpena, frantsesez, 1980an].
- Bourdieu, P. (1996). *Cosas dichas*. Bartzelona: Gedisa [lehen argitalpena, frantsesez, 1987an].
- Bourdieu, P. (1997). *Razones prácticas. Sobre teoría de la acción*. Bartzelona: Anagrama [lehen argitalpena, frantsesez, 1994an].
- Bourdieu, P. (1999). *La miseria del mundo*. Madril: Akal [lehen argitalpena, frantsesez, 1993an].
- Bourdieu, P. (2000a). *Cuestiones de sociología*. Madril: Istmo [lehen argitalpena, frantsesez, 1984an].
- Bourdieu, P. (2000b). *Poder, derecho y clases sociales*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- Brass, P. (1991). *Ethnicity and Nationalism. Theory and comparison*. Londres: Sage.
- Breuilly, J. (1990). *Nacionalismo y Estado*. Madril: Pomares [lehen argitalpena, ingelesez, 1982an].
- Breuilly, J. (2008). Introducción. In E. Gellner, *Naciones y nacionalismo* (11-62 or.). Madril: Alianza.
- Brubaker, R. (1992). *Citizenship and Nationhood in France and Germany*. Cambridge: Harvard University Press.

- Brubaker, R. (1996). *Nationalism Reframed: Nationhood and the National Question in the New Europe*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Bruni, L. (1995). *ETA. Historia política de una lucha armada*. Tafalla: Txalaparta.
- Bullain, I. (2011). *Revolucionarismo patriótico. El Movimiento de Liberación Nacional Vasco (MLNV): origen, ideología, estrategia y organización*. Madril: Tecnos.
- Butler, J. (2015). *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*. Bartzelona: Paidós.
- Camino, I. eta Gezala, L. (1991). *Juventud y nacionalismo vasco. Bilbao (1901-1937)*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- Caro Baroja, J. (1971). *Los vascos*. Madril: Istmo.
- Caro Baroja, J. (1998). *Ser o no ser vasco*. Madril: Espasa Calpe.
- Carr, E. H. (1945). *Nationalism and After*. New York: Palgrave MacMillan.
- Casanova, I. (2007). *ETA. 1958-2008: medio siglo de historia*. Tafalla: Txalaparta.
- Castells, L. (Ed.) (2006). *Del territorio a la nación: identidades territoriales y construcción nacional*. Bartzelona: Biblioteca Nueva.
- Castells, M. (2002). *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. El poder de la identidad* (2. liburukia). Madril: Alianza [lehen argitalpena, ingelesez, 1997an].
- Clark, R. P. (1984). *The Basque insurgents. ETA, 1952–1980*. Madison: The University of Wisconsin Press.
- Connor, W. (1978). A Nation is a Nation, Is a State, Is an Ethnic Group, Is a... *Ethnic and Racial Studies* 1, (4), 379-388. Hemendik hartua <http://www.bxscience.edu/ourpages/auto/2011/11/10/45820232/a%20state%20is%20a%20state.pdf>
- Connor, W. (1998). *Etnonacionalismo*. Madril: Trama [lehen argitalpena, ingelesez, 1994an].
- Conversi, D. (1990). Language or race? The choice of core values in the development of Catalan and Basque nationalism. *Ethnic and Racial Studies*, 13 (1), 50-70.
- Conversi, D. (1997). *The Basques, the Catalans and Spain: alternative routes to nationalist mobilisation*. Londres: Hurst & Co.

- Corcuera, J. (1979). *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*. Madrid: Siglo XXI.
- Corcuera, J. (1991). *Política y Derecho. La Construcción de la Autonomía Vasca*. Madrid: Centro de Estudios Constitucionales.
- Corcuera, J. (2001). *La patria de los vascos: orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1903)*. Madrid: Taurus.
- Cortes, G. (1997). Confiabilidad y validez en estudios cualitativos. *Educación y Ciencia. Revista de la Facultad de Educación de la Universidad Autónoma de Yucatán*, 1 (1), 77-82.
- Cruz, M. (2002). *¿Hacia dónde va el pasado?* Bartzelona: Paidós.
- Davant, J. L. (2005). El pre-nacionalismo vasco. In M. Goyhenetche (Ed.), *Historia general del País Vasco. A las puertas de la sociedad moderna III (477-483 or.)*. Donostia: Ttartalo.
- De la Encina y Perez de Onraita, R. (2004). *Poder y comunidad: una sociología del nacionalismo*. Iruña: Pamiela.
- De la Granja, J. L. (1999). Introducción. In S. De Pablo, L. Mees eta J. A. Rodríguez Ranz, *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco (1. liburukia)*. Bartzelona: Crítica.
- De la Granja, J. L. (2000). *El nacionalismo vasco (1876-1975)*. Madrid: Arco Libros.
- De Pablo, S., Mees, L., Rodríguez Ranz, J. A. (1999). *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco (2 liburuki)*. Bartzelona: Crítica.
- De Pablo, S., Mees, L., Rodríguez Ranz, J. A. (2005). *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco: 1895-2005*. Bartzelona: Crítica.
- Del Valle, T. (1985). *Mujer vasca: imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos.
- Deutsch, K. W. (1966). *Nationalism and social communication: an inquiry into the foundations of nationality*. Cambridge: MIT Press [lehen argitalpena, ingelesez, 1953an].
- Doménech, M. eta Ibáñez, T. (1998). La Psicología Social como crítica. *Anthropos*, 177, 12-21.
- Douglass, W. A. (2004). Sabino's sin. Racism and the founding of Basque nationalism. In D. Conversi (Ed.), *Ethnonationalism in the contemporary*

- world. Walker Connor and the study of nationalism (95-112 or.). Londres: Routledge.
- Durkheim, E. (1984). *Las reglas del método sociológico*. Madril: Morata.
- Eginhardo (1999). *Vida de Carlomagno*. Madril: Gredos.
- Elorza, A. (1978). *Ideologías del nacionalismo vasco: (de los “euskaros” a Jagi Jagi), 1876-1937*. Donostia: L. Haranburu.
- Elorza, A., Garmendia, J. M., Jauregi, G., Dominguez, F. (2000). *La historia de ETA*. Madril: Temas de Hoy.
- Epelde, E., Aranguren, M. eta Retolaza I. (2015). *Gure genealogia feministak: Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*. Andoain: Emagin.
- Euskaltzaindia (1977). *El libro blanco del euskara*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fernandez, I. (1994). *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*. Bilbo: UEU.
- Finlayson, A. (1998). Ideology, Discourse and Nationalism. *Journal of Political Ideologies*, 3 (1), 99-118.
- Foucault, M. (2005). *Vigilar y castigar. Nacimiento de la prisión*. Madril: Siglo XXI.
- Fusi, J. P. (1979). *El problema vasco en la II República*. Madril: Turner.
- Fusi, J. P. (1984). *El País Vasco. Pluralismo y nacionalidad*. Madril: Alianza.
- Fusi, J. P. (2003). *La patria lejana. El nacionalismo en el siglo XX*. Madril: Taurus.
- Garmendia, J. M. (1996). *Historia de ETA*. Donostia: Haranburu-R&B.
- Gat, A. eta Yakobson, A. (2014). *Naciones. Una nueva historia del nacionalismo*. Bartzelona: Crítica.
- Gellner, E. (1993). *Cultura, identidad y política: nacionalismo y los nuevos cambios sociales*. Bartzelona: Gedisa.
- Gellner, E. (1994). *Encuentros con el nacionalismo*. Madril: Alianza.
- Gellner, E. (1998). *Nacionalismo*. Bartzelona: Destino.
- Gellner, E. (2008). *Naciones y nacionalismo*. Madril: Alianza [lehen argitalpena, ingelesez, 1983an].
- Gellner, E. (2009). *Nazioak eta nazionalismoa*. Bilbo: Klasikoak [lehen argitalpena, ingelesez, 1983an].

- Gezala, L. (1995). *El pensamiento de Sabino Arana y Goiri a través de sus escritos. Antología de textos 1893-1903*. Bilbo: Euzko Alderdi Jeltzalea.
- Giddens, A. (1995). *Modernidad e identidad del yo*. Barcelona: Península.
- Goienetxe [Goyhenetche], M. (2005). *Historia general del País Vasco. A las puertas de la sociedad moderna III*. Donostia: Txarttalo.
- Gudari [Gallastegi, E.] (1993). *Por la libertad vasca*. Tafalla: Txalaparta.
- Guibernau, M. (1998). *Los nacionalismos*. Barcelona: Ariel.
- Gurrutxaga, A. (1996). *Del PNV a ETA: la transformación del nacionalismo vasco*. Donostia: R&B.
- Hamilton, C. (1998). Género y Nacionalismo. Un nuevo área de estudio. *Inguruak*, 22, 163-174.
- Hamilton, C. (2007). *Women and ETA: the gender politics of radical Basque nationalism*. Manchester: Manchester University Press.
- Haraway, D. (1995). *Ciencia, cyborg y mujeres. La reinención de la naturaleza*. Madrid: Cátedra.
- Harding, S. (Ed.) (1987). *Feminism & Methodology*. Indiana: Indiana University Press.
Hemendik hartua <http://rzukausk.home.mruni.eu/wp-content/uploads/harding.pdf>
- Hastings, A. (2000). *La construcción de las nacionalidades. Etnicidad, religión y nacionalismo*. Madrid: Cambridge University Press.
- Hechter, M. (2001). *Containing Nationalism*. Oxford: Oxford University Press.
- Heiberg, M. (1991). *La formación de la nación vasca*. Madrid: Arias Montano.
- Hobsbawm, E. (1995). *Naciones y nacionalismo desde 1780*. Barcelona: Crítica [lehen argitalpena, ingelesez, 1990ean].
- Hobsbawm, E. eta Ranger, T. (Ed.) (2002). *La invención de la tradición*. Barcelona: Crítica [lehen argitalpena, ingelesez, 1983an].
- Hordago, E. de (1979). *Documentos Y* (18 liburuki). Donostia: Lur.
- Hutchinson, J. eta Smith, A. (Ed.) (1996). *Ethnicity*. Oxford: Oxford University Press.
- Ibarzabal, E. (1978). *50 años de nacionalismo vasco, 1928-1978*. Donostia: Ediciones Vascas.

- Idigoras, J. (1999). *El hijo de Juanita Gerrikabeitia*. Tafalla: Txalaparta.
- Intxausti, J. (Ed.) (1998). *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Iraola, I. (2012). *Euskal nazionalismoaren diskurtsoa gaur egungo immigrazioaren aurrean*. (Doktore tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.
- Iraola, I., Mateos, T. eta Zabalo, Julen (2011). Discursos sobre la integración. La inmigración al País Vasco en los años 1950-1970., *RIPS*, 10, 115-130.
- Iztueta, P. (1996). *Intelligentsia kimatuaren orbekak*. Donostia: Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa.
- Iztueta, P. (2000). *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Iztueta, P. (2003). Identitate kultura eta boterea. *Uztaro*, 47, 97-110.
- Iztueta, P. eta Apalategi, J. (1977). *El marxismo y la cuestión nacional vasca*. Zarautz: Itxaropena.
- Jackson G. (2005). *La República española y la guerra civil*. Bartzelona: RBA.
- Jauregi [Jauregui], G. (1981). *Ideología y estrategia política de ETA: análisis de su evolución entre 1959 y 1968*. Madril: Siglo XXI.
- Jelen, I. (2011). Forming new national identities: a retrospective. *National Identities*, 13 (4), 379-388.
- Jenkins, K. (1991). *Repensar la historia*. Madril: Siglo XXI.
- Jeram, S. eta Conversi, D. (2014). Deliberation and Democracy at the End of Armed Conflict: Post-conflict Opportunities in the Basque Country. In J.E. Ugarriza eta D. Caluwaerts (Ed.), *Democratic Deliberation in Deeply Divided Societies. From Conflict to Common Ground* (53-72). Basingstoke, Hampshire/New York: Palgrave Macmillan.
- Jimeno Jurio, J. M. (1997). *Navarra. Historia del Euskera*. Tafalla: Txalaparta.
- Kedourie, E. (1988). *Nacionalismo*. Madril: Centro de Estudios Constitucionales [lehen argitalpena, ingelesez, 1960an].
- Kizkitza [Arantzadi, E.] (2015). *La nación vasca*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea. [lehen argitalpena 1918an].

- Kohn, H. (1949). *Historia del nacionalismo*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- Kortadi, E. (1993). *Arantzazu, tradizioa eta abangoardia*. Donostia: Gipuzkoako Diputazioa.
- Krutwig, F. (1963). *Vasconia*. In F. Krutwig (1979). *La Nueva Vasconia*. Donostia: Ediciones Vascas.
- Krutwig, F. (1979). *La Nueva Vasconia*. Donostia: Ediciones Vascas.
- Landaburu, F. J. (1977). *La causa del Pueblo Vasco (Razones de una actitud, posibilidades de actuación)*. Bilbo: Geu.
- Larrinaga, A. (2012). Kultura estatu eraikuntzan: estatua proiektu sinboliko gisa. In Ipar Hegoa Fundazioa, *Euskal Estuari bidea zabaltzen: herritartasuna eta kultura* (85-99). Ipar Hegoa Fundazioa eta UEU.
- Larrinaga, A. eta Amurrio, M. (2016). The Ethno-linguistic Movement and Linguistic Self-determination in Euskara. In P. Ibarra eta A. Kolas (Ed.), *Basque nationhood: Towards a Democratic Scenario* (83-120 or.). Oxford: Peter Lang.
- Larronde, J. C. (1977). *El nacionalismo vasco: su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*. Donostia: Txertoa.
- Larronde, J. C. (2005). La aparición del nacionalismo vasco. In M. Goyhenetche (Ed.), *Historia general del País Vasco. A las puertas de la sociedad moderna III* (485-493 or.). Donostia: Tarttalo.
- Letamendia, F. (1975). *Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*. Paris: Ruedo Iberico.
- Letamendia, F. (1976). *Los vascos: ayer, hoy y mañana*. Hendaia: Mugalde.
- Letamendia, F. (1994). *Historia del nacionalismo vasco y de ETA. ETA en el Franquismo (1951-1976)*. Donostia: R&B.
- Lilli, J. (1994). Basques, Catalans, Primordialism and violence. *Eusko Ikaskuntza, Historia-Geografia*, 22, 323-358.
- Lizarraga, B. (Ed.) (1990). *Alfabetatzea Euskal Herrian (1960-1990)*. *Kronika laburra*. Bilbo: Letrakit.
- Lizundia, J. L. (1990). Bizkaiko Alfabetatzea. In B. Lizarraga, (Ed.), *Alfabetatzea Euskal Herrian (1960-1990)*. *Kronika laburra*. Bilbo: Letrakit.

- Llobera, J. R. (1996). *El dios de la modernidad. El desarrollo del nacionalismo en Europa occidental*. Barcelona: Anagrama.
- Lopez Romo, R. (2010). *Nuevos movimientos sociales en el País Vasco de la Transición, 1975-1980*. (Doktore tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, [s.n.].
- Lopez Vidales, N. (1997). *El discurso político del MLNV: evolución, mantenimiento y reproducción del discurso nacionalista vasco radical*. (Doktore tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, [s.n.].
- Lorenzo Espinosa, J. M. (1993). *Txabi Etxebarrieta: armado de palabra y obra*. Tafalla: Txalaparta.
- Madariaga, I. (2014). *Egiari zor*. Donostia: Erein.
- Majuelo, E. (2011). Begirada sakon bat historiari Nafarroatik. *Larrun*, 157, 1-20.
- Mann, M. (1986). *The Sources of Social Power*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Martinez Montoya, J. (1999). *La construcción nacional de Euskal Herria: etnicidad, política y religión*. Donostia: Tarttalo.
- Mata Lopez, J. M. (1989). Notas para un análisis del discurso nacionalista radical. In Perez-Agote, A. (Ed.), *Sociología del Nacionalismo* (325-329). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Mata Lopez, J. M. (1993). *El nacionalismo vasco radical: discurso, organización y expresiones*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Mateos, T. (2000). *Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Mees, L. (1992). *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- Mendizabal, A. (1999). *La globalización. Perspectivas desde Euskal Herria*. Hondarribia: Hiru.
- Miranda, B. (1989). Identidad colectiva y reproducción simbólica. In A. Perez-Agote (Ed.), *Sociología del Nacionalismo* (247-251). Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Moulines, C. U. (2002). ¿Quién teme a la nación? Respuestas a Pereda, Velasco y Villoro. *Diánoia*, XLVII (48), 155-173.

- Moulines, C. U. (2008). *Manifestu nazionalista: are separatista ere esango nioke, estutuz gero*. Tafalla: Txalaparta [lehen argitalpena, espainolez, 2001ean].
- Mujika, G. (2004). *Gazte matxinada, inoiz kontatu gabeko historia*. Senpere: Xirika.
- Muro, D. (2008). *Ethnicity and Violence. The Case of Radical Basque Nationalism*. Abingdon: Routledge.
- Murua, I. (1997): Federiko Krutwigi ekarrizketa. *Jakin*, 101: 61-106.
- Nairn, T. (1979). *Los nuevos nacionalismos en Europa: la desintegración de Gran Bretaña*. Bartzelona: Península [lehen argitalpena, ingelesez, 1977an].
- Nuñez Seixas, X. M. (1998). *Movimientos nacionalistas en Europa, siglo XX*. Madril: Síntesis.
- Nuñez Seixas, X. M. (2008). Los nacionalismos subestatales, la unificación europea y el mito de la soberanía. Algunas reflexiones. *RIFP*, 31, 179-197.
- Nuñez, L. C. (1977). *Clases sociales en Euskadi*. Donostia: Txertoa.
- Nuñez, L. (koord.), Egaña, I., Amuriza, X., Naberan, J., Monzon, M... Esparza, J. M. (1993). *Euskadi eta askatasuna. Euskal Herria y la libertad (8 liburuki)*. Tafalla: Txalaparta.
- Odriozola, J. M. (2008). *Abertzaleak eta euskara. Edo nazio euskaldunaren gainbehera*. Donostia: Elkarlanean.
- Odriozola, J. M. (2011). *Estatu etnozidaren kontra. Edo jatorrizko hiztun-herriak nola, zergatik eta nork arrotzen dituen*. Donostia: Elkarlanean
- Odriozola, J. M. (2014). *Bortxaren kontakizunetik, kontakizunaren bortxara*. Tafalla: Txalaparta.
- Odriozola, O. eta Rodriguez, Z. (2015, ekaina). Women in the ETA: from Gender Discourse to Feminist Political Practices. *Pulling Together or Pulling Apart* kongresuan aurkeztutako txostena, Dublin, Irlanda.
- Özkirimli, U. (2010). *Theories of Nationalism A critical introduction*. New York: Palgrave MacMillan.
- Pereira, R. (2001). *La guerra desconocida de los vascos*. Tafalla: Txalaparta.
- Perez-Agote, A. (1986). *La reproducción del nacionalismo: el caso vasco*. Madril: Siglo XXI.

- Perez-Agote, A. (1989). Hacia una concepción sociológica de la Nación. In A. Perez-Agote (Ed.), *Sociología del Nacionalismo*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Perez-Agote, A. (1992). Introducción. In J. Cabrera, *La nación como discurso. La estructura del sistema ideológico nacionalista: el caso gallego*. Madrid: Siglo XXI.
- Perez-Agote, A. (2008). *Las raíces sociales del nacionalismo vasco*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Perez-Agote, A. (Ed.) (1987). *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*. Madrid: Siglo XXI.
- Poulantzas, N. (1979). *Estado, poder y socialismo*. Madrid: Siglo XXI.
- Recalde Díez, J.R. (1982). *La construcción de las naciones*. Madrid: Siglo XXI.
- Renan, E. (2004). *Zer da nazioa?* Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Rocher, G. (1990). *Introducción a la sociología general*. Barcelona: Herder.
- Rubert de Ventos, X. (1994). *Nacionalismos. El laberinto de la identidad*. Madrid: Espasa-Calpe.
- Rubiralta Casas, F. (2000). Nazionalismo erradikal berria (1959-1974): Galizia, Katalunia eta Euskadiko kasuen ikerketa konparatzailea. *Uztaro*, 32, 103-116.
- Ruiz Olabuenaga, J. I. eta Blanco, M. C. (1994). *La inmigración vasca. Análisis trigeracional de 150 años de inmigración*. Bilbo: Deustoko Unibertsitatea.
- Ruiz Urrestarazu, E. (1995). Mapak. Mugaketa administratiboa, udalak eta komarkak, komunak eta kantoiak. In G. Meaza Rodriguez (Ed.), *Eusko lurra (Erliebea)*, 2. alea. Donostia: Etor.
- Sarasola, I. (1971). *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Lur.
- Saratxo, M. (2013). Gerra iraultzailetik nazionalismo iraultzailera. Nazio-arazoaren eta biolentziaren inguruko hausnarketaren garapena ETAn (1958-1970). *Uztaro*, 87, 93-110.
- Sarrionandia, J. (2010). *Moroak gara behelaino artean?* Iruña: Pamiela.
- Schermerhorn, R. (1978). *Comparative ethnic relations. A framework for theory and research*. New York: Random.

- Shafir, G. (1995). *Immigrants and Nationalists. Ethnic Conflict and Accommodation in Catalonia, the Basque Country, Latvia, and Estonia*. Albany: State University of New York Press.
- Simon, M. E. (2010). *La igualdad también se aprende. Cuestión de coeducación*. Madrid: Narcea.
- Smith, A. D. (1976a). *Las teorías del nacionalismo*. Barcelona: Península [lehen argitalpena, ingelesez, 1971an].
- Smith, A. D. (1986). State-making and Nation-Building. In J. Hall (Ed.), *States in History* (228-263. or.). Oxford: Blackwell.
- Smith, A. D. (1988). *The Ethnic Origins of Nations*. Oxford: Blackwell [lehen argitalpena, ingelesez, 1986an].
- Smith, A. D. (1995). *Nations and Nationalism in a Global Era*. Cambridge: Polity Press.
- Smith, A. D. (1997). *La identidad nacional*. Madrid: Trama [lehen argitalpena, ingelesez, 1991n].
- Smith, A. D. (2000). *Nacionalismo y Modernidad. Un estudio crítico de las teorías recientes sobre naciones y nacionalismo*. Madrid: Istmo [lehen argitalpena, ingelesez, 1998an].
- Smith, A. D. (2004a). *Nacionalismo. Teoría, ideología, historia*. Madrid: Alianza [lehen argitalpena, ingelesez, 2001ean].
- Smith, A. D. (2004b). *The antiquity of nations*. Cambridge: Polity Press.
- Smith, A. D. (2009). *Ethno-symbolism and nationalism: a cultural approach*. Abingdon/New York: Routledge.
- Solozabal, J. J. (1975). *El primer nacionalismo vasco*. Madrid: Tucar.
- Sudupe, P. (2011). *50eko hamarkadako euskal literatura* (3 liburuki). Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Tajfel, H. (1984). *Grupos humanos y categorías sociales. Estudios de psicología social*. Barcelona: Herder.
- Tarrow, S. (1994). *Power in movement: social movements, collective action and politics*. Cambridge: Cambridge University Press.

- Taylor, M. (1994). Action Research. In P. Banister, E. Burman, I. Parker, M. Taylor eta C. Tindall (Ed.), *Qualitative Methods in Psychology. A Research Guide* (108-120 or.). Buckingham: Open University Press.
- Tejerina, B. (1992). *Nacionalismo y lengua*. Madril: Siglo XXI.
- Tejerina, B. (1999). El poder de los símbolos. Identidad colectiva y movimiento etnolingüístico en el País Vasco. *REIS*, 88, 75-105.
- Tiryakian, E. A. (1989). *Nacionalismo, modernidad y sociología*. In A. Perez-Agote (Ed.), *Sociología del Nacionalismo* (143-161). Gasteiz: Eusko Jauriaritza.
- Todorov, T. (2010). *Nosotros y los otros. Reflexión sobre la diversidad humana*. Madril: Siglo XXI.
- Torrealdai, J. M. (1977). *Euskal Idazleak gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas*. Arantzazu, Oñati: Jakin.
- Txillardegui [Alvarez Enparantza, J. L.] (1984). *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981*. Donostia: Elkar.
- Txillardegui [Alvarez Enparantza, J. L.] (1994). *Euskal Herria helburu*. Tafalla: Txalaparta.
- Ugalde, M. (1979). *Conflicto lingüístico en Euskadi. Informe Siadeco*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Ugalde, M. (1993). *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Urzainki [Urzaingui], T. eta Olaizola, J. M. (1998). *La Navarra marítima*. Iruña: Pamiela.
- Van den Berghe, P. L. (1995). Does race matter? *Nations and Nationalism*, 1 (3), 357-368.
- Van Dijk, T. A. (1998). *Ideología. Una aproximación multidisciplinaria*. Barcelona: Gedisa.
- Vilar, P. (1982). *Hidalgos, amotinados y guerrilleros. pueblo y poderes en la historia de España*. Barcelona: Crítica.
- Weber, M. (2007). *Politika eta zientzia lanbide*. Bilbo: Klasikoak.
- Yuval-Davis, N. (2004). *Género y nación*. Lima: Centro de la Mujer Peruana Flora Tristán [lehen argitalpena, ingelesez, 1997an].

- Zabalo, J. (1996). *Euskal nazionalismoa eta nazio lurraldea*. Bilbo: UEU.
- Zabalo, J. (1998). Euskal nazionalismo motak -nazioaren ikuskeraren arabera-. *Uztaro*, 26, 27-46.
- Zabalo, J. (2000). *Abertzaleak eta ezkertiarak*. Donostia: Elkarlanean.
- Zabalo, J. (2004). ¿Es realmente cívico el nacionalismo catalán y étnico el vasco? *Papers*, 72, 67-85.
- Zabalo, J. (2006). Nacionalismo vasco. el discurso teórico sobre la nación y su readecuación en la práctica. *RIPS*, 5 (1), 83-94.
- Zabalo, J. (2008). Basque nationalism's changing discourse on the nation. *Social Identities*, 14 (6), 795–811.
- Zabalo, J., Basterra, I., Iraola, I., Mateos, T. (2010). *Etorkinak eta integrazioa. 50-80ko hamarkadetako etorkinen integrazio moduak Hego Euskal Herrian*. Bilbo: GITE-IPES.
- Zizek, S. (2010). *El sublime objeto de la ideología*. Madril: Siglo XXI.
- Zubiri, H. (2011). Ibilbide akademiko-profesionalak prekarizazio estratifikatuaren garaian: meritokrazia auzitan. (Doktore tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, [s.n.].
- Zulaika, J. (1982). *Itziar: the cultural context of Basque political violence*. [s.n.].

VII. Eranskinak

1. eranskina: Ekinek eta ETAk 1952 eta 1968 urteen artean argitaratu zituzten koadernoen zerrenda

Ekinen koadernoetan (1952-1958) honako lan hauek berreskuratu eta bildu zituen Hordago taldeak (1979, 1, 76-109 or.):

- Fueros-Leyes.
- La Federación Europea.
- Normas generales.
- Un bosquejo de la historia vasca hasta 1512.
- Moral de resistencia nacional.
- Fueros-instituciones.
- Euskera y patriotismo vasco.

Liburu Zurian honako lan hauek bildu zituen ETAk 1960-1961 urteetan (Hordago, 1979, 1, 148-298 or.):

- Normas de seguridad.
- Nuestra responsabilidad.
- Métodos de acción (Comunismo-J.O.C.).
- Moral de resistencia nacional.
- Resurgimientos nacionales: Tunez-Irlanda.
- Presente y futuro político, económico y social de Euzkadi.
- Posición personal respecto al euskera.
- Personalidad nacional y patriotismo.
- Programa social y derechos sociales.
- *Liburu Zuriaren eranskina (Hordago, 1979, 1, 300-326).*

Ekinen koaderno batzuk eta Liburu Zuriko beste batzuk berreskuratu zituen gero ETAk eta berak sortutako material berriarekin batera, ETAREN koadernoak deitutako testuak argitaratu zituen 1962tik 1964ra bitartean⁴³⁰. Honako lan hauek jaso zituen Hordago taldeak (1979, 2, 52-227 or.):

- Nabarra, estado independiente.
- Orígenes.
- Instituciones políticas vascas.
- Principios político-constitucionales.
- Fueros Leyes.
- Literatura vasca.
- Arana-Goiri (I).
- Arana-Goiri (II); su doctrina.
- La Universidad vasca.
- Carlismo y fuerismo.
- La democracia y los derechos del hombre.
- Moral de resistencia nacional.
- Nuestra responsabilidad.
- Euskera y patriotismo vasco.
- Iglesia y Estado.
- Franquismo y falangismo.
- Los Estatutos y el gobierno vasco.
- Liberación nacional y liberación social.
- Democratización de la cultura.
- Marxismo.
- Comunismo.
- Economía de Euzkadi.

⁴³⁰ Guztira 26 koaderno argitaratu zituen ETAk (Casanova, 2007, 39 or.).

2. eranskina: ETAREN nazio diskurtsoa aztertzeko kategoriak⁴³¹

Ekin-ETAren trantsizioko diskurtsoa 1952-1962	ETAren errotze-aldiko diskurtsoa 1962-1968
Sustrai historikoen bilaketa	Sustrai historikoen bilaketa
Europar Federazioaren ikuskera	Tesi antikolonialista
Nazio erresistentziaren erantzukizuna	Abertzaleen Batasuna eta masa abertzaletasuna sustatzeko diskurtsoa
Segurtasun-arauak	Estrategia iraultzailea
Abertzaletasuna, nazio nortasuna eta euskara	Nazio askapena
Ekintza-metodoak	Estrategia iraultzailea
Nazio mugimenduekiko interesa	Tesi antikolonialista
Euskal Herriarentzako eredu politiko, ekonomiko eta soziala	Askapen soziala
	Immigrazioari buruzko diskurtsoa
Akonfesionaltasuna	Akonfesionaltasuna eta eliza-hierarkiari kritika
	Genero diskurtsoa
	Ipar Euskal Herriari buruzko diskurtsoa
	Elite intelektualari buruzko diskurtsoa

⁴³¹ Ekin-ETAren trantsizioko diskurtsoaren eta ETAren errotze-aldiko diskurtsoaren arteko harremana islatu nahi izan dugu taula honetan.

3. eranskina: ETA mugimendua aztertzeko kategoriak⁴³²

ETAren errotze-aldiko diskurtsoa 1962-1968	ETA mugimendua
Akonfesionaltasuna eta eliza-hierarkiari kritika	ETA mugimenduko apaizen sarea eta mugimenduaren akonfesionaltasuna
Sustrai historikoen bilaketa	ETA mugimenduko kideen kontzientzia politikoa
Nazio askapena	ETA mugimenduaren eta euskara/euskal kultura sustatzeko mugimenduaren arteko harremana
Askapen soziala	ETA mugimenduaren eta langile mugimenduaren arteko harremana
Estrategia iraultzailea	ETAren fronte militarren inguruko sarea
Abertzaleen Batasuna eta masa abertzaletasuna sustatzeko diskurtsoa	Masa abertzaletasunaren susperraldia eta Fronte Abertzalea
Genero diskurtsoa	ETA mugimenduko emakumezkoen militantzia
Immigrazioari buruzko diskurtsoa	ETA mugimenduaren eta langile mugimenduaren arteko harremana
Tesi anticolonialista	ETAren fronte militarren inguruko sarea
Ipar Euskal Herriari buruzko diskurtsoa	ETA mugimenduaren eta Ipar Euskal Herriko abertzaleen arteko harremana
Elite intelektualari buruzko diskurtsoa	ETA mugimenduko apaizen sarea eta mugimenduaren akonfesionaltasuna

⁴³² ETAren errotze-aldiko diskurtsoaren eta ETA mugimenduaren arteko harremana islatu nahi izan dugu taula honetan.

4. eranskina: Elkarrizketatuen identifikazio-zenbakia eta profila**1. elkarrizketatua:**

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	Apaizen sareko eta kultura mugimenduko kidea eta ETAREN laguntzailea
Jaiolekua eta bizilekua	Bizkaia
Generoa	Gizonezkoa

2. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	Kultura mugimenduko kidea eta ETAREN laguntzailea
Jaiolekua eta bizilekua	Gipuzkoa
Generoa	Emakumezkoa

3. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	ETAREN sortzailea eta ETAKO militantea
Jaiolekua eta bizilekua	Bizkaia eta Lapurdi
Generoa	Gizonezkoa

4. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	ETAREN laguntzailea
Jaiolekua eta bizilekua	Bizkaia
Generoa	Emakumezkoa

5. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	ETAREN sortzailea eta ETAKO militantea
Jaiolekua eta bizilekua	Bizkaia
Generoa	Gizonezkoa

6. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	ETAKO militantea
Jaiolekua eta bizilekua	Araba eta Lapurdi
Generoa	Gizonezkoa

7. elkarrizketatua

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	Kultura mugimenduko kidea eta ETAREN laguntzailea
Jaiolekua eta bizilekua	Nafarroa Beherea eta Lapurdi
Generoa	Emakumezkoa

8. elkarrizketatua

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	Kultura mugimenduko kidea eta ETAREN laguntzailea
Jaiolekua eta bizilekua	Nafarroa Beherea eta Lapurdi
Generoa	Gizonezkoa

9. elkarrizketatua

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	Kultura mugimenduko kidea eta ETAREN laguntzailea
Jaiolekua eta bizilekua	Bizkaia eta Lapurdi
Generoa	Emakumezkoa

10. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	Kultura mugimenduko kidea eta ETAREN laguntzailea
Jaiolekua eta bizilekua	Gipuzkoa
Generoa	Gizonezkoa

11. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	ETAko militantea
Jaiolekua eta bizilekua	Gipuzkoa eta Nafarroa Beherea
Generoa	Gizonezkoa

12. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	ETAko militantea eta langile mugimenduko kidea
Jaiolekua eta bizilekua	Nafarroa
Generoa	Gizonezkoa

13. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan	Kultura mugimenduko kidea eta Ekin-ETAREN
----------------------	---

zuen inplikazioa	laguntzailea
Jaiolekua eta bizilekua	Gipuzkoa eta Lapurdi
Generoa	Emakumezkoa

14. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	Kultura mugimenduko kidea eta ETAREN laguntzailea
Jaiolekua eta bizilekua	Zuberoa eta Lapurdi
Generoa	Emakumezkoa

15. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	Apaiaren sareko kidea eta langile mugimenduko kidea
Jaiolekua eta bizilekua	Bizkaia
Generoa	Gizonezkoa

16. elkarrizketatua:

ETA mugimenduan izan zuen inplikazioa	ETAko militantea
Jaiolekua eta bizilekua	Gipuzkoa
Generoa	Gizonezkoa

